

## Euskaltzainak Bilduma

Argitaratuak:

1. *Gratien Adema*. Zaldubi  
Saindu batzuen biziaz. 2007
2. *Pierre Charritton*  
Pierre Broussain. 2007
3. *Pierre Lhande*  
Yolanda eta beste euskarazko idazlanak.  
2007
4. *Gratien Adema*. Zaldubi  
Artzain beltxaren neurtitzak. 2008
5. *Antonio Arrue*  
Idaztiak & Hitzaldiak. 2008
6. *Domingo Agirre*  
Gutun bilduma. 2008
7. *Txomin Peillen Karrikaburu*  
Biziaren Hiztegiak. 2009

*Euskaltzainak* izeneko bilduma berrian euskaltzain izan diren eta direnen obrak eta eurei buruzko azterketak argitaratuko dira, Akademiaren historiarako esanguratsu gertatu diren hainbat egileren lanak ere alboratu gabe.



**TXOMIN  
PEILLEN  
KARRIKABURU**



9 784954 38478



**Euskaltzaindia**  
Real academia de la lengua vasca  
Académie de la langue basque

Laguntzailea:



Office public de  
la langue basque

**BIZIAREN HIZTEGIAZ**




## **TXOMIN PEILLEN KARRIKABURU**

### **BIZIAREN HIZTEGIAZ**



**EUSKALTZAINAK BILDUMA**  
**EUSKALTZAINDIA**



TXOMIN PEILLEN KARRIKABURU

Txomin Peillen Karrikaburu Parisen sortu zen, 1932ko azaroaren 17an. Pariseko Sorbonne Unibertsitatean Biologia ikasketak burutu zituen. Biologia euskara irakasle izan zen. Letra eta Euskal Ikasketen doktoregoa egin zuen Bordeleko Unibertsitatean. Gaztetan Jon Mirande ezagutu zuen Parisen eta, horrek lagunduta, bere euskarazko lehen artikulua eta poesiak argitaratzen hasi zen hainbat aldizkaritan. Mirandekin sortu zuen gero Igela aldizkaria. 1962an idatzi zuen bere lehen eleberria, Amodiozko baratzetan izenekoa. Lehenbiziko ipuinak ere garai horretakoak dira: Azken inkesta, Tximinuaren segretua, Tristan ta Isolt. Gero liburu asko etorri ziren: ikerketa lan zein genero literario ugari landu ditu Peillenek, hala nola nobela, poesia, haurrentzako ipuinak, poliziakoak, itzulpenak. Ikerketa etnografikoa ere jorratu izan du: Animismoa Zuberoan eta Allande Elixagari Ligiarraren historiak lekuko. Bestalde, anatomiaren gaineko hiztegia kaleratu du, baita Latin-euskara hiztegia ere. Besteak beste, honakoak argitaratu ditu: *Itzal gorria* (1972), *Kristina Bolsward* (1991), *Alarguntsa beltza* (2001) eta hogeitabost ikerketa liburu euskaraz. Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen 1961. urtean eta euskaltzain oso 1988ko apirilaren 29an. Euskaltzaindiaren Onomastika eta Literatura Ikerketa batzordeetako kidea da. Lehendik ere Hiztegegintzan, Euskalkien Ikerketan edota Dialektologian jardun du. 2007ko azaroaren 30ean, euskaltzain emeritu izendatu zuen Euskaltzaindiak.





TXOMIN PEILLEN KARRIKABURU  
BIZIAREN HIZTEGIAZ

Peillen, Txomin (1932-)

Biziaren hiztegiak / Txomin Peillen Karrikaburu . – Bilbo : Euskaltzaindia, 2008. --  
(Euskaltzainak ; 7)

288 orr.; 24x17 cm.

ISBN: 978-84-95438-47-8

I. Euskaltzaindia. II. Euskaltzainak (Euskaltzaindia)

© Txomin Peillen Karrikaburu  
© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektronikoa edo mekanikoa, fotokimikoa, magnetikoa, elektrooptikoa, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Aurreinprimatzea: Ikur, S.A.  
Diseinua: Ikeder, S.L.  
Inprimatzea: Baster, S.L.L.

ISBN: 978-84-95438-47-8  
Lege-gordailua: BI-640-09

TXOMIN PEILLEN KARRIKABURU

# BIZIAREN HIZTEGIAZ

EUSKALTZAINDIA

BILBO  
2008



# AURKIBIDEA

Sarrera: Irakurleari .....IX

Bibliografia .....XIII

## I. PROTOEUSKARA ETA ARTEKO EUSKARA

1.1) Jendetaz hiztegia .....I

1.2) Animaliez eta zuhaitz belarrez .....I5

## II. SINESTE, TABU, SINBOLO

2.1) Sinesteak eta jende gorputza .....23

2.2) Gorputza mikrokosmoa, unibertsoa makrokosmoa ...30

## III. OSASUNA ETA BIZIA EUSKAL IDAZLE ZAHARRETAN

3.1) Axularren *Gero* .....35

3.2) J. A. Mogelen *Peru Abarka* (1800) .....38

## IV. HERRI LITERATURAN

4.1) Gaitzizenak .....39

4.2) Herri psikologiaren iturriak .....43

4.3) P. Topet Etxahun eta gorputza .....52

4.4) Zuberotar irri antzerkian medikuntza .....54

4.5) *Txikitoetan* pornografia .....58

## V. NOLAKO GORPUTZA LITERATURA JASOAN

5.1) Bernat Etxepare XVI. mendean .....61

5.2) XVII. mendean Arlande Oihenart .....62

5.3) Erotismoa eta pedofilia Jon Miranderengan .....63



## VI. HIZTEGI ZAHARRAK

- 6.1) *Linguae Cantabrigae...* (1562) N. Landucci .....71
- 6.2) Olabide S. J.ren *Giza soña*, 1917 .....73
- 6.3) Löppelman arrazistaren *Etymologisches wörterbuch des Baskischen Sprache* .....79

## VII. HIZTEGI OROKOR BAT SAILKATUA

- (a-tik z-araino alfabetoa jarraituz, erabilera arruntak, metoni-  
miak, metaforak, teknika eta jakintza hitzak) .....83

## VIII. JENDEEN ETA GAUZEN ITXURAK .....235

## IX. EUSKALKIAK

- 9.1) Arabako eta Bizkaiako gaztelanian euskararen  
hondarrak .....243
- 9.2) Erronkaria (iturri asko) .....250
- 9.3) Zuberera (egin nuen bilketa) .....257
- 9.4) *Arratetikuen bizketea*, Toribio Etxebarria .....269

## X. ONDORIO OROKORRAK .....275

Indexa / Hitz erabilienak sarreretan ere lerrokatuak .....281

## SARRERA: IRAKURLEARI

### Biziaren hiztegia, bizitzaren hiztegia

Zer hitz erabil dezake jendeak bere hizkuntzaren aberasteko, zer irudi, zer alderaketa? Euskaraz, beste mintzaira askotan bezala, baino indar gehiagoz, hiztegi arruntaren aberasteko eta teknika hiztegiaren aberasteko biologiaren hiztegiak baliatzen da.

Gure garmuinaren eta gure neuronen egiturek, agian, mugatuak garelako. Jendeok, zer nahi eginik ere, gure burua, gure bizia munduaren erdian lurraren zilborra bezala dakusagu. Gizakia mikrokosmoa da, mundu txikia, eta izadiaren ingurugiroa, eta jende ingurumena makrokosmoa. Hala, euskaldunek lurra andere bezala zakusaten eta Zeus, Jupiter eta Jainko Aita, gizon bizardun gisa.

Euskara, beharbada, ez da, beste hizkuntzen alderantziz, bere iturri zaharretarik gehiegi urrundu. Maiz, hitzen erroak aski argi dira gurean, ezen erromatar garaitik heldu zaizkigun hitz batzuk ez baitira gehiegi aldatu eta gaurko euskararekin uler baititzakegu eta denborarekin erabilerarekin ez dira hainbeste higatu hitzak. Begia, nagusi denez jendeak gauzak neurtzen eta erkatzen ditu begiz, lehenik irudiekin ibiliz. Ahoarekin mintzaira izena ipintzen saia-

tuko da eta denbora berean *Homo faber*, eskuekin lanean, ondoren buruarekin zerbait ikasten badu *Homo sapiens* izateko.

Hiztegi horretarik euskaldun zaharrek, biziaren hiztegitik abiatuz, munduaz zeukaten irudi bereziaren berpizten saiatuko naiz. Horretarako, lehenik hiztegi horren lekukotasun zaharrenak bildu-eta bilketa -II. mendetik, XV. menderarte hedatuko da. Ondotik, sinesteen eragina ikusiko dugu. Geroago, euskarazko literaturan nola ikusi den jendea; geroago nola biziaren hiztegiak geografiari matematikari, psikologiari, zuzenbideari eta beste jakituriei hitz asko eman dizkien. Azkenik, saiatuko naiz biologiaren hiztegitik abiatuz, eta euskalki batzuekin erakusten nola biziaren hiztegia hiztegi orokorraren iturri nagusi bat izan den.

### Xehetasunetan sartuz

1. Erromatar garaiko Lehen-Euskara edo *protovascotik* zerbait bildu dut. Hizkuntzaren ildo baten erakusteko, jende eta abereen hiztegia aipatuko dut, baita ahaidetasuna aipatzen zutenak, beraz ehun hitzetik goiti duela mila zortziehun, bi mila urteetakoak, bilduz eta gero Erdi Arokoak.

2. Historiaren bidetik zerbait esango dut euskaldun zaharrek eta gaurkook nola ikusten ditugun “gure buruak”, gure inguruneko abere animaliak eta ehizak. Eta nola sinestek eta tabuek hiztegian aztarnak utzi dituzten.

3. Herri literaturan eta literatura idatzian nola ikusten den bizia aztertutxeko dugu.

4. Orokorki eta sailka, biologiazko hitzak beren erabilera zuzen eta zehar-kakoekin, hitz eratorri eta hitz elkartuak. Besterik idazten ez dudanean hitza euskaldun gehienek ezagutua da eta euskara estandarrean erabilia; behar denean geografia oharra sar daiteke B. Bizkaia, G. Gipuzkoa, L. Lapurdi, Nb. Nafarroa Behera, Ng. Nafarroa Garaia, Z. Zuberoa. Gerta daiteke hitza ez dela probintzia batekoa, orduan mendebaldeko, erdialdeko, ekialdeko aipamenekin etorriko da.

Hiztegi arrunt orokorra ez da gauzetarik zuzenean sortzen, Gauzak ez dira mintzatzen baina jendeek soinu batekin edo biekin edo hiruekin oinarritzko gauzak eta gertaerak izenda ditzakete, baina hortik aurrera eta, Voltaireri gustaturik ala ez, metaforak erabili beharko dira. Frantsesa bezalako hirugarren eskuko indoeuropar hizkuntza higatuan, denborarekin, metafora ezin ikus daiteke eta horrela uste izaten da hitz abstraktuak badirela eta hitz konkretuak.

Euskarari askotan teknika hitzak eskas zituenean egotzi zaio hizkuntza barbaroa zela, eta abstrakziorako ez zela gai. Behin, Paueko arabar unibertsitari batek nire aurrean esan zuen, *¿Cómo se puede perder el tiempo escribiendo en un idioma que sólo tiene 200 palabras?* Erantzun nion, 1571.an Leizarraga gai izan zela *Testamentu Berriaren* euskarara itzultzeko eta ez erromantze erdiz, ezen zati

bat sudurraren aurrean ezartzen banion ez zuela ezer ulertuko. Gainera, laurhun urtez, Iparraldean bederen, euskararen lantzeko eta aberasteko astia hartu genuela. Horiek ziren Unamunokeriak. Ez al zuen esan bilbotarrak hegoaldeko egoera diglosikoaz konturatu gabe, euskaraz ez zela hitzik, “zuhaitz” esateko? Etorri balitz Zuberora bere “arbola” berbarekin askok ez zioten ulertuko: “manexez arbolak, haritza izan behar dik” esan zidan behin zuberotar andre batek. Erromantze hizkera harroak erabiltzen dituztenek oroitu behar lukete “anima” hitz abstraktua hatsa edo arnasa baizik ez dela latinez, eta irudi bidez, direla konkretutik abstraktura sortu hitzak, eta batzuetan bi ideien hurbiltzetik ere.

Euskal hiztegian bizitik hartu metafora ugari dago edota joera bat beste herrietan metafora bat daukatenean, guk bide horretarik hogeibat sortzea.

Hiztegiaren munduan bada zer gogoetatu, ezen ederki da hitz orokor eta zabalak edukitzea, baina hitz zehatza ere on da. Sarritan, euskaldunok ibili gara hitz batez esan nahiz erdaraz hitz batean dagoena, baina dakidanez perpaus batekin edo bi hitzekin esaten da frantsesez *irakaskuntza*, *irakasgai*, *irakastegi*, *irakastetxe*, *irakasbide* *irakasketa*, eta frantsesa ez da saiatu, beti, hitz batekin esaten, alderantziz guk ere jakin behar genuke, erdara horien menpetik irteteko, argiago izateko, adigai batzuk bi hitzez ematen euskainolezko hiztegi txarra erabili gabe.

Saiakera hau izan bedi hizkuntzaren ezagutzeko eta aberasteko bide bat. Hiztegi hau Bordelen 1981.an irakurri semantika tesiaren ondokoa da, orduan, L. Mitxelena, J. Haritschelhar, Jacques Allières, Julen Ajuriagerra, Pierre Lafitte, eta Ly anderea epaile nituelarik.

**Txomin Peillen**  
*euskaltzaina*



## BIBLIOGRAFIAKO ETA LANEKO LABURDUREZ

AGN sc. Archivo General de Navarra  
 ASJU Anuario del Seminario Julio de Urquijo  
 BAL Becerro Antiguo de Leyre  
 BMB Bulletin du Musée Basque  
 BRSVAP Boletín de la Real Sociedad de Amigos del País  
 FLV Fontes Linguae Vasconum  
 GAK Gipuzkoako Aurrezki Kutxa  
 RIEV Revista Internacional de Estudios Vascos  
 TAV Textos Arcaicos Vascos

## BIBLIOGRAFIA

### Morfologia eta semantikazkoak

- ALLIÈRES (Jacques), *Les Basques, Que sais-je?* P.U.F. Paris 1975.
- ALLIÈRES (Jacques), *Manuel pratique de basque*, Connaissance des langues, ed.Picard Paris, 1979.
- ALVAREZ ENPARANTZA "Larresoro" (Luis), *Sustrai bila*, Sendo bild., Irakursail arg., Donostia, 1970.
- ALVAREZ ENPARANZA "Txillardegí" (Luis), *Hizkuntza eta pentsakera*, ed.Etor, Bilbo, 1974.
- AMURIZA (Xabier), "Aurrizkiak", in *Euskera*, Bilbo, 1974, 9.o.tik 104. ra.
- AZKUE (Resurrección María de) *Morfología vasca*, Bilbo, 1933
- BACHELARD (Gaston), *La psychanalyse du feu*, (Psicoanálisis del fuego), Alianza ed. Madrid, 1966.
- BACHELARD (Gaston), *La terre et les rêveries du repos*, Paris, 1955.
- BLOCH (O.) Von Wartburg (W.), *Dictionnaire étymologique de la langue française*, P.U.F., Paris, 1968.
- BOUDA (Karl), "Beiträge zur Erforschung des baskischen Wortschatzes", in BRSVAP IV, Donostia, 1959.
- BOUDA (Karl), "Bemerkungen zu den baskischen Etymologien bei H. Berger", in BRSVAP, Donostia, 1960.
- CHANTLADZE (Greta), "Designaciones del rostro humano en vasco y georgiano", FLV 26, Iruñea, 1977, 207-214.or.
- ETXEBERRI (Joanes), *Lan hautatuak*, Kriselu bild., Lur arg., Donostia, 1972.
- ETXEBERRIA (Jose Maria), MUJKA (Jose Antonio), *Maiztasun eta prestutasun azterketa*, Eusko Jaurlaritz, Gasteiz, 1987.
- GAMILLSCHEG (Ernst), *Romanen und Basken*, Akademie der Wissenschaften und der Literatur, Mainz, 1950.
- GREIMAS (A.J.), *Sémantique structurale*, col. Langue et langage, Larousse, Paris, 1966.

- GUIRAUD (Pierre), *Structure et étymologies du lexique français*, col. Langue et langage, Larousse, Paris, 1967.
- GUIRAUD (Pierre), *La sémantique générale*, Que Sais-je?, P.U.F., 1975, 1990.
- HENRY (Albert), *Métonymie et métaphore*, Paris, Klincksieck, 1971.
- HOLMER (Nils), "Ibero-caucasian as a linguistic type", in *Studia linguistica*, Paris, 1974, 26. orrialdetik goiti.
- HUBSCHMID (Johannes), "Probleme der baskischen Lautlehre, baskisch-vorromanische Etymologien" in *Thesaurus Praeromanica 2.*, Francke arg., Bern, 1965.
- IRIGOIEN (Alfontso), "Cartas de Mendigatxa a Don R.M. de Azkue" in Euskera, Bilbo, 1957, 190. etik hasi-eta.
- IRIGOYEN (Alfontso), *De Re philologica Linguae Uasconicae 3*, Bilbo, 1990.
- KINTANA (Xabier), *Linguistika orain arte*, Lur, Bilbo, 1970.
- KLIMOV (G.A.), Edelman (D.M.), "Sobre los nombres de los miembros pares en burushaski, *FLV 23*, Iruñea, 160. orrialdetik goiti.
- LE GUERN (Michel), *Sémantique de la métaphore et de la métonymie*, col. Langue et langage, Ed. Larousse, Paris, 1965.
- LEROY-LADURIE (Emmanuel), *L'amour, l'argent, la mort en pays d'Oc*, Paris, LeSeuil, 1980.
- LÖPELMANN (Martin), *Etymologisches Wörterbuch der baskische Sprache* (Dialekte von Labourd, Nieder-Navarra und la Soule) (sic), ed. Walter de Gruyter & Co, Berlin, 1968.
- LYONS (John), *Linguistique générale, Langue eta langage*, Larousse, Paris, 1968, 1989.
- MEYER-LÜBKE (W.), *Romanisches etymologisches Wörterbuch*, Heidelberg, 1930.
- MITXELENA (Luis), *Fonética Histórica Vasca*, Diputación de Guipúzcoa, Donostia, 1976.
- PALAY (Simin), *Dictionnaire du français et du gascon moderne* (Bassin aquitain), Ed. CNRS, Paris, 1961.
- PEILLEN (Txomin), *Les emprunts de la Langue Basque à l'occitan de Gascogne*, prix de l'essai linguistique, 1995, UNED, Madrid, 1961.
- SAN MARTIN (Jon), *Euskeraren ingurua*, Lur arg., Donostia, 1972
- SCHUCHARDT (Hugo), "Baskisch und romanisch" in *BRSVAP 2-3*, Donostia, 1955, 181-205. eta 483-487.or.
- TOVAR (Antonio), *The ancient languages of Spain and Portugal*, Languages and Society, Emilio Peruzzi arg., New York, 1961.
- UHLENBECK. (C.C.), "Die mit b- anlautenden Körperteilnamen des baskischen", *Festschrift Meinhof*, Hamburg, 1927, 357.
- LANKIDETZAN, *Lenengo euskalegungetako itzaldiak*, Gaubeka, Bilbo, 1926.

## Hiztegia, lexikoa, gramatika

- ABANNA, Etienne (dr.), *Geriadur ar Gorfadurezb* (gallek-latin-brezoneg), Preder arg. Roazhon, 1960.
- ARANZADI TALDEA, *Natur zientzia hiztegia*, Jakin, Arantzazu, 1976.
- AULESTIA (Gorka), White (Linda), *Basque-english dictionary*, University of Nevada Press, Reno, 1989 eta *English-basque dictionary, ibidem*, 1990.
- AZKUE (Resurrección María), *Diccionario Vasco-español-francés*, Mame arg., Tours, 1905-1906.
- GALÉ, Patxi, *Jose Paulo Ulibarriren euskal hiztegia*, Aunia bild., Gasteiz, 2003.
- GOENA (Carlos, Dr.) S.J. *Gizabizia hiztegia, euskara-gaztelania*, G.A.K., Donostia, 1973.
- LANDUCCI (Nicolas) (Landuchio de Luca), *Dictionarium Linguae Cantabrigiae* (1562).
- AGUD ETA MITXELENA, *ASJU*, Donostia, 1958.

- LARRAMENDI (P. Manuel de) S.J., *Diccionario trilingüe castellano, bascuence y latin*, Donostia, 1745.
- LARRASQUET (Joanes.) *Le basque de la Basse-Soule nord-orientale*; Klincksieck arg., Paris, 1939.
- LHANDÉ (Pierre.) S.J., *Dictionnaire basque-français (dialectes navarraïns labourdin et souletin)*, P. Lafitte eta Aranartek arg., Beauchesne arg., Paris, 1926-1938).
- MUJICA (Antonio.), *Hiztegi orokor teknikoa*, Ediciones Vascas, Donostia, 1977.
- OLABIDE CARRERA (Erraimun), *Giza soñia*, Lopez arg., Tolosa, 1917.
- SARASOLA (Ibon), *Euskal Hiztegia*, Kutxa arg., Donostia, 1996.
- VILLASANTE (Luis, fray), *Axularen biztegia*, Jakin, Arantzazu, 1973.
- LANKIDETZA “Batasunerako hiztegia” in *Euskera* XIII, 1958, 252-262 or.
- LANKIDETZA, *Ikastola biztegia*, Gordailu arg. Donostia, 1971.
- LANKIDETZA, *Diccionario Retana de autoridades de la lengua*, M. Sota, P. Lafitte, L. Akesolo LGEV, Bilbo, 1977.
- LANKIDETZA, *Euskal biztegi modernoa*, euskara-gaztelania, gaztelania-euskara, Cinsa, Bilbo 1977 eta *Hiztegia bi mila*, Elkar, 1991.
- LANKIDETZA, *Euskararen Hiztegia*, Adorez 2, Bilbo, 1986, 1987, 1988, 1990.
- LANKIDETZA, *Orotariko euskal biztegia*, (Mitxelenak abiatua) hamalau tomo, Bukatu gabea.
- LANKIDETZA, *Anatomiako biztegia*, Osasungoa euskalduntzeko, Erein, Donostia, 1995.
- LANKIDETZA, *Medikuaren Hiztegia*, UZEI, Donostia, 1986.

## Antzinako euskarak (I.-XV. mendeetan)

- ASTARLOA (Pedro Pablo de), *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva*, Bilbo, 1883.
- CARO BAROJA (Julio) *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*, Salamanca, 1953.
- CIERVIDE (Ricardo), “Toponimia del Becerro Antiguo de Leyre, B.A.L, s. XII y XIII” in *FLV Iruñea*, 1976, 237-284.
- CIERVIDE (Ricardo) “Índice completo de topónimos citados en el B.A. L.” in *FLV* 25, Iruñea, 1977, 381-384.
- CIERVIDE (Ricardo) “Índice completo de antropónimos citados en el B.A.L.” in *FLV* 27 Iruñea, 1977, 431.or.
- COROMINAS (Joan), *Diccionario crítico de la lengua castellana*, Madrid, 1954-1957.
- DIAZ-PLAJA (Luis), *Antología de la literatura española*, La Edad Media, Madrid, 1974.
- ECHAVE (Baltasar de), *Discursos de la antigüedad de la lengua Cantabra Vascongada*, México, 1607.
- EGUILAZ E YANGUAS, *Glosario etimológico de las palabras españolas de origen oriental*, Ed. atlas, Madrid, 1974.
- ETXAIDE (Jon), *Alos Torreá*, Ed. Itxaropena, Zarautz, 1950.
- FRAGO GARCIA (Juan A.), “Notas cronológicas del léxico español en la onomástica personal navarro-aragonesa de los siglos XI-XIII”, in *FLV*, 26 Iruñea, 1977, 239-258.
- LACARRA (José María), “Onomástica vasca del siglo XIII”, in *Revista Internacional de Estudios Vascos (RIEV)*, Donostia, 1930.
- LACARRA (José María), *Vasconia medieval, Historia y filología*, ASJU, Donostia, 1954.
- LAFON (René), *Etudes basques et caucasiques*, Salamanca, 1952.
- LAFON (René), “Addition et corrections à la liste des noms aquitains de divinités et de personnes” in *Kongress-berichte*, München, 1961, 484-489.
- LAFON (René), *Œuvres complètes*, Iker, Euskaltzaindia, Bilbo.



- LUCHAIRE (Achille), *Origines linguistiques de l'Aquitaine*, Pau, 1877.
- LUCHAIRE (Achille), *Etudes sur les idiomes pyrénéens de la région française*, Paris, 1870.
- MARINEO SICULO (L.), *De las cosas memorables de España*, Alcalá de Henares, 1533.
- MENDIZABAL (Ixaka), "Beste buruauste bat" in *Egan I*, Donostia, 1965, 7.or.
- MENENDEZ PIDAL (Ramón), *Orígenes del español. Estudio lingüístico de la Península ibérica hasta el siglo XI*, Madrid, 1950.
- MITXELENA (Luis), *Textos Arcáicos Vascos* (T.A.V.), Biblioteca vasca, Ed. Minotauro, Madrid, 1964.
- MORET (Padre J.de), *Investigaciones de la antigüedades del Reino de Navarra*, Pamplona, 1766.
- MUJICA (Luis María), *Latina eta erromanikoaren eragina euskarari*, Sendoa, Donostia, 1982.
- OIHENART (Arlande. de), *Notitia Utriusque Vasconiae tum Ibericae tum Aquitanice*, Paris, 1638, Paris, 1656.
- ORMAECHEVERRIA (Fr.I.), "Reseña de la obra *Textos Arcáicos Vascos* de Luis Mitxelena" in *BRSVAP 3*, Donostia, 1964, 335.or.
- ORPUSTAN (Jean-Baptiste), "Une communauté basque au Moyen-Âge: Ossès" in *Bulletin du Musée Basque 65*, Baiona, 1974, 158.or.
- OTAZU (Alfonso), "El cantar de Bretania, Bretoniako jornada" in *FLV 19*, Iruñea, 1975.
- PEILLEN (Txomin), "Gonzalo Berceo eta Zuberoako euskara" in *FLV Iruñea*, 1981.
- PEILLEN (Txomin), "Uhaitzibar osoa euskaldun, XIV. Mendean" in *FLV Iruñea*, 1982.
- PICAUD (Aymery), *Le guide du pèlerin de Saint Jacques de Compostelle*, XII.mendeko latinezko testua, Ed. Jeanne Vieillard, Macon, 1938.
- POÇA (Andrés de), *De la Antigua lengua, poblaciones y comarcas de las Españas*, Bilbo, 1587.
- ROHLFS (Gerhardt), *Le gascon. Etudes de philologie pyrénéenne*, Ed. Zeitschrift für romanische Philologie, Beiheft, 85, Halle, 1935.
- RUIZ DE LA COSTA (Rafael), "Nombres vascos" in *FLV Iruñea*, 1977, 473.or.
- SACAZE (Antoine), *Inscriptions antiques des Pyrénées*, Pau, 1892.
- SAN MARTIN (Jon), Usa lekuizen eta bere esan nahia" in *Euskera XIX*, Bilbo, 1974.
- SAN SEBASTIAN (José María) Latxaga, *Errioxako San Millan euskal iturri*, Edili, Donostia, 1974.
- VINSON (Julien), *Mélanges de linguistique et d'anthropologie*, Ed. E. Leroux, Paris, 1888.

## Sineste, sinbolika eta biologia

- AZKUE (Resurrección María de), *Euskalerrriaren Jakintza*, lehen arg. 1935, Bigarrena Espasa Calpe, 197.

### I. Ohitura eta sineskeriak IV Erriaren sendakuntza

- BANDARIAN (Jose.Miel. de), *Mitología vasca*, ed. Minotauro, Madrid, 1960.
- BANDARIAN (Jose.Miel. de), *Lehen euskal gizonak*, Lur, Donostia, 1972.
- BANDARIAN (Jose.Miel. de), *Euskal Herriko harri biribilak*, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa, G.A.K., Donostia, 1970.
- BEAU (Georges), *La médecine chinoise*, Paris, 1965.
- CHAMFRAULT (A.), *Traité de médecine chinoise*, Angoulême, 1957.
- CHEVALIER (J.), Gheerbrandt (A.), *Dictionnaire des symboles*, lau aletan, ed. Segheers, Paris, 1969.
- CIRLOT (J.E.), *A dictionary of symbols*, London, 1962.
- ERKOREKA (Anton), *Bermeoko arrantzaleen obiturak, siniskerak eta sineskeriak*, Buia, 1981, Kriselu-Lur, Donostia, 1987.

- ETXEBERRIA, Ayesta (Juan Manuel), *Euskal siniskerak*, IKA Ibaizabal, Bilbo, I. 1989, II eta III, 1990.
- GARMENDIA LARRANAGA (Juan), *Erritualak eta landareak Euskal Herriko medikuntzan*, Txertoa arg., Ipar Haizea bild., Donostia, 2000.
- HAVELOCK (Ellis), *Erotic symbolism*, New York, 1906.
- OLIVIER-PEILLEN (Marie-Thérèse), *Signes et symboles dans l'art du peuple basque*, Tesina, Paris 1977 (inédit, argitaragabea)
- OTAEGI (Benantxio), *Lehen gizarteak*, Etor, Bilbo, 1981.
- OTEIZA (Jorge), *Quousque tandem... (ensayo de interpretación del alma vasca)* Ed. Aunamendi, Zarautz, 1970.
- PEILLEN (Txomin), "Alberto Magno euskaraz" I17. esku idazkia, Pariseko B.N. koa in *Bulletin du Musée Basque*, 4 (B.M.B.), Baiona, 1976.
- SAN MARTIN (Jon), "Eguzkia gurtzea" *Egan* I-6 Donostia, 1977, 151. orrialdea eta ondokoak.
- SATRUSTEGI (José María), "Luzaideko otoi txipiak" *Egan*, Donostia, 1962.

## Herri literatura

- BARANDIARAN (José Miguel de), *Obras completas*, Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1970.
- BARANDIARAN (José Miguel de), *Vida y obra de D. José Miguel de Barandiaran*, Ander Manterola eta Gurutzi Arregi erdalzaleek. Barandiaran Fundazioa, 2003.
- HARITSCHELHAR (Jean), "L'œuvre poétique d'Etchahun", *Euskera*, Bilbo, 1970.
- OIHENART (Jakes), *Kaniko eta Beltxitina*, Asto lasterra, Kriselu-Lur, Bilbo, 1971.
- PEILLEN (Txomin), "Xikitoak", *Igela* maiatzekoa, Paris, 1962.
- PEILLEN (Txomin), "Amoriozko baratzetan", *Gure Herria*, Baiona, 1964.
- PEILLEN (Txomin), "Eske bertsuen bilduma", *Cuadernos de etnografía y etnología de Navarra*, 1975-1976.
- PENAOD (Goulvenn), Mirande (Jon), "Vasconicae erotici glossarii tentamen" in *Igela*, Paris, 1962.
- SATRUSTEGI (José María), *Euskaldunen seksubideak*, Jakin, Arantzazu, 1975.
- LANKIDETZA, *Actes du colloque comparatiste sur les mythologies pyrénéennes*, Pau, 1987, Baiona, 2004.

## Literatura kultuaren idazkiak

### XVI. mendea

- AKESOLO (Lino), "Primera versión del primer libro que se conoce en euskera" in *Gran Enciclopedia Vasca*, I. Bilbo, 1975.
- ALTZIBAR (Xabier), "Irudizko lokuzioak Hiriart-Urrutiren kazeta lanetan" in *Litterae Vasconicae*. E.H.U, 2002.
- AROCENA (Fausto), "Los 400 años del Linguae Vasconum Primitiae", BRSVAP I, Donostia, 1945.
- EYS (Wilhem.Van), "Le dialecte de Dechepare" in *Euskara* I (Alemaniako euskal ikerketen aldizkaria), Berlin, 1931, 31.or. eta ondokoak.
- MITXELENA (Luis), "Dechepareana" in BRSVAP XI, Donostia, 1955, 281-282.or.
- REICHER (Gil) Lafon (René), *Bernard Dechepare, sa vie et son oeuvre* Ed. Maisonneuve Paris, 1948.
- SCHUCHARDT (Hugo), *Primitiae Linguae Vasconum*, Halle, 1923.

- STEMPF (Victor), "Glossar zu Bernard Dechepare's baskischen poesien" in *Revue de Linguistique et de philologie comparée*, Paris Janvier 1887, octobre, 1893.
- URQUIJO (Julio de), "El proceso de Dechepare" in RIEV, Donostia, 1907, 369-381.or.
- VILLASANTE KORTABITARTE (Luis), "La Virgen María en la Linguae Vasconum Primitiae" in BRSVAP, Sendo arg. Bilbo, 1961, 179-181.or.
- VILLASANTE KORTABITARTE (Luis), *Historia de la Literatura Vasca*; Sendo arg.1961, 50-55.or.
- VINSON (Julien) *Mélanges de linguistique et d'anthropologie*. Ed. Leroux, Paris, 1880.
  - XIII.§ Le protestantisme en Pays Basque.
  - XIV.§ Les chants historiques basques.
  - XV.§ Les plus anciennes citations basques.
  - XVI.§ Le dialecte souletin au XVI ème siècle.
  - XVII.§ Quelques anciens textes basques et sur le Pays Basque (194.or.).
  - XVIII.§ Polémiques sur les origines et les antiquités basques (209.or.).

## XVII. mendea

- AJURIA (Karmelo), "Axularren Geron adiektibu posesiboen azterketa" in *Egan*, 1971, 32-41.or.
- AXULAR (Petiri), *Gero* Milanges, Bordelen 1643, eta Luis Villasanteren ed. Jakin, Oinati, 1976 eta *Gero*, Egin arg. Orain bild. 1995.
- AZPIAZU (Inaki de), "Axular, valor lingüístico y religioso del Gero" in *Boletín del Instituto de Estudios Vascos*, Buenos Aires, 1957, 27-32.or.
- ETXEBERRI (Joanes), *Noelak 1627*. koak Sociedad Guipuzcoana de ediciones y Publicaciones, Donostia, 1970.
- FRANCISQUE-MICHEL, *Le Pays Basque, sa population, sa langue, ses mœurs, sa littérature, sa musique*, Paris, 1857.
- IRIGARAY (Angel), "Piarres [sic] de Axular", *Egan*, 1953, 1-3.or.
- IRIGARAY (Fermin), "Axular euskal idazle geiena" in *Gure Herria*, 1924, 448.or. eta ondokoak.
- JAURGAIN (Jean-Baptiste de), *Arnaud d'Oihenart et sa famille*, Paris, 1885.
- LAFITTE (Pierre), *Le basque et la littérature d'expression basque en Labourd, Basse-Navarre et Soule*, Baiona, 1941.
- MITXELENA (Luis), "Axular Gero" *Egan* 2-4, Donostia, 1954.
- OIHENART (Arlande), Lankidetzan
  1. *Atsotitzak eta neurbitzak*, Irakursail, Larresorok aurkeztua, Donostia 1971.
  2. *Arnaud d'Oihenart Proverbes et poésies basques*, J.B. Orpustanek aurkeztua, Izpegi arg. Baigorri, 1992.
  3. *Oihenarten laurgarren mendeurrena* 1992, Euskaltzaindia, IKER 8, 1994.
  4. *Lan bautatuak*, Tx. Peillenek aurkeztua, Hiria, 2002.
- PEILLEN (Txomin), "Euskal antzerki zaharrenak" in *Euskera*, Bilbo, 1981.
- URQUIJO (Julio de), "El primer libro suletino" in RIEV I. Donostia, 1907.
- URQUIJO (Julio de), "Axular y su libro" in RIEV V., Donostia, 1909, 538.or. eta ondokoak eta VI., 292-547.
- VILLASANTE (Luis), O.F.M. *Axular: Mendea, Gizona, Liburua*, Ed. Jakin, Arantzazu, 1972.
- VINSON (Julien), *Essai de bibliographie de la langue basque*, Paris, 1891 eta gehigarriarekin 1898.

## Literatura kultuan erotikazko aipamenak XVI.-XX. menderarte

- AZURMENDI (Joxe), *Mirande eta Kristautasuna*, GAK., Donostia, 1978.
- ETXEPARE (Dr. Jean), *Buruchkak*, Baiona, 1903 (Eliza gizonen eraginaz zentsuratua).
- ETXEPARE (Bernat), *Primitiae Linguae Vasconum*, Bordele, 1545, Edili, Donostia, 1968. Mitxelarenaren hitzaurrea.
- LAFITTE (Pierre), Abadea., *Euskaldunen loretegia*, Baiona, 1934.
- MIRANDE (Jon), *Haur besoetakoa* Kriselu-Lur, Donostia, 1970 eta Pamiela, Iruñea, 1987.
- MIRANDE (Jon), *Orhoituz* (In memoriam) Kriselu, Bilbo, 1976.
- MIRANDE (Jon), *La Abijada, Haur Besoetakoaren* gaztelaniazko adaptazioa, Gil Bera, Pamiela, Iruñea, 1991.
- MIRANDE (Jon), *Obra osoa*, Hiria arg. Alegia, 1999.
- MIRANDE (Jon), *Ilhun argiak*, olerkien gaztelaniazko adaptazioa F. Juaristi, EHU Zarautz, 1992.
- OIHENART (Arlande), *Atsotitzak eta Neurbitzak* Irakur sail arg. Lrresororen itzulpena, E. Goihenecheren hitzaurrea, Donostia, 1971.
- PEILLEN (Txomin), *Jon Miranderen idazlan bautatuak* (zentsuratua) Etor, Bilbo, 1976.
- PEILLEN (Txomin), eta Mirande(Jon) *Igela* Paris, 1962n. Ed. Hor Dago, Donostia, 1979.
- PEILLEN (Txomin), “La novela Haur Besoetakoa de Jon Mirande” in UNED, Madrid, 1992.

## Biologia eta medikuntza jakintzazko idazkiak euskaraz

- AGIRRE (Jabier), *Osasunbideak. Medikuari galdezka*, Elhuyar, Elkar, Donostia, 1986.
- AIZPURUA (M.), “Euskera, zientzia hizkuntza” in *Zeruko Argia*, 662, Iruñea.
- ALTUNA (Jesus), *Biologiaren gaurko prolematika*, Gero arg., Bilbo, 1976.
- ALTUNA (Dr. M.), *Gizonaren osasunean ordikeriaren kalteak*. Azpeitiko hiriaren saria, Azpeitia, 1901.
- ARANBURU (Dr. M.) eta BAGO AGIRRE (Dr. M.), *Osasun legueac edo Medicantzaco arguibideac*, Donostia, 1901 eta Klasikoak, 1994.an.
- ARTETXE (Dr. Inaki), “Gure gaitzak” in *Euskal Esnalea*, Hitzaldiak, Donostia, 1925.
- AXULAR (Petiri), *Gero*, 1643, Ed. Jakin, Oinati, 1976.
- AZPEITIA (Julene), *Osasuna, Merketza eta yanaritzza*, Editorial Vasca, Bilbo, 1920.
- BIDAIVE, “Fisiognomoniaz eta konplekzioez” in 117. eskuidazkian Pariseko B.N. ean (Ik. Tx. Peillenen lehen argitalpena, Barandiaran fundazioarekin).
- BIZKARRA (Karmelo), *Bizitzeko eta sendatzeko? Higiensismoaren bidetik*, Elkar, Donostia, 1986.
- ETXEPARE (Dr. Jean), *Mediku solas 1908-1925*, P. Xarritonek bilduak, Elkar, Donostia, 1987.
- GARO (Asier), *Giza fisiologia*, Elhuyar, Usurbil, 2000.
- GAZTAÑAGA (Jesus) S.J., *Seksu ezibidea*, Etor, Bilbo, 1971.
- GOIKOETXEA ARRIETA (Juan Ignacio), *Giza soña*, Euskerazaleak, Bilbo, 1970.
- IRIGARAY (Dr. Fermin), “Medikuntzazko testuak” in *XX. Mendeko euskal idazleak*, Iruñea, 1958, 132-193.or.
- LAZKANO MENDIZABAL, *Gizona abere butsa da*, Ed. Jakin, Arantzazu, 1975.
- LEIZAOLA (Jesus), “Yakintzarako gaitasuna” in *Euskal Esnalea*, Donostia, 1924.
- MOGEL (José Antonio), *Peru Abarka*, 1800, ed. Itxaropena, Zarautz, 1956.
- OTSOA DE ERICE, *Anatomi Atlasa*, itzulpena, Marfil/Mistral Barcelona, 1989.

- PEILLEN (Txomin), “Heriotza biologiaren ikuspegitik” *Elbuiar* 1. 1974, *Elbuiar* 2, 1975.
- PEILLEN (Txomin), “Zaharrera, haren ezagupideak” In *Elbuiar* 3, 1975.
- PEILLEN (Txomin), *Herri sendakuntza eta sendagingoa Zuberoan*, Barandiaran Fundazioa, 1995-1996.
- UGALDE (dr.), “Itz bi eche bataioaren gañean” Donostia, 1909.
- X... (Olabide?), “Kizkiña” (Celula) RIEV XXIV, 1933, 60-70.or.
- ZINKUNEGI, (J.), “Kirolak ongille ala kaltegarri” in *Euskal Esnalea*, Itzaldiki, Durango, 1928.
- LANKIDETZA, *Haur bat naiz*, Madrid-Donostia, 1977.
- LANKIDETZA, *Eskolaurrea, bizkuntza, psikomotrizidatea*, Donostia, 1978.
- LANKIDETZA, *Antropologiazko ikastaroa*, U.E.U. Leioa-Bilbo, 1978.

## Zoologia eta albaitaritzza

- DUVOISIN Cne Jean), *Laborantzako liburua*, 1858. koa, Hordago, Donostia, 1978.
- ITURRIA ERICE, (*Lezoko Joseba Aba*), *Eiza-iztia edo abere ta piztiak*, Tipografia General Bilbo, 1929.
- LEIZAOLA (Fermin), *Euskaldunak, Artzaingoa I eta II*, Etor, Donostia, 1977.
- MOGEL (José Antonio), *Peru Abarka*, 1800, Itxaropena arg. Zarautz, 1956.
- OÑATIBIA (M.) *Baserrira dirubidean*, Izarra, Donostia, 1957.
- OTT-RIVIÈRE (Sandra), *An ethnographic Study of a Basque Mountain community, Sainte-Engrâce*, Clarendon, Oxford, 1980.
- PEILLEN (Joanes aita eta Txomin), “Zuberoan artzain”, *Eusko Folklore*, Donostia, 1965.
- PEILLEN (Joanes aita) eta G. Epherre, bi hizkuntzetan “Lehenagoko artzainen jakitatea”, *B.M.B.* 38, 1967.
- PEILLEN (Txomin), *Ehiza eta zepoka Zuberoako Basaburuan*, Barandiaran fundazioa, 1998.
- PEILLEN (Txomin), *Mongongo Dassantzaren albaitaritzza idazkiak 1692.an argitaragabea* (Zati bat Jauregiberri eskuidazkia *B.M.B.* en emana).
- PEILLEN (Txomin), *Bizidunak haurren eta helduen beziketan*, Gero-Mensajero arg., Ortzadar bild., 1995.
- X... *Lurgintza: esne eta haragi sortzearen azterketa Gipuzkoako baserrietan*, G.A.K. Donostia, 1977.

## Euskarazko hitzak tokian tokiko gaztelanian

- ARRIAGA (Emiliano), *Lexicón Bilbaino*, L. Mitxelenaoren gehigarriarekin, ed. Minotauro, Madrid, 1960.
- LZ DE GUEREÑU (Gerardo), “Voces alavesas” in *Euskera* 3, Bilbo, 1958 174-367.or.
- LZ DE GUEREÑU (Gerardo), “Más voces alavesas” in *Euskera* 18, Bilbo, 1973.

## Euskalkiak

- ECHEBARRIA (Toribio), *Lexicón del euskera de Eibar, Arratetikuen bizketia*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1966.
- ETXAIDE-ITHARTE (Jon), *Etxabunen bertsoak gipuzkeraz, Jon Miranderen lankidetasunaz*, Itxaropena, Zarautz, 1969.
- GOICOECHEA (Jon), “Gamiz euskal idazle” in *Euskera* XIX, Bilbo 1974, 167-217.or.

- GOROSURRETA (Juan-Bautista) eta IRIGOYEN (Alfontso), Vocabulario de Baztan in *Euskera* VII, Bilbo 1962.
- HARITSCHELHAR (Jean), *Le poète souletin Pierre Topet-Etchabun (1786-1862)*, Société des Amis du Musée Basque; Bayonne, 1969.
- IZAGIRRE (Kandido), “Erronkariko euskal ondakinak” in BRSVAP XV-XVI, Donostia, 1959-1961.
- IZAGIRRE (Kandido), “Ultzamako euskeraren gai batzuk” in BRSVAP III-IV, Donostia, 1966.
- IZAGIRRE (Kandido), “Tolosako euskeraren iztegirako gaiak” in BRSVAP Donostia, 1967, 156-188.or.
- KNÖRR (Hendrike), “Gamizen hizkeraz zertxobait” in *Euskera* XIX, Bilbo 1974, 218-230.or.
- LARRASQUET (Jean), *Le basque souletin nord-oriental* Libraririe Klincksieck, Paris, 1934.
- MENDIGATXA (Mariano), “Azkueri kartak” in *Euskera*, Bilbo, 1957, 162.or.
- NAVARRO (Tomas), “Observaciones fonéticas sobre el vascuence de Guernica”, *Tercer Congreso de Estudios Vascos*, Donostia, 1923.
- PEILLEN (Txomin), *Emprunts de la langue basque à l'occitan de Gascogne(dialecte souletin)* UNED, Madrid, 1997.
- PEILLEN (Txomin), “Zuberoako gobernu hizkuntzak”, IKER I, Euskaltzaindia, Bilbo, 1981.
- PEILLEN (Txomin), *Conception du monde et culture basque*, Bordeleko tesia 1981, L'Harmattan, Paris, 1998.
- PEILLEN (Txomin), *Bizitzaren biztegia, biziaren biztegitik*, Bordeleko tesia, argitaragabea, hau da.
- ROTAETXE (Karmele), *Estudio estructural del euskera de Ondarroa*, L. Zugaza arg., Durango, 1978.
- CHANTLADZE (Greta), “Análisis del léxico dialectal vasco bajo óptica de la lingüística kartvélica” FLV 77, Iruñea, 1998, 65.or.
- VIDEGAIN (Xarles), *Lexique de l'élevage en pays d'Oztiabarre*, Bordeleko Tesia, 1987.
- Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak, *Amodiozko kantuak euskaraz*, Baionako fakultatea, 2004.



## I

## PROTOEUSKARA ETA ARTEKO EUSKARA

Protoeuskara deritzogu, Akitania, pirineotan eta Euskal Herrian Kristo baino bi mendetik, ondoko IX.menderaino, han hor, biziarekin loturik, bildu den hiztegia. Arteko Euskara X. mendetik XV. rainokoa. (XV. XIX. raino Euskara Modernoa dei nezake, eta XX. XXI.eko euskara berritua). Bilketa eta azterketa honen moldatzeko A. Irigoyen, J. M. Lacarra, R.Ciérvide, J. B. Orpustan eta A. Otazuk bildutakoez baliatu gara (ik. bibliografia). Lehen urrats batean jendearekiko glosategia ikusiko dugu, bigarren urrats batean animaliena. Landareen nomenklatura bazterretik ukiko dugu baina ez lan honetan sakonduko.

## I.I

## Jendetaz hiztegia

## Ernalkuntza eta ahaideak

Aita. Erromatar garaiko protoeuskara horretan bat argi dago.

AITA ATTACONIS (Mitxelena F.H.V., 218.or.)

*Atta* ere aipatzen du Mitxelenak (FLV. I, 4.or.)

Hamabigarren mendetik hamalaueraino Kastillako, (*eita*, itxurapean) Errioxako eta Aragoiko idazkietan agertzen da eta zeresanik ez Nafarroan (FLV I, 5.or.) Zaharrena hamaikagarren mendeko *Aita Gomiz* Becerro de Valvanera delakoan agertzen dena (J.M. Lacarra, *op.cit.* 28.or.). *Aita Gomeçarena*, 1338.an (J.M. Jimeno Jurrio FLV 3, 375.or.) Hamabosgarren mendekoa da Labrit eta errege bertsoetan urrunago ikusiko duguna.

Alaba. Protoeuskaraz, erromatar garaian agertzen da *alabato*, itxurapean.

Arteko euskaran, eta “cum coniuge mea *Allabato Ortiz*” in Mendiguibel (I080) (L. Mitxelena, FLV I, 6.or.) eta *Alaba* filia Goto, (1222), (J. M. Lacarra FLV, 1969).

Ama, amona. Protoeuskaran ez da aurkitu, baina XI.mendean bai, Errioxan emakume bat agertzen da latinezko dokumentuan *Ama Urraka*, bezala (J.M. Lacarra, *Vasconia Medieval*, 28.or.) Gero Nafarroa hegoaldean Fiteron Eneco et Sancia filia de *Ama Semena* (M. Arigita Lasa *Colección de documentos inéditos para la historia de Navarra*, Iruñea, 1900) FLV I, 4.or.) Errioxan *Amuna Fla-*



gin Kukulako San Millanen. *Ama uxore* 1184.an, hijos de *Ama Dota* XII.mendean (Ricardo Ciérvide «Colección diplomática de Irache» FLV 6. 290.or.).

Anaia. Protoeuskarazkorik ez da aurkitu, Arteko euskaran Mea *anaia* Senior Eneko Sanguiz, *Anaie Alkat* (1157) *Anaia chipi* (1229) (*Euskera*, 1956, 20) *Anaia de Sada*, *Anaie de Aiegui* (1209) (L. Mitxelena FLV I, 5.or.) Domingo Anaye, Tuteran, 1256 (R. Ciérvide, Colección diplomática de Iratxe FLV 6. Erdi Aroan gaztelaniaz *Naia* itxurapena agertzen da (*Cantar del mio Cid*). Hamabosgarren mendeko bertsoak dio

*Labrit eta errege*  
*Aita seme dirade,*  
*Kondestable jauna*  
*Har bizate anaie* (1494)

Andere. Protoeuskaraz: Akitania eta pirineotan bildu hamar bat harrietan aurkitzen dugu *andere/andre* hitza; batzuetan datiboan *andereni*, besteetan txiki-garriarekin *anderexo* hala nola erromatar garaian Escureun Aran ibarrean ILVRBERRIXO: ANDEREXO, latin idazki baten erdian. Kukulako San Millan codexean VIII. mendean *Andere*.

Arteko euskaraz., *Anderazo* de Fortes, 1035.an (J.M. Lacarra Vasconia medieval, 28.or.) Filia *Andregoto* agertzen da 1063.an, (R. Ciérvide, FLV 27, 440.or.), mea auela *Andre Urracha* AHN Leyre 1170.an Uxor mea *Andregoto* AGNSc. 1171 *Andrumea*, 1294.an (R. Ciérvide, *op. cit.* FLV 6, 290.or.) eta *Andere çuria* 1190.an (J.M. Lacarra, *ibidem*, 479.or.).

*Andere* hitza zeltierarekin argitu nahi izan zen, irlandezaz *ainder*, galoeraz, *andero* eta bretoieraz *annoar* “biga” delako. Badakigu *Herak* mendekuz *Io* anderea bigai itxuraldatu zuela, baina gure euskaldun emakumeak behiekin erkatzeko urrutixko. Nire ustez, hitz hori \*ameder (ama + eder litzateke). Nola nahi, gaurko euskaran, *anderexo*, eta *andereko* hitzen ordeztu andereño edo anderre darabilgu.

Arraultze/arrautza (barrabil) Aspaldikoa da, barrabila arrautza batekin berdintzea, gaitzizena zeukan XIV mendean gizon batek, alegia, barrabil oso handiak zituelakoan *Miguel Garçia de Arraulçe Gaytz* 1331.an (L. Mitxelena F.H.V., p. 96).

Buztan (a) Arteko euskaran, XI. Mendean Irantzuko komentu gordailuetan, 16. fol. V norbait azaltzen da *Pero Buçtain* izenarekin. Mitxelenak pentsatzen zuen gizon horrek zakilaren zutitzeko eta isurtzeko ahalmen handiak zituela (F.H.V., 141.or.) Jakinagarria da N. Landuccik XVI. mendean itxura bereko *Buztayn* hitza ematen duela.

Emazte. Protoeuskaran, ez da hitza agertzen. Erdi Aroan XIII. mendean Guendulainen Jerusalemgo Jaun Done Joanes Ordenaren zerga emailetan *Emazteona* irakurtzen da. (L. Mitxelena, TAV, 1970, 35.or.) Hitz hori jakingara-

rria da, nire ustez, lehen osagaia, *ema*, *ama* hitzaren aldaera da, ezen nekez sinets genezake okzitanierazko *hemna* hitzetik datorrela, zeren XIII. mendean hizkuntza hori sortu berriegi zen. Herri etimologian sar ninteke *emazte* hitza *eman* aditzarekin lotua dela idatz baneza, *haur emalea* delako.

Erditu. Badirudi protoeuskaran irakur daitekeela pagano aldare batean erromatar garaiko ERDITSE DEO. Arteko euskaran, hamalau-hamabosgarren mendeko lekukotasunez bi adibide ditugu. Bata *Alostorrea* eresian

*Amandrea nerea nitzaz bi erdi egin zanean*

Bestea *Milia Lasturko* eresian

*Cer ete da andra erdiaren çauria?*

N. Landuccik hamaseigarren mendean bildu zuen *ertze*, forma herrikoia.

Gizon. Protoeuskaran, agertzen da Saint-Aventin-eko hilartitz edo epitafio batean: ABELLIONI:CISONTEN: CISSONBON: NIS. FIL V.S.L.M. (L. Mitxelena TAV, I8.or.). *Kizon* ez da bitxia euskaraz biritxiak baditugu: *ki-putz/giputz*, *korputz/gorputz*, *kurutze/gurutze*.

Arteko euskaran lekukotasunak ez dira falta *Petro Guisçon* AHN Leyre, I295.an (R. Ciérvide, FLV 6, *op.cit.*, 290.or.) eta XIII.mendean, *Mal gizon* (L. Mitxelena FLV I, 48.o.), XIV. Mendean *guiçon* “hijo de villano” I350 (J. B. Orpustan B.M.B. 87.3Ior.) Halaber, XV. Mendean Nafarroa Behereko zentzu edo erroldan *Guisson* Bitiriña Agerrekoa, *Guisson* Beheitiko jauna, *Guiçon*, Eihalarren peyllitero (I4I2).

Hitz horren lehen osagaia *giza-*, beste eratorrietan dakusagu ezen gizon hitzaren ia antonimoak *giza txar*, *giza txar* direlako. Euskara modernoa hitz erro horrez baliatzen hasi zen. Euskara berrituak erro horiekin hitz anitz eman ditu. Hamalaugarren mendean badago hitz horren lekukotasuna, *Guiçairudiaga* (L. Mitxelena FHV II6.or.).

Haur. Hitz orokor hori ez da protoeuskaran aurkitu. Arteko euskaran, XII. mendekoak ditugu Nafarroa Garaian Sancio *Aurra* II03.an (R. Ciérvide, FLV 27, 444.or.) eta, beharbada, Bizkaian *Aurguti* Urduinan, (FLV 6, I47). L. Mitxelenak galdetu zuen, *Ordun* izena ez ote den *Aurguti* hitzaren antonimoa (FLV I, 47.or.).

Izorra. Protoeuskaran ez da ematen baina Erdi Arotik iritsi zaigun Urtsuako baladak edo deitoreak ematen digu

*Izorra omen zara ene arreba Joana.*

Motxa (alua). Protoeuskaran ez da agertzen, nahiz izango ziren. Hamabosgarren mendeko aleman lekuko batek Arnold Von Harff, ahal zuen eran entzun esaldia bildu zuen *Schatuwa ne tu so gaussa moissa*, orduko alemaneraz itzulia “Schoin jungfrau kumpt bij mich sclaeffen” (L. Mitxelena TAV, 63.or.). Gavelek ohartarazi zuen, *moissa*, *motxa* hori “cunus” zela Euskaraz itzuli zuenak ez zuen inguru-minguru asko egin, nahiz goxoago den alemaneraz “neska polita nahi al duzu nirekin lo egin”.

Neska. Protoeuskaran *nescato*

Sein. Protoeuskaran Akitaniako izenetan *sennico* agertzen da. Hona zer dion Mitxelena:

«*En Sennico y el gen. Senixsonis tenemos un tema Seni- que coincide con el protovasco seni, niño, criado de donde sebi, sein etc.*» [L. Mitxelena, TAV, 17.or.].

Arteko euskararen lekukotasuna erromantzezko idazki batean aurki genezake, euskaldun giro batean jaio eta bizi Gonzalo Berceok erabiltzen du *sennico* eta gaurko espainolek “lotsati, cobarde” itzultzen G. Diaz Plajak 1974.an *Antología de la literatura española* liburuan. Euskara modernoan alde batetik bizkaieraz *seintxu* (ninia) eman du, eta nafar-lapurdiez *sebi* (morroina). Hitz horretatik letozke *senide, seme, senbar*. Erdi arokoetik heldu zitzaizkigun esaera zaharrek diote:

*Seyacaz echun d(ad)ina/ ucuzcari jaigui doa* (R.S.)

Haurrekin etzaten dena/ jaiki daiteke garbitu beharrez

Ume. Protoeuskaran *Ombe* itxuran agertzen da hilarrietan baina Arteko euskararen eta batzuetan protoeuskaran *Umme*, “m” dobleak “b” baten erortzea salatzen duelarik, eta Mitxelena honela iruzkintzen du:

«*No queda sin embargo excluida en absoluto la comparacion de Umme de Navarra. Antigüedad con aquitano Ombe en Ombexonis, gen.*». CIL. 84, Ombe CIL 11019, Deo Siluano Ombecco CIL 125381, y Umea 1167, Pamplona Jaun Umea, en Olloki.

Nafarroa Garaiko Lergan protoeuskarazko hilarri batean dagoeneko irakur daitezke euskararen itxura daukatenak.

#### VMME SAHAR NARHUNGESI

Ile eta larruaren koloreak eta itxurak

Beltz/baltz, beltzaran. Jakina ez da Afrikako beltza delako hala izendatua euskaldun jendea, beltzaran delako baizik

Protoeuskaran erromatar garaian hitzelkartuetan agertzen da. AHER-BELSTE DEO, jainkoa (ik. Akerbeltz) eta *Harbelex* (Harbeltz) jende izena

Arteko euskararen aipamen zaharrena Errioxakoa da *Comite Nunno Balza* (Kukulako San Millan) (L. Mitxelena TAV, 40.or.). Erdi Aroan maiz agertzen da *Eneco Belza* (1072), *Eximino Belza* (1087), *Garcia Belza* (1094), *Eneco Belça* de Olatz, *Semero Belza* de Ultzama (XII.mendean) (L. Mitxelena TAV, 40.or. Bixiena *Belça Çuria* da L.R. Iratxe XIII.mendean (R. Ciérvide *op. cit.* FLV6, 290.or.). Hamalagarren mendean Nafarroa Beheran *Garcia Vêlça*.

Batzuetan, *Beltzo* bezala agertzen da Per Arnalt dicho *Vêlço* (1330) (R. Ciérvide Antroponimia de la Baja Navarra segun el censo de 1330, Iker 6, Euskaltzaindia). Izengoiti bezala gaur ere ezaguna da, euskal idazle bat *Beltza* da. Nafarroan hitz elkartzuz *Azurbeleiz* jende izena.

*Beltzaran* 1476.ko Lazkaoko Joanen baladan, *Juan de Lazkano beltzarana* irakur dezakegu.

Gorri/korri. Protoeuskaran agertzen da. Strabonek eta Ptolemosek *Kalagurris/Kalagorris* hiria aipatzen digute eta Atharratzen, Zuberoan, erromatar garaiko pagano harri batean *Heraucorritse*, jainko izena agertzen da.

1. Koloreagatik badirudi dela *Idoicorri* “lokaztegi gorri”, (R. Ciérvide FLV 23, 253.or.)

2. Badirudi gorri “bilusik, desertu” adierazteko erabiliak direla: *Mendigorri*, *Heguygorri* (I366) (J.B. Orpustan BMB, I59.or.)

3. Jendea dela-eta “gorrail” eta bilogorri da *Gorria* (I273) “Nafarroako izen zaharrak” eta *Domingo Buruogorria* (I284) (L. Mitxelena FLV I, 1969, 46.or.)

Hori/holli. Arteko euskaran litzateke lekukotasun zaharrena “Ene maiteak bilhoa holli”, hamabosgarren mendean Urrutiako jaunaren aurka egin kantuetan agertzen delako:

*Ene maiteak bilhoa holli.*

Zoritzarrez gaur entzutenago entzutenegi dira “errubio” (heg.) eta blunt (ip.) erdarakadak

Izur. Erdi Aroan baizik ez da agertzen. Jende izen bezala gaitzizen izan ondoren Nafarroan agertzen da: goizik *Manxo Içurra* Leiren (980), *Domenga yçurra* dita Latça L.R. Iratxe AGNSc. II83.an (R. Ciérvide op.cit. 290.o.), *Michele Içurra* (I210) (FLV I, 16.or.) *G. Buruquiçur* (I226) (L. Mitxelena FLV I, 46.or.)

Urdin/ ordin. Urrunago ikusiko dugu semantika alor zabalekoa izan dela eta bilakatu dela *uridin*: rubio, azul, cano adierazteko (frantsesez bezala)

Protoeuskaran ez da adibiderik aurkitu. Erdi Arokoan bai. “azul” adierarekin *Domenc beguyurdina* I252, Abarzuzako andere bat (R. Ciérvide FLV 28, 430.or.). Fr. I. Ormaecheverriak TAV i egin iruzkinean (BRVAZP, 1964, 434.or.) idatzi zuen:

«Erdi Aroko onomastikan gogoko nuke glosa batean, ez dakit non, Garibaiek diona aipatzea alegia amonari ziotela *Dona Ordina* edo *Urdina de Zamalloa Lariz*, andere bilo horiei egotzen zitzaien izenlagunarekin; uste dut —nabiz ez den *uridin* gaur honela erabiltzen— *Historia de Oñate* Zumaldek diona gainera genezakeela *Urdintsu* esaten zitzaiola gizon “errubio” bati. *Kasua da 1542.an* Oinatiko “Egiatzko Kurutzearen, kofradian” maiz andere izen bezala *Mari-Urdin* agertzen zaigula» [nire itzulpena].

Ile zuribeltzaren adiera zukeen *Miquele burdina* izenak LR. Iratxen XIII. mendean eta beharbada “gris” beharbada “rubio” zen ere *Garcia Ordynna*, APO I297.an (R. Ciérvide, op.cit. FLV 6, 290.or.).

Zuri. Protoeuskaran gizon baten hilarrian irakur daiteke,

V. PAETUS SURI (F) ILIUS (CIL XII, 32)

Bestalde IX mendean 890.an Bizkaiko jaunari *Jaun Zuria* esaten zitzaion ile zuria zeukalako. Lope Garcia de Salazarek XV. mendean dio Jaun Zuria Eskoziako printzesa (Mari jainkosa?) eta Herensuge baten semea zela.

Arteko euskaran asko daude. Hona batzuk Hamabigarren mendean “in Barrenesea, *andre Zuria*”, II90) (L. Mitxelena FLV I, 49.or.), *Orti çuria* de Muruarra (II06) (R. Ciérvide FLV 27, 449.or.) *Aceari Zuria* de Guendulain

eta *Onecha Zuria* de San Pedro XIII. mendekoak dira (L. Mitxelena TAV) halaber *Xemen Çuria* 1263.an eta *Enneco Çuria*, 1277.an (R. Ciérvide op.cit. FLV 6 290.o. ) Txikigarriarekin bada, *Garcia Çurico* 1205.urtean Echavarrin (L. Mitxelena FLV I, 51.or.)

## Gorputzaren tankerak

Protoeuskaran ez ditut aurkitu

Andi. *Eneco Andia* Ultzaman, Jerusalemgo Jaun Done Joaneko zerga emaile agertzen da (L. Mitxelena TAV, 234.or.), Domicu Andia (1203, 15.or.) geroago Leireko AHN.en Yenego Lopez, dicho *Andia* irakurtzen da (1359.) (ik. Luzea)

Aragal. *Miquel Argala* (1226) eta Tuterako *Domingo Argala* (1300) irakur daitezke (L. Mitxelena, FLV I, 46.or.)

Bikor. Gaurko euskaran ere, *bikor/pikor* jende txikiari esaten zaio. *Sanso Bico-rra*, XIII. mendean agertzen da (L. Mitxelena, TAV. 34.o.)

Guti. Errioxakoa da lekukotasun zaharrena, protoeuskararen mugan, hargargarren mendean, Kukulako Done Millagan, serora (moja) baten izena da (*Euskera* XX, 1975, 179.or.) baita geroago Artaxonan Domna Gutia (1061), Domeca Guchia (1203) (J.M. Jimeno Jurio, FLV 3, 15.or.) *Sansa Gutia* XIII.mendekoa da (L. Mitxelena, TAV, 34.or.) Hitz hori iruzkinduz Mitxelena idatzi zuen:

«Es verdad que *guti* (*gutxi*) vale siempre “poco”, pero no cabe duda que haya significado además, pequeño, “chico” como lo prueba su presencia en miembro final de toponimos compuestos, y, sobretudo, el apodo medieval corriente *Gutia* (*domna Gutia*), in Colección diplomática de Irache 21 en (1061) en Carcar, pero también *Domeca Guchia* y *Munio Guchi*, 227 (1203) sinonimo de *chipia*».

Itsusi Protoeuskaran ez da agertzen. Artaxonan Domna Itsusi (1211), Domna Issussi (1213) pertsona bera daiteke (J. M. Jimeno Jurio, FLV3, 16.or.).

Labur. Laur, laburduraz Artaxonan maiz aurkitu zuen Alfontso Irigoyenek XIV. mendean, adibidez Sanz Laurra (1084), Ortiz Laurra (1111), Sancio Ortiz Laurra. Beharbada, goitizen hori *familia bati lotua zen, aitatik semera emana, baina 1330 osorik irakurtzen da, leku berean, Miguel Laburra, Uella Laburra* (A. Irigoyen “Las hablas de la tierra de Estella y su onomástica” RPLU III, 169.or.). Sancio Ortiz izenak darakutsan bezala.

Luze. Handi adierarekin Hamabigarren mendekoa da *Enequo Lucea* (1166) (L. Mitxelena FLV, I,47.or.)

Mako Alfontso Irigoyenek 1104 etik 1177. raino Artaxonan zortzi *Macua* aurkitu zituen (A. Irigoyen op.cit. 167.or.); eta Mitxelenak *Garcia Macua*, hamaahirugarren mendean Jakina *mako* edo *makur* ziren, bizkarrez edo gorputzez itxura txarrekoak.

Motz. Jende txikia adierazteko eta nano ez erabiltzeko hitza da. A. Irigoyen berriro Artaxonan 1119. urteko *Orti Moza* eta *Sancio Moza* d’Elizaldea bildu zi-

tuen. (RPLU, 1990) eta Mitxelenak *Petrus Moça*, I2I3, *Xemen Mozça* (I340), *Miguel Moça* (I346) (FLV. I, 1969, 16.or.), baita Artaxonan *Petrus Moça*, *Petrus Mocho* (I2I3), *Semen Mozça* (I340) (J.M. Jimeno Jurio FLV 3. 16 eta 3I.or.).

Sendo. Gotorra adierazteko, *Sendoa* A Irigoyenek Artaxonan XII.mendean hamaika aldiz aurkitu zuen (RPLU III, 169.or.).

Txipi. Mitxelenak hamahirugarren mendeko adibide askoren artean hauek aukeratu zituen *Martino Chipia* (FLV I, 45.or.) eta *Anaia chipia* (FLV. I. 50.or.) *Colección diplomática de Irache* n agertzen direnak, baita *Per Chipia* AGNSc I235 eta *Domingo Chipia* AGNSc. I293 (R. Ciérvide op.cit. FLV 6 290.or.).

Zabal. *Toda Çabala* LR. Iratxe AHN Ag I339. Nolabait norbaitek, gaitzitzen horrekin gorputz aski garatua zukeen.

Zahar. Protoeuskaran Nafarroako Lergan erromatar egonleku batean aurkitu zen eta irakurtzen da harri batean UMMESA HAR NAR. HUN. GE. Si (L. Mitxelena TAV I.17.or.) Ume dagoeneko deitura zelako?

Erdi Aroan ez da hainbeste erabili. Vetus eta Vielo agertzenago dira Anay vielo Allon I212.an baina *Juan Orti Çabarra* Lizarran I210.an *Fortuno Çabarra* de Baraniain (I226).

Zehe Adibide bakarra Mitxelenak emana *Berasco Ceea*, I210.an (FLV, I, 16.or.).

## Burua eta aurpegia

Glosa, idazki txipi, jende izen, leku izen hauek izango dira gure iturriak: Aho. Protoeuskaran ez dago. Erdi Aroan XII. mendean gaitzitzen bezala da *Berasco Aogavala* (L. Mitxelena, FLV I 48.or.)

Hamabosgarren mendeko balada batean Ahetzeko anderea, agertzen da  
*Ele horik abotik/ jalkitzen zirelarik.*

Aurpegi. Protoeuskaran ez

Arteko euskaran L. Mitxelenak Aldaungo mendi bat Ortapegi aipatzen du eta beste Aurpegi: aurte+begi zatitzen. Hamaseigarren mendeko lekukotasunez, kantu zahar baten aipamena I516.an Archivo General de Simancasen dagoen *Registro General del Sello* horretan agertzen dena:

*Galdua çure arpeycu narrua*

Begi. Protoeuskaran, bai, erromatar garaiko harri batean jenio baten izena irakur daiteke *Lacubegui* (behabada Lekubegi). Gorago ikusi dugun *Domenca Beguyurdina* I251.ekoa da.

Erdi Arotik iritsi zaigun XIV. mendeko *Beotibarko gudua* eresian

*Begian negar malkoak*

Halaber garai bereko Alostorrean:

*Ala ere gutxiago Lan negarrik*

XV. mendean Urrütiako jaunari zuberotarrek egin kantuetan haren andre-ak dio:

*Zure begiak iitz ditzala khexiak*  
 [...] *zure begiak oldartürik.*

Jendearentzat begiak fisiologian baita psikologian daukan lehentasunak dakartza lekukotasunak.

Bilo. Protoeuskaran ez. Hamabosgarren mendeko zuberotar balada batean I429.an gertatu itsuskeria batez *Abetzeko anderea*, bertsoak dio

*Urriütiak bilotik/ terresta dü ibili.*

Gai berdinari buruz Amak dio alabari bertsoetan

*Ene maiteak biloa bolli.*

Bizar. Ez da protoeuskaran agertzen. Erdi Aroan gizonen edergarri eta nardagarri dena. Andreen kasu berezietan agertzen da lehenik, *Tota Bizarra* (I15-) *andregoto Bizarra* (I182) baina gizon bat ere *Pascual Biçarra* (I268) (APO FLV I, 290.or.).

Getxoko aitonen semeen goiburua hamalagarren mendean zen

*Caltea daguiñac bizarra lepoan.*

L. Mitxelenak uste zuen gaztelaniazko “traher la barba sobre el hombro”, ezustean hartua ez izateko zuhurki ibiltzea, adierazten zuela. Bizkaian Martiartuko aitonen semeek, garai berean, lema berdina zuten.

Hamabosgarren mendean *Arrasateko erreketan* (I448) egin zen eresiak dio:

*Aen bizarrac ycara cirean* (L. Mitxelena, TAV, 83.or.).

Buru. Protoeuskaran, erromatar garaian, Nafarroan UIMBORO izena irakurtzen da. Niretzat “boro” buru da (ik. borobil).

I.Erdi Aroan leku izenetan zerrenda ederra bada, -buru bigarren osagaia, mutur, punta, azkena bezala erabilia da:

Hazpuru (I025) (Cartulario de San Millan TAV 27.or.) *Aizpurdi*, (I032), *Aizpurgi* (I057) montem qui dicitur rustico uocabulo *Ataburu* (I064) *Erespuru* (I094) (R. Ciérvide, B.A.L. Becerro Antiguo de Leyre, FLV 29257.or.) *Zalduburu* (I080, TAV, 45.or.).

Hamahirugarren mendean Mitxelenak TAV en Orreagako artzain olen zerrenda ematen du, I284.koak, *Arburua*, *Ayzburua*, *Bidaburu*, *Yduburueta*.

2.jende izenak. *Garcia Burua* I124.an Iruñeako Katedral artxiboan irakurtzen da. Hamahirugarren mendean *Lope çoriburu* Guilhen Anelieren okzitanierazko olerkian (R. Ciérvideren tesian), Garzariainen *Domingo Burugorri* eta G. *Buruquiçur* (I226) (L. Mitxelena FLV I, 46.or.). Hamalagarren mendean *Mauruburu* Artaxonan eta etxe izen batekin lotua *Teresa Beorburuco* (A. Irigoyen *op.cit.*), *Arzburu* Artaxonan I203) (J. M. Jimeno Jurrio FLV 315.or.).

3.Anatomia.Salinasko kondearen eresiak dio: *Kalea bera burua bax(...)*n daroa (L. Mitxelena TAV, 98.or.).

jabetasunaren jauntasunaren adierazteko.Salinasko kondearen eresian

*Beti bezala, buru nobleza guztiaren* (A. Otazu, FLV I975, 48.or.)

*Gipuzkoako errian on guztien burua* (*op.cit.* 46.or.)

5 Eratorria: *Buruzagi*. Nafarroan eta Araban euskararen atzerapenarekin hitz hori mailaz jaisten ikusten da. Iparraldean behintzat buruzagi hitza agintari bezala edo ugazaba bezala erabilia da, baina hego Euskal Herrian, laster “Ibar alkatea” adierazitik, “urdain, txerrizain” adierara jaitsi da. Erdi Aroan baditugu: Azeari Umea facet *buruçaqui* (II67.an, Busto de Zamarce TAV 47.or.) Lope *Buruçaqui* (1245 TAV 48.or.) Don Garçia *Buruçaqui* (XIII.mendean) (Mitxelena TAV 48.or.) Agian txantxetan erabili zelako hamazortzigarren mendean Araban eta Hego Nafarroa Garaian idazkietan buruzagia txerrizaina da.

Ezpain. Ricardo Ciérvidiek bere tesian aipatzen duen *Johan de Espayn* 1256.an nekez litzateke de Espana, baliteke ezpain handiduna izatea.

Gara/kara. Burugaina, kaskoa adierazteko. Protoeuskaran ez da zuzenean agertzen, nahiz Kalahorra, *Kalagurris*, *karagorri* zitezkeela uste izan da, alegia “gain bilusia”.

Erdi aroan, hamalagarren mendean Garagorri izena agertzen da. Hamazazpigarren mendean A. Oihenartek dio “buru bero” adiera zuela, eta hamazortzian, amarena nahiagoz, M. de Larramendiren lehenbiziko deitura izan zen, erabili ez zuena.

Garbal. Ez da protoeuskaran agertzen, *karsoil/garsoil* adierarekin Nafarroako Artaxonan *galbar* itxura du; halan, *Semero Galbarra*, 1157.an irakurtzen da, eta handik urrunago 1330.an deitura bilakaturik *Ochoa Galbarra Eluira de Ochoa Galbarra* (A. Irigoyen RPLU A III. 171.or.). Iratxeko idazkietan, ordea, gaurko itxuran gizon bat *Garbala* da 1269.an (L. Mitxelena, FLV I, 46.or.)

Lepo. Protoeuskaran ez. Erdi Aroan, agian lepo luzea zuelako, Iratxeko idazkietan *Martino Lepoa* badago (L. Mitxelena, FLVI, 17.or.). hamalagarren mendean gorago ikusi dugu “bizarra lepoan” aipamenean erabilia.

Leku izenetan batik bat Iparraldean eta Nafarroan mendatea da. Ortzaitzen 1418 lepo hitza agertzen da (J. B. Orpustan in BMB 1974, 147.or.). Denbora berean eta leku berdinetan pleonasmoz edo *Belateko lepoa*, *Garateko lepoa* (fr. *Suscousse*), *Urdaiteko lepoa* badira.

Mazela, masiela. Euskaldun giro batean Errioxan idazten zuen Gonzalo Berceok, XIII. mendean ematen digu,

*Fueronli faciendo pecas ennas masiellas* (“La abadesa incinta” in *Milagros de Nuestra Senyora*).

Metaforaz *mendi mazela* erabiltzen da gaur.

Mustur, mutur. *Garcia Muturro* Iratxeko idazkietan agertzen da. (A. Irigoyen Iker I, 388.or.) jakina mutur egiten, muzin egiten zuelako halako gaitzizena ipini ziotela.

Musu. Protoeuskaran ez da agertzen. Erdi aroan XI. mendean hitzelkartu batean bai.



*Musiturria* in Aiessa unam terram qui est in loco quod dicitur de basconiae lingua (I060) (R. Ciérvide in “Índice completo de topónimos citados en el Becerro Antiguo de Leyre” in FLV 26, 83.or.).

Sudur/sur. Hizkuntza askotan oronimian mendi eta itsaso adar, harkaitz, gailur izendatzeko sudur erabiltzen da. Euskaraz ere badirudi *Mendisur*’ (I025.an) Arabako Ganboan, Kukulako Done Miliagan honelakoa dugula. (L. Mitxelena, TAV 26.or.).

Jende izenekin sartuz ez da hain argi, ezen *Surra* izan daiteke, zuhur, zintzo edo sudur. *Semero Surra* edo *Domicu Surra* Jerusalemgo Dona Joanesen Ordenaren diru laguntzailea Colección diplomática de Irache delakoan I227.an agertzen da (L. Mitxelena, FLV I 16-17.or.). Gero Alfontso Irigoyenek Artaxonan bildu zituen deiturak Pero *Surra*, *Pascual Surra* (I330) (RPLU A III I79.or.). Behin Muller de *Sancho Çurra* agertzen denean zalantza dago, baina zalantza garbitzen da *Don Semen Çuurra* (I264.) izenarekin. Aldiz sudurra dela-eta argi dago Lacarrak ematen duen *Iaun Orti Sudurra* Utergan I221.an (J. M. Lacarra V. M. *Vasconia Medieval*, 49.or.).

Zintzur. Nafarreraz dirudi erdararen kalko hori (garganta, gorge) sartu zela *ate/ateka/ataka* adierarekin. Halan I284;an *Çinçurçu* Orreagako bazka lekua da, Auritzen eta honela darabil P. F. Larreko euskal idazleak zintzur diote mendi hestune bati.

## Lohadarrak edo gorputzadarrak eta giltzadurak

Atz/behatz. Nafarroan gaitzizen bitxia, agian beti behatza erakutsiz hitz egiten zuelako, I266.an aipatzen du *Don Pedro Beaça*, L. Mitxelenak (FLV I I7.or.) Artaxoan *Pascasii Beatça* (I266) (J.M. Jimeno Jurrio FLV3, I6.or.) Hamalau garren mendean edo *Alostorreako* eresian irakurtzen da:

*Atz ederrak erraztunez beterik*

Landuccik bere hiztegian I562.an atz “dedo” ematen digu. (Dictionarium Linguae Cantabrigiae, ASJU, I970?)

Belaun. Hamabos garren mendean Britainiako Jornadan eratorri bat irakurtzen da *Dontzella guztiak daode belauriko* (A. Otazu “el cantar de Bretaña, Britainiako jornada” in FLV I9, 45.or.).

Mende berean Bereterretxen kantoreak honela dio

*Sartü da bi belhaiñez herresta*

(J.D.J. Sallaberry, *Chants Populaires du Pays Basque*, I50.or.).

Esku. Protoeuskaran ez da agertzen.

Erdi Aroan, lehen osagaia esku litzatekeelarik XI. mendean *Escusega* bildu zuen R. Ciérvidek (Becerro Antiguo de Leyre 25, I39.or.) eta *Escussaga* Untzitin (“Compte” des Archives Générales de Navarre, FLV 6, 235.or.) Hamalau garren mendean Biarnoko erroldan, I385.an. Zuberoako mugan, Xarran *Escu-*

*larrondo* etxea badago (Tx. Peillen, “Uhaitzibar osoa euskaldun” in FLV 38, 1980, 339).

Hamabosgarren mendean Martin B. de Artaçubiagaren eresian esku arma-tua da:

*Artuco dot escu batean gueçia*

Eta *Ahetzeko anderea* eresian

*Urrutiak zarean/eskia ezarri zian* (Tx. Peillen, *Euskera*, Urrutiako jau-naren eresiak).

Ezker. Protoeuskaran ez.

Erdi aroan asko dira, adibidez *Kardiella Ezkerra* (I052), *Acenar Ezberrera* (I083), *Petro Ezquerria* de Ussua (I093) eta abar... (R. Ciérvide “Becerro Anti-guo de Leyre” in FLV 17, 1977, 46I.or.). Alfontso Irigoyenek Artaxonan zazpi adibide ematen ditu I136 tik I173. raino (RPLU A III 171-172.or.). Izen hori Gaskoiniara eta Kataluniara hedatu zen.

Oin. Protoeuskaran ez.

Erdi Aroan hamalagarren mendetik aurrera. Zaldibiako jaunen goiburua *Zaldiz eta oñez* (hamalagarren mendean) Halaber, hitz elkartu batean Baigorri-ko etxe bat *Ortusteguy*.

(J. B. Orpustan “Une communauté basque au Moyen-Age”, Ossés in BMB 65 1974, 159.or.).

*Beotibarko guduan* irakurtzen da

*Frantsesak gure oñetan*

Eta *Peru Abendanoren* eresian

*Oñetaco lurrau jauilt ycara*

Ukarai, Ukondo. Leku izenek ematen dizkiguten biak *Ukaray mendiko* eta *Okondo* Araban L. Mitxelenarentzat gorputzaren metaforak direla idatzi zuen, baina izen horien azpian ez ote da *Oka* erroa, Errioxan ibai eta mendi izen dena.

## Erraiak

Barru. Hamalagarren mendean Iburguen Cachopin kronikak hamalaguarren mendeko legendazko gizona *Barrurdin* da. Hemen mendebaldeko berba hori errai osoen adierazteko erabilia da.

Bihotz. Protoeuskaran agertzen da, erromatar garaiko hiliarrian Pirineoa-ren bihotz-bihotzean.

SEMBETTE/ BIHOSCIN/NIS F (ilius) EL. E.S.S.L.M. (Eup Senbeat herrian, Garona garaian, CIL 58 eta TAV, 16.or.).

*Bihoscin*, bihoztai, bihozdun bezala ulertu behar da eta halaber gizon baten izena *Biboxus* agertzen da, gure gaurko *bihotsu* hitzaren antzekoa.

Erdi Aroan Alfontso Irigoyenek Artaxoan I084.an *Lope Biboça* irakurtzen du (RPLU A.III 16.or.) Irunberrin, Sautzen gizon bati *Lope Bioça* deritzo (J.M. Lacarra, *Vasconia Medieval*).

Erdi Aroko eresietan metafora moduan aski erabilia da	
bihotzmin	– <i>bibotzmin ükheitako</i> (Ahetzeko Anderea)
	– <i>nere biotzari bakarrik mindura dario</i> (Alostorrea)
minberatasuna	– <i>biotzak loen mendean</i> (Alostorrea)
ongitasuna	– <i>kanpoan da bibotzez</i> (Ahetzeko anderea)
barrua, barnea	– <i>Haltzak eztiü bibotzik</i> (Bereterretxeren heriotza)

Estagorri. Protoeuskaran ez. Erdi Aroan, orain arte, gutxi. Damaso Intzak Artaxonan bildu kantu batean XV. mendean “*Estanguria rrico va*” irakurtzen da. (Egan I, 1965, 76.or.).

Gibel. (lat. *posterior, hepar*). Protoeuskaran ez. Erdi Aroan euskal toponimian bakarrik aurkitzen da, lehen adierarekin *Aizquibel* (1218), *Eliçaguibelego* (1227) (Ricardo. Ciérvide, FLV 6, 139.or.) *Guivelalde ychissia, Gibelalde*, atzealde da (TAV I. 37.or.). Ormaecheverria abadeak honela iruzkintzen du BRSVAP:

1596.eko *Refranes y Sentencias* en bildu Erdi Aroko esaeretan L. Mitxelenak bi adieraren egotea hautematen du (RS I4I Guibel “*hígado, foie*”, baina 239 eta 466 quibel eguioc “*hazle espalda, tourne lui le dos*”. 1562. Landuccik ez du Guibel “*hígado*” baizik ematen (B et G. euskalkiek atze diote, besteeke gibel)”.

Sabel Protoeuskaran ez. Erdi Aroan A. Irigoyenek Guisabel izena XIV mendekoa ematen digu. (*Euskera*, 1979, 21.or.).

### Gorputzaren isurkinak

Izerdi. Gure eresiek aitonen semeen gertaerak erasten dituztelako hitz horri ez da agertzen. Hamaseigarren mendean Rabelaisek bere Pantagruelen 1548.an ematen digu *Edan bebar da izer landa*.

Negar.Protoeuskaran ez. Erdi Aroan Alostorrean

Begian negar malkoak

Eta gutxiago begian negarrik

Odol. Protoeuskaran ez. Erdi Aroan bai, aitonen semeen jarduera nagusia horren inguruan baitzebilen?

Urrexolako guduan (1400) irakurtzen dugu

Sendo cenduan odolori biurtu jaçu gazayoa.

Alostorrean

Odol txarreko gaztea

Bereterretxen kantuan

Bereterretxen odoletarik ahurkaz biltzen ari da

Pixa. Protoeuskaran ez. Erdi Aroan bai, Leku izena Orzaizen Pixadera (J.B. Orpustan in BMB 65, 1974, 147.or.).

## Gorputzaren zatiak

Aragi. Protoeuskaran ez dago lekukotasunik. Hamabigarren mendean, Santiagora zotan Aymeric Picaud delakoak Codex Compostellanus horretan ematen digu: *aragui est caro*. Hamabosgarren mendean, Peru Abendanoren eresian irakur daiteke

*Lau araguioc* (L. Mitxelena, TAV, 79.or.).

Bizkar. Protoeuskaran, Ptolemaiosek ematen digu *Biscarği* bat eta Pliniusek *Biscarğuitani*. Erdi Aroan, *Bizkai* herri izena I053.an urtean irakurtzen da, Garcia episcopus [...] in [...] et *Uiçkabia* (L. Mitxelena, TAV, 32.or.). Orreagako komentuarien jabetasunen artean *Astabisquarra* agertzen da I284.an Erdi Aroan, iparraldean, *Bizkai* jende eta etxe izen bezala ugari da eta hamaseigarren mendean oraindik “bizkai” euskaldun hitzaren adierazkidea da.

Gorputz. Protoeuskaran ez da agertzen, noizbait X. mendetik goiti kristautasunarekin hedatu delako. Hamabosgarren mendean Peru Abendañoko eresian:

*Gorpuçeco lau araguioc* (TAV, 79.or.).

Hamaseigarren mendean Marineo Siculok *gorpuça*: cuerpo ematen du (L. Mitxelena, TAV I47.or.) eta Nicolas Landuccik bere hiztegian I562.an *gorpuşca* (DLC, 1970, 92.or.).

Hezur. Protoeuskaran ez da irakurtzen. Erdi Aroan, hamahirugarren mendean Garcia Eçurra, ez zen oso lodia izango (L. Mitxelena, FLV I 44.or.) Hamabosgarren mendeko “Bereterretxen eresian” gezurraren metaforaz

*Ez gaztanberak ezürrik* (J. D. J. Sallaberry, 1972, I50.or.).

Larru/narru. Protoeuskaran, ez. Erdi Aro azkeneko bertsoan: *galdua çure arpeycó narraua*.

Lohi Protoeuskaran, erromatar garaian hilarri batean *Lohitton* (L. Mitxelena F.H.V. 323.or.). Oraindik XVII. mendean gorputza esateko Etxeberri Ziburukoak darabil eta A; Oihenartek bere hiztegian mende berean aipatzen.

Meaka. Protoeuskaran ez da aurkitu. Erdi Aroan metaforaz mendi eta zuhaitzekin agertzen da *Aritz meaka*, *Vaga meaka* I284.an Orreagako bazka lekuak dira. Gaurdaino horrelako lekuizenak gorde dira: Zuberoan, Larrainen *Haritxmebeka* eta *Bagomebeka*, Orreagakoan antzekoak, baita Irunen bi baserri *Bereko meaka*, *Goiko Meaka*.

Saihets. Protoeuskaran ez da aurkitu. Arteko euskaran, Erdi Aroan metaforaz edo, agertzen da, Nafarroako Karlos III.ak Ortzaizeko bazkaleku eta mendiez ari I4I8.an idatzarazi zuen

*Aldurun sayessaen equi bellareco artea*. (J. B. Orpustan, “une communauté basque au Moyen Age, Ossés” BMB 65, 1974).

## Osasunaz eta jiteaz

Argal. Erdi Aroan, aurkitzen da hitza: Miquel Argala (1226), Domingo Argala (1300) Tuteran.

Bizi. Protoeuskaran agertzen da *Bissico* (CIL XIII, I017.zbk.).

Hamabi eta hamahirugarren mendetan agertzen da *Uizinaia* (1141) gaitzizena eta *Uizinaitegi* (1204) (L. Mitxelena FLV I, 1969, 16-17.or.) *Beotibarko guduan* irakurtzen da *zurekin bizi edo hil*. Bereterretxen heriotzan hiru bider esaten da

*Hire semea bizi bada*  
 (...) *habil eraikan bizirik*  
 (...) *bizia zeitan idoki.*

Ezti: jende goxoaren “gaitzizen” ona da, *Petri Eztia*, 1330 Nafarroa Behereko zentsuan 1330.an (ik. R. Ciervide, IKER 6 Euskaltzaindia)

Gaitz. Protoeuskaran ez da agertzen. Arteko euskaran XIII.mendean, lege hiztegiz, metaforaz edo:

*Gaitzes berme, ones berme.* (L. Mitxelena, TAV, 55.or.)

Gas. Protoeuskaran ez. Hamabosgarren mendeko kantu bat Gaspar Gomezek 1536.an idatzi *Tercera parte de la tragicomedia de Celestina* delakoan irakurtzen da

*Essok amoreari/ gaxo nachala.*

Gazte: Erdi Aroan, Odol txarreko *gaztea* (Alostorrea)

Hil. Arteko euskaran eresi zaharretan ugari agertzen da, gaia gerla delako: *Beotibarko guduan*

*Zurekin bizi edo hil!*

Arrasateko erreketan

*Ze an datza Presebal ylic*

Bereterretxen heriotzan

*Maule altean diin bilik*

Alostorrean ez dira jendeak otoruntzako hilak baizik

*Milla oilo bil ziran*

## Anatomiaz bi metafora berezi

Adar. Protoeuskaran ez dago. Erdi Aroan Artaxonan 1229.urtean jende gaitzizena da Gero, hamabosgarren mendean Ahetzeko Anderearen kantuan

*Bazoaza kanpora/ eni adar biltzera*

Hamaseigarren mendean Bernat Etxeparek bertsoan idatziko du

*Gogoan bebar handi dizit bethe nuien adarrez*

Hamazazpigarren mendean Oihenartek atsotitz zaharra bildu zuen

*Emaztearen gaizes xikira sedina/ adarrequi eborz zedin* (O.137)

Bere neurtitzetan ez da Oihenart goxoago:

*Haren erosle senarrac/ ser mereci luque? Adarrac.*

L. Mitxelenak esaera hori iruzkinduz idatzi zuen:

«Goraxeago argi eta garbi mintzatu behar badugu, badirudi biziro gogokoa zuela Oihenartek hitz hori» [Adabakiak in Egan 1961, 123.or.].

“Zatico. Txiki, gutxi, jende txikiari egozten zaion izenlagun hori idazkietan, metaforaz-edo gaztelaniaz XIII.mendean agertzen da Errioxako Vida de Santo Domingo de Silos delakoan:

Todos le davan algo qui media, qui *zatico*

Eta Hitako artziprestrearen *Livro de Buen Amor* delakoan XIV. mendean

El romero hito siempre saca *zatico*.

Esaera honen azken zatia Santillanako markesaren atsotitzen artean irakur daiteke «Romero hito saca zatico» (Tx. Peillen “Gonzalo Berceo eta Zuberoako euskara” in FLV 34, 1980).

### Lehen urratsaren emaitza

Lehen bilketa horretan gizakien hiztegia dugu aztertu eta laurogeita hiru hitz bildu; edozelan ere gehienak oraindik erabiliak dira, *lobi* hitza izan ezik.

Protoeuskaran. Azkenik ez da harritzekoa, (22 hitzekin) protoeuskaran irakurtzea, erromatar garaian oinarrizko bizi hiztegian, gizonarentzat garrantzitsu diren jardueren hitzak agertzea: *begi*, *bihotz*, *bizkar*, *buru*, *gara* (esku ez orduan?) Halaber ahaidetasunaren izenak agertzea, (*aita*, *alaba*, *ama*, *amona*, *anaia*, *andere*, *gizon*, *seme*, *sein*, *ume* horik ere biologiarekin lotuak direlako, gero, halaber gorputzaren izena *lobi*, horren koloreak *beltz*, *zuri*, *gero bizi*, *erditu eta zahar*.

Arteko euskara: askoz aberatsagoa izan da (73 hitz) eta izanen da idazkietan idoroko baita José Mari Satrustegi euskaltzainak idatzi bezala:

«*Toda la letra dormida en el fájrago de los Archivos de Navarra no ha dicho – ni mucho menos? su última palabra en materia de euskara*» (in BRSVAP I “Hallazgo de una elegía vasca del año 1564”, 1963, 63-85.or.).

## I.2

### Animaliez eta zuhaitz belarrez

Adar (lat. *cornus*) Ez da protoeuskaran agertzen. Erdi Aroan ez da animalientatik irakurtzen gorago ikusi dugunez 1229.an Artaxonako gizon baten gaitzizena da, *Adar*. Metaforaz leku izenetan agertzen da, Santa Eugenia de *Adanmsa* in confinum aque Sarresaçi (1042), [...] *Adanza* in termino de Guendulain (1099) [...] in termino que dicitur *Adarrza* (1092) [...] lugar de *Adansa* (1115) (R. Cíervide Índice completo de topónimos del B.A.L., in FLV 25, 1977, 70.or.).

Ahari (lat. *Ovis aries* L.?) Protoeuskaran ez da agertzen. Erdi Aroan zerga baten izenean agertzen da *gauça aari* (TAV 55.or.) (zubereraz foruan ardien bazka saria *larrari* zen).

Ahardi (Lat. *Suus domesticus* L. ?) Gizon baten gaitzizenarekin dator.

Protoeuskararen mugan eta euskararen hegoaldeko mugan Burgosaldean Villabascones delakoan, gizon baten izena da 956.an «et inter viros nominatos [...] Belasco *Abardia* vel omni concilio de Villavascones (L. Mitxelena TAV 23.or.) Mitxelenak ondotik dio: «*sin embargo Abardia parece corresponder mucho mejor a vasco abardi "cerda, marrana" o animal hembra*». Nire ustez, oso gizon lodi-lodia zelako gaitzizen hori jarri zioteten.

N. Landuccik, seiehun urte geroago, 1562. an bere hiztegian *urdati* “puerca” ematen du (DLC, ASJU, 1970).

Ak(h)er (lat. *Capra hircus* L.?). Protoeuskaran erromatar garaian aldare batean irakurtzen da:

AHERBELSTE DEO (CIL 174 eta TAV 19).

Akelarrean gure arbasoek gurtzen zuten *Akerbeltz* artaldean zaindaria da.

Erdi Aroko euskaran, berriro hitzelkartu batean eta toki izen batengatik agertzen zaigu “aker” hitza (Aker zaltua):

“*soto uno que dicitur a rusticis. Aker çaltua nos possumus dicere soto de ueko saltus birorum*”. Santxo Peñalengo, erregeak 1074.an eman pribilejio batean irakurtzen da (L. Mitxelena TAV 35.or.). Hamahirugarren mendean, *Aquerreta* leku izena irakurtzen da (L. Mitxelena FLV I 47.or.).

Aketz “cerdo macho, verrat” Protoeuskaran ez zaigu agertzen. Erdi Aroan Artaxonan II 73.an Garindo *Aquetza* badago (L. Mitxelena FLV I 47.or.).

Antzare (lat. *Anser communis* L.) Protoeuskaran ez zaigu agertzen. Erdi Aroan Nafarroan Ollobarrenen 1397.an irakurtzen da «pieza clamada *Ançarre Soroa* (L. Mitxelena TAV 41.or.).

Ardi (lat. *Bos ovis* L.?) Protoeuskaran ez da irakurtzen. Hamabigarren mendean, *Ardico* Tuterako artxibategian (R. Ciérvide FLV 6, 289.or.).

Baina, gehienbat, hitz elkartuetan agertzen da. Kukulako Done Miliagan, hamabigarren hamahirugarren mendetan diru laguntza emaileetan bada:

*Semeno Arzaia* (II 83) *Domingo Arzaia* (I 266) *Èneco Arzaia* (XIII. mendean)

Leku izenetan berriz Arabako Alfoze ibarrean *Arzanbegi* Ubarraundia ibarrean *Arçamendi* (I 025.) (L. Mitxelena TAV 26-27.or.).

Arrain (lat. *piscis*) Protoeuskaran ez da irakurtzen. Hamabigarren mendean, Aymeric Picaudek Codex Compostellanus horretan idatzizuen: *araign* “piscis”. Hamalagarren mendean, Nafarroa Beheran *Arraytegy* irakurtzen da (J. B. Orpustan in BMB 65, 258.or.).

Arrano (lat. *Aquila sp. L.*) Protoeuskaran ez da irakurtzen. Arteko euskaran, hamaikagarren mendean 1087.an *Arrano arria* Becerro Antigo de Leyre

delakoan irakurtzen da (R. Ciérvide FLV 23, 2.423.or.). (Oharra: *aetita* *barriari* euskaraz “arrano harria” deritzo). Gero, hamahirugarren mendean *Arrane-gui* (L. Mitxelena TAV 37.or.) zerrenda honi gaineratu behar lirateke *Arnotegi leku* izenak arranotegi hitzaren laburpen direnak.

Arraultze. (lat. *ovum*) Protoeuskaran ez da aurkitu. Nahiz metafora batean erabilia, Erdi Aroko lekukotasun bakarra dugu, Miguel de *Arraultze* Gaytz (I33I).

Asto (lat. *Equus asinus* L.) Protoeuskaran ez da animalia, erromatar garai-ko aldarean ASTO ILUNNO deo (Gaskonian Layrisse ibarrean Sacaze 9.or.) *Ilunno*, pirineotar jainko edo jenio baten izena delako.

Erdi Aroan badirudi gure zamaria dela Orreaga inguruko, leku izen batean *Astabisquarra*, *Astabiscar* 1284.an (L. Mitxelena TAV 37.or.).

Azeari, azeri (lat. *Vulpes vulpes* L.) Frantsesezko «renard» hitzaren kasuan bezala jende izen bat liteke (Renard, Reinhard), *Asenarius* (astozain) jende izenaren bilakaera liteke, hizkuntza tabu baten arrazoiak.

Ez da protoeuskaran agertzen. Erdi Aroan, jende izenetan bai. Hamaikagarren mendean *Azeariz*, *azeari*, *Azenari* (L. Mitxelena FHV. II9.or.) *Azenari bueno*, Valbaneran I08I.an eta *Azeari Berasco* Beriaingoa I276.an. (L. Mitxelena C. D. de Iratxe; FLV I, 7.or.) Bartholomeus *Azeariz* Lizarrakoa (L. Mitxelena FLV I52.or.) *Aceari Zuria* Guendulaingoa eta *Aceari Guruciricoa* (L. Mitxelena TAV 33.or.)

Azuri/axuri (lat. *agnus*). Jende izen eta hitz elkartuetan bereziki Nafarroarren ipar ekialdean ematen da. Leku horietan da ematen *Azurbeltz* deitura, eta Axuri beltza dantza. Hona Erdi Arokoak, hamaikagarren mendekoak

Santio *Azubeleiz*, prior (I025), Garino *Axubeleiz* (I037), Dompno *Azubeli* (I046), Sancio *Axubeliz* (I057) Ezkarozen, *Eneco Azubele* (I072) Otxagabian, Ortiz *Azubel* (I072) Ubeltzietan.

-iz atzizkia semetasunarena bada *Azubele/azubeli* da hitza, baina badakigu *bel-*, *beltz* hitzaren beste itxura dela gehienetan (gibel, goibel, ospel), batzuetan, “bera” izenlagunaren laburpena daiteke.

Behi (lat. *Bos domesticus* L. ?) Protoeuskaran ez da irakurtzen. Erdi Arokoan, XIII. mendean Jerusalemgo Done Joanesen Ordenari diru emaleetan *Orti Beia* de Santo Pedro ba omen zen (L. Mitxelena TAV 34.or.) Gaur ere andre edo gizon lodi-lodiari *behia* deritzogu.

Eratrorri bezala eta *bet-* erroarekin Araban *Betolbazaba* badugu (gaur Betolaza). Nahiz gaur ere, *bebizain* hitza dagoen, ez da aurkitu eta haren lekuan *Unai* eta *Unaimazter* (“*Quod Orti Lehoarriç faciet ut lingua navarrorum dicitur unaimazter*” (J.M. Lacarra *Vasconia Medieval*, 24.or.).

Behor (lat. *Equus caballus* L.?). Protoeuskaran ez da irakurtzen. Erdi Aroan, hamabigarren mendean *Beorburu*, jendea edo etxea da (II82) (L. Mitxelena, FLV I 48.or.). Hamahirugarren mendean, eratorrietan aurkitzen da *Beorrieta* (I268) *Beorlegui* (I294) (R. Ciérvide Nafarroako Artxibo Nagusia FLV 6 32I.or.).



Belatz. (lat. *Falco sp. L.*) Protoeuskaran ez dago. Erdi Aroan, hamargarren mendean *Belaza*, gizon izena da (FLV I, 14.or.) eta Valpuestan ematen da *Munio Belaza* (950) (J.M. Jimeno Jurio, FLV 3, 14.or.) eta Artaxonan leku izena badago 1235.an *Velatz mendi* (L. Mitxelena FLV 3, 381.or.).

Bueitre (lat. *Gyps fulvus sp. Habl.*). Hegazti horren inguruan badago hizkuntza debekua, beraz aspaldikoa da mailegua, Erdi Aroko leku izen batean agertzen da Nafarroako Burundan eta Irantzuko Liburu Gorri delakoan hamahirugarren mendean, *Bueytarri* badago (gaur Zuberoan *builtre* eta Gipuzkoan *putre* esaten zaio, sai arreari).

Buztan. (lat. *cauda*) Erdi Aroko euskaran, hamahirugarren mendean, Irantzuko komentuaren liburu gorrian gizon bat *Pero Buztayna* izenarekin agertzen da (L. Mitxelena FHV 141.or.) Benetako buztana animaliek dute eta N. Landuccik bere hiztegian ematen du *vuztayna* “cola” eta *buçtana* “rabo de animal” beste norbaitek emana.

Enara. (lat. *Hirundo sp. L.*) Erdi Aroan, lekukotasun bat Ortissa izeneko norbait *Enasurietan* bizi da.

Erle (lat. *Apis mellifica L.*) Lekukotasun zaharrak ditugu Artaxonakoak *Hérlegghi* (1114) *Erlegui* (1131) (J.M. Jimeno Jurio FLV 3, 18.or.). Erdi Aroan, arteko euskaraz XIII. mendean Jerusalemgo Ordenari zerga emaitan Nafarroa Garaiko Olatzen, *Sanso Erlea* badago (L. Mitxelena, TAV 34.or. eta Ollokin 1243.an *Garcia Erlea* (L. Mitxelena FLV I, 47.or.).

Erletik hurbilago jakina *Erlategui gabala* leku izena 1233.an (L. Mitxelena FLV I, 47.or.). Gaurko euskaran norbait « erlea » dela diogunean, langile porrokatua dela adierazi nahi dugu.

Erroi (lat. *Corvus corax L.*) Arteko euskaraz, XII.mendean *Erroytegui* leku izena da, baita *Erroygauieta*. (J. M. Lacarra *Vasconia Medieval*, 15.or. et 39.or.). Uste dut bi lekuak ez zirela bizileku goxoak, frantsesak ere dio leku galduentzat «beleek hornitua».

Hartz (*Ursus sp.* eta *Ursus arctos L.*) Europa osoan aski zabaldua (latinez *Ursus* izena) Protoeuskaran erromatar garaiko pagano aldarean orain Baserteko Andra Maria elizan dagoenean irakurtzen da

BAESERTE / DEO / HARBELEX / HARSÍ (L. Mitxelena TAV, 17.or.)

Hortaz dio Mitxelenak «el gen. *Harsi* con terminación latina sería comparable a vasc. *hartz*, oso».

Beti pirineotan, Bordères de Lurons *Harsori* izena agertzen da. Joan Corominasek eta Mitxelenak uste zuten, beharbada, itxura zaharrean *Arcea*, *Harsea*, *Garsea* agertzen delako García dela antzinako totem deitura horren ondokoa.

Erdi Aroan, *Hartzpuru* Haitzpuru liteke herri etimologiak aldatua (L. Mitxelena FLV I, 15.or.). Zuberoan honelakoa daukagu *Harxilodi*, argi da *barri+xilo+di* harrian, harkaitzean zulatu zubia delako. Nola nahi ere, adibide asko daude Artaxonan herri etimologia, agian, nagusitu zela Don García *Arzpuru*

(II83) Arzpuru (II93) *Arzpuru* Yazco (II97) Don Gracia *Arzburu* (I203) (J. M. Jimeno Jurio FLV 3, I5.or.).

Idi (lat. *Bos domesticus* L.) Protoeuskaran, erromatar garaiko harri batean irakurtzen da IDIATTE (Sacaze, 7.or.).

Erdi Aroan hitzelkartuetan agertzen da *Içaneche* Jatsun (I366) (J. B. Orpustan BMB I974, 65 I59.or.) eta “el maçanedo de *Itolatza*” (J. M. Lacarra *Vasconia medieval*, XIV. mendean)

Luma (lat. *pluma*) Protoeuskaran ez da irakurtzen. Erdi Aroan, “Arrasateko erreketan”, ihesaren eta arintasunaren metaforaz:

*Oynaztarroc cirean luma*

*Laster baten ygaro çan.*

Mehaka (lat. *pars costalis*) Protoeuskaran ez dago. Erdi Aroan, nahiz jendeekin edo aberekin batik bat erabili, botanikazkoak ditugu Orreagako biak XIII. mendean *Aritz meaka* eta *Vaga meaka* (L. Mitxelena, TAV, 37.or.). (ik. Oraingo *Haritzmebeka* etxea Larrainen (Z.).

Moko (lat. *rostra*) Erdi Aroan hamalagarren mendean *Mocoçu gain* Nafarroako leku izena da I360. urtean (J. B. Orpustan BMB, I974). Orpustanek idatzi du moku zu izan daitekeela edo *mokorzu* “konkortzu”.

Muskar (lat. *Lagartus viridis* L.) Oliten gizon baten izena Periz *Muscarro* da (A. Irigoyen IKER I, Euskaltzaindia, I98I, 385.or.) (gaur *Müskar* Sarrikotapeko etxea (Z.) eta *Muscardiz* nafar deitura)

Mutur (lat. *os*) Nahiz animalien musua den, gizon bati egozten zaio Erdi Aroan Garcia *Muturro* (J.M. Lacarra in *Vasconia Medieval*, 39.or.).

Oillasko (lat. *gallina*).Erdi Aroko euskaran, *Miquel Oyllasco*, *Sancho Oyllasco* bildu ziren (A. Irigoyen Euskera XXV, I979, 27.or.)

Or (lat. *Canis domesticus* L.) “Hor” zubereraz oraindik bizi den hitz zaharra Erdi Aroan leku izen batean aurkitzen da XIII.mendean *Orbegui* (FLV 6, 334.or.). *Orpuztan* izena ez nezake talde horretan sar, ezen *Arpuztan* arrunta goa ere baitago, etxe bati egokiago dena.

Ozar, otsar (lat. *Canis sp.* L.). Halan deritze basa zakur eta otso arrei. Hamabigarren mendean, Artaxonan *Ossarra* (III0) eta *Don Oxarra* Iratxeko dokumentazioan (L. Mitxelena, FLV I, 47.or.) (Zuberoan *Hotzar*, zakur zaharra da).

Orein (lat. *Cervus elaphus* L.) Erdi Aroan Sancho *Oreyna* (I284) eta Martin *Oreyna* izenak Nafarroan (A. Irigoyen RPLU A.II 29.or.) Edo orein ehiztariak ziren edo buruan adarrak zituzten?

Otso (lat. *Canis lupus* L.) Protoeuskaran erromatar garaian badago, Bigorako Bordères en Luron herrian jende izenak

*OXSON* (CIL 369, TAV, I8.or.)

*OSSON* (CIL I0I, TAV, I9.or.)

Erdi Aroan, *Otso* eta *Otsanda* jende izena izan da (errromartu Akitanian *Lupus*, gero Hispanian *Lope*, Germanian *Wolf*). Euskal Herri osoan gutxienik *Otxoa* gizon izena da eta Aragoi Nafarroan deitura ere. Deituretan laster txikigarriak *-ko* edo semetasun atzizkiak *-iz* gaineratu zaizkio:

Hamaikagarren mendean *Fortunio Otxoa*, senior in Kantabria (I042) *Oxoiz*, dominator meldria (I015) (R. Ciérvide FLV 27, p. 466) Hamabigarren mendean Arabako Leheten *Osaco*, *Ochoco* (II40) bestalde *Don Ochoquo de Arazuri* (II86) Hamahirugarren mendean, Eneco de *Ossoco*, *Don Ochoco* (I215), *Ochoco* (I217) *Ossoco* (I209), *Ochocoiz* (I217) (L. Mitxelena “Colección diplomática de Iratxe” in FLV I, 9.or.).

Otsoa de *Oxagaia*, leku izenean (I072) *Ossobieta* in uia de Aoiz eta *Ochoui* (II12) (R. Ciérvide FLV 23, 252.or.).

*Otxando*, *Otxanda* (lat. *Canis lupus* L.?). Hamaikagarren mendean hasirik jende deitura da *Ossando/Oxando*, *Ochandoiz*, *Osandoz*, *Ochandoz* (I210). Tuterako artxi-boan *Otxanda* I240. urtean andere baten izena da (R. Ciérvide FLV 6, 288.or.).

Suge/sugar (Ophidia). Erdi Aroan, *Gomiç Sugabarra* deitura agertzen da (L. Mitxelena TAV, 45.or.).

Txori. (lat. *avis*). Erdi Aroan, hizkuntza askotan agertzen den metafora edo klitxea. XIII. Mendean irakurtzen da gizon baten gaitzizenean *Lope Çoriburu* (R. Ciérvide FLV 6, 290.or.).

Urde (lat. *Suus domesticus* L.) Erdi Aroan, orduko, I058.an hizkuntza debekua agertzen da «lumadun» jendeen artean: *Urdasacu locus quem uocitatur et proprium sortitum est* (L. Mitxelena FLV 23, 25.or.). agian *saku* zen lotsagarria. Geroxeago gizon baten izena Pedro Maria *Urdea* da (I330) gaurko euskaran laidogarria dugu eta antzina beharbada ere.

*Urdain* da urdezain lana eta Erdi Aroan *Garcia Urdaia* badugu (L. Mitxelena I, 45.or.).

(Kontuz, goi mendietan *urda-* hitzaz hasten diren mendi izenak daude baina ez dute, sarritan, gure zerriarekin ikustekorik).

Uso (lat. *Columba sp.* L.) *Usoa* andere izen bezala Erdi Aroan irakurtzen da, baina deitura ere badago *Orti Ussoa* Tuteran I080.an beharbada Ossue herrikoa zelako.

Hamaikagarren mendean hasi-eta, Nafarroako herri batek izen hori hartu du *Uxua* (I058, I064, II38), *Ossue* (I062) *Ussue* (I083), *Uxuei* (II41), gaur *Ujue/Uxue*. *Ussadorre*, *Orti Ussadorreco* Utergan I226.an agertzen da (FLV I, 38.or.).

Ez dakit Usue herriaren, herri etimologiak legenda sortu duen (hala nola, Arantza eta Arantzazu) ala benetan elizak eman zion izena. Uxueko ipuinak dio, harkaitz batetik sar *-irtenka* zebilen uso baten jokaerak erakarria, han IX mendean birjinaren estatua bat idoro zela. Urte jakingarria da, zeren orduan

da Euskal Herrian kristautasuna zoko guztietara hedatzen (J.M. Lacarra, *Vasconia Medieval*).

(Hitzaren azkeneko *-ue* Euskal Herri osoan, herri izenetan aurki genezake: Anue, Egozkue, Gaskue (N.), Arüe, Arstüe (Z.), Arrue, Azkue, Unanue (B.G.N.) Leazkue, Narkue, Untzue (B.). G. Rohlfsek gure *-ue* aragoierazko *ues*, gaskoierazko *os/ez* ekin protoeuskarari lotzen dio.

(Kontuz! *Usa/ossa* hasiera duten hitz guztiak ez dira hegaztiaren ohoretan, baina “*usa*”, latinetik hartua, leku askotan auzoen arteko lurra da, halan darabil J. A. Moguelek, *Usa- erri baso*, azaltzen zuen eta hortaz ik. J. San Martin “*Usa leku-izena eta bere esan nahia*” in *Euskera* XIX, 1974 267-275. orrialdetan).

Zaldi (lat. *Equus caballus* L.).

Erdi Aroan, Zaldi hitza hamabosgarren mendean irakurtzen da Lope de Salazaren *Bienandanças e Fortunas* liburuan *Galdotxako zaldia* (1476) eta Hamalaugarren mendeko bi deitura *Zaldibia* eta *Zaldibar* ematen

Zaldi eratorrietan anitzez zaharrago da. Hamaikagarren mendean, Artaxonan 1087-1103) *Lope/Lop/ Lupus Salduna* hamaika aldiz aipatua da Hamabigarren mendean *Domicu Salduna* (1198) (L. Mitxelena FLV I, 44.or.) eta Artaxonan *Exemen Salzaia* 1103. urtekoa (A. Irigoyen RPLU A.III, 167.or.). Hamahirugarren mendean, *Orti Salduna* (L. Mitxelena TAV 38.or.). Kontuz! Leku izena Nafarroa Beheran Salduuidea, “*Basobidea, Oihanbidea daiteke*” (J. B. Orpustan BMB, 87, 22.or.).

Zapelatz (lat. *Buteo sp.* L.).

Zerri (*Suus domesticus* L.). Erdi Aroan, XIII.mendean, zerga emaile zerrenda batean badago *Tota Cerria* (L. Mitxelena, TAV, 39.or.) Gaitzizen hori agian oso lodia zelako eman zitzaion, ez gaiztoa zelako. (ik. Ahardi, Behi, Urde).

Bigarren urratsaren emaitza

Orain arte ikertu dudan protoeuskaran animalia gutxi agertzen da, aker, asto(?), hartz, idi, otso. Erdiko euskaran, Erdi Aroan, (41) berrogeita bat hitzetako bilduma horretan, ez da harritzekoa baldin badira euskal sinestetako abere eta ehiza nagusiak, *arrano*, *buitre*, *behi*, *behor*, *hartz*, *idi*, *orein* Jende deitura emaile ere batzuk hala nola, *azeari* (Azenari), *hartz* (Garcia) *otso* (Otsoa), *orein* (Orein). Bestalde aspaldian hezi *abari*, *ardi*, *azuri*, *asto*, *urde/zerri*, (*h*)or. Ez da harritzekoa ere abere hazle herri batean *artzain* *itzain*, *unai*, *saltzai*, *urdain* hitzen aurkitzea, baita *ardi* kentearentzat hiru hitz: *ardi*, *abari*, *azuri* eta *zerri* kentearentzat: *zerri*, *urde*, *ahardi*.

Ikerle batek behin idatzi zuen ez zela euskal etxeen eta batik bat ere leku izenetan basa pizti izenik agertzen, non daude orduan, Otsogorri, Otsobi, Otsoaitz, Ochoa/otsoa? Nun dago, Hartz habia? Nun Hartz pasüa? Nun Haxeri ziloa, Belatx pausagia, Aker Zaltua, Otso naba? Azkonategi, Otsobi, Otsoa, Otsogaitz etxeak. Berrogeita bi hitzetako uzta hau ez da inondik ere osoa; ez dakit erdiak ere hemen daudenez eta aurkitzekoak, asko.



## II

## SINESTE, TABU, SINBOLO

Biologiaren zati handia, batez ere, bi oinetako edo lauoinetako animaliena, animista pentsaera bat nagusi zenean garatu zen eta denbora berean sinesteak hari lotu. Herri sineste gehienak berdinskak izan daitezke, herriek bate-re harremanik eduki gabe, lur zabal honen beste bazterrean ere aurki genitzake, eta guretan, kanpotik etorri direnak ez dira faltako. Hala ere, gure kosmogonia berezia antolatu dugu eta Euskal Herri osoan honelako batasun bat badago horretaz, alde batetik ingurugiroak eragina, bestetik besteek galduak gorde ditugulako. Kosmogonia hau zatika agertzen zaigu XIV mendetik XIX.aino baina ikerketa nagusiak XX. mendekoak ditugu, hor daude R. M. Azkue, J. M. Barandiaran, J. I. Hartsuaga, J. Altuna, J. M. Satrustegi eta beste asko ehunka lekukotasun bildu dituztenak. Bigarren ikuspegi batean hitzetan zer sinbolika dagoen ikusiko dugu.

## 2.1

## Sinesteak eta jende gorputza

Hona zer liburu erabiliko dugun, gehienbat

R. M. Azkueren *Euskal Erriaren Yakintza* (EHY), Madrid 1959, Espasa Calperen bigarren argitalpenean, lehen alea I. *Oitura ta siniskeriak*, 71-81. orrialde-tan eta IV. alea *Erriaren sendakuntza*, 218-265.

J. M. Barandiaran, *Mitologia vasca* Minotauro, Madrid, 1970.

J. I. Hartsuaga, *Euskal eta indoeuropar mitologia ikerketa*, Pauen 1980. an irakurri tesia.

J. M. Satrustegi, *Mitos y creencias* (Etnografia vasca) Ed. txertoa, Donostia, 1980.

Tx. Peillen, *Animismoa Zuberoan*. Ed. AEB, Donostia, 1987.

Tx. Peillen, *Herri sendakuntza eta sendagingoa* Zuberoan, Ed. Eusko Folklore, Donostia, 1995.

### I.1. Azazkala eta lehen soinekoak

R.M. Azkuek Euskal Erriaren Yakintzan idatzi zuen:

«Adanek eta Ebak azkazaleko yauntzia zeukaten pekatu egin-orduko; ta oroitzapentzat erietan (atzetan) omen daranzkigu azal oriek. Beraz yatorrizko yaunzkinak dira azkazalak». [Ng, b-oy] [EHY t.I 73.or.].

Badirudi Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroa garaian kontatzen dela. Beharbada, sinestea letorke batzuetan Adan, Eba eta Jaun Done Batista *kaunakes* batez jantziak agertzen direlako. Kaunakesa lehen soinekoa omen zen, lumaz, azkazalek edo artile zatiz egina, iduriz ezkatatzen egina.

### I.2. Azazkalalen eta haginaren arteko harremanak

Azazkalak ez dira noiz nahi moztu behar eta

A. “Astelenean azkazalak mozten dituenak”

*Agineko minik ez du izango* (Ng) baita Nb.G. Beizama, Oiarzun, Larraule, EHY lehen alea, 73.or.).

B. *Bere aginak beti oso ta zindo egon oi dira* (B. markina, Otxandio, EHY I. alea, 73.o.).

Igandetan egiten bada

“*Igandean azkazalak mozten dituanak ez kardak izain tu beatzetan*” (Ng Larraun, Nb.Garazi, G. Amezketa EHY I.alea, 73.or.).

Beste batzuek alderantziz diote:

“*Igante edo neskanegüinean azüzküliiak mozten tüzüü. Geroko egüinean mozten badira, azkarba (padrastro) jiten düzüü* (Z.) Ostiraletan egiten bada.

Badakigu ostirala sorginen eta akelarrearen eguna daitekeela, eta azkazala erabil magia eta azti jardueretan horregatik: Ostiraletan moztu azazkalen bila dabilta ijitoak

“Azkazal oien bila ijituak ibiltzen dira. (G. usurbil EHY, 74.or.).

“Ostiraletan azkazalak moztu ezkeru

A. *Negarrez egoten omen da Jaungoikoa*

B. *Etsaia (deabrua) azkazal oiezaz gurdien gurrpilak egiten ari izaten da.* (EHY, 74.or.).

Azken sineste horren antzeko antzinako eskandinaviarren artean ezagutzen da:

«Edda Handi liburuan Naglfar ontziak ankla jasotzen du; barku hori hilen azkazalez egina da. Snorra Eddan azkazalak moztu gabe ez dela hilik ebortzi behar irakurtzen da. Egin ez lezakeenak, gizonak eta jainkoak izutzen dituen Naglfar itsasontziaren urrentzea bizkortu lezake» [J. L. Borges *Essai sur les anciennes littératures germaniques*, Ed. Flammarion, Paris, 1970, 138.or.].

Tabu eta debeku horiek darakutsate euskaldunentzat azazkalak ez direla bizigabe, ilea bezala, biloa bezala handitzen baita eta bere egoera osasunaren salagarri delako:

«*Haurren azkazalak ezdiuzte pikatzen urte bat beteartio. Gero ere ez aitzurrekin, lo direlarik eta ortzekin baizik*» [Nb. Garazi EHY, 76.or.].

Sineste berdina Alemanian agertzen delako, hango hizkuntza ematen digu Azkuek lehen urtean haginekin mozten dituztela amak lapur bilaka ez daitezzen: *der kleinenn Kinder ihre Nägel müssen zum erstenmal (oder im ersten Lebensjahr) von der Mutter abgebissen werden, sonst lernen sie stehlen.*

Aizurrekin, guraizeekin moztu egiteko arrazoia beste bat da sarritan:

«Guraizakin azkazalak uneai moztuezkero beatz-muturrak zornatu egiten dira. Ortze-kin mozten dizkiete» [G. Arrona, EHY, 76.or.].

Azkazalen toxikotasunak, Europa guztian, bada sinestea, lehen sorginek eta ijitoek beren edari izunen egiteko erabiltzen zituzten, baina, gaur, honela uste da gaisoarazi edo zoroaraz dezaketela norbait:

«Behin lagün batek azüzkülü puxkak godaletean ezartez eriarazi nindizün» [Luis Rubio Hardoi, auzoak Santa Grazin, 1989.an].

«Azazkala ez da lapiko ondoan ebagi bear. Azazkal zati bat lapikoan sartuezkero, lapikokoa yan dagiana zoratu egiten da» [G. Ursuaran, EHY, 75.or.].

Bareaz. I.M. Barriolak diafragmaren saihets puntaren jatorria euskaldunok bareari egotzen dioguna idatzi zuen (ik. *Medicina Popular Vasca*, 1953, 55.or.). Uste dut, hori europar gehienek sinesten dutela eta askok lehen lasterkariari barea lehertzen korrikan, lasterkan hobe egin zezan. Badakigu, herri pentsaerea, barea dela nekez dabilen gastropodoa eta abere baten barea ikusi duenak badaki limako gorriaren itxura zer bait duela. Ez da erraza erratea izenak due-nez, azalpen eman nahiz, sinestea sortu ala sinesteak izena eman.

Begiaz. Mundu guztian bezala jendeentzat organo garrantzitsuetan dago eta sineste iturri. Noiz nola, arrazoiekin eta sineste gehiegi gabe, euskaldunak dio *Begiak bibotza jarraikitzen ziozü* [Z. Barkoxe EHY, 76.or.].

Begiko nikak edo keinu automatikoak. Begiko nikak albokatuak dira

“*Begia ezkerrekoa, nikaz ari bada norbait gaizki erraiten ari da, eskuinekoa bada, hun erraiten.* (Z. Barkoxe) Alderantziz diote frantses gehienek.

Begiko gaitzak. Giltza delarik irekieraren sinboloa, begiko gaitzetan erabiltzen da, Begitxindorra, betarroa denean betezpalean agertzen

«*Alargunak ezkontzeko, begiz jo duen neskatoari betarroa egiten zaio eta betarro baren kentzeko bortako giltza bederatzi aldiz begian erabilten da.* (Z. Barkoxe, EHY, 77).

Betarro edo begi txindorraren sendatzeko beste errezeta da Lehena, bitxiki berriz alargungoarekin lotua eta bederatzi zenbakiarekin ere

«*Beltxorra duenak emazte alargun baten eraztuna pasatu behar du begian bederatzi aldiz*» (Nb. EHY, 77.or.).

Begi handituarentzat burdinazko bi tresna agertzen zaizkigu

“*Begiko minaren kentzeko bortako giltza bederatzi aldiz begian igaraiten düzüü*”.

“*Betzala andituta eukanak subelindara buztana orraztokian gorde bear eban. Igartuten zanean, osotuta eukan begia*” (B. L. 76.or.).

Begiko mina eta barur txua



«*Begiko mina ume, naiz besteren batek daukanean, aogozoaz igortzi ta osatzen da*». (G.arr. 120.or.).

«*Nausiai bere ondo da, pistak daukezanean, begiak barautxuaz garbitutea*» (B. Olaeta, 120.or.).

Begiko minaren kentzeko errezeta egokienak badira EHY ren laugarren alean ur egosia eta lihozko zapi batekin bustia Bizkaian, edo kamomila urarekin garbitzea Baztanen Ehunostoko arrosaren ura, edo sahatsaren lorea, arrosa lorearekin urean egosirik Bizkaian eta Baztanen, ez dira sinesteak; edonola, dudan gaude, Olaetan egiten zena ez ote sinestea “amaren esnea seinaren begira botatzea” (EHY IV. Alean 230.or.). Badakigu esne berria, gehienetan, mikrobiogabea dela.

Begioker, ezkel. Azkueri, Zuberoako Liginagan kontatu zioten *ezkel* zeterrela umeak sailheska leiho baten argiari begiratzen zuelako. Frantzian diote haurraren aurrean gauaz argi bat pizturik uzten denean gertatzen zitzaiola. Nire ustez, begiko giharren desorekaz etor liteke.

Begizko. *Begizkoa*, mundua barru, zibilizazio gehienetan ematen da. Azkuek Alemaniakoak aipatzen ditu. Geronek prentsan jarraitu genuen Normandian Alençonen egin zen auzia, alegia begizkoz etxalde batean behien esnea galarazi zuela auzo batek, gizona bahitu, torturatu eta 1977.an hil zuten. Santa Grazin badago etxejoaun bat behitegietan, arditegian sartera uzten ez dena, berak ere ez du nahi ezen abere bat goraitpatzen, erosteia eskatzen duenean animalia hiltzen dela. Duela ehun bat urte Anpeillu gaitzizenez ezagutu Santa Graziko apez exortzistak begizkoa egin zion Berrietxeko gizon bati hartaz burlatu zelako. Eta sendatu gizonak barkamena eskatu ondoren. Nire lehengusu bati ezkontzeko ezezkoa eman zion neskak lehen haurra minbizidun izan zuen eta jendeek lehengusuak “begi gaiztoa” egin ziola uste izan zuen. Hain zuzen, aipatzen ditudan gertaera horik definizio hori ematen dute:

Sorginek eta deabruak bakarrik jendeengana eta abereengana dagiten gaizki bat da, baina zenbait aldiz, beste askok jakingabea eta ustekabea erabil dezakete indar hori. Gipuzkoako Ormaiztegin eta Elorriagan Azkueri erantzun zioten Barandiarani bezala.

«*Begizkorik eztela? Izena ezarri zaionean zer bait bada*» (EHY 120.or.). Sineste asko daude non nahi Euskal Herrian begizkoaz.

«*Norbait ilten danean, begiak zabalik badaukaz, itxi egin bear dakioz besteren bati begizkoa egin eztagion*» (B.a. 122.or.).

«*Begiak zabalik dauzkan ilak norbait beste mundura eramango luke begiak itxi ezik*» (G. Arrona, Ataun, EHY, 122.or.).

Begizkotik babesteko hamaika errezeta daude zilarrezko atzaparra (Amezketeta, Ataun, Donostia, Lekeitio). Antzina, Bizkaiko Olaetan umearen jantzi-tan kirikino (sagarroi) baten hagina josten zen, azkonara atzaparra lepoan zi-

lintzan, geroago ebanjeliotxo kutuna edo Jesusen Bihotzaren irudi bat edo San Antonen babespean jartzen, ur benedikatu, lau zpabost elizetakoak, ogi benedikatua kutun batean ipintzen zen, ikatz edo landare, edo zilbor zati batekin. Galtzerdiak edo gona azpizkoz gora janzen zituzten andereek.

Ustekabeko begizkoa egin dezake norbaitek animalia bat edo ume bat ederretsiz Eta «*Ze ume ederra! Esaten dabenak begizkoa egiten dotsa umeari ta begizkoa kentzeko Jaungoikoak bedeinkatu dagiala esan bear dau an dagonen batek*» (B.a-elorr-Ng b, G.at. EHY I26.or.). Begikoaren hausteko ondotik esan behar da, baina Jainkoa lagun edo Jainkoak benedika. Zuberoan, bereizten da ustekabea eta desira handiegiz egiten den kaltea eta begizkoa nahikunde gaiztoz egina.

Bekoki, belar, kopeta, boronte. Gauza hain bakunarentzat hainbeste izezez zerbaiten salatzen digute, alde batetik nahikundearen kemenaren sinboloa da, baina ere kristautentzat bataioarena. Bekokian da gehienik lekutzen buruko mina. Eta arina denean Azkuek bildu sendagailuak balio luke garondoa asunez igurtzi, osinen erradurak beste minaren izatetik urruntzen baitu:

Aita Joanes Casenave euskaltzaleak kontatu zidanez “digitipunctura” edo atzekin sendatzen zirenean euskaldun zaharrek bi lokiak atz edo eri banaz igurtzi egiten zituzten (Txomin Peillen, *Herri sendakuntza eta Sendagingoa Zuberoako Basaburuan*, ed. Eusko Folklore, 1995).

Betazal, betezpal. Betxarroaren inguruko sinesteak gorago ikusi ditugu. Gorago ikusi ditugun ustekabeko begi niketan, eta hala nahizko begi keinuetan mugitzen dira. Osatzeko jakina sugandila baten buztana orratz begian sartu behar da eta hura lehortzen deneko begi handitua deshandituko da.

Belarri. Hemen ere begien kasuetan bezala alboratze bat, zeharkatze bat, saiheste bat badago, belarria ziztuka edo berotu daiteke:

*Eskuiko bearria soinuka ai bada, norbaitek ongi xardukitzen dui, ezkerrekoa ai denean, gaizki* (Nb. Aezkoa) (EHY I.tomoan, 78.or.).

*Eskubiko belarria bero baldin bada*

*A. Arimak eskatzen ari dira* (Ng. B. Nb Donazaharre).

*B Norbait guzaz ondo esaten ari da.* (G. Arrona, Ataun, Motriku B. Olaeta Mundaka, Maguna) (EHY I.tomoan 78.or.).

*Ezkerreko belarria bero dagoanean, aren kontra izketan ari dana onera ekarteko Aita Guerea errezetatu bear da ta ala belarria oztzen da. Batzuk purgatorioko arimentzat errezatzen dute,* Ng. Larraun).

Sineste dirudi eta ez da. Azkuek sineskerien artean sartu arren, batzuetan, belarrietako harra benetakoa izan daiteke. Hona zer bildu zuen Azkuek.

«*Belarria soñuka dagoanean belarriko arra egarri izaten da*» (Ng Baztan. B.).

Behin, Aljerian erizain moduan, doanik jende sendatzen nenbilenean, gizon bat belarria eta matraila handitua agertu zitzaigun eta jakina belarriak ziztuka, ez ziren nekadurak sortu akufenoak, belarrira begiratu eta lehenik be-

larri zakar tapa bat atera nion nekez eta ondotik ur bero apur batekin malgotu eta beharri barneko “zumua” hustean *sei euli bar* atera nizkion. Noizbait, euli batek belarrian errun zizkion.

Kasu gehienetan ez dago harrik edo akufeno edo otitis eta jendeek belarrian esne beroa erabiltzen dute, hanbat hobe, baina ez du halabeharrez, amaren esnea izan behar ez eta sinetsi beti “harrak direla egarri” Guri haurtzarotan, sendagileen aholkuz, olio epela ezartzen ziguten eta gainetik uata zatikoa. Belarri belarraren erabilera otitisetan aspaldiko europar erremedioa da, Bizkaian Zeanurin Azkuek bildu errezetaz (EHY t.IV 231.or.).

Bilo. Biloak, ileak sugearekin eta harrekin daukan lotura euskal sinestetan ageri da. Ez dira gureak, ordea, Medusaren ileak bezain izugarriak, baina, baina. Zenbat sorginkerietan ez ote da biloa erabili?

1. Sugea dela-eta “*Ile bat palangana batean paratu ta suge biurtzen da*”. (G. Z. Barkoxe) (EHY t.I. 80.or.).

“*Beorraren zurda uretan suge egiten da*” (G. Ursuaran, Ataun, EHY 80.or.).

“*Latsetako, erreketako sugeak zaldien uleetarik sortuak dira*” (B. Elorrio, Dima, Olaeta, (EHY t.I, 80.or.).

“*Eguzkitan dagon biloa suge bilakatzen da*” (Nb. Garazi) (EHY, t.I, 80.or.).

“*Orma zuloetan be suge egiten dira andren uleak*” (B. Olaeta) (EHY, t.I, 80.or.).

## 2. Harra dela-eta, bildu nituenak

Luis Rubio Hardoye Santa Grazin kontatua: “*Gorotziala urtikiten diren biloek bolako kolore gabeko bar eli bat emaiten, titzie*” (Santa Grazi, 1983.an) “*Biloak burean süge bilaka ümen litetzü*” (J. Casenave Harigile Santa Grazi)

Eta Azkuek berdinxka, Erronkariko herri auzoan:

«*Erronkarin suge bilo du izena uretan ebiltan den ar batek eta berarengatik erraten die: Uturrietan ebiltan den sugeno bikalako bat, aria gisa, ez lodiago, kaur da gore artean suge-bilo. Bilatik sortan dela erratea da*» (EHY, t.I, 80.or.).

Har hori zuria da buru beltz txiki batekin, zomorro baten larba da, noiz nola, nire Santa Graziko iturri askan ikusten dudana.

Zer egin horrelakorik gerta ez dadin

“*Motz eta berbala erre behar dize*” (Luis Rubio Hardoy, Santa Grazi)

“*Batzuk erre egiten ditue ule zatitxo onek beste batzuk barriz gorde*” (B. Olaeta, Elorrio).

“*Ileak surtara botatu ezkerro (egotziz geroz) buruko minik ezta izaten urte guztian*” (G. Amasa, EHY t.I. 80.or.).

Azazkalen alderantziz hobe de ostiraletan moztea batzuen ustez, agian deabrua ezpaita haiez jabetuko eta erre egiten direlako arriskua txikiago: “*Barrikutetan ule-puntak ebagi ezkerro, ulea sendoago azten da*”. (B. Elorrio, Olaeta) (EHY t.I, 80.or.) “*Martxoko lehen ostiralean bai*” (Z. Barkoxe) (EHY t.I, 80.or.).

“Aurpegiko txulo politik: orain, kika, kokoitx, sor seinale

Orinik ez: sorgina da

Eskuinean: seinale on

Ezkerrean seinale txar

(NG Larraun, B. Amurrio, Lekeitio, G. Amezketa, Ataun, Urtsuaran)  
(EHY, t.I, 81.or.). Eta Azkuek azpimarratu zuen:

“Nire lankide andi Franciska Iribarren gaztexoa zelarik, bere anaiek sorgina esaten zioten. Amak erantzuten zien: “Eztok sorgiña, orrek badik oriña”.  
(EHY, t.I, 82.or.).

Antzeko sinesteak zituen De Lancre sorginen erretzaileak eta orin ez iza-teagatik hamaika andre erre zituen.

Odolgalzte/odolerion. Bizkaian Azkuek bildua odolaren geldiarazteko lepoa busti behar dela

Hogeigarren mende erditsuan, bi urtez bizitu naizelako Zuberoan, sudurretik odola galtzen zenean, harri busti bat garondoan ipintzen, edo giltza bat (sineste kutsuz-edo?) eta batik bat burua ahal bezain gibelera, atzera edukitzen ikusi dut. Sudurziloak algodoiez tapatzea hobe.

Erroiben edo titiarrain. Erroiben hitzaren lehen zatiak gogoratzen digu herro, ugatz eta titi sinonimo direla. Erroibenaren sendatzeko Elorri beltzaren hostoak titiaren gainean gurutzatuak ezartzen ziren.

Urdailmin, bioztarre. Herri askotan bezala, Euskal Herrian urdailmin zena bihotzekoa zela uste zen (Afrikan, arabieraz «ana marid ma galbi» bihotzetik minez nago, esan zidan urdailetik minez zegoenak) Batzuk zekiten, urdaileko mina zela baina hitzaren arabera gerta daiteke erremedio zaharra hala nola euskaldun zaharrek urde baten urdaila jaten zutenak. Ez zien, jakina, minik batere egiten eta on ere egin zezakeien.

Zainartadura, zaintiratu. Zain, urrunago ikusiko dugunez hitz zabala da, latinezko ligamentus, nervus, tendinus, vasus; hori bera gertatzen zaio frantses herrikoari “nerf” hitzarekin, baina kasu honetan tendinus delakoak dira tira-tuak, ezagutzen dudan Augusto Agerrek bere laurogeita hamalau urteekin, hezur zuzentzaile denez (daunatua), sendoki, eskuetan txorkatila, aztal beharria hartuz eta tiratuz sendatzen ditu, baina sasi sendagailuak ere baziren, hala nola Azkuek Bizkaian bildua, hor agertzen da antzinatean, zaintiratuentzat famatu belarra Zain belarra edo plantaina, baina minaren ukitzea nahikoa ote?

Zainarra (erreuma), umoreak. Humoreen fisiologia Santiago bidearekin Euskal Herrian sartu zitekeen, eta XVIII. mendeko Albertus Magnus euskaratu batean irakurri dugu lehenik. Zuberoako Herri sendakuntza liburuan agertu delako ez dugu hemen luzarago aipatuko.

Erreumen sendatzeko zerbait balio zukeen erremedio bitxia sinestearen mugan dago. Badakigu, beroak ezitzen dituela erreumaren oinazeak, baina

norbait itzaldu labean sartzea, arriskutsua dirudi (Azkue), beste sendabideak aldiz Europan osoan zabalduak diren sasi-erremedioak dira. Zuberoan ikusi ditudanak egiten gizonetzkoen artean gari aleak, harriak, gatza izan dira, baita berriago poltsikoan gaztainak eta lursagarriak igartu arte eta kobrezko eskuturarrak. Azkuek horietarik bat aipatzen digu: Mina gauzari ematen zaio.

Zintzur. Azkuek bildua Zuberoan:

Züntzürreko minaren sendotzeko lepo üngürüan ezkerreko galtza bat ezarri behar da (EHY, t.IV, 259.or.).

Lehen sail batean ipini genitzake zentzumenen organoak, begi, belarri, esku lurzabaleko herri guztietan sineste gai direnak. Lateralizazio kasuetan (begia, belarria) ikusten da Euskal Herrian ezkerria kaltegarri dela eta eskuintza ez; Frantziako leku askotan alderantziz da.

Bigarren sail batean aztikerietan ere erabil daitezkeen, adar, atzapar, azkazal, bilo, ile, larrua, zurda. Fanera horik bizirik direla uste da eta bizidun bat eman lezaketela (harra, sugea), sorgin errezetetan erabiliak dira. Gaur, ordea, sineste girotik urrunduz, jakintza poliziak gaizkigileen aurkitzeko darabiltzate. Hezurren artean, batik bat haginak dira sorginkerian erabiliak eta jendeen gorpu deseginen, erretakoen ezagutzeko ere baliagarriak.

Herri gehienetan bezala, antzekoen sendakuntzaz baliatzen da sendagailuaren aukeratzeko. Batzuetan, izenen antzekotasunak eragiten du, beste batzuetan eta aski egoki organo eriaeren sendatzeko, organo sano bat jatea ez da gaizki: ez du aspaldi giblez egin sendagailua zen gibelaren erremedioa.

## 2.2

### Gorputz mikrokosmoa eta unibertso makrokosmoa

Ez da harritzekoa gizonak makrokosmosaren izendatzeko bere gorputza erabiltzea eta bere gorputzaren izendatzeko makrokosmosetik izenen hartzea. Logika aurreko pentsaera horrek hizkuntza zahar guztietan aztarnak utzi ditu, eta bigarren eskuko edo hirugarren eskuko mintzairak (frantsesak, gaztelaniak), ez dute gehiago beren hitzetan ikusten, latinera jo behar edo sanskritora, hizkuntza berri horien logika aurreko izendapenen ondo aztertzeko.

Ohartu gara eta uste dut horretan lehena izan naizela od-, loh-, lar, zurerroa duten hitz gehienak alde batetik biologian eta bestetik lurreko lau-bost osagai nagusien izendatzeko baliatzen direla. Niretzat euskal kosmogoniaman ez da lau osagai edo lau elementu, bost baizik. Bosgarrena egurra da eta horrelako zerbaiten oihartzuna dago gaztelaniaz *materia* eta *madera* hitzen jatorrian

## Makrokosmoa Mikrokosmoa

1. Lur	Larre	larru belarre (bekoki) bular
2. Hats(aire)	Lohi Egurats Haize	lohi (gorputz) hats, arnasa
3. Ur	Ur, euri	urdail/urdabil ugatz
4. Su (argi)	(H)odei, odoi Egun, eguzki, eki	odol begi
5. Zur	Zur, egur	hezur

Bosgarrena zur, osagai bezala iritzi nuen, J. M. Barandiaranek argitaratu *Mitologia Vasca* delakoan euskal arketipoen sailkapenean hain zuzen bost osagaiak aurkitzen ditugulako, bakoitzari jenio bat itsasia: Eki (su argi), Odei (ura) Aize, egurats (aire) Eate (ur kaltegarria), Andrea, Mari, Amalur (lur). Akitanian eta euskaldun zaharrentzat Aritz, Arte, Hagin, Leher, Lizar, Pago sakratuak (Zur).

Azterketa horren ondotik, irakurri nuen Txinako pentsaeran, bost osagai horiek zirela eta hain zuzen txineraz izendapenek gure bide berdinska hartu zutela makrosmoa eta mikrokosmoa hurbilduz mendebaldeko hizkuntza zaharretan horrelako zerbait izan zen; ez al da horrelako zerbaiten oihartzuna ere kausitzen gatzelaniaz maderan, materia hitzetik datorrenean?

Lur, larre, lohi Lar- -ar- erroek azalera bat adierazten dute hala nola makrokosmoan larre eta mikrokosmoan, alde batetik arra eskukoa, bestetik larru, bular, belar/belarre (bekoki) bizkar(?). Sail berdinean sar genezake lohi (lokatz) makrokosmoko eta lohi (gorputz) biologiazkoa.

Ur, hodei, iz-. Hitz horien artean, uraren izendatzeko hiru erroak aurkituko ditugu:

–Od- Beste hizkuntza batzuetan berdin gertatzen da odol eta hodeiekin –od- nire ustez ur erreserbaren adiera baluke. Od- erroa duten hitzen artean hiru daude hiztegian hodi mailegua, baztertzeko duguna eta gelditzen gara (h)odei eta odol ekin;

–Ur- erroarekin behera doan, jaisten den likidoa da, alde batetik makrokosmoan euri/eudi, iturri eta mikrokosmoan urdail, ugatz.

Iz- goiti doan ura, jasotzen den ura. Makrokosmoan izotz, ihintz, itsaso (iz+jaso) eta mikrokosmoan izerdi, izarra.

Su, argi, eki. Hemen, biologiak makrokosmoari hartu diola dirudi, begia, gorputzaren eguzkia litzateke: b+egi sortua. Hurbilketa horretara ausartzen

gara munduko hamaika hizkuntzetan begia eguzkiarekin hurbiltzen edo erka-tzen delako Gurearen alderantziz Indiako Upanishadetan eguzkiari zaio esa-ten egunaren begia dela, aldiz Irlandako gaeraz, gugandik hurbilago begia- ren izendatzeko *sul* indoeuroparrez eguzkia dena hartu dute eta eguzkiari *grian* esaten. Halatan ere, bigarren urrats batean begi, eguzki hitzetik hartu ondo- ren eguzkiari begi bat ematen ikasi dugu eta eguteren den aldeari leku asko- tan eguzki begi edo ekibegi esaten zaio.

Badakigu, euskaldun zaharrek herri askotan bezala, eguzkia gurtzen zute- la eta hori hogeigarren menderaino, horregatik, baliman, kristautzearekin bi urrats eman zuen elizak, izena aldatu eki hitzaren ordeztu eguzki sortu, eta jen- deek eguzkiaren adoratzeko utz zezaten San Bernardoren predikaldiekin euka- ristia Eguzki Santu baten erdian aurkeztu.

Zur, egur. (H)ezur hitza zur eta egur hitzen sintesia iruditu zitzaidan, bai- na sinboloei hain minbera den olerkari batek aurea hartu zidan. Joxean Ar- tzek Isturitzetik Tolosan barru 1969.an argitaratu zuen olerki bildumaren az- kenean idatzi

Egur  
Zur  
Hezur

Haize, hats, egurats. Haize eta hats (butz), arnasaren hurbilketa ez da gu- rea bakarrik grekeraz anemos “haizea” zen eta latinez anima “hatsa”. Gaine- ra hizkuntza askotan haizeari “hats” esaten zaio: Koraneko izpirituaren hatsa, jainkoaren hatsa, Zeltiarren goi hatsa, haizearen metaforak dira.

Framazonekin erkatuz (Jules Boucher, *La symbolique maçonnique*, Paris, 1953)

Osagaia	euskara	saila	maila
Su	begi	izpiritu	iniziazioa
Ur	odol	arima	sineste
Aire	hats	gogo	filosofia
Lur	gorputz	gorputz	lurtar bizitza

Hor ikusten dugu badirela unibertso osoko analogi hurbilak su-begi izpi- ritu, lur-gorputz, eta aire-gogo.

Txinako pentsaerarekin

Makrokosmo mikrokosmo izendapenen arteko elkar trukaketa horik hiz- kuntza askotan eman bide dira. Badaude, kosmogoniaren filosofia ongi erai- kia Tai Txi Xuan eta txinar medikuntzako hiztegian aurkitzen diren metafo- rak, hala nola G. Beau *Médecine chinoise*, Paris, 1965.an irakur daitezkeenak.

Euskara	biologia	Txinera
Lohi	gorputz	lur
Ur	urdail	ur

Zur	hezur	zur
Odei	odol	euri
Egurats	hats/arnasa	egurats
Eki, eguzki	begi	eguzki (eskuineko begi)

Argi gelditzen da, halaz ere, alde batetik elizako latinak lohi baztertu duela eta gorputz sartu eta bestaldetik euskaldun zaharrek ez zutela gogo eta izpiritu bereizten. Axularrek askotan herriari jarraituz, gogo, izpiritu eta pentsamendu hitzen lekuan darabiltza. (Horrela latinaren eraginaz erdi galdu ziren ortzi, zeru sartuz, nahikunde borondate sartuz, “boronte” zubereraz belarre baztertuz ibili ziren eliza gizonak).

Animalien eta jendeen bereizi nahiak badu sineste oinarria eta horrela baditugu bikunak latinetikakoak animalientzat euskarazkoak jendeentzat: natura/alu, koroa/bizkar, karen/ondoko, azpi/izter eta beste.

Sail nagusi horietaz kanpo, ez dakigu beti zein aldetik egin den metafora, adibidez, animalien eta jendeen gorputzak eman dio landareari ala batzuetan landareak animaliei. Hor ditugu bi munduen artean, agian animaliek emanak adar (zuhaitz, behi), beso (zuhaitz, jende) buru (jende buru, galburu, artaburu), beharbada landareek emanak erro (landare, animalia urriza), enbor (zuhaitz, gorputz).

Badakigu, gure hizkuntza sortu zenean han eta orduan ez ginelako eta ge-roztik aldatu delako ezin dela beti bereizi sortze horretan herri etimologiak, maileguak edo zibilizazio aldaketen ekarpenak, horregatik saiatu naiz Euskal Herritik kanpo argibide eta norabide batzuen aurkitzen.





## III

OSASUNA ETA BIZIA EUSKAL  
IDAZKI ZAHARRETAN

## 3.1

Axularren *Gero*

Axularren *Gero* liburuan Villasante aitaren ediziotik, eta gaurko grafian.

*Haurren sortzeaz eta euren osasunaz.*

Lehen aipamena Bibliatik hartua da.

«*Vade et interroga mulierem praegnantem, si quando impleverit novem menses suos adhuc poterit matrix ejus retinere partum in semetipsa?*» [Esdrae 4, 4.].

«Zoaz eta galdegiozu emazte izorrari ea bederatzi hilabeteak bethez gero, eduki ahal dezakeien haurra sabelean?» [in *Gero*, IX.k. I.par.].

Bigarrena Axularren kristau biziaren parabola baterako

«Ikhusiko duzu zenbat pena iragaiten duen ama batek bere haur ttipiarekin eta guztiz ere, haurra txarra, zakartsua eta hazkari gaitza denean. Eztio lorik egitera utzten, gau eta egun haren mainatzen eta errekaitatzen, bere burua deseginik, hartu behar du. Eta guztiarekin ere ama erhoa, hartan loriatzen da: gauaren erdian jaikirik eta bere loa galdurik, haur harekin mila erhokeria erraiten duela dostatzen da. Zeren maite baitu, amorio baitiaduko» [XLIX kapituluan, 316. zatian, 551.or.].

*Minaz eta oinazeaz*

Infernukoak lehenik aipatzen ditu Erdi Aro giroko prediku batean:

«Eta erraiten badu ere gure salbatzaileak ifernuaz mintzo dela: *Ibi erit fletus et stridor dentium*, han izanen dela nigar, eta hotz karrask-hots, ezta ez aditzen hortz karrask-hots hura, hotzetik heldu dela eta ez hotzak eragiten duela. Baina hura eragiten du, bataz, barreneko damuak, orhoitzeak, nola bere faltaz dituen, egiteko hek guztiak eta berriz bertzea, suak ematen dioen dolore handiak. Hark gorputzeko parte guztiak ikharatzeintu, eta hortz-haginei karrask-hots handi hura eragiten deraue» [LVII.k.4 par.376. zatian, 659.or.].

«Han izanen da kondenatu on beharrak buruan min handia, hortz-haginetan oinhaze bortitza, bihotzean dolore errabiatua, gorputzean kota, harri, ikhara, sukhar, finean ahal diratekeien eritasun guztiak. Hanbat gaitz eta dolore izanen du, non dolore hutsez, dolore bihurtuko, konbertituko eta eginen baita» [LVII 4.par. 379. zatian, 663.or.].

*Gero* lurreko oinazeak ere aipatzen ditu infernukoak handiago direla erakusteko:

«Hemengo eritasunek eta oinhazek, eztute komunzki behin ere gorputz guztia osoki hartzen. Batean begietan duzu min, eta ez orduan beharrietan: bertzean eskuetan eta ez oinetan. Eta hune-

latan parte batean min izanagatik, eztuzu bertzean min, eztuzu oinhaze osoa eta ez guztietakoa. Eta alabaina parte batetako oinhazean berak hagin batetako minak, hain penatzen eta asaldatzen zaitu, non gau guztian lorik egin gabe edukitzen baitzaitu. Zer litzateke bada, baldin gorputz guztian, eta gorputzeko endrezera, aurkientza, iuntura eta parte guztietan, osoki berdinzki eta batetan oinhaze bazendu, eta oinhaze harekin erreka batetan guztiak utzia bazeneunta? Orduan zinez zinateke on-behar, ondikozko eta urrikalkizun» [LVII k. 4. par. 379.zatian, 665.or.].

*Zentzuen aipamena oinazearekin loturik (bista, entzutea, gustua, ukitzea).*

Hor ere infernuko atsekabe eta oinazeak aipatzen, lurrean ere batzuetan ezagutzen ditugun ezbeharren zerrenda ematen digu:

«Lehenbizikorik *Visus*, begietako bista izanen da penatua. Zeren ifernuko lupe hartan, ezpaitu deus ikhusiko, ilhun izanen baita. Eta suan egonen bada ere, ordea badateke argitu gabe: edo egurra dela kausa izanen baita sufrea, zeinek ezpaitu argi klarik egiten, khe ilhunik eta beltzik baizen. Edo lekhuia dela kausa, izanen baita lurrean barrena, alde guztietarik hersia, leihorik eta atherik gabea, hats hartzeko eta argiaren edo haizeren sartzeko biderik ere izanen eztuena».

«Halaber: *Auditus*, enzutea, beharriak izanen dira penatuak eta iarriko dira harrituak. Zeren eztute entzunen, oihurik, nigarririk, marraskarik, deihadarririk, deithorarik, auhenik eta nigarririk baizen. Hango kantuak leloak eta biozkarioak izanen dira, ayak, hatsbeherapenak, inzirinak, nigar-xopinak eta arrenkura: bethiere arnegatzen eta maradikatzen dutela bere buruez eta erori zaien zortha gaixtoaz.

«Halaber *Gustus*, gustua, ahoko zaporea izanen da penatua: bataz gosez eta egarriz eta bertzea zenbait ianhari urdindu eta edari zurminduz. Hemen hemengoek bezala, han ere hangoek besta eginen diote. Ordea diferentki. Hemengo gozotasuna eta ian edaneko plazera, hango mintasunaz eta bianda gaixtoez ahantz arazitzen deraukatela.

«Halaber *Tactus*, ukitzea, presuna guztia izanen da penatua. Zeren eztu nehork han surik, kharrik eta gauza likits nardagarririk baizen utkituko [LVII k. 3.par. 378. zatia, 663.or.].

*Eguzkiaren eragina.*

«Bi presuna daude iguzkian: eta iguzki hark eztio batari deus senti arazitzen, eztio minik egiten: baina bertzeari, berehala burua minberatzen dio, iragaiten dio, izerditan ibentzen dio. Zeren hura baita bertzea baino flakoago eta sentikorrago» [LVII.k. I. par. 374.zatian, 657.or.].

*Begiaz*

«Begiak lekhu goragoan daude oinak baino, ordea hargatik begiek ezertan dadutzate oinak, estimateintuzte, eztuzte arbuizatzen. Aitzitik ahal dagiten guztia elkhari laguntzen zaitza eta baldin egiten ezpazaitza, bere kaltetan faltatzen dute:zeren baldin begiek argitzen ezpaderaueza oinei, oinak behaztopatuko dira eta begiak iraziko» [XXVII.k. 209. zatian, 355.or.].

Eta gero esaerak ematen dizkigu:

«Oker itsu bano» [XXXI.k. 2 par.231.zatian, 393.or.].

«Haserrekorrak ez ohi du begiorde anhitz higatzen» [XX.k. 2.par. 187.zatian, 313.or.].

*Larruaz*

«Zeren usatuari traillaak ere etzaiza hain trailla iduritzen, eztitu hain sentitzen: eta ez sentitzeko eskuetako larrua ere loditzen, gogortzen eta khaillutzen zaizka. Halakoari eta haiñari, etzaiza hain fite eskuak maskurtzen, ikhorzirinak egiten eta ez haragiak ethentzen eta ez minberatzen» [VII.k. I. par. 61.zatian, 97.or.].

*Tuberculosis eta Pott eritasunaz*

Zeren nola baita hetika daritzan eritasun bat zein egiten baita, sukharra denbora luzeaz eta phur bana hezurretan barrena sartzeaz: eta eritasun hark ezpaitu erremediorik, mirakuillurik edo baizen eta izatekotz ere xoil luzaro:hala da denbora luzeaz, gogoan eta bihotzean barrena sarthurik dagoen aztura gaixtoa ere. [VII.k. 2.par. 65. zatian, 103.or.].

*Sukarraz eta minaz*

«Sukhar handi batekin, saihetseko punta batekin, edo bertze eritasun bortitz batekin dolorez zarenean, dolore hark berak, are eskatpatzen zarenean ere, emaiten deratzu egitekorik asko, ezteratzu bertzetan pensatzeko ere astirik uzten» [XV.k.I.par.135. zatian, 227.or.].

*Obituraz, azturaz eta desira*

«Nork ere nahi baitu bere buruaz kontu onik eman behar ditu borz zensuak (zein baitira, ikhustea, datatzea, enzutea, usnatzea eta ukitzea) guardiatu eta begiratu. Zeren hauk dira leihoak eta portaleak, zeinetarik bekhatu guztiak sartzen baitira. Athe hauk behar ditugu hertsu eta hautzaz eduki kontu, baldin etsaia geure arimako gazteluan sartzetik nahi badugu begiratu» [XLI. K. 256. zatian, 441.or.].

«Begiratu nahi duenak, begiratu behar du halaber emaztei behatsetik, behintzat bai, aiherkundu gaixtoz eta handik kilikatzen dela, sentitzen duelarik beha egoitetik» [XXXIX k. 256.zatian, 443.or.].

«Komunzki amorioa begietarik sarzen da, handik hasten eta sortzen da. Ihiztari handiak dira begiak eta bere gogarako ihizirik eraikitzen dutenean, eztira erdiets arteiño baratzen.

«Haragiaren desira ez egitearekin, egitearekin baino hobeki iraungitzen da» (XXXIX.k. 231.zatian, 443.or.).

*Andrezale eta ardozale?*

Nire familiako batek auzoari esan zion senarra edale eta andrezale izateak aspertzen zuela eta auzoak erantzun “andrekari izatea igaranen ziozü, edaria ez”. Ez da harritzekoa Axularren lumapean gauza berdina irakurtzea:

«Presuna bat denean hordi eta emakhoi, ian-edanera eta emaztetara eman erraiten ohi da komunzki halakoagatik utziko dituela denborarekin emazteak, baiña ez edatea» [XXXVII. k. 2.par. 247.zatian, 423.or.].

*Erotzeaz, zoratzaz.*

«Biziak dirauieño, hatsa sabelean deiño, arima gorputzetik iltki arteiño, baldin oraiño adimendua on badu, memorioan eta akhorduan badago, nahasten ezpada...» [XV. k. 131.zatian, 221.or.].

(Ikus urrunago herri literaturan bi testu medikuntzarekin klotuak XVIII. Mendekoak)

## 3.2

J. A. Mogelen *Peru Abarka* (1800)

Dakigunez, noizbait XVIII.mendearen azken urteetan Moglek bere eleberrian bi pertsonaia nagusi sartu zituen euskaraz gaizki hitz egiten zuen Maisu Juan eta bigarrenik Peru Abarka, hizkuntzan maisu, eta Maisu Juanek bere ikasketen arabera eta “luzitzeko Peru Abarkari anatomia jerga hispano grekera batean azaldu nahi dio: Angeologia, Miologia, Osteologia, Splanknologia, “Santal egurra garraiatzen duen asto horrek” eguneroko euskara ez du ikasi, edo ahaztu zaio. Txerri hil baten aurrean daudelarik, Peru Abarkak barberuari anatomiazko hiztegia irakasten dio eta ez dela baso baina “odol zan” esaten, “giñarri” eta ez muskulu, “mintza” eta ez membrana; ondoko hirurogeita bi hitzak ematen dizkio:

*Buruba, belarriak, begiak, betuliak, betartia, musturrak, surzuluak, iduna samia, zurdaak.*

*Azal edo narruba, lau oñak, mintza ta garunak, eztarrija, korkamiztia (ta oni dautsazanak), birijak, andaerriajak, biotza.*

*Estegorrija, urdalla, este meak, este lodijak, estartekua, lopia edo lopetua, gibela, odola, zaanak, biartzuna, baria, allia, zilla, aua, konzaluak, agiñak eta ortzak matralla azurregaz bat egiña, azala, azaltxu edo mintzak ta garunak, baresaria, gunzurrunak, hantza, txubak, saiaskijak, papadia, bizkarra, arbijak edo mollejia. Urdai gizona. Urdaiunsagija. Azur asko ta euren izenakaz. Pusigia edo garmu ontzija.*

Hitz guzti horik ezin dira jendeekin erabili, *arbi, gantzazal, konzalo* (lotsaz edo Azkuek bere hiztegian ez digu esaten zerriaren zatia dela baizik). *Lope* eta *lopeto* odolkiarentzat *Lope* de Haro jaunaren ohoretan litzateke? Jende handien izenekin horrelako hitz jokoak badira herri hizkeran Mister Mac Kinley politika gizona *Iztarmakila* bilakatzen eta abere sabelaren zatia *Isabelantxapel*.

Hitz gehienak bizkaieraren fonetismoak kontatu gabe, euskara osokoak dira. Mendebaldeko euskaratik direnak, *arbi* (zerriaren estagorria) *garun* (burmuin), *garuntegi* (burezur) *isun* (lepo), *sama* (sorbalda, soin), *korkamizta* (zintzurra) *lope*, *lopeto* (odolkiak), *txuringa* (uzkorno, uzterxe), *andaerri* (birika azal), *urdaiunsagi* (urdazpi). Gero, testuan beste hitz batzuk agertzen dira, *garuntegi*, *gizentasun*, *lodi*, *me*, *bular*, *sabel beekua*, *lauoñekoa*.

## IV HERRI LITERATURAN

### 4.I Gaitzizenak

Lehen ikuspegia: Gaitzizenak, tropoak, irudiak

Literatura diot, ezen herriak landareekin eta animaliekin loturik sortu metaforak ikusi erakutsi nahi nizkitzueke baita antzinako fisiognomoniarekin lotua dela, sarritan, euskaldunen psikologia.

Botanika. Botanika izen iturri izatea landu zuen P. Larzabalek, *Gure Herria* aldizkarian 3. zenbakian, 1975.an argitaratu zuen artikulua baliatuko gara baita gure etxeko euskararen iturriez ere.

*Uztak, etxe landareak, baratzeak* jendeen itxura, izaera eta gizarte harremanen metaforak ematen dituzte:

Arto.	Arto bero usaina (hau gaitzespenezko bakarra) Gizon arto puska Gizon arto burua Pertsona arto lilia Jende arto bihia
Arrosa	Bere arrosean dago (pozik dago)
Aza (txarrak)	Aza emaile: jende aspergarria Aza burua Aza lilia Aza zango luzea (kankailua) Beharri ziloan azak eduki (belarriko zakarrak) Zoaz aza landatzeraz (edo antzera ferratzeraz)
Baba	Baba ateratzaile (irabazle) Baba zorro (arabarrak)
Baratxuri, berakatz	Baratxuria bezain fina Baratxuria bezain zuria Baratxuria baino zindoago Baratxuri buru <i>Ez hain goxoak</i>

	Baratxuri buztan (argala, iharra)
	Baratxuri sistor
Kuia	Kuia buru (buruhandi ergela)
	Kuia lili (ez oso argia)
Lasto	Lasto su, laster su (zerbaiten egitera berotu ondoren, berehala gelditzen dena)
	Lastoa bezain idorra
	Lastoa bezala izitu da
	Ipurdia lasto du (beldurri, izuti)
	Lastozko gizona (erdarakada “zernahiren egitera prestik dena”)
	Lastoa bezain zimela (adinarekin zimeldua, zimurtua)
Mizpira	
	Mizpira bezain begitsu
	Mizpira bezain ustel
Orri/ostoa	
	Hosto luma bezain arina
Patata	
	(Gaitzespenezko hasieratik behera geroago eta gaiztoago)
	Patata azala
	Patata buru
	Patata buztandua
	Patata ustela
	<i>Beste giro batean:</i>
	Patataz ase: jende gizenegia
	Eta patata frejituak (ezker eta eskuin nahasian lan egin nahi duenaz)
Perrexil	
	Perrexil: jende sotila
Perrexil eta txarpot	
	Jende zuhurra, aurrezki egilea
Piko	
	Piko adarra bezain ustel
	Piko merlatu/piko pasa: (zimel eta beltzatua)
	Pikutara igorri
	Pikutara joan
Piper	
	Piper egin (eskolari ihes egin)
	Piperra jan (izorra izan)
	Pipermin (gaiztoa, euskal idazle batek hartu gaitzizena)

Porru	Porru buztan (porrua bezala burua zuri, buztana berde) Porru salda (musikan) Porru egina: (argaldua)
Sagar	Neska sagar pipita (sexu harremanetako heldua) Pitar sagar: arlote, ezdeus
Tipula	Tipula (ergela) Tipula buru (ergela) Tipula buztan (ergelxko) Ttipul (ergelxko) Tipula ustel (osoki ergela)
Basa landareak	Anbulu: buru handi Asun: zatarra Azeri buztan: ezereza (landarea ala animalia?) Baxaran: neska pollita Belar, suko belar: haserrekor; Infernuko belar: gaizki egil
Egur	Egur: jende egurra (meharra), Egurra hartu, egurra eman (jipoitu) Egur enborra (jende gotorra), Egur xitapurketari-xixuketari: xehetasunetan galtzen den pertsona; Ezpela: ezpela bezain idor (meharra) Gerezi buztan: ezerez Julufraia: andre eder baina edo erraza edo zozoa. Laparra: laparra (sasia)bezala lotzen Laparra/zaparra, sastrakak erre: aitortu Lore, lili Lili: eder baina... Neska lili: eder eta inozoa Lore-lore: oso eder Gazte lore: mutilaren lehen bizarra Asto lili: mutil tontoa Gazterik lilitua: gazterik gorputzez heldua Lehen loreak: andreen lehen odol berritzeak



Masusa, martxuka

Martxuka bezain mardula  
 Martxuka jale: jale urria, gutxi jalea  
 Mimosa: andere mimosa eder baina zozoa

Onddo

Onddo beltza bezain fina  
 Andere onddo papuna (andere handi eta ederra)

*Sasi*

Sasi albatari

Sasi gizon

Sasi gudari

Sasi kume, Sasiko

(sasi asmoak, sasi helburuak, sasi jakintsuak, sasi sendagileak ugari dira baina sarritan ez dute benetakoek baino kalte gehiago egiten)

Zumea

Zumea bezain bigun

Zurtxuria bezain luzea

Animaliekin

«*Animaliak ez dira gure bizi ibiltarien eta gure bertuteen irudiak baizik; gure begien aurrean gure arimen iratxoak ere*» [V. Hugo *Les Misérables*, 1862, 201-202.or.]. frantsesarekin berdintzeko eta ezberdintasunen argigarri hona zerrenda txikia

Ahardi

Euskaraz: andre lodia

Frantsesez: andre zikina

Behi

Euskaraz: jende lodia

Frantsesez: jende gaiztoa

Gamelu:

Euskaraz salataria, zaharra, konkorduna (Gaztea gaztelu, zaharra ganbelu)

Frantsesez gaiztoa

Hontz, moxolo

Euskaraz: tontoa

Frantsesez: jende zaharra

Mando

Euskaraz: emakume linfatikoa (edo buru gogorra frantses kalkoz)

Frantsesez: buru gogorra

Okilo:

Euskaraz: ezereza, geldoa

Otso	Euskaraz: mugazaina Frantsesez: gaiztoa
Saguxar, gau ainara	Euskaraz: maitasun mezularia Frantsesez: zoritxar ekarle
Zakur	Euskaraz: polizia Frantsesez: menpekoa
Zerri	Euskaraz: gaiztoa, tzarra (baita zikina ere) Frantsesez: zikina
Zikiro	Euskaraz: zekena Frantsesez: salataria
Puntu batean europar guztien gisa gara gaitzespenez, <i>asto</i> , <i>astapito</i> , <i>astakilo</i> , <i>astama/astaina</i> , diogunean	

## 4.2

### Herri psikologiaren iturriak

Etnologoek dakite herri guztietan gorpuzkeratik izaera, gogoera, ezagutzeko ustekizunak badituela. Jakina, euskaldun herri xehea, besteak bezala, ez da ez itsu, ez gor eta bere ustekizun horiek ustekabekoak ekar litzake. Neronek, duela hogeitau urte Pariseko Bibliothèque Nationalean aurkitu nuen XVIII mendeko zuberotar sendakuntza errezeta bilduma, 1809 kopiatua, zati handi bat bada, “Fisiognomiaz” zeinean luze eta zabal azaltzen ziren nola jendeen itxura ikusiz haien jeinua ezagutu. Tesiaren irakurketan 1981.an aipatu nuen eta *Herri sendakuntza eta sendagingoa Zuberoan*, Barandiaran fundazioak 1995.an argitaratu liburuan osoki eman... Psikologiaren adar hori orain berpiztu da eta Europako lantegi askotan langileen kontratatzeke jakituri hori darabilte. *Morfopsikologia* jakintzaren adar berritu horri *Prosopologia* deritzo.

Horrelako ustekizun erdi jakintzazkoek herri jakintzan eragina izan dezaketela? Jakina. Xarles Videgainek ongi erakutsi zuen nola J. P. Mendiboure iparraldeko bertsolariak eman “blason” delakoak, frantsesezko *Le Compost des Bergers* almanaketik noizbait itzuliak izan zirela. Eskierki, bertsolariak emanak, ikusi nuen esku idazkikoak baino laburragoak zirela.. Jadanik, osoki argitaratua izan dudalako fisiognomoni zahar hura laburbilduko dut eta has gaitzen aurre ikuspegi batekin.

Testuaren iturriak? Benetako iturria ez badugu aurkitu, aztarna batzuk bai. Zubereraz kopiatu zen testu horretan lapurdierazko hitzak daude: *flako* (Z. flakü) *hori* (Z. holli), *sorbaldia* (Z. suin) *soxoil* (Z. karsoil). Beraz aurreko testua lapurteraz zen, baina beste aztarnak daude, erakusten dutenak lapurtar testu hori ere, agian, gaztelaniazko zaharrago baten itzulpena dela, zubererazko ez dira ez lapurterazkoak: *animo*, *desdenatu*, *diskordia*, *espaldia* (jendeentzat), *fortuna*, *kapitulu*, *matxo*, *naturaleza*, *tirano vanaglorios* eta beste. Zuberotar kopiatzaileak ez du *bibotz elkorra* ulertu eta *bibotz kora* idatzi du. Arkaismo bat darabil *burar*, bular hitzaren ordeaz eta batzuetan lotuta ematen ulertu ez dituen hitzak. Orokorki zubererazko anatomi hiztegi berezia dugu: *belar*, *bepbürü*, *bidar*, *bürü*, *azpibürü*, *eskü*, *korpitz* eta beste euskalkiekin zubererak partekatzen dituen: *abo*, *begi*, *begitarte*, *bebarri*, *beso*, *betezpal*, *bilo*, *bizkar*, *bular*, *erbi*, *lepo*, *sabel*.

Horiek aski ez balira bilduma berean, harri preziosen, goiharrien [sic] erabileraz sendakuntzan, litoterapiazko errezetak badira Alberto Magno [sic] aipatzen duena, eta diona Felipe II bizirik dagoela; beraz gaztelaniazko jatorria XVI. mendekoa genuke. Jakituri herrikoian, sarritan, gertatzen da besten asma-kizunak berandu sartzea. Goazen bada laburpena baino lehen ohar batzuekin.

Batzuentzat aurpegiak bi zati ditu: sudurretik gora *gogoaren* kalitateak, sudurretik behera *senarenak*. Besteentzat hiru zati lituzke, hiru aurkientza, buru biloen, ileen ertzetik sudurraren goiko alderaino egokitzearen, *asmatzearen* eremua litzateke (euskaraz *bekokia*); begien artean eta sudurraren luzean, gaineko ezpaineraino, *sentimenduak*, idealista izatea ezagutu litezke (euskaraz *begitarte*); azkenik beheko aldeak materialismoa, *zentzukortasuna* (euskaraz *musu*).

Gorpuzkeraren ikuspegi horretan sailkapenak salatzen digu Antzinetetik etorri zaigun lanaren banatzea: pentsatzaile mehe eta finak, idealen sortzaile, vs. gihardun (esklabo, peoi) lodi eta sen arrunten menpeko. Gainera, bigarren urrats batean ematen da sailkapen hori zeren sortzez, jaiotzez badira argalak eta gotorrak, bestalde etxeko heziketak gihartsu izatetik edo irakurtzaile izatetik urrundu lituzkete. Nolanahi, kristau testuetan eta Axularren “Gero” delakoan argi dago, gizon gihardun esku latzekoak bertute gehiago duela esku leunezko erdi alferrak baino. Bestalde, moralisten testuetan gizona gizen izateak bizio asko sala dezake. Gure idazki zahar horretan jatorrizkoak eta kopiatzaileak diote oreka bat badagoela jende banako guztiengan, gorpuzkeraren joerari bihurtzeko eta gezurtarazteko gaitasuna ere.

- Lehen kapitulua: biloez (buruko ileaz)(laburpena)

Kontutan hartzen dira zer kolore, zer ugaritasun, zer itxura duten (leun ala kizkur)

Bilo leunak: izaera baketsu, apal eta lotsatia salatzen du

Bilo üzürak(kizkurrak): jende gotorra, kementsua, bihoztoia baina faltsua ere

Bilo gorri: ez fidatu behar (esaera zaharrak zion Bilo gorri ez fida hori)

Bilo hori: ez da fidatu behar andre ile horiari, eta gizon bilo horiarekin harreman nekeak omen dira eta ez dituzu erraz zuregana irabazten.

Bilo xuri: kontuz «haur gazteak bilo xuri», direnean

- Bigarren kapitulua: belarrez (bekokiez, kopetez)
  - Hiru osagai (borobil/laun, zimurtua/zimurgabe, txikia/zabala)
  - Txarrena, ezezkorra, bekoki laun, kopeta leun, zimur gabea
- Hirugarren (sic) kapitulua: betezpalez (betazalez)
  - Betezpalekin egiten dire begi keinuek, zirkiniek, benetan zerbait sala dezakete:
  - Betezpalak beheratuak, begiak apaldu gabe: perfidia asmatzen ari dena
  - Betezpal oso higikorrek: urguilua eta kemenaren ezaugarri
  - Bephürüez (betoskoez)
  - Hemen luzetasunak du garrantzia
  - Betosko labur, gorraile, argi: trebeak baina alferrak, aldakorrek onean edo txarrean
  - Betosko ia bat eginik: zuhur, trebe, baina bekaitz
  - Betosko lodiak: argi, maltzur boz ederreko eta ahoskera argikoa.
- Laugarren (sic) kapitulua: begiez

Begiak arimaren atea edo gogoaren ispiluak omen direlako kapitulu luzea da:

*Beren neurriak*

Begi zabal handidunek akats asko daukate: harro, bekaitz, ahul, oroimenik gabe

Begi sartuak eta begirada zorrotza: maltzur, traidore, gezurti, anker, iruzurtzaile, irkaitz egile.

Begi txiki, borobilak: argaltasunaren, sineskortasunaren, oroimen motzaren eta maltzurkeriaren seinale.

*Beren higikortasuna*

Begi higikorregiek: maltzurkeria, hitz gabetasuna, liskarzaletasuna erakusten.

Begi finkatuek: maltzurkeria

Begi geldia, beltzarandunak: hitzezko zindotasuna, argitasuna eta gizontasuna.

*Beren kolorea*

Begisein, begi nini distiraria: handinahi, fidagaitz, makur, traidore.

Beginini argiak jende bakun, isila, lizuntasunari emana salatzen omen du.

Begi nabarrak: uzkurtasuna, herabea eta zogiera darakutsa  
 Begi gorri negartsuek: gaiztakeria, urguilua, traidorekeria, deslealtasuna, iruzurkeria, gezurra eta ustelkeria salatzen dute.

- Bosgarren kapitulua: südurrez  
 Luzetasunak, loditasunak, beheko alde, sudur basea, kolorea, biloak eta sudurzuloak kontutan hartzen dira:  
 Sudur luze, mehea: ausartzia, malgutasuna, kontzientzia ona  
 Sudur luze, gora landatua, eta behekoaldea jaitsia: zuhurtasuna, lealtasuna, eskeronekoa  
 Sudur luze goiko aldetik mehea: zogi, maitagarri, eskuzabal  
 Sudur labur: ahula, beldurtia  
 Sudur gorri: zekena, ankerra, asmo motzekoa.

Sudurren txapelketa honetan badirudi sudur luzea irabazle dela.

- Seigarren kapitulua: ahoaz  
 Neurria, usaina, ezpainen kolore eta loditasuna kontutan hartzen dira.  
 Ahoa handi eta gora dutenak: oso bortitzak, erasokorrak, oldarkorrrak dira  
 Ahoa txiki dutenak: uzkur, ahul eta itzaliak  
 (Arnasa ona, osasun seinale, arnasa, hats zatarrak: gibekeko min)  
 Aho mehea: gogo sotila eta goxoa.  
 Aho lodia:zatarra, sineskorra  
 Ezpain lodia: ongitasun, eskuzabaltasun  
 Ezpain bat bestea baino askoz lodiago: jende inozoa.

Hemen agertzen ez bada ere, ustekizun herrikoian ezpain mehea gizon edo andre gaiztoa da.

- Zazpigarren kapitulua: hortzez  
 Lodi ala mehe, sendo edo neurri guztietakoak.  
 Hortz laukituak, sendoak: kemena, gauza ederren zaletasuna salatzen dute eta jende zaharkorra. Hortz xeheak: izaera fina
- Zortzigarren kapitulua: mihiaz, mingainaz  
 Metonimia gisa erabiltzen da hitza  
 “Zuhurrak: hitz gutxi”. Ulertu liteke, garai haietan, salaketa ohitura arrunta zelarik.
- Bederatzigarren kapitulua: mintzoaz(ahotsaz)  
 Mintzo lodia: urguilua eta haserrea  
 Mintzo mehea (Ahots txiki, mehea): Ø  
 Mintzo gora, ozena: ausartzia  
 Ahots sendoa: adimena  
 Ahots ikara: uzkurtasuna, fidagaiztasuna, beldurra, indargabetasuna  
 Ahots geldoa: zekentasuna, beldurra.

- Hamargarren kapitulua: erriez (irribarrez)
  - Barre gutxi: zuhurra
  - Barre lodia: inozoak
  - Barre erraza: maltzurak
- Hamaikagarren kapitulua: bidarraz (kokotsaz)
  - Okots zorrotza: ausartzia, erasokortasuna, gogo bizia
  - Okotsa ez bada ihartua, mehegia: jende talentu handiko eta bihotz zabaleko da
  - Okots gizona: baketsu baina talentu gutxikoa
  - Okots arrakalatu: baketsua
- Hamabigarren kapitulua: bizkar biloez
  - Bilo ongi banatuak: kementsua, indartzalea, lizunzalea salatzen du
  - Bizkarrean bilorik ez: andre gisakoa, aginterraza, baketsua, uzkurra, beldurtia (sic)
- Hamahirugarren kapitulua: begitarteaz
  - Begitarte gorri eta gizen: alai, beldurti, isil, aspergarri
  - Begitarte mehe: langile, elizakoi, argi, iraunkor, dotore
  - Begitarte mehe, borobil: beldurti, gogo meheko, sineskor, gutxi amoros;
  - Begitarte luze: ahula, harroa, lotsabakoa, liskarzalea
  - Begitarte polit, ertain: talentudun, oroimen oneko baina sineskor
  - Begitarte hori eta gaizto: konplexio txarra, iruzurkeria, urguilua, traidorekeria, gezurra, zekentasuna, bekaizkeria, handinahikeria eta gurikeria.
  - Begitarte gorri: konplexio oneko, argia eta hiztuna.
- Hamalagarren kapitulua: beharriez (belarriez)
  - Neurria, itxura, gizentasuna ezaugarri baina ez kolorea
  - Beharri handi eta gizenak: kalitate gabeko jendea
  - Beharri txiki, meheak: bertute guztiak ditu
  - Beharri luzeak: lotsagabekeria, alferkeria, gurbiltasunik gabekoa.
- Hamabosgarren kapitulua: бүрүяз
 

Neurriak eta itxuraren arabera badirudi hoberena *buru handi eta biribil* dela

  - Gero, maltzurra *buru txipi eta lepo mehe*
  - Ez da batere fidatu behar beren burua beti eskuin ezker darabiltenak edo *buru gizen eta gora* direnak.
- Hamaseigarren kapitulua: lepoaz
 

Luzetasun eta kolorearen arabera:

  - Lepo zuri: beldurti, izuti (andreentzat, ordea, kalitate seinalea)
  - Lepo mehe eta flaku: aldakor, sineskor, lotsor
  - Lepo mehe, luze eta oin handiduna: bekaitz aldakor.

- Hamazazpigarren kapitulua: espaldaz, sorbaldaz  
 Mehe, txiki, ahul: baketsu, izuti, langile txarra (garai haietan sorbalda txikiekin nekez lan egiten zen)  
 Sorbalda barnatsu(sakon): iaioa, sotila, isila, iruzuregile  
 Sorbalda polita laun bilogabe: baketsua, apala, zekena, aldakorra  
 Ordenarioa baino handiago: berandu konturatzen dira gauzez, nahiz borondate ona izan da, zeken, faltsu eta traidore dira  
 Sorbaldak gora: aldakor, lotsagabe, txantxazale eta ximple.  
 Sorbalda gora, ahul, bilotsu: maltzur, lotsagabe, bortitz, langile txar  
 Sorbalda gizen: sendo, asmo luze baina trebe  
 Sorbaldak mehe eta gorderik: lotsati, sineskor eta txantxetazale
  - Hamazortzigarren kapitulua: besoak  
 Luze, eskuak belaunetara heltzen: eskuzabal, harro, atrebitu, larde-riazale, eta gogoeta apaleko  
 Labur, behar baino gehiago: esker gaiztoko, harro, ausart, armen adiskide, denekin gatazkan.  
 Lodi eta haragitsu: handinahia, bihotz lehor, sineskor, gutiziotsu  
 Polit: maliziotsu, mesfidakor, likits eta oroimen laburreko  
 Leun eta bilogabe: sena handiko, baina oroimen txarra, astuto, inganio (iruzur) egile
  - Hemeretzigarren kapitulua: esküez  
 Esku lodi laburrak: zoroxka, nano ulertzen luze eta langile handi  
 Esku polit, atzetan biloz labur: haragikeriari emana, bano (alfer) eta gezurtti
  - Hogeigarren kapitulua: bularrez  
 Bular lodi eta gora: sendo, ausart, harro, tirano, iraunkor eta kutiziatsu  
 Bularrak erditan lodi: ulermen handitako, adimen laster, aholku honetako, jakintsu.  
 Bularrak polit: trebe, eskuzabal, zerbitzuegile, haragikeriari emanak, kementsu baina aldakor  
 Bularrak lau eta ahul, bilo gabe: lotsor, isil, bizitza oneko, bakezko, argi eta hitzegile astun.
  - Hogeita batgarren kapitulua: sabelaz  
 Sabel biribila: edale on, baina jale ez hanbat, luze oroitzen, joera gaiztoko baina leal eta kementsu.
- Hogeita bigarren kapitulua: korpitzeko aragiaz (gorputzeko haragiaz)  
 Gorputzeko haragia bera: flaku bihitezko baina adimen oneko, oroimen gutxi eta fortuna gabe.  
 Gorputzeko haragia gogor: azkar (sendo), atrebitu, harro eta fortuna gutiko.

- Gorputzeko haragia zuri eta gizen: ahazkor, lotsor, beldurti, kezka-ti eta gaitzetan bano.
- Hogeita hirugarren kapitulua: saihets ezürrez  
Saihets hezur lodi, haragitsu: berez sendo, haserrekor zoroxka dire-lako, sinesbera, langile txar nahiz jakintsu izan.  
Saihets hezur mehats: txiki bihotzez ahul, argal dira.
  - Hogeitalaugarren kapitulua: azpi-bürüaz  
Izter buruak handi eta bilotsu: haragikeriari emanak eta ez ez han-bat zintzo.  
Izterrak leun, mehats, eta bilo gutxirekin kanpoko aldetik: zintzo eta zuhur  
Izter haragitsu eta gizenak: sendo, harroputz eta harro.
  - Hogeita seigarren kapitulua: belhaünez  
Belaunak gizen: naturalki lotsor, bano, langile gaizto, baina eskuza-bal.  
Belaunak ahul: sendo dira, kementsu, isil eta bidegile handi.
  - Hogeita zazpigarren kapitulua: zankoez  
Zangoak lodi eta gizen: naturalki sendo, ingeniotsu eta zuhur.  
Argitaratu nuen XVIII; mendeko euskaran idatzi esku idazki hone-tan beste atal batean ez da hemen bezala gorputzetik jendeen izaera fisiognomonía ezagutzen, baina gorputzetik osasun konplexioeak. Ez luzatzearen eta aipatu liburuan argitaratua delako ez dugu hemen emanen; hau bezala itzulpena izango delakoan.

### Herri hiztegi erotikoa

Hain ziren puritanismoz edo fintasunez gorputzaren inguruko sexu hiz-tegiak baztertuak 1883-1889 urteetako *Kryptadia* alemanean Heilbronnen, *Vasconiae linguae erotici tentamen*, argitaratu baitzen. Jakina ez ziren idazleak be-riemaile izan, herria baizik

AMARE maita-tze, v.ex maita n.adj. carus, dilectus

AMPLECTI musu seu pot v. pot eman; potikeia v. basium

ANUS seu podex ipurdi xilo, culi caverna

BASIUM musu, pot, secunda vox bearnensis est et propriis usurpatur pro labium; ex ea derivatum est v. potikeia cf. proverbium ab Oihenarto colectum «eure gelaria ez potikeia» Ne baisotte pas ta chambrière.

CACARE kaka-tze

CASTRARE chikira-tze, ken-tze, osa-tze, tertia vox “integrare” significa-re videtur, primae vero proprius sensus est “resecare, abbreviare” et formatur a chiki “parvus, brevis” ex qua simul deducitur, *chikirio* “vervex”.

CLUNES seu NATES atzeko-alde (posterioris latus), iphurdi-mathel, epur-mazel (culi gena), uzki alderdi (culi lateralis pars)



COIRE yoka-tze (jocare); chikoka-tze (gallum imitari?) isoratze (gravida-re?) tinketean vel chintiatean ari (in tactum inire)

CREPITUS uzker, phuzker, puzker.

CULUS ipurdi, iphurdi, epurdi; osteko; uzki (ex utz “vacuum, cavum”) Uzki non multum differt ab iduzki sol “narratur autem episcopum quemdam Bayonensis virum certe disertissimum ac vasconicae, culum pro solem dixisse, haud sine multo audientium risu”.

CUNNUS, alu, potchor, alu-motza.

AQUITIO vid. SUBATIO

FEMUR ichter, ichtar; azpi (pars inferior)

FLATUS, phoker

FUTUERE vid. COIRE

INGUEN istaloki (ab ichtar “femur”

MAMMA bular, bulhar (pectus) zintzur (guttur) papo, paparo, paparda (jugulum)

MEMMILA dithi, thiti, titi (ex. gall. et bearn.)

MENSTRUARE ilekoak, illekoak; ilhabeteak (menses) illodolak (sanguines menstrui) ilberak (novationes menstruae) gorriak (rubra)

MENTULA pito, pitcho, pitchil, pittilin; bustan (cauda); de asini et tauri membris dicuntur sakil et killa (ex. gall. quille). Exclamatio astapittoa (sunt qui dicunt astokilla) correspondet bearnensi *viedaze!*

MINGERE pichagite; ur egite (aquam facere); ur-ichurtze (aquam liberare); chiste

MULIER emazte, emakume. Ultima vox formatur ex *eman*, donare, ponere» et *hume* «catulus, infans»

NATES vid. PARTUS

PARTES VERENDAE viri potzuak (plur.), mulieris moltso, motza (sing)

PARTUS, PARER erdi-tze ex erdi “dimidium”)

PELLEX ohaide (soccia cubilis ex ohe “cubile, lectus”)

PILUS bilo; ile, ule.

PODEX vid. ANUS.

PUDENDA vid. PARTES VERENDAE.

RIGESCERE chuti-tze (erigi, surgere), arma-tze (armatum ire).

SEMEN limbore.

SUBATIO, CATULITIO. Gallice exprimuntur hac paraphrasi “en chateur, en rut”, cum loquitur de feminibus animalium Vasconicae, similiter ac latine, variis expresionibus utitur: de equa dicitur, giri, de cane, ohara, ogara, de sue ihaus, ihausi; de ove arkara, arkhara; de capella azkara, azkarra, de vacca, susaya, susara.

TESTICULUS barabil, baranbil, koskoil, arrautza (ovum).

TITILLARE phurtzika-tze, zirri-tze.

UMBICULUS chilko, chilla, chilbor (ex zilo “fovea”)

URINA pitcha (ex gall. et bearn. ), chisi; gernu, ur-churi (alba seu albes-cens aqua).

VENTER sabel.

VIR gizon Pro mare animalium dicitur zezen de tauro; garano de equo admissario; ahari de arierta, ordotch de verre. FINIS.

Nor egile? Baliteke, Julien Vinsonek bildua, ezen euskaldunak berak ez ziren garaiko puritanismoarengatik horrelako egitera ausartzen, gainera kanpotarren artean hegoaldeko eta iparraldeko hiztegia ezagutzen zituen euskalari horrek eta alemanerarik ez zekienez latinez idatzi zuen bere hiztegia.

### Zerrendari nire oharrak

*Maileguak.*

Hiztegi biltzaileak titi bearnesetik eta frantsesetik datorrela dionean, garaiko frantsesen iritzia ematen du, baina zergatik titi etor liteke frantsesezko “tétin” hitzetik eta ez gaztelaniazko “teta” Nire ustez ez batetik ez bestetik baina latin herrikoitik denek harturik. Gainera, euskaraz jendeentzat bestalde *ugatz eta bular* badira eta animalientzat *erro, herrape*.

Pito eta beste. Hiztegi biltzaile frantsesa ez dakusa sekulan gaztelaniarik euskaraz eta nondik datorke “p” eta “o”, frantsesezko “bite” hitzetik?! Gaztelaniaz ere pito, pitoa da. Biltzaileak erran arren, “sakil” ez da bakarrik animaliekin erabiltzen, eta bai “pitxo” berdin abereekin.

*Musu Musum* latin herrikoietik dator, frantsesez XII. mendean agertzen da, euskaraz XI; (Musiturri leku izena) Gainera *mus* erro hori, nahiz ez den indoeuropar ingelesezko *mouth* eta alemanerazko *mun* hitzekin zerbait ikusteko du. *Pot* berriz gaskoieratik Iparraldean sartu da musu esateko, baina musu hitzak eratorriak utzi ditu ipar euskalkietan musu-musu jan “ezpaineekin gelditu gabe jan” (Z.) eta musurkatu “basurdeek eta txerriek ahoarekin lurra itzuliz jatea” (Z.).

Killa, pitoarentzat metafora da, baina zergatik frantsesetik letorke Hegoaldean bakarrik erabiltzen dena, gainera *quilla* hitza ere badago gaztelaniaz hurbilago.

### Etimologia bitxiak

Denok, etimologia bitxiak egin genitzake baina emazte/emakume hitza- ren aipatzean hiztegi-gileari ema erroa ez zaio gogoratzen ez eta emagina hitza; kume “ume” ote? Gizakume aita izan behar ote du? *Kume* ez al da *kunde* atzizkiaren aldaera?

Chicokatze, gaurko xikokatze (Z.) herri ahoskera da, xirikokatze baita “xiria sartu” eta zirikatu/ zirrikatu aditzarekin zerbait ikusteko du. Xiri/ ziri pitoa da horregatik astapito (N. Z.) hitza astoziri da (L. G.).

Uzki, utz hitzetik letorke edo hobeki esan *huts* alta ez dago –zuloa izan ezik– ezer beteagorik jendeetan nola baitira ipur matelak. Guk *uzter*, haragi bigun hitzetik hurbildu dugu. Jadanik, hiztegi hori egin zenean, kaletar batek edo besteek osteko edo atzeko alde esango zuen eta itsasgizon umoretsuek popa, baina ekialdean diogu “uzki ezpaita beste hitzik” eta mendebaldean “eperdi ez dalako beste berbarik”.

Biltzaileak ez du ulertzen zergatik kastratzeak bi hitz dituen euskaraz ekialdean osatzea, barrabilak kendu gabe bihurtzea da lehor daitezen eta hodiak hautsi eta xikitzea bi hilabetetan barrabilen kentzea. Aita gureak hortaz idatzi zuen “Lehenagoko artzainen jakitatea” J. Peillen *Bulletin du Musée Basque* Baiona 1967.an.

Leku batzuetan hiztegia aldaeretan eta sinonimoetan mugatua da, poker ematen du, baina ez *opets* (N. Z.), *aupets*, *opats*, *aufats* (B.G.); *bastum* sareran *mun* falta da (alemaneraz bezalako), semen sareran hazi hitz arrunta eta *kaduria* (NB.Z.) ez dira agertzen.

### Azken oharrak

Ez da esaten zein euskalkietan esaten diren hitz horiek. Zalantza batekin gelditzen gara Julien Vinson bai ala ez, nahiz garaiko filologo eta linguista frantsesa, dena frantsesetik zetorrela zioten.

Hiztegi hori mugatua da, ez dago ez masturbatio, ez fellatio, ez clitoris, ez eta ejaculatio agertzen, laztana, fereka ere ez da irakurtzen baina nola harria bota genezaioke XX. mendearen lehen erdian euskaldunek egingo dituzten hiztegian hitz horik guztiak agertzen ez direlarik.

## 4.3

### P. Topet Etxahun eta gorputza

P. Topet Etxahun, Barkoixekoaren jende irudiak, XIX.mendean

Herri literaturako ikuspegia bestelako zenez ikusteko J. Haritschelharren erdal *L'œuvre poétique de Pierre Topet Etxahun* Euskera, Bilbo, 1970 eta Jon Etxaide-  
ren J. Mirande lagun euskaraz eman, *Etxahunen bertsoak gipuzkeraz* G.A.K. Donostia, 1969 eta Etxaideren itzulpenak in “Etxahunen bertsoak” BRSVAP, Donostia, 1975-1987 idazkiak erabili ditugu.

Andreen eredia

Berrogeita zazpi kantu salbatu badira etxekoen erretzetik, Etxahunen hiztegiak erakutsi digu eredu herrikoia bestearen antzekoa dela, Erdi Arokoa, Oihenartena, eta geroago Mirandena. Oroitzen gara amak Maddalen Karrikaburuk errana “*Egiazko uskaldiinak bilbo hollu, begi blu, eta larrü xuri dütiuk eta gü espainolen gisa beltzaran*”. Halaber, Etxahunek dio:

*Uskal Herriko anderi(a)k, begiak urdin.* [L'œuvre poétique, 524.or.].

Beste leku batean

*Uskal Herriko anderik bilboak holti* (hori) [Musde Legouvé, 678.or.].

*Eta bilbo hollia* [Filipeñuak, 678.or.].

Gizonaren eredia

1. Gorputza. Etxahunen eredia, bere buruarena da eta ez du eder ikusten.

*Ene zainek ez nabi khorpitzaz egari (jasan)* (Etxahunen bizitzea 182.or. 33. ahapaldian).

*Orai khorpitzeko xangriek (penek) behar nie eihararazi* (Ahaide delizius huntan, 238.o. 9. ahapaldia).

*Khorpitzaz gal lotsaz* (Ahaide delizius huntan, 246.or. 23. ahapaldian).

Etxahun gizon txiki iharrak ez die beste bertsolariei eta lagunei beretaz barre egitera uzten Gorputz tristea, zauritua berriz agertuko da *Amodiogatik* kantuan. Gorputz libidoko haragi bezala ez darabil Etxahunek. Ez dio gorputzari errespetu handi eta Gure Jaun aphezküpia kantuan „*Zure khorpitzaz morfika*“ irakurtzen da (L'oeuvre poétique, 604.or.)

2. Burua. Haritschelharrentzat Etxahunen kantuak “Ni” aren abestiak dira, bere burua, gertaerek, jendeek eta patuak biktima eginaz:

« En dehors de cette complaisante lamentation sur soi-même Etchahun sait organiser le récit de son existence de manière à se montrer victime du destin, des événements et des hommes » [op.cit. 299.or.].

Beraz “ni” aren ordeaz, gehienetan *ene büriia* agertuko zaigu. Horrez kanpo, buru hitza zerbaiten azkena da:

*Oren baten büriko* (Eihartxe eta Vignaud op.cit. 270.or.).

*Hamar hilabeteren büri(a)n* (Bi ama alhaba, op.cit. 404.or.).

Burua anatomia erabileran bakarrik indarkeria edo min batekin lotua irakurtzen dugu

*Sabre, kbaldik büri(a)n* (Etxahunen bizitzea, 182.or.).

*Hautse... büria* (Khantore berri bat, 624.or.).

*Büriko min* (Ofizialenak, 310.or.).

3. Bihotz. Sentimenduen zepo gisa hartzen du Etxahunek bihotza eta ikuspegi beltz hori bere gogoaren eta bizitzaren belztasunetik dator:

*Bihotza zuri* (Urxaphal bat 70.or.).

*Bihotzeko herra* (Mundian malerusik 80.or.).

*Idor bihotza* (Etxahunen bizitzea 172.or.).

*Phenak bihotzian* (Etxahunen bizitzea 173.or.).

*Bihotz min* (Gaztalondoko primak 446.or.).

*Dolüz bihotzetik* (Musde Deffis, 574.or.).

3. Eskü. Hitz horren erabilerak gizartearekin, legearekin, agintariekin zituena harreman txarrak erakusten dizkigu:

Etxekoekin gaizki:

*Eramaiten...ogia esküti* (*op.cit.* 174.or., 4. ahapaldian)

Apezekin gaizki:

*Nabi... eskü saintüti* (608.or. 14. ahapaldian)

Gaztalondoko prima aberatsekin ezinikusiz:

*Esküz eskü zelarik* (Gaztalondoko primak 428.or., 8. ahapaldian)

Legearekin harreman gogorak (lau atxilotze):

*Prozesen üztekoa... esküla* (Musde Deffis, 514.o., 2. ahapaldian)

4. Odol. Bi aldiz hitza agertzen da bertsolariak duen karakter eta joera txarren seinale:

*Odola alteratü* (Bi berset dolorusik, 142.or. 7. ahapaldian) *Ene odol agria sobera errezi(a) n* (Etxahunen bizitzea, 176.or. 15.ahapaldian)

Anatomiazko hitz guzti horik Etxahunek eramán bizitza salatzen digute Asto lasterrak eta Inauteriko antzerkiak dira iturriak. Astolasterrei hala deritze, ezen tragedietan jokolariak zaldietan etortzen badira, fartsa horietan astoen gainean, alderantziz eta astoaren buztanari loturik, Inkisizioak egiten zuen erritoaren parodia.

Alegia morala zentsura egiten dela askatasun osoz idatzi ziren XVIII. mendean eta XIX. Erdian, gero, elizaren eta gobernuaren zentsurak pixkanaka isilaraziko ditu. Gehienak Patri Urkizuk argitaratu zituen Izpegi argitaletxean.

Halaber, XVIII. mendeko gutienik diren bi Inauteriko tragi komedia salbatu dira Phantzart 1802.an Uhalt Casaurangek bearnesez itzuliko duena eta Bakus eta Eleonor.

#### 4.4

### Zuberotar irri antzerkian medikuntza

Gure iturri nagusia G. Arestik, Lur Kriselu sailean argitaratu *Kaniko eta Beltxitina* da Donostian 1971.ko argitalpena da. Orrialdea soilik agertzen denean, liburu horretakoak dira, besteak beste iturrietarik hartuak

Gorputzak komikoaren gaia eta baliabide klasikoa du:

Erortzeak: *üzküz gora igorri* (86. or.)

*zankhoz gora igorri* (39.72.or.)

*zankhoz goiti igorri* (52.or.)

Zango ahulak

*Zankho horik/... arren finka itzatzie* (35.or.)

*Ezpalin bazinezte / zien zankhoer fida* (50.or.)

Bizkarra

Beltxitinak ezkobaz jotzen duena da.

Larruaren kentzea:

*Behar diin labardekatü (64.or.)*

*Larritü behar diagü (68.or.)*

#### Medikuntza

*Sangre bat behar düzü / lehenik zankbotik (85.or.)*

*Hik aldiz, eman'ezok / salda gibel aldeti (85.or.)*

*Labamentü bat (aiuta bat) behar zünüke / odolaren freskatzeko (85.or.)*

*Orano zure odola / alteratürrik da biziki (85.or.)*

#### Mehatxuak

*Nabi deitziet idoki erxiak (atera hesteak) (61.or.)*

*Büriak idoki nabi deitziet (124.or.)*

*(Ferragus erraldoiak) Abo kolpü batez iretsiren baidala (39.or.)*

*(Senarrari Martxelinak) südürra hautsi nabirik (109.or.)*

*(Martxelinak senarrari): Ala ekarri dük, aments / bizkarrean zerbützatze-ko (110.or.)*

Orain, andreek jasaten dituzten tratu txarrak gogoan, gizonezkoek senarek jasaten zituztenean fartsa egiteko gaia zen:

Gilento: *Bai, bai, ene lagüna*

*Gitian has mementüan,*

*Emazteak gizonaren*

*Joitearen gainean (Kaniko ta Belxitina)*

Baina, Satanen arteko harremanak beti haserre, gatazka, eta borroka ekartzten dute

#### Satanek Belzebuti

*Horrez kontent ez babiz*

*Ükenen dük bizkarretik*

*Ebüin eta hamar kolpü*

*Makila honez fierki (Martzelina eta Xiberoa)*

#### Ferragus:

[...] *lebertüren bait hebentxe*

*karakoil bat bezala (Kaniko eta Belxitina)*

[...] *honek apoa bezala / lebertüren beibai ( Kaniko eta Belxitina)*

#### Fartsa sendakuntza

Jende bati haginien kentzeko buruaren egosaraztea

*Haginean min düke gizon batek*

*Eta esküez ezin idok';*

*Nik emanen deizüet abisü bat*

*Eginen beitüzüe orok.*

*Nik ikusi düit Bersaillen*

*Hazienda büriüa hortzak batere ez bigitzen*

*Tripa saldan egos eta*

*Güziak esküz kentzen.  
 Jente honak, hori  
 Aise eginen düzüe  
 Minik haboro ez dükezüela  
 Ni bermatzen nitzaizüe (80.or.)*

Ipurdia (üzkia)

Satan bere atzeko zuloaz kexatzen da, kanoiak orporuntz tiratzeko ordeztudurrera egiten diolako.

Satan

*Bai ene kanoak beti  
 Tiratzen dik oker  
 Astaleala giña eta  
 Südürra dik atzemaiten.*

Beste leku batean kaka ere agertzen da, modu itsusienean. Jupiter eta Bulgifer deabruet Satani eskatzen baitiote nagusi hori, zarpa utzirik, ipurtzuloak garbi zietzaioten mihiarekin

Satan [...] *ziaozte, badiat nik xarpa  
 Züer üzkiaren xabatzeke.*

Buljifer *Lan bortako jauna,  
 Eztüzü aski ezti hori;  
 Egitekoz egin itzagüzü  
 Zure mihi luzeareki (op.cit. 67.or.)*

Jendeen zuloak.

Batean, *pertsona bakoitzak badütü bederatzi zilo* Bederatzi zulo dituztela esan ondoren andreei aiuta egitean, xiringa sartzean, ez dela zuloz hutsegina behar bestela bederatzi hilabete kostatzen baita sendatzea.

*Hanitz neskatilek  
 Ekarrarazten die Barbera  
 Eta gero behar berek nahi  
 Dütien leküan xiringa.*

*Zonbait malür ez da beltzen  
 Izanik ere Barbera  
 Ikusi dügü baratzen  
 Üzküxiloan xiringa.*

*Eta gero bura  
 Emeki emeki hantzen;  
 Bederatzü hilabeteren büriian  
 Berriz operazione egiten (Kaniko ta Beltxitina)*

Himena txanpon txiki batekin irudikatuz “sei arditeko bat baizik”  
(99.or.)

Soegilei, begirailei zuzenduak

*Beste elibat haintxe*

*Bere xalanten besapetan,*

*baiek eginen dizüe*

*etxerakoan hanitz lan (Bubane ta Xiloberde)*

Satan: *Neskatila puntzelak aurten*

*Arraoxe dütiük*

*Plaza bontan orotan dena*

*Hantxeko bura dük*

Bulgifer: *Jauna berzale zombait düzüü hura*

*Bizkarraz alde bontarat.*

*Gero zük ikbusten dütüzüü*

*Haren bertz ipurdiak.*

*Aiei! jauna, bura düzüü*

*Mustro ikaragarria*

*Begiak berak baditizüü*

*Bi saskiren bethea.*

*Abo bat ere badizüü*

*Labea bezain handiko*

*Eta ezpainak propio*

*Zaldare biltzeko.*

Jupiter: *Hura puntzela izanik ere*

*Eztüzüü estonatzeko;*

*Nik ja eztit nabi;*

*atxikazüü zuretako (Kaniko ta Beltxitina)*

Ferragus: *Soizüe, soizüe, hantxeko hura,*

*begiak ürratürik,*

*ene bereki eraman nabiz*

*aboa zabaltürik.*

Ez gehiegi luzatzeko, jakina, frantses *Fabliaux* eta Basocheko ikasleen idazkietan bezainbeste erotismorik ez dago. Bakarrik, nesken “xiloez, zuloez” irri egiten da, galdetuz zenbat zulo duten andreek eta purgatzean “xiringa” ez dela aurrean sartu behar atzean baizik bestela, neskak bederatzi hilabeteren lana badu.



## 4.5

*Txikitoetan pornografia*

Behin, mendian entzun nituen bi artzain txikitokan, baina bigarren gerratearen aurrean bildu bertsoetaz kanpo, ahaideek eman zizkidaten franko eta bizirik diraute adin bateko jendeen artean. Joanes Mikel Bedexagar zuberotar kantariak badu bilduma pollita, berriki egina. Italiarren *stornelli* delakoak bezala, hitzezko desafioak ziren eta azkenean txikito esan eta norbait ezin zen haserretu. Hona, batzuek sexuari buruzkoak.

## Fellatio

*Besta Berri Mauleko*  
*Jaun Dane Jobane Lextarreko*  
*Ebiün urtbez bizi behar dakiala*  
*Emazte baten alüari belhauriko. Txikito!*

## Bestialitas

*Eraikak erbia (altxazak atza)*  
*Hunk'ak zelüa*  
*Gero ükbenen dük, bai*  
*Gure zerrama zabarraren alüa. Txikito!*

## Zoofilia Sodomia

*Gure artzanorak*  
*Ebiün kana pito*  
*Bat aski dik beretako*  
*Besteak oro, bire üzkütik sartzeko. Txikito!*

## Ignorantia

*Ürrütxezko pertika*  
*Leizarrezko makila*  
*Jokatzen diat bai eztakiala*  
*Nuntik xiriko neskatila. Txikito!*

Bertso batzuetan bestearen koskoilak zorritz beteak direla, ihartuak direla, bestearen ipurditi, zakur pitoak edo aker adarrak sar ditezen Gero, ipurzulo-arenak ez dira eskas hala nola besteak zakur baten uzkiean edo ahuntz batenean sudurra sar dezan, puzkerrik egin ez dezan. Eta beheitikoa, kakeria ere txikito goxo batean agertzen da:

*Gerezi beltz jan diat*  
*Khakeria badiat*  
*Ahoalat eginen deiat*  
*Ixiltzen ezpabitzait. Txikito!*

Puritanismoa garaile eta nagusi zen denboretan horrelako gauzak herrian bizi zirela jakin behar dugu, baita, beharbada, moralista giro batean katarsi

moduan erabili zituzketela ere. Bertso horik zuberotar maskaradetan egiten diren bertso ausarten antzekoak dira, hots Inauteri girokoak. Ez dago hor jakina, beste herri ohituretan agertzen ez denik, baina euskaldunek gorputza nola ikusten zuten, gorputzaren ihakin eta ironia hori jakingarriak zaizkigu.



## V

## NOLAKO GORPUTZA LITERATURA JASOAN

## 5.1

## Bernat Etxepare, XVI. mendean

Bernat Etxepare *Linguae Vasconum Primitiae, Olerkiak*, ed. Edili, Donostia, 1968.an L. Mitxelenaren hitzaurrea, 196.or.

Hitzen maiztasuna amorio olerkietan

Begi “occulus” bost aldiz

Begitarte “facies” behin

Beso “brachium” hiru aldiz

Bihotz “cor” hamalau aldiz

Buru “caput” bost aldiz

Dardo, behin

Esku “manus” lau aldiz

Jaun Done Joanesen ebanjelioak Kristoren gorputza gehienik aipatzen duenak berdin begi, begiratze, bihotz eta buru ditu gehienik erabiltzen. Sarritan, erran da mistika, erlijioa eta erotikak hitz berdinak eta batzuetan irudi berdinak erabiltzen dituztela. Ikus dezagun Etxeparengan zer nabardurekin agertzen zaizkigun:

Begi, begiradaren metonimia da eta eskierki, maitearen irudia hor grabatzen da eta gizonaren irritsaren lehen organoa da.

Bihotz, jadanik Europako hizkuntzetan kemenaren erran nahia galtzen du, arimarena hartuz.

Buru, ez da bere anatomia erran nahian agertzen baina erreflesiboan: nire buru, haren buru..

Axularren *Gero* liburuan maitasunaren, Erosaren bideak erlijio araez agertzen badira (auditus, colloquium, gustus, tactus, visus). Etxeparegan Erdi aroko olerkigintzan legez iradokiak dirade: “*Quinque lineæ sunt amoris, scilicet, visus, allocutio, tactus, osculum, coitus*” (Aelius Donatus).

Maitearen gorputzaz edo gizarte egoera ez aipatzeak frantses xehetasunzale bertsogintzarengandik urruntzen du Etxepare eta penintsulako ohituran bezala, bakarrik, berak omen, erabili ez zituen formetan, satiran, pornografian, edo asto lasterretan agertzen dira, Hamazazpigarren mendean eta batik

bat XX. mendean andreen anatomia azalduko da, gizonena, orainarte, oso gutxi. Bernat Etxepareren obra maitasun eta erotika jokabideen morala bat da, erakusteko alde batetik andreen errespetua zer izan behar lukeen in *Emazteen fabore* eta Birjinaren maitasuna gorago ipiniz.

## 5.2

## XVII. mendean Arlande Oihenart

Erotismoaren hiztegia Arlande Oihenarten neurtitzetan

Oihenarten *Atsotitzak eta neurthitzak* Irakur sail, Donostia, 1971, Larresoro eta E. Goyheneche, 227.or.

Jakina, nahiz aski puritanoa izan Etxeparen kritikatzeko Oihenarten hiztegia aberatsago da 76 hitz zenbatu ditugu, nahiz hitz zenbait ez diren beren erotika esan nahiarekin erabiliak, ageri da garaiko burges eta nobleen gisa, euskara ongi menderatzen zuela.

Bestalde aipatzen dizkigun maiteen benetako izenik ez badakigu eta benetako andreak ziren, anatomia xehetasunak aski ugari dira. Adibide osoena bere emazteari egian zion XIII. olerkia *Joanaren betbeginzarrea* da Andre noble eta alargun hori 1627.an esposatu zuen. Haren anatomia ondoko zati bakoitzarentzat bertso bat dakar eta hor ditugu: adats, ahutzalde, begi, beharri, bekoki, bulhar, gorputz, sabel, sudur; baina bertso erdia baizik ez: ahur, beso, bidar, erhi, esku, ezpain, gerri, hortz, mutur, oin, zango.

Hierarkia horretan lohadarrak, menbruak bigarren mailara doaz, burua, bularra, sabela, mehetasuna goraiaturik. Beraz, andrearen aurreko alde guztia deskribatzen digu, baina belauna, ipurdia, orkatila, orpoa, ukondoa, sorbaldak, ez ditu aipatzen, baina egia da bere emazteaz mintzo dela. Bestalde, Etxeparek “gorputzaren erdia” erabili bazuen aluarentzat Oihenartek ez du horrelako aipamenik, eta aluari alu esateko J. Mirande XX. mendean itxaron behar da. Oihenarten beste olerkietan Beltxaranari eta Graziana olerkietan, aztal (orpo), bizkar, ukarai (eskutur) irakurtzen dira.

Oihenarten andre eredu hurbilago da ipuinetako Anderea edo Mari delakotik, eta italiar modelotik ezen ez eta Rubensen andre pottoloez:

Lerdentasuna

*Ezta lodi ez mehe soberarik* (XII. olerkia Beltxaranari)

*Xuxen bizkarrez* (X. olerkian Graziana)

*Gorputz lerden* (X. Olerkian Graziana)

Zuritasuna, gardentasuna

*Gorputza elbur, boli, perla* (X., XII., XIII.) bekoki eta mazela *kristal* (XIII.)

Gorritasuna: matraila eta ezpainak (XII., XIII.)

Adats luzea

*Adats/ aztaleranokoa*

Begiaren argia, distira

*Khanbiatu izarretara* (XIII.)

Gorputzaren moldeak

Oina, zangoa, besoa, bekokia ez lodiegi, ez mehegi, sudurra *luze-kara* (erdi luze)

Bular argia

*Bolbar'ask' ilbunbean/ argi zerbitzatzeko.* (X.)

Horrelako andre irudiak bere jaiot'inguruko burges edo ezkondu ondorengo noble andreenak baizik ez litzateke izango, alegia lanean higitu gabeak, baina bitxiki maitasun kantu herrikoietan ez da ofiziorik aipatzen eta andreak kalitate berdinak ditu. Oihenartek andreen gorputza gai aberatsekin erkatzen badu: belus, boli, zeta, zilar, korail edo eguzki eta izarrekin, metafora horiek ez zituen Italian hartu beharrik ezen eske bertsoetan eta geroko amodio kantuetan ere, berdinak erabiltzen zirela bi lekutan idatzi bainuen (*Gure Herria, Cuadernos de Etnografía y Etnología de Navarra*) eta berriki Xarles Videgainek.

Gure herri literaturaren eta literatura jasoaren ekarpen zahar handiena maitasun abesti eta olerkiak izan dira eta elizako liburu gehienak itzulpenak Horregatik, oroitu behar dugu Lafitte sotanadunak *Euskaldunen Loretegian* 133.or. idatzia bere zentsore frustratu desirak egiaztatu nahiz egin zuela. Euskal literaturan erlijio gaietarik kanpo ez da ezer garrantzizkorik, eta René Lafonek Boredeleko unibertsitatean bere sarrera hitzaldia egin zuenean 1948 ko abenduaren 7.an erantzun ziola “salbuespen bat egin dezagun Etxeparek eta Oihenartek maitasuna kantatu dutela” in *Eusko Jakintza III*, Sara, 1949, 30.or.).

### 5.3

## Erotismoa eta pedofilia Jon Miranderengan

*Haur Besoetakoa*. Idazle hori 1925.an Parisen jaioa, 1972.an Parisen hila, Oihenarten ondotik eta ausarkiago erotismoa euskal literaturan erabat sartu duena izan da. 1953.rako jadanik idatzi zituen olerki asko erotikoak dira, baina pedofilia gai labaina 1959 idatzi *Haur Besoetakoan* azaldu zuen, ipurtxurien zentsuraz 1970.an baizik argitaratuko ez dena.

I.pedofilia. Jon Miranderen eskarmentuetan eta eleberrian heterosexuzko-harremanetakoa da (ik. Lewis Carroll, Wladimir Nabokov eta Edgar Poe). Eleberriaren gaia da hogeita hamabost urteko gizon baten eta hamaika urteko neska baten arteko maitemina da. *Pedophilie* hitza 1964.eko frantsesezko Larousse Hiztegian ez nuen aurkitu, bakarrik “homo” en pederastia. Nire entzunaz, heterosexu pedofilia, pederastia baino ugariago da eta askotan bien elka-

rrekiko maitasuna berdin. Estatu batuetan eta Frantzian ere intzestoarekin lotu kasuak badira.

Pedofilia ez dela Euskal Herrian ezagutzen idatz bageneza okerrean eta faltsukerian ginатеke, baserri munduan gertatzen dela baitakigu, besteetan bezala. Nahiz Zuberoan nekazariak, behintzat, “manex herrietan” baino gorputzaren askatasun iritzi hobea zuten, pedofilia eta intzestoa elkartzen direnean gizarteak gaizki ikusten du. Badakigu, Garindainen eta Santa Grazin semeek beren aita hil zutela alaba bortxatu zuenean, eta beste asko isilik egon dira, sarritan, ezpaitira bortxaketaraino iristen. Eleberrian ez da senide hurbil-en arteko harremana. Eta sotilki, eztiki kontatzen zaizkigu bi notinen arteko sentimenduak eta gure literatura ipurtxuri puritanoan beste haize bat ekarri zuten.

Lehenik ikusi behar dugu nola gorputza sentimenduen halabeharrezko bideak hartzen dituen. Bai, lotsa arin bat bada euren harremanetan, gizonak *abapeka* hitz egiten dio neskari sei aldiz, eta gorri, gorritu hitzak zazpi aldiz irakurtzen dira eta behin gizona dela-eta. Maitasunaren bideak hiztegiaren maiztasunean agertzen zaizkigu:

*Gorputz*: hiruogeita bi aldiz (62 bider)

*Bibotz*: berrogeita hamazazpi aldiz (57 bider)

*Begi*: berrogeita hamabi aldiz (52 bider)

*Esku*: hogeita hamar aldiz (30 bider)

*Buru*: Anatomiazkoa hamabost aldiz (15), metafora edo metonimiaz hogeita sei aldiz (26)

Oinarrizko hiztegi hau beste edozein idazle erotiko edo mistikoengan aurki genezake, baina beste hitzetara igarotzeko jakingarria izango zaiguna haur emearen gorputza idazleak nola dakusan.

Adatsa

Herri kantuetan, Oihenarten eta Etxahunen bertsoetan bezala ile hori luzea da:

*Adats horia* (Haur Besoetakoa 16.or.)

*Ile adats ederra* (op.cit. 21.or.)

Baina, Miranderen azalpenean ametsezkotik egiara jaisten da, ezen haur horitasuna andretzearekin galduko baita:

*Beltzaranduko zen urrezkotasun hori guztia, endaren halabeharrez* [op.cit. 19].

Horitasunaz *hori* hitza badarabil, baina *urte* zazpi aldiz adats horiaz eta hiru aldiz larru horiaz. Jon Mirandengan. Wagneren eta german literaturaren eragina garbi dago «*Walkyrie txikiaren bi urrezko trentzak*» aipatzean, Miranden idazkietan ez da Oihenartenean bezala boli, perla, zeta alderaketarik egiten, baina bai Oihenartek bezala, *altxor, esne, marmore, urte*.

Zuritasunaz

Oihenart antzo zuritasuna aipatzen digu; hiru bider irakur daiteke:

*Gorputz zuri, bular zuri, idun zuri* [op.cit. 109.or.]

*Larru esnetsu* [op.cit. 18.or.]

*Larru elurtsua* [op.cit. 65.or.]

Baina, ondorengoan neska hilaren aurpegia:

*Aurpegitxo zuri-zuria* [op.cit. 105.or.]

Begi urdin

Oihenartek Margaritaren begi urdina aipatzen du, Miranderen eleberrian begia ez da urdin *begi ñabar* baizik (olerkietan begi urdin). Denbora berean, begia eta begirada bereizten ditu gizonak:

«*Begiak orain bezain ñabar eta garbi egongo zitzaizkion noski, baina orain begi horietatik so egoiten zion arima, bera aldatu ezinean ere estaliko, ezkutatuko zen Tberesaren gainerako bizi guztirako eta baren ordez, emakume baten izpiritu buts eta itsuak so egingo zion*» [op.cit. 19.or.]

Besoak

Izenburuan beratan, *Haur Besoetakoa* bi gisaz uler daiteke, haur pontekoa edo maitez besoetan hartzen dena. “Beso” oso ugari agertzen da:

*Besoetan tinkatzen/hartzen* (18.or., 20., 63.or., 69.or., 72.or., 100.or.)

*Besoa neskaren gerrian* (29.or., 44.or., 51.or., 60.or., 73.or., 102.or.)

*besoetan errendaturik/mana* (68.or., 73.or., 76.or., 90.or.)

*besoa... lepoaren inguruan* (20.or., 38.or., 57.or.)

*baren besoetan, sukar batekin hestutu zuen bere gorputzaren kontra* (18.or.)

Bihotza

Fisiologia erran nahiz, “zirrara eman” takikardia eman irakurtzen da: bihotz taupada, bihotza joka, baina tropoetan gehiago agertzen da; batzuetan baikor, argi, egarri, irudimentsu, isil, pozik:

*Bibotz baten amets maitena* (5.or.)

*Bibotzeko nahikari* (7.or., 9.or.)

*Bibotzeko ozkarbia* (25.or.)

*Bibotz irudimendun* (65.or.)

*Bihotza alaitzen, poza hartzen* (31.or., 43.or., 52.or.)

*Bibotzeko egarria* (96.or.)

*Bibotzaren isilean* (96.or.)

*Bibotz betegia laxatzen* (45.or.)

*Bihotza lasaituko zion* (90.or.)

Beltz ere bai: ahul, ausikia, bildurrez, hotz, etsitua, kemenik gabe, urduri, urratua, zauritua

*Bibotz abula* (82.or.)

*Bihotza etsipenez izozturik* (6.or.)

*Bibotz urduria* (18.or.)

*Beldur berri..bibotzari* (47.or.)

*Bibotzean zauri sendatu ezina* (19.or.)



*Beldur bat bihotzari ausikika* (47.or.)

*Frantzen doinu hits bihotz erdiragarriak* (27.or.)

*Bibotza erdibitzen* (69.or.)

*Bibotz urradura* (25.or.)

Behin, kuraiaren adierazteko darabil “*ez zuen bihotzik*” (90.or.)

Ile, bilo

Haurra, bere haurtasunarengatik, ile horia da baina gizonak badaki:

*Handik urte zenbaitetara, beltzaranduko zen urrezkotasun hori, endaren halabeharraz* (19.or.)

Gorputza

Hemen, haur gorputzaren mirespenarekin, goraipamena dator, gorputzaren haurtasuna eta izpirituarena ere

*Sabeltxo ordo hori* (19.or.)

*Ozta hantzen basia zen bular zuri hori* (19.or.)

*Urre ta marmorezko usain ontzi* (19.or.)

Baina, beldurrez dago ez ote den haurtasun hori emetasun bilakatuko:

«*Bai, zoritxarrez! handik urte gutxi batzuetara, hiruzpalau urteren bururako, betiko joana zatekeen haren haurtasuna; lore berri bat izateko orde z udako igali lirin bat izango zen, maitaleen hortz erruki-gabekoek esk egingo ziotena eta, laster, udazkenak zimelaraziko zuena. [...] eta sexuaren halabeharraz haragi arin ta malgu hori mardulegi, beteegi egingo zen*» [19.or.].

Gorputza, Jon Miranderen idazkietan, arimarekin bat eginik da edo arimarekin izterbegi. Hortaz, 1976. urteko maiatzean Deustuko unibertsitatean hitzaldia eman nuen eta Jose Azurmendi Otaegik bere liburuan *Mirande eta Kristautasun*, Donostia, G.A.K. 1982, 167. orrialdean honela idatzi zuen:

«*Gorputza iragankor da, hiltzera behartua eta arimaren aldean bigarren mailakoa, haatik (Mirandek dionez) ez da mespretxatu behar*» [op.cit. 124.or.].

Bestalde, Mirandek berak *Haur Besoetakoan* idatzi zuen:

«*Gorputza ezbehar omen edo eragozpen bat, baina bai eta arimara daraman bide bat ere, Goizerriko mistikoez erakutsi zioten araura*» [op.cit. 85.or.].

Miranderen *Haur Besoetakoaren* erotika irakurketa egiten badugu ere Madrideko UNEDen eta Deustuko unibertsitatean eman hitzaldietan lehen irakurketa dela erakutsi genuen, eta sinbolikazko, mitologiazko, pedagogiazko irakurketak ere daudela gaineratu genuen. Idazlea ezagutu dugulako erran genezake ez zuela andre heldu, nagusiengan inolako ezinikusi edo ikuspegi ezezekorrik, bakarrik eleberriaren beharrez, Isabelaren itxura ezezkorra da:

«*Goragale bat zuen Isabelari zerion usain okaztagarria abora zetorkion, haren biloetatik, haren besapetik, haren sabelpetik, gorpu bil baten usaina izan bailitzakeen [...] hura ere epaiturik zegoen halako zurrun bati loturik bizi izatera handik aurrera. [...] eskerrik asko emeari azkenekotz utzi baitzuen!» [op.cit. 39.or.].*

Gizonak Teresa haurrarekin dituen harremanak ez dira batere Isabela andregaiarekin eduki dituenak; Isabelarekin harreman klasikoak, haurrarekin berriez gehiena, laztan, musuzkoa da. Gizartearen eraginak eta bereiztearen beldurrak bultzatua, harreman klasiko, sarkorra eta sinboliko bakarra edukiko du. Emetasunaren irudi jakin gabekoa ez da berdin neskeen eta mutilen go-goan, ez eta hetero ez homoen artean. Etologiariek jendeen jokabidez arduratzen direnak behintzat erakutsi dute:

1. Gizonaren begi ninia handitzen dela andre biluzi baten irudia ikusiz
2. Andreamen begi ninian eragin berdina edukitzeko nini baten edo haur baten argazkia behar da.

Ezin dezakegu erran heziketak ala sortzez den halakatzen jendea, baina badakigu eta irakasten nuen, jendeen sexu organo nagusia burua dela eta eragile irudimena.

#### *Erotismoa Jon Miranderen olerkietan*

Horretarako, bederatzi olerki hartu ditugu *Orhoituz*, 1976.an argitaratu bildumatik. Hogeita hamalau olerkietarik bederatzi dira benetan erotikokoak. Hasieran, gipuzkeraz idatzi zituen gehienak, gero, lapurtar klasikoz ipini argitaratzekotan, bat “Jei gaü” zubereraz, beste bat ijitoen hizkuntzan “Kama Goli”.

Horien artean, bi daude idazlearen pedofilia eskarmentuak aipatzen dituztenak, “Larrazken gau batez” Sorhuetan Zuberoan gertatua eta Amsterdameko orhoitzapen bat. Herbeheretan agitua; hiri hartako neska baten, Bettyren, argazkia erakutsi zidan. Gero, lesbianeia buruz “Neskatxak”, masturbazeari buruz “Eskua dut emazte”. Bederatzi horiez kanpo, prosa poetikoan Galesko, (Kymroko), artzain protestante batekin Goulvenn Pennaoden pederastia eskarmentuak, “Jainkozalea” delakoan, humoristikoki kontatzen ditu.

Bere olerki gehienak andreei buruz dira eta agertzen zaizkigu, hor, euskal literaturan inoiz sarrerarik izan ez zuten, ohaideak eta prostitutak eta beti, moralkeriarik gabe, andreen gorputza goraiapatuz.

Bere olerki gehienak 1949 eta 1953; urte arte horretan idatzi zituen, bazuk 1954 etik 1959.raino, baina euskaldunen zentsura eta ezinikusia jasanik idaztea utzi zuen.

Bederatzi olerki horiek gorputzaz ematen diguten irudia

#### *1. aboa, ezpainak*

*abo ezti* (Larrazken gau batez, 74.or. 4. ahapaldian) musu ematean ezpain gozo (Jei Gaü, 48.or. 6.ahapaldian) irrikatzen duen andreamena ezpain likits (Oianone 96.or. 6. ahapaldian) andre trebarena

#### *2. begi*

*begi urdin* (Ametsetarik, 51.or.) amets laburrekoa  
*begi beltza* (Ilhunabarrez, 13.or.) andre lotsatiarena

## 3.esku

*esküa tink* (Jei gaü 48.or.) maitatu nahi den andrearena  
*esku lizun* (Oianone 96.or.) andre trebearena

## 4.Ile

*ile oria* (Bi beleak, 22.or.) gizon hilaren ilea  
*ilbe gorri* (Ilhunabarrez 13.or. I. ahapaldian) orrazten ari den andrearena  
*bilho gozo* (Jei Gaü, 48.or.) gizonak andrearen ileari musu egitean.

## 5.larru

Hiru edertasun ditu, *guri, leun, zuri*.  
*Larru bera* (Amsterdameko orhoitzapen bat, 8I.o. 8. ahapaldian)  
*Sabel guri, bular guri, Izter guri* (Oianone 95.or., Neskatzak 38.or.)  
*Larru leun* (Oianone 92.or. 2. ahapaldian)  
*Bular samur* (Oianone 95.or. 2. ahapaldian)  
*Larru zuri* (Oianone 92.or., Neskatzak 95.or.)

Euskal iruditeria zaharreko, Oihenarteren irudiak agertzen badira Jon Mirandenean aberatsago da, zehatzago, andre goxo, ezti eta trebearen irudia nagusituz. Bi amets kontatzen dizkigu eta neska larru zuri, begi urdin, ile horiaren arketipoa “Ametsarik” delakoan agertzen da, baita “Neskatzak” lesbien ametsen, hor ere zehaztasun gutxirekin aho, begi, ile. “Ilhunabarrez” olerkian andreak ez du zaldunari atea ireki nahi, baina ez ote da zaldun hori Herioa?

“*Pigalle*” olerkian neska Montmartreko mahastiarekin erkatuz, haren sabelaren putaren ardo eskatzen duenean, baita Zuberoako herrikoian izan ezik, euskal literaturan klasikoegi ez diren harremanak aipatzen ditu: homosexualitate, felazioa eta beste. Andre nagusiekin igaro gauen oroitzapenekin, bi poematan, andre horiez Mirandek zeukan irudia eraikitzen da. *Jei Gaü* delakoan gurasoen jaioterriaz Zuberoaz goraiapamena delarik; maitasun gau bat kontatzen zaigu, gau horretan bekatua baztertua da eta gizona gorputz eta arimaz neskekin bat egiten saiatzen da. *Oianone* andre trebearen “*atseginetan jakintsun*” goresmena da, eta horretarako ohean ona izan zenarentzat, izen polita asmatu zion.

Oianonen, hain zuzen Jon Mirandek andreaz daukan irudia, bigarren ahapaldian agertzen da:

*Larru legun eta zuri,*  
*Bulbar samur sabel guri*

Baditugu andre maitatuen bost irudi, neska ferekatua, andre larru jotzalea, andre maitatua, andre jakintsua eta prostituta. Emakumea ez da Oihenarteren obra puritanoan bezala idealizatua, benetako andreen irudiak dira, baina beti idazleak, eleberrian bezala, gorputzaren eta arimaren arteko dialektika darabil

*Iraül ditzagiün bi arimen mügak* (Jei Gaü)  
*Zergatik bitz bigatü borik maitarziün* (Jei Gaü)

Batzuetan, hori ezin kausituz ez du harremanak jarraitzen

*Eguzkia sartu zeneko*

*Beti zuela maitatuko*

*Beste bati zion agindu.* (Maitarziin)

Garai hartako olerkigintza jasoan berria da, aluaren eta felazioaren aipamena eta goraipamena

*Zure matxantto maitea/zabalik* (Oianone, 95.or. 3. ahapaldian)

*Zure matxantto maitea/hurtzen zen nere abora.* (Oianone, 96.or.)

Zakilarentzat suge metafora ezaguna darabil, janari iturri ederra jan nahi duenarentzat (Oianone, 96.or. 7. ahapaldian)

Euskaldunok jendeen eta batik bat andreen gorputzaz dugun irudia hartuz, Jon Mirandek berritzen du, gaurkotzen, baina idazleak materialismoa etsai baitzuen, harengan badago beti sexua kiroltzat hartzeko urruntasuna. Erotismoa gorputzaren katarsi bada, arimen bat egiteko oztopoa ere da, sineste batek askatzen ez duena. Hortaz, daukan antsia, bere obra osoan, eta erotikatik kanpo ere, bihotz hitzaren erabilerarekin ikusten da:

*Bibotzak ez du entzun* (Ilhunabarrez 13.or. 3.ahapaldian)

*Bibotz sor hau... sutu nabiz* (Ohiko Jainkoari, olerkian)

*Bibotzean osk* (Ohiko Jainkoari, olerkian)

*Gure bibotzen gorotzak* (Lili bat, olerkian) itxaropenaz mintzo

*Bibotza jartzen zait makal* (Paris Rue Beuret, 42.or. 3.ahapaldian)

*Bibotz-min gai* (Orhoituz)

*Nigar dagit...: bibotz minez* (Zergatik, olerkian)

*Bibotz minak oro bezirik* (Itxasuntzi zaharra, olerkian)

“Akelarre” olerkian erotika aipamenak darakutsa Jon Mirandek andre ederraren mirespena zenbaiteraino zen:

*Sorginen lezean,/lizun ta biluz gorri/biloak haizean/neska bat dantzari*

*Oi zu neska lerdin/oin-beso arinak/Zugan du atsedan/*

*/Satan nagusi onak* (Akelarre 5-6.ahapaldian)

Jon Miranderen obraren bidez andreen gorputz hiztegia aberastu zen, eta hartaz idazteko askatasuna eduki. Gure idazleak urte askotan nekez, eta aldizkarietan eman zituen olerkiak, hil eta gero baizik argitaratu ez zirenak. Mirandek handik hogeitau urte gertatu beharra zen “sexu askapena” edo sexuaz hitz egiteko askatasuna ematen digu. Ipar Euskal Herriko zentsore frustratuek ez dute oraindik ez ulertu, ez onartu.



## VI

## HIZTEGI ZAHARRAK

## 6.I

*Linguae Cantabrica*. . . (1562) N. Landucci.

Lehenbiziko argitalpena Manuel Agud eta Luis Mitxelenak Seminario Julio de Urquijoren babespean argitaratu zuten, Donostian 1958.an eta izenburua jarri zioten N. Landuchio, *Dictionarium Linguae Cantabricae* de 1562. Mitxelenak, nongo euskarari eta zer herritan egin zen jakiteko bere susmoa konparaketa batez lagundu zuen

Landucci	Arabako gaztelania
eroa santea “hinojo”	hierba santa
çapoa “escarabajo”	sapo de luz “luciérnaga”
arrauntça “huebo”	ronzobil (arrontzobil) “tortas con huevos”
çarranquea “hielo”	carranca “capa de hielo”
triscac “castanuela”	triscas “castañuelas”

Bestalde, *Cercondo* hitza agertzen delako pentsatu du, Gasteizen idatzi zela eta bildu hiztegia eta Arabako euskarari erabiltzen ziren hitzak ere: amabi “merino” eta holakoak ikusiz ia ziurtasunarekin. Hiru informatzaile izan zituen, baina, maiz, kaletar askoren gisa, lasterregi erantzun zuten ezen agertzen baitira Kastillako gaztelaniazko hitzak, *lomoa*, *pebua*, oraindik Arabako Gaztelanian *biscar* eta *colco* bizi direlarik. A. eta C. berriemaileek bizkaiera antzeko mendebalde euskara ematen dute, B.ek berriz erdialdeko euskara eta ekialdeko ikutu bat edo beste. Osoki garbizale eta hitz berri asmatzaile izanik ere, Azkuek mordoilo iritzia bizkarreratu zion. Jakina, alferkeriaz batzuetan edo orduko diglosiaz erdarakada hutsak irakur daitezke, *caderea* “cadera” (76.or.) “*oyna corue*” “*corua de pierna*” (89.or.), *costadua* «costado» (89.or.), *crinac* “crines por cabello”, *cocotea* “cogote de cabeça” (83.or.).

Batek entrañas *entrañac* itzultzen du, aldiz, beste batek espalda hitzarekin «*errai*» ematen du; lerroz okertu da norbait. *Ijadaco min* orduko diglosiaren eta sendagileen erdaratik dator.

Hapaxak eta hitz zahartuak aurkituko ditugu “*pierna*” *gidala*, “*frente*” *velarra* (ik. zuberera), “*boca*” *ago* (cf. Ng.) “*lunar*”, *guiçaseñale* (cf. *sortseñale*, zubereraz). Ez dira, ordea, bizkaierazko gaurko fonetismoak agertzen (burubak, belarriak)

baina erdialdeko euskararen hitz franko: *arra, bepuru, buru, diti, ezpaina, eztarri, ezur, gerri, gidal, gorputz bukabila, bukaua, ile, ipurdi, juntura, izter, lepo, tu, una, velar, vuztain*; hori buruz mendebaldeko euskararen itxura dute, *atz, narru, edur, ulé, uzkar*.

Zoologia dela-eta eman dugu beste leku batean Landucciren hiztegia, bai-  
na azpimarragarria da ekialdeko hitzaren agertzea *çamalçaia* (Zamalzain Z.)

Fisiologia eta patologiaren hiztegia Landuccirengan

Gorputzeko ariketak direla-eta irakur daitezke

“abraçar” *besaca equin* (49.or.)

“ayunar” *bareu yçan* (55.or.)

“alimpiar narices” *muçnac garuitu* (57.or.)

“andar” *ybilli* (60.or.)

“arrodiarse” *velaurico jarri* (64.or.)

“muñeca” gaizki itzulia *beso* (74.or.) eta ongi *escuturra* (158.or.)

Gorputzaren beharrak, euki eta izan aditzarekin (67.or.)

“auer gana de beuer” *edateco gura euqui*

“auer gana de cagar” *cacurr nax*

“auer gana de çenar” *afaldu gura nax*

“auer gana de comer” *jateco gurea euqui*

“auer gana de mear” *chixacurric naço/nax*

“auer gana de parir” *erdi gura nax*

Gorputzaren jardunak egin aditzarekin

“bocezar” *arrausia equin* (72.or.)

“cagar” *caca equin* (76.or.)

“dormir” *lo equin* (110.or.)

“escopir” *tu equin vel ystu equin* (120.or.)

“estornudar” *usain equin* (cf Z. ürsain egin) (124.or.)

“lagrimar” *negar equin* (143.or.)

“mear” *chixa equin* (152.or.)

“nadar” *ygueri equin* (159.or.)

“peer” *uzcarequin* (169.or.)

Gero, substantiboak ere agertzen dira “boçezo” *arausia* (sic), *ystu* (120.or.), “merda” *caquea*, “merdoso” *cacasçua* (150.or.), “orina” *chixea* (164.or.), “pedo” *uzcarra* eta “pedorro” *uzcarr onçia* (169.or.).

Ondo bereizten dira berez odol galtzea “sangrentar” *odolsutu* eta sendagi-  
leak kentzea “sangrar” *odol atera* (169.or.). “T” hizkia ez baita bete eta lekuka  
hutsuneak izan direlako, gorputzaren, hiru zentzu ditugu

“mirar” *vequiratu* (155.or.)

“oler” *usay aditu/equin* (163.or.)

“oydo, sentido” *ençutea* (163.or.)

Ginekologiaren hiztegia argia eta ona da:

“abortar” *gaiçqui erdi*

“madre do se concibe, parturiente” *emasabel*

“parida” *andra erdia* (167.or.)

“parto” *erçea* (167.or.)

“prenada” *yçorrea* (175.or.)

Patologian Hitz gehienak gatxa hitzen erroa dute, min berriz bi aldiz agertzen

“dolor del costado” *ijadaco min* (139.or.)

“dolor de estomago” *urdabilerean gayça* (54.or.)

“dolor esciatico” *ceatiqnea gayça* (54.or.)

“dolor de muelas” *aguina cosquitua* (100.or.)

“enfermar” *gaxotu*

“enfermo” *gaxoa*

“enfermad” *gaxa mina* (117.or.)

Gaitzak berriz gutxi dira. Sei dira: *ciatyqnea* “ziatika”, *yscotua* “itsutua” (94.or.), *sorr equin* “gortu”, *itzestena* “aknea”. “Hitz bitxienak” esteuado de pierna *oynoqnea* eta “mirar al traves” *oguen veguiratu* (155.or.) zeren zubereraz mendebaldeko akats fisikotik akats moralera zirristatu baita, *ogen*.

Jakina, Landucciren laguntzaileak idazten zekiten eta erdaraz zekiten, diglosia giro batean bizi ziren eta Navaggiero Venturino bidaiariaren esanetan, herri xeheak bakarrik, euskara aberatsa zeukaten; halatan ere, ez da gaizki ikasiek horrenbeste hitz ezagutzea baina euskaldun zaharrek ohi duten moduan beti mugatuan ematen dituzte hitz bakunak eta mendebaldeko fonetismo andra (erdia) muga gabea, txisea eta kakea mugatuan.

Italiar eskatzailegatik eta euskaraz ematen diren erantzunen gatik buru, 16 aldiz, begi hamabost aldiz, esku 8 aldiz, oin 8 aldiz, belarri 7 aldiz, aurpegi 5 aldiz, bizarra 5 aldiz eta ilea 5 aldiz. Biologia dela-eta Euskaltzaindiak 1968. an eman euskara batuaren zerrendako 120 esangurak hor daude, beraz oinarritzko hiztegi osoa.

## 6.2

### Olabide S. J.ren *Giza soña*, 1917

Itxaroten dudalarik hiztegi horren aurreko guztia ez dela fantasia edo asmakeria ikus ditzagun okerbide batuk.

Euskaldun idazle horrek *Giza soña* (El cuerpo humano), Tolosan, 1917.an argitaratu. Duela hogeita hamar urte eskuen artean neukano egin nuen azterketa, Hiztegi eta aldatu idazki batzuen bidez, euskara hobetzen saiatu zen gure jesuita. Ongi baliatu dute euskaldun hiritar askok, okerrak eta okertu



nahiak ezagutu dituztenean. Bakarrik, zalantzezko eta beharrik gabeko berrikuntzak ikusiko ditugu. Batik bat, zitologia eta histologia jakintza sailetan aurkituko ditugu. Barka, berriz ere biologilaria ere naizela idazten badut.

I. Hitz baten esan nahia aldatzea: *soin*, gorputz edo lohi hitzen orde

a. Hona zer irakurtzen dugun lehen urrats batean

“*Cuerpo=soin (c.)*”

Eta horretarako itzulpen okerra egiten du

*Ez besoan eramán soñean baño “No lo lleves al brazo sino pónitelo en el cuerpo [sic]”.*

Ez da gorputzean eramaten *soinean baizik*, erran nahi baitu *sorbaldan*.

b. Bigarren urratsa, azpimarratzea

*Soñez-soñ (R. Uzt) cuerpo a cuerpo [sic], de mano a mano (v.g. trasladar ladrillos, tablas, bacalao entre varios trabajadores formando cadena).*

Jesuitak, agian, ez zuen sekulan esku lanik egin sorbaldaz sorbalda egiten baita lana. “*Cuerpo a cuerpo*”, maitale batekin egiten dena litzateke.

c. Hirugarren urratsa, *soin*, *soineko* esan nahi duenean gorputz hitzaren lekuan jarri

*Oñaren eta soñaren alde lan egin (G. Etx.) “ha trabajado a trueque de traje (cuerpo) y calzado (pié)”*

(*Soin dela-eta* Toribio Etxeberria eibartar lexikografoa argiago izan zen. *Soin*, *soineko* andrazkoek eta umeez goiti behera ipintzen duten arropa dela, eta *jantzia* berriz “*Jantzi el de los hombres es más bien jantzixa*” beheitik gora ipintzen delako).

d. Laugarren urratsa, gorputz eta arimaren alderantzizkotasuna argitzeko asmatzen du iturria aitortu gabe, bera baita:

*Soñez eta gogoz ageri zitzayon «Se le aparecio en cuerpo y alma»*

d. Bosgarren urratsa itzulpen oker berria.

*Soñkatu «dar cargas a empujones con el cuerpo (sic)*

Gure eliza gizonak ez zukeen ate bat sorbalda ukaldiz irekitzeko beharrik izan, baina gorputz osoarekin eginaz zer ubel bilduma.

Aita Olabidek bere eskaintza berria gainjartzeko, azpimarratzeko gorputz luma ukaldi batez baztertzen du, *vade retro satanas*, gutxi erabilia bezala: «*con el exótico gorputz, gorphitz, korputz etc... tenemos algunos modismos euskéricos.*» Eta gorputz hitzaren itsusitasunaren erakusteko adibide txar meta bat ematen digu

*Gorputza askatu (B. ms. Lond.) “fatigarse mucho”*

*Gorputza kendu, gorputzez izan (B.g.) “coire”*

*Gorputz-gili (B. Mond.) “cosquilloso del cuerpo”*

*Gorputz larri (G. Don.) “granos vegetales rojos que producen escozor en la piel”*

Adibide horietan, behin, gorputz, *cuerpo* itzulua. Aita Olabideri ahaztu zaio bazuela lauhun urte gorputz hitza erabiltzen zela eta hori elizaren eraginaz.

gure hiztegileak ez zekien bazela euskara zaharrean, *lobi*, eta norbait esan balio *soin*, *soma* latin exotikotik zetorrela, ez dakit zer asmatuko zuen? Edonola, *soin* sorbalda da, gehienik torax, baina burua ez da soinareen zati bat.

Liburuaren egitearekin lehen orrialdeko eskaintza ahaztu zaio eta okertu gabe “s” letran ondoko hauk ematen ditu “hombro” itzuliz

*Soin soñak goratu* (B. R. uzt. Z.) encogerse de hombros lit. levantarlos

*Soin* (An. arak., lez, L.) carga que se lleva al hombro

*Soinkatu* (An. B.) llevar cargas al hombro.

Ikastolako lehen liburuekin eta ezjakinez, *soin* hitza idatziz gorputz esateko euskaran sartu da, eta Toribio Etxeberriak Eibarren *korputz* hitzaren sinonimotzat ematen du. Hizkuntza guztietan gaizki eratu edo okertu hitzak ugari dira, baina gure hizkuntzak garai haietan ezagutzen zuen erdeinuak eta hizkuntzaren duintasunagatik, idazle asko garbizalekerietara bultzatu zituen, orain euskainol mordoillora lerratzen den bezala.

## 2. *Kirio* hitzaren sortzea, nerbio= zain esateko

Iparraldean, aspaldidanik, nerbioari *zain* diogu, baina *zain odolzain* izan daitekeelako Hegoaldean bitxiki baztertu da. 1917.an Olabidek asmatu zuen eta aurretik inork ez zuen erabili horretarako. 1971. Goenak, *soin*=gorputz ez bazuen bere hiztegian onartu, *kirio* bai. Eta nondik arraio dator?

Oñati, Eibar eta Ataungo euskaldun zahar lagunei galdetu nien eta ez zekiten zer zen Markinakoa zen Zarautzko Sabin Untzurrunzagaren andreak erantzun zidan galdetu nionean

“Zer da zuentzako kirijua, kirioa korputzean?”

Erantzun zidan:

“Neuk ezagutan dotan berba bakarra kirikinue animalie da”.

Eta nerbioari nola esan ei diozu?

“Zana, nik zana”

Olabidek hartu duen abiadan ez du zalantzarik, izenburu bat ipintzen du KIRIOTZA eta ondotik adibide legez ematen:

“*Kiriotaragino sartu yat mina* “el dolor se me ha metido hasta los nervios”.

Lehen akatsa da *mina* beti nerbiotan dagoela, eta bestalde horrelako kasuetan “*muineraino da*”, frantsesez *jusqu’à la moëlle*» eta gaztelaniak, hasta los tuétanos, dio. Urrunago ikusiko dugu esaera horren gaztelaniazko jatorria.

Bigarren itzulpen okerra da

*Kirioak edango leukez* (B.) «*El beberia cualquier cosa, nervios*» [sic].

Muineraino zerbaiten xurgatzea egingarria da, baina nerbioak nola egin ez dut ikusten. *Zain* hitza orokorregi zelakoan baztertu zuen:

«*Se vé que la idea correspondiente a zain es la de cordón u órgano acordonado, prescindiendo de su destino y clase, pués zain es vena, nervio, raiz fibrosa, fibra etc...*».

Olabideri esan bazitzaion zain latinezko *sagina* hitzetik zetorkeela zer egingo zuen? Kirio hapax horren zuzenesteko idazten du:

«Kirio, por consiguiente, como para raiz tenemos en uso otros nombres peculiares, sustrai, zuzter, erro etc.) y para vena o vaso sanguíneo zain es el corriente y en cambio kirio no se aplica más que a nervio o a médula de huesos [sic] no debemos quedar fijamente para significar nervio, pués para tuétano corrientemente se usan otros nombres».

Nire aldetik eta Mitxelenak bestetik *kirio* ospetsu horren iturria aurkitu genuen hona Mitxelenak zer zion:

«Kirieleison dela-eta Corominasek bildu datuen irakurketak Azkuek zalantza nervio? tuétano, itzuli zuen bizkaierazko kirio hitzaren misterioa argitzen digu. Izan ere berak bakarrik ezagutzen zuen kiriotaragino sartu jat mina, kirioak edango leukez. Azken perpausa Cervantesek zarabilan kiriekin bat egiten du eta Corominasek oharatzen digun legez sarritan egiten dena edo ugariki gauzatzen den zerbait adierazteko, aditz batekin erabiltzen da».

Zehatzago mintzatzeko azken bokala bazter utzirik, Corominasek Gonzalo Berzeoren Milagros de Santa Marian, *kirieren* lekuan *quirio* irakurtzen da:

*Fazien muy gran desta con quirios e con prosa*

*Con grandes alegrías a Dios e a la gloriosa.*

Honek argitzen du euskal hiztegiak galdera bat eta erakusten erromanistei hain arrotz zaigun hizkuntza baten arkaismo bat euskaldunen artean bizirik irautea. (Bibliografía del BDELIC por Joan Corominas in BRSVAP, Donostia, 1962, 94-95.or.)

Badirudi oraindik kirio, nerbio hitzari buru egiten diola eta Hegoaldean behintzat zain baztertua dela, eta Euskaltzaindiko Hiztegi Batuak ez du ikusi “vaso sanguíneo” adierazteko, baina Iparraldean erabilerak jarraitzen du

Zainxuri “tendinus”

Odolzain “vasus sanguineus”

Zain handi “arteria”

Zain “nervus”

### 3. Guruin hitzaren itxuraldaketa onartua.

Beste idaz lanengatik (Itun Berria) Olabide garbizalea zela diogu, baina, lantzean behin, ere hizkuntzaren zehaztasuna gogoko zuen eta euskalkiek zekarzkgutun hitz metekin ezin zelako oraingotasunerako hizkuntza estandarra egin, batzuetan arrazoi eman behar diogu hona hitz horrez zer dion:

«Glandula, guruin (B.n.) guren (An lez, Bgab? G. iz, Zar.; etc.) Todos estos términos significan escrofulas, bubones, pero como en todos los idiomas se les aplican en anatomía a glandulas o organos excretorios, del mismo podemos hacerlo».

Zuzen dago, “zain” adibideekin gertatzen den bezala, frantses herrikoiez ere “glande” “nerf” zernahi da: bigarren mailan gaztei biologia irakasten nielarik, gaixotasun lotsagarria, eritasun ahalkegarria bezala zela uste zuten, berriz nagusientzat bakarrik lepoko *ganglio* eta *scrofula* ziren. Anatomía eta patologia hiztegi horretarik bereizi behar direlako K. Goenak 1973.an argitaratu hiztegiaren, aukera ona.

“bubon”, tumor en la ingle, azpigorri [aldaerak *azpizorri* (*op.cit.* 33.or.)]  
 “ganglion”, gangilo edo gangail [ *op.cit.* 73.or.]  
 “glandula” guruin.

Bizkaierazko *guruin* erabiltzaile guztiek onartua izan da.

#### 4. Histologiazko hitz berriak

Nahiz eta hiztegi zorrotzagoa, adituagoa, bereziagoa izan, hor du Olabide oker gutxienik egin eta eskaintza on batzuk ere hala nola *eun* (Bc. Gc.) *ebun* (Nb, L., Z.) “tejido adierazteko onartu dena eta hortik ere eratorriak

–*Tejido de revestimiento*: estalki eun, estaleun (Olabidek)

#### K. Goenak hauek gaineratzen ditu, grekeratik hurbilago

*Endoteliozko jantzi*

*Epiteliozko jantzi*

–*Tejido conectivo*: arteun (Olabidek)

Hitz hori ez zen ongi eraturia eta ez argia. K. Goenak beste hau eskaini zigun *Elkarteun/ elkartebun*, baina, badirudi, erdi euskainolezko *ebun konjuntivo* nagusitu dela.

–*Serosa*: gerlieun, gatzureun (Olabidek)

Ezin dira onartu gatzura “lactoseroa” delako, aldiz gerle da “seroa”; beraz lehena hobetsi behar zitekeen.

–*Sistema - tza* atzizkia. Atzizki hau ez da euskaraz berria eta aski iaioki erabili zuen Olabidek:

–*Sistema oseo* ezurtza (gaur hezurtza) eta *sistema nervioso* kiriotza (ez hain erabilia)

–*Órgano* –*kin* atzizkiarekin itzulia. Jardun edo funtzio bati lotua dena *inarkin* edo *jardukin*, K. Goenak ere ematen du, baina gaur gaztelaniazko orokortasunerako *órgano* nagusitu da.

*órgano de la vista*: ikuskin, *órgano del oído*: entzunkin, *órgano del gusto*: gozakin; *órgano del olfato*: usnakin, *órgano del tacto*: hakin.

Badirudi, Axularrek aspaldian eman, ikusmen, entzumen, dastamen, usnemen eta hukimen nagusitzen direla, –*kin* atzizkiak –*men* atzizkiari men eginaz.

“*función*” Inarkun (Olabidek) gaur *funtzio* mailegua erabiltzen da

Euskaraz ez zen hainbeste anatomia hiztegirik ez libururik, orduan, agertu Mogelen Peru Abarka, bazegoen eta Duvoisinin *Laborantzako Liburua*; geroztik argitaratu nuen XVIII. mendeko medikuntza errezetak zubererazkoak eta ezin argitaratuz nabil XVII. Mendeko Dassantzaren albaitaritza liburuaz egin dudana bilketa, beraz Olabidek eskuen artean zeukan Mogelen liburua eta R.M. Azkueren hiztegia, besterik ez.

## 5. Zitologiako hitz berriak

Hor, batzuetan nazio arteko den hitza ere, baztertzen du, alemaneraz *zell*, ingeleraz *cell*, errusieraz *kelia* eta hizkuntza erromanikoetan *celula* edo *cellule* (gelatxo esan nahi duena) hitzen ordeaz “gari hondakinaz” erabiltzen zen hitza, ematen digu: *kizkin*.

–“*Celula*” *soin-kizkin* (G.al, *bid.*, *iz.*, *ziz.* Zumar.) *propriadamente kizkin es el grano de trigo que queda sin descarrillar en la trilla*»

Oraingo euskara estandarrean *zelula* erabiltzen da eta *kizkin* baztertu.

–“*Nucleo*” *gun* (c.), *alondoko* (Nb.) “*núcleo en las pelotas*”

“*Gun*” ez da c. común, baina B. bizkaierazkoa, gipuzkeraz, *muin* da, Nafarroan eta Lapurdin, *fuin*, *buin*, zubereraz *hün* “*médula*” esangurarekin. Frantse-sak “*noyau*” erabiltzen badu Europako gehienek *latinetik* hartu dute *nucleus* eta *guk* ere bai biologian *nukleu* onartu.

–*membrana nuclear*: *gun azal* (Olabidek)

Jakina, “*azal*” hitzak gaineko zerbaiten adierazia du, bai *loditasun* edo *sendotasun* zerbaitena ere: *zuhaitz azal*, *liburu azal*, *lur azal*; baina *nukleuaren mintza* hain mehea denez *guttienik axial* eskain zezakeen (ik. *Esne axial*)

Pariseko Congreso Mundial Vasco hartan, 1956.an, euskararen gaurko-tzeak eztabaida izan genuen hor zegoen Jokin Zaitegi S.J. eta Beñat Possompes, Sorbonneko irakasle lapurtarra; *membrana mintz* eta Zaitegik proposatzen zuen hiztegi garbitua zalantzan jarriz eta jadanik bere botanikarako hitz hori erabili zuen Andima Ibinagabeitiak *Euzko Gogoan* argitaratu lanetan zintzokiago ibili zen. Orain *azal* “*dermoa*” da eta *mintz* “*membrana*”.

–“*centrosomo*” *kizkibil* (Olabide) compuesto de *kiza* (Bm) *kizi* (B.ib.) cosa menudísima y de *-bil* (c.) redondo.

Euskarazko lexikoan Olabidek horrelako adibideak bazituen, urdabil, barrabil, ukabil, gainera lehen esfera zela uste izan bazen, orain zilindroa da. Europako hizkuntza guztiek “*centrosoma*” erabiltzen dutelako K. Goenaren ondotik, denok *zentrosoma* idazten dugu.

–“*centriolo*” = *gun-kiza* (Olabidek)

Horren gisako eratorriak gaur nazioarteko iturritik ematen ditugu, “*gun-kiza*”ren ordeaz *zentriolu*, “*gunari*” ordeaz *kromosoma* eta gaizki eratu gerriko-izar hitzaren lekuan *izardun gerri*.

Hiztegi berria eskaintzean, nazioartekoa kontutan hartu behar da eta horietan batasunik ez denean, gurea sortu behar dugunean, hitza argi, zehatz izan behar. Olabide euskaldun berriak beste inork egin ez zuen lana egin zuen eta garaiko oztupoekin batzuetan oker ibili.

## 6.3

## Löppelman arrazistaren

### *Etymologisches Wörterbuch des Baskischen sprache*

Duela hogei urte arte ez zen semantikan ikerketa handirik egin, etimologian bai, baina fantastikoak nagusi. Badakigu, gu ere, batzuetan, euskararen exotismoaz aseak garela eta kanpotar baskofilo batzuen idazkiek asperturik (Wiennemann, Foster taldea, Morvanen mongolismoa), baina hiztegi horren egile alemanaren xedea izan zen erakustea euskarak ez duela inolako autoktono oinarririk. René Lafon ikerlari handiak “oso txarra” zela esan zigun, baina gaizki egina gure buruez kritiko izatera eraman behar gintuzke

Martin Löppelmann alemanaren *Etymologisches Wörterbuch der baskischen Sprache* (dialecte von Labourd, Nieder Navarra und la Soule) Berlingo Walter de Gruyterek etxeak argitaratua, 1968, 1356. orrialdetako potoloa eta hain zuzen Pariseko Liburutegi Nagusian, eskuliburuen artean, urte luzeetan, bakarra, zoritxarrez. Liburu hori, guztien gainera, bilketa hutsa da baina ez ditu aipatzen erabili dituen iturri zaharkituak, ez eta onak aitortzen: H. Berger, K. Bouda, R. Lafon, P. Lhande, H. Schuchardt, eta C. C. Uhlenbeck eta beste... Nahiz konpilatzaileak Iparraldeko euskalkiez jarduten duen, nondik datoz, nahasian, gipuzkerazko, bizkaierazko eta gaztelaniazko hitzak?

“Ikerlariak” semantikari ez dio kasurik egiten edo egiten duenean bihurrikatzen, ez dituelako metaforak, metonimiak eta oinarriko erran nahiak bereizten. Lexema baten sema desberdinak hitz desberdin bezala ematen ditu; gero, etimologian zer saltsa? *Zain* “vena” berberotik letorke, *zain* “arteria” arabieratik. Bai, alfabetoaren bidea jarraikiz ikerlariak ez ditu hitz erroak, hitz familiak, euskararen fonetikak eta arauak batera kontutan hartzen; hala hitz baten esangura eta haren metonimia edo metafora jatorri desberdinekoak ematen ditu eta ikusiko dugu zer frogatu nahi duen.

Badakigu hemeretzigarren mendeko euskalariak eta hogeiko batzuek euskarak ez duela hitz abstrakturik eduki edo sortu idatzi eta idazten dutela, adigaien adierazteko gure mintzaira ez omen da gai. Gure ikerlaria presondegian zegoen *nazia zelako* eta bere utopiaren bidetik saiatzen da erakustera egun orozko gauzen eta ekintzen adierazteko euskarak azpi-hizkuntza (afrikar eta beste) mailegatzen duela, eta adigai jaukal, goi arnasakoak, ariar edo indoeuropar gain hizkuntza batean. Hona adibide bitxiak:

Abegi I “aurpegi” berberatik (4.or.)

Abegi II “atoste, batzarri” frantsesezko *abéquer* (4.or.) aditzetik alegia, mototik jatera eman umeari

Begitarte I “aurpegi” berberatik (169.or.)

Begitarte II “atoste, batzarri” gaztelaniazko *Dios bendigite* (!!)-esaeratik (169.or.)

Esker I “ezker” gaztelaniazko bizco, *ezkel* hitzetik letorke eta ez izquierdotik (347.or.)

Ezkerretiko “bastardoa” latinezko *ex-baereticus* hitzetik

Badakigu, euskara nonbait sakatu beharrak, erromanistak, zeltistak, iberistak, afrikanistak eta orientalistak beren sailera ekartzeko ahaleginak eman dituztela eta emango, baina Löpelmannek denekarpenak nahasten ditu, etnista fantasia batean ikertzen.

Edo euskaldun zaharrak munduko herri guztietan ibili ziren edo denbora berean bi lekuetan bizitu; gero arkeologiaren edo historiaren datuak ez dira kontutan hartzen. Gure hizkuntza pidjin mota bat litzateke afrikar-arabiarberberoar, hamita, akadiar, hebreiar azpi hizkuntzetarik hiztegi arrunta haraturik eta ariar hizkuntzetarik hitz abstraktuak, hona nola jarraitzen duen:

Adar “adar” adark, grekerazko *adarke* “aintzira bitsa, urazaleko alga” (8.or.)

Aho “aho” M’Zabeko berberiar *yba* “animalien ahoa” (18.or.)

Albo “alde” galizierazko *afora* hitzetik (34.or.)

Alu “alu, mutxa, matxanta” ale, hitzarekin lotzen da hola latinezko *valvae* (sic) hitzari lotzen

Ale I lat. *valvae, ale, alu* “alu”

Ale2 “ale, bihi” frantsesezko “balle”. Hegoaldekoa den hitz horrentzat frantsesez “ahotz, gari azal” esangura duena ez da gaizki okertua.

Antzu gaztelaniazko *canso* “oso nekatua” hitzetik letorke (61.or.)

Bare I. “gorputzeko barea” gaztelaniazko *pajarilla* hitzetik zer fonetika bidez ez dakigu

Bare 2 “lasaiegi, zainhil” portugesezko *baldar* hitzetik (170.or.), gainera *bal-* hasiera duten hitz guztiak portugesez omen datoz. Ez zaio batere jakin-garri *bare* “gastropoda gorri eta zainhila” dela ikusteak.

Beharri “belarri”, latinezko *pede*, oinek *be-* eman luke, *har* “hartu” *-i* atzizki. (170.or.) Badirudi euskaldun zaharrek oinarekin entzuten zutela.

Belarre “bekoki” latinezko *pede* gehi *ilerro* (ile lerro) (176.or.)

Belhaun “belaun”. Ez du *be-*dun gorputz hiztegiaren sartu nahi, judeo-kristauak euskaldunak belaunikarazi zituztelakoan edo? Hebraierazko *birkaim* “altzo” hitzetik letorke, zer semantika zirrista eta zer fonetika arau? (178.or.)

Beltz “beltz” hitz hori afrikar baizik ezin daiteke izan eta berberetik (zein berberiar hizkuntzatik?) *sberkan* hitzarekin lotzen da eta \*berks bat asmatzen. (180.or.)

Beso, gaztelaniazko *brazo* hitzetik. Nola? (15.or.)

Bihotz “bihotz” hitzaren orde, Atharratzeko euskararen darabilten eratorri batez baliatzen da *arapibotz* [bihotz (204.or.) haragi], \*abihotz baten asmatzeko eta berbereraz abbebus “altzo” batekin hurbiltzeko.

Bilgor “milgor” portugera *gordaço* hitzetik letorke. Zer urtuketaz, zer nahasketaz, zer araez, zer mirariz? (207.or.)

Bizar “bizar” latinezko jantzi biloduna *bicerra* (213.or.)

Bizkar “gorputz eta mendi bizkar” Hizkuntza erromaniko bati mailegatu edo *post-caram* latinetik (230.or.)

Bulhar “bular” latinezko *prora* hitzetik, *burar* aldaeragatik

Buru “buru” kabilierazko *kuoro* eta arabierazko *quwara* “zulo biribil” hitzetarik hurbiltzen da. (242.or.). Bere burua, noski, zulo eta biribil zen. Hizte-gigileak ez du jakina erromatar garaiko *boro* ez eta oraingo *borobil* ezagutzen.

Buztan “isats” Forma zaharra *buztain* delako be+ uztain berbererazko (zein?) *bezdi* “hitzarekin hurbiltzen da”. (243.or.)

Ema “emakume” berberierazko *t-am*, *t-amet* hitzetik dakar eta zergatik ez ama hitzetik? (297.or.)

Erhi “atz” argitzeko(?) \*ertil bat asmatzen du, latinezko “articulus” hitzetik letorkeena eta frantsesezko *orteil*, “behatz” hitzarekin hurbiltzen (320.or.).

Ertze “heste” fonetikari jaramon egin barik \*berpizten du \*besera hitz hipotetiko baten ondokoa, eta denak, latinezko *viscera* hitzetik (341.or.).

Ezker “ezker” berriro, latinezko *bisoculus* “ezkel” hitzetik dakar (347.or.).

Esku “esku” arabierazko *misk-u* “bere ontzi belarria” hitzetik (360.or.).

Ezpain “ezpain” erromantze bati mailegatu cf. frantsesezko *paume* “ahur” (349.or.)

Eske “eske” hitz abstraktuegia arabo-euskaratik etortzeko eta jakina esku hitzarekin ez duela erkatzen (351.or.)

Estarri (estagorri bazterturik)erromantzezko *estria* hitzetik letorke

Hats “arnasa” arabiera idatzizko *nefas* “arnasartu” hitzetik letorke (eta orduan frantseseko *nifler* eta *renifler* “*usnatu*” hitzak ere?) (499.or.)

Izorra “andre izorra” gaztelaniazko *sorra* hitzetik letorke, (11.or.) baina gure ustez iz-zorro, urez betea da andrea, ez harriz.

Izter “izter, azpi” arabierazko *iste* “alki” hitzetik omen dator (616.or.)

Izterbegi “gizabanakoaren etsaia” etsaibegi litzateke, nahiz sinesteek dioten ezkerreko begiaz gaizki (628.or.)

Larru “larru, azal” latinezko *lardum bonum*, zein ondo zekiten euskaldun artzainek latin klasikoa horrelako metaforen egiteko! (766.or.)

Lepo “lepo” arabierazko *ylba* hitzetik dakar, baina zer fonetika arauz eta hizkuntza bakoitzean ez ote beste zerbaiten eratorria? (782.or.)

Lerden “esvelto” latinezko antonimotik letorke, *luridanum* “astun” hitzetik. Löppelmanek fonetikari edo semantikari ez dio axola.

Mehe “mehar” latinezko *minus* hitzetik datorrela idazten du, baina oso zentzuz L. Mitxelenak erakutsi zuen \**bebe* / *benbe* hitzetik letorkeela *be-* gorpuzaren aurrizkia delarik (847.or.).



Mihi, min. Euskal fonetika kontutan hartu gabe \*mili, bat eskaintzen zaigu, gero beste asmakeria \*fili latinezko *felare* aditzetik ekarriz. Eratorrietan, mintzatu, mingain, “n” edo sudurkaria izatea ez du gure “ikerlaria” kezkatzen (856.or.).

Odol ez du etimologiaz desegiten bakarrik etruskierazko *ut-* ekin hurbiltzen.

Oin egiptoera zaharreko *wnj* eta koptoerako *uini* litzateke iberierak guri emana (92I.or.).

Saihets “albo” berberierazko *saii* “han-hor” hitzetik dator (I.I39.or.)

Zain “odolzain” berberierazko *azer* bena omen da, baina arteria denean arabierazko *sarajin* etik dator (I.058.or.).

Ziri “ziri”, latinezko *cinctor* presozaing hitzetik letorke.

Zer azal ederra, zer paper ederra, zer argitalpen garestia horrelako astakeria metarentzat. Aitortu behar zaigu, alemanek eman dizkigutela euskalari hoberenak eta txarrenak, baina frantsesak ere badituzte, sail horietan sartuak, euskara mongolierarekin, hititerarekin, zeltikoarekin, malagasieraz edo edozein hizkuntzen bidez *argitu* nahi dutenak, eta hizkuntzalari ez den euskaldun bat euskara indoeuropar hizkuntza dela frogatu nahiz dabilena. Adibide txar horien ikertzeak eroan nau inguruko, auzoko hizkuntzetarrik mailegu hitzen ikertzera urruneko urrezko lapikoetara joan gabe.

## VII

## HIZTEGI OROKOR BAT SAILKATUA

## 7.1

## A-dun hitzak

Abere (lat. *pecus*). *Abere*, latinezko habere “ukan” aditzetik dator. Nondik nahi euskarari sustraitua dago. Abere ez da edozein *animalia*, gizonak hezia baizik, besteak *ehizak* dira baina, animalia hezietan ere, ez da edozein, katuak eta zakurrak ez direlako abereak; aberea gehienetan ardi, behi, ahuntz kenteari deritzo, gehienetan adardun direnak. Zerria ez da aberea.

Eratorkiak: *abelgorria* deritze behi eta zezenei *Abelxehea*, ardi-ahariei; *abeltegia/ abeletxe* da abereen edukitzeko estalpea, eta *abeltzaina abeltzaintzan* dabilena. Animalia hitzak jatorrizko hizkuntzetan arnasa egile esangura du, baina gerroztik jakin dugu landareek ere arnasa hartzen dutela, beraz hitz hori euskarari, batzuek, aplikatzen dioten irizpide logikoekin desegokia legoke.

Abzesu (ik. usu)

## ADAR ERROAREN SAILA

Adar (lat. *cornu*) itz hori nahiz botanikan, nahiz zoologian erabil daiteke eta hortik kanpo ere (erdaratan ez). Hitz orokorra da, zerbait hestu, luze, edo sardekatu adieraz dezake hots hodi betea edo erdi hutsa.

*Biologian.*

## I. Zuhaitz adarra

Zuhaitza sardekatzen denean ematen ditu zati hauskorragoak *adarrak*. Badira, ordea

Adar nagusiak: *adar besoak*

Adar guztiak: *adaburua*

Adarra enborrari lotzen den gunea: *adabegi/adarrondo*

(oholetan uzten dituzten begi okerre, *adabegiei, txorilepo* ere esaten zaie)

Zuhaitzak enbor bakanetik *adarrak* ematen dituen *adarkatzen* da eta adarretarik adartxikiak *adaskak, adarberriak* abiatzen. Lurrean biltzen diren *adaskak* *arbak* edo *abarrak* dira. Jakina, zuhaitz bizi batean adarra moztzen denean ostoa egon daitezke eta hostoen kentzea *adarkitzea* da.

*Irudiak, metaforak*

I. *Anatomian*: bizkar muin *adarrak*, hirurgarren bentrakulu *adarrak*, tinpano zirkulu *adarra*, coxo *adarra*, sakroaren *adarra* eta beste.

2. *Literaturan* jendeak zuhaitzekin erkatu dira hala nola *gorputzadar/lobadar* menbruen izendatzeko erabiliz eta hizkuntza zaharretan zuhaitza askazi lokarrien, leinuen irudi bilakatu genealogiaren *arbaso zuhaitza*. *Jesse* Bibliakoan jadanik agertzen dena. Zuhaitzetan bezala, familia belaunaldietan badira igartzen diren adarrak eta adar emankorragoak. *Biziaren zuhaitzeko adarrak* sineste sinbolo hutsak dira.

3. *Arbaso adarrez* idatzi dugunaz geroz iparamerikar umorista zen Ambrose Biercen ateraldia oroi dezagun: arbasoen zuhaitz adarretan behera jaistean gizonak tximino antzeko norbait aurki dezakeela edo Jon Mirande zuberotar umoristak zionez arbasoen adarrak ikertuz beti edirenen duzu, moja-serora bat, apaiz bat, hiltzaile bat eta emagaldutako bat.

#### 4. *Abereen eta ehizen adarrak*

##### *Biologian*

Buruan hezurrez den *adar bete* edo *adar hutsa*, bakuna edo sardekatuak bi motakoak dira ere *erorkor* (orkatz, orein, elurorein, adarzabal) edo *iraunkorrak* (behi, ardi, aker).

*Hitz eratorriz*. Buruko adarren multzoa *adantza* da. Abereen adarren adantzak mota askotakoak izan daitezke, badira *adar aketsak*, *adar apalak*, *adar batuak*, *adar kuloak* (lira antzekoak), *adar laburrak*, *adar motzak* (bat hautsirik), *adarokerrak*, *adar zabalak*, *adarzutak*. Ehiza batek errinozeronteak sudur gainean, batzuetan, bi ditu, *adarbikoa* da; *adarbakarra* edo *likorna* izan, zen gizonak asmatu *zaldi adardun* baten gorputza, aker baten adantza eta buru gainean *adarbakar* bat zeukana. Erakusten zen adar hori kiribildun hori itsas animalia, zetazeo batena zen, narbala. Animalien adarra abiatzen denean, *adar giltza* esaten zaio. Ahariak, zezanak, behiak eta beste *adardunak* adarrez borrokatzen direnean *adarkatzen* direla esaten da.

##### *Metonimiak*

*Addar* edo *adar* deritzo deabruari. Kristau deabrua adardun da ezen Grekoen Basajaun, *Pan* adarduna baitzen eta zelten *Kernunos* jainkoa ere; beraz deabrua jainko pagano izan da.

*Adarkiz* eginak zirelako edo direlako tresna batzuk izen hori darabilte, hala nola *oski* edo *oinetako adarra*, edo *harginaren adarra* edo *doinu egitekoa*. Alboka bi adarrez egin da.

##### *Metaforak*

1. *Meteorologian*. Indarraren sinboloa da: *harriadar*, harri jasa latza da, *kaskadar/kaskabar* harri xeheagoa, *euriadar*, euri handia. Eta itxuraren gatik: *ortzadar/ostadar*.

#### 2. *Geografian*

Sardekatzearen irudiz hauek ere

*Ibai adar*, *itsadar*: itsas besoa lurretan sartzen dena, ría, aber, fjord

*Lurradar*: lur muturra itsasoan sartzen dena

Edo gogortasunagatik: *barkaitz adar*.

3. Kosmologian. Itxuraren gatik: *ilargi adar*.

4. Jakintza izenak

Zatitzearen irudiarekin jakintza sailen adierazteko:

*Arkeologia adar bat da egiptologia, bizkuntzadar, hala nola gaztelania latinaren bizkuntzadarra da. Lanbide adar (lanbide sailak).*

Jakina, *jakintza adarrak* izateak ekarri du adituek beren adarra ongi ezagutu arren, bestenetan ez dakitela kaleko edozeinek baino gehiago. Gaur, ordea, zaila da, jakintzak duen ugaritasunarekin XVIII. mendean bezala, erraz jakintza adar batetik bestera joatea.

5. Teknikan: Itxuragatik,

Altzarigintzan: *obe adar*.

Eraikuntzan: *eraikin-adar* (gazt. ala, fr. aile de bâtiment)

Ontzigintzan: *edari adar*

Bidegintzan: *bide adar*

6. Psikologian.

Indarra txantxetan harturik, barre eragiteko *adarra jotzen da.*, baina *adarra jo* izan daiteke musika tresna batekin soinua egin ere.

Senar edo emazte baten bekokian, ezkontidea beste batekin dabilenean, iruzurtuari nazioarteko, *bekokian adarrak* sinbolikoak ateratzen zaizkio. Hala dio, XV. mendeko Urrutiako zuberotar eresiak, hala ere zion 1592.an. Oihe-nartek eman txantxetako epitafio zaharrak dio *Emaztearen gaitzez xikira zedina/adarreki ehorz zedin* (O.I37) eta Tolosan 1619.an idatzi paskinek eta hala diote *Adarrak saltzen dira Miraballesen*.

Lagunez, maiz aldatzen denaz, idatz liteke *adarrez adar* dabilen txoria dela; gehienetan horrelako txoriek ez dute habiarik egiten edo esaerak dion bezala "habia egin orduko, txoria hil" *Adarra jotzea* norbaiti trufaz ziria sartzea baino gaiztoagoa izan daiteke Horiekin, noski, ez ditugu adar hitzaren adar guztiak moztu, eta beti emankorra izan daiteke baina botanikaren eta zoologiaren arteko adiera horietan ez da ahaztu behar, *adarzabala* (*Damus damus*), zuhaitz ala ehiza izan daitekeela; hala *adar apala*, zuhaitz baten adarra edo behi batena. Halaber *adar okerra* biena izan daiteke. Bizidun horien urruntasunak nahaske-ta egitea ekiditen du.

"Adats" (lat. *coma*)

*Anatomian*

Hemen, adar hitzaren ondoko hau zerbait meheagori egozten zaio, ileari. Burutik zatikatua ateratzen delako *adar-* eta *tsa* "bilketa ugari". Halakoxeak eginak dira *jatsa* (ezkoba) eta *isatsa* (buztana). Animalien adatsaz *gima/kima* diogu (lat. *coma?*).

Adats ile luzea artasun eta erregetasun seinalea izan zen. Samson *adasdunak* bere indarra ilean zeukan eta Dalila andre traidoreak adatsa moztu zionean, indarra kendu zion, et adatsaren lekuan beste gizon batekin adarrak senarrari jarri.

Haginak, ileak eta azkazalak jendearen sakoneneko zerbait dira, gehienik irauten dutenak eta sinesteak sortzen. Ile kentze hori amerindiarrek *scalp* eginez presoei egiten zieten, nortasunaren galarazteko.

*Metaforak Botanikan*

Nork eman dion nori. *Adats* ez ote da botanika esanguratik etorri ala botanikari eman dizkio: *baratzuri adats, soka adats*. Ezen botanikan ere *zubaitz buru* adar xehedunari esan daiteke eta denbora berean, *adats zubaitz* eta landare erro xehedunari *adats-erro*. Likenen artean badaude horrela gure herrietan zuhaitzetan ikusten ditugun *liken adasdunak*.

*Kosmologian*. Hitz bakar bat: *kometaren adatsa*. Teknikan. *Zuziaren adatsa*

Adats hitzak ez du adar hitzak bezainbeste metafora ematen beharbada hitz goxoago delako. Gainera, animalien adatsari *gima/kima* deritzo. Ironiaz, batzuetan, jendeen adats zikinari edo luzeegiari *gima* esaten zaio.

Aditu. Euskalki batzuetan (B.L.) *entzun* hitzaren orde *aditu* latinismo zaharra darabilte, baina adizlagun horrekin bi adiera daude

1. *Belarriekin entzun* Eratorri zaharrak dira lehen adieran: *aditze* (entzute), *aditzaile* (entzule); gero oharmenaz zerrenda: *adi egon, adia galdu, adigabe/adigalkor, aditasun*.

2. *Ulertu*. Bigarren horrek euskara estandarrean *adimen* eman digu, *aditze* (ulermen) bigarren esan nahi horretan beste adibideak ditugu: *adibide, adiera* (esan nahi), *adierazi, adinon* (zentzudun), *adiskide*; berriagoak dira gramatikan *aditza* (berboa), *aditzoin, aditzondo, adizkera, adizki, adiztegi*, eta erretorikan *adierazburu, adierazgarri, adierazkor, adierazpen, adierazpide, adiezin, adigaitz*. Biologiatik urruntzenago gaituen *ulertu* aditza dago eta *adi* bezain emankorra izan da. Aldiz *entzun* biologiarri lotuagoa da.

AHO/AU, ERROAREN SAILA

Aho (lat. *os*). *Ahoa* gizakiaren jarduera garrantzitsu batzuen lekua da, bai eta bere zulo/zilo itxurarekin irudi iturria Jendeen buru muinaren goiko aldean, dagoen proiektzio azalera, aginte azalera, *aboa*k, eskuak eta begiak bezainbeste eremu zabala dauka.

*Anatomian*

Ahoa haginaren eta mingainaren leku izateaz kanpo baditu bere zatiak. Goiko aldeari *aho-sabai* (*ahogarai, ahogain* ere) deritzogu. Sabai horrek aurreko aldean haginzentzat lekua, *ahobia* du.

Ahoaren atzeko aldean, berriz, lehenik ahosabaiak ez dauka hezurrik, *tela* bat baizik irensten laguntzen gaituen *ubula*, bere *abo gingila/gangaila* batekin. Tela hori da zurrungan musika egilea eta aho gingila ukitzean oka ematen diguna. Animalia baten izen bat baizik ez du eman aho hitzak, *abolatz* arraina.

*Fisiologian*

Ahoak bere hondoan eta alboan tu-iturriak ditu, *ahogozoa/ahagozoa* (tu/txu, txistu/iztu, listu) ematen dutenak. Gero, ahogozoarekin aukeratzen da janaria, baina mihi gainak lau osagai baizik ez ditu ezagutzen *gazia, samina, azidoa, asukretua* eta zapoaren handiena sudurrak du sentitzen, usnatzen. *Abopaldi* (ez da bertsoetako ahapaldi), *abamen, abartara* baizik

*Jateko jarduera eta haginkada*

Horretarako, aho hitzak eman du *abamena/abatara*, ahoratzen den zatia Badirudi elkarrekin jaten dutenak *abaideak*: *abaideak* direla. Ahaide hitzak eta *abaidetasunak* ondoko asko dituzte, *abaide handi/abaide urko, abaide kutsu/abaide txiki, ezkon abaide, zehar abaide*, baina hileta edo ehorzketa ondoko janaldia *abuku* mailegua da, gaskoierazko *abouco* hitzetik dator (lapurtarrek gaskoierari eta gaskoiek germanierari hartua). Gero, *abozuriak/ahazuriak*.

*ahogozatzen badakite* Oihenartek bildu atsotitzek diote aho jaleaz:

*Aboa dabilano, sabela botz* (O. 136)

*Aboa bano haboro, begi duk* (O.172)

*Aboan duenari min/ ezta zauko samin* (O. 885)

*Hobe da zahi butsa, ezi ez abo butsa* (O.246)

Euskal gastronomiazko kulturaren oso ezagunak dira. (Iparraldean metaforaz *ahaidetzea*, politikan bi alderdien hitzartzea da, nahiz orain modan den euskainolezko akordioa).

*Kantu eta oihu jarduera*

Hitz egiteaz kanpo, ahoak azpi jarduera dauka, *abestea*. Antzinako euskaldunek nola zioten ez dakigu, elizarekin kantu eta kantatu sartu ziren. Abestu hitza XX. mendean agertu zen Bizkaiko leku batzuetan ahoari *abo* esaten delako. Hortik ere, gure hizkuntzan sinonimo gisa, sustraitu diren hitzak baditugu: *abesti* (kantu), *abesbatza, abestalde* (koral), *abestaldi* (kantaldi), *abestizale* (kantuzale).

Oihua dela-eta izatekotan, ahoren sailean edo onomatopeia sailean hitz andana ederra, *aubenak, au!aup! au! au!* hitzekin lotua da eta agian bide berdinetik zakurren, *ausia/eusia*.

*Hitz egitea, mintzatzea, aboskatzea*

Ahoa da *abotsaren* danborra nahiz ez den egile bakarra. Ahoarekin ez da bakarrik oihu egiten, baina ahal bezain ongi *aboskatzen* batez ere *abozko* azterketetan onartua izateko *Aboskera* zuzena irratian eta telebistan ulertua izateko laguntzen du. *Abarantza*, ahozko mintzaira moldea da; *abostun* da mintzairan besterik gabe entzuten den kontsonantea.

*Metonimiak*

Irudi horiek zeharka aho hitzarekin lotuak dira. Ez dira irudiak gezurti: *Aho artatzaileek* min kentzailerik ez zeukatenean gezurka zebiltzan eta ospe hori gelditu zaie.

*Abozpez, abuspez/ abozbehera*, metonimia da ezen kasu horretan “de bruces” gorpuz osoa da sabelaren eta enborraren gainean jartzen dena eta antonimoa *aboz gora* (fr. sur le dos)

Bestalde, *abolku* bat (kontseilu bat) ematean ez da goratik egin behar *abapetik* baizik, besteek entzun ez dezaten, *abolku hartzea* ezpaita beti goxoa, gero *Abolkulari eta abolkularitzak* sortu arren jende gehienek ez dituzte *abolkuak jarraitzen*.

*Abo zapia*, noski, ez da sortzezkoa, baina metonimiaz, ezpain zapiari ematen zaion izena *Abokoa* berriz, gehienetan zaldiei eta hezi zaldi kente guztiari ahoan jartzen zaie, baina jendeei ere isilarazteko. Azkenean hitzez borrokatzen denean *abakatzen* da. Olerkariak bertso guztiak loturik emateko ordeztan *abapaldika*, estrofaka eman litzake. Halaz ere, baliteke *abakar* hitza *abar* maileguren herri etimologia izatea.

*Psikologian*

*Aho handi/ aho larri* batzuek hitz egiten dutenean, askok *ahoa zabalik* entzun dezakete, baina *ahoa bete baginekin* geratu ere. *Aho handi* horien artean badira *ahoa betean* hitz egiten dutenak, esan nahi baitu egiatik urrutixko dabilzala. *Aboberoa*, jakina, gezur esale edo denen kontatzaile izan daiteke. *Aboberoa* ez da urrun nabaskeriaz *abozikin* izatetik edo mutirikeriaz *abogorri* izatera. Ez dira beti sinesgarri *ahoa batez* hartzen diren erabakiak eta *aboz aho emana, haizeak darama. Aho zuriez* ez fida, lausengu larregiren ondotik iruzurra baita.

Ahoa egile eta desegile handia da, jaten eta ausikitzen, gozotasunez maitatzen eta gezur, irainez, iruzurrez gorrotatzen. Ahotik sumendi batetik bezala sua dario *Infernuko abotik* egiten duen legez. Nolanahi, ahoa biziaren sarrera da umeak hortik biziaren esnea edaten du edo edoskitzen, eta hasieratik beharrezko bizi arnasaren hartzeko.

Ahoa ere jaun eta jabe bilaka daiteke, drogen gehiegikerietara, gularen neurrigabekeriara eroanaz. Jendea *arrainaren moduan, sarri, abotik* nahi baino lehen eta nahi ez duen eran hil-bizitzen delako.

Izan ere, ahoa jende eta animalietan oihuaren organoa da, baina ez da nahikoa ahoa, mutuek ez dute hitzik egiten nahiz mingaina, zintzurra, biriketako airea etorri, ahoskatzeko burmuinaren agintea galdu dutelako edo hasieratik ez izan. Gertatzen da jende guztiek aukeratzen edo aitortzen duten eskaintza bat *ahoa batez* denek onartzea (nahiz batzuetan paperen bidez egin).

*Abuspez jartzea* ez da bakarrik buruz behera jartzea baita norbaiten menpeko edo eskupeko bilakatzea; badirudi mendebaldeko *aurpetu* (ahuspetu), *aurpeera* irudi berdinetik datorrela.

*Metaforak*

## Geografian

Ahoa zulo bezala: *leize abo, sumendi abo, ibai abo*

## Teknikan

Ahoa zulo bezala. *Ontzi baten, botila baten, labe baten, arma baten, kanoi baten, eskopeta baten, kanpai baten ahoa*

Ahoa ebakitzaille bezala: *aizkora aboa, igitai aboa, sega aboa, zerra aboa*. Aizkora zorrozten denean *aboberritzen* da eta tresna batzuk hala nola jorraiek *bi abo* izan ditzakete.

Aharrausi (lat. *oscitatio*). Arnasa hobeki hartzeko loguraz edo gosez ahozabalka dabilenak, *abarrausi* edo *arrosin*, *arrosika* egiten du

Oihenartek idatzi zuen, Europa osoan gutienik, ezagun den esaera:

*Abarrausi usua gose edo lomezua* (O.II)

## Gero metaforaz erantzuna dago

*Adausi egidala bana ausik'e'nezala* (O.538)

Aide. J.M. Barandiaranek Ataunen bildu zuen *aje* hitzaren aldaera hori zaharriaren bere adibideekin

*Aide*: erreuma, elbarritasun

*Aide min*: neuralgia

*Aideak jo*: elbarritu (*Iker 2*, "Atauneko hitz batzuk Azkueren hiztegian ez daudenak" Euskaltzaindia, 1983.an)

Aupets (lat. *ructus*). Halaber, hobeki digeritzeko urdailak aireak botatzen duenean, *abopets*, *aupets* / *opets* / *aupasa* / *aboputz* korrok egiten du. (Gaitizenez eta *abo* errotik urrunduz poker edo puerko esaten zaio). Badago, korrokada antzekoa arnasa erritmiko ezin menderatuzkoa, *zotina* dela diogu, baina *zotina* negar malako errepikatua ere izan daiteke).

Zalantzazko eratorriak?

Badira *haus-*/*has* erroarekin aho hitzetik datorrenak dirudienak, ahoak egiten dituen azpi jarduera garrantzitsu batzuen izendatzeko: (*h*)*ausnar* egitea, *ausiki* egitea, eta *aupasa*.

Hausnar/asnaur (lat. *ruminatio*) Behien gisa egitea, irentsi janaria pantzatik oka egitea berriz mastakatzekoa da eta beste bi poltsetara igortzeko. Batzuek herri etimologiaz edo, forma zaharrez *agotznar* diote. Aurrean dagoen "h" horrek dudarazten du aho hitzetik etorria denik. Hausnartzeak euskarari eman dio metafora polita, lasaiki pentsatzearena eta ez du auzo hizkuntzetan daukan gaitzespen kutsua.

Ausigi, ausiki, ozka (lat. *morsus*). *Fisiologian*. Egia da ez direla haginak bakarrik jateko edo hitz egiteko erabiltzen, *ozka* (lat. *osca*) edo *ausigi*/*ausiki* egiteko ere bai eta hitz horrek badu *abo* eta *hautsi* ren arteko kutsua ezin delarik bate-tik edo bestetik datorren esan.



*Metaforak*

Ausikitzea, jabetza bortitzaren sinboloa da

Teknikan: metaforaz diogu *azidoen ausikia*

Psikologian, samina eta amorrua adierazteko, *hitzen ausikia*, *bihotz ausikia*, *ideia horiekin ausikia da*. Azken hau erdaretikako kalkoa da

Oihenartek bere atsotizetan ematen du

*Adausia eta ausikia behinkoaz uken'tut* (O.I)

Eta erantzun bat

*Adausi egidak baina ausik e'nezala* (O.538)

(H)auspo/hausko/haspo. Tresna ala organo? (lat. *follicis*)

Zein, da bataren edo bestearen metafora? Leku askotan, birikei “hauspoak” deritze.

Tresnarentzat eta birikentzat izan daiteke herri etimologiaz baina *auspoak* aho baten gisa butz eta arnasa egiten du, gainera *haspo* diotenek “hatsa” dute gogoan *Hausko* berriz, bestearen txikigarria liteke, ezen bata burdin arotzarena da bestea sutondokoa.

*Metafora seguruak*

Auspoa ere, zerbaiten, norbaiten zirikatzea, berotzea izan daiteke eta garai batean neska mutilak bekatura eroaten zituztelako, trikitixari apaizek *Infernuko auspoa* izena jarri zioten. Badago, agian, *zeruko auspoa* ere eta herri literaturazko berrehun bat euskal liburu argitaratu dituen Aita Antonio Zabala *Auspoa* bildumaren olagizona, literatura horren sutegia itzal eta gal ez dadin.

Ahutz (lat. *fauces*). *Abutz* hitz zaharra da matraila esateko. Batzuen ustez, latinetik letorke *fauces*-ek \*fauz emanik eta *fauz'ek* \*hauz emanik, hauz-ek ahutz.

ALBO/ALDE ERROAREN SAILA (lat. *pars costalis*)

Albo, aldamen, saihets adierarekin familia oparoa ediren dezakegu: *aldamen*, *-alde*, *alda-*, *albo-*, *alpe*, *alme*. Gainera *alpe alme* bakarrik anatomiakoak baldin badira, besteak beharbada anatomiak hiztegi orokorrari eta espazioa adierazteko hitz zaharrari mailegatuak.

Alde, erroekin. Hitz zenbaitek adiera hedatuagoa besteek zehatzagoa dute. Ikerle batzuek diote hitz guztiak gaztelaniazko *falda* hitzetik letozkeela, hitz horiek oronimian, mendi izenetan agertzen direlako. Agian baten bat kanpotik etorri zaigu, baina euskararen sistemak irentsi eta digeritu du.

*Anatomian*

*Alde* da orokorrena, azalera baten mugatzeko: *bihotzalde*, *bizkarralde*, *bularralde*. *Albo* da jendeen saihetsaren adierazkidea. Norbaiten albora hurbiltzean *alboratzen* zaio. *Albo* hitzaren eratorri ezagunena *alborengo*. Landare batek *Platanus hybrida*, *albo* izena ere badu euskaraz.

*Alme/almeka*, *alpe/alpeka*, *aldaka* animalien enbor saihetsa adierazteko erabiltzen dira, baina jendeekin ez, non ez den txantxetan.

*Metaforak edo?*

Hona gure biziaren hiztegitik gehiegi urrundu gabe. Poligonoen aurpegiak, *poligono aldeak* ere izendatzen dira. Alderen eratorriz, jakina, *alderatu* hurbiltasunaren adierazteko eta *alderantziz alden*du, *alde egin* urruntasunerako eta *aldata* hitzak baditugu Simetriazko erabileretan *aldebiko* edo *bi aldetako* hitzak agertzen zaizkigu.

Erabilera guztietan ez dakigularik ondo, anatomiak emanak diren ala anatomiak metaforaz erabiliak, esangura, erran nahi berdina dute *gorputzaren*, *mendi baten*, *eraikuntza baten*, *gauza baten alde* edo *saihetsa*.

Altzo, galtzar (lat. *sinus*) (ik. magala). *Anatomian*. Magalari, izter eta sabel bitarteari, euskaldun askok *altzo* diote eta gutxiagok, altzoa andereen soinekoetan aurreko aldean egin dezaketen poltsa da, neurri lausoa dena, eta Oiherartek bildu zuen asko ematea zela:

*Altzoaz eta babeaz ematea* ( O.228)

Gorputzean gorago bi sorbalden eta besapearen artekoari *galtzar* (gazt. seno, fr. sein de) Eratorriak *galtzarazpi* / *galtzarxilo* / *galtzarpe*, besape adierazteko. Baina *galtzarpa*, beste bat zen artzaintzat *gatz+zarpa*, alegia erdiei emateko gatzaren ipintzeko zarpa.

*Metaforak*

Babesaren eta maitasunaren sinboloa da eta hori Elizak asko erabili du, *Elizaren magala*, *Elizaren altzoa*, Eliza andre bat balitz bezala, bere babesean sinesleak biltzen dituenak, hala nola andreak fruituak edo umeak altzoan hartzen dituen. Eratorriz, *altzatar*a eman du esaera zaharrean *altzataka* banatzen dituenak ez duelako ahur bat edo eskutara bat baizik biltzen.

## BESTE BATZUK

Alu (lat. *cunnius*) (ik. mutxa, natura) *Anatomian*. Andreen sexu sarrerari arazorik gabe gure arbasoek hala zioten eta gaur medikuntzan bere erabilera berri diote. Jakina, bi erdaren kutsuz eta itsasaldeko euskalkietan biraotzat eta metaforaz erabiltzen delako konnotazio txarrak hartu ditu. Aluak baditu bere zatiak, *alu ezpainak*, *alu ilarra* (klitoris), *alu bizarra*, *alu tutua*.

Euskal Herriko lehorraldean hitzak irribarrea dakar, baina ez da eskandaluzkoa. Hitz horren etimologia argitu nahiz matxista batzuek diote Elizako latinetik *malu(m)* datorrela, beraz *sed libera nos a malo*, euskaraz *alutik aska gaitzazu* itzuli behar liteke eta nola iraungo luke ugaztunen eta gure biziak hortik igaro gabe. *Alua jo* ez da metafora, baina larrua jo bai (larrugintzako teknika hitza delako).

Aluaren beste izenak Zuberuan, *matxanta*, *motxa*, *mutxeta*, *xoxoa*, *xaxa* dira; Nafarroan, berriz, *makotxa*, *toxa*, baina dirudienez Anton Erkoreka jarraituz Bizkaieraz aberatsago dira beste izenak (Anton Erkoreka “Gorputz izenak” FLV 3I, 52.or.).

*Langanika*: andre zaharren artean  
*Afafana*: andre nagusien artean  
*Motxon*: neskek beren artean  
*Potxola*: neskatoena  
*Mariposa, Paloma*: kurtsi  
*Potorro, Sarten, Tortola*: gaitzespenez gizonak  
*Potxor, Potrona* (G.)  
*Metonimiak*

Zatiak osotasuna adierazten du metonimian eta hortik, agian, hitz eratorriak sortu dira

–*aba* atzizkiarekin *alaba*, jadanik erromatarren garaian *alabato* eran hil harriar grabatu zena.

*Alargun* beharbada sail horretako hitza litzateke, nahiz batzuetan –*gun* zer baiten izatea den *lagun*, *urgun* hitzetan bezala, baina hitz zaharrenak nola sortu ziren nekez jakingo dugu. *Alargun* hitza euskalki guztietakoa da, baina Iparraldean femeninoan *alarguntsa* badago. Euskara batuak –*tsa* hori aiherrak dio, nahiz aberastasun bat ematen duen, latinetik datorrelako denbora berean gure hizkuntza espainolezko *tiko-al*, eta –*ario* atzizkiz bete digularik.

#### *Metaforak*

Jakina, itsasaldeko *alua/alukeria* gaiztakeriaren adierazteko darabilte; geuk menditarrok erabiltzenago dugu *urdankeria* / *zerrikeria* (ik. *astapito/astakilo* eta *pitokeria*).

Animalia bati medusari *itsas-alu* deritzogu eta hau da Lhanderen hiztegi puritanoan agertzen den adiera bakarra. Azkuerenean *alua* “cosa enorme” da eta Lhanderen hiztegiak “itsas anemona” ematen du. Bi apezak ez ziren \**alulogia* lexikoegile, baina uste dugu apez hiztegi egile zaharrek bazekitela zer zen.

*Antzu* (lat. *sterilis, infecundus*). Ugaztunekin erabiltzen da hitz hau:

*Ernari ez dagoena* da, behin behineko ume gabea, baina geroan eduki dezakeena

*Esnerik ez daukana* da, baina geroan eduki dezakeena

Orain, idazleek *antzu*, *antzutasun* erabiltzen dute, betirako behin behineko esteril denaz. *Betirako esteril* denari artzainek zioten *defota*, *debota*, *barrata* dela, nahiz abere, nahiz andere izan baina nonbait idazleak ez dira artzain izan edo behintzat ez ardiekin baina kristauekin gehiago ibiliak eta bi hitzak nahasi dituzte.

#### *Metaforak*

##### *Biologian*

*Landare antzua*

*Lur antzua*: uztarik, landarerik ematen ez duena

##### *Psikologian*

*Ezindu*, ezeztatu, alferrik izan adierazteko erabiltzen da.

*Abalegin antzuak*: alferrikako egin ahalak.  
*Borroka antzu*: ezerezetarako den borroka  
*Gogoa, irudimena, bururapen antzutu* sorkuntzan, gogoetan gelditzea  
*Indarrak antzutu*, zahartzearekin  
*Susmoak antzu*: alferrikako susmoak

Anu, anu egin (ik. neke).

Apendize (lat.) Ornogabeen “gorputzadarrak” dira, baina ugaztunen hesteetan dagoen zakutto edo buztan itxurako heste zati itsuari *apendize* deritzo. Jendeak organoa baino gehiago gaitza ezagutzen du, baina *apendizea* da kentzen zaiona ez *apendizitisa*.

Are (lat. *pancreas*) Areak buru bat du eta alde batetik *are* *hoditik* hestera pankreako enzima zukua jariotzen eta barneko alderik insulina asukren metabolismoa hain garrantzi handia duenak. Pankrea, euskaraz grekerazko hitz hori medikuntzan erabiltzen da.(ik.guruin hitza)

#### AURRE ERROAREN SAILA

Aurpegi (lat. *facies*) Aldaerak: ahurpegi, arpegi, azpegi (lat. *facies*). Batik bat, Mendebaldean eta erdialdean erabilia da. Nafarroa beheran erdarakadaz *bisaia* diote eta Zuberoan, euskal eratorriz, *begitarte*. “Aurpegi” hitzaren jatorriaz eztabaida asko izan diren arren, bere familiako hitz batzuek, *aurki*, *aurkientza*, *aurka*, *aurkeztu*, darakutsate *aurre* litekeela erroa.

#### *Anatomia fisiologia*

Hemezortzigarren mende azkeneko fisiognomonia testu batean aurpegia, hiru zatitan banatzen da I. bekokia 2. begitarte 3. musua. Hitz horrek mikaren, zirkinen arabera izenlagun anitz har ditzake (*alai*, *beltz*, *gogor*, *bits*, *latz*, *zorrotz*) eta kolorearen arabera (*zurkil*, *beltzaran*, *beltz*, *gorri*). Itxuraren arabera (*bestu*, *luze*, *txiki*, *zabal*, *zorrotz*).

#### *Metonimiaz:*

Erran nahi baita, kasu horretan, zatia osotasunaren lekuan erabiliz, norbaiti aurrez aurre jartzen denean *aurpegi ematen* dio, *aski aurpegi* duenak.

#### *Metaforak*

#### *Psikologian*

Gure *aurpegiko zirkin* eta keinuek gure sentimenduak salatzen dituztelako, asko erabiltzen da. Gainera, norbait akusatzen denean zerbait *aurpegiratzen* zaio (non ez zaion bizkarreratzen). Gertaera horrek *aurpegi beltza* du. *Aupegira eman* edo *botatzen* da azkenean zerbait norbaiti *aurpegiratzeko*. *Aurpegi biko* jendeak ugari dira. *Aurpegi handia*:mutiria lotsabakoa da.

#### *Teknikan*

Tresna baten aurreko aldeari aurpegia esan daitekeelako *aurki* hitzaren adierazkide hartzen da. Matematiketan adiera horren hurbiletik, Europako beste hizkuntzekin batean, *poliedro baten aurpegiez* hitz egiten da. Bestalde, *itxura* hitzaren lekuan *lan horrek aurpegi txarra* du.

Aurki. Nahiz aurre, orain, bizkai-gipuzkoarra izan Euskal Herri osoan ehun baten *aurki* alde ona, aurreko alde, adierazteko ezaguna da, baina men-debaldeko erdialdeko euskalkietan Lapurdiraino, aditz bat eman du *arkitu/aurkitu*. Hitz hori anatomian ere erabil liteke eta jakintza munduan ere *aurkikuntzak* aipatzen dira.

Aurkientza.(lat. *pars*). Aurrekoa bezala gauzen eta gorputzaren izendegian aurki genezake. Axularrek *Geron* aurkientza herri baten lurraldea (comarca) izendatzeko darabil baina *aurkintza/aurkientza* gorputzaren atala izan daiteke.

Aurka. Lehen eta orain Nafarroako herri askotan *aurrean egotea* esan nahi badu edo buruz buru egotea, gaurko euskararen *kontra* hitzaren adierazkideztat hartzen da Anatomian erabiltzen da zerbaiten *aurkako jarduera* egiten duen atal baten izendatzeko.

Aurkez, aurkeztu. (lat. *coram*) Aurrean dagoena *aurkez* dago, gauza ala bizi-duna izan eta orduan, *aurkezten* da edo bere burua *aurkezten* du.

Ahur/arra (lat. *palma*). L. Mitxelena honela idatzi zuen horretaz:

«De la importancia de *aurr-* dan fe sus muchos derivados, distribuidos por todo el país Sea de esto pero el hecho que *aurre* (es decir *aur-*) no parezca tener correlato directo en los dialectos orientales aunque tenga en ellos varios compuestos y derivados exige una explicación. Yo me atrevería a sugerir que ésta bien podría ser el b. nav. y lab. *abur*, sul. *abiir*, baz-tanés, ronc. *Uztarroz* agur « *palma*, *bueca de la mano* » [L. Mitxelena, FLV 9, 1971, 249.or.].

*Anatomian*. Aurre hitzetik, apika, etorria eskuaren aurreko alde adierazteko, aurre hitza erabiltzen ez den euskalkietan ere. Landuccik 1562. an *arra eskukoa* ematen du. Axularrek *eskuarra*. Hitz horretarik letorke *arre*, neurria nahiz ez den eratorri zuzena ezen *arrea* atz lodienetik txikarrerainoko luzetasun tartea da, *arra*, berriz, eskuan atzik ageri ez den eskuaren barrena eta bolumen neurria.

*Abur/aur* Iparraldean eta Nafarroan erabiltzenago da. Zuberoko Bereterretxeren eresian Ezpeldoiko alaba “*Berterretxeren* odoletik *aburka* biltzen ari da” eta Oihenartek XVII. mendean atsotitz legean “*Eman hironak altzoka, bil e’liro aburka*” (eman lezakeenak magalka, ez lezake bil eskutara) edo *Emak zaretaz, bilha eztirok aburretag* (O. 133).

#### Metaforak

Geometrian eta fisikan *poligono aburra* erabiltzen da konkaboa denaren esateko. Iparraldean ez da *arra*, erdararen palma hartu neurriarentzat, *zebe* hitza baizik, baina hitz horiek ez dira gehiago bi esaeretan baizik erabiltzen, *arra* bat sudur, edo *zebe bat sudur* keinua egiten denean eta bi eskuekin itsusiago da *bi zebe sudur* egitea. Badirudi haurrek eta gazteek ohitura hori galdu duten, ala amerikar pelikuletan ez dutelako ikusten.

## AR- ERROAREN SAILA

Munibe taldea, Josu Altuna, Arantzadi eta Jose Mikel Barandiaran bakoitzak bere garaian egin ikerketetan, indusketetan abereen hezurak atzeman zituzten. Barandiaranen *Lehen Euskal Gizonak* liburuan hau irakur daiteke:

«Hona hemen, beste izen batzu, zezen, behi, idi, aker, abuntz, ardi, zerri, zaldi, zakur eta abere horien hazkera mailak izendatzeko erabiltzen ditugun hitzak. Izen hauek aski adierazten digute indoeuroparren eragintzaz sortuak ez, baina lehenagotik hemen zabiltzanak direla». (aip. lib. 93.or.).

Beharbada, kanpotarrekin ikasi genuen abere batzuen heztea, baina, noiz nola, basa formak, ehizak geneuzkan aspaldian: hor zeuden, *basaker*, *basabehi* (betizu), *basa zaldia* eta *basurdea*, gutxienik. Saiatuko naiz, hain zaharrak diren izendatzetan animista ikuspegiaren bilatzen. Aspaldian konturatu nintzen eta horretaz idatzi etxe abere horien erdiek (*h*) *ar-* erroko izena zeukatela eta horiek zirela gure arbasoek lehenbizikoan (*h*) *aragi* bezala jan zituztenak. Sail honetan sar nitzake:

Ardi kentekoak: *abari*, *ardi*, *axuri*, *arkume*

Behi kentekoan: *aretxe*

Ahuntz kentekoan: *abuntz*, *aker*, *abuina*, *abumea*

Zerri kentean: *aketz* (apote), *abardi* (zerri ama), *arhuka* (zerrikume argala)

Asto kentean: *arsto*/*asto*, *astokotxo* (astarra), *astama*.

*Izendatzea eta sinesteak*

Animalia guzti horiek antzinako euskaldunek lehen heziak dira, ardiak azkenik. Hemen bitxikeria bat aurkituko dugu: badakigu Antzinateko zibilizazioetan *akerra*, *aketza*, *marroa* eta *astoa* animalia lizunak zirela eta andreak kutsa zitzaizkela ume munstroak sortzeraino. Horregatik, ardien eta ahuntzen esnearen batzea, andreentzat, arriskutsua omen zen.

Santa Graziko herrian, kanonikoen eraginez, agian, ur benedikatuz burua bustitzen diete etxekandere zaharrek ardiei, mendira bidali baino lehen. Biarnoko herri auzoan Leskunen komenturik izan ez delako iturriko ur paganotik buruak bustitzen dizkiete. *Ar-* erroa daukaten abere horiek, lizunak izan arren jaten dira, ahuntz eta ardien esnea ere edaten. Euskaldunen sinestetan sakratuago ziren eta ez zituzten protohistorian jaten behia, eta behorra, zezena eta zaldia, beste hitz erroekin izendatuak direnak. Urrunago ikusiko dugu zelan euskaldunek animalien izenak darabiltzaten gaitzizenen egiteko?

Europar, eta batik bat, Euskal Herrian, *akerrak* duen garrantzia azpimarratu behar da. Euskaldun sinestean lizuntasunaz gain beste bertuterik badu. Gure ahaide Jean-Pierre Chabalgoity zenak, Barkoixe Peilleneneko zaharrak kontatu zigunez, gizon batek arditegian gaitza zuelako, aker bat erosi zuen ustez eta akerraren usainak ardiak sendatuko zizkiola. Ardiak beti gaixorik eta akerra bizirik lurperatu zuen arditegiaren erdian.

Erabilera zuzenagoa dute aker edo ahuntzek artaldetan, alde batetik esne edangarriagoa ematen diotela artzainari, bestalde «hartza horra den», datorren lekuetan ardiak izuz isilik egoten badira, ahuntza marrakaz, marrumaz hartza salatzen eta erakartzen du. Borrokan galtzen du, baina artzaina ernatzen. Hori zigun kontatu Joanes Peillen gure aita zenak eta errepikatu Santa Grazi Salaberriko semeak, hartz ehiztari izana.

Sinestetara itzuliz, badakigu sorginak oraindik XVII. mendean *Akerbeltza*-ren kultoa zeukatela eta akelarrean zebiltzala. L. Mitxelenak bere *Textos Arcáicos Vascos* delakoan Madriden Minotauro argitalpenean eta hemeretzigarren orrialdean gogoratzen digu erromatar garaiko hilarri batean idatzia dela *Aberbelste deo*, *akerbeltz* jenioari omenaldia. Halaxe erakusten digu Goyak bere estanpetan sorginak *Aker Beltz* baten adoratzen eta *Aquelarre* izena jarri zion irudiarri. Euskaldun zaharrek hogeigarren mendean zioten Mari edo Andere jainkosa agertu zitekeela, hain zuzen ardi baten edo aker baten bizkarrean, baina zaldi edo behi baten itxuran.

Juduek aker bat urtero beren bekatuez zamatzen zuten hiltzen edo basamortura igortzen. Hortik etorri da erdaretan, erabiltzen den *chivo expiatorio* edo bouc émissaire izena, errudun handiak ezin zigortuz txikiagoak kondentzen direnean. Ez zaigu ahaztu behar greziarren ohituran antzertiko *tragedia* hitzak *Akerkantua* esan nahi zuela eta haiek ere akerrak sakrifikatzen zituztela. Kristauek akerra deabruaren itxura eta adiera eman diote, eta gure hizkuntzan, Zuberoan bederen, gizon lizunaren eta proxenetaren erran nahia.

Haragi (lat. *caro*) *Haragi* hitzean lehen osagai (*b*)*ara*- litzateke edo *ara*-, jandak animalien izendatzeko ikusi dugu; gainera hitz eratorrietan *hara*/*harat* eran ager liteke, *harakinak*, *harategian* haragia prestazen du eta saltzen; abere hilarri (*b*)*arakei* esan daiteke eta haragi jateari gehiegi emana den jendea edo animalia (*b*)*arakoi* izaten da. (*H*)*aratuzte*, haragirik ez jatea da. Beharbada *argal* hitza *ar*+ *galdu* litzateke.

Hitz horretan *-gi*/*-ki* atzizkian ikusten da *ogi* hitzean bezala, (XII.mendean *orgi*: *ore-gi* hitzetik datorrena). Bestalde *-ki* hori haragiak zehaztean agertzen da, *bebiki*, *idiki*, *txerriki* eta honelakoetan.

Haragi esaten denean gehienetan ez da bereizten *gizena* eta *gibarra* baina biek aurrean daukate haragik atzean daukan hizkia *-gi*.

*Haragi* hitzak beste erran nahia badu jatekoarekin ikustekorik ez duena, haragia, libidoa baita, *haragikeria* beste norbaitenganako bekatuzko irritsa eta *haragikoia* horretara gehiegi emana dena, enjogia dena. Goian ikusi bekatuaz kanpo, sinestetan dago “*haragi hartu*” formula jainko batek gizon itxura hartzen duenean edota gizon bat beste gizon edo animalia batean itxuraldatzen denean. Ez da nahasi behar haragiz hartu “*coire*” erran nahia duena.

Haragi hitzak, bizidunen mundutik kanpo, ez du irudi gehiegirik eman alitote edo sinbolo bezala har daiteke eukaristiako Jainko Jatea.

Arr- sexua dela-eta

Gizasemez eta animali kotxoez hitz egitean erabil dezakegu *arra* eta *ar-* i, artasun zerbait ematen omen dielako, ez bakarrik sexuaren mailan. Hitz horrek gutxitan dauka “h” bat hasieran eta ez dezakegu erran *barri* hitzarekin zerbait ikusteko duenik ere. Etimologietan amildu gabe esan dezaket olerkari gisa *emeak ematen duela*, eta *arrak (h)artzen*.

Kultura askotan Afrikan eta semiten artean jendea *arra* eta *emea* sortzen dela erran ohi dute horregatik egiten da mutilen irentzea eta nesken klitori ebakuntza beste sexuaren seinalea gal dezaten. Euskal Herrian alderantziz sexu bakoitzaren nortasuna maila guztietan markatzen da ez bakarrik neba/ arrebak, anai/ ahizpa sisteman, noka eta toka erabilerekin.

Halatan ere, euskalduna beste herri askoren gisa jendea eta animalia hiztegian bereizten saiatu da, animalia emeari, ez zaio, maiz, *emea* esaten gehienetan *urriza* baizik eta animalia arrari, askotan *aketz* edo *kotxo*, edo *orots*; gero umeak dituztenean egia da *aita* eta *ama* hitzak ager daitezkeela.

*Arra* hitz bakuna bezala erabil daiteke edota eratorritakoan, sarritan, animalia baten izenari loturik, baina denekin ez, *astarra*, *mandarra*, *katarra*, *oilarra*, *zakur arra*, *ozarra* esan daiteke baina hitz bereziak daudenean animalia helduekin *aker*, *aketz*, *garaino*, *zezen*, esango da. Horien umeekin ordea *arkume arra*, *auntxume arra*, *txabal arra* esan daiteke. (ik. urde orots, txahal orots ere).

Arraren jarduera berezia jakina ernalkuntza da. Arrak ernaldu aberea *arratua* da edo *estalia*, baina gehienetan jendeek dute erabakitzen aberea noiz *estalarazi*, noiz *arrarazi*.

*Anatomia xebean Arra* baldintzatzen duen organoak badu, hitz erro horren zatia, *barrabil* hitzean: “b” gorputzaren zati+ *arra* (sexua)+ *bil* (borobil). *Barrabil* aski zaharra baina metaforaz kuskuekin parekatuz adierazkide du, *koskoil*.

*Barrabil* bakarreko zaldia, astoari batik bat *arkoil* deritzo hedapenez animalia argalduari honela esaten zaio. Baina *argal* iturri berdinekoa ote da? Eta andre guztiak argalak lirakeke artasuna galdu dutelako?

#### Metaforak

*Teknologian*. Leiho eta ate saihetsetan, inguruko «etxeari» edo inguruari lotzeko diren giltzek, *arra* eta *emea* badute, halaber tresnetan, makinetan zati bat bestearen barrenean sartzen denean *ar* eta *emeak* daude.

Entxufetan, sarrailetan *ar* eta *emea* daude. Trokeletan *arra*, baina kontuz, *arra* hasierarekin diren tresna eta animaliek, beste jatorria dute, erdaretako maileguak dira, eta *arra-* aurrizki, edo kontsonante hasieraren estaltzeko euskara duen joera: *arrabote*, *arratoi*, *arratz*, *arraun*, *arraza* eta *arrazoi* ez dute artasunarekin ezer ikustekorik.

Arrano (lat. *aquila*). Munduan zehar arranoa, artasunaren, aitatasunaren eta indarraren sinboloa izan da. Pawnee amerindiarren ustez eta izena emanik arranoa “*oinarrizko aita*” da eta arrano emeari “*oinarrizko ama*” deritzo.



Euskaraz, *Arrano* eta arrain hitzak bide horretarik letozke. Lehena lausenguz eta sinestez “Ar txikia” delako, gainera haren emeari esaten zaio Zuberotan *Anddere* eta artzain zaharrek ez zuten inolaz ere arranoa hilko; Gipuzkoan, batzuk, uste zuten Mari Anderearen lurreko jainkosaren agerkuntza zitekeela. *Arrano* hitza Leizarragak 1571. an erabiltzen badu, aurretik 1087. an *Arrano Arria* Nafarroako leku izena da. Leku izenetan *Arnoteği* askok ez dute ardorekin zer ikusirik *Arranoteğiak* dira. (*Arrano!* Gaitzespen hitza ez dator hortik, baina *arraioa* ez esateko erabiltzen dena).

Arrano izenetan, Lapurdin batik bat, nahasketa handia dago *putre* edo *sai arrea* ezpaita inolaz ere arrano. Itsasaldekoen *arrano gorria* / *arrano beltza* ez da arranoa putrearen sailekoa baizik, barneko aldean *ugatza* diogu, lapurtarren arrano burugorria *sai arrea* da. *Circaeta* berriz *sai xuria* da. *Arrano bizkar xuria*, benetako arranoa da (Pigarga).

Arrano artasun sinbolo izateaz kanpo, enperadore askok beren inperioaren ikurrin bezala erabili zuten hala nola Iranen lehengo persiarrek, Grezian, Erroman, Germanian, Nafarroan, Napoleonek, Hitlerrek ere Ez da harritzekoa mundua inperio bilakatu nahi duten estatubatuarek beren ezkutuan, arrano mota baldin badute. Nahiz ez zen Nafarroa inperio handia izan Santxo Handiaren garaian baizik, kateak baino lehen arranoa zuen ikurra, *arrano beltza*. Bi burudun arrano hori Ekialde hurbiletik Austriara, Errusiara eta Nafarroara igaro zen. Gure hizkuntzan, amerindiarrekin bezala, sinboloak hitza eman ote luke? Herri kantuetan arranoaren artasuna metaforaz agertzen da

*Arranoak mendietan  
gora dabiltza begaletan;  
ni ere halako ordüan  
anderekin nengoenean...*

Arrain (lat. *piscis*). *Arrain* hitza horrela sortu zitekeen *arra* (sexu ?) + *in* (bikain); benetako arra dela arraina ohitura guztiek diote. Sanskritoan Indietan maitasunaren jainkoari arraina sinbolotzat ematen zaio. Txinan eta Asiako herri askotan hala nola Birmanian, Japonen mutilek nerabetasunaren papezko arrainak erosten dituzte, gizondu direla erakusteko.

Gure antzinakoek eta Etxahun zuberotar bertsolariak ondo darabil hitza aipatzen duenean *arrainaren jatea* “coire” eta nire herriko gizonek diotenean *arrain begi gorria* zakilarentzat, esaera bizi bizirik dago Zuberotar batek XVIII.mendeko kantua abesten dionean: *Arrainak eder begia / oi neskatila faltsüa* ez da haren babesteko noski. Halatan ere ipuinak bildu badira sugeak edo heren-suge batek andre bati haur eginik, arrainaren kasuan metafora hutsa da.

Harrigarriena da nola euskaldun zaharrek *arrainaren bezurtza* osoa sinbolotzat hartu zuten. Ezen Gipuzkoako uztarrietan eta Zuberoko zernahi burdinetan grabatua da eta Leroi-Gourhan prehistorialariak Euskal Herriko eta pirineotako magdaleniar hartzuloetan grabatu ikur berdina “*ikur arra*” izena jarri

zian. Duela hamar mila urtetako ikur horiek hiru marrazki mota daukate eta Gipuzkoa Bizkaia, Nafarroako uztarrietan hiruak ikus daitezke Etxean daukadan batean hiruak elkarrekin ditu. Zarautzeko baserritar batek esan zidanez, marrazki horiek ez ziren egiten uztarriaren apaintzeko, jendeak eta animaliak tximistaren eta gaitzaren gaixotasunarengandik zaintzeko baizik. Beraz, ez dirudi sinbolo hori kanpotik berriki ekarri dugunik.

*Hitz elkartu eta eratorri*

Eratortziz, *arrainketa, arrantza/arrantzu, arrantzale eta arrantzaldi, arrainaren arrantzatzea*

Hitzelkartuz: Arrain izenak. Batzuetan arrain hitzarekin agertzen dira hala nola

Arrainbeltz (*Trigla gurnardus*), arrain bizardun (Barbarina), arraingoeri (*Trigla cuculus*) arrain hegalaria (?), arrain gurbil (muxarra) arrain ikara (torpedo), arrainzabal (arraia *Raia elevata*), arrainzuria (*Eskualo, Trigla loevis*)

*Metaforak*

Jendeez: *Arrain* deritzo, gizartean igeri egiten dakian jendeari. Arraina harrapatu: mozkorra tiratu da.

Sasi ar- jatorri askotakoak

(H)ar (lat. *vermis*). Ornogabeen artean (lat. *vermiculus, lumbricus*) Beharbada, (*b*)ar hitza zerbait ikusteko du “-ar”en erreferentziarekin; Hitz eratorriak ditu: *beldar*, belar eta hosto jale harra, hala nola *zeta barra; eltxar, eulien barra* eta *zizar*, lurpean bizi dena, *bar argidun/bar argitzaile/ barxuri* hego gabeko zomorro emea (lat. *Lampyrus cicindela*).

*Metaforak*

Oinarritzko psikologia hiztegian harra asko erabili da, kezka, garbaia edo erokeria da.

*Barneko/barruko harrak*: garbaia

*Buruko barra* (Z.), *bar zoroak burua janda* (B.): erokeria sarturik buruan

*Bibotzean barra*: sentimendu sakona

*Gizon bartsua*: gizon ahula

Arrobio (lat. *salamandra*). Beharbada, ez dira *arr-* errotik sortuak *arrobio* «salamandra» eta segurrik ez *hartza* (oso). Arrobioaren kasuan horrelako hizkuntza debeku eta sineste zerbait badago.

Frantsesek diote arrobia sura botatzen denean ez dela erretzen, sua itzaltzen duela, iraungitzen duela; euskaraz, harriduraz norbait geldirik zuri begira begiak finkaturik dagoenaz erran daiteke *arrobia bezala begira* (arluia bezala so, Z.). Arrobioaren izena eskorpioa adierazteko erabili da eta Zuberoraino alderantziz batzuk arrubioari, eskorpio, deritzote.

Benetako salamandra ur-lehorretakoa da, aldiz eskorpioa zomorroa, Eskorpioak dauden herrietan, animista gogoetaz, ez dute izen berezirik, ez dira aipatu behar ez erakartzeko.

Artza (ik.Hartza). *Hartza* dela-eta hitz hori zuzenean zeltiberiarren hizkuntzetarik hartu omen dugu (bretoieraz, Artz) Hartzaren inguruan, Euskal Herrian, sineste zikloa izan da eta horregatik izena tabu. Tximinoak ezagutu baino lehen eta gizonak uste baitzuen bazirela hartzetik zetozen basa gizonak eta ehiza batzuk gizonetik hurbil, beraz geroago Darwinek tximinoekin egin zuena, Santa Grazin ikasi nuen bezala, euskaldun zaharrek hartza basa gizonaren arbasoen artean sartzen zuten.

Arraultza/arraultza (lat. *ovum*). Kume batekin edo gabe, janari erreserbeekin ugaztunek izan ezik animalia hezurdun guztiek erruten dutena kanpora. Hedapenez, ugaztunek beren barruan edukitzen dutenari hedatzen zaio izena.

Hegaztien arrautzak *arraultz zuringoa*, *arraultza gorringoa* eta karezko kuskuko/oskola badu, besteen azal lodia edo mehea baina kuskurik ez. Agian lehen gizonek errazkienik aurkitzen zuten janaria zen arrautza; guk *arraultzopilak* eta *arrautza perretxikoak* behar ditugu jateko. Oiloek behintzat, ez dute beti basetxeen eta oilategian arrautza egiten, batik bat *ernalduak*, *lokatuak* direnean orduan *habiakoiak*, *arrautza morak* zoko batean, ezjakineko lekuan gordetzen dituzte.

#### Metaforak

Aspaldiko kalkoz arrautza erabiltzen da barrabilak esateko eta Erdi Aroan jadanik, baten *Peru de Arraultzegaitz* bat Nafarroan.

Konparaketaz. Aurpegia zuri, garbi, bizarra ongi eginik *arrautza iduri* dela esaten da *Begiak arrautza baten pare* izan daitezke Itxurarengatik plater bat, plaza bat arrautzaren antzeko izan daiteke. Arrautza bat ustela izan daiteke eta jendeaz ere erran daiteke *arraultz ustelaren antzekoa* dela. Norbait nondik atera den esateko *ikusten da zer arraultzetarik atera den (L.)*. Bi jende elkarri lotuak *gatza eta arraultza bezala (L.)*.

Arteria (lat. *arteria*) (ik. zain, odol zain, talkazain).

Ase, aski (lat. *satur*). Hitz hori oinarritzkoa da, ezen janariz edariz betea izatea esaten baitu, baina denbora berean batzuetan neurria gainditua dela adierazteko. Norbait aserik, *aserik eta beterik* diogunean mozkorra edo gehiegi jana dela adierazi nahi dugu. Abereekin batik bat darabilgu, *abereei beren asean eman behar zaie*.

*Eratortziz* badira *asegaitza*, *ase-ezinak*, *ase-ezkorak* *ase-errazak* baino ugariago. Gainera, euskalki batzuetan *ase* hitzak aditzondo bat eman dio, *aski*. Jakina asegurantz hitza ez da sail horretakoa ezen *aseguro*, *asegaitzek* dioten ez dugula inoiz *aski* ordaintzen.

Mende zaharretan baziren batzuk gosearekin eta besteak asearekin, horregatik Oihenartek bildu zituen bi atsotitz.

*Asek gose eztakusa*

*Asean bizi denaren bizitza honela zekusan Oihenartek*

*Obetik mahaira*

*Mabaitik ohera*

*Korrongaz paradusura* (O. 860)  
 Horretarako beste hitzik dago *gosea berdinu, urdaila berdinu, itziki* (Nb.)  
*okatu* Nb.L.) *kok egin* (Ng.), *zipot egin* (Ng.), *khalkatü* (Z.)

*Metaforak*

Zerbait gehiegi izatea adierazteko ase hitza darabilgu  
*Haren entzuteaz asea*  
*Haren ikusteaz asea*

(H)ATZ ERROAREN SAILA

Eskuarekin edo zangoarekin daudelarik hitz ugari aurki genitzake. Iparraldean jendearentzat *erhiak* diote eta animalientzat *atzaparrak*. Hegoaldean *batzak*. Gauzen nahasteko lapurtar askok eskuko atzei *behatz* esaten diete. Mendebaldean daukate beste bereizketa zehatza, beko, oinetako atzak *behatzak* eta eskukoak *atzak*. Euskara batuak arrazoiz aukeratu duena. Hatz bakoitzaren izenak oparoak dira. Ia, batasuna badago eskuko txikiarentzat, *txikerra/txikarra*, inguruko erdaretan belarria garbitzeko jarduera kontutan hartuz «auricularis» diotelarik eta *ereztun/eraztun* “anularius” euskalki gehienetakoa da eta erhi izena ezagutzen ez duten euskaldunek ere hala diote. Erdiko atz luzeena batzuek *luzea*, besteek *ergoibena*, besteek *erdikoa* edo *handia* diote. *Atz lodienari*, batzuek diote *behatz*, besteek, *lodi*, *potots*, *handi*, *erpuru* eta abar... Azkenik atz erakusleak, askotan ez du izen zehatzik, zubereraz *ertalte* esaten zaio, batzuetan *erakusle*. Honela

Landucci (Araba)	Eibar (G.)	Larraine (Z.)
<i>pollex</i>	Atz andi	atz aundi
<i>index</i>	mostradore	atz bizkor
<i>medius</i>	erditako atz	atz luzer
<i>anularius</i>	atz ereztun	erestun
<i>auricularis</i>	atz txiker	atz txiki
		behatz
		erthalte
		ergoihen
		erhaztün erhi
		txinker

Eratorkiak:

*Aztapar, atzamar* (lat. *unguis*). Mota horretako hitzak euskaldun guztiek animalientzat darabilzkigu, nahiz zaldia bezala atz bakarrekoa izan askotan *behiaren aztaparra* esaten da. Batzuetan, ordea, behiarenari *apoa* (fr. *sabot*) edo *aparra* esaten zaio.

*Atzamar* forma mendebaldekoa da eta batzuk, herri etimologiaz edo, *atz+hamar* eratorria dela uste dute. Beharbada jende edo animalia batek egin zarrastada adierazteko mendebaldean *atxumurkatu* diotenean, *atxurra* eta *urratu* lukeke gogoan

*Azkal, atzazkal, azukulu/ atzokol* (lat. *unguiculus*). Euskara batuan “ingulus” delakoari *azazkal* hitza hautatu da. Nahiz azal horrek ez duen atz osoa estaltzen muturra baizik, atzaren keratina ekoizpena da, ilea bezala.

Jende zangoduna *zangar* den moduan, atzduna *azkar* da, baina hegoaldean indartsu esanguratik, “laster” adierara jauzi da. Eratorriak baditu: *azkartzea*, *azkartasuna* beharrezkoak direnean, gizon gehiegik darabilten *azkarkeria* ez da ona.

Beste hitzak sortu dira: mendebaldean bizkaieraz *atzoskol* hitzak *oskol* «frutaren inguruko azal» horrekin metafora egin du eta Ekialdean zuberotarrek berdin *atz+kuzkulu azüzküü* metaforarekin. Aurretik ikusi dugu, hortzarekin, ilearekin bezala sinesteak badirela.

*Aztal* (lat. *talus*). Mendebaldeko euskaraz, *aztala* tibia hezuraren gaineko zatia da, hots zangoa eta Ekialderuntz joanaz tarsoen, *orpoaren* erran nahia hartzen.

Oinaren eta zangoaren arteko mugan tibia eta perone hezurren bi konkortxoek (oinkatilek) Ekialdean izen berezia daukate *aztal beharriak*, hegoaldean bereiz erromantzetarik kalkatuak *oinkatila txorkatila* esaten da (fr. *cheville*), *kabilala* edo *katila* da zotz batekin egiten den iltze antzekoa.

*Azpi* (lat. *femur*). Abereak direla-eta beko gorputz adarraren lehen zatiari izterrari hala deritzo: *urdazpi*, *abariazpi*, *azpiki*, *azpizun*. Zubereraz ordea, jendeentzat ere erabiltzen da “azpi”. Izter hitza zuberotarrek “*baratzuri ixter*” adierazteko darabilte bakarrik.

*Metaforaz* edo

*Azpi* aditzondo bilakatu da Ekialdeko *pe/pean* ordeaz, erdialdean eta mendebaldean *azpi/azpian* esaten delako.

*Metonimiak-edo*

(H)atz errodon aditzak. *Hatzak*, eskuak jendeentzat horrelako garrantzia duelarik ez da harritzeko hainbeste aditz sortzea, edo herri etimologia bidez hatz itxura hartzea: (*h*)*atzeman*, *atzitu*, *atxilotu*, *atzarkatu*, *askatu*, *hatz egin*, *bazkatu*, *aztertu*.

*Atxilotu* (lat. *prehendere*). *hatzi+lotu* abereak edo hespekoa eskuekin lotzen direnean erabiltzen da.

*Atzeman/hatzaman* (lat. *tangere, prendere*). Jatorriz norbaiten, zerbaiten gainean *hatzaren ematea*, *ipintzea* da (gaztelaniaz garra hitzarekin, “agarra”r egin den antzean). Bere txikigarria *atxeman* da eta nafar-lapurdieraz zernahi esateko erabiltzen da, beste aditzak, *ediren/idoro*, *aurkitu*, *topatu*, *baratu*, askok, galdu dituztelako.

*Atzitu* mendebaldean *hatz* errodik zuzenago etorri da eta aurrekoaren adierazkidea da.

*Atzarkatu* (lat. *apprehendere*). *hatz+bar(tu)+katu* gauzekin, ekintzekin bakarrik erabiltzen da Ésaera da “*zail da gauza borretan atzarkatzea*” hatzarekin hartzea eta erdiesteia da.

*Azkanzatu, azkatu*. (lat. *solvere*). Lotua zena deslotu.

(H)*aztamuka* hatz+asmuka. (lat. *praetentare*) *Haztamukatzea*, ilunpean eskuekin ormak edo gauzak ukituz ibiltzea da. Beharbada, herri etimologiak maileru bat itxuragabetu du (lat. *tastare*) Zalantzaren metafora da.

(*H*)*aztatu* (lat. *palpare*). Agian *bazta/azta* pisua zen euskara zaharrean, ezen *baztatu* pisuaren eskuz ezagutzea delako eta pisudun esateko *astun* zuzenean edo etimologiaz hortik letorke. (*H*)*askatu*, *askantzatu*. Euskara zaharrean *askan-tzatu* zen soka batez, korda batez lotua zenari *lokarriaren kentzea*. Zuberotan orain ere “*oskiak askantzatu*” oinetako kordak *askatzea da*. *Askatu* hitzak politika esan nahia hogeigarren mendean garatu du

*Aztertu*. (lat. *effodere, investigare*). Hasieran, jakina, hatzekin hartzea izan zen (ik. Ikertu ikusiekin). Baina azterketaren jatorrizko esku ukitzetik, eskolako ahozko eta idatzizkoetara eta ikerlarien mundura igaro da.

*Atxiki*, (lat. *tenere*). Eutsi adierazteko, apika, herri etimologiaz hatz hitzari lotu zen.

#### Metaforak

*Teknologian* Batik bat, Jostunen hiztegian erabiltzen dira. *Hatza*, oihalaren bazterra da. (gazt. ribete, fr. lé) Soineko beheko aldean egiten den tolesdura-ri hatza jostura batez biltzen duena, *azpil/azpildura* da (gazt. dobladillo, fr. ourlet). Jostunek hatzen babesteko burdinazko txanotxo bat darabilte, bitxi da *batz* esaten den herri batean eta ez *erbi*, horretarako *erikoa* darabilte Tolosaldean. Larruak josten dituztenek ordea eta Hazparden *erbi* dioten herrian larruz egin kapeltxoari *azkolarru* edo *azkutari* diote. Badirudi euskalki guztietan *batz* eta *er(b)i* erabili zirela batean eta geroztik aukera bat egin. Jantzia dela-eta, lehenago Euskal Herri guztian belaunetik orkatilarainoko artilezko galtzerdiak erabiltzen ziren, zubereraz *galtza motxak* baina gipuzkeraz *azpantarrak*, alegia *batz+mantarra*.

Aditz guzti horiekin, batzuetan jatorrizko erroa apur ahaztu zaigu eta biologiatik urrundu dira aditzak eskutik burura, ukitzetik gogoetatzerara hala nola

Idea bat *atzematen* denean  
 Kezka batez *askatzen* denean  
 Herri bat *askatu* uste denean  
 Perpaus *astun* bat idatzi denean  
 Ikerlaria, *baztamuka* dabilenean  
 Ondorioak *baztatu* ez direnean

#### *Hatz eta osasuna*

Zango indartsuak zituenak *zangar* zen (Nafarroako erdaran *zangarro*) eta esku indardunak zeuzkanak *azkar/bazkar* zen (Nafarroako erdaran *azkarro*). Mendebaldean ordea behatzak kontutan harturik *azkar* “arin”, “rápido” esateko erabiltzen hasi da eta euskara batu guztia kutsatu. Hitz horren lehen zatia (*b*)*atz* da eta *gar/kar* beste izenlagun, batzuetan, aurkitzen duguna: *mingar, zangar*. *Azkar* hitza bi konnotazioak gogoan metaforaz hedatu da «hegazkin azkarra» edo «mezu azkarra» adierazteko; nahiz denek ez dugun mendebaldean eta ekialdean berdin-berdina ulertzen mezua.

*Hatz, gaitz eta eritasunak*

*Hazkatu.* (lat. *scabere*). Larruko gaitzak ene ustez jendeek hatzak darabiltzate hortik dator hitz zerrenda txikia, jatorriz erdaratik desberdina, *hatz* (mina) (lat. *prurigo*), *bazka egitea/bazkhatzea* (hatzekin karrakatzea) *bazteria* (larrumin mota) *bazgura/bazgalea*. (hazkatu nahi izatea) (lat. *pruritus*)

*Zehatzago joanaz*

*Hazkordin* (lat. *pernio*). Hotzak eskuko hatzetan ematen dituen gorridura hatz emailleak dira (oinekoei *ospelak* esatenago zaie). Beste izenak dira, *arraildura*, *zahixuri* (Nb.L.) *zirritu* (G.)

*Hazteria* gehienetan ekzema edo psoriasis delakoek ematen dituzten hatz minak dira.

(H) *azkabe/azkazar* (lat. *scabies*). Larruaren azpian bizitzen den zomorrotatik ematen du hatz min hori. Leku askotan hitz bat darabilgu euskaraz *bazkabea*.

Guk, etimologiaz, euskaldun sailari lotu badugu badirudi latinezko *scabies* hitzetik datorrela. Min horrek beste izenik badu abereentzat *bazkazar* edo *zarragar* esaten zaio. Gaitz hori sufreakin sendatzen da. Jendeak eta abereak ukitzen ditu eta XVII. mendean, jadanik, Mongongo Dassanzak bere liburuan gaitza eta erremedioa aipatzen ditu. Abereek beren hatz minak dauzkate, batak bat aparraren, atzaparraren sardean, ardiek, behiek *bazarteko mina* dute.

*Hatzak utzi seinaleak*

Hasieran, *aztarren/aztarna/hatzoin* animaliek lurtean edo elurrean utzi marka zen, gero jendeen oinetakoetara hedatu. Gero hondakin, zati adierazteko metaforaz erabili da

—*begazkinaren aztarrenik ez da aurkitu*

—*bere idazkian ideologia horren aztarnak nabaritzen dira.*

Gainera, *aztarnategietan* indusketak egiten direnean ez da jende edo abereen oin edo esku aztarna askorik ikusten, gauzen aztarnak baizik.

*Azala.* (lat. *pellis*). Azal ez da, beharbada, sail horretakoa, nahiz hatzarekin ukitzen den gehiena zerbaiten edo norbaiten azala den eta eskua ukimenaren organoa. *Azal* ez da beharbada *larru* bezain mugatua ezen laranjak, sagarrak, zuhaitzak azala dutelako. Anatomia-eremuan hitzegian eratorriz (h)atz+azal (b)atzaazal eman du eta patologia-eremuan *azaldarrak*.

*Metaforak*

Aditzekin hasteko, zerbait gorderik dagoena agertzea *azaleratzea* da, eta hiztegi abstraktu batean *azaldu*: esplikatzen da. Nolanahi, *azalak* ez du galtzen *sakonarekin* daukan desoreka, eta psikologia-eremuan ideietan sakontasuna *azalke-riari* nagusi delako eta *azalutskeria* oraindik gaitzesgarriago delarik.

*Teknologian*

Estalkirekin batean zerbaiten gaineko aldea edo inguratzea adierazteko azala asko erabiltzen da *gutun azalak*, *liburu azalak*, *obe azalak* baditugu.

Sailetik kanpoko hitzak?

Hartzi(tu). (lat. *fermentare*). Kimika fenomeno hori alkoholari, ogiari eta gaztari bereziki sor dizkiegu baina legamiek non nahi lan egin dezaketelako, nahiz alkoholik ez edan norberak hesteetan egin ditzake. Batzuek *hartzitu* hitzaren lekuan *egosi* darabilte.

*Metaforaz*

Zerbait isilpean handitu, loditu dena, hala nola:” *Iraultza ikasleen artean hartzitu zen*“.

Hazi/hazitu. I. (lat. *creocere*). Animalietan eta jendeetan hazi egitea handitzea, loditzea eta haurtzarotik heldutasunera iristeko bidea da. Batzuetan, hazia edo *askazia* ahaide esateko darabilgu.

2. (lat. *nutrire*), elikatu

3. (lat. *semen*). Landareetan, *hazia* da landaregaia da eta landarea eman dezan ernatu, edo burnatu behar du.

*Metaforak*

Handitzea adierarekin erabil daiteke “*zorrak hazitu zaizkit*”, baina hasiera esangurarekin “*Eskolan erein haziak lanerako mintegiak eman litzake*”. Hirugarren adieraziz, lotan dagoena eta noiz nahi piztu daitekeena adieraz lezake hala nola, hauspean dagoen ikatz gorriari esaten baitzaio *su (h)azia*.

### Ondorio txikia

A letraz hasten diren hitz horiekin, ikusi dugu euskaldunek, beharbada apur bat besteek baino gehiago, gure gorputza ideia, tresna eta tramankuluak izendatzeko darabilgula. Lehengo euskaldunek hizkuntza sortu zutenean ez zituzten gure sailkapenak ezagutzen, horregatik grezieratik eta latinetik etorri, auzo hizkuntzek ez bezalako sorkuntza, gertatu zaigu egitea, nahiz izendapenetan urrats berdinak eman hala nola *arranoa* guretzat hegaztia da eta *machito* gaztelaniaz mando txikia.

Orokorki, hitz gehienak jende eta animalia gehienei egotz daitezke eta bost sail berezietan jar: *adar, abo alde/albo, aurre, atz* eta bestalde hitz bakarti batzuk.

Egia da biologiarenak ez diruditen hitzak badirela, *alde* eta *aurre*, baina ez al zituen lehen gizonak bere gorputzaren, bere lohiaren erreferentziarekin sortu? Edonola, munduaz daukagun ezagutza gorputzetik igarotzen da, ez da batere harrigarri gure hiztegia biologiaren hesi horren barruan garatu bada. *A* hizkiarekin hasten diren euskal hitzak hain ugari izatea.



## 7.2

## B-letraz hasten direnez

Euskaraz *B* letraz hasten diren hitz gehienek bizidunekin, gorputzarekin zerikusia dute. Euskarak ez badu aurrizki asko *b-* osagaia dauka markatzaile bezala, erro baten ondorio bezala, hala nola *bizi* hitzaren lehen hizkia. Hau ez da nire aurkikuntza XIX. mendeko euskalariak ikusia zuten, baina beste hizkuntzetan ere badaude horrelako kontsonante markatzaileak, georgieraz *t-* aurre hizkia, gorputz zatien izendatzeko baina ez gure kasu beretan, «tani»: buru, «tavi»: gorputz, «tvali»: begi, «tskhviri»: sudur, «tmebi»: ile, «tsvivi»: oin, «tutxi»: ezpain. Guaranieraz *p-* hizkia da, sarritan, gorputzaren markatzailea (*pya*, erraiak; *py*, oina; *piu*, larru; *po*, eskua edo *t-*batekin *tl*, sudur; *t-~~ele~~*, gorputz, *t-embe*, ezpain; *t-etyme*, zango; *t-a* hagin,, *t-esa*, begi. etc.).

Ba- dunak

Balbula (ik. bihotz)

Baraila (lat. *mandibula*). Kontuz! Ekialdeko euskalkietan ez da mazela edo matrail osoa, behekoa baizik, gazt. “mandibula inferior”, horregatik euskara batuari ekarri diezaioke zehaztasun bat. Nahiz hitz hori noizbait erromantze zahar batetik hartua izan (nafar erromantzea, *barilla/bariella*). G. Rohlf's bere *Le Gascon* liburuan hitz hori ezagutu gabe gaztelaniazko *vare* tik datorrela idatzi zuen.

Bare/are (lat. *splen*). Bigarren hitz hori, apika, metafora liteke, ezen organo horrek molusku den baten itxura duelako.

*Eratorriz baresare* esaten zaio mesenterioari sabeleko heste tartean, lokarriz dagoen azal orokorrari. Azal hori gainera harakinek haragia troxatzeko, inguratzeko darabilte. Bilboko gaztelaniaz *barasarri*

Norbait *baretsu* edo *baratxe* barearen moduan lasaiki ibiltzen denean; baliteke, sineste batetik letorke, alegia *baredunak* ezin duela ondo lasterka egin; horretarako antzinako korrikalari edo lasterkariei barea lehertzen zitzaien eta baregabetuak omen hobeki lasterka egiten. Harrigarria da nola barea gorputza ezin irekiz, burdin arotz batek mailu ukaldiz zartarazten zieten. Oraindik ere, *baregetu baten gisa lasterka egitea*, oso lasterkari ona izatea da, nahiz ez den gehiago barerik kentzen non ez den leuzemia kasuetan.

*Itsasoa bare* dela esaten dugunean ez dakigu azkenean gizona ala moluskua aipatzen dugun.

Barra-/marra-/ar-(lat. *masculus, masculinus, vir*)

*Ba-* silabarekin hasten diren hitzak, agian, euskaratik kanpo aurki genitzake, hala nola *barra/arra* „macho, mâle» errateko marra horretako aldakia baldin bada, ahari arraz mintzatzean

Gaztelaniaz	gaskoieraz	euskaraz
<i>marrueco</i>	<i>marro: marrou</i>	<i>marro</i>

Ala denok, latin ez den eta latinaren aurreko hizkuntza batetik hartu ote genuke, ezen badakigu ardien hazkuntza indoeuroparren etorrera baino lehen, ekialde Europatik heldu zitzaigula

Barra/barrabil (lat. *testiculus*). Latinismo batez eta hitz arruntagoz *koskoi-lak/koskabiloak* (lat. *cusculium*) darabilzkigu, hispanohablanteek bakarrik *potroak* baina mendebaldean erabiltzen den *barra* zaharragoa ote litzateke eta behar-bada apezandreari, *barragana* izena ematea ere bai. Nahiz *koskoil*, nahiz *barrabil* euskaldun gehienok berdin darabilzkigu.

*Barrabiltsu*, indartsu, kementsu esateko sasi metonimiaz kanpo ez dago metafora asko, izan ere, erkaketa horrek ez du balio ezen *barrabil* ederrak eta heuren ekoizpenak asko erabiltzeak ez dio gizonari kemen gehiago eman.

Agian, benetako kementsuak burudun eta bihoz dun dira euskaldun zaharrek ziotenez eta gure metonimia erdal kalkoa izan daiteke.

Nafarroan *barrata* eta Lapurdin *barrasaket* deritzo osoki antzu den abereari.

Zuberoan: *aranak, kanikak, koskoilak, peko beharriak* beste izenak dira, baina Anton Erkorekaren zerrenda (FLV 3I, 53.or.) aski aberatsa da: Bizkaian, *bóluak, borlak, arrótxak, pótruak*. Eta andreen artean «*amar erriélak*». Nafarroan *arraultz, kanika, kaskabillo, sagar*.

Basa/baso (lat. *sylvaticus*). Nahiz botanikako hiztegitik hartu, oihanari baso esaten ez den lekuetan *basa-bizidun* guztien izen erroa da. Konnotazioak ditu, gizonak eta gizarteak gehiegi aldatu gabeko, animalia, jendea. Behetik hasiz *basa-ehizak* badira, *basapiztiak* eta ezagunenak: *basabere, basakatu, basabuntz/basaker*, (kontuz Zuberoan sarrioari hala diote) *basarratoi, basabehi/basazezen, basurde, basajende/basati* (basatia ez da barbaroa, oihaneko zibilizazioa duena baizik, basatia ez da barbaroa haina kaltegarria, baina barbaroek *basatiak* hiltzen dituzte) Euskal mitologiak eman dizkigu, tekniketan euskaldunak baino aurreratuago ziren *Basajaun* eta *Basanderea*.

## 2. Be-*ñunak*

Silaba honekin hasten diren hitzak gure *b*-sail jatorrean hobeki sartzen dira.

Be-/bet-, begia (lat. *oculus*). *Begi* hitzak ez du euskaraz aldaerarik; hitz elkartuetan *be-,bet-bek-* laburtzen da eta kontuz ez nahasteko beste *bi bet*-ekin “behi” eta “bete” hitzen ondokoak (kasu! bete hitzarekin: *betaldi* ez da *begi ukaldi*, sabelaren bete+aldi baizik, halaber kasu behi hitzarekin: *betizua* basa behia da eta ez *begi +izu*). Garmuinean, burmuinean eta jendeen ezagutzan zentzu nagusia denez euskaraz ere begi, hitz ugariren iturria da, ezen begia belarriari nagusitu zaio gizonen artean. Hitz hori erromatarren garaian idoro jainko harri batean irakurtzen da, *Lacubegui*, itxurapean. Euskaraz begi hitzarekin eratorriz edo hitzelkartuz egin hitz asko badugu.

*Anatomian*

Begiazal/betazal/betoskol “palpebra”  
 Begi bakar, bepakar (B.), bepakotx (B.), begibakotx (Z.): “monoculus”  
 Begi bazter/bepazter “angulus oculi”  
 Begibilo/bepilo: “cilium”  
 Begi ertz/ betertz: “angulus oculi”  
 Begi-ezpal/ betezpal: “palpebra”  
 Begi-ile,/betile/betule: “cilium”  
 Begi buru/bepuru: “supercilium”  
 Begi ezpal/betezpal: “palpebra”  
 Begi gain/bekain: “supercilium”  
 Begi ohil/betohil: “visu atra”  
 Begi oker/betoker: “bisoculus”  
 Begi nini: “pupilla”  
 Begi ondo/betondo: “circum oculi”  
 Begipe/betazpi: “suboculus”  
 Begisare/betsare: “retina”  
 Begitarte/betarte: “facies”  
 Begizain: “nervus oculi”  
 Begi zakar/ betzakar  
 Begi zilo / betzulo “orbita”  
 Begizoko/betzoko: “angulus oculi”  
 Begi zuringo: “cornea”  
 Beko: “gazt. cara, fr. face”  
 Bekoki: “frons”  
 Bekunde: “facies”  
 Betsein/ begi nini: “pupilla”

Begien itxuraren arabera *begi beltzak*, *begi gorriak*, *begi grisak*, *begi nabarrak*, *begi urdinak* izan daitezke *begi zuriak* berriz amodiozko begiak dira eta neurriaren arabera jende *begitsu/begizu/ begi handiak*. Anatomian eta begitik urrunduz hagin zorrotzari *betortz/betagin* diogu.

*Fisiologian*

Begiaren jarduera baita *so egitea*, ikustea, beharbada latin erro eta eredu baten gainean (*vigila-*) *begiratu* aditza egin da. Ez dirudi, *begiztatu* mailegua denik. (ik. behatu). Jakina, begiratzen denean ez da beti nahikoa ikusteko, *begirada* bat, *begi ukaldia/betaldia/begirada* ez da beti nahikoa; batez ere *begi itxi-irekian* egiten bada *begiak lauso* izan daitezke eta *begiratzaille* asko izanik ere denek ez dute ongi ikusten; horretarako *begiratoki* egokia hautatu behar da eta *ikuspegi* onarekin aztertu, behin eta berriz *begiztatu*, *betustatu* (*considerar, considérer*), ez *begi itsuan* ibiltzeko. Optika laguntzarik gabe, *begi hutsez* ikus genezake.

Jendeak *begiz begi* gaudenean ez dugu beti elkar ez eta ondo ikusten *begien bixtan/begien aitzinean/begien aurrean* dagoena ere. *Begi hutsean* ez ditugu denak ikusten eta horretarako optikaz baliatzen gara. Begia higituz *begi keinuak* egin genitzake eta mus jokoan dihardutenak horien egiten dakite galdera egiteko edo lagunari jokoaren puntuak adierazteko. Harridura erakuts genezake *begiak zerura* altxatuz ere. *Begilarri*, gaztelaniaz, sueño profundo da, frantsesez; *sommeil profond*.

#### Patologian

##### *Begiaren akatsak eta zikinak*

Txikiena gauaz negar eta seboarekin sortzen diren *bekar* edo *begi zakar* gorrak goizean garbitu behar direnak Beste hitzak *bekar* (G.B.), *bekarri* (A.), *markar* (Ng. G.), *llapar* (Z.), *beteri*, *betesa* (L. Ng.) *beginana*, *bekikaka* (L.N.g.). Nigarroiari *begibera* deritzo. Akats txikienak bixta labur *begi labur* edo luzegi dugunean *betorde* edo *betaurrekoekin* zuzentzen ditugu.

#### *Begiko gaitzak*

Behin betikoak, *begi galtzeak* dira, ebakuntzaz edo istripuz *begibakarrak* (eta ez *begioker*, bestezerbait delako) gero kornean begiaren lehen azalean agertzen diren *begiko zuria/begi lausoak* eta *begiko lausoak* (lekuka *betzaina* esaten zaio) azkenean itsutu dezaketanak, halaber ikusmena gal daiteke *begiko ilun/begi izar/betizar* edo kataraktarekin. *Betokerra/begi okerra begiskillo* (B.), *begi makur* (Nb.L.), *begi ezkel*, *begi ezpel*, (B.L.) *begi ezkail* (Z.) *begi artatzaileak* ebakuntzaz, zuzendu lezake. Miopia dela-eta: *begi gaixto* (B.Z.) *begi labur* (Ng.Z.), *begi txatxo* (G.), *lustre* (L.), *lüstro* (Z.).

Kutsadurazko gaitzak badira *beteriak* edo *begietako minak* esaten zaie, bada betezpalean agertzen den min txiki zorneduna *betarroa* (G.Z.), *begi txindorra* (L.Nb.Ng.), *betorra*, *bekatxoa*, *betxindor* (G.), *txotor* (B.). *Begiko zaineko minak* eta minbiziak badira. Begietan ura hartu nahiz Afrikan batik bat, euliek bakteriatatik sartzen dute “trakoma” ematen duena eta *begiko zuriarekin* itsutzen jendea. Hobe da *begibakar/begi bakoitz* izatea itsu baino. Gainera, galdutako begiaren lekuan *begi faltsua* jar daiteke Errautsek *begi-gorria/begi kizkurra* (conjunctivitis) eman dezakete gaitza betezpala heda daiteke batik bat eta bidea ireki beste gaitzei hala nola *betezpal su* edo blefaritis delakoari. *Beterre/begierrea*, *begi ezpal gorrikoa* da.

#### Metonimiak

##### Psikologian

Psikologiaren eta fisiologiaren muga *begi-k* aditzak eman ditu: *begietsi*, *begiratu*, *begiz jo*, *begitandu*, baita esaldiak ere: *begiak bete/begiak bazkatu*, *begiak ezarri/jarri/ipini*, *begia finkatu*, *begiak luzatu*, *begia arraitu*, *begiaz kontu egin*, *begietarik ihesi*, *begiak urratu*, *begiak zabalik*, *begiak zuzendu*. Ongi zaintzeko, *begia eutsi*, *begia atxiki* behar da.

Hor ere, ez ditugu auzoko hizkuntzak beti jarraitzen; jakina, Europa osoan bezala *begizkoa/begigaitza/betadura* darabilgu sorginkeriaz egiten den “mal de ojo, mauvais oeil” hori dela-eta. Adierazi horietarik hurbildu behar da *izter-begi* zuberotar hitza “enemigo personal” “ennemi personnel” ezen Euskal Herrian leku askotan esaten delako “*ezkerreko begitik nauka*”. Kasu anitzetan gure bi-detik goaz, auzoko erdarek ez dutelako begi erroa erabiltzen adigai horien adierazteko.

- Bekaitz (gazt. celoso, fr. jaloux)
- Begiapal (gazt. mirada huidizas, fr. regard fuyant)
- Begibera/begi beila (gazt. ojo tierno, fr. oeil attendri)
- Begibeteko (gazt. de confianza, fr. fiable)
- Begi eman (gazt. fijarse, fr. être attentif)
- Begia jo (iruditu, gazt. parecer fr. sembler)
- Begiko (gazt. simpático fr. sympathique)
- Begiesle (gazt. admirador fr. admirateur)
- Begi gorri (gazt. envidioso, fr. envieux)
- Begilun/betilun (gazt. severo, fr. sévère)
- Begiluze (gazt. curioso, fr. curieux)
- Begiratu (gazt. ahorrador, fr. économe)
- Begirune (gazt. consideración, fr. considération)
- Begitan hartu (gazt. aborrecer, fr. prendre en grippe)
- Begitandu (gazt. imaginarse, fr. s imaginer)
- Begizko/begi gaixto (gazt. mal de ojo, fr. sort, mauvais oeil)
- Begi zorrotz/begi argi/begi zuur (gazt. perspicaz, fr. perspicace)
- Betagi/betxuste (gazt. semblante, fr. apparence du visage)
- Betamin (gazt. cariaçado, fr. courroucé)
- Betaldiko (gazt. regular, fr. moyen)
- Betargi/begi bozkari (gazt. risueño, fr. rayonnant)
- Betilun/betabel (gazt. severo, fr. sévère)
- Betizu/betohil (gazt. hurraño, fr. sauvage)
- Betozko/bekosko (gazt. ceno fruncido, fr. froncement de sourcils)
- Betuste (begi+ uste): (gazt. consideración, fr. respect)
- Arrazoi du Oihenartek bildu zuenean
- Begi batez aski du saltunak, ehun eztitu sobera erostunak* (O.74)
- Halaber, bere gaitza ikusten ez duenaz da ari, ez itsuaz atsotiza:
- Ezakusan begik, nigarrrik eztegitik* (O.153)

Hizkuntza anitzetan bezala, *belar/bekoki/kopeta* gaitzespen kutsu batekin ausartzia da. Zuberoan bederen *belarre* esaten zaio bakarrik aberearen kopeta edo bekokiari. Auzoko hizkuntzek maila klasiko eta jasoko grezieran eta latinean, hartu dituzte beren esaldiak baina guk begiari garrantzi handia emanaz, ikusi dugunez, horren gainean anitz esaera sortu ditugu.

*Metaforak*

Teknologian ugari, baina zerrenda mugatuz hona batzuk.  
 Koloreak, apur, gutxi adierazteko: *zuri begi bat*, *gorri begi bat*  
 Tresnetan *Aizkora begi*, *aitzur begi*, *arma begi*, *oinetakoen begiak* (begiteak), *ontzi begiak*  
 Oihalek ere *oibal begiak* dituzte (gazt. cordonillo, fr. cordonnet) Orratzak  
 ere badu *orratz begia*.

Optikan begitik hurbilenik den lenteari *begitako* esaten zaio.

Eraikuntzetan *Begi leiho* (leiho txikia), *zubibegi* (gazt. arco, fr. arche), *tunel begi*. Hitz elkartuekin: *Belar/bekoki/kopeta*: eraikuntza baten aureko aldea daiteke: *etxe belar*, *etxe bekoki*. Kofoin/erlauntzek *erlauntza begia* dute.

Janarrietan

*Ogi begi* (gazt. hueco de pan, fr. trou du pain)

*Gaztanbegi* (gazt. hueco de queso, fr. trou de fromage)

*Urbegi* (gazt. burbula de aire en el agua, fr. bulle d'air dans l'eau)

Bakarrik, hizkuntza askorekin, bat gara *salda begiak* esateko (gazt. ojos del caldo, fr. oeil de bouillon).

*Botanikan, geologian, meteorologian*

Aurretik ikusi batzuek, bigarren osagaitzat *-begi* darabilte; zuhaitzak *adar-begiak* ditu, lursagar edo patatak ere *landare begiak* baditu, hurrengo urtean ernatuko direnak gariaren, patatondoaren emateko; palmondoaren goiko aldaska ere *palma begia* da. *Idi begia*, kamamila da, ez idiaren begia. Harriak *harribegiak*, eta iturriak *iturbegiak*. Politena, ejerrena da Zuberoan eguzkiari buruz dagoen alda-pari *ekibegi* esaten zaiola (euskara batuan *eguzki begi* daiteke). Begi forma daukako mintzaira gehienetan zikloiaren bihotzari, *zikloiaren begia* esaten zaio.

*Begira ez den begia* Latinezko *vigilatus* hitzak euskaraz *begiratu* eman du, zaindu eta "guardar" iparraldean, adiera duena. Eratorriak, *begirale*. Begi hitzetik datorrenean *soegile* eta *begiraturtik* heltzen denean *zaintzale/zaindari*.

Be-/beh-, belarri/beharri (lat. *auris, auriculus*). *Belarri* da euskara batuan eta hegoaldeko euskalkietan erabilia, *be(h)arri* Iparraldean eta Nafarroako leku zenbaitetan ere. Batzuk uste izan dute hasierako *b- bi*, zela; jakina bi belarri ditugu, baina ez bi bihotz, ez bi buru, ez bi buztan eta behatzak bi baino gehiago izan daitezke.

Belarriak ez dira neurri berdinekoak badira *belarridun/belarri handi* direnak, bestalde barruan *belarri zulo* edo beharri ziloan *belarri mintza/belarri atabala* edo tinpanoa dago, belarri hezurtxoak ere eta belarriak kanporaldera ematen ditu bere *belarri zakarrak belarri kaka*. Kanpoko aldetik belarriak *gingila* edo *parpail* txikia dauka beko aldetik. Kanpotik *belarrondokoa* dago, baina denbora berean *belarrietan ematen den zarta* adierazten du.

Anatomian belarriren eratorrizko hitzik ez dago, hitz elkartu gutxi, *belar-zulo*, patologian bat edo beste *belarriko min* (otitis) eta *beharrondoela* (parotiditis) baita *belarri gabetu*, *belarri moztu*, edo *belarri bakartu*.

*Belarritu* aditzik ez dago, baina *belarrinatu* bai. (ik. geroago behatu).

Gaitzen artean badago sineste uste dena *belarriko harra/belarri mamorroa*, benetan gertatzen dena eta Ipar Afrikan ikusi eta sendatu dudana, ezen euli batek arrautza *belarri zakarrean* erein eta eltxarra gara daitezkeelako *belarri ziki*-nean. *Belarritakoek* ez dute entzuten laguntzen gizonezkoak hasi zirenetik erabiltzen, eraztun eta metalkiak ez bakarrik *belarrietan* baina *sudurrean*, *ezpainetan*, *aurpegi osoan* ipintzen dituzte modako *piercing* bidez.

#### *Metonimiak*

Organoa jardueraren lekuan jarriz, baditugu auzo hizkuntzetan bezala, *belarriak itxita*, *belarriak tapaturik/belarriak gor/belarri eginik* dabiltzanak ez entzuna egiten dutelako, alderantziz *belarri ernai*, *ireki*, *paratu*, *tente*, *jarri*, *zabal*, *zorrotz* egon daiteke *belarria* eman guztien entzuteko. Baina, *belarri mingarriak/belarri kilikorra*, *belarri bete* ondoren, *belarri berotua* haserre daiteke. Bestalde zuk diozuna ulertzen ez duelako metonimiaz kanpotarraz esango da, *belarri motz/ beharri motz*.

*Belarri motza* da, izan dadin espainola, frantsesa edo ijito-bohamea; hedaturaz hogeigarren mendean, berengandik ez ulertuak izateko, iparraldeko ostalariek *belarri biribil* hitza darabilte magrebiarren aipatzeko. *Belarluzea*, txerria bada, *belarri luzea*, ordea, beti besteen zelatan eta entzun nahiz dabilena da. Beste hizkuntzetan horrelakoak ematen dira: antzinako Antilletan, txuriak beti beltzen erranak entzun nahiz, batzuetan jazartzen zirelako edo eskapatzen, beti haien entzun nahiz zebiltzan horregatik frantsesez *oreilles* baitira *belarriak Zoreilles* izena jarri eta gorde dute Reunion eta Karibe uhartetan. Honela erran zidan Lebreton frantsesak La Réuniongo uhartean.

Belarrien jarduerak antzinateko ahozko zibilizaziotan garrantzi handia eduki du Jaun Done Pauloren arabera « fides ex auditu » giroan bizi ziren. Belarriak, izan ere, bi jarduketa ditu bata adi egotea: iparreki aldeko euskalkietan “beha” egotea- eta bestea entzutea. Behatu aditzak horregatik bi esan nahi lituzke bata beharriekin adi egon edo begiekin. Zeletan begiz eta beharritz egoten da eta hortik letorke *begi-belarri* egon esaldia, oso erne adierazteko.

*Beitu* dion hegoaldekoak edo *behatu* nafar-laputarrek begiekin jaramon egiten du, *begiratzen* du, baina *behadi* dion zuberotarrak *belarriekin* kasu egiten du entzun nahi du. Aitor dezadan behin zerbait entzun zuela esan zidan bati, esan niola: *begiz entzun nahi nuela*, baina hori ez da beharbada esaera arrunta baina ausarta.

#### *Metaforak*

Bere itxurarengatik euskarak erdarek beti erabiltzen ez dituzten eran egiten du

*Belarri*: (gazt. bucle, hebilla, fr. boucle)

*Zare belarri*: (gazt. arco, carpanel, fr. anse)

*Golde beharri*: (gazt. talón de arado, fr. sep)

*Arrain belarri* (ip.), sakats: (gazt. agallas, fr. branchies)

*Oibal belarri*

Arrain-belarriak beste esan nahia badu barrabila, arraina baita arra horregatik euskaldunari ez zaio bitxi latinak dionean birjina beharrietarik izorra jarri zela.

*Gaude uirgo mater Christi/Quae per aureus concepisti.*

*Teknologian*

Zarek, otarrek belarriak badituzte. Andrezko bat enjogi, gogatu nahi baduzue gehienetan hobe da *belarritakoak/ belarri dilindak* eskaintzea ez eta *belarrondokoak* (belarrondoan jotzea).

Behatz (ik. hatz)

Behazun/behaztun (lat. *bilis*). Izen asko ditu, *behazun*, *bidaxun*, *behaztun*, *bedamin*, *betun* Latinezko *vesica fellea* da. *Behazun ziskuaz* gordetzen diren *behazun gatzek* berde kolore hori ematen diote, eta behazuna odol zaharraren desegitetik dator. Gatz horiek behazun harriak eman ditzakete. Behazuna *behazun hodi* batetik hestera husten da. *Behazun* hitza jarraituko ez dugun gimnastika batek latinezko *ficatum* (gibela) batetik dakarte *Bedaminek* azpimarratzen du garraztasuna, eta Zuberoan *gibelmin* esaten zaio zuzenean. Nolanahi gibelkia jan nahi bada beharrezkoa da behazunaren kentzea.

Garraztasun, samintasun hori dela-eta batzuetan metaforaz jende gibel beltzeko, errai beltzeko, urdail beltzeko alegia maltzurren izendatzeko erabili izan da. Ez baitira bakarrik janariak *behazuntzen* jendeen harremanak ere. *Behazuntsua* berriz ez da gaiztoa baina gibeletik gaixorik dena. Edo *behazuneria* daukana. *Bezundario*, gozagaitz izan daiteke.

Belaun (lat. *genu, poples*). *Be-* silabarekin hasi arren, ez gara ausartuko bigarren osagaiak zer adierazten zuen azaltzera. Hitz horren fonetika aldaera guti ditu *belain/belbain*. Belauna beheko gorputz adarrean izan arren *be-* hori ez da behe- ra adierazteko ezen *be-*rekin hasten diren hitzak goiko aldean baitira.

Belauna ez da organo handia, giltzadura baten lekua da, bi meniskoen, alde bietarik, eta hezur biribil bat izter hezurra tibia eta perone delakoei lotzen duen, gunean. Belaun hezur horrek euskaraz izen ugari du, baina hona batzuk erdaratik hartua, iparreki aldean, *errebola* eta mendebaldean *erredola* (cf. *rótula*, *rodilla*), *belaunkosko* eta *belaun katilu* eta *belaun bezur*, *belaun kabila*, *belaunburu*, *belaun muilo* esaten zaio, baina euskara batuan bakunki *belaunburu*. *Belaunpe/belaun azpi* (*gazt.corva fr. jarret*) leku batzuetan *izterzain* esaten da.

Organo horren bidez hiru zirkin mota egin daiteke, apur bat tolestuz, *gurtzea* edo *makurtzea*, aurrerago eta lurra joaz *belaunikatzea*, baina ahalaz *belaun gorritan* egin gabe atzera berriz *kokorikatzea*, *kuzkurtzea* Hala ere, beldurrez *belaun ikara/belaun dardara* izan dezakegu. Sinbolikoki, honela belauna apaltasunaren adieraziaz bete da, gurtzen denak jadanik bestearen begirunea salatzen badu, *belaunikatzen dena*, *belauniko egonaz*, menpean jartzen da

*Belaun gozo* (G.) lastertasuna da. Belauna biluz denean, *belaungorri*.



*Metonimiak*

*Belaunaldi/belaun* deritzo etxe batean amaren belaunetik igaro diren seme alabei, baina hedatzen da esan nahia jendetza handiago bati. (Erdarek kasu horietan jaiotaldi darabilte gazt. generación, fr. génération). *Belaunetxea* da leinu osoa eta bila daiteke *belaunburua*.

*Metaforak*

Auzoko arrotz hizkuntza batzuek “codo, coude” alegia ukalondoa izendatzen dutena, guk euskaldunok, batzuetan belaun hitzaz, hala diogu *kale/ karrrika belauna* eta teknologian *hodi-belauna*. Toponimian *bide belaunak* eta *mendi belaunak* badira

*Belaundu* aditza teknologian erabiltzen da, ohol edo harri-losa bat zuzen dagoen jakiteko erregela bat jartzen denean

Belar (ik. begi eta bekoki)

Bentrikulu (lat. *ventriculus*): Sabeltxo baten itxura daukana. Bihotzaren beheko bi hutsuneak, ezkerreko bentrikulua, eskuineko bentrikulua. Burmuinean ere hutsuneak bentrikuluak dira. (ik. sabel)

Besikula (ik. bixika, mixika, zisku)

Beso (lat. *brachium* edo *antebrachium*)

Hain zaharra da *beso* hitz hori haren eratorria ezin dugularik ikusi eta euskara osoan erabilia izateak ematen du ez dela mailegua edo bestela, latinaren eta erdaren aurrekoa. Jakina “o” batekin bukatzen da anatomiazko izen zenbaiten eran, *altzo, lepo, lolo, orpo, uko*.

Besoak zatiak ditu eta ondoren egituren edo jardueren arabera anatomiaz kanpo ere erabiliko da.

a. Lehen zatia, *besondo*. Eta hau gure bi erdareen aitzitik hitz eratorria da (gazt. brazo, fr. bras). Besondotik hurbil *besape/besazpi* dago eta *besagaina*. Humero hezurri *besondo hezur* deritzogu. Besondoa enborarrekin *besaburuan* lotzen da eta bi besondoak bi *besouztei* edo klabikulaz lortuak dira.

b. Bigarren zatia. Giltzadura, *ukondo/besaink/besakosko* geroago aztertuko duguna. Hor ez dago hezur bereizirik “kubito” edo ukondo hezuraren atzeko alde baizik.

c. Hirugarren zatia euskaraz *uko* edo *beso* hitz bakunez izendatuak dira (erdaraz alderantziz hitzelkartuz (gazt. antebrazo fr. avant-bras). (ik. uko).

*Uko* hitza, agian, besoaren hirugarren zatiaren izen bakarra izan zen, alde batetik *ukondoa* dugulako eta bi hezurrekin beste buruan *ukarai* (uko garaia), batzuk eskuturra (eskumuturra) diotena.

d. *Ukabila* da noski ukoaren azken zatia, eskua zerratzen denean erakusten dena eta eskua “biribil” eginaz.

*Beso-zain, beso gibar, eta beso hezur* (lat. *radius, cubitus*) hitzek besoaren barren alde adierazteko erabili ohi dira, halaber, *besondo hezur* edo *beso makila* (lat. *humerus*) eta *besondo zain*. Bi besoaren artean, *besartea* da.

*Metonimiak*

Anatomiatik jardueretara joanaz beso hitzak arrakasta handia izan du  
*Besagaintzen* da: besoak airean edukiz, harri edo palanka, zerbait jaurti-  
 tzen denean.

*Besapez* ibili daiteke, *beso-lagun* batekin

*Besapez/besapiz*: pilota jo zenezake

*Beso zabalka* jartzen harrera onaren egiteko eta *beso zabaletik* ereiten

*Besoz-beso* ibili daitezke maitaleak

Horizontalki gauza bat edo pelota hartuz *besazeharka* ibiltzea da.

*Besoak uztarturik*: besoak gurutzaturik

*Besakatzen* da “mimar”

*Besalege*: eskuz borrokan lagun batekin ibiltzea lurrera botatzeko da.

*Besarkatzen*: besoen artean hartzen

*Besangatzen*: bihurtu, erresistitu, kontraeutsi

*Besakada bat/besatara*: besoetan hartzen denaren neurria da

*Besarratu*: besoarekin jaurti

*Besoa*: garai batean luzetasun neurri egokia zen, ezen nahiz batzuek besteek baino luzexeago eduki, ez zen tresna beharrik neurtzeko “eskupean” zegoen. Guk *beso besabete* erabili badugu gaztelaniak “*codó*” eta frantsesak “*coude*” nahiago izan zuten. Bestalde, besoaren herenaz euskaraz *besazudu* zen eta erdia *besaerdi*.

*Besoetakoa*. Aita, ama ala *haur besoetako* esan daiteke, ezen ugazaita eta ugazamek hurrek bataio pontearen gainean besoetan eduki dutelako eta haurra besoetan edukia izan delako. Ez gabiltzalako jantzirik gabe, askotan, beroarekin *beso-has*, *beso-huts*, *beso-gorri* jartzen gara mahungak altxatuz.

*Beso*, euskaraz eta beste hizkuntza, askotan, lanaren metonimia da, langilearena. *Besoen beharra*, ez da aski besorik Gainera, euskara dakitenek langileriak antzina zeukan klaseari *Heren besoa* diote; frantsesa imitatuz, herri xumearen aipatzeko, *Heren Estadu* hitz desegokia darabilte besteek. *Beso* hori ez da bakarrik eskuz lan egiten dutenen lana aipatzeko, erdaretan bezala, Elizaren edo Agintarien aginpidea adierazteko ere erabiltzen da.

Eskubidearen itzalean ukabilak badu bere esan nahia. Zuberoan behintzat zin egiten dutenean ez dute eskua fazisten gisa altxatzen, baina *bi ukabilekin bekokia jotzen* eta *Ene fede*a esaten; hau zen jakina euskaldun zaharren zirkinia, erdaldunen beren ohitura sartu arte.

Ukabila dela-eta. Bestalde erdaldunen gisa, zerbaiti, norbaiti amorematen denean eta armarik ez erabiltzeko alde bietarik *eskuak jaso* behar dira; gerrate presoei eskatzen zaie gero *eskuak buruan* ibiltzea, eta hori eskola umeen zigorra izan da ez du aspaldi. Gainera horretan gaudeino *besabilurrak* ez dira bakarrik abereei ipintzen atxilotuei ere bai.

Jakina, ukabila norbaiti buruz zuzentzen denean borroka eta mehatxu desafioa dela, eta *ezkerreko ukabila* airean jasotzea borroka orokor baterako seinalea dela. Badira besoarekin egiten diren beste zirkin batzuk ez hain politikak, erromatar eta erdaldun mundutik ikasi ditugunak besoa tolestuz eta beste eskua tolesduran sartuz.

*Patologian*

*Besamotzak* badira, bi besoez *besogabetuak*, elbarriak daitezkeenak eta *besobakar*, *besobakotzak*, batekin baratzen direnak, oraingo gerretan erabiltzen diren pertsonen aurkako minek (garai batean Eibarren edo Gasteizen eginak), milaka besamotz egin dituzte jadanik Afrikan eta Asian. *Besagabeak* ere jaio daitezke besorik gabe.

Beso minduna jakina eskuaren erabilera oztopatzen denean eragozle handia da, baina Oihenartek idatzi zuen

*Beso minduna bulbarrean, zango eria ohatzean (0.97)*

*Metaforak*

*Anatomian*: kuadrigemeloaren besoak (giharra), vermisaren besoak

*Botanikan*. adar lodiak *besoak*, *besakak*, *besangak* dira eta adarrak moztu diren lekuei besondo deritze.

*Teknologian*. *Beso*, palankaren lekuan erabiltzen da motorren eta altzarien hiztegian: *hodi beso*, *aulki beso*, *transmisio besoak*, *enbrage besoak*, *auspoaren besoa* eta beste. Tresnetan ere diskoen entzuteko *pick-uparen besoa*. *Besaulkia* jar leku goxoa bada, handik zutitzea kostatzen eta bizkarrarentzat ez da beti ona. Eusgarri edo zurkaitz bezala zur bati eskalera bati ipintzen zaiona: *habe besoa*, *eskailer beso*, eskaileraren barandilla eskailera *besatokia* da; gurdi baten saihetsean ere *gurdi beso zutak* daude edo *frutaondo besorakoak* horma bati eta egurrei arrimatuak direnak. Jostunek ere, *jantzi besoak* egiten dituzte edo *besogabeak* ere. Antzina, haize errotek besoak baldin bazituzten hala dira gure eolikoak *haize besoz*.

*Sinbolikan*: baita geometrian, *gurutzearen besoak*, *lauburuaren besoak*.

*Geografian*: *itsas besoa*

Be-dun abereen izenak

Bi abere urriza handiek *be-* daukate lehen silaban, *behi* eta *behor* (ohargarria heure arren izenak “z” az hasten direla *zezen*, *zaldi*) Protohistoriak darakutsan bezala, pottoka edo betizu izenez ezagutzen ditugunak Euskal Herrian aspal-didanik daude. Ikerketen arabera, pirinoetan ez zirudin zaldiak jaten zirela, baina, haien haginak eta hezurak erabiltzen. Orainarte, euskaldunek ez zuten zaldia, zamaria jateko ohitura. Nahiz Georges Laplace prehistorilariak Isturitzeko marrazki batean kabestrua ikusi ez da ziur indoeuroparrak baino lehen hezia izan zela.

Edonola, Barandiaranek bildu mito ipuinetan, artzainen garaikoetan, *behia* eta *behorra* andere jainkosaren (Mariren, andrearen) itxura izan zitezkeen J. M. Barandiaranen *Mitología vasca*, 80.) Beraz, animalia garbiak, sakratuak andereak

kutsatzen ez zituztelako Zuberoan andreen ardurakoak izan zitezkeelako (zezena eta zaldia ere), alderantziz ikusi dugu *ar-* aurrizkia daukate abere lizunak, ezgarbiak, baitezpada, benedikatu beharrak direla eta antzinako Euskal Herrian lehen hazietan dira.

Antzinateko irudimendun mitozaleek erdi aker eta erdi gizon jendeak bazirela uste zuten, halaber erdi zaldi, erdi zezen zirenak. Euskaldunen artean ez da horrelako bizidun kimerarik aipatzen, *zaldikoa* edo *zamaltzaina* erromatarrek ekarri ziguten baina horien jatorriaz ez dago ipuinik.

*Behorra* (lat. *Equus caballus* L.?)

Behorra astarrarekin eta astama garainoarekin (zaldi arrarekin) kurutza daiteke eta jenderi gertatzen zaiena gogoan animalien gertaerak darabilkigu batzuetan andere ederregiei gertatzen zaiena irudikatzeko, hala zion Oihenartek bildu esaerak, ezkerreko haurrak zituela gogoan:

*Mandoa nor duk aita?*

*Bortuko behor ederreña, ama.*

Behor hitz eratorri eta elkartuetan *beho-* bilakatzen da. Hitz eratorrien artean badago *behotegia* (zaldi eta behorren tegia); behor gazteari esaten zaio *beho-ka*. Badakigu, zuberotarrek Ebro aldean erosten zituztelako zaldiak *podra* eta *potro* esaten dutela behor kumei. Antzina, behorra lanerako, bidaiarako (andreen zaldia) erabilia zen, ez gerrarako zaldi arra bezala.

*Behia* (*Bos domesticus* L.?)

Gure herrietan, bederen, ez dugu behia beste mota batekin gurutzatzen, nahiz zebu edo iak edo honelako behikide batekin egin daitekeen Behi gazteari adinaren arau, *txabal* urriza, *bigaia*, *bigantxa*, *behi gaztea* deritzo. Hitz elkar-tu eta eratorrietan behi *be-* bilakatzen da *bekorotz* (behi+gorotz) edo *bet-* hala nola *betzain* (behizain,) *betalde* (behi+talde)

Beltz, beltzaran (lat. *niger*)

Badakigu, hizkuntza askotan animalia baten izenetik sortu zela kolorea, halaxe *urdin* argiari errusieraz *golubi* esaten zaio *columba* usoaren latin izenetik. Euskararen kasuan, uste dut, hegazti batek *beleak* eman digula *beltz*, Euskaraz bezala errusieraz *beltz*, bele hitzetik dator *goroñ* bele da *goronoi*, *beltz*. Gainera erromatarren garaiko harrietan irakurtzen ditugu *belex* eta *belste* hala nola, Gordanen aurkitu *Baeserte deo Harbelex Harsi filius* euskarantzeko hiru hitzen lau hitzen artean *belex*. Hona zer zion Mitxelenak «*Belex es frecuente en las inscripciones aquitanas tanto en posición final como inicial: Beles Belexconis gen. CIL. 167. Según la opinión más extendida puede ser aproximado a ibérico beles y a vasco beltz*».

Mendebaldeko *baltz* Erdi Aroan ere gehiago agertzen da “Comite Nunno Balza 984 en San Millan in Luis Mitxelena T.AV. p. 41).

Ilearen eta larruaren koloreak zehatzago emateko *beltzaran* sortu da, beltzaranak ez direlako Afrikako beltzak. Bide horretan euskarak bere ñabardurak

baditu, batik bat, Ekialdeko euskalkietan *beltxa* «mulato» da, *beltza* “negro”, gainera larrua dela-eta bereizten dugu *larrargia* (larru+ argia) eta *larbeltza* (larru+ beltza). Egia da moda dela hondartzetan batzuk *larbeltzatzen/beltzatzen* direla behin behineko *beltx* ia *beltz* bilakatuz.

Beltz hitzak anatomiaz kanpo eta biologiatik urrunduz erabilera arrunta du gauaren adierazteko nahiz gau guztiak ez diren beltzak.

#### *Metaforak*

Oraino, aurpegiaren zerbait ikusteko du norbait *beltzuri* (muzina, aurpegi txarra) egiten duenean. Baina, gero, psikologiara igarotzen gara diogunean norbait *belzten* dugula, baina berdin kaltegarriak dira *zurikeriak*, *belzkeriak* adina. Oroi gaitzezen gogoaren *beltzuneak/beltzaldiak* egun *beltzetan* ez zaiela beti estres izena eman beharrik. Herioa betiko gauarekin lotuz, esatera da euskaraz Ekialdean *Herio beltza bezain itsusi*. Hala ere erdarek “negro, noir” diotenean geuk askotan *gorri* diogu, urrunago ikusiko dugunez.

Zuberoako maskaradetan *beltzak* kanpotarrak dira, bohameak, bearsesak, (zikiratzailleak) Auverniakoak (pertzegileak) eta euskal Herri osoan hegoaldeanago bizi denari *bezur beltz* izena ematen zaio. Nahiz gehienak txuri izan zisneari *beltxarga* deritzogu

### III. Bi-rekin hasten direnak

*Bidar* (lat. *mentum*). Ekialdean hitz zaharkitu hori erabiltzen dugu *okotsa/kokotza* esateko (okotsa metafora berriagoa dirudi). Jadanik, Oihenartek erabili zuen 32. olerkian andre batez zionean *Perla butsez bidarra*. Okotz, adierazteko. *bizar* hitzaren aldaera dirudi. *Bidazpe* da kokotspea, baina handitzen, bikuntzen eta erortzen denean *bidakürü/bidakiün*. *Bidakürü* txerriengan ederrago dena jendetan baino. Metafora bakarra laratzarena da, esaten baitzaio gaitzizenez *bidar oker*.

*Bihotz* (lat. *cor*). Ez gara luzatuko hitz hori nola sortu zen asmatzen, batzuk “bi-hots” etik datorrela diote, baina sendagile ez zirenen artean hain argia ote zen bihotzaren “pun-ta” hotsa; besteek *bigotz* ere aurkitzen delako gogo hitzarekin uztartu nahi lukete. Antzinateko pentsamenduetan Asia hurbilean eta Grezian pentsamenduaren lekua zela uste zutela eta euskaraz ere sentimenduena, lehen uste nuen, *bizi-hots* izan daitekeela, bihotza taupadaka dago-eino bizi garelako, baina aspaldiko hitzen etimologia egitea arriskutsua da.

#### *Anatomian*

Bihotzak zatiak ditu, *erdiko paret*a batek bereiziak gero bi erdietan goiko aldetik *belarriñoak* eta behekotik *sabeltxoa edo, bentrikuluk*, barruan *balbulak* dituztelarik. Bihotza ez da barrenean kurritzen den odolaz baliatzen, horretarako *bihotz zain koroa* dauka bere inguruan. Bihotza, *bihotz giharra* da miokardoa, baina azalean badu *bihotz sarea*, perikardioa eta *bihotzbarruko azala* endokardioa eta barruko inerbazio sarea.

*Fisiologian*

Esan ohi da bihotza ibiltzen dela, *bihotz taupadak/bihotz talkak* entzutean, pultsuaren hartzean. Metaforaz aipatzen da *bihotzaren errota/ bihotzaren eibera*.

*Patologian*

Herri jakituri askotako (Europa, Ipar Afrika) ezagutza akatsa da *bihotzarre*, *biozterre biotzerri*, organo horretan lekutzea, ezen urdaileko mina da *dispepsia*. Benetako bihotzeko minak ugari dira bihotzeko zainak, bihotz kanpoko nerbioak, bihotz barruko nerbio sarea, belarriño eta sabeltxoen arteko balbulak direla-eta, hamaika gaitz daude.

*Metonimia zabarrak eta gaurko metafora psikologian*

Nahiz dakigun burua dela horretan nagusi, antzina sentimenduak bihotzean zeudelako hitzak eratorriz eta elkartzuz. Ja, Akitanian aurkitu erromatarren garaiko harri batean *bihoxus* “bihotsu”, “bihoztoi” esateko agertzen da, baita *bihoskin* ere. Hiztegi hori ez da aldatu. Hiztegi zabala eman du: izen, izenlagun, aditzondo:

- Bihotzaldi/bihozkada “corazonada, émotion prolongée”
- Bihotz apal “sumiso, pusillanime”
- Bihotz altxagarri/bihotz ernagarri “confortante, réconfortant”
- Bihotz beltz “perfidio, perfide”
- Bihotzbera/ bihotz guri “tierno, tendre”
- Bihotz bigun/bihotz samur “compasivo, compatissant”
- Bihozdun/bihoztoi, bihotsu/bihozti “valiente, courageux”
- Bihotzeko, “querida, aimée”
- Bihotz faltsu “traidor, traître”
- Bihotz gaizto “falso, fourbe”
- Bihotz garbi “casto, chaste”
- Bihotz gogor/bihotz gabe/bihozbako “despiadado, cruel”
- Bihotz handi “generoso, généreux”
- Bihotz hestura “angustia, angoisse” bihotz hestu “gazt. inquieto, fr. inquiet”
- Bihotzil, “triste, triste”
- Bihozki/bihotzez “cordialemente, cordialemente”
- Bihozkoi “emocionante, émouvant”
- Bihozkor “cordial, cordial”
- Bihotz mehe: koldar “cobarde, couard”
- Bihotz min “pena, peine”
- Bihotz on/ bihoztzu “generoso o valiente, généreux ou courageux”
- Bihotzondoko “sentimiento profundo, sentiment profond”
- Bihotz suar: “brio, enflammé”
- Bihotz urri: “tacaño, peu généreux”
- Bihotz zikin “corrupto, fr. corrompu”

## Aditzak

Bihotz berotu “animar, prendre courage”  
 Bihotz eman “animar, encourager”  
 Bihotz eraiki “reconfortar, réconforter”  
 Bihotz erori “desanimar, décourager”  
 Bihotz galdu/ bihotz apaldu “desanimarse, se démoraliser”  
 Bihotza piztu “despertar un sentimiento, réveiller un sentiment”  
 Bihotza ukitu “emocionar, émouvoir”  
 Bihotza urtu “emocionarse, s’attendrir”  
 Bihotza urratu/bihotz erditu “desgarrar, déchirer”  
 Bihotz zaletu “apasionarse, se passioner”  
 Bihotzar “cordial, cordial”  
 Bihotza kemenaren kuraiaren irudi zaharrak bere atsotitz polita  
 du koldarraz, lotsorraz, Oihenartek bildua:

*Eskuak ditu oinetan eta bihotza zangoetan* (O.515)

Halaber, J.P. Ulibarrik Hiztegian 27 A *Ac biotzon*, “ten valor”

Gero, kalitatetara igaroaz izenlagunekin eman dute *-tasun* atzizkiarekin *beratasun*, *bihotz berotasun*, *bihotz biguntasun*, *bihotz handitasun*, *bihotz zabaltasun*, *bihotz zikintasun* -keria atzizkiarekin *bihotz belzkeria*, *bihotz faltsukeria*, *bihotz gaiztokeria*, *bihotz gogorkeria*, -dura atzizkiarekin *bihotz urradura*, *bihotz pizdura*, *bihotz ukidura* —garri rekin *bihotz altxagarri*, *bihotz pizgarri*, *bihotz berogarri*, *bihotz urragarri*. *Bihotz-bihotzetik*: bihotz barrutik. Guztiengatik Oihenartek ematen digu atsotitza.

*Bihotzaren beargile mibia* (O. 101)

*Metaforak*

Bihotza gorputzaren erdian delako, metaforaz gauza askoren erdia izan daiteke eta *erreaktore bihotz* baino zaharragoak ditugu, *adarraren bihotz*, *fruta bihotz*, *gazta bihotz*, *baragi bihotz*/*barapibotz*, *lur bihotz*, *mendi bihotz*, *ogi bihotz*, *zuhaitz bihotz*, *zur bihotz* (aurretik ikusi dugu denek *begiak* zituztela. (Zuhaitzaren bihotza aipatu dugunez XV. mendeko erezia dio “*Haltzak ez du bihotzik*”, baina botanikan badakigu, *haltzak* bihotza duela eta *sahatsa dela bihotzik ez duena*, baina noizbait, bertso lerro zuzenaren emateko *sahatsa hitzak silaba bat gehiegi zeukan*.

*Teknologian*

Bihotz itxurako piezei, bihotz esaten zaie (*bihotz kurbak*, *bihotz lebak?*). Alderantziz bihotza metaforatua frantsesez eta gaztelaniaz *patata* mugimendu gabe-koa bada, euskaraz *errota/eibera* da, bizi deino gelditzen ez delako. Nahiz ez den bihotz gorputzaren erdi-erdian lauki baten edo *kubo baten bihotza* aipatzen da eta *lurraren bihotza* esaten dugunean leku nahiko zabala eta lausoa izan daiteke.

Erdararen kalkoz ere *neguaren bihotzean*, edo *gauaren bihotzean* irakurtzen da, baina non dago bihotz hori? Euskaldun zaharrek *negu minean* eta *gauaren minean* diote, oraindik.

Bilgor/milgor (lat. *sebum*). Gehienbat, ardiaren gantza honela deritzo ez delako urtu erraza *bil* “meta” eta *gor* “gogor” erroekin eginik dirudi (gazt. sebo, fr. suif). Bilgorra urtu ondoren *ziboa* ematen du. *Gilbor* hitz horren metatesia da, baina *sabelandi* adierarekin.

*Bilgorreztatu* aditza badago, ezen bilgorra oinetakoen urari iragazgaitz egiteko edo hotzarekin eskuak azkordinez eta larru arraildura edo iharduraz gorritzen eta zimurtzen direnean erremedio ona da. Animalien zaurietan eta erreduretan ere erabiltzen da eta jendeekin herri txiroetan *zibo* gisa sendagai-lua da. Metaforaz erran daiteke eta idatzi da: “*liburu horrek bilgorra gehiegi dauka* beharrik gabe gizenegi denean, apika nire kasua da.

Biriak, birikak (lat. *pulmo*). Enborreko bi erraiak, *bihotz* eta *birika*, silaba berdinez hasten dira. Hitz zahar honi etimologia bilatzeak ez du merezi. Bakarrik jakin behar da Gipuzkoako ahoskera arruntez bideari *biria* esaten dutenak, pulmoari, bereiztekotan, *birika*.

Ekialdean, Erronkarin, Zaraitzun Zuberoan eta beste leku batzuetan “errai” eta “gibelerrai” esaten zaio, nahiz errai hitz orokorragoa eta nahasgarria izan. Hitz, gehienetan, anizkian erabiltzen da. Bestalde, abereen birikak jaten direlako *birikiak* esaten zaie edo batzuk *biri* (jatekoa) eta *birika* (bizirik dagoena) bereizten dute edota *birika* diote animalientzat eta *pulmoiak* jendeentzat.

Birien zatiak, trakeako arteria “heste gorria”rekin hasten da, gero bi biri adar, “bronkioak” biri hodietan sardekatzen dira azkenik *hoditxoak* eta *albeoloak* emanaz. Aire leku horien paraleloan odol zainak berdin adarkatzen eta sardeztzen dira biloak baino meheago diren *bilo zain*, *kapilarrak* emanaz.

#### Patologian

Biriketako kongestioaz agudo larri ibili daiteke, sukar handirekin eta hil, gaitz hori askok alborengoa diote, edo alboko mina (lat. *pneumonia*). Biriketako tuberkulosia, biriteriak izen asko ditu, bitxiena latinezko esaera bat zubereraz *pro beniste*, nonbait medikuei entzuna. *Altzairuzko birika* deritzon makina erabili izan zen arnasaren lagungarri, orain beste sistemak daude eta horretarako, asmatikoeak sakelako bomba dauzkate.

#### Metaforak

Apika, jende lasaiegiak patxadaz, arnasa ongi hartzen duelako esaten zaio *birika handikoa* (apático, zainhil, lazo) dela edo *birikak leku onean* dauzkala, alde-rantziz, *birikak leku txarrean* izateak, jende bizi eta bizkorregia sala lezake. Alde-rantziz, amorratzen dena *birikak jaten* dabil.

Euskaraz, ez dute birikek eta arnasak metafora asko sortu. Greziarrek bai, ezen haientzat birikak *arimaren lekuak* ziren eta olinpiar jokoetan egiten ziren ari- ketak, lehiaketak biriken hobetzeko eta arimaren edertzeko ziren, batzuetan ere gerrateen ekiditeko. Nola nahi ere, azken urteetan ingurugiroa dela-eta: Oihanak *izadiaren birikak* dira. Euskal mendiak gure *hiritarren birikak*. Alderantziz, biri- kez metaforak egin dira. Hizkuntza askotan *hauspoak* dute bigarren izena.



Bizar (lat. *barba*). Aurpegiko ilea. Ez gara sartuko *bi*-ren ondotik dagoena-*izar* ala *-zar* ala-*ar* den, nahiz arraren apaindura den gehienetan. Bestalde, Izar errimogatik eske kantuak hurbildu ote du?

Errekondoan lizarra  
Goian zeruan *izarra*  
Etxe hontako nagusi jaunak  
Urrezkoa du *bizarra*.

Hitz horrek *bixar* txikigarriaz kanpo ez du aldaerarik. Errege eta gudarien apaindura da Jupiterrek eta Kristauen Jainko Aitak *bizarra* daukate, Poseidon, itsas jainkoak, Hephaistos olagizonen jainkoak ere, *bizarra* badute. Euskaldun *bizarpetu* edo *bizargabeko* gizonari ez zela fidatu behar uste zuten, eta ihes egin behar zela haiengandik nola kutsutik:.

*Gizon bizar peituti*  
*Eta emazte bizartzuti*  
*Ihes egik nola kozuti* (Oihenart 193. atsotitza)

Lehen lerroan, usteak erdia ustel du, ezen gure Bilbon jaio ezpain *bixar*-dun kaltegarria aski ez bagenu, Hitlerrek eta Stalinek *bizarra* zeukaten eta heurrei fidatu bagina jai genuke. Bigarren lerroan II56.urteko nafar dokumentuetan *Tota Bizarra* andrea agertzen zaigu, bere izenarengatik ondorengo oroimenera igaro zaiguna.

Bizar motak ere badira, biloa honela, *bizarra* horrela, *bizar urdin/ bizartxuriak*, *bizar beltzak*, *bizar latzak*, *bizar gorri*, *bizar motx*, *bizartzar*, baina antzinako fisiognomoniaren ondorioz, bizarraren koloreei psikologia lotura bat ematen zaio Euskal Herri osoan: *Gizon bizar gorri/ Ez fida horri*. (Zuberoan). *Gizon bizar gorri,/ aldara bidetik horri* (L.); *Bizar gorri,/Bide orri* (Gipuzkoan).

Beste koloretako bizarrek ez dute arrakasta gehiegi, *Gizonak bizarra xuri/tirrit hori* (L.) *Gizonak bizarra beltz/ atea horri hets* (L.). euskaldunen artean zer kolore tindatu behar ote zuen *bizarra* gizonak onartua izateko?

Azkenean, ez dago besterik *bizarra egin/bizarra kendu/bizarra moztu*, nahiz eguneroko aspergarria izan. Edo beste bati utzi egiten. Jakina, *bizarginek/ bizargilek/ bizar kentzaileek*, *bizartegietan/bizar-etxeetan* lan egiten zuten eta *bizar laban/bizar nabala/bizar aizto* batekin kentzen, orain, guk *bizar* makinaz edo elektrikaz etxean egiten duguna; baina denbora zaharragoetan *bizargilea* kirurgia egilea ere zen eta barberu izena ematen zitzaion.

*Anatomian*

Aberekin, titidunekin, ere *bizar* hitza erabili daiteke, katamotzarena, katuarena, itsas otsoarena, bisontearena

*Metaforak*

*Psikologian*

Gure eresi zaharretan ere *bizarra* artasunaren, kemenaren ikurra da. Hala xe, Arrasateko erreketan *Aen bizarrak ikara zirean!* (L. Mitxelena TAV 3.7.1). Eta

Getxoko jaunen leman *Kaltea dagianak, bizarra lepoan* (L. Mitxelena TAV. 3.3.I.)

Bizarra, izan ere, ikur eta sinboloa zen eta aitaren bizarra ez zuen umeak tiratu behar ezen errefracuak dio Oihenarten 22I. atsotitzean dio *Haur nigar egin nabiak aitari bizarra tira*.

Bizarra ez da bakarrik kemenaren ikur, hiztegian kemenaren metafora bezala eta ordezeko bezala erabili litekeena *andre horren bizarra* diogunean, erran nahi luke, neska kementsua dela aurpegiko bizarrik izan gabe. *Bixar guria*, gazte harroxkoa da. *Bixar motxa* esperientzia gabekoa da. Bizar, bizar! beharbada italierari eman genion *bizarro* eta hark gaztelaniari *bizarro* (kementsu) eta frantsesari *bizarre* (bitxi). *Bizardunari*, euskara galdu lekuetan, ez al da *bizarro* esaten? *Bizarro*, *bizardo* bestalde euskaraz lekuka eskuzabal adierazten du.

#### *Biologian*

Jendeen aurpegiko edergarri hori, hari antzeko eta multzoan agertzen diren landaretan egiturak bizar izendatu dira *artabizar*, *sagarbizar*, *gari bizardun*, *galbizar* eta beste. Landareen izendatzeko ere badago *Aker bizarra/auntz bizarra*, *Eper bizarra*, *katu bizarra* (Nigela). Ildo pizarra. Arrainen hiztegian mendebaldean *arrain bixarrak*, *arrain txikiak* dira, eta *bizardaki*, *legatz bixarrak*, *legatzaren kokotsak* lekuka.

#### *Teknologian*

Aiztoaren ahoari lekuka *bizar* edo *abo-bizar* deritzogu. Bestalde altzairu pieza baten akatsak izendatzeko erabilia izan da “*Bixarrak kentzen jarri nabe gubill zabalakin* (T. Etcheberria, *Lexicón*, I76.or)

Bizi (lat. *vita*). Hau litzateke *b*-osagaiaren iturria edo erroa. Lehen osagaia *b*- bada bigarrenak *izan* aditzarekin zer ikusia luke honela *bizi izan* pleonasmoa litzateke, nahiz badiren izaten direnak *bizi izan* gabe. Euskaraz, bereizten da biologiaren adigaia *bizia* eta moralaren eta gizartearen adigaia *bizitza/bizitze*. Badirudi *bizitu* eta *biztu/piztu* jatorri berdinekoak direla eta biak suarekin, beroarekin lotuak, jendeak legez suak ere hiltzen direlako eta pizten.

#### *Biologian*

Biologiarekin lotuak diren hitzak hauexek liriateke

Bizialdi, biziario: biziaren zatia

Bizidun: mikrobio, landare, animaliak

Bizigarriak/bizigailu: jatekoak, edatekoak, airea

Bizia ematen digute amek eta *bizia gaitzez*, *istripuz* edo *gure buruz galtzen* dugu.

Bizi ernalkari: ugaztunen kasuan umea amaren barnean egonaz, *biziernal-kari* da ama

#### *Metonimiak*

Jende *bizia*: jende ernea *ibiltzailea*, *langile perestua* da, *bizitasuna duena*

Jende *bizkor/pizkor*: beti *erne dagoena* *zerbaitetarako*

*Metaforak: bizitzaz, biziaz*

*Bizialargun*: *senar* edo *emazteak utzia*

Biziarauemaile: morala  
 Biziarauak: ohiturak  
 Bizibeharra: bizi sena  
 Biziberritu: gauza edo jendea berpiztu  
 Bizibide/bizipide: lana edo beste diru iturria  
 Biziera/bizilege: bizi molde, bizi baldintzak  
 Bizi izan: gizartean gertatu  
 Bizikide: zurekin bizitzen dena  
 Bizikor: bizi irauten duena, ez hilkor  
 Bizilagun: zure etxean bizi dena  
 Bizileku, bizitegi, bizigia/ bizitza: egoitza, etxea  
 Bizinahi/ bizigura: langile iaioa

(Bizinahi XIII. mendean. Nafarroan norbaiten izena da L. Mitxelena TAV.)

Bizipen: eskarmentuak  
 Bizitasun: bizkortasun  
 Biziterri: bizi den herria  
 Bizitiar: etxeko edozein bizizale  
 Bizitza: etxe baten zatia  
 Biztanle: bizizale

Belak bildu atsotitz batek dio eta gure zaharrek bazekiten bizi gabe ez dela bizitzarik:

*Bizitze gaitzak, bil nabia* (Bela 6.)

Baina Oihenarten atsotitzak erantzuten du:

*Bizi adi ongi onareki(n), eta ez hadila alborota gaxtoareki(n)* (O. I03)

Gero Europa osoan ezaguna den atsotitzaren euskal oihartzuna ematen digu Oihenartek:

*Erradak noreki bizi (h)izan, nik, hiri gero, nolako (h)izan* (O.I49)

Aditzlagun edo izenlagun baten egiteko “bizi” bigarren osagaia izan daiteke, aldia, denbora adierazteko: *lebenbiziko, berebiziko, enebiziko*.

Hiztegian euskarak azpimarratzen du biziak argiarekin: *argi bizia*, beroarekin: *su piztu eta bizia* eta suarekin: *gar biziak* duen harremana.

Biziaren min nagusia heriotza bada, Josean Artze olerkariak idatzi bezala badago *min bizia*; euskarazko hitz ezinago egokia ezen zelulari bizi gehiegiz, biderkatze larregiz, gertatzen delako.

Bizkar (lat. *dorsum*). Hitz hori nondik datorren batzuk latinezko *bis* “bi” rekin lotu dute baina bizkarra bi zatitan bada ere eta bularra ere, nahiz hau *bi-gabe*. Gaskoiez teilatu *biscarra bisqueira* esaten bada, hitz bakartia da hizkera horretan eta beharbada euskaratik letorke, gainera gaskoiera sortu baino lehen IX mendeko leku izenetan agertzen baita.

*Anatomian* Aldaera gutxiko hitza da. Garai batean euskara galdu lekuetan oraindik txerriaren bizkar hezurrari erdaraz diote el *biscarrasul* Araban bizkar hezurrari eta jende konkor txiki dunari *biscarro* ere. Abereen okela edo haragitan *bizkarkia* sarritan hoberena da.

Eratorriz eta anatomiako hitzak gutti: *bizkar bezur*, *bizkar muin* (*Spina dorsalis*).

*Fisiologian*. Bizkarra zertarako den hiritarrok eta europarrok ahaztu egin dugu, ustez eta inork ez duela bizkarrean zamarik erabiltzen. Jakina, portuetan, orain, kontainerrekin *zamaketari* gutxiago dago, baina munduan zeihar zama *bizkarka* derabiltzen jendeak, agian, animalia *zamariak* bezainbeste lirateke. Askotan, ez gara konturatzen gure gorputzaren ardatz horri ez diogula nahikoa begirune erakusten, nolanhika esertzen, jartzen eta etzaten garenean

*Patologian*. Konkordunari izen asko ematen zaio (ik.konkor) *Bizkarreko mina* gure mendekoak ditugu, artrosiak *bizkar-bezurreko min*, lonbalgiak *bizkar-giharretako min* eta beste gure ordenagailu eta beribilen artean irabazi ditugunak merezi ditugu. *Bizkarreko minbizia*, Potten eritasuna da.

#### Metaforak

Parasitoak. Zure *bizkarrera* lotzen diren bizidunak *bizkarkor* dira, baina luzaroan indarrez hustutzen zaituztenean eta zure *bizkarretik bizi*, *bizkarkin* eta *bizkarroi* bilakatzen. *Bizkar-gainean* dituzun zorrak ere ez dira errez jaurtitzen eta heurei *bizkar ematea* ez da batere erraz. Justiziak *bizkarreratzen* dizkizunak ez dira errez zuritzen. Zure *bizkarretik* dabilzanak ez dira beti zure kalterako, nahiz zoritarrezko *bizkartzainak* geroago eta ugariago eta beharrezko diren politikan, hobe litzateke denak arabarren *bizkarzorro* batekin mendian ibil bagintez, “*moxtila*” erdaldunei utzirik.

Mendiak. Mendi *bizkartsuetan bizkarguneak* daude eta bizkar asko den lekua *Bizkaia* izan daiteke. Iparraldean jende izenetan Bizkai maiz agertzen da, baina garai batean “euskaldun” hitzaren adierazkidea izan zen. Leku izenetan, XIII. mendean *Astabizkarra* eta *Mutiloabizkarra* agertzen dira.

Itsasoa. Itsasoaren azalak badu, euskaraz *itsasoak bizkarra* du. Itsasontzien garraiatzeko. XIX.mendean Arbelbide iparraldeko idazleak idatzi zuen “*Leiborreko bideetan bezala, itsasoaren bizkarrean eman zioneko, erdi bi egin zen itsasoa*”.

#### Eraikuntzak.

Teilatuak, bizkarra daukate: *teilatu bizkar*, *hegatz bizkar*, hegatzaren goreneko habe edo gapirioa *bizkar zurra da* eta gainean dauden arbel edo teila lerroa. *Bizkar zurra* ipiniz zuraia bukatua denean *bizkar besta* egiten da.

Altzariak. Aurretik ikusi dugu aulkiak besoak dituela eta *besaulki* direla, *zangoak* ere dauzkatela baina *aulki bizkarra* ere badu gehienetan, zizailua edo kadira bada, jarleku batzuek aulkiek ordea ez dute beti bizkarrik. Beraz eserlekuak, erdaretan bezala, metaforaz biziduntu ditugu.

Botz (ik. aho, ahots)

## 7.3

## Bu-rekin hasten direnak

Bular (lat. *pectus*). Aldaera batzuk ditu: *borar*, *bolar*, *burar*, *buler*, *bulhar* hedatuena *bular*. Bi sexuek bularra daukagu, baina andreena garatuago delako bartzuetan, nahiz beste izenik izan, *bularrak* esaten da.

Hitzaren hasieran *b*-ospetsua dugu gero, baina buru hitzean bezala *bu-* borobil adiera batekin, ezen behintzat andrezkoenak aski borobilak diren. Bigarren osagaia *larru/larre* daiteke hedadura adierazten duena hala nola bekokiaren beste izenean *belarre*.

*Anatomia eta fisiologia*

*Bular bezurra* esaten zaio latinezko *sternum* delakoari (papar hezur ere). *Bularrartea/bular hozka*, *bular erretena/bularteria* hezur horren mailan dago eta soinekoaren kolkoaz estalia, baina *bular kaiola* mugatzen dituen hezurak *saihetsezurrak* ditugu. Bularraren beko muga eta barrutik dago *bularsare*, diafragma. Andreen bularra dela-eta niniari *bularra ematen* dio, berriz bularra kentzen denean ez da Ageda gure martiria behin egin zitzaiona, baina *niniari amaren bularra kentzea*.

*Bular gibarrak* daude gizon indartsu batzuk garatzen dituztenak, baina gizon gizenek *gizenezko titiak* izan ditzakete nahiz ez andreenak bezain txukun eta ioriak. Andreen bularra minbera izanki *bular babesa*, *bular gaineke*, *bular oskol*, *bularreko* esaten zaio sostenari.

Andreen titiek, titi edo *bular sagarra* badute eta *titiburua*. Andreenak esnetarako egiazko titiak dira eta umeari esnea edukiz geroz bularra edo *titia eman* lezakete eta haurra bakarrik heurek *bulartu* lezakete. Bularrekoek, *bularretakoek* maiz *bularraldia* eskatzen dute, amaren loaren kaltetan.

Bestalde elkarrekin titia edan dutenak odolezko ala paradazko haurride izanki, *bular senideak* (bular-anaia, bular-ahizpa eta beste) dira. Ugaztunek ez dituzte titiak beti bularrean gehienek sabelean, primatek eta bakan batzuek bularrean. Bularra aurreko aldea delarik ugaztun ez diren txoriek bularra daukate eta *bularkia* da askotan haien haragi hoberena.

*Patologian*

## I. Bular kanpoko minak

Bularsagarretan da gehien agertzen *bular arraina*, andreei titia gogortzen zaienean (Animaliek maiz sabelean dituztelako titiak ez zaie bular esaten (*b*)erro eta (*b*)errape baizik eta haien minak *herramin* dira). Beldurgarriago dena andreengan *bularreko minbizia* da garaiz sendatua ezpada hilkorra. Bestela, titietan kartzinoma ez diren bolatxoak kiste eta mastosiak agertzen dira.

## 2. Bular barruko gaitzak, birikena, bular hauspoenak

*Bularterriak/bular minak* barnekoak izan daitezke, aurretik ikusi dugun albo-rengo eta bularreko tuberkulosia, tisia, *bularretikakoa*. Arnasa, hatsa nekez hartzen duenak *asma* edo *bular hestua* badu.

*Metaforak*

Bularrak aurrean izateak psikologian hiztegia eman du. Egia da bere kementa erakutsi nahi duena, norbait borrokara desafiatzen duenak bularra handitu eta aurrera eskaintzen duela, beraz *bulartsua*, kementsua da. Kasu berdinean andreaz esaten da *bular barroa* duela Indar egiten denean ere bularra aurrera jarri behar da eta edozein lanetan lehiaz eta ahaleginez dabilenari diogu *bularlarka jarri* dela. *Bular txakurra* andreren titi gaitzaren, erroibenaren sendatzeko edoskitzen erabili ohi zen txakurkumea zen. Bularra utzi behar du egun batez nahiz umeak, nahiz kumeak, txahalak amaren erroa uzten duenean *bilbarrau* izena hartzen du C.C. Uhlenbeck euskalariaren ustez *bular+ utzi* litzateke

Teknologian. Bularra aurreko alde izateak brankako aldeari ontzi bularra esaten zaio, baina hamaika bular ditugu

*Eliza bularra*: absidea da

*Gurdi bularra*: gurdiaren aurreko alde

*Horma bularrak*: oinarriak (contrafuertes)

*Zubiaren bularrak*: korrontearen hausteko

Buru (lat. *caput*). Europako hizkuntza askotan *o*, *u* zerratzea ematen da errumanieraz, portugesez, gaskoieraz, euskaraz. Euskal hitz zaharretan ez dago *bo*-rekin hasten denik gehiago, euskaraz daudenak urrunago Elizako latinetik hartuak, maileguetan ikusiko ditugu baina *buru* hitzaren kasuan erromatarren garaian Akitaniar harrietan bigarren osagai bezala *boro*, agertzen da, hain zuzen *borobil* hitzean bizitu dena. Jendeagan duen garrantziagatik eta gizonaren gorputzean goiko aldeko organo borobil izateak ekarriko ditu biologian eta hortik kanpo erabilera ugaria.

*Anatomian*

Buru hezurraz diogu, *burezur*, *garezur*, *kaskezur*

Barrenean daukanari, *burmuin*, *garmuin*, *muinak*, *hunak*

Buruak kanpotik ilea daukalako, *buruko ileak* badira, baina batzuk galdurik *burusoil kaskasoil/ karsoil/garbal* dira.

*Fisiologian*

Asko baldin badakigu, askoz gehiago ikasteko daukagu, ezen buru barruan daukaguna bere txikian makina miresgarria, aberatsa eta konplexua den. Buruaren mugimenduak mugatuak dira baina atlas eta axis hezurren eta lepahezurren bidez, atzera, gibelera ezin badugu begiratu, ezker-eskuin *burua ingurra* dezakegu, artrosi gehiegi ez badugu, eta zerurantz ere bai *eraiki* eta lurre-rantz *apalduz buru makur* egotea eta *buruz gora jarri*.edo *buruzipurdiko*.

Buruak ere baditu bere zatiak beren lekuan ikusi eta ikusiko ditugunak, aurpegia, eta garondoa, buruan dauden zentzuen organoa, aho, haginak, begi, belarri aurretik ikusiak eta geroago ikusiko ditugun sudur eta mingaina.

Noski buruak bere estalkiak merezi ditu: *burukoak/ burutikbeherakoak, burukia* (mitra) ezen *buru basik/ buru butsik* ibiltzen denean eguzkiak edo euriak kalte

egin liezaioke. Bestalde, erotikaren lexikoan “burutik beherakoa egitea”, hiru-hogeita bederatzi zenbakia egitea da. Lo egiteko buru azpian *burko/burnegi* ipini dezakegu, euskainolez, almohadak.

*Zoologian.* *Burubeltz* (ardia) eta *burubeltz* (txinbo txoria), *urraburu* (txoria), *zapaburu* (igel edo apo kumea).

*Patologian* Buruaren zatien gaitzak beren lekuan ikusiko ditugu gazezurra-  
ren barrenekoez axolatuko gara. Arruntena, burua nekatzen denean edo bar-  
rruko nahasketa batengatik *buruko mina* da, baina mailak daude arrunt horreta-  
rik *migrena* iraunkorreraino.

Buruarekin gerta daitekeen min txikiena burtxoratzea da, berebiletan, itsa-  
soan, hegazkinetan zorabiatzea eta handiagoki, *aldi txartzea/konorte galtzea/en-  
goxatzea*. Buruaren gaitz handia da garatzen ari dena *buruko minbizia* eta adin  
guztietako, sexu guztietakoak ukitzen ditu.

Adimen gutxiko edo batere ez dutenak jaio daitezke, noizik behin, labu-  
rrerako bestetan bizitzen, *buru-mebeak*, *burumentsa*. Baina, adimena izan ere *bu-  
rutik egiten/buruak nabasten* dira eta nahasiak ez du gizartean lekurik erraz aurki-  
tzen. Abere *buru motza* ez da hala adimenez adarrak galdu edo adarrak gabe  
jaio delako baizik.

#### *Metonimiak*

Garrantzitsuena kaskoan, gazezurra, burhezur barnean dagoena da,  
oraintxe buru bezala aipatuko duguna. Buru hitza, gogo hitzaren lekuan era-  
biltzea oso arrunta da hizkuntza guztietan, gurean nasai eta ugari ditugu adi-  
bideak oroimena eta gogoaren ordezko:

#### Aditzetan

Buragertu: bere burua agertu

Burua eduki: pentsatu

Burutik atera: gogotik atera, ahaztu

Burutik erautzi/ burutik kendu: gogotik, oroimenetik kendu

Burua berotu: ideiak berotu

Burua galdu: ideia bat galdu (moztu-eta benetan gal daiteke)

Buruan hartu: erabaki

Burua jaso: harropuztu, arrandiak egin

Buruan sartu: oroitzeko eran gogoan sartu

Buru eman, buru egin: bihurtu, gogor egin

Buruak eman: bururatu

Bururatu: burura etorri

Burutapen/burutazio: burura etortzen zaizuna

Burutik egin: burutik nahasi

Burutu: amaitu, bukatu, urrendu

*Buruz ikasten dena, buruz* edo *gogoz jakiten da* eta *buruz* edo *gogoz esaten* Bistan  
da, ez direla buru guztiak berdin eginak, horregatik zuberotarrak dio *Bürü*

*bezainbeste abürü badela baita bi ofizio daukanaz, ezinda bi bürü sar txapel baten pean (Z.)*

*Bururatu* aditzak, orain arte, “gogoratu” esan nahi zuen, baina nafar-lapur-diera jendeek *akabatu* edo *finitu* ziotelako “amaitu” erran nahi hori, euskara idatzian sartu zaigu. Horren aurka, Lafitte euskaltzaleak ahaleginak eman arren, Iparraldeko askok ahaztu dute «terminar» *burutu* zela «ra» gabe edo zubere-raz *ürrentü*.

*Psikologian*. Izen lagun meta etorriko zaigu, denak ezin eman. Izen txarrekin hasiko gara

Burkoi: buruzkin, buru gogar  
 Buruarin: gogoarin  
 Buruazpi/buruiop: pretensioa  
 Burubero: errea, haserrekorra  
 Burueritzi: burgoi, burhoi, burugoi: orgulloso  
 Burugabe/burubako: adimena galdurik, inozo,astakilo  
 Burugaitz: giza gogor  
 Burugin: aurrez ikusten eta erabakitzen dakiana  
 Burugogor: nekez aldatzen dena  
 Burugorri: buru bero  
 Buruhandi: egosgogorra  
 Buruharro: arrogante  
 Buruhauste: arregura, kezka handia  
 Buru iritzi/ burujope: harrokeria, harropuzkeria  
 Burukeria: kapritxo  
 Buru motz: oroimen motzekoa  
 Burupe: agintekeria, larderia  
 Buruzale: bere burua maite  
 Buru zuri/ kaskasoil: gogoz ergela  
 Buruzut: buru harroa

Izen pollitagoak

Buru argi: gogo argi  
 Burubide/buruzpide: zerbaiten egiteko aholkatu eta antolamendu  
 Buru-belarri: entzule on  
 Burubide: asmobide, zerbaiten egiteko erabakia  
 Burudun/burutsu: adimendun  
 Burugarbi: errugabe  
 Buruan hartu/ buruan eduki: bakoitzak erabaki  
 Burujabe: autonomo. (Bere) buruaren jabe: autonomo  
 Burujabetza: autonomia  
 Burulan: intelektual lan



Buru on: oroitzeko eta ikasteko on  
 Burutasun/ burutapen: gogoeta  
 Burutazio/buruketa: gogozketa, pentsaketa.

Oihenartek zubererazko atsoitza bildu zuen, jendeen buruak haina zirela iritziak

*Buru bezanbat aburu* (O.567)

Metonimiak esaerak eman ditu

*Bururik ez ta txapela nai*, Bizkaian edo *metaforaz* zuberotarrek erantzuten dutena: “*Ontzi hütsak ez dü estalgi beharrik*”.

*Metaforak*

*Anatomian*. Burua garai baita, goian baita, punta bat delako, borobil delako anatomian birerabilera izango du: *belaunburu*, *bepuru* (betezpal), *bezurburu* (apofisia), *oinburu* (orpo) *titiburu*.

*Psikologian*. Buru gogorrari, buru beltz deritzo eta buru inozoari buru zuri, horrek euskaraz eman du esaera matxista itsusia *Refranes y Sentencias* bilduman.

*Gizonak oro buru-baltz*

*Andra guztiok buru-zuri*.

*Botanikan*. Asko erabilia da izen berezien emateko: *Beltxanburu*, (*Centaurea jacea.L.*) landarea edo izen arruntetan *adarburu*, *artaburu*, *azaburu*, *berakatz/baratxuri buru*, *galburu* (*ogiburu*), *kipula-buru*, *orburu*, *zubaitz buru*. *Buruxkak* dira alorretan biltzen diren uzta ondakinak.

*Biologiatik osoki kanpo*. Burua estaltzen dutenekin buru da agertzen lehen lehena. Antzina, jendea ez zen buruko gabe kanporatzen edo Zuberoan diotenez *burutikbeherako* batekin, izan zitekeen *buruko zapi*, edo *buruntza* (koroa) eta andreek *buruko orratzekin* lotzen dute ilea.

Buru eta jendeak. Nagusitasunaren ikurra izan da burua, aurrean dabilena edo gorenean dagoena burua izan behar luke, *batzar buru*, *batzordeburu*, *epaileburu*, *eskolaburua*, *euskaltzainburu*, *gudalburua* edo *mahai burua* edo *gotzainburua* eta azken hamarkadetan gure *sailburuak*. Azkenean denak zer dira? Hitz zahar batez: *buruzagiak*.

Oihenartek azken horietaz ematen digu irudi polita:

*Burutik basten da arraina karasten* (O.106).

Buru eta gauzak Eraikuntzetan eta leku izenetan “buru” sarritan agertzen da, lantzean behin, azkena edo lehena adierazteko:

*Kaleburu/karrikaburu*

*Zubiburu*

Besteetan nagusitasuna adierazteko

*Hiriburu/uriburu*: hiri nagusia, edo hiriaren burua

Buru eta espazioa. Badakigu, dakusagun izadia gizonek aspaldian moldatu zutela eta haren eskuko lanak direla baso asko, larre, soro eta zelaiak. “Bu-

ru” hemen ere zerbaiten sarrera hasiera izan daiteke eta leku izenetan agertzen zaizkigu hala nola:

*Aizpuru/Axpuru, Basaburu, Aranburu, Ezpondaburu, Harizpuru, Hegoburu, Ibarburu, Iturburu, Izeienburu, Landaburu, Larraburu, Larrandaburu, Legorburu, Mendiburu, Narbeburu, Oihanburu, Otaboru, Pagaburu, Soraburu, Urburu, Zuburu*

Izen arrunta bezala erabiltzen dira *lurburuak* (polo). Espazioaren norabide nagusiak lau buru izendatzen dira. Espazioa dela-eta, izen arrunt eran erabil daitezke, lekuaren lehen punta, edo azkena adierazteko *Mendiaren burua, ibararren burua, soroaren burua, zubiaren burua Ororen buruan, bururen buru, burutik buru, burugabeko bidea*, espazioa eta denbora lotuz, azkeneraino joatea adierazten du.

Buru eta denbora. Buru hitzak azkena erran nahi du batzuetan: *asteburu, hibelabete baten buruan*, baina hasiera ere *abiaburu, sorburu, etorburu*. Zenbaitek ere, irailari *buruila* diote, noizbait orduan hasten baitzen urtea. Astegunek, beren *astegun buruzuriak* dituzte. Azkenaren adierarekin morfosintaxian genetiboarekin agertzen zaigu buru *–ren buru* nahiz denboraz nahiz espazioaz mintzo: Denbora dela-eta: *urte bete baten buruan, aldi baten buruan*

Buru eta teknologia, *Buru*, edo *mutur* da latinismoz *punta* dena, eta ez du derrigorrez zorrotz, borobil, izan beharrik. Konboi batean *trenburuak* badira, *lehenburua* eta *azkenburua*, baina denbora berean *mabaiak* ere *bi buru* ditu euskaraz eta teknologia zaharretan zenbat buru: *aitzurburu, aizkoraburu, ateburu, iltzeburu, mastaburu, oihalburu, sareburu. Burubuztanak, gorabeherak* dira.

Inguruko hizkuntzetan, leku izenetan eta beste erabileretan ez da hainbeste agertzen *cabaza de, cap de, tête de* bezalakorik nola euskaraz, gure arbasoek hizkuntza beren iturritik edaten zekitelako.

Bere burua, metonimiaz.

Euskara, auzo eta indoeuropar hizkuntzetarik gehien urruntzen den kasua da, berekikoa adierazi nahi denean, europar hizkuntzetan ez dutela buru erabiltzen, *selbs, self, medish, mismo, mesmo, même, auto*. Gainera beste hizkuntzek ez duten genetiboa darabil horretarako euskarak *nire(n) buru, hire(n) buru, zure(n) buru, gure(n) buru, zuen buru, heuren buru*.

Halatan, sortzen dira erdaldunentzat bitxi diren esakuntzak, *bere buruaz beste egin du/bere burua bota du, suizidioaren aipatzeko edo bere burua eman du*. Erdarakadaz *\*bere pertsona errenditu du* edo erdi maileguz *bere burua ikusi du*. Argi da metonimia pertsona osoaren aipatzeko buruari mugatzea, beste kasutan hizkuntza askotan egiten dena, baina berekiko kasuan ez.

Beste hizkuntzetan, sarritan, abereak zenbatzean, *honenbeste buru* aurkitu dutela diote eta euskaldun umoristek diote zangoak behar direla kontatu eta lauez banatu. Gainera, bide horretarik joanaz *norbaiten buruaz nausa*, trufa, burla daiteke.

Butz/putz. (lat. I. *expiratio*, 2. *ditus*). Jatorri berdineko bi hitzek, hala nahiz, egiten ditugun hatsak adierazten dituzte, ahoarekin *butz egiten* dugu eta

ipurdiarekin, isilka, *putz*. Putzak puzker/uzker delakoaren alderantziz ez du musikarik egiten, usain txar, isila dario.

Buzkantz. (lat. *botulus*) Hitz hori ez dakit harakinek ala sendakinek sortu zuten, baina *buzkantza* (odolki lodi) gehiegi jalea, sabelaren ordezt *buzkantza*, pantza, ttipa, zorroa hazi dezake.

Buztan (lat. *cauda*). Hor *b*-ren ondotik, *-uztan* legoke eta (*b*)*uztar* zaldiaren atzea eta *uzki* (ipurdi) hitzekin lotua litzateke. Abereek dute benetako buztana, bizkarezurraren jarraipena, *buztanezurra*. Buztanak bere lokunea du, *buztan zotz/ buztan oilar* izenekoa. Buztanak gantza, urina eduki lezake eta *idi buztana* jan duenak daki, ahoarentzat hain gozoa dena, urdailarentzat irents luzea dela, alegia «gizon jana». Buztanaren beste muturrean gehienetan buztan adats bilo luzeduna, badago eta poeta batek erran zuen jainkoak ez baitzien abere askori eskurik eman, eulien baztertzeko buztan adatsa eman ziela. Herriak apalagotik eta segurragotik dio:

*Gure katuak buztana luze  
Bera bezala besteak uste.*

Narrastietan ugaztunetan bezala buztan hezurdunak badira, baina ezkatat estaliak. Halaxe, *buztan urdin* esaten zaio sugandila mota bati.

Arrainetan buztan hezurduna da, halaber, ezkatat estalia. Horregatik arrain batzuen izenak dira: *buztanbeltz* (perca) *buztarpe* (arraia mota)

Txorietan ere *buztan lumadunak* dira, *hezur gabeak*, uzkornoaren gainean finkatuak. Txorietan izena hortik dute, buztangorri (*Phoenicurus sp.*), buztan ikara (*Motacillasp.*), buztan luze (*Aegithalos caudatus*), buztan txuri (*Oenanthe sp.*), buztan beltz (*Oblada melanura*). Buztana haientzat hegan egiten dutenean orekaren organoa da.

#### *Metaforak*

Anfibio heldu batzuk izan ezik, goreneko primateak dira benetako buztan gabeak baina arrek, gizonek daukaten sasi-buztan, hezur gabekoari, zakilari, pitxoari txantxetan *buztana* deritzo (lat. *mentula*). Erljio zenbaitetan, buztan horren muturreko azala, *buztan moko*, delako mozten da. Buztan hitzaren adierazkide batzuk darabilte *isats*, eskobaren izena dena eta metaforaz.

Erdi Aroan gaitzizen bezala erabilia izan da *Buztan/ buztain*, agian beste *Arraultze gaitz* bezala bere organoaren goraiipamena egiten zuelako. Jakina abereen buztana bizkarraren jarraipena da eta zatiak baditu, hasieran *buztan gailurra* edo *buztan zotza*, eta azkenik *buztan zurdak*, eskurik ezean eulien baztertzeko baliagarria, baina sasietan kaltegarria, horregatik artzain zakur batzuei *buztana mozten* zitzaien, halaber errazago ardien eraisteko, eta lanean aritzeko zaldi handiei. Idiaren buztana janari gisa txerriarena baino preziatua baldin bada, esaera bat eman digu lukainka egiteko ez omen delako ona:

*Urdean buztanez/ matrazu onik ez.* (R.S. 51)

Botanikan esaten da hazi bat *buztantzen* dela (ernatzen, burnatzen) landare berriaren kimutxoak agertzen denean. *Azeri buztana/zaldi buztanak* (prela), landare bereziak dira

*Teknologian*

Biologiatik kanpo jostunek hitz hori erabili dute

*Hari buztana*: hariaren punta

*Oihal buztan*: (oihalak jadanik begiak, beharriak eta burua dauka)

*Atorra, alkandora buztana*: atzeko zati luzeenari

*Gona buztana/zaia buztana*: lurra baino urrunago narraste dagoena

*Sotana buztan*: ez zen hain luzea

Jantzigintza bezalaxe –txoriak gogoan– zerbaiten gune estu eta luzeagoa da

*Hegazkin buztan*: txorien buztanaz zerbait itxura gorde duena

*Miru buztana*: teilatu batean miruaren hegoen antzeko angelu zorrotza egiten duen zatia

*Harri buztana/harpuztana*: horman, harresian sartzen den zatia eta hortik kanpora ateratzen ageri dena

*Argi buztan/ kandela buztan*: kandelaren basea

*Golde buztan*: golde kirten

*Kazola buztan*: kazola kirten

*Soka buztan*: soka punta

*Zartagin buztan*: zartagin kirten

Buztan kirten luzeentzat ez da erabiltzen ez \*Aizkora buztan, ez \*Aitzur buztan

Hiztegi askotan buztan bat edo beste dago

*Buztan izarra*: cometa da.

*Buztan gizona*: norbaiten menpekoa

*Buztaneria*: dokumentu batean (codicilla)

*Mutil buztan itxikia*: mutil berekoia

*Umebuztan*: ume txikia

*Zigarro buztan*: colilla

*Besteen buztan ibili*: besteen bizkar bizi

Azken oharra. Ohargarria da *bu-*dun hitzak abere baten gorputzean ardatz batean daudela, *buru, bular, buztan*.

*B-*dun mailegatuak

*Be-* baina latin edo erromantzetarik

Goiago ikusi genuen nolako lotsa edo eragozpena bazen hankaren/zangoaren izendatzeko. Leku askotan txerriaren zangoari, *berna/perna* bada men-debaldean jendeena ere da. Batzuek, bereizten dute *jendeen berna* eta *txerrien perna*: *pernila*; hitz elkartu bat eman du *bernazaki*, zango hezurra adierazteko.

*Bi-* rekin *basten* eta *mailegatuak*

Bisai (lat. *visus*, aurpegi, begitarate esateko manexek) (Nafarroa Behera eta Lapurdin) gaskoiari mailegatu *bisadje* hitza. Zuberoan haiengandik ikasi dugu *debrun bisaia!* biraoa. Geroago eta gutxiago erabiltzen da azken esaldi hau.

Bilo (lat. *pilus*). Sineste anitzengatik tabu izan da horren aipatzea. Latinezko *pil(um)* etik edo gaztelaniazko *pelo tik* hartu dugu. Iparraldean hegoaldearen alderantziz egin dugu aukera. Hegoaldean *jendearen ileaz* da, eta iparraldean *jendearen biloaz* mintzatzen. Iparraldean “*ilea*” ardiarena da bakarrik. Euskara batuan, *bilo* pelo eta *ile*, cabello da, ardiarena *artile*.

Biloaren erdi gaitzak dira zuritzea edo gaitzea, baina *biloko tina* (lat. *porrigo*) Afrikako haurretan kaltegarriena garbal bailezake edonor. Halatan ere, Euskal Herri osoan norbait jantzirik gabe edo erantzirik dagoenaz kalkoz sortu ditugu bilorekin hitzak: *bilaizik*, *bilas* (-as atzizkiarekin), *biluts biluz*, -huts atzizkiarekin, *biluzgorri* (gorrik osoki esan nahi duelarik, cf umegorri, gose gorri). Bazen, ordea, kalko horiek gabe euskara zaharreko hitza *asik* eta badago Zuberoan XVII.mendean bildu Erdi Aroko esaera

*Athagiarrak asik eder*

*Euri dagianian etxera laster*

(*As*, *asik* atzizki bilakatu da eta Ekialdeko euskalkiek badituzte eratorri asko: saias (enborra agerian mahankas (mahuka hutsetan), atorras (alkandora edo atorra hutsetan), galtzazolas (galtzerdi hutsetan), baina oinengatik besteen moduan *ontutsik* eta *ortutsik* diote). Bilok eratorri eta hitzelkartuak eman ditu

*Bilaztatu*: biloz estali

*Bipildu*: biloa galdu

*Bilaskatu* (Ip.): pelear, tomar del pelo(gaztelaniaren kalkoa)

*Metaforak*

Arruntean zerbait estalia denaren agertzea biluztea da

*Lurbiluzia*: landare gabe dago

*Ezpata biluzia*: maginatik atera edo magina gabe

*Zuhaitz biluzia*: historik gabe.

Denbora berean zerbaiten erantztea, kentzea litzateke

*Sineste batez, ustekeria batez biluztea*

Zinez eta zuzenki zerbait kontatzen duenaz *mibi gainean bilorik gabe* hitz egin duela diogu. Antzinako greziarrek zioten *egia putzu batetik biluzik* ateratzen den andere ederra dela. (*Egia* hitza euskaldunentzat, agian, *egin* hitzetik letorke).

Oihenartek bildu atsotitza jendeari zuzendua da:

*Badu ere axeriak biloa uzten, bere egitea ez du bilbuzten* (O.62)

Biloaren ondokoak ote? Animalia gazte batzuk *bil-* hasierarekin daukate izena, *bildots* (ardiaren urteko umeari euskalki guztietan), *bilarrauzi* (N.) *bilorta* (L.) (txahal gazteari) eta *bilaltxa* (N. Z.) (esneko txerri gazteari) beharbada *bilo* hitzetik baino *bular* hitzetik letozke (ik. bular).

Behi gaztei *biga/bigai*, gero *bigantxa* esaten zaie beharbada *biga* zenbaki zaharretik. Bi urteak dituztenean, ezen ardiari gazte denean *bihortzetakoa* esan ohi zaio. G.Rohlf's dio latinezko *bimus* "bi urte" hitzetik datorrela, *biga*, baina *m*, *g* bilakatzea ez da euskaraz gertatzen eta *us*, *a* gutxitan.

Bista. (gazt. vista)

Bista I, Fisiologiarekin ikustekoa du, ikusmena adierazpen baitu

Bista 2. Ikusten dena adierazteko, ikuspegia

Eratonriak baditu bistan da: *bistan egon* denean *bistakoa da bistaratzen denean*, baina *bistatik alde egin* / *bistatik galdu* gertatzen non ez nuen norbaitek *bistatik kentzen*. Hobe da, noski, *bistatik galtzea*, *bista galtzea* baino, azken hau itsutzearen hitz eztigarria baizik ez delako.

Bixika (lat. *vesica*). Bi esan nahi hartu ditu latinez bezala, bata pixa edo genuaren *maskuria* (gazt. *vesiga*, fr. *vessie*). Aldaera asko ditu eta horien artean *botxintxa* (A.) *bixika* (L.) *putxika* (B.), *bisiga* (N.) Zuberoako *pixasturu* nire ustez *pixa*+*maskuria* hitzaren laburpena da.

Bigarrena da *vesicula* adierazteko alegia larruan agertzen den pikorra.

Bittina/bittika, abere izena (lat. *baedulus*). Lapurdin eta Nafarroa Beheran antxumeari *bittin*, *bittika* eta *pittika* deritzo, gaskoieratik hartu hitza *pitit*, *pitin* delako mintzaira horretan.

Boronte/boronde (lat. *fronte(m)*). Ekialdeko euskalkietan (Zuberoa, Zaraitzu, Erronkari) mailegu aski mugatua da eta uste dudanez bataio hitzekin Elizako latinetik (*in frontem*) zuzenean sartua. Metaforaz, hitz hori etxe baten aurrea esateko erabilia da, *etxe boronte*, eta beharbada *borondate* hitzaren izateak galtzetik gorde du.

Botz/boz gaztelaniazko voz hitzetik (lat. *vox*). Euskalki askotan entzuten da, nahiz forma jasoa *abots*/*abots* izan. Orainarte, Iparraldean eta Ekialdean batik bat *botz* zen bakarra.

Ahotsa batik bat hitz egitean, mintzatzean entzuten delako, bakoitzaren ahots bereizari ekialdean *mintzoa* deritzogu. Norbaiten *mintzoa ezagutu*. Bigarrenik kantua, abestia da ahotsaren entzunarazteko era goxoena, eta boz desberdinek kora bat abesbatza bat eman dezakete Iparraldean *boz apalak* (baritono, baxu, contraltoak) eta *boz gorak* (altoak, sopranoak, tenoreak) bereizten dira.

Geroztik, musikak baino politikak indar eman dio ezen hegoaldean espainol hitzez *boto* esaten dena, guk espainol zaharraren beste hitzarekin *botz*. Eta gure hauteskundeak, berriki arte *bozketak* ziren, *botzemailek*, *botz eskatzaile* asko daukate *boz egunetan*. Euskara batuarekin *hauteskunde* eta *hautetsi* hitzak nagusitzen ari dira, baina oraindik *bozkatzen* da.

B-dun hitzak orokorki

Benetan *b-* osagai zaharra dutenak hauek izango lirake: *begi*, *belarri*, *belain beso*, *birika*, *bizar*, *bizi*, *bizkar*, *buru*, *bular*, *buztan*. Hugo Schuchardt, Karl Boudak eta

Cornelius C. Uhlenbeckek *b-* klase osagaitzat ematen zuten eta “bi” zenbakia horregatik baztertu behar da ezen

Barrabil 2	bizar I	belaun 2
Bare I	begi 2	beso 2
Bidar I	behaztun I	buru I
Bihotz I	bekoki I	bular I
Birika 2	belarri 2	buztan I

Beraz *b-* bizidun adierazten du eta be hori *bera/ bere/beure* jabetasuna eta hirugarren pertsona adierazten dutenak sail horretakoak dira. Beste hizkuntzetan hala nola georgieraz gorputz izenak sistema horretan eraiki izan dira.

## 7.4

## D-dun hitzak mailegu

Euskaraz, hitz gutxi “d” rekin hasten da non ez diren “izan” aditzaren hirugarren pertsona eta hortik orainaldiko “ukan” eta trantsitibo diren aditz trinkoetan orainaldia. Biologia dela-eta batzuek bakan erabiliak eta besteak herrikoituak ditugu

Dardo. (lat. *jaculum*). Olasoko eresian XV. Mendea, arma da, baina Etxepareren olerkian XVI. mendean olerkari irudiz zakila, pitoa:

*Jo badeza dardoaz ere gorputzaren erditik.*

Eta

*Bana dardoa ematurik/ zauri ere sendaturik*

Dardo, hitz hori zahartu da eta beste metafora batek *ziri* hitzak lekua hartu dio; beraz asko ez dira konturatzen *norbaiti ziria sartzea* zer den eta kontuz *zirikokatzea* (larru jotzea) ez da zuberotarren zirikatze goxoa.

Dastamen. Zaporearen zentzua. Axularrek gustua erabili ere zuen

Diti/titi (lat. *mammae*). Erromantze batetik mailegatua da andereen ugatz edo bularra esateko. Metaforaz titiak *mokoa* edo *burua* badu. (ik. titi, erabiliagoa)

Diafragma (lat. *diaphragma*): *bular sarea* esateko anatomiazko greziera da.

Digeritu/liseritu (lat. *digerire*): Egoste/txegoste esateko hitz erabiliena da Eratorriak *digestio aparatua, digestio arazoak*.

Dindil: gingilaren aldaera dilindan hitzaren kutsuz: lobulu

Dolore (lat. *dolor*): Oinaze edo min esateko badirudi Elizako latinetik *dolore(m)* etorri dela eta ez gaztelaniatik.

Duodeno (lat. *duodenum*). Jakintzazko neologismo eta hitz bakartia.

## 7.5

## E-kin hasten direnak

Edan (lat. *bibûre*) Bizidunek aire beharra badute, baina gorputzaren % 75 az goiti urez eginik, jatea baino beharrago *edaria* eta *egarria*, *edangalea*, *edangura edan nabia* oinarritzko beharra. Eratorri zuzenekoak dira: *edanarazi/eradan*, *edanaldi*, *edangarri*, *edangiro*, *edanontzi* (edalontzi, edari ontzi), *edangintza*, *edaska*, *edate*. (Oharra edateari emana dena ez da uragatik honelakaturia, alkoholarekin baizik).

Bistan da, ur edatea beharrezkoa bada, ez edozein likidorekin, baina *edaritegi/edantoki* gehienetan, *edarikoi/edarizale* eta *edanzale/edale/edatun/edan sarri* bihurtzen denean, *edanari emana* ez da uragatik esaten. *Edankeria* ibiliz *edansaria* ez da beti diruzkoa bakarrik, osasunezkoa ere. Urak kalte egin dezake, edari ez garbia *edankizun* ez denean, baina alkohola zuen gogoan Oihenartek bildu zuenean:

*Guti edatea*

*Eta guti sinestea*

*Da zubburraren egitea* (O. 205)

*Metaforak*

Bestalde, bizidunetz kanpo, *lurrek ura edaten* dute, *urak paperek edan* litzakete, zerbaitek likidoa irensten, edo xurgatzen duenean edaten duela baitiogu. Benetan, likidorik gabe norbait entzunaz haren *bitzak edan* ditzakezu, nahiz onak nahiz txarrak izan eta gogoz kontra onartu beharra zerbaitei *edatea* da. Ideiak ere, *edangarri* dira: *gazterik fazismotik edan* zuen *A. bilbotarrak* baina horrela ikusten da ez dela bakarrik amarengandik edaten, aitzak bere esne txarra semeari eman diezaiokeela.

Edoski/egoski, eradoski (lat. *mammam sugûre*, *mammam dare*). Bularretik ama baten esnea xurgatu. Hau da edateko titidunek, ugaztunek duten lehenbiziko edatea. Eratorriz: *edoskaldi*, *edoskarazi*.

*Metaforak*

Edanak bezala zerbaitei onartu, hartu adieraz lezake

Aktiboki: *marxismotik edoskitzea*

: *zubaitzak lurra edoskitzen*

Pasiboki: *zergek edoskia izatea*.

Egarri (lat. *sitis*). Hitz hori, ingeleraz bezala, izan aditzarekin darabilgu. Izen zaharra askoren gisa ez digu bere erraia erakusten Euskal atsoitzak dio “*Egarriak goseak baino leben hiltzen du jendea*”. Egarrri handia denean euskaldunak dio *egarri gorritan* edo *egarri xuritan* edo *egarti/egartsu* dagoela edo *egarriak itoak*.

*Metaforak*

Lurrek, bizidunetz bezala ur beharra badute eta *lurrak egarrri dira*. Gasolina agortzen denean *motorra egarrri da*. Irritsaren metafora asko erabilia. Igurikatzen dena, itxoitzen dena ez dugunean ikusten *jakin egarriarekin egoten gara*, *egarriak ego-*



*ten; diru egarria* oso zabaldua da; *Iustiziaz gose eta egarri diradenak* (Mateus 5,6) idatzi zuen Leizarragak; *arima graziaz egarri*.

Egoste/txegoste (lat. *digestio*). Egosi hitza ez da jatorriz biologiakoa, suan erre eta batik bat urean ere da, beraz, gordintasuna kendu. Medikuntzan *liseritu, digeritu* erabiltzenago dira (ik. *liseritu*). Bestalde, metaforaz ideiak, sentimenduak egosten dira batzuetan egitekotan edo bestela, gertatuaz pairatuz, azkenean haserrearaino joan daiteke egostea, baina gure gaia dela-eta bi erabilera ditugu:

*Egosi*, digeritu adierazteko hizkuntza jasoan XVIII. mendetik hasirik lekukotasunak ditu. *Egoslekua*, urdaila esateko XVII. mendean agertzen da eta urdailera eramaten duen hodia *egostutua* da. *Txegosi* eta *txegoste* ere erabiliak izan dira.

Janaria dela-eta, urean luzaro errea izan den haragi, arrain edo belarkia, *egosikia* ematen duelarik.

#### Metaforak

Jakina, pentsaketan, *ideiak jaten dira, irritsez egarritzen, justiziaz gose, ikusia ikasia irensten* da eta ondoren *egosi* edo *digeritu* behar. Ideia, asmoa *gaizki irentsi* (ulertu) eta *gaizki* erabili duen batez diogu ez *duela ongi digeritu*.

Ehun (lat.) Ehuna da zelulak elkarki itsatsiz, lotuz, sortzen den «oihal» trinko, edo gogor, edo bigun, edo hauskorra. Hitz hori biologiak teknikari hartua izan da.

*Biologian* Ehun mota nagusiak: konektiboak, enbrioi ehun, endokrino ehun, gantz ehun, gihar ehun, hezur ehun, nerbio ehun.

Elder/lerde (lat. *baba*). *Helder, eldar, keldar, lerde*, ahora *beltzen* zerbait itsusi delakoaren izendatzeko da. Ustekabean, jendeari edo animaliarri ahotik kanpora jariotzen zaion ahokoa. *Lerdetsu* dena ume txikia da, zaharra edo eria. Animalia batzuek gosearekin edo beroarekin dariote, hala nola zakurrek. Elder/lerdeari *adura* ere deritzo. *Lerde jarioa* tamalgarria da. Bada hitza, beharbada, jatorri desberdinekoa heldu hitzarekin ere eginga *belderia/elderio izurritearen, izurriaren epidemiaren* sinonimoa mendebaldean eta erdialdean lekuka erabilia.

Elikatu (lat. *nutrire*): Jan eta edan, gorputzari bere ekaiak eman, hazkurria eman; ekai guzti horik *elikadurak, elikagaiak* dira, *elikagailua*, hazkurri emaile. Ekai batzuek elikagarriak dira eta besteak ez. Jende batzuk *elika errazak* dira eta besteak *elikagaitz*, horretarako jakintza bada, *elikapen jakintza*. Elika ezinak dira anorexia dagitenak.

Eme/ama (lat. *mulier/ mater*). *Eme* hitza batik bat andreengatik erabiltzen da Abereentzat gehiago *urriza* erabiltzen. Noizik behin, animalientzat umea duenean *ama* deritzo (*astama, katuama, zakurrama, zerrama*) gehienetan arra eta emea bi izen desberdinez izendatzen ditugu (behi, zezen). Euskarazko gramatikan izenetan femenino gutxi delako eme aurretik ipini liteke bereizteko *eme-alarguna, andre alarguna*; iparraldean *-sa, -tsa* atzizkiz egiten da *alarguntsa*.

*Eme* hitzaren eratorri gehienak ez dira animalientzat erabiltzen: *emakume, emakunde, emazte, emetasun*. Eratorrien artean, behin agertzen da Erdi Aroan *gizon*

hitzaren paraleloan *Emazteon* izena. Gure hizkuntza ez baita bidegabekerieta-rik askatu eta erlijioak emakumeak errudun jartzen zituelako asko erabili izan dira, *ema galdu*, *ema gaizto*, *emakumekeria*, *emasabel* (histeria) eta *ematzar*. *Emagura/emagose* diren *emakoiak/emakumekoiak*, emakoitasun horren errua berek dute, baina *ema galduak* baldin badira geroago eta gehiago *giza galduak* ditugu, beren sexuaz lanbide dagitenak, nahiz batzuetan, gizona eredutzat hartuz, *emagizon* esaten zitzairen Lanbide bat dago emakumeak haurrak sortzen laguntzekoa *emagin/emagintsa* delakoa (bizkaieraz *andramaestrea*, *uzulari*).

Hemezortzigarren mendean aspaldiko “comadrona, partera” lanbidearen hobetzea izan zen eta oraindik badaude, nahiz obstetrikari ginekologo handiek lan asko kendu, baina azken ofizio horretan geroago eta gazte gutiago sartu nahi delako, emaginek arrakasta izan dezakete.

*Emakunde* hitza lehen emakumeen multzoa esan nahi zuena, edo emakumeen eguna, orain erabilia da emakumeen “emetasuna” benetakoa adierazteko eta gizakundeak inposatu ereduatarik urruntzeko ere.

#### *Metaforak*

*Emetasuna* balorea da, *emaro/emeki* astiro egitea positiboa izan da, nonbait *emazteonak/emaonak* zirelako. Bestalde, askotan, *arrak hartzen* baitu *emeak ematen* du. Teknologian jakina zerbait luze, zerbait sakon edo zulo den batean sartua denean, batari arra eta besteari emea esaten zaio (ik. Kableak). San Martinek dakar Eibarko adibide hau: bi gisaz uler daiteke “*Trokel arra emian larregi sartzerik ez da komeni*” (elektrizitatean, iturgintzan, makina tresnagintzan eta abar.). Herdoiltzen ez den burdinaz *burdinemea* dela diogu, agian, emeak arrak baino zaharrago bizi direlako.

*Emazte eta emakume*. Askotan emazte esaten zaio ezkonduari, andreari, emakume/emazteki hitz orokorragoa da: hitz hori hegoaldean eta Lapurdin erabilia da. Hor ere matxismoa agertzen da: *emakume galdu*, *emakume mutil*, *emakumekeria*, *emakumekiro*, *emakume ordots* (itsusiena)

Endekatu (lat. *degenerare*) Jatorrizko kalitateak galdu, ehun batean gerta daiteke konektibo endekapena zahartzearekin edo gantz endekapena gehiegi loditzean.

Entzun (lat. *audire*). Belarrien jarduera horri itsasaldean *aditu/aditzea* diote. Nahiz hasiera berdina duen ezin da fonetikaz entzun *entendere* hitzetik heldu.

Eratorkiak: *entzubide* (anatomian) *entzule/entzuleria/entzulegoa*, *entzumen*, *entzunaldi*, *entzunezin*, *entzungeaitz*, *entzungeabe*, *entzungearri*, *entzungeor*, *entzun nabi/entzungeura*, *entzute*.

Metonimiak: *entzutetsu*, *entzun-ikusi*, *entzungeailu*.

Erditu (lat. *parire*). *Ugaztun amek* arrautza ernalduak gorputzean *enbrioitari*, *endretan*, *umekietan* garatzen dituztelako, nini garatua kume garatua sortzeko *erditu* behar dute. Euskalki askotan, batez ere abereek hitz egitean *ertzen* dela, *ertzeaz/erkal* dela eta *ertondo* ere entzuten da Erdi hitz hori *erten/irtenekin* lotua

liteke eta “erdi” zatitzearekin ere olerkariaren gogoan behintzat *Alos Torrea*, Erdi Aroko eresian eta jaiotzaren irudia:

*Amandrea nitaz bi erdi egin zenean*

Jakina, zesarianetan izan ezik andreak erditzean ez dira benetan, zorionez, *erdibitzen* haurraren sortzeko. Eratorriak ugari dira, hain garrantzitsu den jarduerarengatik:

*Erditzeak/ertzeak/erditzapenak* aurre aurretik *erkalez/erdigalez/ermin/erkin* egotea ekarri ohi du eta *ertmuga/erdimuga/* termainua hor dagoenean, *erdi lanak/ertikarak* hasten. *Erdiondo/ertondo/erdioste* delakoak, lantzean behin, andrea estresse batean utz dezake edota *ertondokoak/ ondokoak* jaurti ez dituelako sukarrarekin eta kutsuarekin gaixorik. (animalien ondokoei *karenak/kadanak* erraten zaie).

Erditu erabili daiteke jendeentzat eta Etxeberri Ziburuko poetak Birjinaz dio:

*Eta erditu zenean Birjina*

*biburtu zen etxera* (Noelak, Edili 1970, 45.or.)

Betidanik, ezagun da, emazteak erditzean izaten duten berezko nerbiotako desoreka eta Oihenartek ematen digu

*Emerdi oro, zoro* (O.I38)

*Hileko erdia, hileko eria* (O.237)

*Metaforak*

Nekez egin zerbaiten irudia da

*Asmo batez erditu*

*Liburu batez erditu*

*Honen idaztea erdigaitza izan zait.*

Er(h)i (lat. *digitus*)

*Eri/erbi*, atz esateko Erdialdeko eta Ekialdeko euskalkietan erabiltzen den hitza da, baina “hatz” hitza aztertu dugunean argi gelditu da *atz* eta *eri* garai batean euskalki guztietan biak bizi bizirik zeudela, ezen *eri* darabiltenak hitz elkartuetan *hatz* darabilte eta “atz” esaten dutenak hitz elkartuetan *eri* ere. Gipuzkoan, *hatz* esanikan ere ditareari tokika *eriko* esaten zaio, *eri* puntari *erimami*, batzuek *hatz* aundiari, *erpuru* eta Bizkaian *erkina* “index” da. Bizkaieraz ere *erpizi/eribizi* aurkitzen da norbait esku trebe eta lasterrekoa izendatzeko. Gainera, Euskal Herri osoan *ereztun/eraztun* erabiltzen da \*atzeztun hitzik ez dago.

Eriak baditu zatiak, *eri* puntak izen asko ditu, gehienak beste anatomiako hitz batekin eginak: *eriburu/erpuru, eri bibotz, eri mutur, eri moko, eri muntxo*. Gero, *eri bezurren* artean badaude giltzak (articulatio digitis) *eri kosko/eribizkar/erigiltzadura/erijunta* deritzenak.

Beharbada, mendebaldeko euskaratan animalien hatza adierazteko *erpe/erpa* hitza, *eripe* hitzetik letorke. Susmoa dut latinismoa dela *erpa*, *erpa* gaskoieraz daudelako eta beharbada arrantzako tresnak eman lioke anatomiari hitz hori.

Batzuetan azpimarratu da *esan/ erran* eta *eriren* arteko iturri litekeena, ezen latinez ere *dicere* eta *digitus* jatorri berdinekoak direla idatzi baita.

*Patologian*

Panaricium: *erpuruko/ erberaki/eltur*

Panaricium periunguealis: *erbondoko*

Panaricium nigrum: *mintxuri/iltzemin, zoldu.*

*Metonimiak*

Hatz bat erakutsiz edo erabiliz neurtzen zen *eri trebesa* Eta gero bi *eri trebes* erabiltzen, handik goiti neurria zen *arra/aburra*.

*Metaforak*

*Eri bezurrak janarazi/atzezurak janarazi:* oinazeak jasan.

Erne/ernari (lat. *plena*)

1. Aditz laguna da. Erne gogoia pizturik, iratzarria, ernatua izatea adierazten du. *Lotik ernatzen* da, baina *erne egoteko* begiak zabalik, belarriak adi egon behar da. (Kontuz, *erne/ ernai:* iratzarri, esnatu da eta *ernari:* izorra).

2. Ernari, maiz susara edo hogara edo giri egoerekin nahasten da. Biologian ernari da animalietan fekundazioa, *ernalketa* lortu duen emea, kumea umontzian daukana, eta ez arraren eske dagoena.

*Ernaldia* da kumeak amaren barruan eroan behar duen garaia, katuaren bi hilabetekotik, elefantearen bi urtetara badago aukera zabalak: ugaztunetan handiago eta luzeago. Ez da esaten andere bat ernari dela, izorra baizik, baina jendez ere idaztean *ernal kuntza, ernalketa* erabili daitezke.

3. Ernaten edo *hozitzen* hazitik ateratzen den landare berria, sortze esangura batekin.

*Metaforak*

*Udaberria ernatzen da:* udaberria iratzartzen da.

*Gogoia ernaltzen duen irakurketa:* gogoia iratzartzen emankortzen duen liburua. -Er-txarrak

Eri 1. Batzuetan atzizki ala aurrizki gaitzarekin lotua dela dirudi: *Alfer, anker, ezker, leber, muker, oker* baina “eder” ere badago. Hala ere gure sailean beste batzuk ere. Hiru hitz elkarri lotuak dirudite *eri*, (gaixo), *ero* (zoro), *berio* (hiltze).

Eri 2 (lat. *aeger, invalidus*). Izenlagun eta izen tradizio zaharrean *gaitz, gaixotasun* hitzen adierazkide da. Hegoaldean, batzuk gaztelaniazko *berido* hitzetik datorrela ustez, *zauritu* hitzaren lekuan gaizki darabilte. Egia da atzizki bezala erromantzetan gaitzespen eran erabili ohi dela eta guk ere berdin gaixotasunak aipatzean, *aberia, bibozterria, birikeria* eta beste.

Eraterriz, eman du *eritasun* (gaixotasun), *eritu* (gaixotu), *eritzaile* (patogeno), eta beste Eratorri batzuetan eta herri etimologiaz eritasuna *heltzen* delako, batzuk diote *helasun/erbasun* (eritasun), *helgaitz* (sukar), *helgorri* (gorrimin) *belde* (izurrite).

“Helgaitz” lehen asko erabilia zen sukarrentzat eta Oihenartek ematen dizkigu. Hiru egunero herena zen eta lau egunero heltzen zena laurdena; kaltegarriena, laurdena, batik bat zaharretan heltzen denean, Oihenarten arabera:

*Helgaiz herena gati ebaizela  
ordenatzeaz axolati (O.226)*

*Helgaiz laurdena  
Osagarri gaztena,  
berio zabarra (O.227)*

Eritasunaren aldetik *erialdiak* badira baina norbait *erikor/ erikoi/ eribera* (gai-xokor) *erkin*, izan daiteke eta alderantziz, *erigogor, erizail*. Eritasun arinak direnean *erixko* zara baina handi denean, *eri larri, eri gaizki/eribandi*, eta gaitzak luzaz irauten badu, kronikoa bada, *erizabar* bilakatzen zara. Eritasunak ukitzenago, gaixotzenago ditu *erpil/ erkin* (argal) direnak. *Erseinak* sala litzakete *eritasuna*.

Badira bat batean gaixotzen eta bat batean sendatzen direnak eta Belako jaunak hamazazpigarren mendean bildu zuen *Kriketz eri, kriketz sendo* (B. I.) Beste asko beren nahikeriaz eri dira ere: *Bere nabiz eri denari, nork bilba dezakeio osagarri* (O.94) ezen *Minik handienak burutik beldu direnak* (O.646)

Eriek, gaixoek onetan badira *eritetxe/eritegi* ospitaleak edo *eritoki* txikiagoak, eta haietan langile, *eri mutil, eri neska* (laguntzaileak), *erizain, eri artatzaileak* (sendatzaileak) eta *eriketariak* (anbulantzia eta ospitaletako eri eramaileak).

#### *Metaforak*

Eritasuna bizidunen ezaugarria bada ere gauzen eta ideien osasunaz metaforak erabil genitzake:

*Horma hori eri da, pitzadurak, arraildurak baititu  
Liburu hori eri da orrialdeak desegiten zaizkiolako*

*Herri baten eritasunaz mintza daiteke*

*Lantegi bat eri da, ezin salduz edo ezin ekoiztuz dagoenean, hil zorian.*

*Gizartearen jokabide zenbait eritasunak izan daitezke*

*Fanatismoz eri da, herri hau*

*Hogeigarren mendeko eritasun handiena gerra orokorrak egitea izan da*

*Ergel* (lat. *stultus* edo *stupidus*). *Ergel* hitzak ero hitzarekin baluke zerbait ikusteko argal, haragi hitzarekin bezala. Gorago ikusi duguna, haragiz ahula bada, ergela buruz da eroska, zoroxka, eta Oihenartek dio ergela dela uztondoetan ezkutatu nahi dena:

*Ergela da gordazera doena berazanera (O.580)*

Oihenartek elharzun edo gaixotasunen artean sartzen du *ergeltasuna*

*Ergeltarizona sendo eztaiteen elharzuna (O.143)*

Erio ik. Herio

Ero/ ertzoz (lat. *demens*). Ero/ ertzoz, *Erotasuna* ekialdeko euskaratan gaitz handia da, baina, mendebaldean batik bat, gauza arina, gaitza handiari *zorotasun* esaten delako.

Izenlagun eta izen hauek eritasun bereizi horren oinarrizko hitzak dira *Burutik nabasia, buruko harra nagusi, burutik joana, burua galdu* eta horrelako formulak erabil daitezke

Eraterriz hitzak: *eroaldi* (laburra) *eromena* (jarraitua), *erokeria* ez da hain larria ez zaitu halaberrez *eroetxe/erotegi* batera eroango.

Esaerak dio *Ez dela zubur ez dena eroaren beldur*. Ezkontzean norbait ero etxeratzen denean, zuberotar esaerak dio

*Erhoa etxerat hartü,  
etxea galdü,  
erhoa begiratü.*

Gainera, zioten ez zela erraza, ero batek putzura bota sei zuhurrek ateratzea:

Erho bat aski da harri kantoin baten puzura egozteko  
Bana sei zuhur behar dira haren hantik itoiteko. (O.I45)  
Erhoaren sinestea, zuhur ustea (O.I44)

*Metaforak edo?*

Erokeria, burukeria hutsa izan daiteke, apeta, eman dezagun zerbait garestiegiren erosteko. Bai, arauetarik kanpo egiten direnak erokeria dirudite, baina kasu horietan entzuleak badaki ez dela adimen eskasez edo ergelkeriaz egiten. Herri olerkiak dio

*Maitetasuna gauza eroa  
Nork nezake ni kondena  
Gauak logabe  
Egunak ere errepausurik batere.*

Err-Errai, herro, herrape, *Erro* (latinez *radix*) hitz horien herroa litzateke.

Erraiak (lat. *viscera*) sabelean eta enborrean daude organoen izen orokorra da. Leku zenbaitetan Ekialdeko euskalkietan *erraiak* (Erronkari Zaraitzu), *gibelerraiak* (Zuberoan) eta tokika goi nafarreraz birrikak dira, baita Mendebaldean ere biriken inguruko azala *andaerraia*. Erdaren kalkoz esaten da *amak haurra erraietan daukala* izorra denean.

*Metonimiak*

*Biologian:*  
*ene erraietako (haurra), errai benedikatua.*

*Psikologian*

Norbait bihozgabe dela adierazteko, *errai gabea* dela diogu  
Egonarri gabeko norbaitez, egonezinari *errai bestu* diogu

*Metaforak*

Barruko zerbaiten adierazteko erabil daiteke

*Motoraren erraiak  
Herri baten erraiak*

(Kontuz, *errain/errein* iparraldean bizkarrondoa edo jendeen giltzurriak (animalientzat beti giltzurriak) adierazteko erabiltzen dena ez da sail honek-takoa mailegatua baizik, gaskoieraz *erreinh/erranh*).

Erro, Errape (lat. *uber*). Erro landare baten sustrai edo lurpeko zain nagusiak dira, baina denbora berean ugaztun batzuen titia titiburu luzez eginak direlako *erroak* esaten zaie, eta titiburu guztien esne boltsari, ugatzari *errape/erro sagar*. Eratorrietan erro hitzak erra- ematen du askotan hala nola *esne erraberria*, eraitsiberria; behiaren esnez antzutzeko, *erra bustea*.

*Patologian*. Erroetan pitzadurak agertzen direnean *erroitza*, eta jendeengan eta bereengan gogortzen direnean *erroiben/erroiba*, erroak suhartzen direnean *erramina/errape satar* da, baina gangrenatzen direnean *errape gaitz*, *errape beltz*. Ezin da hitz horrez idatz metaforak eman dituela bera, behar bada, jatorriz hitz orokor baten metafora delako.

Errun (lat. *ova ponûre*). Erruten dutenak asko dira, eta ugaztunek izan ezik ornodun ala ornogabe izan gehienek halaxe, jarraitzen dute beren etorkia, beren arrautzak kanpora botatuz. Batzuetan, nekez egiten dena *errutea/erruntza* da. Auzo hizkuntzetan ez dute guk bezala aditz berezia horren adierazteko (gazt. *poner* fr. *pondre*, *poser* aditzaren forma bat)

Eratorrietan Arrautzak freskotasuna behar baitu, bereizten dira *errun berriak* eta *errun zabarrak*. *Errun lagun* faltsu bat edo benetakoa utz daiteke habian hegaztiak beste *errunaldi* batean arrautzak errun ditzan

#### *Metaforak*

Errun erabil liteke erdaren kalkoz norbaitek kanporako ekoizten duena

*Etxabun bertsolariak ondu edo errun zituen bertsoak*

Nahiz amek ez duten erruten familia batez esan daiteke, belaunaldi ordez *errunaldia*

Ume bati *errun ote dun/duk/duzu* galdetzen zaionean mokordoaz ari gara

Esku (lat. *manus*). Aho, begi, buru hitzekin esku da, behar bada, hiztegi osorako emankorrenetarik bat. Hitz horren jatorria *bestu/berstu* aditzarekin tinkatu adieraztekotik etor liteke. \*Ersku ez da aurkitzen, baina esku indar-tsukoari *erskan/erskon* esaten zaio.

*Anatomian eta fisiologian*

Eratorri zuzenez Eskuaren zatiak dira, *eskutur/eskumutur* (eskuaren lotura, ukaraia)

*Eskubizkar/eskugain/eskulepo*, (eskuaren atzea), *eskubular/eskumami/eskuar/eskubarren/eskubarru/eskuazpi/esku naba esku potolo* (barren aldea), *eskupeko bezur/esku orpo/esku aztal/ esku bibotz* (karpo). *Esku batu*: ukabila.

Eskuaren jarduerak direla-eta *eskua hutsik* egon daiteke, baina *eskutada/eskumen* baten bidez *eskua bete*. *Eskutik eskura* eman daiteke, eta *eskuz esku kurriarazi*, *eskuak ezarriz, esku emanaz* (lagunduz). Laguntzeko ere *eskutik hartu*. *Esku etendu/esku urtendu*, belar txarrak eskuz ateratzea da (B.)

*Patologian*

*Eskugabekoak* jaiotzen dira edota makina batek, moztua, mina batek apurtua, egoera horietan hoberenean *eskubakar/eskubakoitz* geldi daiteke

*Adeitasunez*

*Eskua eman eskuak estutu/tinkatu* ohi ditugu anglosaxoitarrek erakutsi ohituraz edo espainol ohituraz *eskumuinak egin* (*q.b.s.p. edo q.b.s.m.*) edo bidali (Iparraldean *goraintziak* bidaltzen ditugu). Eta *esku erakutsiak* (oparia, ikustatea, bezuza) ere atsegin gehiago eman lezake. Gogorkiago *eskua sar* eta *egoitzi/aurtiki* daiteke. Mehatxuka *eskua jaso*. Baina, gogokoa denean *eskuzartak/eskuzafila*, txaloak eman

*Metonimiak*

Eskua eta dirua: dirua eskuan hartzen delako baditugu, esku diruak eta eskuartekoak baina *Psikologian*:

*Esku garbi*: zintzo, prestu

*Esku gebiko*: ausarta, lizuna

*Esku idor/esku eutsi*: zekena

*Esku kako/mako/ esku makur*: baratari, timo egile

*Esku labur/esku zatar/esku gorde, esku estu, eskurri, esku zubur*: zekena

*Esku laster/esku lobi*: ohoin, lapur dena

*Esku gizen/esku luze/esku ase/eskuzabal*: diru eta laguntza emaile ona

*Esku nasai/ esku zabal*: diru eta laguntza emaile ona

*Eskuartekoak/ eskugainak* edukitzea beharrezkoa da eta *esku diru* hori banku txartelekin apur bat galdu da. *Esku diru* hori zubereraz *idorra* (lehorra) deritzo eta frantsesak alderantziz «liquide» likido deritzo, agian ura bezala galtzen delako. *Eskugainak*, ordea, ez dira beti diruzkoak edozein baliabide izan daiteke-elako. Halaber, *eskupeko ederrak* biltzen dituzte politika gizon ustelek. Jakina, *bigarren* edo *hirugarren eskuko* edo *beste eskuko* gauzak erostean higadura ere erosten da.

Eskuarekin gauza onik egin daiteke *eskuaire/eskuantze/eskuantza*, trebetasuna baldin baduzu zerbaitetarako *esku oneko* edo *esku egokiko* bazara. Urrunago joanaz, bestearen larrua igurtziz *esku-atseginka* dezakezu. *Eskukatzen* da *eskuztatzen* da gauza bat ezagutzeko edo hezteko, ezen katu edo zakur eskukatua hobeki hezten da, baina eskukatzearen laztana ikusleagandik edo gogoz kontra hartzailearengandik gaizki ikusia liteke. Opari batez erran daiteke *esku-erakutsia* dela edota *eskupeko* bat

Eskua eta jokoak:

*Esku, eskualdi*: (mano, main)

*Esku izan* (ser el mano, avoir la main)

*Eskua utzi*. (dejar la mano, laisser la main)

*Aurresku*: dantza lehen esku emailea edo dantza bera.

*Metaforak* Gizarte harremanak

Eskuz aldatu: jabez aldatu

Eskudantza: ausartzia



Eskua eman: batzuetan eskua erabili gabe laguntzea da.  
 Eskuetaratu: norbaitengana iritxi  
 Esku hartu: diru transferentzia edo beste gisaz parte hartu  
 Eskuan hartu: ardura hartu,  
 Eskua hedatu: edozein laguntza mota eskaini  
 Esku lotu: behartu  
 Eskura ordaindu: eskutik eskura ordaindu  
 Eskuperatu/eskumendetu: menperatu  
 Eskua sartu: edozein moduz parte hartu  
 Eskuratu: errekuperatu

Oihenartentzat zernahi jendeekin akomeatzen eta ibiltzen denaz idatzi zuen:

*Esku orotako makila da* (O.69I).

*Teknologian.*

Eskua eta jantziak: *eskuoibal*, *eskuleku/eskutoki*, *eskumabunga*, *eskularru* (esku *mantso*), *eskumuturreko*, *esku zapi*. *Eskubila*, herri etimologiaz esku bilatu da, jatorriz “escobilla” zena. Halaber, ez dira eskutik etortzen, “eskuadra”, “eskumiku” (escomulgar)

Eskua eta tresnak: *esku-aizkora*, *eskuare* (arrestelu), *eskuaire* (escuadra), *eskubila* (soinekoen garbitzeko), *eskubonba*, *eskuburdinak*, *eskubaga*, *eskuleku*, *eskutoki*, *eskuor-ga* (karetilla), *esku tresna*, *eskusoinu* (akordeoi), *eskusare*, *eskutrapu*, *eskuzapi*, *eskuza-man*, *eskuzare*, *eskuzerra*, *eskuzorro*, *eskuxukadera*. (oihala). *Eskulanetan*, azken ukitua, *azken eskua* da eta *esku diruz* ordaindu daiteke.

Eskua eta idaztea. *Esku ederra* du idazkera ederra duenak Eta eskuz oraindik jotzen ditugun lanen artean baditugu *eskutitzak*. *Eskuidazki* esaten diogu maiz makinidazkia dena; idazteko eskuliburuak eta *esku biztegiak* baliatzen ditugu. Euskaraz, praktikarako *esku idazki* asko egin zen, baina gehienak galdu *esku-libururik* egin ezean.

*Lege biztegian:*

Esku hitzak euskara lege hiztegi nasaia eman du:

*Eskualde*: herri barrutia, erregioa

*Eskuarrantza*: debekatu arrantza da

*Eskugabe*: botere gabe

*Eskubide/eskugoa*: zuzenbidea da

*Eskubidegabe*: zuzengabe

*Eskudun*: eskubidedun

*Eskuera*: lege barrutia (eskuera eduki)

*Eskuko*: norbaiten edo norbaitek hartu eskubidea

*Eskukotasun*: norbaiten menpe izatea

*Eskupe*: dependentzia (gauza bat eskupean izatea ez da gaizki, baina norbait hala edukitzea askatasunaren kaltetan da)

*Eskupeko*: norbaiten esku, *eskumakila* izatea

*Eskuperatu*: menperatu

*Eskurantz*a: baimena

*Eskuratu*: jabetu *Bireskuratu*: errekuperatu

Eta hitz elkartzuz *eskurakor eskurakoi* (eskura erreza), *eskuragaitz* (nekez eskuratzen dena), *eskura ezin*. (inolaz ere eskura daitekeena). Eskuratu aditzak badi-tu esan nahi desberdinak:

*Eskuratzen dut*: jabetzen naiz

*Norbaitengandik norbaiti eskuratzen diot*: norbaitek ematen dit

*Eskuratzen dut*: itzultzen zait

*Gure asmoetara eskuratu behar zenuke*: gure asmoetara bildu.

Eskuin/eskubi eskuma (lat. *dextera*). Esku hori hoberena omen da *esku+uin* (uin = hoberena, ik. Lekuine (leku hoberena), Iruñea, Irun hiri hoberena). *Eskuma* hitz aldaera mendebaldeko euskalkietan darabilte baita Bilboko *esku-maldekoek* ere. Jende gehientzat esku trebeena *eskumatiena*. *Eskuin* esaten zaio esku hori darabilenari. Trebetasun hori letorkioke burmuineko ezkerreko aldeak esku hori eta hitz egitea agintzen dutelako. Frantsesez zaharrear ere esku ona, “la bonne main” zen.

Judu kristau sineste misoginoetan eta Asiako Ekialde Urrunean *eskuinaldea* artasuna, gizona, ongia, zorionemailea da eta *ezkerraldea*, emakumeena zoritxarrezkoa eta kaltegarria. Inka herrien sinestetan ezkerraldean zegoen Ilargi andrea, eskuin aldean eguzki jauna. Elizetan, apaizak bizkar emanaz, andreak ezkerretik eta gizonak eskuinetik esertzen ziren. Orain liturgia berriarekin apaiza kristauei buruz delako alderantziz erran genezake Katedraletako atalburuetan azken epaian Kristoren eskuinetik jartzen dira onak eta ezkerretik kondenatuak. Frantses iraultzako politikak *eskuinean* jarri zituen *eskuindar* kontserbadoreak eta ezkerretik liberalak eta Europa osora hedatu zen biltzarretan bereizkuntza hori..

Berrogeita hamar urteez komunismoarekin manikeismoz *ezker ona* eskuza-bala eta *eskuin txarra* esku lehorrekoa, berezi dira. Orain, nork daki zer den ezkerre eta eskuina non ez den muturreko eskuin edo ezker amorratua.

Ezker/exker (lat. *sinister*). Hemen, badirudi gaitzespeneko fonetikaz “s”ek “z”a eman duela, gainera *-ker* atzizkia gehienetan gaiztoa da (anker, leher, maker, moker, muker, oker, puzker, saker). Hizkuntza askotan hor debekua badago, *sinister* latinak frantsesez “sinistre” (oso ilun) eta gaztelaniaz “siniestro” (istripu handi, itxes) eman du eta *gauche* germanaeratik hartu du frantsesak. Auzo hizkuntzetan badirudi guri hartu digutela hitza edo, behintzat, latina gabeko galdu hizkuntza batetik, gaztelaniak, *izquierdo*, katalanerak eta gaskoierak *esquerra* ez dute latinetik hartu. X. Kintanak honela idatzi zuen:

«Gorputzaren zatien izenak oso aldagaitzak izaten dira bizkuntza guztietan eta borregatik Europako bizkuntzetan oso erraz ikusten da sustrai komuna (?) bibotz, belaun, bagin, belarri, bekain, begi, orri eta haien gisako hitzetan. Baina

bala ere dirudienetik aintzina eskua, hatzamarra eta ilea tabu izan ziren Indoeuroparrentzat hitz hauk oso ezberdinak zirelako Europako hizkuntzen artean.

Hain zuzen, eskuak bete obi zeuzkan balako indar izkutu eta beldurgarriak (Jainkoaren eskua, hartzuloetako esku pintratuak...) ilea berriz edozein sorginkerietan oso erabilia da eta gogora dezagun etsenplu bezala Sansonen ilearen arazo txit ezagun bura.

Eskuarekiko tabua ez da, ordea, guztiz amaitua eta oraino badago horretaz zer esana. Ezkerra oso tabu bortitza da oraindik Europako jendeen artean eta hizkuntza bakoitzak badu horretarako hitz aukeratu bat. Honela ingelesez *left*, alemanez *linke*, gotikoz *bleiduma*, noruegueraz *venstre*, frantsesez *gauche* (germaniar etorkikoa), katalanez *esquerra*, espainolez *izquierdo* (Hor euskal etorkikoa antza) italiaraz, *manca*, *stanca*, errumanieraz *sting*, baina hala ere kontu hartzeakoa da nola eskuina sustrai berekoa den leku guztietan: ingelesez *the right hand*, alemanez *die rechte Hand*, frantsesez *la droite*, espainolez *la derecha*, italiaraz *la mano diritta*.

Ezkerra esateko, gainera, askotan, gaiztoa, zabarra, okerra, moztua, bildua eta bonen antzekoak erabiltzen dira. Ez dezagun abaztu ezkerrek beti ekartzen duela zoritxarra, horregatik latinera azko hitzetik *sinistere* (ezkerra)? *sinistro* (ezbebarra, beldurgarria) esaten dela espainolez. Zeruian kristau onak eskuinean egoteko dira eta gaiztoak ezkerrean (Mat. 23,35) Politikan ere ezkerrekoak eskuindarren iritiz behintzat erreboltarienak eta biburrienenak dira.

Obargarria da baina nola euskaraz ez den ezkerrekiko bat ere taburik egon eta erdare eman dien hitz hori. Beste eskua ordea eskuina, eskoiatua da garbitu modu ezberdinez» [X. Kintana, 1971, 100-101].

X. Kintanak diona inguruka egiten diren dantza jauzietan dakusagu, mutxikoetan, ezen Europan erloju orratzaren aldetik eskuinera inguratzen bada, euskal dantza ezkerrean biratzen da. Euskal Herrian ere ezkerreko belarriaren ziztua, seinale ona da.

Hala ere, zerbait gisaz, indoeuroparrek kutsatuak, ume bastardoei gordekako aita dutenak ezkerreko *haurrak*, ezkerretikoak esaten diegu eta etsai pertsonalari ezkerbegi/ izterbegi. Ezker begirada, ezker soa ez da beti ona. Ezkerra izatea dorpetasunarekin lotua, tresnak eskuinentzat eginak baitira, hortik ere dator batzuk *ezkerti* eta *izquierdo*, *esku+erdi* hitz elkartutik datorrela idatzi dutenak. Ezkerrek, esku ezkerrez baliatzen zirenak nabarmentzen ziren, horregatik Nafarroan XI. mendean baditu Kardiella Ezkerra (I058), Ezcherra (I063), Petro Ezquerria (I093), Lope Ezkerra (II65). Mozkortu ondoren badira bidearen ezkerra eta eskuina hartzen dutenak, eta orduan oinetakoak *ezker eskuin* janzten

Eskaini (lat. *offere, tendere, tradere*) eskatu (lat. *petere*), esker (lat. *gratia*)

Dudarik gabe, esku erroarekin lotuak eta sail horretakoak ditugu *eskaini*, *eskatu* eta *esker*.

Eskatu, eske. Eskatu eta galdetu aditz desberdinak dira, baina frantses arruntean «demander» hitz bakarrarekin esaten baita, Iparraldean frantsesaren kutsu handi horrez bi kasutan, *galdatu* esaten da.

*Eske*: eskua hedatuz eskeka ibiltzea da (baita *mezako eskea* ip.)

*Eskeko/eskale*: eskeaz bizi dena

*Eskari/eskabide*: zuzenez eskatua (dirua, lana, neska baten eskua edo beste zerbait)

*Eskaera.eskari*: eskatze arrunta

*Eskakizun*: eska daitekeena.

Eskaini. *Eskaintza da*: esku gainean edo irudiz ipiniz erakusten eskaintzen dena. *Eskaintza*: eskaintzen dena daiteke eta salgai kopurua.

Esker. Norbaitek eskatu eta eskaini ondoren eman zaionean, *eskerra* igurikatzen da. *Esker* ori laburra edo luzea izan daiteke, baina eman nahi ez duena, *eskergabea/eskergea* da, eta *eskerbeltza/eskergaiztoa* du, nekez erakusten duenak *esker murrizta*, *esker eskas*, *eskergaiztaren* jokabidea da. Ikusten denez-*ker* atzizkiarekin hitz polit bakarra hau da. *Eskerra erakutsi* liteke hitz laburrez *eskerrikasko/eskerrik anitz* esanaz. *Eskerrak ematen* edo *biburtzen* dira. *Norbaiti esker* lan egin daiteke baina bilketa guztiak egin arren ez da sekulan esku hitzaren adibideen *azken eskua* aurkituko.

*Metaforak*

Zerbait oso handia, neurritz kanpoko adierazteko mendebaldeko euskalkietan *eskerge/eskerka* erabiltzen da

Esne (lat. *lac*) Gehienetan, emeek beren titiekin ematen duten janari isurkina da, *esnea*. Kasu bakanetan, gizon gizenek eduki dezakete zertxobait. Benetako esnea, ordea, titidunek ugaztunek bakarrik ematen dute. Ugaztun jaioberri guztien lehen janari horrek eratorriz eman du: bizidun *esnetsua/esneduna*; emaztearen tititik kanpo edo ugaztun baten errapetik kanpo *esne jakia* jan daiteke, edo berarekin *esne gauzak* egin hala nola *esnegaina* kenduz gurina; *esne zopa* egin daiteke, ogiz edo artoz; nahiz ez den gizena, jende batzuek *esne tela*, arrautza, zuringoa bezala albuminaz eginik dena, kentzen dute. Gerta daiteke norbait ez *esnezale* izatea aurre iritziz, sarritan, mediterraneutar gizartean (gizona ardoarekin egiten da) edo daukan gaixotasun batengatik esneak kalte egiten diolako. Haurraren lehen hortzei, *esne hortzak* deritze

Esperma (lat. *sperma*) (ik. hazi). Hizkuntza jasoko hitz horrentzat zubere-raz *azia*, *isurkina*, *kaduri*, *zirrista*, *txorta* diogu eta bizkaieraz, *esne bits*, lapurteraz *linbore*, *limuri*.

Ezpal, (lat. *assula*), ezpain (lat. *labrum/labra*). Anomiari “ezpal” hitzak metaforak eman dizkio.

Ezpala lehen erabileran egur lantzearekin egiten den zati mehe eta hondakin txikia da, egur zahia baino lodiago, baina ohola baino askoz txikiagoa. Hona zer metafora eman dizkigun. *Begi ezpal/betezpal* (behin Landuccik 1562 *begiezpain* ematen du)

Bigarren mailako metafora batean, zurra ezpalaren arabera delako

*Aitaren ezpaleko semea* idatzi da.

*Ezpain* hitza jatorri edo ezpal berdineko hitza dirudi, gainera begi ezpalaren eta aho ezpainaren artean itxura eta jarduera berdina da: zerbait mehez babestea eta haragi xafla mugikorra izatea. Badira andreen aluan *ezpain handiak* eta *ezpain txikiak* (moltsak).

*Patologian*

Jatorrizko akats handiena *ezpain sako/ezpain sakila* da (erdal hizkuntzetan, erbi ezpain) Lupus mota batzuetan ezpainak ere gal litezke.

*Metonimiak*

Ezpain mintzatzean erabiltzen delako arrotz hizkera bat *ezpain arrotza* da. *Ezpaingainekoa*: bibotea da. *Ezpainez oboratu nau* (Leizarraga)

*Metaforak*

*Ezpainpekoa*: zigarroa

*Psikologian eta fisiognomonian*

*Ezpainmehe*: andre edo gizon mihigaiztoari deritzo

*Teknologian eta beste*

Soinekoak buztana eta hegala eta burua bazuen eta *soineko ezpain* ere badago

Laratzean ontzien lotzeko *laratz ezpain* badago Ontzi baten goiko ertza *ontzi ezpain* da (bestalde jadanik, sabela, belarriak, bai eta ipurdia izango) Landareek, *loreek ezpainak* dituzte. Zauriek zabalik daudeino *zauri ezpainak* dituzte.

Ezt-, est-(ikus hertze ere)

*Herstu hertsi estu* aditzetarik beste hitz batzuk dauzkagu *Hertze/beste/ eztul, iztarri* eta beharbada *bezur*.

Eztarri/estagorri. (lat. *gula*) Ahotik urdailera doan hodia da (lat. *oesofagus*), berriz aurrean daukan trakeari batzuk *eztarrigaitz* diote *Eztarri zuloa*, laringea da. *Estagorri* hitzak aldaera asko ditu *ertzgorri* (L.Nb.), *estegorri* (G.) *estagorri* (B.G.) *estanguri* (Ng.) *eztarri* (Z.)

*Metonimia*. *Eztarria* da edanaz bustitzen den estagorriaren lehen zatia

*Metafora*: labeak *eztarria* eduki dezake

Eztul. (lat. *tussis*). Zintzurrian edo eztarrian zerbait oztopo denean, estu-nea denean, eztul egiten dute animalia askok eta jendeek.

*Patologian*.

*Zakurreztula eztulkirriki* deritzo eztula oilarraren edo zakurraren antzean egiten baita gaitz horrekin. *Eztul belar* landarea (*Tussilago farfara*) da.

*Metaforak*

Gauza edo gertaera txiki baten izendatzeko esan daiteke *abuntzaren gauerdiko eztula dela*. *Motorra eztulez* hasten denean beribila laster gelditu behar da.

Ezti. Erleek bildu botanika ekoizpen hori, metafora gisa erabilia da

*Psikologian / jende ezti*, goxoa esateko (ik XIV. mendeko lekukotasuna).

## 7.6

## F-batekin hasten diren hitzak

Ez da euskararen oinarrizko fonetikan baina, hala nahiz, modaz edo, hitz batek “f” har lezake *ofe* (Baigorri) *fan*, joan, oso leku desberdinetan (Zaraitzun, Erronkarin, Etxarri Aranatzen, Plazentzia eta beharbada beste leku batzuetan) *fuin* (muin L. Nb, Ng.)

*Biologia* hiztegian maileguetan aldaera izan daiteke

Fardo (L.) mardo (Z.N.): bigun

Farranga (N.Z.): ehiza larru zebratua, larru marratua.

Flaku, flako: (Iparraldean)

Foltsua (L.), foltsü (Z.): pultsua (G. B.)

Frantza, brantza (L.): brankia (gaskoiera): sakatsa (eusk.)

## 7.7

## G-batekin hasten diren hitzak

GA- G. batekin hasten diren hitzetan ez dugu A- B- E- sail handiren antzekorik aurkituko

Gaitz, gaixo (lat. *morbis*). Hitz hori aski orokorra izan daiteke. Apika, patologiatik hartua, edo hark zailtasuna, nekea adierazteko hitz zaharragotik hartua? Gaitz da esatea, halarik ere, eritasunaren aipatzeko bi hitz ditugu *gaitz* (mina) eta *gaixotasun* (minduaren egoera)

gaitzbera: erraz gaixotzen, eritzen dena

gaitzdun: gaitza duena

gaitzegin: min egin

gaitz epel

gaitz hartu: gaixotu

gaitzondo: gaixotasun ondo

gaitz ustel: soldu, soltxin (B.)

gaizki: txarto, larri

gaizkoatu: gaitza txarrago bihurtu

gaizkondu: gaitzantu (zub. sühartü)

bihotzeko gaitz

herio gaitz: heriora daraman gaitza

Erabileran ez dira ongi bereizten aldikatzen baizik, ezen *gaixorik* dagoena txarragoa doanean *gaizkitzen*/ *gaizkiagotzen da* eta *gaixotegira* daramate. Tabakoak gaitz egiten, duela badakigu baina gizona ehiza baino ahulagoa da gauza horietan.

*Gaixoren eratorriak hegoaldekoak ditugu: gaixoaldi, gaixobera, gaixoti, gaixotasun, gaixoteqi* Iparraldean ez da *eri* bezala erabiltzen baina *gaixoa!* ¡pobre de ti! Xede onez esaten da *Gaixoa!*, baina irribarrez *Gaizoa!* *Gaitz* eritasunagatik esan daiteke, baina *gaixo* hitzarekin eratorria behar da, *gaixotasuna* Edonola, “*gaitz*”, polise-miaz, eran nahi askoz betea da, *gaitz*: urri, neke litzateke, *Gaitz da lan hori*. zerbait itzel, izugarri handi adierazteko: *Himalaia mendi gaitza da*. Iparraldean batik bat, beste adierazia du *Ume gaitza, haur gaitza, egonezina* eta *traketsa da*.

*Metaforak.*

Garrantzi ertaineko gertaeraz diogu, *gaitz erdi*. Norbait haserrekortzen, minberatzen denean, *gaitzitzen da*. Gaizkiren ordeaz, *gaitz erran, gaitzetsi* et.

*Gale/gura.* (lat. *cura*). *Gura* latinetiko *cura* hitzetik dator mendebaldean erabilia da—*gale* atzizkiaren lekuan. Eratorriz, oinarrizko, *edangale* (eta ez beti egarri denean), *goragale, jangale* (eta beti gose handiarekin), *jogale, kakagale, logale, pisagale* ditugu, ez hainbesterako *nigargale, eztulgale, tugale*. Horiakin batean, *edangura, okagura, jangura, jogura, kakagura, logura, txisgura* ditugu, baita *negargura, eztulgura, zistugura*.

*Metaforaz: Atsegale* (atseginzale), *irakurgale, ikusgale*

*Gantz.* (lat. *pinguitudo, sagina*). *Gantza* orokorki bizidun batzuen, ornodunen, larrupean, batik bat sabelean, dagoen gizona urtu gabea eta ehun batean bildua: *gantz ebuna*. Itsas bizidunentzat *saina* esatenago da. Urtu eta *urina* deritzo (gero txerriekin urtu gabeko *urdaia* dago, urtu eta *koipea*). Txerrien gain-txigor, edo *gantz txigorrak* *gantz* urtuz eta haragi puskaz egin gauza goxoa da (*chicharrones, graisserons*)

*Gantza* ez da bakarrik jateko erabiltzen, zerbaitetan ura sar ez dadin iraz-gaitz egiteko, baita erremedioak larruan hobeki sarrarazteko *gantzugailu* batekin *gantzutuz, gantzuketa* eginaz. Badira, ezin sendatuz kristauak elizako azken *gantzudura* edo olioak hartzen dituztenak.

Jendeekin ere, erabil daiteke *gizon bat gantza eginik* erran daiteke, eta metonimiaz *gantza* erabiltzen da *zorro/sabel/ tripa* adierazteko.

*Metaforak*

Batzuetan, andrez esatea *gantza loditzen zaiola, haurra sabelean daukanean*.

Norbaitez diogunean *gantzek alkar jo dutela*, bat batean hil dela adierazi nahi dugu.

Norbaiti *gantza eman*, lagundu erran nahi du.

Zerbaiten hoberena, “*flor y nata, crème*” baldinbada, auzo erdaratan guretzat *gantza* da; horregatik *zerbaiten gantza bil* genezake, baina hurbil dago zerbaitetarik *gantza ateratzea* irabaztea, diru egitea adierazteko dela.

*Gara.* (lat. *caput*). Burua zela-eta *gara* aipatu dugu, baina hiztegian sail orokor eta zabalagokoa izan daiteke (toponimian *garai* eta *garate*, botanikan *gari, garagar*). Nolanahi gora edo *garai* den zerbait adierazten du *gara-erroak*.

*Gara* da burua, aurpegia gabe, beraz *kaskoa*, *burugaina*. Barruan daukana: *gar-muinak/garunak/ karaunak* alegia burmuinak, (lat. *cerebellus*) atzeko zati txikie-nari *garuntxo* deritzo, eta kanpoko azal gogorra *garezurra/garundegia*.

Mendebaldeko hitza izan arren, Euskal Herri osoan bere haziak utzi ditu. Bizkaia eta Zuberoan *garondo* (lat. *occiput*) gararen atzekaldea delarik. Lapurdin *gar-raite*, Zuberoan *garko/garkoitz* ere, baina latinezko “nuca” itzultzeko lepo hitzare-kin eginak nahiago dira: lepegain, lepegako, lepegibel, lepondo. Gero, non nahi sakabanaturik ditugu *garmotz* (garondoko ilea mozturik) diotena eta hainbat lekutan *garbal/garsoil/karsoil/galpar* gara gehiago zer den ez dakitenen artean.

*Metaforak ote?*

*Toponimian.*

*Garai*, gain, goiko alde da, *garate*: mendate. Jende eta leku izenetan agertzen dira Etxegarate, Garaikoetxe, Garate

*Botanikan*

*Gara* “lore” edo “loraburu” da. *Gari*, *garagar* hitzetan, beraz *galbabe* (gariaren garbitzeko), *galburu* hegoaldean (iparraldean, ogi buru), *galsoro* eta *Galipentzu* nafar herria. Hitz horrek ez du gaztelaniazko “cara” hitzarekin ezer ikusteko hain zuzen *garan* ez baita aurpegia konta. Aditzak, *garatu* loratu esan nahi bazuen, orain, ekonomian, gizartean zerbaiten hedatzea handitzea esan nahi du, baina *garapenak* garatzaileak behar ditu.

*Garaitu*, gain hartu, norbaitengan buruzagitza hartu, goitu, *garaipenak* ez dira beti onak, asko desegin dezaketelako eta *garapena* oztopa.

Garatxoak (berrugak). Larruan agertzen diren aleak. Izen ugari dute *tokor*, *trunbil*, *urrebi* (B.), *lakatz* (G.B.) *atzein* (B.Z.) *gari* (G.) *igel*, *kalitxa* (L.), *kika* (N.), *katxa*, *marrüka* (Z.)

*Gazte*. (lat. *juvenis*). Ananomiak eta fisiologiak esan lezake zer den bizidun gaztea ezen batzuk besteak baino lasterrago zahartzen direlako.

Eratorkiak: *gaztaroa* (gazte aldi, gazte denbora, gazte garaia), *gaztedia/gaz-teria*, *gazte lagun*, *gazteria*, *gaztetxe*, *gaztetza*, *gaztezale*. Hamaika hitz daude, sarritan, zerbaiten hobeki saltzeko *beti gazte* edukitzen omen gaituztenak eskaintzen dizkigute, *gaztetuko* garelakoan.

*Metaforak*

Gauza bat, erakunde bat berria dela esateko, noizik behin, gazte dela diogu. Berria dela edo berria izana

Munduaren gaztaroa

Ardo gazte bat

Elkarte gazte bat

*Gera/era*, *giranoi/gubio/biro* (lat. *gigeria*). Aldaera eta izen asko ditu tabu den gauza horrek. Badakigu euskaldun zaharrek hegaztien, txorien aztike-ria, iragartzea egiten zutela, horregatik txorien barrua mailegatu hitzekin aipatzea ez da harrigarri; bestalde erromatarrekin sartu zen gure herrian euskal



izen zaharrik ez duten ahateen, antzaren, oiloen, pabo oiloen haztea. Hugo Schuchardt aleman hizkuntzalaria honela zakusan gaia:

«Aurretik azpimarratu nahi nuke aurritzkiak, senez, baztertzen dituela hizkuntza horrek (euskarak) baita aurrezki itxura dutenek, Gubio (B.) latinezko ingulvies etik dator (ik. Bearneraz galabia, abere lepoa) Gubio horrez kanpo hera, gera, sera (L.N.Z.) eta iranoi/giranoi (N.Z.) hegazti esofagoa adierazteko. [Baskisch und Romanisch, 192.or.].

Eta Karl Bouda, beste aleman hizkuntzalarikak dio

«Euskarazko gera “oilok irents-eta harritzoak gordetzen dituen urdailari” deritzo eta Meyer Lübkek dio lat. *gigerium* mailegatua dela. Gero, gera, hera, sera, gapar/sapar bezala da» [Gavel 157, 395]. Latinetik baldin badator gera, *gigeria* hitzetik letorke, hasierako gi-galduz. Beraz, hegaztien bi urdailek latinismoekin ezagutzen ditugu, *papo eta gubio/gera* eta beste.

Gernu (lat. *urina*) Germanieratik (*barn* hitzetik) omen letorke itsasaldeko euskalkietan darabilten hitza, pixa errateko gernu, beste gisaz urtxuri, txisa eta horien antzekoak erabiltzen dira batik bat *gernu galtze* edo *gernu debeku* delakoak aipatzean.

Gerri (lat. *pube tenuis, umbilicus*). *Gerri/gerruntze* hitzak enborraren erdialdea markatzen du baina beste anatomiazko hitz zenbaiten moduan soinekoaren adierazia badu, nahiz kortse soineko *gerruntze* egokiago izan daitekeen *galtzak*, *prakak* edo *gonak* lotzeko uhala *gerriko*. Metaforaz: *dirugabez, gerria tinkatu behar da*.

Lunbalgiak, aspaldikoa delako eta oraingoan ere, euskarazko izenak ditu, *gerriko min, gerruntze min, eta zartar*.

Gi-erroa

Lau hitz daude sail horretan: *gibel, gihar, giltzurrun, gizen*. Gertatzen da euskal hitz batzuetan *g-* gaineratua, epentetikoa izatea edo *galtzea*, baina hitz horietan beti egoten da. Aurrean daukaten *gi-* hori apika *baragi* hitzean atzizki bezala agertzen den *-gi, -ki* litzateke. Bestalde, haragian *gizen* eta *gihar* ez dira beti bereizten.

Gibel (lat. *hepar*). Euskara osoan berdin esaten da. Bigarren osagaia *-bel* ilun adierazi nahi du (ik. arbel, goibel, orbel, ospel, ubel) Erorriak:

Gibelmin (behazun) lat. *vesicula fellea*

Gibeleko min: edozein gibel gaitz hala nola *gibel handitua, min horia*

Gibel harriak: behazunak eman gatz harri txikiak

Goxoago dira ahate gibelkiak, *gibelki gizenak* frantsesen “foie gras” direnak eta menuetan “fua”(!!)

Metaforak

Kultura askotan, kemenaren eta haserrearen lekua baina euskaraz geldotasunaren, lasaitasunaren irudia ere: *Gibel handiko/gibel oneko neska*: neska trankila da hegoaldean, baina Iparraldean *gibel* = *atze* beste modu batera ere uler daiteke. Baina auzoko hizkuntzen eraginez edo *gizonaren gibela*. *Gibel gaizto*: *Gibel beltz gizon* basati batez mintzo?

Gihar/ ginar (lat. *musculus*) Hitz hori *gi+* *ibar/igar* litzateke. Igar, lehor esan nahi duelako. Euskaldun zaharren artzain, behizain edo arrantzale ziren jendeentzat haragitan hiru sail zeuden

1. erraiak: bihotz, birika, bare, gibel, heste
2. gizenak, gantzak urdaiak
3. giharrak

Gihar *haragi mehea* da, eta gizena *haragi gantzaduna*. Gihar hitza haragi hitza-  
ren miraila, ispilua dirudi, *Haragi* hitzaren metatesia edo alderantzitua dirudi; ez da erdaratik kalkatua, auzoko hizkuntzetan latinez *musculus* “sagutxo” dabilte.

Gihar asko daude gure gorputzean, hezur baino gehiago ere. Giharrak askotan giltzadura batez hezurari lotuak dira. Jakina, biziduna *gihartzen* denean, *gihartsu* bilakatzen da. Talde horretakoak ote *giya* (tendinus, G.), *geli*, *geliki*, *giheli* (N.G. idien okel berria)?

*Metonimia.*

Erdal hizkuntzetan giharra borrokarekin lotua da (*intervention musclée* esaten zaio frantses CRS poliziak basaki jendea “gihartsuki erasotzen” dabiltzanean).

*Metaforak*

Euskaraz, sakontasuna, sendotasuna adierazten du

Liburu gihartsua: liburu sakona

Azterketa gihartsua: azterketa sakona

Harriaren giharra: harriaren zati sendoena

Giharra ukitu: gaitzitu, haserre jarri

Testua gihartu: trinkotu

Zurraren giharra: zurraren bihotza

Giltzurrun (lat. *ren*, *nephros*) Etimologietan sartzea hemen zaila da hasiera-  
koa giltza ote, eta ala *gi+* ultzurrun (intxaur?) Bego! Aldaera asko ditu hiru silaba dituelako *giltzurdin/ giltzurrin* (L.), *guntzurrun* (B.), *gültzürriin* (Z.)

*Patologian*

Giltzurrunak ere *barriak* baditu, *urea* hondakinarekin sortu *urata gatzak*. Animalien giltzurrunak jaten direlako askok hitza animalientzat dabilte eta jendeentzat latin mailegua batzuetan *errain*: riñonak Metafora gutxi: *giltzurrin barria*, harri koskorra, gogorra.

Gizen (lat. *pinguis*). Hitz horren etimologia *gi+* *uzen* litzateke, *uzen* haragi bigun adierazteko.

Hitza delako. Bizidun batzuk *gizenkor/gizenzale* dira; besteak *nabiz gizenki* jan ez dira *gizentzen*. Orain mendebalde gizarteetan jende gizenean kopurua % 2 tik % 30. ra igo delarik gizenkeriaz Oihenarten aholkuak balio du:

*Kozina gizenegiak jabea du bilzen, eta etxea aurritzen* (O.II0)

*Metaforak*

Gizen hitzak loditasuna, joritasuna adiera dauka eta ez beti gaitzespena

*Larre gizen:* belar lodia daukana

*Lur gizen:* buztina daukan lurra

*Zuhaitzaren gizen:* zurraren kanpoko aldea

*Mahats gizen:* mahats molko ederra

*Zurraren gizona:* zurraren zuria (ik. zur giharra)

GI- sail nagusian sartzen ez direnak

Giltza (lat. *articulatio*) Bi hezurren arteko hutsune eta loturari *giltzadura* deritzo. *Giltza* eta iltze hitzek edozein lotura adieraz dezakete, beraz anatomian tresnaren metafora erabiltzen da.

Giza. (lat. *humanus*). Hitz horrek erroan “izan” dauka, beraz, edozein sexutako jendearen izendatzeko erabili zitekeen, *gizalaba*, *giza seme/gizakume* izanik ere, baina denborarekin jende arraren, gizonaren: *giza tzarraren/giza txarraren* baita *gizakundearen* (gizon guztiak) esan nahia hartu du eta badu, nahiz batzuetan orokorrago izan. *Gizakoi* lekuka *oilakea* da, prostituta, politago da Iparraldeko *lilita*, baina andreak ez dute salpen horren monopolioa eta badira *mutilkoiak* eta *emakoiak* gizonen artean hortik bizi direnak.

*Metonimiak*

Gizaren, jendearen jardueraz dira.

Gizabanako/gizaki: jende bakoitza

Gizabete: jende baten handitasuna

Gizabide: jende jokaera

Gizaburu: jende buru

Gizadi/gizateria: jende guztiak

Gizaenda/gizakente: jende kentea

Gizagabe: jende ankerra

Gizagaixo: jende apala

Gizagaldu: jende galdua

Gizahiltzaile: jende hiltzaile

Gizairudi: jende estatua

Gizajale: antropofago

Gizajo: gizagaixoa

Gizatalde/gizaldra/ gizatza: jende ostea

Gizaldi: belaunaldi

Gizalan: egun osoko lana

Gizalege: egitate

Gizarte: sozietate

Gizatasun: jendetasun

Gizatiar: filantropo

Gizategi: egon gelatzat

Gizonde: hominido

Gizotso: likantropo

Gizeraile: hiltzailea

Giza hitza, nahiz ez feministen gogoko, gizonak berenganatze horrek ez al du erakusten, poetikoki, gizona bere burua berekoiki “izaten” dakiala eta emakumeak “ematen”?

Gingil/ dindil (lat. *lobula*, *uvula* eta beste). Larruan dingilizka dagoena eta metaforaz zakil txikia.

*Aboko gingila* (lat. *uvula*)

*Abuntzaren kokotspeko gingila* edo *garrangilak*.

*Beharri gingilak* / *belarr* / *dindilak* / *belarri gangarrak* / *beharri girgiloak*

*Idien lepopoko gingila handiak* edo *garrangak*.

*Oilar gandar* / - *gangarra* / - *gongoilak*: *oilarraren burugainean daude* (lat. *crista*)

*Oilarraren gangailak*: *oilar bizarrak*, *karonkulak*

Gongoil (lat. *ganglio*). Aldaerak: *gangailen* / *gargil*. Badira hor, onomatopeia itxura daukaten hitzak zerbait dilindan, zilintzan dagoela adierazteko. Horiek, zerbait ikusteko dute latinezko *gangliorekin*. Hitz horren *gangailen* aldatzean *gailen* hitzak bere eragina izan du.

*Patologian*. *Gangailenak* / *gangarabil* / *gingil* hitzak erabiltzen dira tulerbulosis kasu batzuetan lepoko edo besapeko ganglioak kutsatzen direnean (lat. *scrofula*).

*Golko* (ik. *kolko*)

*Golo* / *gola* (lat. *collum*). *Golo* hitz horrek euskaratuz *golko* eman luke? Hitz hori, bitxiki, berdin patologian berdin anatomian erabilia da.

*Anatomian*

Idikenteak lepopan daukan gangail handiari *golo* ere deritzo; Iparraldeko leku askotan ez da esaten txerriaren lepoa, *golaspea* baizik eta hil ondoren lepokia, *golakia* baizik, *goloa* ere batzuetan txerriaren *lepoa* da. Jende gizen batzuei lepopan gantza jartzen zaie, hori ere *golardoa* / *kolatxa* deritzo.

*Patologian*.

Lepoaren aurreko aldean ardiei, ahuntzei kutsaduraz *golo* / *golandoa* / *golardoa* / *golatxa* badute eta *golatu* egin direla esaten da jendeen kasuan iodo eskasez tiroidearen gaitzez etortzen zaie (gazt. papada, fr. goître)

Gordin. Batik bat janariak direla-eta ez errerik ez egosirik daudenak. (Hitza gogor + din etik dator)

Gorotz/korotz (grek. *kopros*, lat. *feces*). Hau da gure jatorrizko hitza, nazioarteko kaka sartu arte. Denborarekin *gorotz*, kaka handiari esan zaio.

Eratorriz: Gorotz ihaurte/gorotzatze: simaurra banatzea

Gorotz jale: zomorro izena da

Gorotzil: azaroa, hilabetearen beste izena zuberera zaharrean

Goroztegia: simaurtegia da

Gorotz tapo/gorotz pil: gorotz meta

Gorotz urpo: simaur metatxoa

Bestalde, abereen arabera: *ardi gorotz*; *bekorotz* (behi gorotz), *astakorotz* (astarena), *oilgorotz* kalitateak badira. Jendeen egin gaiei kaka ez esateko *gorotzki* erabiltzen da.

*Metaforak*

*Edertarziuna gorotz zatia, elürrez estalirik (Z.)*

*Bihotz gorotz: bihotz gogor*

*Haur korotza: haur alferra*

Gorputz (lat. *corpus*). Euskara zaharrean eta XVII. menderaino *lohi* esaten zitzaion eta hitz hori erromatarren garaiko hilarrietan agertzen da. Etxeberri Ziburukoak lohi darabil *gorputz hila*, gorpua adierazteko. Hizkuntzak salatzen duenez eta erromatarren garaieraino, euskaldunek *lohi* eta *gogo* ezagutzen zuketan, arima latinetikako hitza eta geroztik sartu adigaia izan behar du. Baina lohi denbora berean lur esan nahi baitu ez zen erraza eukaristian esatea. Hau da Jesusen lohia eta apezek “*Corpus domine Jesu Christi*” hitza erabiliz *gorputz/korputz* euskaldundu zitekeen.

Goiago ikusi dugun bezala, bitxi da nola apez garbitzaile batek, bere esan-guratik aldatuz, 1917.an sortu zuen *soin* “sorbalda eta jantzia” esan nahi zue-na, gorputz adierazteko Aita Olabidek *Giza soña* liburuan idatziz. Gizpuzkeraz eta bizkaieraz hila eta biziaren bereizteko hilarentzat hitz laburtua *gorpu* erabiltzen da. Eratorri ugari ditu:

Gorputzadar: lohadar, menbru

Gorputzaldi: gorputzaren egoera

Gorputza kendu andre bati: coire

Gorputz bide: zurrubide, hilibide

Gorputzez izan: coire

Gorpuzkera: gorputzaren itxura

Gorputzki: errelikia

Gorputz saindua

*Metaforak*

Gorputz horia, gorputz kromatoide, gorputz horzkatua eta beste (anatomian)

Soinekoaren gorputza

Eraikuntza baten gorputza

Euskal Herria gorputz bat da

Zerbait gorputzu: zerbait gauzatu, itxura hartu

(gorputz gabeak eta gorputzdunak badira)

Gorpuzkera: gorputz itxura

Gorputzki: zati

*Gorputzadar* (lat. *membra*) Hitz hori azken urteetan nagusitu da beste lohi hitz zaharra ahaztuz, *soinadar* hitz berria ere, *menbru*, *membre* eta beste maileguak ere zokoan utziz. Gorputz adar ornodunentzat bakarrik eta oindunentzat jakina erabiltzen da, besteek apendizak dituzte.

*Gorri/ gorringo* (lat. *ruber*). Nahiz ez den biologiaren hitza bakarrik, hitz hori lehen gizonen odola ikusirik sortu zuketan eta anatomian baditu erabilerak batzuk, baina frantsesezko “roux, rouge, marron”, euskaldun zaharrek bereizi gabe gorri zioten (Behi gorria)

Ilegorri: bilo gorria

Gorriak: hilabetekoak, odolak, menstruak

Arrautzaren gorringoa

Onddo gorringoa

Azeri gorria, otso gorria

Behi gorria

#### *Patologian*

Begi gorria: konjuntibitis

Gorridura: azalaren, larruaren gorria

Elgorria /gorrina: zurrunpea

Gorrina: laboreen gaitza

#### *Metaforak*

Gorri hitzak oso eta gogor esan nahi baitu asko erabilia da

Begi gorri

Buru gorri

Egarri gorria

Gose gorria

Larrugorri/biluzgorri/ pikarrai gorri

Miseria gorria (beltza erdaretan)

Gorriak ikusi

#### *Toponimian*

*Gorri* usu agertzen da, landarerik sortzen ez den lekuen izendatzeko: *Mendigorri*, *Aixkorriaga*, *Aitzgorri*, *Hegigorri*, *Muinogorri* eta beste

Gorri arriskuaren kolorea bada, baliteke, batzuetan, infernuaren kolorea delako, baina Zuberotar maskaradetan *gorriak* dira *onak* eta beltzak gaiztoak. *Herauskorri* itxurapean agertzen da Zuberoan erromatar garaiko pagano harri batean

*Gose* (lat. *fames*). Hitz hori nondik datorren ez du garrantzi handirik salbu eta *ase* hitzaren simetria dirudiela. Zerbait ikusteko luke gogo hitzarekin? Jan gogo gorria delako. Inguruko erdaratan *gose* “ukan” ekin erabiltzen bada guk ingeleraren gisa (*I am hungry*; *gose naiz*) “izan” ekin darabilgu. Eratorrizkoak, jakina, janariarekin lotuak dira:

Gosagogor

Gosalarte, gosalaritzen

Gosaldu/gosalondo, gosalordu,  
 Gosari, goizeko askaria dela-eta (almortzu erdarakada bitxia, Bizkaian)  
 Gosebera: erraz gosetzen dena  
 Gose/gosetsu/goseti: gosedun  
 Gosegarri: gosemaile  
 Goseak egon: gosez egon  
 Goseak hil/gosekil: gosez hil  
 Gosejan/gose zirri/gosezto/gose gorri/gose huts: gose handia  
 Gosete: gose luzea

Nolazpait, gure arbasoek gosea ezagutzen zuten Zalgizeko jaunak XVI.mendean ematen digu

*Gosea bere jaki (Z.)*

Eta Oihenartek XVII.an jangabeaz

*Ez jan, ez lan (O.29)*

*Gizon barrura, erdi deiabru (O.40)*

Bat batean gehiegi janaren kalteak berriro ere hemen agertzen dira:

*Goseak baino gehiago galzen ditu aseak (O.615)*

Beti gose denaz bada hitz ugari: *aseezin, ezinase, irenslé, janzulo, herxelüze, gosebera*) *gosezto*) Gehiegi jalea: *jatun* (G. ), *tripontzi* (B), *zorro handi* (Z.), *irenslé, sabel handi, sabelkoi, sabel ustel* (Ng. L.).

*Metaforak*

Hizkuntza askotan bezala, gogoaren hiztegian, psikologian, filosofian, erlijioan eta teknikan Behar gorritzko gauza baten adierazteko gose hitza erabiltzen da

*Ongose*: aberastasun gose

*Jakin gose*: jakin gale

Lurra *urez egarri* bazen, ongarriz eta *simaurrez gose* izan dateke.

Gozo/ gozamen. (lat. *sapor*, gustus izenak eta *gratus*, *amaenus* izenlagunak). Gaztelaniatik (gozo) euskaldun guztiok hartu dugun hitza da, atsegina zer den jakin ez bagenu bezala edo atsegina hitz orokorregia delako. Atsegina gorputzarena, gogoarena, gizartearena izan daitekeelako.

1. Gorputzaren atsegina. Nahiz azukrearen, *gozokiaren* esangurarekin *gozodenda*, *gozogile*, *gozogintza*, *gozozale*, nagusitu diren, pasteleria hitzaren ordeztan, *ahogozoa* zapore osoaren erreferentzia da eta Iparraldean behintzat “zapore” hitza ez da ulertzen edozein janarik dastamenarentzat *gozoa* edo *gusta* izan dezake. *Gozogabea* gatzik, edo azukrerik edo zapore gabekoa daiteke, gaur metaforaz gauza hitsaren adierazteko erabiltzen da.

2. Gozatu, ahoaz kanpoko, beste edozein fisiologia atseginez esan daiteke, hala nola orgasmoak, sexu harremanek eman dezaketena.

3. Ontasunen, *jabetasun batez goza* daiteke, hori da *gozabide* bat *gozamena* daukan norbaiti. *Goza gaiak* eta *gozagailuak* kanpoko izan daitezke: izadiak emanak, baina batzuentzat *gozakaizten* (zakartzen) dira eta besteek badakite berdin *gozatzai*le izaten.

*Metaforak*

Hitz gozoak edo goxoak: eztiak izan arren ez dira beti fidagarriak

Amets gozoak: amets gozoek batzuetan itzartze samina daukate.

Gozogabeko bizitzak dakar hiltzeko nahia.

Gura (lat. *cura*). Nahiz latinetik hartua izan, hitz hau Ekialdeko euskalkietan izan ezik, guti edo asko sustraitua da eta bere esanguran euskaldundua. Oinarrizko esan nahia fisiologikoa da eta *-gale* hitzaren adierazkidea. Azken horren alderantziz atzizki eta izen izan daiteke

Afalgura: afaltzeko gogoa, afal gogoa

Erdigura: amak haurra sortzeko nahia, erdigale

Esnegura: esne egarria, esnegale

Guratu: gura izan

Gurari: nahikundea

Jangura: jangale

Kakagura: kakagale

Logura: logale

Txisgura: pixagale

*Metaforak*

Nahi hitzaren adierazkide dugu, baina kalkoz eta euskara menderatzen ez dutenen artean, gartzelaniatzko “querer” hitzaren kalkoan *maite* eta *nabi* izan daitekeelako: pedofilo edo antropofago izan gabe. irakurtzen eta entzun dut *gure alabatxoa gura dot* perpau bitxia. Agian, frantsesaren eraginaz Iparraldeko askok, batik bat itsasaldekoek, *ardoa maite*, *txipiroiak maite* dituztela

*Psikologian* dira metafora nagusiak, ordea: *irakurgura*, *gura izan*, *gura garri izan*, *guraria eduki*, *bandigura*, *jakingura*.

Guri/ gurin, (lat. *butyris*)

*Guri*, “bigun” esangura du, baina batzuetan “gurin” bezala erabilia da. Ona izan daiteke *guritasuna* eta txarra *gurikeria*.

*Metaforak*

Gaitzespenez esan daiteke

Bizidun guriak badira: bildots guri, haur guri (ume gizona), jende guriak

Bizitza guria: bizitza errazegia

Guri bizitze: gurikerian bizitzea

Guri guri eginda: mozkor

Gurikeria: bigunkeria

Guri onespenez denean badira adibideak



Gauza bigunak: azal guria, ogi guria  
 Soineko guriak: (zetazkoak, urrezkoak)  
 Bihotz guri: bihotz bera  
 Guritasun: behar denean guri den gauza

Gurin, urin. Hitz orokorraren aldaera litzateke esnetik atera urinarene izendatzeko (gazt. *mantequilla*, fr. *beurre*) eta beharbada *guri* “bigun” hitzarekin kutsatua edo gurutzatua. Gainera esaten da *gantz guria*, *urin guria*. Batzuetan bikunak ditugu *gurin ontzi*/*guri-ontzi*, *gurin saltzaile*/*guri-saltzaile*.

Guruin (lat. *ganglio*, *glandula*). Eskupean bigun diren bolatxoak ditugu, bi motakoak berezkoak *linfa hodi*tako *korapiloak* eta askotan gaixotzen direnean eza gutzen ditugunak, *gangailenak*/*gurintxoak*/*gurin txuriak*/*ganglioak*. Gaurko hiztegian “linfa korapilo” horiek dira *guruinak*, *Barne isurkinak* dituztenak odolera dariotenak, endokrinoak dira: *giltzurri* gaineko *guruinak*, *hipofisia*, *area*, *guruina paratiroideak*, *sexu guruinak* (gonadak), *tiroide guruina*. Badira kanpora isurtzen direnak exokrinoak izerdia, ahogozoa, seboa dariotenak (*guren*, *bizkaieraz*).

*Metafora*: *malko guruinak*, *negar lodiak*.

G- dun hitzetan sail bat nabarmentzen da *gi-* hasierarekin (gibel, giltzurrun, gihar, gizen)

Lehen sail horretan *g-* ez da epentesia, ez da sekulan erortzen ez den apaingarria, beraz *gi-* erro bat daiteke.

Gero sail txikiagoa *gu-* hitz batzuekin (guri, gurin, guruin), hor guri+ urin aldaerak aurkitzen ditugu. Besteak maileguak dira.

## 7.8

### H-batekin hasten diren hitzak

Hagin (lat. *molaris*). *Ago*/*abo* forma batetik etor liteke, baina hitza zaharregiz ez gara ausartuko bere jaiotagiririk ematen non ez den *abo*+*egin* izan. Sinonimo gisa *hortz dauka*, nahiz azken hau orokorrago izan. Gaztelaniak berdin bereizten du *hagin* (muela) eta *hortz* (*diente*). Euskarak ez du osoki honela ebakitzen ezen “haginetan” sartzen baitu besteek “canina” diotena, *leta*gin/*beta*gin hitzarekin.

Hortz zabala barrukoa, *bagina* da euskalki guztietan, baina aurrean direnak *hortz zorrotzek*, *ebakortzek* izen ugariago dute. Badira oraindik lau *hagin* oraingo jendeen matrailan, leku gabez, nekez edeten direnak eta kentzen direnak *bazter haginak* edo *azken haginak*. Haginak bere zatiak ditu, *erroa*, *lepoa* eta *burua*, anatomiako beste hitzen metaforaz

Eratorriz, aditz bat eman du, *baginka egin*, *ausiki* aditz zaharraren lekua hartzen ari dena. *Haginkariak* izan daitezke lauoinezkoak edo bi oinezkoak baina

ez lukete agintari izan behar. Baita azido batengatik edo nahigabe batengatik *bagin karraskada* / *bagin kirria* izan dezakezu.

*Patologian*

*Haginetako minak.* Hagin gaiztatu edo usteldu daiteke *bagin txantxar* mingarria emanaz edo bestela *bagina hautsi* eta *bagin-hexur* edo *bagin kondarra* utz dezake; *bagina loka* denean eta higitzen bada kentzen da.

*Metaforak*

*Psikologian*

Erdaldunek eta euskaldunek ongose eta irriks handiko pertsonaia batez “*bagin luzekoa*” dela diogu. Euskaldun zaharrek, ordea, baratari, txarlatan, gezurri batez zioten: *Zer bagina duen!* Beste metafora bitxia artzainengandik hartua da. Ardi helduak *baginak berdintzen* ditu, baina Bizkaian jende zentzudunen-tzat ere erabiltzen da esanaz *Agiñak bardinduta dagola*.

Teknologian ez da hagin erabiltzen, urrunago ikusiko dugunez “hortz” bai oparoki.

HANKA/ANKA hitzen sail nahasia

Oina eta zango hizkuntza askok ez dute bereizten (japonierak bietan *ashi*, grekerak bietan *podí*, ukrainerak, *noha* eta abar..) eta mintzaira herrikoian, frantsesak eta euskarak biak nahasten eta oina gutxiago erabiltzen.

*Anatomian.* Espainolek dioten bezala hemen *anka sartze* egitea arriskatzen da, edo euskaldunek diotenez Iparraldean *hinki-banka* ibiltzea, ezen erro bitxi horrek adierazi desberdinak ditu anatomian euskalki batetik bestera eta jatorri aski iluna. Askotan lotsaizunaren edo tabuengatik izendatzea aldatzen da. Sexutik hurbil gaudelako European eta beste lehorretako zibilizazio hizkuntzetan arazo berdinak gerta daitezke.

Hank(a). Germanieratik (lat. “*coxa*” edo fr. *bassin*, gazt. *cadera*) *aldaka*, erran nahia du eta adiera hori du *anka* hitzak Nafarroan eta Iparraldeko euskalkietan; gero Mendebaldean *zango* hitzaren lekua hartu du, behereko gorputz adarraren esateko. Apur-apurka euskara batuaren bidez Gipuzkoa osora hedatzen ari da esangura. Horrela *banka-luze*, *banka-motz*, *banka-okerrak* baditugu.

Nahaskeria ez da horretan bukatzen, ahozko frantsesean bezala hegoaldean batik bat *banka* eta *oina* ez dira ongi bereizten, agian, anka menbru osoari esaten zaiolako, honela ez dakigu *bankutsik* dagoena *ointutsik* ala *zango butsik* den. baina hanketako mina aipatzean zehatzagoa izan behar liteke, “*pie*” eta “*pierna*” ez baita berdina. Eta *bankartea* zer da? Oinen artea, ala zangoen artea?

Hizkuntza guztiek behereko gorputz adar horrekin izendatzeko oztopoak izan dituzte, frantsesean, latinezko “*coxa*” “*cuisse*” hitza eman du izterren izena. *Zango/bankarentzat* berdin ez du klasikoen latinari baina zerriarentzat erabiltzen zen “*gamba*” hitza “*jambe*” bilakatu-eta, gero *jambon* (jamón) emanen duena. Mendebaldeko euskaran bide berdinetik *perna/berna* zerrirentzat erabiltzen zena (lat. *pedis*), jendeentzat ere darabilte.

Gaztelaniak, aski zintzoki, latinaren bidea segitu du “*coxa*”rekin izan ezik: hor ere, bi hitz ditu Iparraldeko euskalkietan erabiltzen den *anca* eta *asmatu* den *cadera*.

Zenbakien aldetik, *bankabiko*, edo *bizangodun* gara txorien moduan, baina *lauzangodunak* eta *ebuzangodunak* (miriapodoak) badira. *Zango-*, *banka gabeak*, apodoak badira harrak eta sugeak bezala, baina zoritxarrez Euskal Herrian ere egiten ziren gizabanako mina batzuen erruz milaka *zango gabetuak* edo *bankamotzak* / *zangomotzak* badira. Jaiotzez *banka* edo *zango okerrak* eta *banka bakarrak* ikus ditzakegu.

Boxeoa *banka* edo *zango joko* ona ez daukanak ringean ibiltzeko, *bankaz gora* edo *zangazgora* joatea arriskatzen du. Goiko nakaskeriaren bidez *bankaperatu* hitza sortu da, nahiz zehatzago litzatekeen *oinperatu* erabiltzea edo aditz zaharrena *uriskitu* (ik. or-,ur-, oin saila). Berdin gaizki eginak dira *bankutsik* bezalako hitzak ez baitakigu galtzerdiak ala galtza motzak ala oinetakoak diren falta. Zorionez oraindik gure *ankazaleak* ez dira ausartu oinetakoak \**ankatakoak* esaten.

#### Metonimiak

*Hanka egitea*, ulergarria da hemen organoa jardueraren lekuan erabiltzen da “joan” adierazteko eta jende lasterrari *banka-arin* erran liezaiokegu, alderantzizkoari *anka makal*. Umetxoari *anka* edo *bankagorri* esaten zaio

#### Metaforak

##### Teknologian

Ugari dira, urrundik edo hurbildik animalia edo gizakia gogoratzen duen zerbaitekin. *Hankadun* dira, *bankabiko*, hiruhankako, lauhankako eta gehiagoko altzariak: aulkiek, arkek, armairuek, mahaiek, mankek, oheek, zangoak edo hankak dituzte.

Hegazkinaren eta bere gurpilaren artean dagoen atala *gurpil zangoa* edo *banka* da Harginek ere horma bat, pareta bat sendotu, bermatu behar dutenean *harrizangoak*, *harrankak* erabili ohi dituzte. Batzuk, teknikan hartzen badute tresnaren *kirtena*, besteek zangoak darabilte: *aizkora zangoa*, *aitzur zangoa*, *sarde zangoa* (alderantziz fr. *manche*, gazt. *esteva*, *mango*)

##### Botanikan

Landareek adarrak badituzte eta ikusi ditugun, bizar, buztan, buru; behar-bada erdaren eraginez, *kirtena* nahikoa lodi denean *arto zango* eta *ote zangoak* baditugu.

Nahiz oraingo euskal kulturaren ez den argi *zango/anka* hitzen lotsagarritasuna, Asian eta Afrikan herri askotan irainik handiena da, norbaiti, batik bat andre bati buruz, zangoaren hankaren hedatzea edo altzatzea baita oinetako batekin irudi baten jotzea. (Sadam Husainen irudiekin egin zuten Iraken). Nudisten artean oina da gorputzaren zati zikina.

Badakigu, gaztelaniaz eta euskainolez hegoaldean *banka sartze* asko erabilia dela, baita frantsesez ere “mettre les pieds dans le plat” plateran oinak sartzea bada. Ala bi erdarek latinetik hartu?

*Metaforaz*

Oinperatu, *bankaperatu*, menperatu esan nahi du; halaxe esan dezakegu Europarrek Ameriketako, Ozeaniako eta Asiako herri gehienak, garai batean, oinperatu zituztela, orain Ipar Amerikarren egin nahi dutena ere besteentzat, gure arbasoek Espainiaren onuraz egin zutela.

Hartz (lat. *Ursus* sp., bretoieraz hartz). *Hartzak* etnobiologian bere garrantzia du. “Piriniar darwinismoan” basagizonaren arbasoa da, eta beraz jendeen urruneko askazia. Hitza indoeuroparra da eta zeltar hizkuntza bati mailegatu dirudi haren izena eta izana tabua delako eta jende izena izan zelako. Hartzaren zuloari *hartz habia* deritzo eta emeari *hartz andere*.

Metaforaz: gizon indartsua da, hartz (gaztelaniaz., indio, tonto bezala)

(H)ats/arnasa (lat. *spiritus*, *respiratio*). Hitz horrek erran nahi zabala du: haizeak egiten duena eguratsa delako, eta *hats/arnasa* bizidunek hartzen eta ematen dugun haize txikia.. Iparraldean hatsa “souffle, respiration haleine” baldin bada badirudi hegoaldean esangura berdinarekin *arnasa* “aoaren atsa” dela. Mendebaldeko euskaran (*h*)atsak aire edo arnasa txarrak dira eta *atsitu* aditza eman du. *atsa* “arnasa txarra” izan daitekeelako edo arnasaren usaina. Arnasa hitz erabiltzaileen artean hitz elkartu asko *ats-* lehen osagaiarekin eginak dira. Eratorriak. Jendea *arnasa hartzen*, *hatsartzen* duenean bi mugimendu ditu *hats gorapena* aire berriarazteko eta *hats beberapen* erabileraz kutsatu airearen kanporatzeko eta metonimiaz eman du hasperen (garbaia). *Hats* hitz erroa orokorra da, badirudi *sakats* eta *egurats* hitzen bigarren zatia dela eta behar bada *haizearen butzaren* “soplo” aren lehen izena.

*Anatomia eta fisiologia*

Arnasa ondo dabilenean gorapen eta beherapena dauka, arnasa hartzen da (respirar). Arnasa ere botatzen da. Indarka baten ondoren *arnasestuka/hatsapatsa-ka/hatsalbo/hatsgabe* egon daiteke, *arnasbideak* ezindurik. Patologian behintzat arnasbide baino gehiago birika erabiltzen da. *Hatsak*, *arnasak* sala dezake gaizki jana, edo eria eta Oihenarten atsotitzetan irakurtzen da: *Gabeak hatsa karats* (0.238).

*Metonimiak*

Hitzelkartu horik garrantzizkoak dira eta oinarrizko psiko-fisiologiazkoak:

Atsedeen: (ha) ts + eden (eden= lasai)

Atsegin: (h)ats + egin (zorionarekin lotua eta arnasa hartzearekin ere)

Atsekabe: (h)ats + gabe (zoritxarrarekin lotua)

Sortzearekin dugun lehen jarduera lehen hatsa da eta hori oihu eginaz. Azken hatsa hiltzearekin bukatzen delako antzinateko erromatarrek zioten horrekin anima galtzen zela. Berdin greziarrek arima arnasarekin lortua zela uste zuten eta Olinpio Jokoetan arnasaren hobetzeak atletari arima edertzen ziola. Azkenean, *spiritus* ala anima bi hitzek esangura berdina dute biriken jarduera “respiración” eta “inspiración” adierazteko.

Antzinatekoentzat ez zen metafora “anima” rena, metonimiaren muga zegoen, arima biriken jarduera zela sinesten baitzuten, ahaztu baitzuket *anemos* haizea dela grekeraz. Gure lehenbiziko idazleak hain latinzale izan ez balira *arnasa/hatsa* berdin arimaren eta izpirituaren izenkide izango ziren. Badakigu, Orixek “inspiración” esateko *goi-arnas* hitz ederra erabili zuela. Halatan ere, euskaldun zaharrak antzinateko gogamen horietarik bazebiltzan ezen arimaren egoera batzuen izendatzeko, (h)atsegin, (h)atsekabe, (h)atseden hitzekin ageri da. Biziaren hiru egoera horiek gure filosofiaren oinarriak dira, atsekabe gutxirekin, atsegin askorekin, eta atsedendiekin bizitzen jarraitzeko.

Hazi I. (lat. *semen*) (ik. sperma). Euskara osoan hazia landareena da, baina denbora berean askorentzat *esperma*. Hortik letorke *askazi* hitza Iparraldean “ahai-de” adierazteko, gainera Bizkaian *azkazi* landareen haziagatik esaten da, bestalde hegoaldeko testu zaharrentzat parentela adierazteko erabili zen. Antzinateko datorkigu Zuberoan Aristotelesen aipatzen baitu, haurra gazta bezala egiten dela hazi batek gatzatzen duela eta artzainek Santa Grazin gatzari diote “*ñiñi txipia*”.

Hazi 2. Oihenartek dio:

*Jatera eman jarraikian*

*Haurrak hazi behar badira*

Hazi 3. *Handitu* Haziera da hazi egiteko era.

*Metaforaz*

Hazi 2. Makina bat hazi

Erdaraz hazi

Hazi 3 Hiri txikia handi hazi

Harenganako maitasuna hazi

(H) ego, (h)egal, (lat. *ala*). *Hegal/hego*, txorientzat eta arraintzat erabiltzen da batik bat. Gehienetan, gorputz adar hori azpian edo aurrean egoteko orde zaihetsean hedatzen da.

Arrainek *hegal bakunak* dituzte larruaren azpian sortu hezur batzuek eginak, baita lau *hegal bikun*, gure gorputz adarrak bezala sorbalda bati eta gerruntze bati lotuak hegal horik hezur anitzdun dira eta ezkatat estaliak.

Hegal hitza erabili da, *hegaluze* (*Sarda arda* L.) atun zuriaren izendatzeko bestea, *hegalaburra* (*Thunnus thynnus* L.) atun gorria delarik. Arrain *hegalari* bakan batzuek kanpo, arrainek gehienetan igeri egiteko darabiltzate berenak

Hegaztietan gure besoen ordekoak dira hegoak, atzen atrofiekin ardatza lumaz edo hegatsez estalia. Hegazti gehienek hegalak aski sendo badituzte *hegan egiteko*, *hegaldatzeko* darabiltzate hegalak. Txoria aireratzan denean *hegaldatzen* da, baina airean dagoenean *hegan egiten*, *hegalez egiten*, *hegal ukaldika* dabil. *Hegaldunak*, airean *hegalari* badira, hegazti batzuk urean igeri egiteko darabiltzate hegalak. Badira hegaztietan *hegal motzak* edo motzegiak *hegan* edo *hegaz egiteko* / *hegaka ibiltzeko* gai ez direnak. Hegazti izenak eman ditu hegatxabal (*Alauda* sp.), hegatxuri (*Larus ridibondus*).

*Metonimiak*

*Hegats*, euskarazko hitz zaharra zen luma adierazteko eta gero idazteko luma zen, horregatik *Hegats* Euskal Idazleeren Elkartearen aldizkaria dugu. Baina eratorriz hitz garrantzitsuenak *begalduna* *begazti* da

*Metaforak*

*Anatomian* bertan zerbaiten saihetsa adieraz dezake.

*Sudur begala*: sudur saihetsa delako

*Meaka begala/begoa*: hegal baten itxura daukalako.

*Bi hegalak*: bizidun baten bi saihetsak, bizkarraren bi aldeak

*Kanpo hegal txuri* (rakis bulboan)

*Barne hegal txuri*

*Folikulo hegalak*

*Hegal grisak* (fovea inferior)

*Meteorologian*

2. Haize izen ospetsua *Hego Haize* edo *Haize begoa*. Zuberoan behintzat lurraren norabideak jarraituz “suroeste” *begoa beltza* da (euria eta ekaitza dakarrelako), “sur” *begoa* (haserrekorra eta batzutan eurigile) “sureste” *begoa xurria* (euririk gabekoa, zeru garbitzaille). Jakina, haizearen izenetik abiatuz *Hego/begoalde* lurburu norabide baten izena da, baita *Hegoburu* Antarktiko erdigunea. Bistan da, *begoaldetarrak*, hegoaldean bizi direnak ditugula. Laburtuz Hego Euskal Herria aipatzeko *Hegoalde* hitza sortu da

Garai batean *hego-sartalde* idatzi dugu, baina garbizale usaina harturik eta itsasgizonen erdal hitza *vendaval*, *mendebal* ahoskatzen zutelako, azken urteetan, erdi erdaraka bat sortu da *hego-mendebalde*.

*Toponimian*. Mendi baten saihetsa, *mendi begala* da. Lurraren hegalak, lurraren norabideburuak.

*Teknologian*. Egitura batean kanpotik agertzen dena: mahai baten luzapena, *mahai begala* da; *leibo begala*, *etxe baten begala*. Teilatua teilaz eginik ez den herrietan euskal hitz zaharra gorde da *begatz/begaztegi* eta *hegatz* horrek aurrean *begala* izan dezake harresiak, hormak euritik zaintzeko. Haize errotak ere *begoak* badi-tu halaber beribilaren motorra hozteko *baizegailuak*, *begoak* edo *begaxkak*.

Automobilak ere *karrozerian begalak* izan ditzake agerian edo sartuak. Jantzi-tan: txapel edo *gimbail begala*, *oihal baten begala*, *kapa begalak*, *gona begalak*, *galtza begalak*

2. Hegaztien antzean eraiki aireko arruntena *hegazkina* dugu, hegaztien bekaitzez eta lasterrago *hegazkinlariek* gidatzen dutena eta hark bere *hegazkin hegalak*, *hegazkin sabela*, *hegazkin bizkarra* eta *hegazkin buztana*, *hegazkin zangoak* eta *muturra* ditu hegaztiak bezala izateko, lumak zaizkio falta.

3. Babesa: *norbait hegalpean hartu*

4. Sexua. Neskari buruz hizkuntza askotan txoriarekin erkatu delako hegal eta lumak beren sinbolo adierazia badute: neskaren bertutea eta esaten da bir-jinatasun galtzeari:

*Hegala hautsi, hegal apurtu zaio Hegalpeko luma galduLuma ederrena galdu*  
 Gainera ospe oneko neskaz esaten da *hegal ederra, hegal fina duela*  
 Hegazti (lat. *avis*).

Hego hitzaren eratorri nagusi horrek bizidunen sailkapenean leku handia du, bizidun ordena bat mugatzen du; hegan egiten duten guztiak ez dira *hegazti* eta *hegazti* guztiak ez dute *hegan* egiten, baina denak lumadunak dira: beren narasti jatorria salatzen dute, oinetan dituzten ezkatek, baita Amazonako hegazti fosil biziaren kasuan atzapar motzak izatea hegaletan. Hegazti txikiari, euskaraz *txori* diogu, eta *hegazti tzarra* handiei. *Hegazterren* esaten zaio pabo harroari.

H)erio/(h)eriotza (lat *mors*)

*Herio*. Gaitz guztien azkena hiltzea delako, *Herio* da hiltze horren pertsonaia, *Herioa bezain beltz, herio baina itsusi* esan daiteke norbaitez. Eratorriak hauek dira: *heriogarri/ heriokor* (hilkor), *herioegile*.

*Metaforak*

Gauzek, herriek eta asmo ederrenek osasuna dutenez hiltzen ere dira eta haien heriotzaz mintza daiteke. Herioak dakarren estutasuna dela-eta indar handia ematen denean bizitzeko, jarraitzeko *heriosubar* ibiltzen da.

*Heriotza*. Ez da pertsonaia baina gertaera. *Heriotza eman* edo *heriotza etorri* liteke heriotzaldia hor dagoenean.

Hertze/heste (lat. *intestinum*). Urdailaren beste aldean, haraindian, jarraitzen duten hodi estuak dira. Urdailetik landan *beste mebarra* edo *luzea* dago, *beherago beste itsua*, geroago goiti buruz, *zeiharka* eta *berriz beheiti* buruz doan *beste handia/heste lodia/heste nagusia* dago; bazterrean *beste itsua*, azkenik, azken zati laburrari *ondeste/uzterxe* deritzo. (Hestegorri ik. Eztagorri, iztarri). *Estutasunarekin* lotua dela darakutsa hesteekin ezer ikusteko ez duen hodia *zilbor beste* esaten delako.

*Patologian Hestetako min* asko daude beren izen bereiziekkin Hesteetako iragapena errazegi eginaz, izen askodun *beherakoa* da (*zirrina, lasterreria, kakeria*) eta nekezegi denean *beste gogorra*, batzuetan ere *hilgarri* den *beste zipozketa*.

*Metaforak*

Lan larregi egiten denean *besteak ematen dira*.

*Egonezinez besteak jaten dira*

Sonda adierazteko *beste* ere erabili da

*Hesteak zimurturik egon*: gosearekin egon, alderantziz metonimiaz ongi jana hestebete da.

Hezur (lat. *os*). Hezurak zatiak ditu, giltzaduraren aldetik *bezurburua*, beharrezko edo artrosian gehiegizko diren *hezur puntak, bezurraren gorputza*. Eta azalean hezur azala (perioste) Erditan, maiz, *hezur mamia*. Jakina hobe da *hezur eta mami* izatea, *hezur eta larru, hezur eta azal* baino. *Hezurtza/bezurbut*s esaten zaio osotasunari, eskeletoari.

Bitxi da nola *egur* eta *zur* hitzekin gurutzatua dirudín *hezur* hitzak. Denak gauza zurrúnak, gogorak direlako. Poetak senez, ulertu zuen

*Egur*

*Zur*

*Hezur*

(Josean Artze.; Isturitzetik Tolosan barru, 1970)

*Anatomian*. Ehundik goitikako hezurren izenak eman gabe, ornodunak narastean ez ibiltzeko daukagun zuraia hezurtza da. Euskaraz hezurrentzat izen bakunak ditugu, hizkuntza klasikoetan metaforak asmatzeko astia izan dute:

Belaunhezur: rotula

Bernahezur: femur

Besohezur: humerus

Bizkar hezur: spina dorsalis

Bularhezur: sternum

Burhezur/garezur: os capiti

Hankahezur: tibia

Hezurdura: eskeleto

Izterhezur: femur

Lepo hezur: cervicalis

Saihetshezur/albo hezur: costa

Sorbalda hezur: omoplate

Zango hezur: tibia

Orokortasunean egoten gara euskaraz, arrainak hezurak ditu eta auzo hizkuntzetan metaforaz diote gaztelaniaz *espina*, frantsesez *arête*.

*Fisiologian*

Hezurra amaren umontzian edo haurtzaroan egin daiteke, desegin daiteke eta zahartzeak ez du hobetzen. Hiztegi hau du: *Hezuregintza/hezurtapen*: hezur egite. Andre batez ez da esaten ernari dela, izorra dela: *hezur berriak egiten ari/hezur txikiak egiten* baizik.

*Patologian*

Gaizki hezurtzen direnak *hezur oker* gera daitezke, zahartzearekin edo gehiegi jatearekin *hezureria/hezur itoia*, gota letorkioke; bestalde artrosiak desegin dezake hezurra, baina badira *jende hezurtsuak* eta *hezur sanokoak*. Karea galduz *osteoporosis* eduki genezake.

Zenbat nahi *hezurtsu* izan, hezur bat *hautsi* daiteke edo giltzatic atera, orduan bere lekuan edo zuzenean jartzeko *hezur zuzentzaileak* mediku ez direnak badira oraindik Euskal Herrian, petrikilo edo daunatua izena dutenak, baina gehienak, beren buruak, orain, fisioterapia diploma batekin babestuak.

*Metaforak*

Gauza baten, eraikuntza baten, sendogarria, eusgarria hezur izan daiteke.



*Teilatu bezurdura**Itsasontzi bezurdura*

Gogortasunagatik. Euskaraz, *fruta bezurra* esaten dugu gaztelaniaz bezala “hueso” (frantsesez “noyau” nukleoa).

Zerbait sakonki sartua : *Euria, izua bezurretaraino sartua. Hezur eta mami adiskide izatea*

Kanpotarra: *bezur beltza*

Hil (lat. *mortuus*) Hil, bizi bezala izen lagun, izen eta aditz izen daiteke. (H)il da, h-dun ala h-gabe, ez da beti goxoa idazten ez eta erraten, horregatik beste izen asko darabilgu: galdu dugu, joan zaigu, zendu da, utzi gaitu. Euskaraz zaharrean berez gertatzen zena *hil/ hiltzea* zen eta norbaitek egitean *eran/era(i)tea*. Bigarren hitz hau galduxe zelako, Zuberoan izan ezik, “asesinar” esateko *erail hilerazi, hilerazo* hitzen lekuan berpiztu da, baina ez da hain beharrezkoa aditz laguntzailea aldatzen bada

*Norbaitek hil du*

*Norbait hil da*

Abereentzat modu desberdineraz batzuek diote bi erdal maileguz, *kalitu* narrastarientzat, eta *akaatu* abereentzat. Hain garrantzitsua denez, eratorrizko hitz asko eman ditu hil hitzak.

Lehen sail batean heriotza dela-eta:

*Hilaldi, bilaurtu* (ilhortu), *hilbehar, bilburu, hilepai, hiletsi, bilezin, hilezkor, hilgai, hilgarri, hil gogortu* (hilotz), *hilbarri, hilketa, hilkizun, hilkintza, hilkor, hil nabi, hiltamu, hiltze, hiltzori* (hil urrean/ hiltamu)

Bigarren sail batean, ospakizunen gatik: *hil abesti, hil agiri, hil andak* (hilaren eroateko), *hilarri, bilarrieta* (nekropolis), *hilaritiz* (epitafio) *hilarorra* (hil izara), *hil beila* (gaubeila/hilbeila), *hilburuko* (ordeinu), *hildei, hil eresi, bilerrri, hileta* (ehorzketak), *hiletari/hiltiar* (hiletan ibilia), *hiliki*, (berhilki) *hil jantzi* (hil oihal), *hiletari* (hilohean sartzaile), *hilkutxa* (hilohe), *hilobi* (hil zilo), *bilondo, bilondu* (enbalsamatu), *hil ots* (hil zeinu, hil ezkila, hil kanpai), *hiltxartel* (hil iragarki).

Hirugarren sailean *Hiltegi* (ospitalean), *hiltoki* (abereentzat) *hiltzaile, hil baratz*.

Esaerak:

Hilondoko gertaerez Oihenartek erran zahar bat ematen digu

*Zamari hilari/ ipurditik olo* (O.201) cf. gazt. *A yegua muerta cebada por el rabo.*

Eta Belako zaldunak

*Hil adi /laidadi* (B.28). *Hil adi, alaba aite* (O.235)

Menditar herrietan, baita euskaldunok ere, hiletaren ondotik jatera ematen dugu eta zegoeneko Oihenarteren garaian zioten: *Hilak lurpera, biziak asera* (O.236).

*Metaforak*

1. Lasaitasuna: gizon hila, ur hila, hilki ibili
2. Gozogabea, janari hila, edari hila, gatzila (gatzik gabe), ikusgarri hila.
3. Itzali: Sua hil, argia hil (mendebaldean amatau)  
Sentimenduak hil, gorrotoa hil, maitasunari bihotza hilik  
Marxismoa Errusian hil ote da?
4. Zailtasuna: bide hila
5. Indargaltzea: aszetikako hildura, bihotz hila, esku hila (paralizatua),  
eguzki hildua
6. Porrot egin: egoteko batean ilaurtu/ilortu gara
7. Galarazi: zorrak hil, egitekoa hil (anular, aniquilar); gosea hil, egarria  
hil. Beharbada ilaundu "errastu" hortik letorke.  
Hori/ ori/ holli. Anatomian ilea hori edo zuri esaten da Neska buru  
zuria ez da zaharrez buru zuritua ile horiduna baizik. Erdi Aroko koplak herri-  
koiak dio. *Ene maiteak bilboa hori*

Hipofisi (ik. guruin).

Hortz (lat. *dens*). "Bortz" hitzak "bost" eman badu, hortz hitzak ez du  
\*host eman. Baliteke, hortz hitzak hor=zakur hitz zaharretik etorri den ezen  
alde batetik umek hortzari *txatxur* diote eta erdaldunek hortz mota bati *cani-  
na*. Hortz, "hagin" baino orokorragoa da eta ahoren kasuan, anatomiatik  
kanpo hagin baino gehiago erabilia.

Hortz motak. Haur txikietan *esne hortzak*, gero *hortzarotan* beste hortzeria  
etorri arte. *Ebakortz/sarkortz* aurreko incisivak dira. *Hortz haginak*: hortz lodie-  
nak. Hortzak *erroa(k)*, *lepoa* eta *burua* dauka. Aditzak: *hortzduntu/ hortzak egin*, ume  
txikietan negarreragile da. Zaharra *hortzgabea/ hortzak galdu*, eta azken kasu  
horretan *hortzorde*, *hortz faltsuen* laguntza eduki dezake.

*Hortzkindu/ hortzirrikatu/ hortz karraskatu*, metal karraska batek eman dezake;  
*hortzkatu* hortzekin ausiki da *Hortzetako eskuilak* eta *hortzetako pastak* hortzen garbi  
salbatzen lagun dezakete. Hortzak dira haurtzaroan baita zahartzaroan gal-  
tzen direnak, horregatik Oihenartek zion

*Hortzik eztianak izarri (O.6)*

*Hortzik eztuanari baba erre (O.7.)*

*Metaforak*

Teknologian eta munduko mintzaira gehienetan, nahiz ez duten batere  
itxura ez eragin berdina baditugu: *engranaieen hortzak*, *laban hortzdunak*, *zerra-  
ren/segaren hortzak*, *sardearen hortzak*, *eskuarraren hortzak*, *artearen/ zepoaren hortzak*. Ka-  
su horietan ezin da hagin hitza erabili.

Hodi/ odi (lat. *vasus, canal*). Hitz hori orokorra da, leku izenetan erabilia  
da (Odihandia, Odixarre, Antsodi), eta ez dut uste biologiak beste emana:  
erreten luze, estu eta borobila adierazten du anatomian. Hitz hori nahiz eta

gaskoieratik mailegatua odolaren kanalentzat \**odol basoa*, baino askoz egokiago da, *odol hodia*.

Elkarte hodia: odola ekartzen duen hodi edo zaina

Elkarte hodi: hodian arteko sarea

Eramate hodi: odola eramateko zaina

Gero, arnasa hartzeko hats bideak, trakeak, arnasodiak, hatsodiak dira. Hala ere odol hitzaren erabileratik kanpo erreten agertzenago da

Eztarri erreten: faringe erreten

Estutze erreten: erreten estaltzailea.

Saihets erreten: “canal costal”

Hotzikaratu (lat. *perfrigire*). Gorputzaren aldaketa hori hotzak eragin dezake baina sukarrak eta bihotzaren desoreka batek ere.

I. batekin hasten diren hitzak

Idun [(lepoa) lat. *collum*]. Mendebaldeko euskalkietan jendeen eta idien lepoa da. Lekuka idiena bakarrik. Agian, hitz hori *idi* hitzetik etorri da, ezen Mogelek Peru Abarkan idatzi zuen: *Idija edo idundija galanta dabena*. Besteek diote behar bada eduki/ *edu-* eta oin hitzetik letorkeela. Ekialdean kirtenari *igoin/ido*in esaten zaiolako. Eratorriak ditu *idun bezur*, *iduntzaki/iduntzamar* (garondo), *idun ebaki/idungabetu*.

#### Metaforak

Oin idun: oin lepoa

Botila idun: botilaren lepoa

Iduneko:lepoko

Idun zuri: bulego langilea

Soinekoaren iduna

Alkondarraren iduna

IK- sailekoak

Badirudi jendeek beren ingurumena eta ingurugiroa ezagutzeko jarduerak euskaraz *ik-* erro batekin hasten direla: *ikasi*, *ikertu*, *ikuitu/ukitu*, *ikusi* eta beste zentzu apalagoak gutxiago erabiltzen dituenak beste erro batekin izendatzen direla (dastatu, entzun)

Ikasi (lat. *discere*)

Haurra berez lauoinka dabil, *bi oinetan ibiltzen ikasten du*

*Igeri egiten ikasi behar da*

*Jaten eta edaten ikasi behar da*

*Urte hartako ikasgaiak nekez irentsi zituen*

Ikertu (lat. *investigare*). Hitz hori *ik+ertu* liteke, *atz+ertu*, aztertu bezala, beraz jatorrizko adieran eskuekin aztakatu adierazia zuketen, baina adiera hedatu da ikertzea *ikusiz* edo *ikutuz* egin daitekeelako. Eratorriak *ikeraldi*, *iker egin*, *ikergaitz*, *ikerezin*, *ikertza*.

Jatorrizko maila apalean:adibideak dira: *jantzien poltsikoak ikertu; Poliziak etxea ikertu; ez dituzte arkeologoak Gaztelu Plazan ikertzen utzi.*

*Metaforak*

Metaforetan dira agertzenago eratorriak; jakintzaren sailean, ikerketa baita lehen urratsa eta hiztegia aberastu zaigu

Ikerketa, ikerpen, ikertze, ikermen: investigación

Ikerlari/ikertzaile: investigador

Ikergai, ikerpen: ikerlan

Ikergaitz: nekez iker daitekeena

Ikerkatu: inspectar, ikerkari: inspector

Ikerpide: método de investigación

Ikerraldi: ikertze baten egiteko aldia

Ikersail: iker batzorde

Ikertegi/ikerzentru

Bisita *ikertzea*, *iker egitea* da lekuka baina kasu metafora ausarta da zubereraz *neska bat ikertu* erraten denean.

Hemen buka daiteke *ik-* hitzen sail hori, *ikusi, ikutu, ikuzi, ikertu*. *Ikasi* ere sail horretakoa da baina biologiatik apur bat urruntzen nahiz *burmuinik gabe* ez den ikasten, eta buruaren jarduera delako *ikastea*.

Ikusi (lat. *vidēre*). Begien jarduera nagusi hau, agian, nagusiegiak eratorrizko hitz ugari eman du:

Ikusarte, ikusigabe/ikusteke

Ikusarau(ikusi bezain laster), ikus begian (aurrean),

Ikuskizun /ikusgai (zine, antzerki emankizun). Ikus-entzunak (audiovisual)

Ikusbera: ikusterrean

Ikusbide/ikusgune/ikustoki/ikustegi

Ikusgailuak: ikusmenaren laguntzaile, hobetzaile

Ikusgaitz: nekez ikus daitekeena

Ikusgarri: erraz ikus daitekeena

Ikusgune: ikusleku

Ikusgura: ikusnahi

Ikuskari: prespektiba

Ikuskor: ikus daitekeena

Ikusmira, ikusmen/ikusker: bista

Ikusmolde: ikuskera

Ikuskatu: (examinar, visitar)

Ikusketatu: (inspectar), ikusketari

Ikusle/ikusliar: (bisita)

Ezikusiarena egin

Ikusi-makusi/ikusi mikusi haur jokia

Ikusmen: bista  
 Ikuspegi (lur) (bista): panorama  
 Ikustaldi: bisita  
 Ikustezin: ezin ikus  
 Ikustordu: ikusteko orena  
 Ikuskin: edozein ikusgailua

Aditzak ikuskatu/ ikustatu: (inspectar, controlar); ikuskatzaile, inspektorea.  
 Metonimiaz: *ikusiak*: eskarmentuak.

Metaforaz: pairatu adieraziarekin: *gorriak ikusi*, egun beltzak ikusi

Ikutu/ukitu/hunki (lat. *testare*) Bigarren zentzu horren jarduerak adierazteko, eskuarenak alegia, *ukimen/ ikumen* delakoarenak badirudi *ik-* zahar bat gorde dela lekuka, baina ez da erraz erratea zein den metatesia *uki* ala *iku*. (iparraldean *bunki* ere) Eratorriak baditu: *ukiezin/ ikuezin, ukigai/ ikugai, ikuitugabe/ ukigabe, ukigailu, ukigune, ukiarazi*.

*Metaforak*

Gehienak, auzo hizkuntzetan ematen dira:

Bihotza ukitu  
 Gertaera ukigarria  
 Gaia ukitu  
 Lehorra ikutu

Ikuzi. (lat. *lavare*). Bigarren zentzu horrekin lotua eta jantziak, eskuak eskuekin garbitu aditza apur bat zaharkitu da, baina baliagarria da. Oihenartek bere 157.atsotitzean eman zuen *Esku batak dikuzke berzea, biek begitartea*. Eratorriak: *ikuzkatu* (ondo ikuzi) *Ikuzle, ikuzleku, ikuzmakina/ ikuzgailu, ikuzobol, ikuzpen, ikuztarri, ikuztoki, ikuzgarri, ezin ikuzia*. Ikuzi aditzarekin Oihenartek ematen digu nola belea garbitu daitekeen baina ez zuritu

*Belea ikuz daite, xurit eztaite* (O.556)

*Metaforak*

Euskara jaso batean, eliza gizonek *ikuzi* erabili dute, bataiatu adierazteko baita bekatuaren aipamenarekin

Kristoren odola ikuzgarri  
 Kristok gure bekatuak ikuzi  
 Ikuztegi edo purgatorioa

Ile/ule (lat. *capilli*, buruko ileak). Euskara zaharrean badirudi *ile* hitz bakarra zela, baina gero Iparraldean eta Nafarroan hitz hori animalientzat baztertu da, artile “lana” esateko eta gaztelaniatik-edo, “pelo” hitzetik *bilo* mailegatu dugu jendearena edo animalia ile latzarena izendatzeko.

Eratorriak eta hitz elkartuak

Jendeen ileak      Ile adar/uleadar: txirikorda, ile xorta  
 Ile adats

Iledun  
 Ilegabe  
 Ile hutsune  
 Ile beltz/ule baltz  
 Ilagorri/ulegorri: bilogorri  
 Ile kizkur  
 Ile labur  
 Ile urdin/ulurdin  
 Ile zuri  
 Ile zut  
 Ilehodi (kapilare)  
 Betile: begiko ileak  
 Abereen ileak  
 Ilakente (ilea daukaten abere motak, ganbelu-ile, ardi-ile, ahuntz-ile)  
 Artile, ardiaren ilea  
 Ile arre/ule arre  
 Ile berri  
 Ile mozle, motzaile  
 Ilagin, ilagintza, ilagindegi  
 Ile estalki: manta  
 Ileri/ile gauza: artilez egin jantzia  
 Esaera zaharra  
*Ardia auntzari ule eske* (RS 498)

*Metonimiak*

Europako beste hizkuntzetan legez:  
 Ileak laztu, ileak zutitu  
 Iletik hartu: ilasi, borrokatu

*Metaforak*

Zertxobait adierazteko hizkuntza askotan bezala:  
 Ile gisakoa: kapilare  
 Ile batez galdu, ile batez irabazi, ile batez hutsegin  
 Oztoporik gabe hitz egiten duenak:  
 Ilerik ez minganean (mihian bilorik gabe mintzo)

Indar (lat. *vigor*). Indar hitzak, azkar edo sendo hitzen alderantziz, ez du euskalki batetik bestera nahasketarik ezagutzen. Jendeen lehen indarra beren gorputzekoa izanik uste dut hitz hau biologiarri datxikola.

Giharren eta hezurren bidez esku lanetan *indar egin* eta *indar eman*, *indarraldi* batean dezakegu *indardun/ indartsu* bagara, baina arrazoi askok *indargabetzen* dute gizakia. Gero, atsedanak *indarberritu* gintzake eta ongi jateak eta *indargarri* baten hartzeak *indartu*. Halarik ere, metafora zaharrez edo buruko lanetan ere

indar egin genezake. Gainera, indar \*egindar batetik badator, ez da bakarrik giharren lana, indarra eskatzen duena buru-lanak ere.

Benetan, metafora dena da gerrako eta borrokako *indarkeria*, baita legeak *indarrean* jartzea. Teknologian *elektrizitateak indarra* badu eta *indaretzetan* egiten da. *Armaden indarrek* zibilen bizkar eulien hiltzeko lango matxinoa darabilte.

Ipurdi (lat. *culus*). Hitz hori ez da euskaraz inguruko erdaratan bezain itsusia, nahiz batzuek erdal kategoriak onartuz gaizki ikusi. Ipurdi berbak ez du, orain, euskaldunen artean lotsarik sortzen, barre apur bat, haurrekin erabiltzen da. Beharbada jatorriz *izterpuru*+ *di* (bizkaieraz *iperdi*) baldin bada antzina beste ipuina zen.

Hitz horrek Europako beste hizkuntzetan bezala sexu adierazia hartu duelako eta Oihenartek XVII.mendean bildu atsotitzak zion

*Ipurdi maite*

*Higuint'e'laite* (gorrota ez liteke)

Eratorriak. *Ipurtezur/ipurkonkor* (lat. *sacrum*), *ipurmai/ipurmami/ipurmazela, uzki mazela* (lat. *clunes, nates*), *ipurtzulo* (lat. *anus*), *ipurteste* (lat. *rectum*), *ipurtondo*. Ipurdien sailkapen laburrez eman dezagun *ipurtigarrek* mehe dutela eta *ipurtandiek* ipurdi gizona, gero jarririk ezin egonez daudenak *ipurdantzari*, *ipurterre* edo *ipurtarin dira*. Jardueren aldetik norbait *ipurdiz gora* egon daiteke edo *itzulipurdika* ibili, edo *ipur-diko* bat hartu, baina *ipurdia* jarririk, eseria egoteko egokiago da.

*Metonimiak*

Animalien izendapenean animalia horren ipurdi itxuraren arabera egiten da

Ipurtargi: *Lampyrus nocticula*, zomorroa

Ipurdantzari *Motacilla alba*, txoria

Ipurtikara, txoria (urtxoria)

Ipurtats: *Mustela putorius* (ipurdi usain txarra duelako Mustelideoa

Ipurtxuri: *Saxicola oenanthe* txoria

Ipurdi sarde: perce-oreille, tijejeta zomorroa

Jendeentzat dira, ordea, *ipurtaulkiak*, harrizko *aulkiak* non ez den artzainaren zakurra gainean esertzen “zakur ipurdi” edo “hor üzki” egoten.

*Metaforak*

*Psikologian*

Ipurtarin/ ipurdantzari/ipurtaire/ ipurloka: egon ezina

Ipurbeltz: ken adi ipurbeltz! esaeran

Ipurdikara/ ipurkoloka: artega

Ipurterre/ zakar ipurdi: haserrekor

Ipurtzale: pornografo

Ipurtzuri/ipurgarbitzaile: balakari, lausengari

Ipurdian ilea hazi: gosea ezagutu.

Berripurdi: berritsu

*Teknologian*

Ontziek ipurdia dute (buztana, belarriak, lepoa, ezpaina bazuten) Edalontzi baten ipurdia jotzen denean, erran nahi du hustu dugula.

Armek ipurtondoa dute

Etxeek ipurdia badute

Aulkiek ere ipurdia (besoak, bizkarra jadanik bazuten)

Beste metaforak

Zerbait urrun dela esateko: *zakurren ipurdian dagoela* diogu

Toponimian, mendiek ipurdia badute.

Jantzien eta gorputzaren lotura batzuk bizkaierazko esaera batek aurkezten dizkigu:

*Burua burundela, gerrijan garrandela, iperdijan karrapizela.* (Astean Asteango albistaria, Bilbo, 1897, 272 a.zutabea).

Iren/Irendu (lat. *castrare, circumcisio*). Zikiratu adierazteko Gipuzkoa eta Bizkaiko hitza da. Eratorriak ditu: *irengabea/irentzake, irentsari, irentzaile*. Oroz gain, abereentzat erabilia kastratu esateko, baina elizak judu jendeentzat ere; *irena* eunukoa da edo kirzunziziatua da.

Irentsi/iruntsi (lat *devorare, exsorbire*). Aditz horrek heste gorriaren, esofagoaren beheara, irensbidearen beheara, iraitsi, jaitsarazi adierazten du. Eratorriak fisiologian: *irensгарri, irensгogor, irensle, irentsezin, irentsgaitz*

*Metaforak*

Auzo hizkuntzetan bezala

1. Onartu ala ez

Iraina, gezurra, iruzurra *irensгарri, irensгogor, irentsezin, irentsgaitz* daiteke

2. Zurgatu, hurrupatu, edan

*Lurra ura irentsi du, lurrikararekin lurra etxea irentsi zuen.*

*Itsasoak iturri, erreka eta ibai urak irensten ditu*

3. Galarazi, gorde

*Hamazazpiгарren mendean suak biriak irensten zituen.*

*Iraultzak irentsiko ditu bere haurrak*

*Herioak irentsi itxaropenak*

*Frankismoak giza eskubide anitz irentsi zituen*

*Angulemako eta Nizako alkateek beren udaletako diruak irentsi zituen*

*Itsasoak arrantzaleak irensten ditu*

*Gauak irentsi zituen kontrabandistak*

*Irakurri egunkari guztien albisteak irensten zituen*

Isats/ixipu (lat. *cauda*). Jatorriz botanikako hitza da, *isats/jats* (*Sarothamnus scoparius*) latinez; gero auzoko hizkuntzetan bezala, “ezkoba, erratz” adierazira hedatu zen, landare horretaz eginak zirelako.

Adibide zaharrenak XI. mendean *Isatsiarraga* da eta XII. mendean *Isatsarte*. Buztan esangura ere badu frantsesez hegaztien buztan adierazteko bakarrik.



*Adats, sakats* (arrainena) hitzaren eredian egin da *isats* eta hiruak izpi mehez osatu organoak dira. Eratorri guti buztan adierarekin: *isats luze, isats motz, isats mutur, isats txoko, isats zut* , gehienak Gipuzkoako.

Beraz, jendeen edo abereen buztana *isats* esaten badugu metafora bat darabilgu. *Ixupa* abereen benetako buztana dela-eta bide berdineko metafora da ezen landare horrek (lat. *bisoppus*) buztan baten itxura daukalako. Tolosa inguruan *buztan* diote, eta Tolosan itsusia dela eta *isatsa* metafora nahiago.

Bestalde, agian, batzuetan landare adartxoak erabiltzen zituztelako apezek benedikatzen dutenean darabilten eskuko tresna borobil duna, “isipua” da.

#### Metaforak

Metafora horiek bigarren mailakoak dira, jatorrizko hitza jadanik metafora zelako

Zerbaiten azkena: gertaera baten isatsa

Azken burua: kometaren isatsa, soineko baten isatsa, liburu baten isatsa

Jarraipena: isats luzeko egitekoa, asmo baten isatsa

Ondorioa: greba horren isatsa ekonomian.

Isil/izil (lat. *motus*). “Mutu” erdal kalkoa hartu baino lehen hitz hori euskaraz *hitz+ bil* adierazten zuena. Jakina, behin behinekoa liteke isiltasuna. Eratorriak ugari ditu, hona batzuk: *ixil-ixil, ixil-mixil, ixilaldi/ixilune, ixilarazi, ixilean/isilki, ixilezko, isilgaitz, isilgarri, isilkari, isilkeria, isilkoi, ixilkontu, ixilpeko* (sekretu), *ixil mintzo* (ixilean pentsatu).

#### Metaforak

Zerbait ilunpean dagoenean: *leku isila, isil-habi, bizitza isila, isil-gorde, isil mandatari ixiltoki* (kalostira).

Ito. (lat. *suffocare*). Hitz orokorra da, arnasa erabat galdu adierazteko, urkatuz, urean, edo gas batekin ito daiteke Eratorriz eta askotan metonimiaz ere: *itobehar, itogarri, (itodura, itomena) itoka jan, itokarrean/itomendian, itolarrian* Sua eta ura gizonaren eta izadiaren kaltegile izan daitezke:

*Urean ito edo suan erre da kalte bera* (O.460).

Baina bere buruaz beste egiteko metodoa da bere buruaren itotzea eta Oihenarten atsotitzak dio: *Erhogoa da itho nahiari beda(t)zea eskua*. (O.583).

#### Metaforak

Zerbait estali

*Egia ito*

*Guduaren gizon galerak ito*

Gaizki jarri, bete betea izan

*Egarriak itoa*

*Irainez ito*

*Sasiek itoa*

*Negarrez itoa*

*Ostatua jendez itoa*

*Ardoz itoa*  
*Barrez itoa*  
*Itzali Sua ito*

Oso emana *Arrautza jateari itoa*

Itsu (lat. *caecus*). *Itzaltsu* balitz jatorria, itzalez beterik esangura luke eta orduan zenbait metaforen ulertzen lagunt gintuzke.

Eratorri zuzenekoak: *itsueria*, *itsutasuna* (itsuaren gaitza), *itsu egin itsutu/itsu bilakatu*, *itsutuki*. *Itsuaurreko/itsuaitezineko/itsumutil/itsu argi*: itsuak ibiltzen gidatzen zituzten mutilak ziren, orain *itsu zakurrak* daude horretarako eta *itsu maki-la zuria* lagungarri.

*Metonimiak*

Ez ikusi, ez begiratu adierazteko:

Itsu itsuan lan egin

Itsu-itsuan sinetsi

Itsumustuan ustekabea

Itsumustutu: harritu

Itsu mandoka/ itsuketa jokia (gallina ciega)

Itsu joko (joko garbian pilota zuzenean jo)

Itsutasuna begiko gaitza bada, itsumendua gogoarena da. Lehenaz mintzo, Oihenartek bi esaera bildu zituen, bata nazioartekoa

*Itsuen artean okerra* (begi bakarra) *errege* (O.49)

*Itsu bano hobe oker izatea* (O.289)

*Metaforak*

*Psikologian:*

Itsudura, itsukeria, itsumen, itsuki ibili

Itsumendi: itsu eta temati izatea

Bide itsua, borroka itsua: aterabide gabekoa

Nahigabeari itsu: zoritxarrak ikusi nahi ez dituenak eta Oihenartek:

*Itsutu behar duenak begiti* (O.290)

Itsusi: hitz horrek erran nahi luke ikusi nahi ez dena (*itsustu*, *itsukeria*, *itsuski* (larriki) *itsustasun*).

*Teknologian:*

Itsutari: janariak gordetzeko lekua

Itsulapiko: haurrek dirua gordetzeko lekua

Tupinitsua: zarata egiteko lapiko-tanborra, ipurdi gabekoa eta ahoan zerri maskuriz tapatua, maskuri horren erditik makiltxoa, zotz luzea igarotzen da; makiltxoa mubitzean zarata egiten du lapikoak. Trena hori jendeen irainez egin zintzarrotsetan erabiltzen da, baita azkonara eta basurdea arto sailetik urruntzeko.

*Patologian*

Itsu saldar/itsu larru (gazt. *divieso*, fr. *furoncle*)

Izerdi (lat. *sudor*). Hitz hori *Iz* (likido)+ *erdi* (atera) litzateke Eresi zaharretan jaun gudariak agertzen direlako odol irakurtzen da, baina izerdia ez, hori langile xumeentzat delako. Halatan ere frantsesez Rabelais idazleak 1543.an euskarazko testu batean dio.

*Jaun Handia, edatea on da, izer landa.*

Halaber, 1562.an Landuccik bere hiztegian Arabako euskarari *izerditu/-izertu/ izerdi* izan hiru aditz erak ematen ditu.

*Biologian*

*Izerdi* guruin exokrinoak baditugu. Jendea *izerbera/ izerkor/ izerkoi* daiteke hots izerzale erraza. *Izerdi anpuluak, izerdi tantak/ izerdi txortak/ izerdi lekak/ izerdi linkak* baita *izerdi larria, izerdi hotza* gaixo denean, *izerdi jario* motak isurtzen dira. Izer-tze edo *izertaldi handia* denean, oso aberatsa da izenlagunetan euskara herrikoia:

*Izerdi erreka/ izerdi babe/ izerdi beltz/ izerdi basa/ izerdi bits/ izerdi garo/ izerdi koipe-tan/ izerdi lamatan/ izerdi lapa/ izerdi lapats, izerdi lats/ izerdi pats/ izerdi peletan/ izerdi tzi-rraka/ izerdi ubarretan/ izerdi uretan. Izertegiak* (Hamam eta Saunak) dira leku ego-kiak izertzeko eta izertaldi ederren biltzeko.

*Metaforak*

*Landareen*, zuhaitzeen sapari, *izerdia* ere deritzo

Izerdi zapi: hilaren aurpegian ipintzen dena da

Izerkari: hil izara, hil mihisea

Horma izerdi: horma hezetasunez bustia denean

Izorra (lat. *pregnans*). Izorra *Iz* (likido)+ *zorro*(sabel). Nire etimologiaren lagungarri badago hitz bat lapurteraz andreak erditu ondoan botatzen dituzten ondokoez, *urzorro*, izorra hitzaren itxurakoa eta modernoagoa da. Andere izorra erditzen denean *zorrotza* bat egiten du. Abereen amez ez da esaten izorra direla, *ernari* baizik (ik. *ernari*).

Izorra hitz hori aspaldikoa da eta ez zuen XX.menderarte gaitzespen nabardurarik. 1562.an Arabako euskarari Landuccik preñada: *yçorra*, preñez: *yçorraitea* ematen digu. Etxeberrri Ziburukoak XVII.mendean idazten du:

*Gabrielen erranaz zen*

*Orhoit ama Birjina*

*Semeaz izorra zela*

*Elisabet kusiña* [Noelak, 1970, 44.or.]

Eta Gabriel urruntzen denean olerkariak dio

*Eta izorra gelditu zen*

*Birjina saindua.* [ibidem 43.or.].

Etxahun Barkoixekoak XIX. mendean idatzi zuen Maria Solt eta Kastero kantuan dio andere zaharra negarrez dagoela, “*izorra dela beldurrez*” Denboraren arabera, izorra berri izan daiteke edo *izorra handi*, baina *izorra nekeak* hor dau-denean *izorraldiaren* azkena da.

Lhanden Hiztegiak 1926.an eta Azkuerenak 1905.an espainieraren kal-koz “izorratu” “iruzurtu” itzultzen dute. Berriki, euskaran sartu gaitzespen horiek eufemismoak ekarri dituzte, izorra ez errateko: haur esperantzan, haurdun, okupu, hezur berriak eginik, hezur txipiak eginik eta beste. Gaitzespen biderik XIX. mendean sortu zen hiztegia *izorkeria* (adulterio), eta *izorketa* sexua dela-eta. *Izorra* sexu gaitzespenez gehienik erabili duen idazlea Jon Etxaide da eta bekatua gogoan: *izorkide*, *izor-urde* hitzak; baina iruzurraren kasuan *izorratzaille*. Hortik sortu ziren *haur beharra*, *haur esperantza*, *haurduntzekotan*.

*Metaforak*

Irudimenez nengoen izorra

Izorra nüzü jakin nahiz (Z.)

Izpi (lat. *fibra* edo *spina*). Hiztegi orokorreko hitza da, zerbait luze eta mehe adierazteko, mailegua bada, botanikatik letorke (*spina*). Adierazkideak ditu, *fits*, *lits*, *pintz*, *zuntz*. Izpi-k erabilera zabala du. Euskara batuan bada *joera izpi*, *argi izpi* edo fisikako leinuruaren aipatzeko erabiltzea.

Anatomian

Adats izpi: adats bilo

Begi dilista izpia

Gihar izpi: *fibra musculi*

Haragi izpi: haginaren artean sartzen zaizun horrelakoa

Kirio izpi: *fibra nervosa*, lat.

Besteak

Belar izpi: belar zati

Erlearen izpia: eztena

Ez izpirik: batere ez

Izpi bat: apur bat, une bat, izpitsu: izpiz egina

Izpika ilea bereizi

Sagarroi/triku izpiak: Kirikinoaren arantzak

Zur edo egur izpita

*Metaforak*

Eguzki izpiak: eguzki inarrak, leinuruak, errainuak

Gurpil izpiak: (bizikletetan, gurdietan)

Denboraren izpiak

X. izpiak: irrada energiak

Eraterriz edo *zizpiak/zizpirtak/zizpiotak* larruan sartzen zaizkigun gauzatxo-en izpiak, arantzak *plastiko* edo *egur* edo *metal izpiak* dira. *Zizpite* (artzainen hiztegian), gatzaren zulatzeko eta gatzura kanpora dezan erabiltzen den zurezko orratza, egurrezko zotz mehea da.

Izter (lat. *femur*). Uzter. *Izter* (iztar mendebaldean) Zangoaren goiko aldea da. Hitz horrek *uzter/uztar* eta *uzki* hitzekin zerbait ikusteko du. Izterrak

zatiak ditu *izertxoko/ iztaloki/iztondo/iztesagu/iztaialde* gerruntzearen aldetik goiko giltzadura da. Hor daude linfaren *iztazorri/iztagurintxoak*. Izterrak kanpotik dauka *iztermamia*, barruan *izterezurra; izterbarrena/ iztergaina/ iztertea* ageriago da aberetan. Izterraren beheko aldia *izterburua* da eta atzekaldea *izterzaina*. Zangorik ez dutenenak iztermotz dira. Hobe da *izteroker* edo *izterzabal* izatea *iztermotz* baino. Izterraren babesteko, gerizatzeko, *izter-botak, izterlarru* eta *izterburdinak* badira.

Aditzak dira

Iztalgaratu: zangoetan arrimatu eta metaforaz gogor egin eta iraun

Iztakoloka/iztalatraka,/izterurkulu: norbait *izterrez* beste baten sorbalda-ra *igotzea*

Iztergoratu: altxatu

Baina badira batzuetan

“z”, “s” trukaketarekin *istalondo, istaloki* eta beharbada *isats* hitzak.

*Metaforak*

Izterkatu: fruta, baratxuria zatitu

Baratxuri zister/ baratxuri izter, laranja izter.

(Kontuz hitz elkartuetan *izter*, ezker hitzaren aldaera daiteke (*izterbegi, izterlehengusu*))

Izur/uzur/izkur/kizkur.(lat. *crispus*). Berez edo hotzarekin edo beroarekin azalean zimurtzen den gauza edo jendea, *izurtzen kizkurtzen* da. *Izur*, agian *itzuri* aditzarekin ikustekoa luke *izurtzen* denean biloa, ilea, oihala eta larrua *itzurtzen*, tolesten, zimurtzen baita. Nafarroan XIII.mendean badira lauzpabost jende Izurra izenarekin agertzen direnak.

Bekoki izurrak: behin behineko zimurrak

Bilo/ile izur: biloa biribilkatzen denean

K-dun aldaerak *kizkur* adierazkidea dugu, beharbada *kiskil* hitzaren eraginaz ezen “kiskiltzea” andereeileapaindegietan beroarekin egiten dieten ilearen biribilkatzea da.

*Metaforak*

Izurrak edo zimurrak:

Soinaren izurrak: soinekoaren zimurrak

Pinturan izurrak egin

Itsasoaren azala izurtua

Izurmenu: fisikan uhina.

Hotzarekin eskuak kizkurtuak

*Psikologian*

Pentsamendu baten izurrak

Esaera baten izurrak.

Izurri, izurrite (lat. *peste, epidemia*). Hedatzen den gaitza. Hitz zaharra gertaeraren gisa: *izurrialdi, izuri beltz, izurridun, izurritu, izurritzatu*.

*Metaforak*

Alde txarra

Sugearen izurria: pozoia

Gogoaren izurritea: gogoaren kutsadura

Telebistak bezala pentsatzea izurrikeria da

Alde ona:

Gizonez, sagarrez izurria: gizon, sagar ugaritasuna.

## Laburzki

*Ik-* erro sail ederra bereiz genezake buruaren jarduera nagusietarako eta zentzuen aipatzeko ere elkarri lotuak direlako, ezen ikusmena, ikermena, ikumena, ikasmena, oinarrizko dena bilatu behar *i*-kendez erro multzo bat: *-kus,-ker,-ku,-kas-*, ik-saila hautsiz, aurreko *i-* horrek hitz horien zahartasun handia erakutsiz (ik.. zentzuak)

Bestalde, izerdi, izpi, idun kendez geroz “*i-*” dun hitz andana, gerritik beherako zatien izendatzeko erabiliak dira. *Iz-uz* erro bat legoke: *ipurdi, izter, izats, uzter, uzki, uzker, buztan*.

## 7.9

## J. batekin hasten diren hitzak

Jaio (lat. *natus*). *Jaio* kumea, haurra sortzen denean jatorrizko hitza litzateke, *jaiki* aditzarekin lotua Eratorriak

Jaio berri: sortu berri

Jaioleku/jaiotibar/jaiotoki/ jaioterri, jaiotetxe: sorleku

Jaiocera/jaiotz: sortzea

Jaiotaldi, jaiotegun, jaiotordu: sortaldi, sortegun, sortordu

Jaiotizen: sortizen

Jaiotzagiri/ jaiotz papera: sortagiri.

*Metonimiak*Jaiotza (gazt. *Belen*, fr. *crèche de Noël*)*Metaforak*

Biologian, zerbait agertu, sortu

Erraiak jaiotzen: erraiak garatzen, erraiak sortzen

Hegoak/hegalak jaiotzen: hegalak sortzen

Bizarra jaiotzen: bizarra sortzen

Hortzak jaio: hortzak sortu

Izadian:

Euskal Herria jaio

Iturriak jaio  
 Sumendiak jaio  
 Eguzkia jaio  
 Denbora jaiotzen  
 Psikologian, sentimenduak jaiotzen  
 Okerra/gaizkia/ bihurikeria/ gaixtozeria/ gorrotoa jaiotzen  
 Urrikia, garbaia, edertasuna jaiotzen  
 Bihotzetik jaiotzen  
 Buruan jaiotzen  
 Literaturan:  
 Liburu bat jaio. Ipuina jaio den herria  
 Jan (lat. *manducare*). Jan, janaria, hazkurri solidoa hartu.  
 Eratorriak:  
 Jale  
 Janarazi  
 Janberri, (antonimoa, janzahar), janondo/janoste (antonimoa, janurre)  
 Janari/jan/ jateko/jangai  
 Janari denda  
 Janaritegi: janari gordeleku  
 Janaritu: janari eman, janariz hornitu  
 Janezin, jangaitz, jangartzu (gosegabe), jan txarreko  
 Jangale: gose  
 Jankatu: hortzikatu  
 Janurri/ janarin/erdijan: dieta  
 Jankin: jan ondakin  
 Jangela, janaritoki, jantegi, jantetxe, janaridenda  
 Jangale/jangura  
 Jangose, jatun (asko jalea)  
 Jan neurri: dieta  
 Jatetxe  
 Jatordu  
 Jatun: jale handiegia

Euskaldunok jale handiak gara, baina gure gastronomia duela ehun urte hasi zen goratzen, hirien garatzearekin eta batzuetan krisialdietan asmakizunekin behartuak. Jangaitzik ez dago, ordea, gosetean bizi denarentzat. Gutxi jaten duenak *milizkatzen* du, *jankatzen* du edo *militza*, *millina*, *minkurin*, *mizkin*, *jestüöntzi*, *muturfin* da.

Berriro dieta kezka ditu Oihenartek baina ekonomia arrazoi batengatik eta jendea behartsu uzten duelako:

*Anbiz jana, eta anbiz edana, da bontara nakarrana* (O.26).

Baina halabeharrez jangabe egoten dena da Oihenarten arabera:

*Bortxaz, eztuena zer jan, barurzale* (O.I04).

*Metaforak*

I. Desegitearena

Herdoilak jan, itsasoak harkaitza jaten, ondasunak jan, osasuna janik, minak jana.

2. Faltsukeriak: P. U. idazleak hitza jan eta bere izenean zati bat argitaratu zuen Txominek eman zionetik argitaratzera.

3. Zerbait on edo txar onartu

Begiez jan (begien janari), irakurlearen janari, baina gezurraren janari, itsumendua gorrotoaren janari

4. Barruko kezka: garbakiak jana, tentazioak jaten, tripak jaten

5. Zopa jan, mukiak jan: ezpainetan musua eman

Jario. Jariotzea esaten zaio berez isurtzeari. Hala badira jariaketa sisteman kanpojarioketa guruinak erdizka (area, listu guruinak, izerdi guruintxoak eta negar guruintxoak sexu gonadak barnejarioketan (area, behazun xixkua, giltzurrun gainekoak, hipofisia, sexu gonadak tiroidea). Guruin batzuek bi motak dituzte (area, gonadak).

## 7.I0

### K. batekin hasten diren hitzak

Zerrenda horretako hitz gehienak edo *g*-dunen aldaerak dira edo maileguak. Gauza zikinen izendatzeko mintzaira askok gureak bezala, auzo hizkuntzetan hartu dute. Europar askok latinari edo grezierari, non ez den auzo erromantzetarik.

Kaden (lat. *placenta*) *Kaden*, ahul adierazten du eta *kadendu* argaldu esan nahi du, hortik *kadentasuna* (*karen kadan* hitzaren aldaera da, ik. *karen*). Beste izenez, *eperdimukur* (B.)

Kaka (lat. *feces*) Grezieraz *kakos* ez da jende gorotza, “txar” esangura du (ik. kakofonia), kakari “kopros” esaten diote. Ez da euskara materia horietan mugatua.

Gogorrari: *kakatanto*, edo *mokordo* esan ohi da; bigunari: *zirrin* (*altxirri*, ardi-dientzat)

Eratorriz

*Kakaqale/kakaqura*: behar arrunta da

*Kakalarri*: presazkoa

*Kakeria* (Z.), *kakajario* (G.), *beheitikoa* (E.b.), *berentxako* (B.): zirrina da, *kakamokordo*, *kakatanto*: gogorragoa, (Behiek orduan *ipur kakatsu-/kakatia/kakazu* dute)



*Kakegin* daiteke *kakontzi* batean eta kantuak dio «usaina zabaldu zen bost legoa bidean» *Kakategiak*/ *kakatorioak* ere badira lurrean egindako hobiak.

Ez dugu, ordea, auzo hizkuntzei hartu gazt. mierda, fr.merde eta biraoka bakarrik gabiltzanean: *kakazabarra!* diogu, baita norbait iraintzeko, *kaka hiri!*

*Metaforak*

Psikologian

Kakaeragile/ kakaeginarazle/kakegingarri: aspergarria da

Kakalastatu: arazoa nahasi

Kakanahaste: arazo zikina

Kakerre: haserrekor

Gaitzizenak

Kakajale: tontoa

Kakati

Kakanarru: jende txikia

Kakantzoil/ kakamerke: jende apala, ohoregabekoa

Kakaume: oso txikia

Kakakola: edaria

Esaerak badira

Bere kakan utzi dut: bere arazoekin utzi dut

Kaka baino errazago

Kaka esplikatzen: entzun nahi ez dutenei alferretan hitz egiten

Kaka jan duk: tontoa haiz.

Kankail/kankailu: jende handi mehe eta baldarra.

Metaforaz: abere mehe bati edo etxe bati egotzi zaio.

Kapilar hodi (ik. zain)

Karen/karan/kaden/kadan (lat. *placenta*). Hitz hori latinezko *cadena* mailegua da; gehienetan abereentzat erabiltzen da, andreentzat *ondokoak* edo *haurlagunak* esaten da. *Karena* kumea humontzian babesten duen urezko boltsa da. Urratu ondorenemeak jaurti du kanpora. Hitz oso berezia izanik eratorri bakarra du *kaden-txerri* sortzen den azken txerri argala. Nahiz ez den horretako hitzik erabili beste ugaztunetan badira *kadenkumeak*, hala nola katu eta zakurretan.

Kima/ gima. (lat. *coma*). Zaldien lepoko zurdak, baita trufaz neska edo mutilen adats luzea.

Aldaerak, *txima*, beste hitzak *zamar handi*, *ilbe* (Z.). Illeun ilara (G.), *ilebizar* (G.).

K-S-K. saila (lat. *cuscolium*, *cochlea*)

Kasko/kaskar. (gast. casco, lat. *caput*, *calavaria*). Izenlagun arrunta da eta izena da. Leku askotan buru hitzaren lekua hartzen du buru barren ñabardura batekin. Euskalki guztietan, asko erabilia, Zuberoan *bürgain*, *bürbezür* erabiltzenago dira; gero, Zuberoan ironiaz *kasko* eta *kabeza* erabili daitezke. Gaztela-

niatikako hitza da eta “o” rekin bukatzen diren askoren gisa, ez dakigula zergatik. Buruaren kaskoa dela-eta: *kaskazal*, *kasko bezur*, *kasko muin*; *kaskutsik* aurki zintezke.

Buruaren metafora bat da. Frantsesak berdin egin du eta italiarrak ere latinezko *testa* “lurrezko ontzi txikia” metaforaz hitza hartuz. Kaskoa azkenean edozein gauza borobil gogor baten azkena adierazteko hitza da:

Harkaitzaren kaskoa  
 Buruaren kasko: burugaina  
 Etxearen kaskoa  
 Mendiaren kaskoa  
 Ogiaren kaskoa  
 Zuhaitzaren kaskoa  
 Zurubiaren kaskoa

Zati gogorra izan daiteke: ogi kaskoa, botila kaskoa, onddoaren kaskoa.

*Metaforak*

Psikologian.

Kaskasoil, kaskuts: inozo  
 Kaskoak berotu  
 Kasko lana: buru lana  
 Kaskodun: jende argia  
 Kaskarin, kaskogabe, kasko mehe.; adimen gutxikoa  
 Kasketa: burukeria, kapritxoa  
 Kaskagogor: buru gogor.  
 Kaskar/kankar: burua (G.)

Gaitzespenez

Kaskar/kaskartu. Gogor eta txiki esangura du ia kaskoren kasuan bezala  
 Zerbait kaskartzen da: gogortzen da  
 Kaskarra/koskorra: bizidun txiki eta borobila  
 Barazki kaxkarra  
 Jende kaskarra: buru gogorrekoa  
 Eguraldi kaxkarra: eguraldi txarra  
 Ikasle kaskarra: ikasle txarra  
 Liburu kaxkarra  
 Uzta kaxkarra

*Kaskar* hitzaren antonimoa, *koskor* da eta ume bat *koskortzen* denean hazten dela erran nahi du eta baditugu *mutil* eta *neska koskorrak*.

Kiskil: esku lanegiterakoan anpulu batzuk egiten dira likidoz betetzen direnak; beste izenik badute, arranpulu (Nb. Ng.), kiskilli (Z.) anpulo, pusla, ugertxio (G. B.) pintz (L.)

Kokots/okots (lat. *mentum*). Ez da hain argi sail horretakoa denik, nahiz zerbait borobil eta gogor adierazten duen. Nondik nahi, badirudi metafora dela ezen hitz zaharra *bidar* zitekeen, oraindik Zuberoan erabilia. Anatomian *kokotzalde/kokosandi*, *kokotsbizar*, *kokospe kokotsezur*, *kokots soil*.

Gauza askok *kokotza* dute

Egur kokots

Errota kokots

Legatz kokotxak

Sagar kokotzak

Jatorriaz zalantzak ditut. *Kokots* ez da hitz bakarra badira: okalda, oka egin, okail, okil, okitu beharbada latinezko *boca* batetik hartuak?

*Metaforak*

Litezkeenak: *kokotseraino*, *kokorreraino* bete. *Kokots andi*, *mutiria*.

Kolko. (lat. *sinum*). *Kolko*, beharbada, *golko* hiztegi orokorretik hartu beste metafora bat genuke. Kolkoa bularraren goiko, alderainoko lekuari eta jantziaren goiko aldeari berdin deritzo. Zeinek nori eman dio? Latinezko *collum* hitzetik etorria? Lepondo hitzaren adierazkidea? *Paparra/papoa* berriz beherago? Horretan ez dago akomeatzerik.

Jantziaren kolkoan dirua edukitzen dugulako kolkoa diruz betetzen *kolko-ratzen* edo *kolkotik erortzen* husten da.

*Metaforak*

*Psikologian*

Sekretuaren irudia da *golko*: isilpeko *gure golkorako edukitzen* dugu. Horregatik badira *kolko andiak* (isilak), *kolko lasaiak*, *kolko zabalak* (aho handi), *kolko zimurrak*. Zerbaiten barrena adierazteko.

*Sektaren golkotik ezin zen atera*. *Euskararen kolkoan sartu*, *Zorionaren kolkoa*. *Lurra-  
ren kolkoa*. *Jendetzaren kolkoan galdu*.

Konkor (lat. *gibber*). Gogor hitzaren antzeko hitz horrek badu toponimian aldaera jakingarria *tontor*.

Lehenago, jendea gaizki bizi, gaizki hazi eta osasun baldintza txarretan *konkordunak* ugariago ziren: konkorra izanki bizkar hezuraren goiko alde horren okertzea. Antzina, konkorduna barregaia zen, estatuetan erakusten zen greziar iruditik urruntzen zelako eta sarritan konkorduna argala zelako. Sines-teak ere baziren European, konkor baten ukitzeak zoriona zekarrela.

Anatomian hedaduraz *konkor* esaten zaio hezurreen ukaldi baten ondoren agertzen den hantura. Batzuek *adarra* diote handitsu horri baita eskuan larru gogortzearekin agertzen diren plakak. Konkorraren beste izenak ugari dira: *bizkardo/bizkargi* (Ng.) *bizkar makur/bizkarti/bizkarurri/lepomakur* (G.L., Nb.), *lepo-  
ker* (B.) / *txorilepo* (Z.), *lepotxa* (B.G.), *txungur* (G.L.), *alkotx* (Ng.). Dierri eta Estellerrian *biscarro* diote erdaraz. (Lapurteraz lekuka *konkorra*, *zintzurra* da, batzuetan *Adanen sagarra* agerian duelako).

*Metaforak*

*Anatomian.* betzulo konkorrak, betagin konkorrak, parietal konkorrak.

*Toponimian.* Mendi tontorrari konkorrak esan daiteke.

Animisten “hitzen indarra” ahaztuz, haserrez tresna txarrari edo jende txarrari *Konkor babendi!* diogu.

Gauza borobil batek *arra/sakona* (concauus) duen bezala alde batetik bes-tetik *konkorra* (convexus) eduki dezake.

Kopeta (ik. bekoki). Gaztelaniazko “copete” edo gaskoierazko copet hitzetik dator Bizkaian eta Zuberoan izan ezik euskara osoan, maila herrikoi apalean, bekokiren orde; gehienetan zerbait gaizki adierazteko. Anatomian *kopetezur*, bekoki hezur, hitzaren sinonimoa.

*Metonimiaz:* *Kopetamotz:* ile gutxiko. *Kopetabeltz/ kopetilun, kopetagitx, kopeta oneko* (*antifrasea*), *kopetatsu, kopetatxar, kopetaundi, kopetazal:* ausartzia txarra, mutiritasuna (*frantsesez, toupet*). *Kopetaltxatu, kopeta ageri* batzuetan desafioz; *kopeta gora:* buru harroa

*Teknologian:* *Kopeta, kopetako* larru bat da uztarriarekin idiak bekokian min har ez dezan ipintzen *dena*.

*Metafora:* Ausartzia adierazteko *kopeta* eta kopeta daukana *kopetadun*

Korrok ik. aupasa Lekuka onomatopeia horrekin izendatzen da *opetsa*.

Korde (lat. *sensus, animus*). *Kordea*, ezagutza, zentzua da. *Kordegabetsen* denean ez da ingurumenaz konturatzen. *Kordegabetsun* sakon eta iraunkorra, *koma* da

Korrok (ik. aupasa)

Kosko/ kuku/koskoil. (lat. *cuscolium*). Gauza eta organo borobil txikien izendatzekoa.

*Koskabilo, koskoil:* barrabil

*Kosko/kuku:* arrautzaren azal gogor borobila eta batzuetan moluskuen babes

*Koskor:* ogiaren kaskoa

*Harri koskor:* harri txiki borobila (txikiagoa, harri txintxarra da)

*Kosk edo kask egin:* aurkitu

*Kuskula:* trentza edo urbegia da

Schuchardt aleman euskalariak sumatu eta erakutsi zigun euskarak, beregisakotasuna gordez, latinaz baliatu zen hizkuntza askotan, i-a-o-u bokalen jokoaz nabartzen dela:

Kiskil, kizkin, kizka: txikiena

Kaskail, kazko, kasko:ertaina

Kozka, kuzka: handiena, gogorrena

Humorezko aldaera ugari sortu da *kaskalu/kankalu, kaskail/kankail* binakoak baditugu hain txiki ez diren jende luze eta meharren izendatzeko. Nolanahi, hemen latinezko c-s-c (*coscolium*) hitzekin batean nahasten dira c-c-l dunak (*cochlea*)

Kukula (lat. *cochlea*). Zerbaiten gailurra izendatzeko erabilia da (okzitanieraz *cucula*, gaztelaniaz *cogolla*). Animaliak direla-eta hegazti batzuek *kukulak* dituzte. Leku batzuetan Iparraldean gaskoieraren eraginez artalore arrari, kukula deritzoe (zubereraz *tini*).

Kurrunka/ zurrunga. (lat. *rboncus*). Hasierako kontsonantea ez da errokoa, aldakorra delako Horrelako onomatopeia itxura dauka. Gehienetan txerri iratzarriaren, esnatuaren oihua da nahiz *kurrinka* esaten zaion, baina gizonezko lokartuaren *zurrunga* ere bai.

Kurruska/korroska (lat. *cartilago*). Dudarik gabe hau ere *K-Z-K* sailekoa da. Euskalki askotan honela zioten antzinakoek pedantismoz, medikuntzan baliagarri den hitza, denetan sartuz geroztik, *kartilago*. Egia da batzuentzat bakkari sudurreko kartilagoa zela eta hezurburuetan ikusten zena *bezurtxuria* ziotela. Hitz hori horrelako onomatopeia ote? Jaten denean *kurruska*, *karraska* egiten baitu. Hemen bukatzen da *K-Z-K* maileguen saila.

Kutsu/kozu (lat. *contagio*). Leku batetik bestera igarotzen den gaitza, zikin-keria da. Eratorriz eman du *kutsaeraz*, *kutsadun*, *kutsadura*, *kutsagaitz*, *kutsakor*. Bizkaieraz *nastatu*, *kutsatu* da.

#### Metaforak

Erdal kutsua: erdara hizkuntza batek kutsatua  
 Fazismo kutsua: fazismuak erakutsiaren kutsua  
 Errekutsu: garmin

#### Laburzki

K-/g- hitz mailegatuen artean sar genitzake:

Coccum: kuku (azken sortua)

: kuka (zomorro txikia)

Coculum: kokillo:muturra, punta

Cuculum: kukubilo, kokoriko,

: okil

: kukula(oilarrarena, artoarena)

Cuscolium: koskoil (barrabil)

: koskor (txiki)

Coma: kima/gima abere zurda adats)

Collum: kolko/golko (bular)

: golo (abere lepo)

## 7.II

## L. batekin hasten diren hitzak

Lakar, lapar, zakar, begiko zikina ik. begi.

Larru/narru (lat. *cutis*). Joera dago euskaraz *l*, *n* bihurtzea (lasai/nasai, lapur/ñapur) *Narru* mendebaldekoa da. Larrua izan daiteke biziena edo akabatu den animalia batena landu ondoren. Eratorriak:

Bizidunez jardun

Epidermis: larruazal/larrumintz

Dermis: larruarte

Hypodermis: larrubarne

Squama: larrume/larruzahi.

Jendeen larruak. Larru antzeta, larruairetan bereizten dira

Larruargi: larrargiak

Larru ilun, larrubeltzak

Larru leunak eta larru latzak; larrusoil: bilogabe eta ikasigabea

Larruen koloreak nolabait antzina bere garrantzia zeukan erro-matarren garaiko akitaniar protoeuskararen aurkitzen baitira, *beltz*, *gorri*, *zuri*.

Hildakoez jardun:

Larru biloduna (piel) larru (cuero)

Larrutu/lahardeki: larrua kendu (kontuz zubereraz “larrütü” mendian eroriz zauritzea edo hiltzea da)

Larrudun ehiza: larruagatik ehizatzen dena, larruketan ibiliz

Larrugorri/larrutan/laru-has: bilusgorri

Larrua ondu: larruarekin egiten den lehen kimika lana

Larrua zurratu, apaindu: bigarren lanez karrakatzekoa

Larrugin/larrukin: larruak lantzen dituen

Larrutegi: larrudenda

Larruztatu:larruz estali

Larru saltzaile

*Patologian*

Gibelego gaitz batek *larrumina/min boria* eman dezake. Larrudura, kanpoko ultzera da, eta txikiena *larrugogorra* (calosidad), baina badira beste larru gaitz asko, azkabia, azkordinak, legena (ekzema), legen beltza (lepra), psoriasis, txingola (zona). Gaitz batzuek barrua bezainbeste larrua ukitzen dute hala nola baztangak, barizelak edo mingorriak. Larru gaitzak ere badira nerbio desorekari lotuak: horrek gogoratzen digu nerbio ehuna, *larru ehunaren* jatorritik dela.

*Metaforak*

Zerbait oso nekez eta kosta-eta egiten denean, *larrutik ordaintzen da*. *Larru jotzea/larru* apaintzea sexu harremanetako hitz arruntak dira. Zuberokan XX.

mendeko lehen gerrate nagusian hainbeste ipar euskaldunek beren bizia eman zutelako alargun andereak, *senarraren larru saria* eskatzen zuten.

Larrua jo. (lat. *coire, futuere*)

Larruaren lantzetik datorren metafora horrek sinonimo asko ditu, hona batzuk. *Jokatu* (lat. *jocare*), *zirikokatu*, *zikokatu*, *ziria sartu* (inire) *tinketean ari*, *txinketean ari* (lat. *in tactum inire*) *izorratu*, *ernalzotzatu* (lat. *pregnare*), *estali* (abereen hiztegitik) eta erdararen kalkoak *igain* (igo), *jauzi*, *txortakatu* (tanta isuri). Zuberotan diogu *Zista eta kanporat zirrista*, *coitus interruptus delakoarentzat eta zuzenean sartzea, apaintzea, ernalzotza sartzea, estaltzea, gainkatzea, ikertzea, jauzte, xirikokatzea*.

Legen (lat. *lepra*). Legenardunek beren ibilerak zintzarri batekin eta jantzia antzara atzapar batekin beren buruak seinalatu behar zituzten. Be Nafarroan eta Lapurdin baliatu dira metatesi batez *negel* diote, herpesari, baina Zuberotan Euskal Herri gehienean bezala *legen beltza* lepra eta *legena* “ekzema”: «*Lebenago jentek harrirazten zütian eritarziuna legen beltza zen*» esan zidan Santa Grazi Arrakoko etxekandereak.

Leka/liga (lat. *leca*). Batik bat eritasunetan, ligarda elder/ lerdea edo mukia (gazt. liga) darion sudurra, ahoa, zauria edo gauza bat. Eratorriak: *lekatasun* (mukitasun), *lekeda* (landare mukia), *liga* (likido baten hondoko zikina. *Ligatsu/likin/ likitsu*: itsaskor den ekaia. *Likitsu* (mukizu).

#### Metaforak

Moralaz:

Likits: moral aldetik zikin

Likistasun: pornografia

Likitx: andre edo gizon “bizioari” emana edo sexu gauzetan aditu eta trebea

Aditzak

Likatu: itsasi, eraxekei, kolatu

Likistu: lizundu

Lepo (lat. *collum*). Euskara zaharrean, denentzat, enborraren eta buruaren arteko mehegunea zen, baina euskalki batzuetan bizkarra edo sorbalda esateko erabili egin da. Euskara batuak adiera nagusia hartu du, buruaren azpitik eta enborraren goitik den hodiaren adierazteko.

Eratorriak

Lepaurre/ lepaitzin

Lepagain/lepogain: animaliena

Lepagibel/ lepondo/ lepo atzea/ lepozaki: jendeena

Lepamazel

Lepamehe/ lepo-mehe

Lepamotz/ lepo-motz

Lepasendo/ lepo sendo

Lepape

Lepazaki  
 Lepazama/ lepazintzur/ lepo-oropil:  
 Lepezurrak/lepo hezurrak  
 Lepo-luze  
 Lepo-okker  
 Lepondo: garondo  
 Lepotxitxil  
 Lepo uztei

Hobe da *lepitulia* (tortikolia) edo *leperia* (papera) *lepoketa* eta *lepo egitea* burua moztuz baino. Lepoko gaitz batzuk badira hala nola lepoko guruinetako tuberkulosia *lepoko xerria* (G.L.), baita tiroide gaitzetan, *lepotxorria/ lepo handitua/bozioa* eta *lepo sagar, bidakuia* (Z.), *sabe, gorgoilo* (G.) *okaila, osigoren, paputs, txintxu* (B.), *koromilo* (Ng.) azken gaitz hori *lepo xerria* Oihenartek aipatzen du:

*Berzeren lepoko zorria dakusa eta ez bere lepoko xerria* (O.96)

Lehen ere, koordinatze eskasez okertzen ziren sendaketak

*Mina nuen lepoan, lot nenzaten zangoan* (O.699)

Ugatzun izenak. Kaltegarri direlako ez zaie benetako izenik eman behar, *lepahori* (Martes martes) jendea ere izan daiteke, *lepazuri* (Martes foina)

*Metaforak*

*Anatomian*: humeroaren lepoa, femur lepoa, astragalaren lepoa

*Lexiko guztietan*:

Alkandorrak, txaketak lepoa eduki dezake

Mendiek lepoak badituzte, mendateak

Ontziek, botilek lepo luzeak eduki ditzakete

Zuhaitza lepatu: erdiko adarra inausiz

Norbaiti zerbait leporatu liteke

Lepo minberek, lepo zapia darabilte

Hari bat ez denean loditasun berdinekoa: txorilepo, leposare badu

Zin egiten denean: lepoa jokatu liteke

Leporaino ase, leporaino gora egon, leporaino sartua izateak ez dira beti egoera goxoak.

*Psikologian*

Lepo-lepopetik jo: zuzenean jo

Lepotik egina: txoroa

Lepozaletu: ez ausartu

Lepagogor

Lerde (lat. *bava*) Gipuzkeraz *elder* hitzaren esan nahia du. Erorriak *lerdedun/lerdun, lerd jario, lerdetsu*.

Lerden (lat. *sveltus*). Lerden jende mehe edo gotor baina gorputz zuzenekoa da (*zirlinga, zardaia*). Erorriak *lerdendu* (gorputza zut-zuta jarri), *lerdengarri, lerdenki, lerdentasun, lerdentsu*.



*Metaforak*

Norbait handinahikeriaz *lerdenegi* izan daiteke  
Ekintza bat *lerden* da: zuzena da

Psikologiako adibide horien ondotik eratorria: *lerdenkeria*.

Liseritu (lat. *digerere*). Hemezortzigarren mendeaz geroztik da zer den ar-  
giago ikusten; ez da harritzekoa euskaraz, gehienetan, mailegu hitza erabiltzen  
bada sendakuntzan. *Liseritzea* askoren kezka bada, *lizeriezinez*, edo *liserigaitzaren-*  
*gatik*, beste askorentzat gosea da arazoa. Euskara batuak, *digeritu* nahiago du.

Lipu/lupu (lat. *lupus*). Otso erran nahi du, baina hitz hutsarekin bizpahi-  
ru eritasun adieraz ditzake.

*Lipu beltza* hilkorra (anthrax), ardietan baita jendeetan gerta daitekeena. Su-  
karra ematen du eta odola belzten (beltzatzen)

*Lipu eritemaduna*, aurpegiko larruan sudurra eta ezpainak jaten, jendeari  
“otso burua” eginaz (Ipar Afrikan sendagile batekin eritasun horren hobetzea  
gertatu zitzaidan).

*Tuberkulosi* “*lipuak*” (gazt. *lamparones*, fr. *écrouelles*) Badituzte hain nahasga-  
rriak ez diren hitzak, *txori* Gipuzkoan eta *gobenezür* hitz bitxia Zuberoan. Ie-  
poan agertzen direnak eta linfaren gangliotan garatzen (Ipar Afrikan asko iku-  
si nituen)

*Metaforak*

Lupua baino txarrago (Bizkaian)

Lupua bezain itsusi (Zuberoan)

Listu (ik. tu)

Lo (lat. *somnus*). Janaria, edaria eta arnasa bezain beharrezkoa. Lorik gabe  
hil daiteke. Animalia guztiek lo egiten dute, hegazti batzuk bi hegalka tarte-  
an, besteak zutik, denek lo laburra edo luzea. Hitz eratorri arruntenak: *loak*  
*hartu*, *loaldi*, *logale*/*logiro*/*logura*, *lo egin*, *logile*, *lo gela*, *lo irudi*, *lo izan*, *lo egon*, *lotegi*, *loto-*  
*ki*/*loleku*. Badira *loti*/*lozale* direnak. *Loaldi* mota anitz daude:

*Argi loa*, goizaldi guztian jarraitzen duena

*Eguerdi loa*: bazkalondoko loa; biao loa

*Lo kuluska*/*losusta*/*lo kuska*/*lo arma*/*lokuma*, *lo korromorroa*, *lohasma*.

*Gau loa* da zuzenena, *lo arin*/*erbi lo*/*loaxal*: noiz nahi, egunean,  
laburra denean.

*Lo txarra*/*lo kamutsa*/*lo nabasia*/*lo ordia* gerta daiteke.

Lo txarren artean badaude *lo zorroak*, *lo astunak*. Gauaz lotan jaikitzen dena,  
*lo ibiltzaile* da. Batzuek, lotan *lo zurrunga*/*lo kurrunka*/*lo karrasaka*/*lo korroka* egi-  
ten dute. *Argi loa* (Z.) goizaldi osoan lo luze baten egitea da. Batzuentzat ordu  
guztiak *loaro* dira eta *erdi-lo*, *lo mozkor* nekez esnatzen dira.

Loak kanpoko bi etsai handi ditu: auzoen eta karriken zarata baita gela  
beroegia ere. Eta barreneko etsaiak “buruko harrak” bai buruko kezkek, gai-

xotasunak *lo kentzaile* dira era *lo eragile* edo *lo belarrak* erabiltzera darama *loa galdurik*, *lokabe* dabilen jendea.

*Metonimiak*

Loaren ordezko metonimia (ohea) eta janaren ordezkoa ere (mahaia) alfer-raren irudikatzen batean agertzen da:

*Obetik mabaira / Mabaitik zuzulura / Korrongaz paradusura* (O. 656)

*Metaforak*

Ugari dira edozein gauza edo gertaera gelditua dela adierazteko:

Adimena lo

Etxeak, karrikak, herriak lo daude

Izadia lo (izadia lo dagoen urtarrilari batzuk *loila* diote)

Landareak lo

Negua lo

Lokiak, loak, (lat. *tempus, tempora*). Aldaera franko ditu hitzak, *oloak, loloak, lokiak, erailokiak, loguneak, lotokiak, lolekuak, loloak, iltokiak*. Buruaren sailhetseko gunea da. Bi lo daude, horregatik gehienetan anizkian ematen da, *lokiak*

Lohi. (lat. *corpus*). Erromatar garaian hilarri batean jadanik *lobito* hitza agertzen da. Hitz hori gorputza adierazteko XVII. menderaino gorde zen. Eukaristiako “Corpus domine Jesu Kristi” esaeratik agian, gorago ikusi dugun bezala. Etxeberri Ziburukoa bereizi zuen Jesusen lohia, Jesus hila aipatzean.

*Jesus maitatzekoa*

*Zeure odolaz xabu zazu*

*Hutsez lohi gaixoa* [Noelak Donostia, 1970, 126.or.]

(...)

*Dizipuluek gauaz altxa*

*Etzezaten lobia* [*idem ibidem*, 99.or.]

Eta Jesusen gorputza eukaristia aipatzean *Gorputz sailndua*

Badirudi garai batean aski erabilia izan dela *lobi* hitza. Hemeretzigarren mendeko puritanoek erotismoari *lobikeria* esaten zutenean konturatzen ote ziren beren gisara hitz egokia aukeratu zutela eta *lobia* hitz berdinar zirela lurrarentzat eta jendearentzat. *Lobi* jendearen jatorriaren sinesteekin lotua liteke, jendea *lobiz egina* delako eta *lobi* bilaka daitekeelako.

Lohadar (lat. *membrum*) *Lobi*, hitz horretarik sortu zen *lohadar* hitz elkartua, *gorputz adarrak* izendatzeko.

Lodi (lat. *crassus, magnus*). Izen lagun zaharra da eta izenlagun zahar askoren gisa *-di/-ti* atzizkiduna (beti, handi, erdi, izuti, loti eta beste). Gorpuzdun, mardul, adierazi nahi du. Eta jendekin gizenen sinonimo hurbila da. Eratorrizko arruntak: *lodiarazi, lodikor/lodizale, lodikote, loditasun, loditu, lodixko*. Anatomian: *buru lodi, ezpain lodi, ipur lodi, atz lodi*.

*Metaforak*

Gauza baten lodieraz mintza daiteke, haren “gizenaz” baino, beraz biologiari kanpo asko erabilia da. Ahots lodia, egur lodia, elur lodia, hari lodia, hodi lodia, ke lodia, oihal lodia, liburu lodia, odei lodia, paper lodia, plaka lodia, ur lodia, xafla lodia.

Lotgailu, lokarri (lat. *ligamentum*) Lurra urari lotzen den bezala, zernahi, nornahi lotu daiteke. Anatomian giharrak hezurretan lotzen dira eta *giltzaduren* gainetik hezurak elkarri, *lotkunetan*.

Luma (lat. *pluma*). *Luma* da *begats* esateko hitz ezagunena. Hegaztiekin luma egiten dute eta urtero *lumaberritzen*, baina guk *lumadunak* jan baino lehen *lumazen* ditugu.

*Metonimia*

Lumekin ere zerbait egin daiteke *lumatzak* eta *luma edredoiak* lo egiteko. Antzina eta mendetan *lumak idazteko* erabiltzen ziren eta burdinazko lehen lumekin izen berdina hartu zuten

*Metaforak*

Elur luma: elur arina

Luma gizon: idazle

Lupu (ik. lipu)

## 7.12

## M. batekin hasten diren hitzak

Koldo Mitxelenak erakutsi bezala, M-dun hitz batzuk hizkuntzaren herriko ahoskeraz *b-* batetik etorriak lirateke hala nola *mebe*, *min* eta *mibi*.

Magal (lat. *sinus*). Mendebaldeko hitza da “altzo” hitzaren adierazkide. Gorputzari bezainbeste soinekoaren erabilera du (*gona magal*). (Hitz hori ez da nahasi behar makal hitzaren bi aldaerekin magalo, magalotu, magaltasun, ahultasuna adierazten dutenak). Eratorriak: *magaldata* (soinekoa altxatu), *magala egin* oihalarekin *magala egin* barruan zerbaiten biltzeko, *magaleko*, *magal jiraka*, *magalpean eduki* (babestu, zaindu, aterpean eduki).

*Metaforak*

Babestearen metaforak ditu

*Magaldu* (babestu, zaindu, jagon), *magalpe* (babes).

*Elizak eta Kristok magala* eskaintzen dute.

Mendiek ere beren *mendi magalak* badituzte

Marda. behien urdaila. *Marda beltza*: jende gorrotozalea.

Matela, mazela Gonzalo Berceok XIII. mendean erromantzez *massiela* hitza darabil, euskaldunak Arlantzonen, Oka eta Ezkarai ibarretan zeuden garaian, latinaren euskalduntzea dirudi. *Abütz* darabil Oihenartek. Askotan na-

hastu egiten da gaztelania “mejilla” den hau, ondotik datorren matrail “mandibula” dena.

Matraila (lat. *maxilla*) (ik. Ahutz ere)

*Matrail* (B. G. ), massiela hitzetik urruntzen gaitu. Ekialdeko euskalkietan (Erronkari, Zaraitzu, Zuberoa) *baraila* ere badago, *baraila* erromantzetik zuzenean hartua (aragoieraz *barilla*) eta bera latinezko *barbilla* hitzetik etorria *Matrail bezur* hitza erabiltzenago da. Abereentzat *mustupil* (mustur biribil) hitza ere erabiltzen da.

Mehe, mehar (lat. *macer, gracilis*). L. Mitxelenak ongi erakutsi zigun «m» «b» batetik etor litekeela, beraz *mehe* \**behe* batetik, orduan hasierako kontsonanteak *b-* gorputz markatzailea baluke, bigarren osagaia *ehe/ebar, lehor/legor, ibar/igar/garbi*. *Mebar* hitzak gogoratzen digu *gibar* hitza biak gizenaren antonomoak. Meheegiari *mehatsa, endurra* esaten zaio. Euskara galdu den lekuetan jende meharrari *meco, meca* diote (Araba, Bizkaia). Eratorriak: *mehats, mehastu* (mehetu), *mehazetu* (bakandu), *mebe egin* (antzina Garizuma garai osoan *meheki* jaten zen).

#### Metaforak

Gauza bat ere mehe izan daiteke. *Mehetasuna*, batzuetan, jendeengan kalitate da eta besteetan gauzen hauskortasunaren edo argaltasunaren adierazgarri.

Ahots mehea: gutxi entzuten da

Erreka mehea: agortu daiteke

Haize mehea: hotza eta lehorra

Hari mehea: hauskorra da

Laino mehea: laster urratzen da

Lur mehea: ez da emankorra

Oihal mehea: neguan txarto, udan ondo

#### Psikologian

Arima mehea

Ezpain mehea, mihi mehea: jende gaixtoa da

Gogamen mehea

Izpiritu mehea

Meheki esatea

(Kontuz! badago hitz baten laburpena *almebeka*, lekuka, *mehaka* bezala erabiltzen dena abere baten saihetsa adierazteko, horregatik zail da esatea leku izenetan zer den *mendi mehaka* edo Nafarroan XIII. mendean irakurtzen den *Arizmeaca*, gaur Zuberoan *Haritzmehaka*, Larrainen eta Iruneko baserria *Meaka goitia*, Meabekoa eta *Meaka* borda nola ulertu?

Mihi, min (lat. *lingua*). L. Mitxelenak dionez antzinako \**bini* baten bilakae-rak lirakeke ezagutzen ditugun aldaera, *mibi, mibin*. Gainera *mibi* diotenak *mintzatu* diote “n” batekin. Hegoaldean askok *min* diote baina oinazea adierazten duen *min* anbiguotasunaren kentzeko, *mingain* hobesten. Mihi hitzaren eratorriak:

Mihiazpiko/ mihiondoko/ mihipeko: *frenulum linguae*.

*Gaitzak. Mihi motel, mihi totel, berbartun (B.), debetudun (Nb.) tartaila (Nb. B.)* silabak errepikatuz ahoskera nekez hitz egiten duena, *ukoak* dituztenak. Badi-ra jendeak mingaina traba hitz egiten dietenak horiei, *mibi motz, min lotu, mibi zabal* (zezeo duenaz) esan ohi da.

*Jarduerak metonimia sortzaile*

*Lebenbiziko jarduera* ornodun eta ornogabeen artean *irenstea* du eta ezpainak eta mihia zerbaiten gainetik igaroaz *miazkatzea/mibizkatzea*.

*Bigarren jarduera mintzatzea* da, oraindik abererekin partekatzen ez duguna. *Mibia* erdal kalkoz hizkuntza da. Erorriak *mintzaira, mintzaldi, mintzatu, mintzo* (ahots) eta hor dira metonimiak agertzen. Axularrek *Gero* I653. an “*mibiaz kontu edukitzea*” jarri zuen arau ezen baitira

Mihiaje(Z.): hizkuntza itsusia

Mihi arinak/mihi laban: lasterregi erantzuten dutenak

Mihidun: erraz hitz egiten duena

Mihigabe: nekez hitz egiten duena

Mihigaixto, mihi tzarrak, mihi zatarrak

Mihi jarioak/mihitsua: ustekabeen kaltegile

Mihi ukaldiak: onak edo txarrak daitezke

*Hirugarren jarduera*

Esandakoaren azpian menpean egoteak dakar: “mihiares esku izaitea” (Ax.). Mihia atera, mihia irten, mihia jalki hiru erran nahi ditu

Sendagileak eskatu dizulako

Norbaiti keinu txarraren egiteko

Lanean gehiegi nekatu

*Metaforak*

*Psikologian*

Mihi zorrotz: batzuetan egia samina diotenak

Mihi zuriari: ez fida, onez hitz egiten duenean

Zoologian: arraina *mibi-arrain* (gazt. *lenguado*, fr. *sole*)

Teknologian Zerbait beste zerbaiten barruan egotea (gazt. *lengüeta*) hala nola *sarrail mibia*

*Oboe baten mibia* da soinu egileak ahoan sartzen duena

Egur baten muturra beste batean sartzen denean, *mibiztaduraz, mibiztatzen* da (gardeinatzen da)

Zerbait malgu, luze: *suaren mibiak*

Zerbait dilindan denean ontzi baten barruan, hala nola *Zintzarri mibia*

Axularrek bere obran ederki idatzi zuen:

*Mibiares eskuan daude heriotzea eta bizitzea, gerla eta bakea*

Iparraldean, batez ere, hitz egin esateko *mintzatu* esaten da, eta aditz horrek erakusten digu nonbait \**mibin* zitekeela forma zaharrena, gainera zubereraz

lehen i sudurkaria da *mihi*. *Mintzatu* hitzaren eratorriak dira, *mintzaira* (hizkuntza), *mintzagai* (hizpidea), *mintzalari* (hitzaldi egilea), *mintzaldi* (hitzaldi luzea), *mintzaleku* (kanpoan edo barrenean), *mintzazaille* (hitzegilea), *mintzo izan/mintzatu* (hitz egin), *mintzo* (ahotsa).

Min (lat. *dolor*). Min hitza, beharbada, orokorra liteke, zerbait indartsu, bizi-bizi adierazteko, baina hemen ez dago non erabaki, non dagoen oiloa eta arrautza. Eratorri zuzenak: *min egiten*, *min ematen*, *min bartzen*. Min ez iraunkorrrak badira: *andreen haurminak* edo *erdiminak*. Bestalde gogoaren minak, gorputzaren min hitzaren metaforak ote? *Suminak*, *ordea*, *oso mingarriak*.

Gorputzeko organo edo zati bakoitzaren izena aurretik baditugu begiko, belauneko, bihotzeko, bizkarreko, biriketako, buruko, bularreko buztaneko, hagineta eta sabeleko minak. *Minbizia* Hego-Euskal Herrian eta Zuberoan erabiltzen da, batzuek hitzari samintasuna kentzeko *min gaixtoa diote*, kantzerrari. Nafarroa eta Lapurdin askok *xankrea* diote frantses hitz batez, *malignus* (kartzinomak) eta *benignus* (xankre edo kiste) bereizi gabe. *Min horia* ikterizia da eta *mingorria*, (elgorria, zurrumpia). *Minkaitza* izan daiteke oinazea edo tortura.

Hitza laburtuz “-ko” ken daiteke *begimin*, *burumin* hitzekin baina sarritan ez da berdin

Bihotzeko min: gaixotasuna Bihotzmin: pena

Badirudi gaitz “nobleentzat” min erabiltzen dela eta itsusientzat –eria atzizkia: aheria, ahuleria, hazteria, kakeria, sabeleria.

*Metonimiak*

*Minbera* (anton. *sor*) da gorputzean sentibera dena, baina gogoan ere *minbera* izan daiteke; hortik datoz *minberakaitz*, *minberatasun*, *minberatu* eratorriak

*Metaforak edo?*

Gogoaren oinazeak:

Samin, erresumin: gogoaren mintasuna da

Erantzun min, negar min ere bada.

Norbait hitzez mindu daiteke

Gauza baten samintasuna: *Ardo min*, *burdin min*, *edari min*, *kirats min*, *lur min*, *pilota min*, *piper min*, *sagar min*, *mindura* (mintzea, urdintzea), *mingaratz* (zapora garratzekoa), denak *mingostuak*, *mingotsak*, *mingosdunak* dira Halaber, sistematikan *mingaratz* edo ahagoa (*Rumex acetosa*) landarea da eta *mingor txoria* (*Gallinago gallinago*), beste izenez *istingorra*, oilagorren familiakoa.

Gauza indartsua

Adiskide mina

Eguzki min

Etsai mina

Ikus min: ikusteko gogo bizia

Zaletasun mina

Zerbaiten barrua:

Gauaren mina

Bihotzaren minean

Eguzkiaren minean

Mintz (lat. *membrana*). Mintz (L. N. G.) printz, pintz (L.) Azken aldaera horrek eraman du Rohlfs [*Le Gascon*, 36.or.] gaskoierazko “printse” hitzetik omen datorrela idaztea. Gaskoieraz “*arraultzaren eta gaztainaren barruan den azal mehea litzateke*. Bitxi da hitz hori ezpaita gaskoieraren auzo diren Iparraldeko euskalkietan aurkitzen, Bizkaian baino.

Beharbada bi erran nahi daude

1. *septum nasi*/ cartilago: nasi sudurraren pareta 2. *membrana*.

Halere, euskaraz oso zabaldua da *mintz*/*minkura* eta *mindu* aditza zerbaiten gainean agertzen den azaltxoia adierazteko, hala nola esnegaina, baina janarrietan edo osagai organikoetan agertzen den lizun, edo urdina. Nondik nahi ere, mailegu ala ez, euskaraz sustraitua eta beharbada, bakarrik Lapurdiko forma gaskoieratik letorke.

Mozkor (lat. *ebrius*). Fisio-patologiarekin lotu hitzak, zerbait ikusteko luke \*mosko gogor etimologia batekin (ik. sor, gor, elkor). Euskara osoan sinonimo erabilienak, *bordi* eta *edana* dira. Errankide asko ditu, *apobelatzek jokatuia*, *arrail*, *aserik*, *bellotii*, *borratxo*, *briu izan*, *edanik*, *hedallo*, *mizpira üken*, *txino izan*, *kotxino*. (Z.) *antzarak bildu*, *pottoka* (L.), *azeria larrutu*, *berotu*, *edanik*, *minata egin*, *xaxki egin* (Nb. L.) *txakurra*, *katua bildu*, *otsotan* (B.) *lamorkiz* (G.), eta beste asko.

Mailegu ziuurak

Mail: malko [(ik. maskur) lat. *macula*]. Maila lodigunea da

Izan daiteke hezur txikia edo ukaldi baten ondoren ubela (odoluria)

Odol mail: odol bildu/odol gatzatu (lat. *coagulum*)

Ipurmail: ipurmazela (lat. *clunes*)

Eskailerako mailekin ez du zuzenean zerikusirik.

Menbru, membre, membro. (lat. *membrum*), gorputz-adarrak

Euskara herrikoian, *menbru* edo *membre* (Z.) da, idatzia membro. Batzuetan *gorpuzki* erabili da, animalientzat, ez baita beti beso eta zango bereizten; zomorro, armiarma, delakoen “menbruak” *atzaparrak* izendatzen dira, eta krustazeoaz *apendizeak* dituztela idazten. Orain jendeekin gehienik idatzia *gorputz-adar* da.

Metaforak

Hitz hori elizako latinak metaforaz hedatu du. Kristaia *Elizako menbru* dela idatziz. Oraingo euskaraz, talde bateko menbruaz esaten dugu, *kide*.

Moko. (lat. *bucca* eta galozaz *beccu*). Bere aldaera *mosko* Iparralde eta Ekialdekoa da. Hegaztien inguruko hizkuntza debeku batek galarazi edo baztertu du euskal hitz zaharra, *mosko* sasi latina da eta *piko* gaztelania garbiz. Eratorriz *mokodun* diogu hegaztiez eta *mokokatzen* dira liskartzen direnean, jendeak ere.

Hegazti moten izenak horrela eman dira batzuetan: moko bihur (*Recurvirostra avocetta*), moko gurutze (*Loxia curvirostra*), moko labur (*Pluvialis apricarius*), moko makur (*bec croisé*), moko gorri (pico rojo?), moko zabal (*Platalea elucorodia*).

*Metaforak*

I. Jendeen mihiaz

Mokobipil: hiztuna

Moko guri: ikasi gabea

Mokokatzea: gatazkan ibiltzea, mokokari: gatazkari

Mokoluze: hiztuna

Moko mehe: hitz latzekoa

Moko zorrotz: errespetu gabekoa

2. Jateagatik

Mokozuri/ mokofin: gurmete

3. Zerbaiten punta, muturra

Alu moko(ilar moko, klitori), hatz moko, zakil/ pito moko, sudur moko

4. Burua

Mokoz moko: buruz buru

Mokoz ipurdi: ahoz gora

Teknologian Ezpata mokoa, ezko mokoa, ontzi mokoa.

Botanikan: *mokotxabal*: irekitzean barruko haziak erakusten ditu intxaur, gaztaina edo mingrana (granada)

Mokor, mokordo Punta gogor adierazi nahi baitu, *moko* litzateke punta eta *-kor*, gogor. *Mokorra* izan daiteke

1. Izterraren gogorunea

2. lur gogor zatia, edo *sokor*, *mokil/sokil*, (erpil) deritzona ere

*Mokordo*, berriz gogortz luze gogorra, kaka tantoa, kaka mokordoa da. Antonimoa, zirrin.

Baina metaforaz norbait *mokortu* liteke.

Motel Motel I (lat. *flaccus*). Hau da euskaraz ugari dituen ahultasunaren izenlaguna, (ik. argal; erkin, makal eta beste). *Motelizea* da indargaltzea. *Motel-dura* motelaren egoera, *moteltasuna* gaitza.

Motel 2. (lat. *balbus*) Totela/motela hitz egitean silabak errepikatzen dituenak edo nekez ahoskatzen. Bi hitzen bereizteko askotan esaten da *mibi motel* bigarrenarentzat.

Mots/motx saila (lat. *bursa*). Hitz batzuk gizonetzkoen eta emakumezkoen sexu organoentzat erabiliak dira. Hamalagarren mendean Von Harff alemanak hala-holako euskara batean neska bati *moissa* eskatzen zion. Gaur *motxa/mutxa*, alu tutuaren beste izena da eta neska zaharrek erabiltzen ez dutenean *mutxurdintzen* dira. Zubereraz *mutxeta* hitza ere erabiltzen da eta gaitzespenik batere gabe neska gazte bati *mutxa* deritzo; muchacha hitzarekin zerbait



ikusteko ote du, ala sexu motza delako? *Motsiñ* horretarako, Azkueren ustez hitz itsusia zen Bizkaian, gizonentzat barrabilen *boltsak* (lat. *scrotum*) *moltsa* eta *potza* hitzak erabiltzen dira. Hor nonbait bi gaztelaniazko hitz nahasian maillegatu dira, « potro » eta « bolsa ».

Muin, mami, mamin. (ik. hun, fuin) Zerbaiten barnea:

Bizkar muin: medula spinalis

Hezur muin: médula ósea

Garmuin, burumuin: cerebellus

Ogiaren mamia

Gazta mamia

Metaforaz: mami, mamin: barneko, kutun: adiskide mamina (adiskide mina)

Muki (lat. *mucus*) (ik. zintz). Euskaldun askok, beharbada izen debekuz, edo ezpaita gauza polita mukiaren euskal izena ahaztu dute, iparraldean, behintzat, askok, *zintz* esaten dugu besterik gabe. *Muki* gaixotasunak *mukieria* ematen du, abere eta jende *mukizu* edo *mukitsuetan*.

*Metonimiaz edo? Mukiak jatea, musu emateko irudia dela*

Mun, musu, mutur (lat. *rostrum*)

*Musu 1.* (lat. *bucca*.) Antzerako hitzak Europako hizkuntza askotan aurkitzen dira. Ez dira latinetik etorri zuzenean Indiako indoeuropar hizkuntzetan bi forma nagusi dira *Munb* (Hindi, Urdu eta beste) eta *Mukb* Bengali, Gujra-*ti*), gero germaniar hizkuntzetan, alemaneraz eta danieraz, *Mund*. noruegieraz eta suedieraz *Mun*, letonieraz *mute*. Ez da eslaviar hizkuntzetan agertzen (haietan *usta* edo *rot*). Ez dago latin klasikoan eta erromatar soldaduek latindua izan behar du *musum*, frantsesez *museau*, italieraz *muso*. Latin beranduan VIII. mendean *musum* behin agertzen da. Euskaraz lehen adibidea, frantsesezkoa bezain zaharra da XI. Mendean, leku izen bat da *Musuiturria*.

Fisiologia. Musuarekin jan liteke txerriaren moduan zuzenean *musurkatuz* eta ahoa hustu gabe *musu-musu* janaz. Musua zerria bezala izan daiteke, baina animalientzat *mustur/mutur* erratenago da, baita jende haserretuez ere. *Musua garbitzen* da edo zikintzen.

*Musu 2.* (lat. *amplecti basium*)

Gizarte ohitura *Musuaren ematea* (potaren ematea Iparraldean). Axularren ustez Euskal Herritik kanpo etorri zitekeen eta alegia emazteak alkoholik edan zuenez jakiteko senarrak ematen ziona:

«Handik uste dut ethorri zela usantxa arrotz kalean, kanpotik ethortzean, gizonen emazte-*tei pot egitea, musu emaita jakiteko ea ardo usainik bazutenez?» [Gero, 264.or.].*

Afrika beltzean lehen pelikuletan andreko eta gizonezkoak *musuka* zebiltzala ikusirik hangotarrek irri eta barre egiten zuten, zeren hori egiten du afrikar andrekoak umeari janaria eman baino lehen, *mastekatzen, musuzta-*

tzen/murtxikatzen/mamurtzen duelako. *Mustupilka* erortzea *mutur-gainean* erortzea da, lekuka.

*Metonimiak*

*Musutrukean* ibili: ordaindua izan gabe zerbait egin, kultura arloan maiz gertatzen dena. *Musin egin* ez da “musean ibili”, *mustur* edo begitarte txarra egin eta *muturtzea* da. Eta metaforikoa da *muin* eskuan ematen dena (musu, aurpegian) orain gaztelaniako q. b. s. m. euskaraz *eskumin eskumuin* itzulua, *goraintziak* formula zaharraren lekuan erabilia da. Eskumuinak bezainbeste *muturrekoak* ematen ziren antzina, eta euskaldun jendea aisa *muturka/muturjoka* jartzen zen. *Andre muxu* deritzo gizon emeari.

*Metafora. Musututs* gelditu: pentsatzen zen batean huts egitea (Ahoa bete haginekin gelditu) *Pot*: Azkuek zion musua ez zela euskal ohitura. Beharbada. Iparraldean musu hitzaren orde z hain zaharra ez den gaskonismoa *pot* mailegatu da. Jadanik Oihenartek XVII. Mendean esaera batean dio «*eure gelaria ez potikeia: hant ez dakian nabiz andrea*»

Mustur, mustur (lat. *rostrum*). Aurrekoaren eratorriak dirudite, *musu+ tur* (azken punta) eta bigarren osagai agertzen da sarritan

*Anatomian* bererabilpena

Eskumutur: ukaraia

Mihi mutur: mihi punta

Oin mutur: oin punta

Sudur mutur: sudur punta

Titimutur: titi burua

Bazter bazterrean dagoena adierazteko

Beste muturrean egon

Eskuin muturreko alderdia

Ezker muturreko alderdia

Lurraren muturra

Mahai muturrak

*Psikologian*

Mutur astun: gozagaitz

Mutur beltz/muturtzar, Mutur gaizto: mokor, ñarro

Mutur egite: musin egitea da

Mutur handi, zozo, inozo

Muturkeria: muzinkeria

Mutur luze: lotsabakoa, ahalge gabekoa

Mutur salda/mutur ziku: senar emazteen arteko liskarrak

Mutur zikin: jende doilorra, zitala

Mutur zorrotz: haserrekor, latza

Mutur zuri: aho zuri, moko zuri, mutur oneko, moko gozo: gastronomo

Mutu (lat. *motus*). *Isil* ere diogu euskaraz, baina gaixotasunez dena beti *mutu*; besteek *mutualdiak* (*isilaldiak*) ditugu.

*Metaforak*

Min batean materiarik, sornarik ez denean, *banditsu mutua* diogu

Halaber, esnerik ez duen ditiak, *titi mutua* da

Laburzki

M. hasiera duten euskal hitz zaharrak *mibi*, *mebe* (\*bini,\*behe), *maçal*, *min* lirake beste guztiak maileguak

Mail, lat. *macula*

Mami, mamula, lat. *mamula*

Mantika/pantika lat. *mantica*

Marda: pantza, abereena

Mazela, lat. *maxilla*

Menbro, lat. *membrus*

Moko, lat. *bucca*

Moltsa, lat. *bursa*

Muki, lat. *mucus*

Musu, lat. *musum*

Mutu, lat. *motus*

*Ma-saileko maileguak.*

Badirudi zerbait oker edo makur adierazteko, hizkuntza guztien joeraz maileguez baliatzen dela eta agian «malo» hitzetik datozela edota hitz horrek kutsatuak

Makal: ma+ kal (bigarren osagai ahul adierazteko argal hitzean, haragi+gal delakoan ikusten da).

Mako/gako: okertua, tolestua

Makur: gorputza tolestu euskara osoan, baina “Manexek” (L. N.) okertu bezala darabilte

Maker: gorputz gaizki egina

Makets: ma+ kets: ahuldua

Maltzur: mal+zur: faltsua

Maskal: ahul

Maskor: kuskua (ornogabeen kanpoko eskeletoa)

Maskur: larruaren gogorruneak (macula?)

Maskuila: gazt. Ampolla (lat. *macula*)

Maskuri: bixiga, pixontzi

## 7.13

## N. batekin hasten diren hitzak

Narrio, narraio (lat. *vitium*). Orbainen adierazkidea. Aditza *narriatu*; behar-bada *larriatu*, hitzetik?

Narriadura: gorputz akatsa da, narrio narriotasuna: orbaina *Noku* eta *nota* erabiltzen dira horretarako.

*Metaforak*

1. Iraina, gezurra narriagarri (desohoragarria daiteke)

2. Garbaia: kontzientziaren narrioa

Negar/ nigar (lat. *lacryma*). Erdi Aroan odola eta negarra baitziren Ahai-de Nagusien “edariak” XIV-XV. mendeko eresietan, andreen ahotan, hitza aurki daiteke. Gauza eta hitza hain zahar izanki ez dakigu nola eratu zen eta etimologia lotan utziko dugu, gauza negargarririk idatzi gabe. Aditzak *negar egin*, *negar eragin*, *negarrari eman*, *negar jario*.

Eratorkiak:

Negar asko: negar euri, negar istil, negar marraka, negarrontzi, negar zotinka, negar zurrusta, negar zurruta.

Negar gutxi: negar anpulu, negarkeria/negarrerria, negar murin, negar tanto, negar txorta, negarño, negartxo.

Negarra hasi baino lehen, zerbait negarbide, negargarri, negargura/negargale behar da, baina batzuek negar erraza isurtzen dute eta horik negarroi/negar-jario/negarontzi/ negarsamur/negarti, negartsu dira.

*Metaforak*

Edozein likidoren tantari negar esan daiteke

Ardo negar, euri negar, margo negar

Baina begietarik kanpo beste organo batek isurtzen duen likidoari negar esan gienezaioke

Pittoa negarrez (blenorragian)

Zuhaitz negarra: zapa galtzean

Aihen edo mahatsondo negarra.

Ñaño, ñaño. (lat. *nanus, pumilus*). Epotxa gaztelaniazko “enano” mailegutik Adierazkide anitz ditu: epotx, kaskar, koskor, motz, txiki, txikar.

Narrasti. (lat. *reptilis*). Narras edo herresta, gorputz adardun ala gabe ordena zahar bat eratzen dute, ugaztunak eta hegaztiak baino askozaz zaharrago. Gure begien heinean ez izateak batzuei izua ematen diete, gainera benetan hiltzaileak direnak badira, baina ez dute beribilek eta gerra gizonen haina jenderik hiltzen.

N-dun hitzetan badira “1” dunen aldaerak *narru/ larru, negel/ legen* eta hiztun bakoitzak asmatu, itsusiago asko.

## 7.14

## O. batekin hasten diren hitzak

Obi, hortzobi/oi (lat. *gingiva*). Mailegu zahar hau, piriniotako beste hizkuntzetan aurkitzen da, latinezko *fovea* hitzaren «f» gorde du katalanak *fobia* hitzean, baina gaskoierak *hobi* eta euskarak (*h*)*obi* eman dute. Zuloa hitzaren adierazkide hurbila da. Hitz hori orokorra da eta ez du anatomian beste eman. *Hilobia*, hilak lurpean sartzeko zuloa da, baina ahoko anatomian *hortz obi*.

Odol (lat. *sanguis*). Hau bai dela ugaria Erdi Aroko eresietan eta gure zoritxarrezko kondairan. Eratorrietan hitzelkartuak ugari dira, zuzenenak: *odol zahar*, *odol berri*, *odoldu*, *odoleztatu*.

*Bigarren maila batean*

Odola/hilekoak/hilabeteakoak/odolaldi/egalatea: andrazkoen *odol galtzeak*, *odol berritzeak* edo *menstruatio* eta barne metaforaz Anton Erkorekak eman *ama negarrez*, *amerikanuekaz egon*, *goikoak beran jaitsi*, *negligaz egon* J. Vinsonek *Kryptadian* (1889 *illekoak*, *ilhabeteak*, (lat. *menses*), *illodolak*, (lat. *sanguines menstrui*), *ilberak* (lat. *novationes menstruae*) *gorriak* (lat. *rubra*)

Odolaldi: odol itotze: *congestio lat.*

Odol batu, odolbildu, odoluri/odolguri, odolgogortu: ekimosia (beltzatzen denean, baltzune, belori, ubel, ospel, odol ustel)

Odoldun: bizidun odolduna

Odoledale: izaina/ zizaina (*Hirudo medicinalis L.*)

Odolemaile, odol emate

Odolgabetu, odolustu: odol guztia galdu

Odolgaldu, odolisurtze, odol jario: hemorragia

Odolgatzatu, odol bildun, odol mail, odol oropil: odol gogortzea, *coagulatio*

Odol gatzura: serum

Odolki/odoloste: odolarekin egin janaria

Odolodi: odolzain

Odol uzki, odolpiko, anburu, txuringogol, imuridak: *bemorroideae*

Odoltsu: odolez betea

Odol tinkaldi: tentsio gora

*Metonimiak*

Odolarekin lotuak zuzenean

Odolgorri, odolkari, odolkoi, odolegarri, odolisurle, odolordi, odoltzale: jende ankerra, gaiztoa

Odolkide: odolberdinekin jendeak, ahaideak

Odoleko: arrazako

Odolkara: odol kolorekoa.

*Metaforak*

## Psikologian

Odolbako/odolgabe: koldarra

Odolbero: haserrekor

Odolbizi, odolgaitz: minbera

Odolerre: oso haserrekor

Odolgabe: kemenik gabe

Odolhotzeko: lasaia, barea baita bihozberatasun gabekoa.

Odola jauzi: alaia

## Horregatik Oihenartek bildu zuen

*Odolak su gabe diraki* (O.342)

## Beste metaforak

Kolore gorria: odol kolore:

Zuhaitzen odola, zuhamuen odola (*Munduaren azkena* B. Etxepareren olerkian)

Oin (lat. *calx, pes*). Aldaera gutxi *boin, buin*. Zangoaren beko azken zatia da. Erabilera zabarrean “anka/zango” deritzo. Oin hitzaren eratorrietan kontsonante mutaketa agertuko da eta erroa *or-/txor-, on-/ txon-* eta *os-* izan daitezke.

*Anatomian,*

Oinazpi, oinpe, oinzola: planta pedis

Oingain, oinbizkar, oinbular: *dorsum pedis* lat.

Oinhatz, oinerhi: oin behatzak

Orpo: lekuka aztal, oindagora edo takoi (nahasketa handiz)

Eta metaforaz buruan *linae albeko atzeko oina*, hipokanpo oina*Patologian*

Oin itoia gota da, oinkoskor/oinadar: oinetan agertzen diren gogor guneak

Oinmin deritzo, oindardarrari (Parkinson, Korea)

Oin elbarritu: urgun, maingu

Oin ogen: oin oker

*Metonimiak*

Oin *bustaldia* euri jasa handi batekin. *Oinezko*: oinez dabilen *oinduna*. *Oinetako adar*: oinen janzteko egurrez, gomaz, larruz, oihalez, plastikoz, eginak. *Oin bilurreakin/oinestunekin* atxilotua ezin da ibili. *Oinorraze*: oingaina da (gantzola) oinetakoarena eta oinarena *Oinbatzak*: aztarnak, bizidun batek utzi markak. *Oinas-katu* (oinekin desegin), *oinazpikatu/ostikatu*: oin ukaldiak eman, zapaldu. *Oinez ibiltzen* denak, sarritan *oinkideak* gogoko ditu. *Oingorri*: ninia ume sortu berria.

*Metaforak*

Oin: hatz, erhi, beso bezala neurri zaharra da

Zango hitzaren moduan altzarietan: kadira oinak, mahai-oinak, ohe oinak

Etxearen edo ideia baten: oinharriak

Oinetxe: etxondoa

Oinohar: orrialde baten oinean egiten dena

Oinperatu/oinkatu: menperatu, eskuperatu

Oinordezko: ontasunetan oinordezko norbait

Oinarri: basea

Oindun: animalia edo bertsoa izan daiteke

Harroin: harrizko habea

Zurtoin: zurrezko habea, trontxoa

-Or, -on (txor-, txon-). Txonkatila/txorkatila/orkatila. (lat. *talaria*) Tx hori apaingarria, epentesia da jatorrizko hitzari gaineratuak. Bigarren zatia, *katila*, *kabila* da zotz bat, zurezko iltzea, ohol batean sartzen dena. Txonkatilak tibia eta peronek beheko aldian kanpora duten simetriazko bi konkortxoak. Zubereraz “aztal beharriak”.

Os-/or-/on-. (ik. ur-) Or- anatomian agertzen da ez bakarrik batzuk *orkatila* diotelakoan, baina *orpoa*, takoaia da. Oina minberatzen denean *orberatzen* / *gorberatzen* da. Oin utsean ibiliz *Ortozik* (Bizk), *ortutsik* (Zub.) dabil batzuetan jendea eta beti animalia.

Os- erroak aldiz eratorriak anatomiatik urruntzen gaituzte, eta euskaldun gehienek oinarekin eman ukaldia, *ostikoa* edo *ostikada* diogu.

Hala ere ekialdean eta batez ere Zuberetan oinetako finari *oski* esaten diogu eta ez zapeta. *Ostikopean egotea*, menperatua egotea da. *On-dun* hitzak *ontuts onutsik* (oingorri).

*Metonimiak*

*Ortkoia*: oski egilek, oinetako egileek eta konpontzaileek darabilten inku-dea eta denbora berean oinaren forma.

*Orpeko*: pedala da

Oinaze (lat. *dolor*). Hitz horrek min zorrotz adierazten du. Agian, hitz hori *oinazturi* “tximist” hitzari lotua da. Gorputzaren eta gogoaren mina adieraz ditzake, gehienetan oinazeak anizkian agertzen da. Gorputzeko minen artean, *buruko oinazeak*, *hortzetako oinazeak*, *minbizi oinazeak*, *urdaileko oinazeak*.

Eratorrietan Oinazealdi (min krisia), oinazedun, oinazegai, oinazegarri, oinazekide, oinazegile/oinazelari (tortutatzaile), oinazekor, oinazelari, oinazetegi, oinazetu/ oinazkatu, beroinazezale(masokista)

Hitz elkartuetan. Oinazea hartu, oinazea ekarri, oinaze eman/oinazetu, oinazea izan

Oinaze gorritan, oinaze garrasiak/ oinaze oihuak atera daitezke.

Ok.- (lat. *bucca*, gazt *boca*). Ahoaren inguruko hiztegian badira hitz barreiatuak, sakabanatuak. *Okotz* (ik. kokots) *Okail* ardien lepo handitsua. *Oka*, behar bada onomatopeia (latinez I322. urtean *hoquetus* melodiaren hausturak adie-

razteko Aita Santuaren buldak aipatzen du); goitika adierazteko, bere eratorriekin, *oka egin* (goitika egin), *oka eman* (goitika eman), *okatu*, *okaztatu* (nazkatu). Beste izenkideak *gonbitularri* (B.) *goiti errandaka* (Z.)

#### Metaforak

Oka egin: huts egin, porrot egin.

Okaztatu, okaztagarri, okagarri: nazkagarri

Ondoko (lat. *placenta*). *Ondokoak* dira umekiaren inguruan den amnios boltsa, haurra sortu eta gero andreak kanpora bota behar duena. Bizkaieraz *selau-na* diote. Batzuk, Gipuzkoan *karenak* erabiltzen dute eta hau Iparraldean aberentzat bakarrik erabil daiteke. Tomas Hardoy zuberotar auzoa, jendeentzat, hapax bat eman zidan “*garaspenak*”.

Opin, txopin, zotin (lat. *singultus*). Arnasa hartzearekin, negar egitearekin, ustekabeen egiten den jauzi errepikatua.

Orbain (e.b.) /orban (B.),/ orain, orin, orezta. Iturri berdinekoak izan arren ez dute esan nahi berdin berdina.

Orbain (lat. *cicatrix*, *orbium*). Zauri batek utzi marka adierazi nahi du. Aditza *orbandu*. Eratorriak, *orbainge/orbaingabe*, *orbaindun*, *orbankor*. Hau da, noizik behin, izpirituaren edozein kutsadura adierazteko erabiltzen dena. Elizak anitz erabili du *bekatuaren orbaina*. Beste izenik badu: *zauri atz*, *ezagun* (G.) *zapor* (B.), *minondoko* (Ng.), *arradiz* (Z.).

#### Metafora

Oihenarten atsotitz batean ematen digu nola haurtzaroko bekatuak nola gaztaroen ezabatzen diren, *Haurtzaroko orbaina*, *ezaba daite gaztaroko* (0.223)

Orin (lat. *lacuna*). Berezko, sortzezko larru zulotxo da (gazt. *lunar*, fr. *fosse-tte*). Aurreko iturriko hitza. Beste izenak dira: *plapu*, *tona* (Ip.) *sortzezko* (L.), *sor seña*, *ttika* (Z.).

Orezta/olezta/oarta (lat. *epbelis*, *lenticula*) Beharbada, *hori* kolore hitzarekin gutzatzua, larruan, gutziz gain, eguzkiarekin, agertzen diren tika hori edo beltzaranak (gazt. *pecas*, fr. *tache de rousseur*). *Oreztatu*, *oreztaz* larrua bete.

Oritz (lat. *colostrum*). Ugaztunen lehen esne hori eta lodia da (gazt. *calostro*, fr. *colostrum*).

Orno uzkorno (lat. *vertebra*). Uzkiaren aldeko hestearen azken zatia zen (B. eta Z.) eta denbora berean “*coxis*”. Lapurdi Benafarroan. Hortik, Olabidek bizkarreko hezur esateko ordeztu, *orno atera* zuen, (Euskaltzaindiak orno onartu) eta erraztasun bat eman *bizkarrezurdun* luzearen ordeztu *ornodun* esaten baitugu. Antonimoa, hezur gabea.

Eratortariak: bizkar orno, gerruntze, gerri orno, oporno, leporno, orno-muin, uzkorno, hots *ornodun* gutziek gutxi edo asko dauzkagunak, baina *ornogabeen* mundua askoz aberatsagoa eta ugariagoa da ornodunena baino.



**Or/hor saila?**

Or (*Canis domesticus* L.). Hitza ematen du Arabako euskaran Landuccik 1562. an eta hitz elkartuetan agertzen, oraindik Zuberoan bizi da hor forma hutsean. Arrazako zakurrekin erabiltzenago da

*Alandor, alanor*: alano

*Artzanor*: zakur handi, txuria, artzainarena egiten duena

*Hotero* (Z.): tokero, zakurzain

*Ebizor*: ehiza zakurra

*Ozar*: zakur basatia Zuberoan *hor* erabili arren esaten da *erbi txakürra, luma txakür* baina etxea zaintzen duen zakur handiari *tzakür* edo *perroa* [sic].

Otso (*Canis lupus* L.). Erromatarren garaian *Osson*, *Oxon* jende izen gisa agertzen da eta Mitxelena honela iruzkintzen du:

«*allí se ha mencionado también la posible ecuación oxson, vasc. Otso “lobo” cf el nombre medieval Ochoa, conservado hasta hoy como apellido. El nombre se repite como una variante gráfica osson*» [Mitxelena FHV 18-19.or.].

Izen hori *or-* erroduna ote, \**Ortxo?* Errespetuz eta beldurrez hitz egiten denean, deituz erakarri nahi ez den animalia, azeriko, baina *otsoko* ere erabiltzen da. Emeari, berriz *otsanda* deritzo, eta jende izen bezala erabilia da, Ochoa/Otsoa bezala. Eratorriak: *otsoleku*, *otsotegi*, *otsotoki* *otsotu*, *otsokume*. Hitz elkartuak *otsotzar*, *otso zulo*

*Metaforak*

Basoan dagoena, landatua ez den landare izen batzuk otso daukate hasieran

Otso belar/otso baba: helebora

Otsolar, otsonahar, otso arrosa: sasi arrosa

Otso mahats: basa mahatsa

Otso piper: basapiper, Bistorta

Otso putz: Lycoperdon

Jendetaz mintzo

Otso jende: jende gaiztoa

Otsokeria: basakeria

Otso mintzo: erdi gizon, erdi otso

Otsotan: mozkor

Otsondo: mozkor biharamun, astelehen

Otsondore: mozkorretik gaixorik

Minotso: (loupe, lobanillo)

Orein (lat. *Cervus elaphus* L.). Beharbada, garai batean ez ziren ongi bereizten eta *ore+eme* (orein), ama zen eta *ore+aketz* (orkatz), arra, beraz oreina eta orkatza sail berdinean sartuak ziren, gaur bi ehiza kente bereizten ditugu *Oreina* handiena da, orkatza askoz txikiago eta munduko pagano mito zahar askotan Afrika, Asia eta European argiaren sinboloa eta kristauek kristautuz orei-

na Kristoren sinbolo eginik. («Como une ciervo huiste habiéndome herido», *En una noche oscura*, Juan de La Cruz).

Mendietan bada baina zelaietan laketago da elurtea etsai baitu. Irati aldean aurki daitezke, baina Gaskoniako Landetan gehiago. Adarrak, nahiz urte guztiz galdu, berriak zahartzearekin hamar zatitan adarkatu ditzake

Orkatz (lat *Capreolus capreolus*, L.). *Orkatza*, oreina baino askozaz txikiago adar motzago, hiru adartxoekin. Euskal Herrian non nahi ugari dira, zelaietan hirietatik hurbiltzen dira. Orkatz amari *orkatz abuntza*, *orkatz urriza*, *orkatz emea* esaten zaio. Ipuin politik idatzi zaio euskaraz, baina ez du mitorik sortu.

Orots. (lat. *masculus*). *Orots*, aketz, ar, edo kotxo esateko adierazkidea da  
Urdorots: zerri aketza (batzuek ordots, orots nahasten dituzte)  
Lehoiorots: lehoi arra  
Txahalorots: txahal arra, txekorra

Ez da erraz *or*-errodun animalia guzti horik sail bakarrean biltzea. Eztabaida da ere, *urde* hitz tabua ez ote zen \**orde* lehenago eta ez ote zen latinezko *sordidus* hitzetik atera. Soka meheegi eta luzeegi irudi zait eta ez dut eskuratu.

Organo (lat. *organus*) Izaki baten gorputzeko jardukin adar, jarduketa edo betebehaz berezi baten zatia duena. Organoen artean, jardukinen artean, badira hazi organoak, ibil organoak, jariadunak, arnasa organoak, sexu organoak, zirkulazio organoak. Organoak aparatuetan biltzen dira eta aparatu guztiek organismoa konpontzen.

#### *Metaforaz*

Gorputza makina batekin alderatzen delako, beribilak, hegazkinak, makina-tresnak organoak dituzte. Halaber, erakunde bat gorputz batekin erkatuz, *erakundeko organoek*, *organismo* osoa eratzen dute eta organizatzen edo antolatzen.

Oso hitzaren saila.

Osasun/osagarri (lat. *sanitas*, *integritas*). *Oso* hitz orokorra da, eta oro hitzaren aldaera, baina fisiologian eta patologian eratorri handiak izan ditu: *osatu* (sendatu), *osasun/osagarri*. *Osasun betea/osasun* ederra, *osasun ona osasuntsu* izatea behin behinekoa da, ezen osasunaren makaltzeko *osasun kalteak*, *osasun-galgarriak* ugari dira eta *osasunbideak* batzuetan luzeak. Badirudi lehen ere sendagileak hirietan nahiago zirela ezen jadanik Oihenartek dio:

*Urrun hiritik, urrun osagarriti.* (0.676)

Beste eratorriak dira

Osabide: sendabidea

Osaera: sendaera

Osagabe: sendatu gabe

Osasungabe/osasun bera: osagarri gabe

Osagai: sendagai, erremedio

Osagaitz: sendagaitz

Osagarri: osasun

Osagile, osagin, osalari: sendagile, sendagin  
 Osaketa, osakuntza: sendatzea  
 Osaki: sendagai, sendagailu  
 Osakidetza: sendaketarako zerbitzua  
 Osakor: sendakor  
 Osakitegi: farmazia  
 Osasunbera: gaixokor, erikor dena.  
 Osasungarri: sendagarri  
 Osatetxe Osategi: ez zaituzte beti osaturik, osasundurik, sendorik ezartzen.

(Kontuz! Kasu! *Osagarri* hitza Iparraldeko euskalkietan *osasun* hitzaren adierazkidea da). Batzuek erdaren kalkoz *Zure osasunari, Osagarriari* diote. Euskaldun zaharrek eta zaharrok *ondagizula/ ondaizula* esaten dugu.

(Kasu! Ekialdeko euskalkietan *osatu* da, zikiratu, irendu barrabilak kendu gabe, bihurteta batez kanala hautsiz)

Osasun errezeta asko daude Oihenartena gaurko euskal gastronomiaz ez genuke berdin ikusiko (hala nola eguneko haragiaz) eta sendagilei esateko bihoaz! *Haz nezak egunko aragiaz, atzoko ogiaz eta xasko arnoaz eta axeterrak bihoaz.* (O.213)

*Metaforak*

Edozein sistema gorputzarekin erkatzen delako diogu  
 Ekonomiaren osasuna  
 Airearen osasuna  
 Zorrak osatu

## 7.15

### P. batekin hasten diren hitzak

Pantza (lat. *pantex*) *Pantza* edo *sabel zorro* deritzo abere sabelari, bereziki, pertsona lodi denean. Pantzoila, berriz, lekuka, sabel barrena da, baina trufaz ere jendeez esan daiteke. Rabelais-ek frantses literaturan *Saint Pansard* santutu zuen urteetan Landucci-k Araban *panzea* hitza bildu zuen.

Papar, papo. (lat. *jugulum*). Hemen berrito jantzi eta gorputz izendatzeko erabiltzen den hitz batekin topo egiten dugu. Anatomian, papoak badu bere *papar bezurra*. *Papoa, paparra zabalik*, atorraz mintzo da eta *paparra bete/ papoa bete* jalea ase adierazteko.

Animalia batzuek papo nabarmena dute horrela *papogorria* (Iparraldean), *papargorria* (bizkaieraz) txantxangorriaren beste izena da. *Papo urdina* berriz (*Cyanosylvia svecica*)

Perna (lat. *crus, sura*) (ik. oin, berna)

Piko I. (lat. *rostrum*)

Gaztelaniazko *pico* da mokoaren esateko mendebaldean erabilia eta erdaren metafora denez *piko/pikotxa* moko itxurako burdin tresna da Euskal Herri osoan. Hitzegitearekin lotua bada esaera: *piko luze*, hitzunaren aipatzeko.

Piko 2. Mendebaldean izan ezik euskaraz zauri txikiaren izena da lama batekin *pikatzen* denean. Beste hitzak dira, *zarrasta* (Ng. Z.) *sako* (Nb. Z.) *ebagi* (B,G.) *ebakuna*, *ebakondo* (Ng, G, B.). Zilborresteari, *pikatzen* delako, gelditu zaio zubereraz hitz berezia *pikoste* (piko+oste) nahiz *oste*, euskalki horretarik, galdu den.

Pikor: larrua egiten diren aletxoak dira, baita esnearen gatzatzearekin agertzen diren bihiak eta odolean ere bai. Aldaera: *pikorna*. Pikorraren beste hitzak odolbildun, bildün, arraskul.

Pito/pitxo (lat. *inguen*) (gazt. *pico*, *pito*). Zakilaren beste izena da eta Ipar Euskal Herrian hedatuena. Eratorrien artean badira, *pitokan ibili*, *pitokatu*, *pitxo-mutur* (erlijio batzuetan mozten dena). Haurrentzat eta hurrekin *pitto*, eta *pittili*, *pittila*. Maitekor moduan esan daiteke lagun on-onbati. *Agur pittilin!*

#### Metaforak

Alukeria hitza bezain erabilia da gaitzespenez: *pitokeria*, *astapittoa* (astakiloa), *astapitokeria*. *Asto*, *bidea luze bezain*. Hitzaren ezitzeko edo elkartuetan *-kilo* erabiltzen da.

Pixa/txisa (lat. *urina*). Gauza zikinen adierazteko maileguez baliatzen gara, *pixa* hitz onomatopeia antzekoa. Europako hizkuntzetan aski hedatua da, alemaneraz *pissen*, ingeleraz *to piss*, italieraz *pisciare*, gaztelania zaharra *pixar*.

Eratorkiak, *pixegin*, *pixagale*, *pixatzaile*, *pixadebeku*. *Pixontzia bi* gauza izan daiteke, *maskuri pixasturu* edo *pixegiteko ontzia*. Niniekin eta batzuetan zaharrek *pixoibalak* behar oheak eta besteak ez bustitzeko. Hitzaren ezitzeko edo erabiltzen dira *gernu*, *nigar*, eta *urxuri*, baina horrek ez dio usaina kentzen. Hitz debeku txikiz metaforak badira *ur egite* (lat. *aquam facere*), *ur ixurtze* (aquam liberare). Hegoaldean aski zabaldua, haur hizkuntzatik etorri *txisa* Gaitzetan badira *txisaeuspenak* edo *pixa ezineginak*, edo *pixa galtzeak*; azken hau haur txikietan (enuresia) edo gizon zaharretan (prostatitis)

Poker. (lat. *eructus*) Manexen (nafar lapurtarren) hitza da, zubereraz *opets* edo *puerko*, bizkaieraz *aupasa*, nafar-gipuzkeraz *korroka*. Hasierako “p” hori ez da jatorrizkoa *puzker* hitzaren kasuan bezala *uzker/puzker* eta *uztar/puztar* bezala edo hobeki erran b- izana.

Potolo/potxolo (lat. *corpulentis*). Hitz hori euskalki guztietan ezaguna da. Gehienetan ume txiki sendo edo lodiez esaten da. Bestalde, heldu bat *potolotzen* da gizenegi bada. Aldaera badu *moxolo/potxolo*. *Moxolo* gehiago da aurpegi lodia duena.

Potroak (lat. *verendae*) Hegoaldeko hitza da *potro* (B) *pottona* (G.) gizonen sexua, barrabilak adierazteko eta *potor/pottor* andreen sexua dela-eta. Eliza hiz-

keraz latinetik itzuli da “lotsagarriak”. Hau da gaztelaniatik hartu izen bat, bakarrik Hegoaldean erabilia. Iparraldean, gehienek, *potro* zaldi kume bezala ulertzen dute. Ondoko ugari ditu, guztiz gain, Gipuzkoako hizketetan: *potro-ak eduki* (ausarta izan), *potro handi* (arrautza handi, koskoil handi), *potro jorran* (mehatxuka baina jo gabe), *potroso*, *potrotsu*, baina kontuz *potrueria*, *potroko mina* lekuka besteek *etendura* izenaz ezagutzen dugun hernia da.

Pusiga/puxika (ik. bisiga)

Puzker (lat. *peditum*) (ik. uzker). Azkenean “p” hizkiaz hasten diren izen gehienak maileguak dira, salbu hizkuntzaren bidaian p aurre letra hartu duten *poker*, *puztar*, *puzker* baita *butz* hitzaren aldaera den *putz*.

-podo, -pedo. Lehen, grekeratik dator, bigarrena latinetik. Bizidun sailkapena honela ikus daiteke

apodo: zango edo apendize gabe

artropodo: oin artikulatuak (horien artean hexapodo (zomorrok), octopodo (armiaramak))

tetrapodo: lauoinduak

bipodo/ bipedo: oinbiduna

## 7.16

### S. batekin hasten diren hitzak

Sa-erroa

Sabai. (lat. *palatum*). Jatorriz ez da biologiazkoa zerbaiten goia, gaina, ganga adierazten duelako anatomian badugu: *aho sabai*, ahoaren gaineko aldean eta *sabel sabaia*, diafragma.

Sabel (lat. *venter*). Euskara osoan erabilia. Gaizki ahoskatzen dutenek diot *saël*, *sabil* edo *sable*. Idatzian *sabel* hitza nagusitzen da. Gibel hitzean bezala, *sabel* hitzean *-bel*, ilun adiera du. Lehen osagaia *sa-* erroak badu zer ikusia, *sai* (enbor), *saibertz/saihets* (enbor albo), *saikutz/sakutz* (enbor albo), hitzekin.

Eratorriak ditu, gainera, ernalkuntzan eta digestioa dauzkan jardueren gatik, ugari.

Anatomian

*Sabelsabai/ sable tela*: diafragma

*Sabelalde*: sabelaren azalera, abomen

*Sabelpe/ sable zola/ (lat. pelvis eta pubis)*

*Sabel sare*

*Sabel ttiki, sable xume*: (lat. *pubis*)

Aberreen *isabelantxapel*, agian, karlistek Isabel erreginaz egin hitz jokoa liteke. *Sabel zorro*: panza

*Patologian*

*Sabel korroka* /-kurruska/-orrea/-urruka gauza arina eta zaratatsua bada *sabel errabiak*: sabeleko mina jasan gaitzago. Batzuetan *sabel-gogor*/*sabel idor*/*sabel nagi*/*sabel uzkur* egoteak kezkatzen badu, kalte gehiago egin lezake *sabelak utzi*/*sabelberari*, *sabeldarioak*, *sabeldura*/*sabelereangoa*/*sabeljario*/*sabel buste*/*sabeltasun* duenak gorputza lehor baidezake. Gaitz horietaz Oihenartek dauka atsotitza

*Sabeldurak gaiz ditu urak* (O.664)

*Sabel etena* gerta daiteke peritonitis baten ondoren edo istripuz, aldiz eten-dura indar bat egin ondorengo ez da hain latz eta astuna.

Antzina, gure herrian *sabel arin*, *sabel huts* edo *sabel zorriarekin* bizi zirenak *sabel asegarri gabe*, gosez hil zitezkeen, baina gaur *sabel jaieki*/*sabelondoekin* gehiago ditugu *sabelbandi*/*sabeldun* direnak *sabelkoi*/*sabeloi*/*sabelontzi*/*sabelustel* direlako, ezen Oihenartek bildu atsotitzak dio:

*Sabelak, gure jabeak* (O.508)

*Ernalkuntza dela-eta*

Sabeleko minetan andre dituzte gehienak hilekoetan, odolekoetan, baita izarra direnean *sabeletik katibu* edo *sabel-naro*. *Sabel irrirts*, larru jo gura esaldiaren eztigarria da. Abereen sabeleko okela jan daiteke, *odolkietan*, edo *sabelkietan*.

*Metonimiak*

*Sabelaldi*: umealdi, erdialdi/ertaldi, zorrota

*Sabelkide*: haurride erdi, ama berdineko baina aita desberdineko umeak

*Sabel ahizpa*, *sabel anaia*: bikinak, biritxiak.

*Metaforak*

*Gaizkia*: *Sabelpezur*/*sabelzuri*: gezurtti

*Sabelune*: bideetako zulo handiak

*Horma bat sabeldu*: horma batek bere lerdentasuna galduz horrelako tripa bat daukanean

*Itxura*: *Ontzi baten sabela*, *botila baten*, *eltze* edo *lapiko baten sabela*, *barku baten sabela* ez dira akatsak itxuraren adierazteko emanak baizik

*Barrena*: Barnearen adierazteko esan daiteke, *lurraren sabela*, *lainoaren sabela* (edo bihotza)

*Psikologian*

*Sabelgorri*: gaiztoa

*Sabeluzkur*: koldarra

*Sabeluzkurtasun*/*sabeluzkurkeria*: koldarkeria

*Sabel zuri*: faltsua, trankarti, zimarkun

*Sagu*: barrabilen beste izen bat.

*Sai* (lat. *thorax*). *Sai* hitza *enbor* adierazteko hitz eratorri batean ikusten da, zubereraz *enborra* agirian, *alkandora gabe*, *saiasik* egotea da (*sai* enbor+*asik* hu-tsik) *Sai* erroa izan daiteke, *saihets*, *sabel*, *sarkutzen* lehen osagaia.

Saihets/ saihertz (lat. *pars costalis*). *Albo/aldamen* bezala aski orokorra da eta bizidun baten edo gauza baten saihetsa izan daiteke. Saihets, batik bat ipar eta erdialdean erabiltzen da, Gipuzkoan *aldamen* ezagunago da, eta *albo* Bizkaian. Hitz horrek, agian, jatorriz zehar/zehar hitzekin ikustekoa du.

Eratorkiak: anatomian lehenik *saihets bezurrak* baditugu. Abereek *saiheskiak*, *saihets-okelak* ematen dizkigute; patologian *saihets mina* pleura infirmitas, *sabel saibai* izkinan tinkatzen denean gertatzen da, batzuetan indar bat eginik, beste-zuetan korrikan lasterregi ibiliz, gero *saihets-arteko* minak ere gertatzen dira eta *saihetsak hausten*.

*Metaforak edo?*

Hitza adierazi zabalekoa izanki baditugu

*Teknologian*

Zubiaren saihetsak (jadanik oinak eta gorputza zeukan)

Poligono baten alde edo saihetsak

Itsasontzi baten saihetsak edo karela

Gurdi baten saihetsak, beribil baten saihetsak

*Gizarte bizitzan*

Saihetsa galdu: bizi laguna hil

Saihetseratu: baztertu

Saihetsa hartu: ihesi egin

Saihets hitz: hitz faltsua

Saihets so: zehar begirada da.

Sama (lat. *collum*). *Sama zama* lepo esateko mendebaldeko hitza da, latinezko *sagma* hitzetik hartua. Lekuka, zintzurraren kanpoalde hitzaren lekuan erabiltzen da (*sama erre, sama hil*, (ahots gabetu), *samako zulo*)

Beste euskalkietan, hala nola idiez *lepo-zamar*. Beharbada zamak, kargak lepoan hartzen direlako zitekeen? Gainera ikusten da, lantzean behin, isekaz animalien hiztegia jendeekin erabiltzen dela, beraz hortik letorke mendebaldean *lepo* hitzaren galtzea. (ik. ere *embra*, emakume hitzaren lekuan).

*Samar/zamar* deritzo haragi gutxi baina nerbio, zain asko duen haragiari. Begiko samarra berriz, katarakta da.

*Sei/ sein, seme, senhar.*

*Sebi*, Iparraldean morroin gaztea esan nahi du. *Sei* urrunago ikusiko dugunez testu zaharretan agertzen da. *Sein* Euskaraz eta gaztelania zaharrean *seniko* forma bazegoen, baina bereziki mendebaldean da bizi *seintzain*, *seintxu* hitzekin eta eratorrizko *senide* (haurride) hitzean. Bitxiki *sein* adiera horretan galdu delarik beste euskalkietan, *senar* nahikoa erabilia da eta mendebaldean batere ez. Badirudi familia horretakoa dela *seme* hitza ere.

Sendo, sendatu, sano. (lat. 1. *robustus*, 2. *sanitare/corroborare* 3. *sanitus*). Hitz horik latinezko *sanitare* hitzetik datoz. Osasunez sano dena, batzuetan, argala da baina askotan *sentu/sendoa* hots gotorra. Iparraldean sano denari *sendo/sen-*

*dor* deritzo eta gaixo izan ondoren osatu denari *sendo/sendatu*. Nahasketa horrengatik hitza, euskara osoko bere *sano* esaerarekin geroago eta gutxiago erabiltzen da eta *sendotu*, sano bilakatu, (osatu) batzuek sendoagotu (gotortu) berizten dute Beste eratorri eta hitzelkartuak asko ditu:

Osatzea dela-eta:

Sendabelar: osa belar  
 Sendabide: sendatzeko bidea  
 Senda ezin: osa ezin  
 Sendagailu: botika, osagai, erremedio  
 Sendagarri: pozoin edo kutsu aurkakoa  
 Sendagile, sendagin: osagile, mediku, atxeter  
 Sendakaitz: osa nekeza  
 Sendaketa: osaketa  
 Sendakizun: senda daitekeena  
 Sendategi: sanatorio  
 Sendatzaile: osa dezakeen edonor  
 Sendotze: osatze

Gotortzea dela-eta, baina hor gorputza edo gauza bat

Sendorik: gotorrik  
 Sendodun: sano  
 Sendoera: gotor izatea  
 Sendokote: sano

#### *Metaforak*

*Gizarte harremanetan*

Sendoez: ezin fida  
 Sendoiritzi  
 Sendoki/ sendokiro/ sendoro  
 Sendotasun: hirmotasun  
 Sendotza: konfirmatze sakramentua  
*Asmo sendoekin, erabaki sendoak har daitezke*

*Teknologian*

Edari sendoak adela daitezke hala nola koktelak  
 Eraikuntza sendo bat egin  
 Horma bat sendotu

Sen. (lat. *instinctus*). Bizidunek sortzez daukagun naturari egokitze ahala da (suma, asmo emaile), sena (lat. *instinctus*) Eratorriz badira *sena hartzen* dute-nak, *senak ematen*, *senge/sengabe* ez denean; zenbaitentzat karakter hitzaren adierazkidea da, ezen azken hau erdizka senaren jarduera baita.

Sirats? Hitz horrek arazoak sor ditzake vena zainak adierazten du zubere-raz, baita norbait metaforaz: zori ona daukala adierazteko *siratsa badik; zietz, ziatz* (B. G.) itxurarenpean *tendon* adierazten du.



Soin (lat. *humerus* edo *cingulum membri superioris*).

Soin/sorbalda (lat. *spatula, humerus*), *sorbalda* hitzaren adierazkidea da; batzuek enbor hitzaren lekuan darabilte baina sarritan *soin-bular* esaten; *sorbalda*, *soin+* balda da. Beste eratorriak dira

Soin bazter/soin hegi: sorbaldaren ertza

Soinburu/sorburu: lat. *acromion*

Soinkurutze/soinatze: omoplatea

Soingain: sorbaldaren goiko aldea

Sorka: soin ukaldika inguruko bultzatzea

Hitz honi gorputzeko zati handienei gertatu bezala, jantziaren adierazteko erabilia izan da. Toribio Etxeberriak hain argiki esan moduan euskaldun zaharrek *soineko/soinera* erabiltzen zuten goitik behera ipintzen ziren beztidurentzat, hala nola andereen gonak baita alkandorak eta atorrak, berriz *jantziak* batik bat beheiti gora ezartzen zituztenak (galtzak, galtzerdiak, oinetakoak, pantaloiak, prakak).

*Soin* hitza “cuerpo” adierazteko, Olabidetik landa, euskara idatzian sartu da gorputz maileguaren lekuan, gorago ikusi dugun legez. Edonola, gorputz hitz “itsusiak” biologian bere lekua bireskuratu du, gero olerkariak, eleberriegileek beste adierazkide gisa erabiltzeak ez du kalterik egiten.

Oihenarten erranaz oroitzen naiz Santa Grazin neguko egurra biltzen dudanean eta soinez ekartzen, badakit ez dudala gorputz guztia erabiltzen.

*Egurra egiten duenak leku gaitzean*

*Ekarri beharko du soinean*

Olabiden bidetik sortu ziren *soinbera* (hezurgabea, ornogabea) eta *soinketa* (*gimnastika*)

*Metaforak*

Indarra gogoan

Soinkatu: lagundu, gotortu, sendotu

Horma bat soinkatu

Egitasmo bat soinkatu

Sorta. Anatomian: Zutitzeko sorta (arteria halinizetan), Riolanen sorta (lokietarik jaisten diren giharrak).

Sortu (*excedere, nascere, ex utero exire*). I. Jaio hitzaren erdi sinonimoa da sortu, nahiz jaio biziari lotuago den (*enpresa bat ez da jaiotzen*). Batzuek diote sortu latinezko *exortus* hitzetik datorrela, baina erromatarren garaian sortzekoa nintzen eta ez dut lekukotasunik ekarriko. Eratorri zuzenak: *sortu, sortzen, sortuko* aditzak kanpo *sorrarazi/sortu eragin, sortze, sortzapan*. Beste eratorri asko ditu hala nola

Sorkai/sorkari: ume

Sorkunde/sorketa: kontzebitzea

Sortageri: jaiotagiri

Sorberri/sor albriste: jaiotzaren berri  
 Sorleku/sortoki/ sorterri/ sorgune/sorgu  
 Sorteguna/sormuga: jaioteguna  
 Sorterro: leinua, jatorria  
 Sortetxe (orain gutxitan sortzen da etxetan)  
 Sorturte: jaioturte  
 Sortzaile/ sortulari: izan daiteke ama edo haren laguntzailea  
 Sortzain: haurra jaiotzen denean urgazten duen jenioaren izena  
 Sortzez/ sorkuraz/ sortuzko: berez

*Metaforak*

Zerbait berri egitearen adierazteko  
 Egunkari berri bat sortu  
 Argitaletxe bat sortu  
 Elkartearen sortzaileak  
 Sorberritzen: birargitaratzen  
 Hizkuntzaren sorbideak

Noiz nola, idazle baten *sormena* ezagutu liteke *sormarkan* Eguzkia ere sortzen da eta Ekialderen sinonimoa da Sortalde.

Sortu 2. (lat. *esse sine sensu*). Sorgortu. *Sorgortu* (G) eta *soraiotu* (G. izan ezik, denetan) esan nahi berdinarekin datoz, zerbaitek (droga batek) edo gertaera batek jendeari minberatasuna galarazi dio.(soraio lekuka legen beltzari deritzo, eritasun horretan minberatasun galtzea gerta daitekeelakoan).

Sor eta gor egin  
 Sor eta lor gelditu, sor-sorrear  
 Sorgor emaille: analgesikoa  
 Sorgortasun: minaren, oinazearen ez sentitzea

Adiera horrekin Oihenartek ematen digu:

*Bata mingarri, berzea sorgarri* (O.69).

Batzuek sor eta gor esaten delako sor gaztelaniaren kalkoz “sordo” adierazteko darabilte, “gor” hitzarekin aski delarik

Soraiokeria  
 Soraiotasun  
 Soraiotu: minik ez sentitzen  
 Soraldi: bat bateko sorgortzea  
 Sorera: minik ez sentitzea (analgesia)  
 Soreria/ sormin: apoplexia

Sudur (lat. *nares*). *Su-*, erroa ez dakit zer den, baina *-dur*, *-tur* punta adierazi nahi du (eskutur, mutur). Mendebaldean eta lekuka Iparraldean *sur*/*suurr* laburturik entzuten da.

Hona zatiak

Sudur mintz: lat. *cartilago nasi*

Sudur albo/sudur hegal/ sudur ezpal/ sudur saihets: lat. *ala nasi*

Sudurzulo/sudurzilo: lat. *nares*

Sudurgain/sudur bizkar: lat. *crista nasalis*

Itxuraren arabera, baditugu, *sudur konkor/sudurkaiku/sudur mako, sudur motzak, sudur piperrak* (luzeak), *sudur taloak* (motz eta zabal)

*Metaforak*

Sudupil: aberearen sudur zuloak

Sudur hauts: sudurrean sartzen zen tabakoa

Sudurkari: ahoskatzean sudur mintzoz ematen diren kontsonanteak

Sudurpekoak (batzuentzat biboteak besteentzat zigarroak dira)

Bere buruari kalterik egin gabe besteari egin daitekeenean Oihenartek dio

*Sudurra ebaki, muturra odolzu* (0.414)

*Toponimian.*

Mutur bezala agertzen da sudur *Mendisur* Ezkarai Errioxako lekuizena da. Zuhaitzek ere sudurra daukate eta ehiza leku baten izena Zuberoan *Bagosüdürra* da

*Teknologian* Aizkorak, gurdiak edo goldeak sudurra badu.

7.17

T. batekin hasten diren hitzak

Tiroide/hipotiroide (ik. guriin)

Titi/diti (lat. *mammila*). Ugatz eta bular izenen adierazkidea Europako hizkuntza askotako hitza guk ere mailegatu dugu. Germanikoak *titta*, sasi latinari *tetta*, eman zion (gazt. teta, fr. téton). Euskara batuan *titi*. Hitz horrek eratorriak ditu

Titisagar: bularsagar lat. *mama*

Titiburu/titimoko/titimutur: bularmutur

Landucciren hiztegiak 1562. eskuz idatziak K. Mitxelena argitaratuak dio

Ditiburua: peçon de teta (68.or.)

Diti edan: mamar (150.or.)

Diti eman: mamar (150.or.)

Ditian min: çaratan

Ditia kendu: destetar (107.or.)

Titiduna, ugaztuna da.

Tripa (lat. *venter*, ital. *trippa*). *Trippa* latinaren azken hatsetako *trippa* hitza liteke, baina jadanik Landuccik bere hiztegirako bildu zuen *tripan osça* “rugi-miento de tripas” Ez da sabel hitzaren adierazkide oso, gaitzespen nabardurak dituelako eta erraz harakinek *tripaki* hitza darabiltelako.

Eratorkiak ditu:

Tripakada/tripaldi: ase betetetzea

Tripazain/tripontzi: jale handia

Tripa zorri: gosea

Tu, txistu/ listu (lat. *sputum*). Ahoko gozoa indarrez kanpora botatzen de-  
nean tu egiten da. Tua tu guruinek, listu guruinek dariote eta dio Oihenartek

*Thu etxatua zeruan gora,  
beguitartera derora* (0.673).

Norbaitek *tueria* eduki lezake, gaitz batengatik *tuqalea*, *tularria* dagoenean, baina ekialdetar batzuen artean tua espermarekin berdintzen da eta urrun tu egiteak, sexu indar erakustea da, aldiz europarren artean tu egitea iraina izan daiteke.

## 7.18

### U. hasieradun hitzak

Ugatz (lat. *mammae, sinum*). (ik. titi). Titiren sinonimoa da, bular baino zehatzago gizon gehienek ugatzik ez dutelako. *Ugari*, ugaritasunaren konnotazioak ditu. *Ugatz* ez da zubereraz ezaguna, baina alde batetik *ugazaita*, *ugazama* bai nahiz ez duten titia ematen, eta *ugarri* zubereraz *ura ugari* ematen duen iturria da eta amaren *ugatzak* honela izan behar luke.

*Metonimiak*

1. Ama berdineko: ugatz ahizpa, ugatz anaia, ugatz neba, ugatz arreba

2. Norbaiten erantzukizuna duenak: ugazama (ama pontekoa); ugazaita (aita pontekoa)

ugatz seme, ugatzalaba (haur besoetakoa, edo beste ezkontza bateko alabaizuna); ugazaba (nagusia, buruzagia)

Ugatzun (lat. *mammiferus*) Bizidunen ugatzun ordena harroak izendatzeko erabilia, amak esne emaile direlako.

Uko I (lat. *antebrachium*). *Uko*, *ukaur*. Besoaren zatia da; Eratorriak: goiko aldetik *Ukondo/ukalondoa*, (lat. *cubitus*) beheko aldetik *ukaraia* (lat. *pugna*)

Eskua tolesten, zerratzen denean *ukabila* da (aldaera askoduna, *ukaba*, *ukaua*, *ukamilo*, *ukubila*, *kumiloa* eta beste). Abere kenteetan sorbalda gorputzaren barruan dago, beraz *ukalkia* “eskuturretik, ukaraietik” behera dago.

*Metonimiak*

Erantzungo ez dudan itauna da: eta *uko egiten* denean besoaz egiten delako ote? Baina nekaduraz *uko izatea* sail berdinekoa ote?

*Metaforak*

Toponimian aski zaharra

Ukarai bakoitza (Iratxe, I399)

## Okondo hiria (XV. mendean)

Ibar ukondoa: ibar adarra

Uko 2. Ekialdeko euskalkietan *ukoa* esaten zaio, itotze, itoketa labur bati. Indargaltze laburrari.

Ume (lat. *infans*). Oraingo euskaran *ume* jendeentzat eta *kume* animalien kumeentzat darabilzkigu. Erromatar garaian hilarrietan *Umbe* agertzen da (Sembe bezala). Aditzak: zaharrek aski ongi bereizten zuten *umatu*: umea egin, eta *umetu*: ume bilakatu

Jendea dela-eta

Hiztegian, *umetoki/umontzi/bumoi*: amaren sabelean umea kokatzen den boltsa edo uteroa da. Bere lanarengatik eta *ume lanean* ama laguntzen duelako *emagin* andereari (andra maestrari) *umegin* esaten zaio lekuka. Umea jaiotzean, gurasoek gal lezakete, baina umeek ere gurasoak gal, *umezurtz* geratuz. *Umealdia*, *umezaroa* laster igarotzen da, baina behar ez den zerbait, sarritan, egiten duenari, *umekeria* egile dela diogu.

Animaliak direla-eta

Batzuetan diogu eme batek, urriza batek umealdia (ernaldia) izan duela eta umeketan dagoela, antzina, hitzez bereizten ez zirela erakutsiz. Gero, sortu ondoren kumea ematen du: ahuntzkumea, arkumea, astakumea, gamelukumea, lehoikumea, txerrikumea eta beste.

*Metaforak*

Gertaera baten, gauza baten ondokoa da, beraz *urdin*: ur+din, ura bezala da  
Bilbotar txiki hori fazistakumea da

Ezaxolakeriaren kumea

Ontzi hautsiak kumeak egin ditu

Umegorri: esperientzia gabekoa

Urdail (lat. *stomachus*) Badirudi hau dela euskarazko hitz zaharra *urdabil* ere agertzen baita (Landucci, ASJU, 1970). Ez dakit zer hizkuntza edo sineste debekurengatik, latinismoak ugari ditugu, *estamango* (B.) gaztelaniazko estomogotik, *estomak* gaskoierazko *estomac* hitzetik. Urdailak ere badu bere ahoa (cardia), *Urdabilan aoa* dio Landucciren hiztegiak (1561)

Urdailaren gaitz arruntena ultzera da, baina bada hain astuna ez dena urdail etena, urdailaren zati txiki bat diafragmaz goiti enborrean sartzen denean. Dispesia berriz urdailak azido gehiegi ekoizten duenean gertatzen da. *Urdailpea*, edo *urdailondoa* (epigastroa) urdailaren heinean dagoen aldea da.

*Metaforak*

Arruntean, bakan, *urdail beltza* esaten zaio gorrotodunari

Urdin (lat. *caeruleus*). Adin, berdin, gordin, urdin hitzetan legez *-din* alde-ragailu da

Hitz horrek, ordea, esangura asko eta berein izan du. Auzo hizkuntzetan berdin.

*Ile urdina*: ile erdi zuritua da  
*Begi urdina*: zeru oskarbi kolore da  
*Andra Ordina* (Garibai): ile horikoa

Badakigu, iparraldeko *blu* eta hegoaldeko *azul* erdarakaden baztertzeko urdin nagusitu dela, baina frantsesak arrazoi berdinak izan ditu hizkuntza zeltiko baten gainean eraiki da eta zeltarreek ez zuten urdina eta berdea bereizten, guk ere ez berde hitzak darakutsan bezala, beraz frantsesek germanikoari mailegatu zuten Erdi Aroan blau, bloi eta gero bleu bilakatu dena, baina Erdi Aroan hain zuzen gorako ikusi ditugun hiru erran nahiak zeuzkan frantsesez «bleu» horrek, ileentzat bi kolore oso desberdin (zuri edo hori) eta begientzat (urdin).

Larresorok, Txillardegik *Hizkuntza eta pentsakera* saiakeran honela idatzi zuen:

«Badirudi beraz euskal kolore egitura zaharrean hitz batzuk daudela erdal (rojo+amarillo; rouge+jaune), kolore guneak betetzeko eta (verde+azul; vert+bleu) gunerako ez dagoela hitz bat baizik, urdin, hain zuzen» [op.cit. 32.or.].

Eratorkiak/

Urdinarre, urdinabar:gris, arre

Urdindu: zuri+beltz

: urdindu (zeru koloretu)

: mindu, usteldu (ik.mutxurdin)

Ur- (lat. *pedi-*) (*oin* hitz elkartuetan) Or- erroaren aldaera da. Erdal eskolek besterik irakatsi arte, *distantzia* esateko euskaldunek *urruntasun* zerabilten. Oinezkoak ziren eta oinarekin urratsekin urruntasuna neurtzen:

Urrats: oin abiatuz, hasiz egiten duen pausoa da

Urratsak: bidaiak

Distantziak bi aukera ditu

Aldamenean: *ur/urran/urren/ hüllan/urbil* (e.b. hurbil)

Aldamenetik at: *burrin/urru/ urruti* (e.b. urrun)

Hurbil izan behar lukeen jendea, laguna, protsimoa: *hurkoa* da

Jakina oinekin ez delako bakarrik ibiltzen, gauzak ere zapaltzen, oinekin *urizkitzen* da.

*Metaforak*

Pentsamenduan

Urratsa: ekintza baten lehen etapa

Ur ikusi: hurbiletik ikusi

Ur ipini: aldamenean jarri

Un (lat. *medullae*) (ik. muin, fuin).

Urlehortar (lat *amphibius*) Oraindik bizirik dirauten urlehortarren artean, ez dago animalia handirik, denak ere, nahiz arrautza asko erruten duten, galtzen dira, ezen lurrean bizitzen badira ere derrigorrez ur geldiak eta aski sanoak behar dituzte erruteko Igelek (*Rana sp.*); Frantziatik galtzen ari dira,

jende horik igeljale direlako eta *ubandre* (*Triturus sp.*), *arrubioak* (*Salamandra sp.*) eta *apoak* ere gutxitzen, lehen zituzten aintzirak, nekazari lur bilakatu direlako. Zer esanik ez *zuhaitz igela* Europa osoan desagertzen da.

Usu, uspel, ustel

Usu/pusu. (lat. *pus, materia*). Iparraldean (L. Nb.), zornea edo materia latinez bezala. Baliteke hitz hori *pusu* latinismo baten laburpena izatea, zeren gauza zikinen adierazteko euskarak sarritan maileguak darabiltza, hala nola *materia* “usu” hitzaren sinonimoa.

Uspel (usu+ bel). (lat. ? erromantzetan *pus*) Hau ere iparraldean (L. Nb.) *usu beltz* adierazteko da. Hegoaldean *ubel* esaten zaio. Aditz bat eman du *uspeldu*, kolpe baten ondotik jende bat eta metaforaz gauza bat mailatua izatea. Metaforaz edo, *uspel* ibar batean itzal aldetik dagoena da, laiotza da (zubereraz itzalherri).

Ustel (lat. *putridus*). Ekai organiko desegina. Euskara osoan, Zuberoan izan ezik (zubereraz *txüsto*), beraz haragi bat, landare bat, lur bat *usteldu* daiteke. Eratorriz, gaitz bati *sukar ustela* deritzo (tifoidea). Usteldura edo usteltasuna kutsakorra da, sagar batek besteak ustel ditzake, baina badira gauza eta jendeak *ustelgaitz*, edo *ustelezin* direnak, besteak aldiz *ustelkor*; azken sail horretan politika gizon asko sar genitzake eta zoritxarrez ez da ustekeria.

*Metaforak*

Psikologian

Iritzi ustela: alferrikakoa

Lagun ustela: lagun alferra

Polizia ustela

Uzki (lat. *anus*). Ekialdean laburtuz ipurdi eta uzki nahasi dira, nahiz azken hori *uzki matela* izan. Irritsak eta handinahikeriaz esaerak dio

*Tximinoa gora iganago*

*Eta uzkia ageriago.* (O.481)

Uzkie, sexuaren sinboloa da, esaerak dio, maite den ipurdia ezin dela gorrotatu:

*Uzki maite*

*Higunt e'laite* (O.474)

Bizioarena: *uskiñ* (B.), biziotsua

Eratorkiak:

Uzkimazela: *nates*, ipurdia

Uzkizilo, uzkizulo: *anus*

Uzterxe: *rectum*

Uzkorno: *sacrum*

Uzker. Gero latinezko *peditus, crepitus*, euskara osoan *uzker/uzkar, puzker/puzka*. –*ker* gaitzespeneko atzizkia (anker, ezker, oker, muker, saker eta beste). *Uzkerra* beti gaizki ikusia da eta *Refranes y Sentencias* delakoan batek dio euskara zaharkitu batean:

*Badaguic juatean ypirdia uzcarti* (Joaitean uzker egiten baduk ipurditik  
*Ceyan verba day eugayti* Merkatuan mintzatuko dira hiregatik)  
 Metaforak

*Psikologian*

*Uzkizilo:* haur ezinegon

*Uzkur:* atzerakoi, herabe (uzkiaren gainean jartzen dena) (uzkurka, uzkurki, uzkurkor, uzkurtasun eta beste hitz asko erabiliak.

*Teknologian*

Ontzi baten, tupina baten, zartagin baten uzkia (Iparraldean).

Uzter/uztar (lat. *tergum*). Abereen atzekaldeari deritzo, horregatik *uxtar/uxtarka* abereak atzealdea, ipurdia altxatzen duenean ematen duena da (gazt. dar coces, fr. ruer). *Usterin*, *uzterin* zaldiari atzeko aldean ipintzen zaiona da (gazt. *gruper*, fr. *croupière*); beharbada, *izter* en sailekoa, edo *uzkirena* gainera *uzter* “haragi biguna” da. *Uzki*, *buztan*, *uzter* hitz horien artean ez ote da erro berdina *-utz-*. anatomia hurbiltasunarekin lotua? (ik. *uzki*).

*Uzkur* (ik. *kiskur*). *Uzkur* hitza orokorra izanki *uzkurtu* esaten zaio laburtu eta batzuetan gogortu daitekeen ehunarengatik, hala nola *gibar uzkurdura* (contractio). Norbait uzkurtzen denean, kokorikoz jartzen da (agacharse).

## 7.19

### Z. batekin hasten diren hitzak

Zahar (lat. *vetulus*, *senex*, *senior*). Hitz orokorra daiteke baina fisiologiako eta osasunaz mintzo erabiliago. Adinez zahartzen delako. Eratorriak:

Jendea dela-eta: *Zaharberritu* (berriz gaztetu), *zaharrera/zaharmin* (gaitzarekin lotua), *zahartzaroan* batzuetan *zabar-etxe* batean sartzera behartzen zaituena. *Zabar-saria* (pentsioa) duela ehun urte ez zena, gaurko gazteen kezka handia bilakatu da. Iparraldean jendeez mintzo eta hitzaren eztizteko *xabar* diote.

*Metaforak edo?*

Gauzak direla-eta. Modak eta teknika berriek gauzak zahartzen dituzte, eta zaharkitua, hondakin bilakatzen: oraingo telefono mugikor eta magnetoskopia hemendik ehun urte *zabarkin* izango dira, *zabar saltzaileak* eta *zabarkinzaileak* izango dituzte.

Zahar guztia ez da txarra

*Ardo ona zabartzen da*

*Gazta zabarra hobetzen*

*Jan zabar zarenean jangale zarelako marka ona da.*

Zain (lat. *nervus*). *Giza eta animalien anatomian*. Mendebaldean zan. \*zani zaharrago batetik datorrela dirudi. Hitzak, *zail* (gogor) hitzarekin zerikusi zerbait du. Hizkuntza guztietan legez, euskara mintzatuan hiru gauza adierazten du



latinezko *nervus*, *tendinus* eta *vasus*. Iparraldean batik bat, *zain* hutsik, hegoaldeko nerbio adierazteko darabilgu, baita *vasus* adierazteko *odolzain*. Hegoaldean euskara osoa, ez aski ikertuz, Olabidek *kirio* “tuetano” dena esanguraz aldatu zuen. Bizkaiera *kiriotagino itoa* diotelako, gaztelaniazko kalkoz, Gonzalo Berceok *hasta los kiries* idatzi zuen. *Harto hasta los tuétanos* adierazteko. Euskara batuan *zain* “*vasus sanguineus*” bezala erabili behar omen da; edozelan ere, zehaztasun osoz bereizten dira *talkazainak* (arteriak) eta *zain beltzak* (benak).

1. Nervus. Iparraldeko *zain*=nerbio, horrek esaera asko eman ditu

Zainhart/zainbizi: bizia, bizkorra

Zainhil: apático

Zainak airean: nervioso

Zainak egina: nerbioek gainditua

2. Tendinus, adierarekin

*Jende zaintsua/zaintzaila/zainduna*: giharrak eta tendoiak agerian dituena.

*Zaintiratu/zainartatu/zainjauzi* oin eta zangoaren arteko lotura gerta daitekeen gaitz arruntena da. *Zainitzuli/zainbiburtuan* hezurra bere lekutik atera daiteke. Gaitz txikiagoa da *zaineldua* (zainkorpiloa, garranpa)

3. Landareen zainak (lat. *Radix*.) Edozein landare eta zuhaitzak barna, *zaindunak* dira; batzuetan lur azalean *zainarteak* badira eta oinez dabilena haieran traba daiteke.

#### Metaforak

Gezurak zainak labur

Gaitza zainetik atera behar da

Egoeraren zainak bilatu behar dira.

Zorionaren zainak

#### Zakar

1. (lat. *testa*). Zikatzean egiten den mail gogorra: *odol zakarra*, orbainetan

2. (lat. *crassa, limae, sordes*). *Begiko zakarrak*, *belarri zakarrak* ere.

#### Metaforak

Zakar: gauza edo jende gogor eta latza

Zakarrak: etxeko hondakinak zakartegietan biltzen direnak.

Zaki-, zakil organo luzea. Hitz zati bezala eratorriz *zakil* eman luke, *çaquil* (Landucci, 1562, 69.o.) eta *çaquilpotro* (1562, 83.o.); *zangil*: kirten edo makila luzea da. Hortik: *berna* “tibia”, *lepozaki* (garondoa), (lat. *mentula*). Pitoaren sinonimo hizkuntza “aski jasoan”. Baditu beste izen ugari, zubereraz, *zotza*, *ernal zotza*, *ernalziria*, *estal zotza*, *pitoa* eta hurrekin mintzo *pittilia* edo *billiletta*. Bizkaieraz Anton Erkorekak zerrenda txukuna eman zigun eta guk beste batzuk gaineratu [op.cit. FLV 3I 53.or.].

Antxoa (itsas bazterrean B.)  
 Arrain (Z.)  
 Banana  
 Berdel (itsas bazterrean B.)  
 Bitxitto, billilet (umeentzat)  
 Buztan  
 Kikill/kinkil (mutil artean)  
 Kilo  
 Kirten  
 Pinpilin, pittilin  
 Pitxa, pito (picha eta pito gaztelaniatik, baina Iparraldean ere)  
 Pottxotxa (N.)  
 Pistola, pistoleta (Z.)  
 Soso: gizonezkoek (B.)  
 Toleta (itsas bazterrean B.)  
 Txardina бүрү gorri (Z.)  
 Txitxilin: amek umeei (B.)  
 Txintxil (B.)  
 Txitxarro (G. B.)  
 Txintxila, txilibitu (G.)  
 Txistorra  
 Txori (euskal herri osoan, umeentzat batik bat)  
 Ziri (Z.) zinbel (N.)  
 Zotz, ernalzotz, estalzotz (Z.)

Zaldar/zuldar (lat. *furunculus*) Jendeen larruko gaitz txikia, *banditsua*, zornez betetzen dena. Horrelako gaitzak janari txarrak eta desorekatuak dakartzela hala nola gerrate garaian haurrei eta gaztei lepoan berriz etortzen zitzaizkienak. Oihenartek bere garaian ere horien berri zekien: *Ezta zabarra, duena zaldarra* (O. 596).

Zoritxarrez zaldarra ez da zaharrieriaren zaintzailea. Izen ugari ditu: *andutsu* (Ng. Erronkari), *andütsü, ütsü larrü* (Z.), *zirtoin* (Nb.), *kabano, mastar* (B.), *el-tur, ospel* (G.).

Zango/zanco (lat. *crus, sura*) L. Mitxelenak idatzi bezala *zango*, hanka baino zaharrago litzateke; mendebaldean hitz hori apur bat galdua bada ere, “txangoa” oinezko ibilaldia da eta *txango/zango*, museko karta. Nolanahi, bata zein bestea tabu batengatik gaztelania herrikoitik hartuak lirateke (ik. *zanca/zanco*).

Hitz horrek eratorriz eta elkartzuz eman ditu:

“malleolus”	zangokabil
“tibia”	zango makila
	zango kidal/ zango gidaila

“sura”	zango sagar
“collum pedis”	zango lepo
	zango mehaka
	zango bizkar

Zango itxura okertuak, makurtuak badira, batzuk *zangokakola*, belaunak barrura, besteak *zangozabal* edo *hetrepel* dira, belaunak kanpora. Esaerak dio: *Zangoak behar ditu xuxenak, makurren eskarniatzen ari denak* (O.532).

Gaztelaniazko “manco” hitzarekin gurutzatuz, *herrena* adierazteko binakoak:

Maingo (L.)	txango (B.)
Maingu (L. G. N. Z.)	txainkü (N. Z.)

Akats edo gaitz horrek izen asko ditu bestalde: mantxo, dingili-dangolo (B.) txainkuru (Ng.) txerren (B. G.) trinkirrin, trinkin (G.) anka okher, atzanka (Z.).

Erdi Aroan gaztelaniatik edo gaztelaniarekin batean beste iturri batetik honakoak baditugu:

Zancudo:	zankaluze, zangaluze
Zancada:	zankaldi, zangaldi
Zancadilla:	zangarte/zankarteko
Zanca:	txanka
Zancajo:	zankaztal

*Zangalatraba*, edo *istakolola/istapeka* edo *zankardoska* ibiltzea da norbait bizkarran eroatea bi zangoak alde banatan emanik. Gonzalo Berceo euskaldun zen herrian XIII. mendean erromantzez idatzi zuen:

«*Quisole el diablo çancaiada poner*» (“El clérigo embriagado” in *Milagros de Nuestra Señora*)

Joan Corominasek idatzi zuen

«*Tzanga*, latin herrikoietik oinetako mota bat adierazteko zen baina ziurrago “çac” arabiera “n” enfatikoa tartekaturri» [*Diccionario Etimológico de la Lengua Castellana*].

R. Martinen hiztegiak *zanca*: pierna de animal eta P. de Alcalak: «*crus para pedis inter genu et talus: zanca*». Jakina hitz horik ez dira latinetik heldu, gaztelaniak, eta euskarak gutxienik latin aurreko hizkuntza batetik hartu ditugu.

Patologian: Gehienik ikus daitekeena batik bat jende aurkako mina armekin *zango-motzak*.

#### Metonimiak

Hatzdunari *azkar* esaten zaion bezala, zangodunari, uzkur ez denari, *zangar*. Nafarroako erdara, *ascarro* eta *zangarro* daribilzkite.

#### Metaforak

Gauzak: altzarien zangoak  
: artoaren zangoak  
: aza zangoak

Gizartea: droga trafikoari *zangoak moztu* behar zaizkio  
: egitasmo horrek *ez du zangorik*

: ipar amerikarrek petroliodun herriak *zangopilatu* nahi dituzte.

Zarramiko, (lat. *vulnusculum, vibex, desquamata*). larruan zimikoak uzten ez duen orbaina utzi dezake, bereziki, sasiak, katuak edo lagunak azkazalekin *zarramikatu* bazaitu.

Zauri (lat. *vulnera*). Gorputz barrenean edo azalean gertatzen den urradura, sakia. Eratorriak

Zauriztatu: zauriz estali, bete

Zauritu/zaurtu; zauritze

Zaurtzaile, Zaurigarri

*Metaforak*

Gauzak zaurtu, kaltetu: izurriteak zaurtu uztak

: suaren zauriak Indonesian

Gogoa zaurtu, kaltetu: P. U.ren zerrikeriak zaurtu ninduen.

Zentzu, zentzumen

Hitz erabilienak ikusi dugun bezala ikusmena, entzumena, ukimena, das-tamena, usaimena dira, baina ordezekoak dituzte, *ikustea* (bista), *entzutea* (adit-zea), *ukitzea* (hunkitzea), *dastatzea* (gustu), *usnamena*.

Gehienetan sentipen horiek emaitza –pen atzizkiarekin aipatzen da: *ikus-pen* “visión”, *entzupena* “audición”, *ukipen* “contacto”, *dastapen* “sabor”.

Gero ekintzak –keta atzizkiarekin sortzen dira *ikusket*a “acto de visión” *ent-zuketa* “atención”, *ukiketa/ukitzea* “acto de tocar”, *dastaketa/dastatzea* “degusta-ción”, *usnaketa* “acto de olfatear”. Zentzuekin berriki sartu zaigu –tegi atziz-kia. Administrazio hiztegian sartu zaizkigu legezko *entzutegiak*, ekonomia eta estatistika *ikustegiak*. Gutxiago ezagunak dira *usnategiak* lurrinen eta usainen he-ziketa ematen dutenak eta *dastategiak* ere; badirudi ukitegirik ez dagoela nahiz masajea kategoria horretan sar litekeen.

Zikiratu (lat. *castrare*)

Antzina, gizonekin egiten bazen ere, orain aberekin bakarrik, baina hor Zuberoan behintzat bi teknikak bi hitzez bereizten dira, lehena osatzea da [*sic*] (lat. *integrare*) eta horretarako esperma hodia hausten da (hori zen egiten eunu-koei egiten zena), bigarrena zikiratzea (lat. *resecare*) barrabilen kentzea.

Zil, zilbor, zilborester (lat. *umbilicus*)

*Metaforaz*

Alderdiarekin lotzen zuen zilborra moztu zuen

Gure zilborrari begira gaude euskaldunok.

Zimel/zimail. (lat. *marcidus*). Gehienbat, fruta ihartuaz esaten da baina metaforaz jendeaz ere. Lehortua, mehatua denean: *mutil zimeldua*.

Zimiko/ Zimiska/atximuska (lat. *strictus*). Larrua bi atzen artean hartuz egiten zaion tinkadura. *Zimikatu* (lat. *vellicare*) Beste izenak: *atzamarkada*, *tximiz-ka/zimizk*, *piltxikada*, *tximuko* (G.), *tzimiko* (Z.), *Pipit* (Ng. G .B.), *koxx* (B.).

*Metaforak*

Hizkuntza askotan legez metaforaz,

*Bibotz zimiko: garbaia*

*Hotz zimiko: haize mebe batek larruan dagiana*

Zimur (lat. *ruga*). Jendeen larrua zahartzearekin, eguzkiarekin eta tabakoarekin kizkurtzen da zimurtzen da eta zimurrek larruan ildoak egiten. Gauzak ere zimurtu daitezke: oihalak, jantziak. Bi aldaera *txila*, *tzüümür* (Z.).

Zingilika, zingilaka. Haurrak, oin bat lurrean eta bestea airean ibiltzea da. Izen asko ditu. *Hatikonka- bakoko* (Nb.), *atso baldarka* (G.), *txingoka* (B. G.), *errenka*, *txankarrankan* (B.).

Zintz (lat. *mucus*. *Muki* (B. Ng. L.) latinismoak, Ekialdean darabilgun hitz zaharra, galarazi digu. Zintz hitzak aldaera du *zintzil* (Ng.). Beste hitzak dira *dilinda* (Ng.), *muskil* (B. G.). *Zintzatu* mukia zapiz kentzea da. Metaforaz esaten da, *zintzik* ez du: ez du ezer. *Zintzilikatu* hitzarekin zerbait ikusteko ote, hotz handietan eta zaharren sudurretik noiz nahi, dilindan, *zintzak dario?*

Zintzur (lat. *fauces*, *guttur*, *ingluvium*, *gurgulio*). Faringea, eztarria, agian in-txaur hitzaren sailekoa, edaten eta jaten, hots irensten laguntzen gaituena. Agerian duena *zintzur sagarra/gangarila/gorgoila* da. Barruan zintzur-zuloa. *Zintzurmina* da laringitis.

*Metonimiaz*

*Zintzur leun: ahoxuri, gozozale*

*Metaforaz*

*Zintzur-leun: lausengu egilea*

*Zintzur luze: sekretuak gordetzen ez dakiana.*

Zirritu (lat. *titillare*) Balakuz, laztanez “orgasmokia” zutiaraztea, purtzikatu ere esaten da.

Zisku. (lat. *vesicula*) Moltsa txikia esan nahi du eta besikula esateko erabilia da, batik bat behazuna ematen duena: *bebazun ziskua*

Zorne, zorna. (lat. *pus*). Min batean, handitsu batean mikrobioak ugartuz, nasaituz ateratzen den leka antzekoa da. Bizkaian eta Zuberoan bi muturretan *materia* deritzo, *bireka*, *birakarro*, *birapo*, *kain putxa* Bizkaian, *gatxantü*, *biro*, *txüsto*, *süihar* ere Zuberoan, *gaizkondü*, *gezal*, *pasmo*, *sendel*, *zil*, Gipuzkoan eta *usu*, *kinu*, Lapurdin eta Nafarroa Beherean.

Zauri bat zornatu daiteke, zornatsu geratu, baina *zorna belarrak*, baratzezainen etsaiak (*Senecio vulgaris*) delakoak senda dezake zornea.

Zoro/zoratu. (Lat. 1. *mirabundus*; 2. *insanus*, *mente alienatus*; 3. *nausea*) Hegoaldean indar handiko hitza zentzua erabat galdu duena, *zoratu* dena adierazteko. Iparraldean zoroa, zoroxka, *xoroa* apur bat nahasia da, eroska da eta benetan burua galdua duena *ero*. Eratorriak: *zorabio*, *zoragarri*, *zoraldi*, *zoramen*, *zoratzaille*.

Zoro I. *Zorakeria: erokeria, ertzokeria* (Z.)

*Zoramena/zorotasuna: eroaren gaitza*

Zoroaldi: eroaldi, ero builtak

Zoroetxe/zorotegi: eroetxe, ertzotegi

Oihenartek eman zigun:

*Zoroa da bere kaltetan*

*Argi bilba dabilena gauza ilbunetan* (0.439)

Zoro. 2. Iparraldeko erran nahitik hurbilago mirespenaren adierazteko

Ikusgarri zoragarria

Neska zoragarria

Zoro 3. Zorabiatu

Higitze handiegiak itsasoan zorabiatzaile dira

Zorabio, edo zorabialdiak, ibilgailu guztietan gerta daitezke,

bestela ere gaurko erremedio gogorrek zorabioak eman ditzakegute.

Zorri/txori (lat. *ganglio*) Adenitis:

Lepatxori/lepazorri

Izterzorri: izterreko adenitis

Garranga, garrangila, gargandila

(Kontuz! *txorilepo*, oihalaren ehutearekin agertzen diren korapilo txarrak, ere)

Zorro. (lat. *ventris obesitas*). Sabel handiari deritzo gehienetan, baina hori gantzagatik gerta daiteke, baina ernalkuntzatik ere eta azken zorro horretarik atera daitezke *ume zorrotak*.

Zozo/xoxo (lat. *cunnus*). Txoriaren izena da baita andereen sexuarena ere bai. Santa Graziko gizon zahar bati galdetu nionean, iruzkindu zidan “*zozoak bezala liima beti beltz betü*”.

Zulo/zilo (lat. *foramen*) Ez da bakarrik biologiazko hitza. Jatorriz ez daki-gu. Bere *Dictionarium linguae cantabrigae* horretan 1562. urtean *çulo* ematen du. Ez da erraz latinezko *culum* hitzetik ekartzea beti “c” gogorra eduki duelako azken horrek.

Eratorriak: Herri hizkeran, trakearen sarrera, adierazteko, *kontrako zulo*, *kontrazilo*, *okerreko zulo*, *okerreko sama* esaten zaio.

Bestalde *begizulo*/*begizilo*/*betzilo*; *belarri zulo*/*beharri zilo*; *ipurtzulo*/*ipurtzilo*; *kontrakozulo*/*kontrakoxilo*, *lepazulo*/*lepozilo*.

*Teknologian*

Zulapetu: lurra azpitik zulatu

Zulagailu: zulatzeko makina

Zulakaitz: egurra, harria, burdina lantzeko tresna.

Zulagailu: eskabadora

Zungu, txunku. *Unko/ungo* (zuhaitz zati) hitzaren aldaerak lirarteke. Zer-bait borobil adierazteko, Nafarroa Garaian *txunku*/*txungur*/*txongor*, Lapurdin *xungo* “ardiazpia” Aldiz, Bilboko hizketan *txuntxur*, “sakroa” da eta Lapurdin *zunkur*, hegaztien sakroa eta *besaingo* (ukondo), *besa* +*ungo* balitz?

Zuntz (lat. *fibra*). Batzuentzat, orbaina da. Lizarraga Nafarroa garaiko Elkanokoak XVII. mendean, honela idatzi zuen:

*Zaurien çuntzeak* “señales de heridas”

*Astaquizu ene llaça çuntzeak* «palpa mis cicatrices» [Juan Apecechea Perurena “*Programa de vida cristiana en una aldea de la zona de Pamplona*”, FLV 1979, 99. or.].

Euskara batuan

1. oihal eta landareen izpia

2. gihar edo nerbio izpia

Metaforaz. *zuntzik ez*: ezerez.

Zukurutz, uzkur (lat. *asper, contumax*). Bata, bestearen metatesia dirudi, erran nahi berdina duelako.

Zurda (lat. *juba*). Txerrien eta batik bat, zaldien bilo latzarentzat *zurda* deritzo. Zuntz hitzaren aldaera ala urde hitzarena, ala latinismoa? Euskara batuan batzuek *tendoi* esateko darabilte. Lehen *txederak* zaldi zurdaz egiten ziren.

Zurgatu. (lat. *sugere*) Hitz horrek, aspiratuz jatea edo edatea adierazi nahi du. (jakina tititik xurgatzea, edoskitzea da).

Zuri (lat. *album, candidum*). Ez da bakarrrik biologiazkoa nahiz eta dirudin *zur* hitzetik datorrela.

Euskaraz “rubio, blond” esateko erabiltzen da, baina orduan *buruzuria, ile horia* esaten da, *ile zuriarekin* ez nahasteko. *Larru zuria/larargia/larzurria*, “rubio” esateko ere erabiltzen da.

Zuringo (lat. *ovi albumen*). Zuri den organoari deritzo:

Begi zuringo: lat. *sclera*

Begiko zuri: lat. *cornea*

Zuringo: lat. *rectum*

Zurmio/txurmio (lat. *talaria*). Nafarroa garaian eta Lapurdin *zorkatila/txorkatila* adierazteko. Lehen osagaia *txur/zur*, hitz elkartuetako *oin* hitzaren aldaera da, bigarren osagai, *mio* mehe+ o litzateke.

Zurbil/zurpail.(lat. *pallidus, exsanguis, decolor*). Hitz hori, gehienbat, osasun gutxiz kolore zurikoarengatik diogu, baita zirrara, harridura bizi batengatik zuritzen, *zurbiltzen* (margultzen/ zuhaitzen) denaren aipatzeko.

Zurrun(lat. *cadaver rigidus*). “gorpu” zurrun hitzak gogortua esan nahi du, baina Ekialdeko euskalkietan hilaren esangura du:

Zurrundu: hil eta gogortu

Zurrunbide: hilak eroateko bidea

Zurruntasun: gorputza gogortu izatea.

Zurupatu/hurupatu (lat. *sorbillare*). Likido baten xurgatzea da. Edan eta jan adierazteko Iparraldean: *hurup eta klik* darabilte, jakin gabe gaskonismo ederrak direla denak.

Zutitu (lat. *rigescere*). Batik bat, zakilarekin baina klitoriarekin ere gertatzen den odol handitzearekin. *Zutitzea* da (mentula surgere), *armatze* (*armatum ire*).

#### Laburzki

Z- dun hitzetan badaude “z” beste hitz baten apaindura gaineratzen dutenak hala ditugu

Zorkatil/orkatil

Zintzur/ intzaur/intxaur

Zango/anka

Xungu/unku

Zukurutz/uzkur

Aldaera horik gabe gelditzen dira, zain, zauri, zil/zilbor, zimiko, zoro, zorri, zorro, zozo, zuntz, zurda, zurrun.





## VIII

## JENDEEN ETA GAUZEN ITXURAK

## Gaizki gorpuztuak

- Argal: indar gutxikoa, indarge
- Kankailu: handi izan arren mehea
- Kaskar: txiki eta argal
- Laburkote: txiki eta lodi
- Makal: osasun gutxikoa, indar gutxiko gauza
- Makets/markets: itxura gabetua
- Makur: batez ere bizkar makur
- Mehats, mehar: meheegi, jendea edo gauza
- Motz: txiki baina itsusi eta gaizto ere
- Oker: betoker, bizkar-okker, zangoker, horma-okker
- Txikar: txikiegi

## Aski ongi gorpuztua

- Koskor: txiki baina indartsu
- Potxolo: txiki eta gizenska

## Ongi gorpuztua

- Gordin: indartsua
- Gotor: jende edo leku indartsua (gotorleku)
- Morrosko: gihartsu
- Mardul gihartsu handiegi izan gabe
- Sendo: gotor, mardul, gordin

Hiztegi honen sailkapena hasierako oinarrizko hizkiaren arabera eta hiztegi orokorrekin berdintzea

Lhanderen hiztegia	Gure bizi hiztegian
% 23, s, z, ts, tz, tx.	53 hitz
% 18 e	46
% 10 a	42
% 10 b	40
% 9, j eta i	32 j+i
% 7,5 g eta h bakoitzak	28 g 16 h
% 6 k eta l bakoitzak	21 k. 22 l
%5. o eta m bakoitzak	18o. 15. m
%3 u eta ü bakoitzak eta abar...	12 u/ü.

Beren lekua dute Lhanderen hiztegian, garbizale edo izanki egileak, gutxi diren p hasieradun hitzak, gure bilketan: 18

Badira halaz ere, erro batzuk besteak baino emankorrago

1. b- klase osagaia, hirugarren pertsonako izenorde *bera* eta izenlagun *bere*, gero *bizi*, *bibotz*, *buru*, *belarri* eta beste anitzen emaila.

2. a- hasierakoak, *abo* hitzarengatik, eta ar-erroarengatik

3. i- hasieradunak, gehienak gerrikoaren azpitikako zatien izendatzeko (*izter*, *ipurdi*)

4. e- batez ere *er-ezt-* sailekoak (*esku eztarri*, (*b)este*).

5. z- zil/zin- (*ziri*, *zil*, *zintzur*, *zintzil*).

Hitz sarrerak sartu ditut, naiz ez diren denak garrantzizkoak: 338 dira. Azpisarrerak asko dira, baina ez ditut inondik ere denak bildu. Hizkuntzaren eskema itxura zerbait erakusteko emango ditut

Buru: 17 eratorri, 53 metonimia, 89 metafora =159 azpisarrera

Esku: 31 eratorri, 27metonimia gutxienik, metaforak 63. gutxienik =121 azpisarrera

Begi 28 eratorri, 34 metonimia, 50 metafora =112 azpisarrera

Bihotz 8 eratorri, 50 metonimia, 17 metafora =73 azpisarrera

Beso 7 eratorri 25 metonimia, 20 metafora=52 azpisarrera

Aho: 10 eratorri,19 metonimia, 14 metafora = 43 azpisarrera

Bizi 7 eratorri, 3 metonimia 25 metafora =35 azpisarrera

Oin 14 eratorri, 10 metonimia, 9 metafora)= 33 azpisarrera

Odol: 12 eratorri, 9 metonimia, 9 metafora=30 azpisarrera

Zango edo hanka: 15eratorri, 4 metonimia, 6 metafora =25 azpisarrera

Hatz/atz 7 eratorri, 15 metonimia, metafora bat= 23 azpisarrera

Erhi 16 eratorri, 2 metonimiaa, metafora 1= 19 azpisarrera

J. M. Etxeberriak eta J. A. Mujikak beren *Maiztasun eta prestutasun azterketa* liburuan 1987. urtean Prestutasunean, zeuden: *belarri*, *begi*, *bibotz*, *sudur*, *mibi*, *ile*, *beso esku*, *buru*, *sabel*, *bular*.

Maiztasunean: *gaitz*, *ikusi*, *bizi*, *hil*, *jan*, *buru*, *jaio*, *esku*, *begiratu*, *lo egin*, *negar egin*, *abo*, *nerbio*, *edan*, *bihotz*, *banka*, *beso*, *gose*, *ipurdi*, *aurpegi*, *belaun*, *bizkar*, *belarri*, *odol*, *beste*, *gibel*, *izerdi*, *oin*, *itsu*, *giltzurrun*.

Hemen inzialek ez dute agintzen (b- dunak izan ezik) erran nahiak baizik eta lau zapabost balore nagusi daude eskua (lana, antza, legea), burua (gogoa), ahoa (hizkuntza eta jan-edana), begia (ezagutza), bihotza (sentimenduak).

Azken emaitza horiekin burmuin *kortexeko* zentzu eta motore zentzuen banaketa estaltzen du, beraz biologilarien “homunculus” delakoa, estaltzen du hizkuntzalariaren homunculusa (ik. irudia).

### Zoologiatik jendeetaz izenlagunak

«Animaliak ez dira gure bizi ibiltari eta gure bertuteen irudiak baizik; gure begien aurrean gure arimen fantasma ikusgarriak» [V. Hugo *Les Misérables*, 1862, 201-202.or.].

Gaitzizen eta metafora iturri ditugu patadunak; batzuetan, gure metaforak gaztelaniatik hurbiltzen dira, baina oso gutxitan frantsesari

1. gamelu, euskaraz: salatari; frantsesez: gaiztoa
2. gau ainara, saguxarra: euskaraz maitasun mezulari, hil behar ez dena; frantsesez: zoritxarrezko eta hil beharra
3. zakur, euskaraz: polizia; frantsesez menpeko, nortasun gabeko
4. urde, zerri, euskaraz gaiztoa; frantsesez: zikina bakarrik
5. hontz, mozolo, euskaraz: tontoa; frantsesez: atsoa, agurea
6. otso, euskaraz: mugazain; frantsesez: gaiztoa, neska bortxatzailea
7. zikiro, euskaraz: zekena; frantsesez: salatari
8. mando, euskaraz andre lodi eta zainhila; frantsesez eta Benafarroan: burugogorra
9. okil, euskaraz lasaiegia, kemenik gabekoa; frantsesez: ezereza, ezdeusa
10. ahardi, euskaraz gizon edo andre gizenegia; frantsesez andre zikina
11. behi, euskaraz: andre gizenegia; frantsesez: gaiztoa.

Astoki, europar garen puntuan, guk ere abere argi eta bere buruaz jabe den horri diogun erdeinuan, asto, *astapito*, *astakilo*, *astaina* hitzak erabiltzen ditugu. Olerkariaren iritziak gehienon aburuak baino gehiago balio du:

#### Otoitza

Barkatu

Karkar, musker, saguxar

Bele, har izai, zikiro, xarmagarriak

Barka nazazute

Zuen izenak erabiltzean

Halako laidoz bete zaituztedalako

Adardunak nola idi

Apo akarrak

Emar eta arreme bitxiak oro;

Kakak

Horretaz “zerk bultzatu nauana”

Inork egitekotan

Zuek konprenituko duzutelakoan nago.

Josean Artz

#### Botanikatik jendeetaz hitz egiteko esaerak eta izenlagunak

*Gure Herria* aldizkarian P. Larzabalek, 1975. urtean 169.or. zerrenda bikaina ekarri zigun; hori gehitu ditugu beste batzuk euskaldunen humorea zein den erakusteko. Lehenik baratze eta alorretakoak ikus ditzagun:

Arto                      Artobero usaina: espantu egile, aho handi

Gizon arto puska: gizon ona

	Gizon arto burua gizon goxoa Gizon arto lilia: gizon goxoa Jende arto bihia: jende ona
Arrosa	Bere arrosan dago: pozik dago
Aza	Aza emaille: aspergarri Aza burua: Aza lilia: Aza zango luzea: jende meharra Beharri ziloan aza: belarri zakarrak eduki Zoazi aza landatzera: zoaz antzara perratzera
Baba	Baba ateratzaile: irabazle Babazorro: arabarrak Baratxuri, berakatz Baratxuriaren usain sarkorra, zuritiesuna eta barneko trin kotasunarengatik honela erabiltzen da Baratxuri bezain fina: oso fina Baratxuri bezain zuria: aurpegiaz Baratxuria baino zindoago: zuzenean hitz egiten dakianaz Baratxuri buru Baratxuri buztan: jende iharra Baratxuri xixtor: jende aldakorra
Kuia	Kuiaburu: buruhandi Kuia lili: eder eta usaindun
Lasto	Lasto su, laster su: berotzen eta berehalaxe hozten den karakterra Lastoa bezain idorra Lastoa bezala izitu: asko izutu Ipurdia lasto du: lotsatia da Lastozko gizona: ezereza Lastoa bezain zimela: zaharrez
Mizpira	Mizpira bezain begitsu: begi luze, jakingosea Mizpira bezain ustela

- Orri/hosto  
Hosto luma bezain arin
- Patata  
Patata: bihotza
- Gero mailaka gaitzespenezko erranairak geroago eta gogorragoak ditugu:  
Patata buru  
Patata buztanduna (ernatu patata)  
Patata ustela
- Beste bi patata erranaira bereziak baditugu  
Patataz ase: lodiegia, gizenegia, zorro handia  
Eta patata frijituak: agintzen duenean batetik bestera jauzi saltoka dabilena
- Perrexil  
Perrexil: jende fina  
Perrexil eta txarpot: pertsona xuhurra, aurrezlea, aurrezki egilea
- Piko/piku  
Piko adarra bezain ustel: ezin fidatuzko jendea  
Piko merlatu: piko pasa “jende mehea”  
Pikutara bidali/ igorri: antzera perratzera bidali  
Pikutara joan: porrot egin, erreka jo
- Piper  
Piper egin: eskolara ez joan  
Piperra jan: izorra izan  
Pipermin: gorrotozale, gaiztoa (iparraldeko idazle batek zerabilen estal izena)
- Porru  
Porru buztana: zahar larru jozale (burua zuri, buztana berde)  
Porru salda: doinu askotako musika zatia
- Sagar  
Neska sagar pipita: neska “emaztetua”  
Pitar sagar: ezereza, ez deusa
- Tipula (kipula) Gaitzespenezkoa da, mailaka geroago eta gogorrago:  
Tipula: astoa, zozoa, tontoa  
Ttipul: kipula txiki  
Tipula buru  
Tipula buztan  
Tipul ustel

Bigarrenik basoko landareekin egin metaforak eta esaerak ikus ditzagun

Anbulu/ambula: asfodela, edo buru handi

Asun/ osin: desgradablea, ezatsegina

Azeri buztan:prela eta pisu gabekoa

Baxaran: fruta eta neska beltxaran polita

Belarra suko belar: errea, haserrekorra; Infernuko belar: gaiztoa

Egur

Jende egurra: lehorra

Egurra eman: jipoitu, zurratu, astindu, jo

Egur ginarre: gihartsua

Egurra hartu: zafraldia, jipoialdia hartu

Egur enborra: jende gotorra

Egur xitapurketari-xixuketari: xehekerietan galtzen dena

(frantsesezko chichiteuse, parodiatuz)

Ezpela: ezpela bezain idorra

Gerezi: gerezi buztan, txikarra

Julufrai, andere julufraia, andre loreontzi hutsa

Laparra: sasia eta laparra bezala lotzen, zuri lotzen zaizun aspergarria

Lore/lili

Lore-lore: neska oso polita

Neska lili: polita baina ez oso argia

Gazte lore: aurpegiko lehen bizarra

Asto lili: gizon eder eta ez oso argia

Gazterik lilitua: gazterik emaztetua

Lehen loreak: lehen odolak

Lilittoak: prostitutak

Martxuka/masusa: martxuka bezain mardula; martxuka jale: gutxi jale

Mimosa: andere mimosa, eder baina ez oso argia

Onddo (ontto). Onddo beltza bezain fina,

Andere onddo papuna (onddo handia)

Sasi

Sasi gizon: ezkutuko gerrilari: sasi gizon egilea

Sasi gudari

Sasikume: sasiko, ezkerreko haur, bort, bastardo

Sasi albaitero, sasi sendagile: eskola gabeko albaitari eta mediku herrikoiak

Sasi asmoak: asmo faltsuak

Zaparrak/kaparrak/sastrakak/ laharrak

Zaparren erretzea: (alegia sasiak erertzea)aitortzea

Zumea zumea bezain bigun eta malgu

Zurtxuria: zurtxuria bezain luzea, oso handia.

Hemen, herriaren irudimenezko lore batzuk eskaini dizkizuegu eta Euskararen Atlasak askoz gehiago erakutsiko digu, baita Gotzon Garatek egin bilketak ere.

### **BIOLOGIAREN HITZAK TEKNIKA BATZUETAN: burdin lanean**

Jose Maria Satrustegi zenak FLV 2 1959.urtean argitaratu zuen “Libro de cuentas de un herrero de Valcarlos“ eta tresneriaren izena oso jakingarria da

1. ago (aho)

aizkora agoberritu

bi agotako yorraia

iru aizur ago yoric

bi agotako aizkora

Beraz aitzurrak aizkorak eta jorraiak ahoa dute.

2. aztal “takoi”

tailu aztala: sega takoia

3. begi

yorrai bat beguiberrituric

nabarra beguitic hausirik

ayoz bat beguiberrituric

Beraz aihotzak, jorraiak zurezko kirtenaren sartzeko zuloa edo begia dute eta nabarrak goldean lotzeko.

4. Buru

Padera buruberrituric: zartagina buru berriturik

Matxarroa buruberrituric: parrilla buru berriturik

5. Mihi (mingain)

Zincha mihi: arran txikiaren mihia

Iru chincha mii

Marrusketa mii berritu

6. mutur

nax muturreko: ardatz muturreko

nabar muturreko burdina

7. ortz

sega ortzac: zerra hortzak

8. zango

matxarroa zango berritu: parrilla zango berritu



Hemen ez agertu arren aizkorak eta martiluak *bizkarra* badute eta mozten duten tresna guztiek *aboa* daukate. Goldenabarrak *sudurra* du. Areak *hortzak*.

Gero tresneriatik ontzietara joanaz ontziek badituzte, *aboa*, *begiak*, *belarriak* edo *eskuak*, *burua*, *ipurdia* *lepoa*, *batzuek* *oinak*.

Lege hiztegian

Adarrak(arbaso), lanbide adarrak,

Aho: aholku, aholkulari, Albo: alboko. Zulo: atxilotu. Atz: azkantzatu, askatu.

Bizi alargun, biziarau, bizikide, bizi lagun, bizibide, biziterri

Epailleburu azkenburuko (hilburuko)

Entzutegi, eskualde, esku arrantza, eskugabe, eskubidegabe

Eskudun (eskubidedun) esku diru, eskuera, eskuko, eskuorde, eskurantza, eskuz aldatu, eskuratu. Eskabide, eskaera, gizalege, herio agiri, jaiotz agiri, odolaren sari, oinaze sari. Eta besterik.

Psikologia hiztegiaren biltzen ez gara sartzen, aski aberatsa delako, horretarako kronika bereziak badira hitz bakoitzean beharra denean.

## IX

### EUSKALKIAK

#### 9.1

#### Arabako eta Bizkaiko gaztelanian euskararen hondarrak

Euskararen hizkuntza atlasa osorik agertuko denean, nik emango dudan ikerketa motz irudi duke, baina ekarri nahi dudana alde batetik diakronian hartu osagaiak, hala nola nire aurretik aski erdaldundu hirian bildu euskara (Bilbo, *Arriagarena*), hala nola euskaldun hiri batean izanen da (Eibarren, Toribio Etxeberriarena). Bestalde galdu zen Erronkariko euskara mota, Zuberoan bizi denarekin (Santa Grazin egin dudana) berdinduko dugu, hala erdialdeko euskalki ezagunetarik baztertuz, ekialdeko eta Mendebaldeko ekarpenak ikusiz.

Bilboko hizkuntza mistoa

Erabiliko dudan iturria Emiliano Arriagaren *Lexicon bilbaíno*, Minotauro, Madrid, 1960. urtekoa da eta Bilboko erdararen erabili euskal hitzak dakartza.

*Anatomian*

Ankarika “txerri hanka” (20.or.)

Barasarri “peritoneo” (30.or.) Arriagak uste zuen *zarri bare* hitzaren metatesia zela, baina beste euskalkiak aztertuz, *bare+ sare* da. Betagin “begiko hagin” (35.or.) euskaraz edonon erabilia.

Kolko “golko” euskaraz non nahi.

Kontrakosulo (51.or.) “aho gingila” euskaraz non nahi.

Eperdi “ipurdi” hitzaren aldaera bizkaieraz (98.or.)

Etxurabako “itxuragabeko” (106.or.) Bizkaiko aldaera

Giar “gihar” (109.or.) euskaraz non nahi erabilia den hitzaren aldaera

Makal “ahul”, (120.or.) bizkaieraz eta gipuzkeraz hitz arrunta.

Meko “meheko” (123.or.) Bizkaiko aldaera bat.

Mirriski “argal” (125.or.) (G. B.)

Morrosko (127.or.) euskara osoan ezaguna

Mustur “mutur” (128.or.) aldaera.

Narru “larru” (129.or.) bizkaierazko aldaera.

Okotx, “kokots, bidar” bizkaierazko aldaera

Orpo (131.or.) (G. B. L.)

Papo “mazela” (134.or.) Beste euskalkietan sternum.

Pitilin “mutikoaren pito, zakil txikia”, (140.or.) euskara osoan ezaguna.

Potxolo (141.or.) euskara osoan ezaguna.

Titi “bular, ugatz” (169.or.) euskara osoan ezaguna

Tripa “sabel” (172.or.) euskara osoan ezaguna.

Txango “maingu, herren” (68.or.) cf Ekialdeko euskaran “txainkü”.

Txitxi “haragi” (71.or.) euskara osoan ezaguna. Gatuen deitzeko erabilia, hurrekin erabilia, baita *txitxi eder* edo *tzitzi* morrosko bati esatea Ekialdean.

Txuntzur “coccyx” (87.or.) Hitz bitxia, beste esangura bategaz, ekialdeko *tzüntzür* eta non nahiko *zintzur* (eztarri) oroitzen duena. Arriagak etimologia jakingarria eskaintzen du, bientzat balio dena, “intxaur.”

Uzkoi/zuringo “rectum”(174.or.) *Uzkoi* Ekialdean ere, *uzterxe* Lapurdin

Anatomia hiztegiaren egonkortasuna eta gisa bateko batasuna ikusten dugu *uzkoi*, *suringo* eta *txuntzur* izan ezik beste hogeita hiruak, aldaera gorabehera, Euskal Herri osokoak dira. Bestalde *dar el titi al sentxe* eta *txitxi* hitzen erabilera, baita *no grites tanto que te va a salir el uscoy* bezalakoak, Bilbon baserritik *senzai* delakoen ekartzetik letorke, halaber, gauza zikinen izendatzeko euskara zerabilten Bilboko erdaldunek: haurren buruan egiten den *sabeloi* delakoa, eta *surru* “sudurreko zintza” dela-eta.

*Anatomiatik hitzelkartuak*

*Begi:* Begizko “jetattura”, (34.or.) Ia euskara osoan erabilia.

Begitxindor (34.or.) hitz oso zabaldua.

*Bibotz* Biotxerre (40.or.) hor ere hizkuntza askotan bezala urdaileko mina bihotzari egozte.

*Buru* Txori buru (86.or.) euskara osoan ezaguna.

Anka: Ankarpe (20.or.) palankari hiztegiko hitza (Zuberoan zankarteka)

Jakina, Iñaki Gamindek egin berri duen Bilbon, Begoñako eta Indautxu-ko euskararen bilketan horrelakoak aurkitu ditu, bizirik. Nire bilketa horrekin anatomia hiztegia oinarritzkoa eta zaharra dela erakutsi nahi nuke.

### Arabako gaztelanian

Bi iturri erabili ditugu biak Gerardo Lz de Guerenun idazkiak: “Voces alavesas” in *Euskera III*, Bilbo, 1958 174-376.or. eta “Más voces alavesas” in *Euskera XVIII* 119-149

Alma, bular hezur (ik. almeka) (Lagran III 183.or.)

Azpi azpizuri, sabel txuriko ahuntza (Murgia XVII. 122.or.)

Andi/aundi *Juanandi* (Kontrasta, III. 180.or.)

Anka, *anca*, txerriarena, eta lagunekin jendearena (Apellaniz III. 186.or.)

Arpa, hiru hortzetako sardea (Apellaniz 1774. urtean III, 191.or.)

Arpiadura ezpaltxo, karrakakina (Libro de fábrica de Moreda, condiciones de dorado del altar III.189I.or.)

Baldar, lanean nekatua Gasteiz III.198.or.) gaztelaniak euskara osoari emana, hemen euskaraz ematen zaion adieraziarekin.

Baldorra, sabel handia, zorro handia (Kontrasta III. 198.or.)

Ballartea I. jende edo abere handi eta mantsoegia (Laminoria III. 198.or.)

2. *baiarte*, harriak edo simaurrak garraiatzekoa (Lagran, Kontrasta III, 198.or.)

Baltz. Arabako mendietan *Baltsa* beltzaranari ( III 367.or.) *Buzubals* (musubaltz), *Juanbelz* (Kontrasta, 1800 III. 367.or.)

Begi. Que *begui* tienes (Araia, XVIII.123.or.)

Begitina, *begitina*, abarketan korden igarotzeko begiak (Agurain III. 205.or.). Hitz arruntagoa non nahi *beguite*.

Begitxindor, *beguichindor* (Lezama, Zuia, XVIII. 125.or.)

Begiluze, *biguiluz*, dena jakin nahiz dabilena (Kontrasta cf. *Lexicón bilbaino*) *biguilucear* jakinguraz ibili (Kontrasta, III. 205.or.)

Belauko, *belauco* hesi batean, harresi batean, jendea igaro dadin utzi lekua. (Zuia III. 202.or.) *belaute* harresi batean hiru harriz egin jendeen pasaia (Barrundia, III. 202.or.)

Bizkar *bizcar* txerriaren bizkar hezurra (Lagran, Kontrasta, Apellaniz eta abar.) Jendeez trufatzeko (Kontrasta III. 206.or.)

Bizkarro, *bizcarro* Mendi bizkarra “más adelante hacia Navarra por el bizcarro abajo“

(Larraona Kontrasta III. 206.or.)

Bizkarrazur, *biscarrazul* “txerriaren bizkar hezurra” (Apellaniz XVIII 125.or.)

Buru

*Mandaburu* „mendi belar latza (Murua III. 208.or.)

*Mendaburu*: *mendaburu* besterik ezean elurte handietan abereek jaten dute eta eritzen (Kontrasta, III. 284.or.)

*Zapalburu* igelkumea

*Sapalburu* Aspurungo jendeak III. 365.or.)

*Zapalburu* (Zalduondo, XVIII. 127.or.)

*Zanpaburu* (Araia XVIII. 127.or.)

*Zanpaburro* (Andoin, Araia eta abar III 338.or.) Hemen burua asto espainol bilakatu da.

*Zaranbul* (Apellaniz, 338.or.)

Burrufa, burrufiar (Kontrasta, 21.or.). Zezenek eta txerriek beren haserrea adierazteko kurrunka. Zubereraz *bürfada*, eta *büriüfatzen* hitzak eman ote ditu? Beharbada, hitz hori nafar erromantzea erabiltzen delako. Arabak eta Zuberoak mailegatu lukete eta zuberotarrek euskaldun itxura eman.

Buruzai “zinegin mendizainak, igurainak” “y dos jurados que se llaman según el idioma vascongado *buruzai*, cuiu nombramiento se ha de hazer en los recién casados (Mendi araua, 1749, Kontrasta, 211.or.) *burruzai* “guztien morroia” (Agurain zaharkitua, 211.or.) cf. buruzagi.

Buzu, *buzubals* hitzean (Kontrasta 1800, 367.or.) muzu hitzaren disimilatazea.

Burzea, *burcear* Buruapal dabilena “Fulano va burceando como los bueyes (Guardia, III. 211.or.), euskarazko *burzebar* (buru+ zehar).

Burzako, *burzaco*, adarra lotzen zen guneko zotz ondarra (Kontrasta, III. 198.or.)

Eskuta, *escutas*, gari eskubeteak azao egiteko (Araba eta euskara osoan III. 253.or.)

Eskuila, *esculla*, janari batekin ateratako neurria (Lagaran III, 254.or.) gaztelaniazko *escudilla* hitzetik euskaldun askoren = bokal arteko “b” ren erorketarekin.

Estagorri (Kontrasta III. 255.or.) Euskal Herri osoan, han hor, erabilia. Gara, aldaka, (Zikuxano III. 261.or.) cf mendebaldeko *gara*. *Garifo*, pelo garifo “ile edo bilo latz eta zuta” cf. gastelaniazko *garfio* “kako”.

Iztermin, *iztermina*, oin aztaparrak hanturik hiltzen diren abereen gaitza“ (Lezama XVIII. 128.or.)

Kakur, *cacurra*, haur txikia garatu gabea, erkina (denetan III, 212.or.) eta kakurra (haritzaren ziria edo ezkurra).

Kadena, *cadena*, abere plazenta, (Kontrasta III, 213.or.) cf. karena/kadena, latinetik mailegatua.

Kaskarreko, *cascarreco*, buruan hartu ukaldia (Araia, XVIII. 126.or.)

Kaskon, *cascon* pertsona zaila, osasunezkoa (Kontrasta III. 213.or.) ik. *kasko*, *koskor*, ogi gogor.

Kaskurri, *cascurri*, ardi altxirri edo erbi gorotz, (Araba osoan) Apellanizen garatu gabeko haurra (III. 348.or.).

Kokote, *cocote*, mendi kaskoa, “en el cocote y alto de Laserna” Bujandako mugan ((III. 186.or.) Gaztelaniazko, cogote, euskaldundua?

Kokotx, *cococha*, burua. (Zuia XVIII 127.or.) burua eta ez kokotsa, baita zubereraz bezala ogi edo sagar hondakin gogorra.

Kolko, *colco*, urdaila. (Zuia, XVIII, 120.or.).

Koska, *cosca*, buru gogor. (Zuia III. 186.or.) Iparraldean ere horretarako erabilia.

Koskor, *coscojo*, pagatxa, pago txikia (Lagran III. 186.or.) cf. koskoil L. “haritz txikia” eta gaztelaniazko *coscojo* “ametza”.

Krisma, *crisma*, burua, gazt. Crisma (Lagran 128.or.)

Lepo, *alepo*, “llevar en brazos, levantada alguna cosa, pegante al cuello” (Zuia, XVIII. 120.or.).

- Lotsagarri, *lozagarri* “*Heracleum sphondyllum* L.” (Kontrasta, III. 123.or.)  
 Makalo, *macalo*, makala, Araia, XVIII. 138.or.)  
 Mami, frutaren barrua, (Araia, XVIII. 138.or.)  
 Meko, *meco*, urguri, delikatu (Kontrasta III. 283.or.)  
 Meke, *meque*, luze (Gasteiz III. 284.or.)  
 Mintze, *mince*, *miche*, I. “gari alearen inguruko azala” (Kontrasta III. 285.or.)  
 2.minse “apurrak, hondakinak” “ocho reales por una porcion de los *minses* de las parvas del Concejo” Kontrastako kontseilu liburua, 1784. III. 285.or.)  
 Mirri, argala, ahula, (Leortza III. 286.or.)  
 Mirri-marra, ahoa beterik eta haginkada ederrez jatea  
 Mokar, *mocarra* “haur argala” (Apellaniz, III. 286.or.) *mocarrete* “haur txiki” (Maeztu III. 286.or.)  
 Morrosko, *morrosco*, gizon sendo eta gotorra, morroskoa (Lagran III. 289.or.) Iparraldean ere erabilia.  
 Motxete, *mochete*, “ile labur edo ilebakanduna (Gasteiz III. 87.or.) cf. gazt. mocho?  
 Motxo, *mocho*, motx, I. galbarra, ilegabea (Gasteiz III. 287.or.) 2. jende txikia (Antoniana III. 287.or.)  
 Ñako, ñaka, handitzen eta txiki gelditzen den haurra (Lagran III. 292.or.)  
 Motxorro, *mochorro*, abere edo jende txikia, motxorra (Mioma III. 287.or.)  
 Okotx, *ococh*, okotsa (Kontrasta III. 293.or.)  
 Potolo, *potolo*, (Lagran III, 306.or.) eta euskara osoan  
 Putxika, *puchica*, txerri puxiga (Kontrasta III. 307.or.) (J. B. Gamizek XVIII.mendean *bochincha* ematen du mendebaldeko itxuran)  
 Tripoki, *tripoqui*, txerri urdailki (Barrundia, III. 330.or.)  
 Tripote, txerri urdaila, (Okariz XVIII. 147.or.)  
 Tripaundia, *tripaundia*, jale handia (Lagran, III. 330.or.)  
 Tripontzio, *triponcio*, tripontzi (Lagran III 331.or.)  
 Txima, *chima*, buru, (Gasteiz III, 240.or.) cf. Txima bizkaieraz buruko ile luzea. Eta gazt. crisma  
 Txipi, *chipi*, Ekialdeko eta bizkaiera zaharreko itxurapean.  
 Unaichipi «behizain» unaichipi «en casa de Juan Martinez»  
 Urdazaychipi «el urdazaychipi quedo en casa» (Aaturiko kontratu liburua, 1661, III. 333.or.)  
 Txomorro, *chomorro*, gizon txiki, (Leortza, III. 225.or.) zommoro (leku askotan)  
 Zabal, *zapochabal*, apoa (Arluzea, 337.or.) (Ribera 338.or.) ik. zapalburu  
 Zil, *cil*, I. “zila”  
 I.Apellaniz, Gasteiz, III. 225.or.) (Sojo III. 225.or.)

2. “aldaka, landare begia” (lehortza, III. *Ibidem*)
3. “madari koskorra” (Laminoria, III. *Ibidem*)
4. “haritz ezkurra” (Lagran III. 225.or.) ik. Erronkarieraz eta zubereraz *ziri*

Zilba, *cilba*, sabela: «llenar la panza o cilba (Zuia, XVIII. 127.or.)

Zirri, *cirri*,

1. “zirria, kakeria” (Kontrasta III. 226.or.)
2. ardien “gorotza zirina, altxirina” (Lagran III. 226.or.)

Zirriburi, *cirriburi*, zirriburu, jende meharra (Araia, XVIII. 127.or.)

Zirri-zirri, sabel arin, (Araia, XVIII. 127.or.)

Zuri I.”ile, larru horikoa”

*Juan zuri* (Kontrasta III. 367.or.)

*Peru suri* (Ulibarri Gamboa, 1760. III, 367.or.)

*Azpizuri* sabel txurizko ahuntza (Murgia XVIII. 122.or.)

Zerrenda honetan, euskararen hondar horietan, bi ohar nagusi euskararen prestigio galtzeaz anatomiazko hitzak txerriekin erabiltzen dira, baina gaitzespeneko hitzak ere euskaraz gordetzen Halaz ere, hitz jakingarriak badira eta gehienetan mendebaldeko euskara badirudi, batzuetan erdialdeko kutsua eta ekialdean gorde diren hitzak agertzen zaizkigu. Bestalde, askotan, ez da erraza esatea, nahiz euskalkietan bizirik aurkitu, ez ote diren hitz batzuk gaztelaniatik mailegatuak.

### Gamizen lekukotasuna Arabako euskara XVIII.mendean

Joan Bautista Gamiz (1696-1773) idazleak, batez ere, gaztelaniaz idatzi zuen baina euskaraz ere, eta euskal bertso horien hiztegia aztertu nahi genuke. Iruñean bizi zelako idazle horren aditza nafartatu zen, baina hiztegian oraindik mendebaldeko hitz asko gelditu zitzaizkion Landucciren hiztegian bezala irakurtzen dugu, *aurpegi*, *bular*, *zudur*, *espan*, *mun*, *botxintxa*, *ule*. Egia da maitasunezko bertsoak direlako Oihenarten hiztegi berdinska aurkituko diogula: *aurpegi*, *begi*, *bekoki*, *biotz*, *bular*, *esku*, *espan*, *gerri*, *lepo*, *matel*, *oin*, baita Oihenart eta Miranderen irudiak *urrezko ilea*, *elurrezko bularra*. Galdera liteke benetan Arabako euskara osoki mendebaldekoa zen, ezen Iruñeatik Gasteizera ino hiztegi trukaketak aurki baigenitzake: *zapatua*, *domeka* Nafarroan eta *gerri*, *lepo*, *zamari* Arabakoan.

Gure iturriak Jon Goicoechea “Gamiz euskal idazle” in *Euskera* XIX, Bilbo, 1974. 167-217.or. eta Endrike Knörr “Gamizen hizkeraz zertxobait” in *Euskera* (*ibidem* 218-230.or.)

Ao Ø

*Aurpegi*            *Odei бага icuzco du/ zure aurpeguia* (Dabilcenchoac, 203.or. VII. ahapaldia  
*Aurpeguicho bat* (Dabilcenchoac, 204.or. XI. ahapaldian)

Begi	<i>Ay ene beguy belbac</i> (Dabilcenchoac, X. aha. 203.or.) <i>zure beguietan dago</i> (Dabilcenchoax, 204.or. X. aha.) <i>zugatic ene beguiac / ... negarrez</i> (Oñecochoac 204.or.) <i>Ene beguiac bustiric / zugatic negarretan</i> (Euscaraz gaiztoetan 205. I. aha) <i>beti beguien aurrean</i> (Euscaraz gaiztoetan; 205.or. II. aha.)
Beguitxo	<i>Duzu [sic] beguicho bazuc</i> (Dabilcenchoac, 204.or. I. aha.)
Bekoki	<i>becoqui duzu zabal</i> (Dabilcenchoac, 204.or. XIV. aha.)
Beltx	<i>Ay ene begui belbac</i> (Dabilcenchoac, 203.or. IX. aha.)
Beso	<i>iragoco dut besoetan</i> (Euscaraz gaiztoetan, 205.or.)
Biotz	<i>Erdaraz eztuzu nay / ene viotza</i> (Dabilcenchoac, 203.or.) <i>Ene biotzeco / sarala ...</i> (Veste tonucho barri bat, 205.or. lehen lerroan) <i>Ene biotza nequeaz dago</i> (Euscaraz gaiztoetan 205.or. I. aha.)
Bular	<i>Elurrezco bularra</i> (Dabilcenchoac 204.or. XIII. aha.)
Buru	Ø
Esku	<i>ezcuac duzu(sic) leun</i> (Dabilcenchoac 204.or. XIII.aha.) <i>Ezpadu nai escua eman</i> (Euskaraz gaiztoetan, 206.or.) <i>ta errecachoa igaroteco / emango deust escua</i> (Euskaraz gaiztoetan 206.or. IX. aha.) <i>Bere escuac mun eguiten du</i> (Euskaraz gaiztoetan 206.or. azken ahapaldia)
Ezpainak	<i>espanac gorri guztiz cumplitua</i> (Dabilcenchoac, 204.or. XIV. aha.)
Gerri	<i>Guerria duzu mea</i> (Dabilcenchoac 204.or. XV. aha. )
Gorputz	<i>Gorputz duzula galant</i> (Dabilcenchoac, 204.or. XV. aha.) <i>Cerren bien gorputzetan</i> (Euskaraz gaiztoetan, 205.or. VI. aha.)
Gorri	ik. ezpainak
Lepo	<i>lepoa churi</i> (Dabilcenchoac, 204.or.)
Leun	<i>ezcuac du zu leun</i> (Dabilcenchoac 204.or. XIII.aha.)
Matel	<i>zure matel bietan</i> (Dabilcenchoac, 204.or. XII.aha.)
Mun	<i>bere escuac mun eguiten</i> (Euskaraz gaiztoetan 206.or. azken ahapaldia)
Oñ	<i>oña chiqui</i> (Dabilcenchoac, 204.or.) Oñecochoac, olerkiaren izenburua
Ortz	<i>orzak churi</i> (Dabilcenchoac 204.or.)
Txiki	ik. Oñ, Txuri ik. Ortz eta Lepo
Txuzen	<i>zudurra chuzen</i> (dabilcenchoac 204.or. XIV.aha.)
Ule	<i>Zure urresco uleac / nauco galduric</i> (Dabilcenchoac 203.or. VIII. aha.)
Zudur	<i>Zudurra eder ta chuzen</i> (Dabilcenchoac, 204.or.)



## 9.2

## Erronkariena (iturri asko)

Batzuk diote mendiaren eta mendi goihenen bakartasunean hizkuntza zahar-  
rrak gordetzen direla, baina oraindik Bidasoa ertzean euskara zerbait entzuten  
bada, erronkariara hil zen. Zerk ekarri zuen galtzea, lehen arrazoia ibar horre-  
tako artzainek negua herri erdaldunetan igarotzen zutela, bigarrenik Mariano  
Mendigatxak dion bezala lurra «bizpairor eskun artean» zeuden eta Mendiza-  
balen erreformaren ondotik batik bat erronkariarrak kanpora joan ziren, Ame-  
riketarat edota Madridera: hortik gartzelania ikasi beharra. Baita karlistadak,  
baita maisuak, baita apezak, maiz euskararen etsai agertu ziren.

Ekialdeko euskalkia da, gauza askotan zubereratik hurbil eta euskararen  
mugako euskalkia zelako Louis Lucien Bonapartek eta On. R.M. Azkuek  
ikertu zuten. Hemeretzigarren mendean Bonapartek Bidankozeko Mendiga-  
txarekin eduki gutunak eta lanak baditugu, baina Hualdek itzulpenak eman  
zizkien, bada ere Gayarre musikalaria ospetsuaren gutuna.

Hogeigarren mendean Azkuek, Izagirrek, Mitxelenak eta beste batzuek  
ikertu zuten; bestalde Bernardo Estornés Lasak euskara horren ikasbidea  
eman zuen. Hala ere, gehienbat euskara estandarrean alfabetatu da jendea  
orain. Napartheiden eta Asisko Urmenetaren eskuz erronkarierazko testu la-  
bur batzuk, berriki idatzi eta argitaratu dira.

Gure iturriak: Mariano Mendigachaz Alfontso Irigoyenek idatzi “*Cartas  
de Mariano Mendigacha a D. R. M. Azkue*” in *Euskera*, Bilbo, 1957, 162.or.  
eta hurrengoak. Aita Kandido Izagirreraren “Erronkariko euskal hondakinak”  
in BRSVAP XV eta XVII (1959, 1961).

Bidankozeko Mariano Mendigacha, hemeretzigarren mende azkenean Bo-  
napartekin eta XX. an Azkuerekin harremanetan ibili zen. Honek ezpaitzuen  
zuberotarrekin harremanik izan, beharbada, benetako erronkariara eman  
zuen. Mendigatxa hitzak mugagabeen ematen saiatzen da, baina ez du beti  
organikoa eta absolutua bereizten, horregatik “ao” hitzaren ordez “aba” ema-  
ten du, “esku” hitzaren ordez “eskuia”; halaber “biatza” ez da “pulgar” “el  
pulgar” baizik. Hitz asko zubereratik hurbil daude, denak ez, hauek desberdi-  
nak dira: azazala (Z. azazkülü), meako (alphe Z.), ondagora (aztal Z.), txun-  
ko (Z. besainko) hots hego nafarreraren antzeko hitzak. Azpi “pierna” da eta  
Zuberoan, azpia “izter” adierazten.

Zubererarekin berdinean ditugu: belain, boronte, eritxinkar, eztazain,  
garando (garondo Z.), lokune, massela, piskolte (Z. pikoste), titi (ez diti),  
uzku, zankabizkar Hitz bitxiena “rup” da “mejilla”, errupa ote? Zalantzak  
baditu behin “rup” eta bestean “massela”, behin “espalda” gero “soin” Eta  
hona zerrenda osoa.

Ab, ao	boca (1)	giltzurrin	riñón
Aguin	muela	llabur	corto
Andi	grande	lepo	cuello
Asassaluña (2)	lepondo	pescuezo	
Azpi	pierna (3)	luce	largo
Vegui	ojo	lokune	pulsera (12)
Veitarte	cara	lodi	recio
Velain	rodilla (4)	massela	carrilo
Viarri	oreja (5)	me	delgado
Viatza	pulgar (6)	meako	ijada
Biotza	corazón (1903. 3. 15)	mearr	estrecho
Bizarr	barba	mi	lengua
Bizkarezur	esquinazo	odol	sangre
Boronte	frente (7)	ondagora	talón
Buru	cabeza	ortz	diente
Buruko	cerebro (8)	pisskolte	melico
Casco	sisera	rup	mejilla
Eri	dedo	soin (1903-8-7)(13)	
Eriviatz	dedo pulgar	soingain	hombro
Erichinkarr	dedo meñique	sudur	nariz
Eskiuia	mano (9)	chiker	pequeño
Espalda	(1912. 11. 25)(10)	chinchurri	garganta
Ezpain	lavio	chinkarr	meñique
Ezpal	párpado (11)	chunku	codo
Eztal	tobillo	titi	pezón
Eztazain	tendon	tripa	vientre
Garando	cogote	ukaraya	muñeca
		uzku	culo (14)
		zain	vena
		zankavizkar	espinilla

(1) Bidankozen *ab* eta *aba*, baina Uztarrozen “au zabal, au barna”. Euskarak ez dirudi triptongoak gogoko dituenik, ezen *aba* eta *aboa* formak Arabako euskarak, bere hiztegian ematen baititu.

(2) Bidankozen azazal, Uztarrozen axaxal

(3) Azpi “pierna” itzulpen okerra litzateke ezen, azpi Uztarrozen Zuberoan bezala “muslo” da.

(4) Velain, Z. Belhain.

(5) (6) «ea» silabak , «ia» ematen du mendebalde osoan, eta hego nafarreraz ere

(7) Boronte, zubereraz bezala

(8) Buruko un (Z. bürüko hün). Bederatzigarren gutunean ere mugagabean eta “cerebro » agertzen da perpaus honetan “sar lakion buruko unetraino»

(9) Uztarrozen eskuia, eskia eta metatesia baina Bidankozen 1903. urteko abuztuaren 7. an agertzen da: “eskuia arrapatu zabein”

(10) Espalda 1912. azaroaren 25. an jendeentzat ere erabiltzen du (ik. soin).

“Emaztiaren espaldan, espaldak atz eguiten”

(11) Ezpal, begiezpala da noski ezen bestela egur eta burdin ezpalak baitira

(12) Lokune. Hemen ukarai eta zubereraz “articulatio”.

(13) Soin seigarren gutunean 1903. 8. 7.)

: «pezu andi baten azkatak lurretik soinaraino atsaz arroitu egiten diona».

(14) Uzku (1912. I. 25.) hemen ere uzkuia, uzkiua bilakatu da. Gainera euskaldun askorentzat uzkia “ano” baldin bada, ekialdean “ipurdi” esangura du.

Izaba eta Uztarrozeko erronkariera

Orokorki herri horietako euskara da zubererari hurbilena baina batzuetan Bidankozekoa zubererari hurbilago zahar kutsukoa. Axaxal, biarri, mi, ezta, ondagora erronkarierazko hitzak bazter utzirik bien artean ezberdintasunak badira

Izaba Uztarroze	Bidankoze eta Zuberoa
Beltzurrin	giltzurrin
Burar	bular, bulhar
Giaso	giar, gihar
Zein	zain

Beharbada Izaba eta Uztarrozen Zaraitzuko euskararen eragina izan zen, ezen tokika benafarreraz ere, *bular* ordez, *burar* erabiltzen baita. Lekuka ere, Araban. Nahiz Zuberoan zain esan zain tiratuari *zeinhauzi* esaten zaio, eta hor “zein” agertzen.

Euskara horren zerrenda

Iturriak: Aita Kandido Izagirrearen bilketak in BRSVAP XV. 1959 eta XVII. 1961 “Erronkariko euskal ondakin batzuk”. Hitzegileak Izaban Simona Anaut Garde (S.A.G.), Pastora Anaut Garde (P.A.G.) Nolasko Gorria (N.G.); Uztarrozen Ricarda Perez Marcos (R.P.M.)

Agin –áginak “las muelas” (BRSVAP XV, 1959 300.or.) (S.A.G.)

Alteka –altéka “costado”; bi altekétan “en los dos costados” (BRSVAP, XVI. 392.or.) (R.P.M.)

Izarri diar áurra ene altékan “he puesto al niño a mi lado” (BRSVAP XV 1959, 301.or.) (R.P.M.)

Aragi –áragi “carne” (BRSVAP XV, 1959, 301.or.) (S.A.G.)

Atz –atzegin “rascar” (BRSVAP XVII. 1961, 402.or.) (S.A.G.)

Atzakarrátan “escarbar” (BRSVAP XVII. 1961, 396.or. (Th. Layana, R.P.M.)

Aubarna –aubárna “boca abajo” (BRSVAP, 1961 400.or.) (S.A.G.)

Aukosabai –áuko sabaia “el paladar” (BRSVAP, XV. 1959, 30.or.) (P.A.G.)

Ausabai –áusabai “el paladar” (BRSVAP, XV. 1959 302.or. R.P.M.)

Auzabal –auzábala egin “bostezar” (BRSVAP, 1961, 393.or. (R.P.M.)

Axaxal – axaxala  
“la uña”; lau axaxal “4 uñas” (BRSVAP, 1959, 302.or. (R.P.M.)

Azka –azkadi “levantate”; nik azkatu diar krima “he levantado la telega al hombro”

(BRSVAP, 1959, 302.or.) (P.A.G.); ázka zan krima bizkarreara “levanta la telega al hombro”; azkatu dur “he levantado (BRSVAP, 1959, 398.or.) (N.G.)

Azpia –azpia “el muslo”, bi azpi “dos muslos” (Th. Layana R.P.M.)

Aztal –aztal- ¿talon del pie? (BRSVAP, XVII, 1961, 402.or.) (P.A.G.)

aztal, ¿el talón?; áztal min “dolor del talón”, (BRSVAP XV, 1959, 302.or.) (P.A.G.)

Barrabil –barrabilak “los testículos” (BRSVAP XV. 1959, 298.or.) (N.G.)

Begi –bégia “el ojo”; kark égotxi diztázu txutx bégiara “aquél me ha echado saliva al ojo” (BRSVAP XV. 1959, 286.or. eta 288.or.) (R.P.M.)

Belain –beláina “la rodilla” BRSVAP XV. 1959, 286.or.) (R.P.M.), beléina “la rodilla (BRSVAP XV. 1959, 303.or.) (P.A.G.)

Belainzi –belainzi “bilustu, bilaitzi” Belainzia diar Pedro? Bai belaintzitzu ¿Se ha desnudado Pedro? Si se ha desnudado; belaitzei txanbra kori “Quitaos esta chaqueta de mujer” (BRSVAP XV. 1958, 286.or.) (R.P.M.)

Beltzuzka –beltzúzka “negruzca”, beltzúzko “negruzco” (BRSVAP XVII. 393.or.) (R.P.M.)

Beltzurrin –beltzurrinak “los riñones” (BRSVAP XV. 1959, 286.or.) (R.P.M.)

- Besape –besapéa «el sobaco» (BRSVAP XVII. 1961, 402.or.) (P.A.G.)
- Beso –béso “brazo” (BRSVAP XV. 1959, 286.or.) (R.P.M.)
- Béso eskía “el brazo derecho” Béso eskerra “el brazo izquierdo” (BRSVAP XV. 1959, 286.or.) (R.P.M.)
- Béso eskúa “el brazo derecho” (BRSVAP, XV. 287.or.) (P.A.G.)
- Biarri –biarria “la oreja”, bi biarriak “las dos orejas” (BRSVAP, XV. 287.or.) (N.G., P.A.G.)
- biarria “la oreja” (BRSVAP XV. 1959, 303.or.) (N.G., P.A.G.)
- Bilo –biloa “el pelo” zer bilo ederra dien! “Qué pelo más hermoso tiene!” (BRSVAP, XV. 287.or.) (R.P.M.)
- Begi bilo –begiko biloa, a “la pestaña” (BRSVAP XV. 1959, 287.or.) (R.P.M.)
- Biotz –biotza “el corazón” lehenik biotz hiru silabatan eta gero bigotz eman zuen (BRSVAP XV.1959, 287.or.) (R.P.M.)
- Biotza baratu zitan “se me ha parado el corazón” (BRSVAP XV. 304.or.) (P.A.G.)
- Biotzeki (lau silaba) “con gusto” (BRSVAP XVII. 1961, 398.or.) (P.A.G.)
- Bizkar –bizkarreara, “al hombro” (BRSVAP XV. 1959, 287.or.) (Teodora Layana)
- Azka zan krima bizkarreara “levanta la talega al hombro” (BRSVAP XV, 1959, 298.or.) (N.G.)
- Boronte –boronte andi “frente grande” (BRSVAP, XV. 1959, 304.or.) (P.A.G.)
- borontia “la frente” (BRSVAP XVII. 1961, 286.or.) (R.P.M.)
- Burar –burarra “el pecho” (BRSVAP XVII. 1961, 402.or.) (P.A.G.)
- burarmin “dolor de pecho” (BRSVAP XVII. 1961, 400.or.) (S.A.G.)
- Buru –buria, hau tzu buria (R.P.M.) burea, hau tzu burea (TH. Layana) (BRSVAP. XV. 1959, 298.or.) (N.G.; burumin “dolor de cabeza” (BRSVAP 1959, 287.or.) (R.P.M.)
- Burute –burutia “el cabezal para llevar cargas” (BRSVAP XV. 287.or.) (R.P.M.)
- Eraztun eraztun “anillo” (XV. 1959 306.or.) (P.A.G.); erezatun “anillo” (XV. 1959, 306.or.) (P.A.G.)
- Eri eria “el dedo” (BRSVAP XV. 1959, 306.or.) (P.A.G.) erebiatza/ eribiatza “el dedo pulgar” (BRSVAP 1959, 306.or.) (P.A.G.); erikoa “el dedal” (BRSVAP XV. 1959, 306.or.) (P.A.G.)
- Errai –errai “pulmón” (BRSVAP, XV, 1959, 306.or.) (P.A.G.)
- Erxe –érxe “intestino” (BRSVAP XV. 306.or.) (P.A.G.)
- Esku –éskia “la mano”; eskúa (3 silaba) “la mano derecha” (BRSVAP XV. 1949, 306.or.) (P.A.G.); esku bat “una mano”; eskia “la mano”, kuek bi éskiak “éestas, las dos manos”; ésku eskía “la mano derecha” ar zan kárrika eskíara

“toma la calle a la derecha” (BRSVAP, XV. 289.or.) (R.P.M.) kuék dutun bi eskiak “éestas son las dos manos” (BRSVAP XV. 1959, 309.or.) (P.A. G.)

Ezpain –ezpain min boquera (BRSVAP XVII. 1961, 394.or.) (R.P.M.); ezpéina “el labio” (BRSVAP, XV. 1959, 307.or.) (P.A.G.)

Ezur –ézurra “el hueso” (BRSVAP XV. 1959, 290.or.) (R.P.M.); méakako izurra “el hueso de la cadera” (BRSVAP. XVII. 1961, 404.or.) (P.A.G.); izúrura “el hueso” (XV. 1959, 309.or.) (P.A.G.)

Garondo –garóndo “occipucio” (BRSVAP XVII. 394.or.) (R.P.M.)

Giaso –giáso górrri “magro” (BRSVAP XV. 1959, 307.or.) (P.A.G.)

Gibel –gibel “hígado” (BRSVAP, XV. 1959, 307.or.) (P.A.G.)

Gizen –ez niózu gízen “no estoy gordo o gorda” (BRSVAP XV. 1959 290.or.) (R.P.M.); gizen “gordo” (BRSVAP XV. 1959, 298.or.) (R.P.M.)

Golgo –gólgo “pechera” (BRSVAP XVII. 394.or.) (R.P.M.)

Kilinko –kilinkua “el miembro viril” (BRSVAP XV. 299.or.) (N.G.)

Korpiza –korpiza “el cuerpo” (BRSVAP 1961, 395.or.) (R.P.M.)

Larru –larria, larrea “la piel”; larru bat larrearen gentan díozu: «está quitando la piel », (BRSVAP, XV. 292.or.) (R.P.M.)

Lepezur –lepezurra “la cerviz” (BRSVAP, XVII.404.or.) (P.A.G.)

Maxel –maxela “la mejilla” (BRSVAP XVII. 404.or.) (S.A.G.)

Me, Mear – me “delgado” (BRSVAP, XV, 1959, 310.or.) (P.A.G., R.P.M.) meago “más delgado” (BRSVAP, XV. 1959, 293.or.) (R.P.M.); méar (bi silaba); bide méar “camino estrecho” (BRSVAP XV. 292.or.) (R.P.M.) kura dun oino meago (3 silaba) ezi ez ni “aquél es todavía más delgado que yo” (BRSVAP, XV. 1959, 309.or.) (P.A.G.)

Meaka – meaka (3 silaba) “cadera” meakako izurra” el hueso de la cadera (BRSVAP XVII, 1961, 404.or.) (P.A.G.)

Mi –mia (2 silaba) “la lengua” (BRSVAP, XV, 1959, 292) (R.P.M.) eta (BRSVAP XVII 1961, 310.or.) (P.A. G.)

Mutur –múturez bárna “boca abajo” (BRSVAP 1959, 404.or.) (P.A.G.)

Ondogra – ondógra bat “un talon” ondogóra “talón de media” (BRSVAP XVII, 1961, 404.or.) (P.A.G.)

Ortz –ortzak “los dientes” (BRSVAP, XV, 1959, 311. o.) (P.A.G.)

Txákurak ortzókaldi bat egin dien búztanean:” el perro le ha mordido en la cola” (BRSVAP, XVII. 1961, 392.or.) (R.P.M.)

Pitxontzi –pitxóntzia , “la vejiga” (BRSVAP, XV. 1959, 311.or.) (P.A.G.)

Pixkolte – pixkólte “ombligo” (BRSVAP XVII. 1961, 405.or.) (S.A.G.)

Sabel –sabél “vientre” (BRSVAP XVII. 1961, 405.or.) (S.A.G.)

sáble “vientre” (BRSVAP XVII. 1961 396.or.) (R.P.M.)

Soin – sóina “el hombro”; soinburia “la cima del hombro”; soina “el justillo” (vestido interior de mujer, sin mangas como el chaleco) (BRSVAP XVII, 1961, 396.or.) (R.P.M.)

Sudur – súdurra “la nariz” (BRSVAP XVII. 401.or.) (S.A.G.)

Tintilla – tintillá “el pendiente” bi tintillak “los dos pendientes”, tintilla bat “un pendiente” (tintilla bat “un pendiente” (BRSVAP, XV. 1959, 294.or.) (R.P.M.)

Tití –títia “la teta” (BRSVAP XV. 1959, 300.or.) (Eugenio Olastuy) – titia “la ubre” (BRSVAP XVII. 1961, 396.or.) (R.P.M.); titimuxko “pezón” (BRSVAP XVII. 396.or.) (R.P.M.)

Txumur – txumurritu “arrugarse” (BRSVAP, XVII. 1961, 405.or.) (S.A.G.)

Tzuntzur – tzuntzurra “la garganta» (BRSVAP XVII. 1961, 405.or.) (P.A.G.)

Ukarai –ukaraia “la muñeca de la mano” (BRSVAP, XVII. 1961, 405.or.) (P.A.G.)

Ukaraia -ukaráia “la muñeca de la mano” (BRSVAP XVII. 1961, 405.or.) (P.A.G.)–ukaráia “el puño”; bi ukarai “dos puños” (BRSVAP XV. 1959, 312.or.) (P.A.G.)

Un –unak “los sesos” (BRSVAP XVII. 1961, 397.or.) (R.P.M.)

Uzker –úzkare “cuesco” (BRSVAP XVII. 1961, 405.or.) (S.A.G.)

Uzku – uzku maxelá “la nalga” (BRSVAP XVII. 1961, 397.or.) (R.P.M.)

Asto ilari uzkutik olo (BRSVAP XVII. 402.or.) (P.A.G.)

Zango –zangoen biláizten égon nézu: “he estado deslazando los pies”; zanko-gáina “el empeine del pie” (BRSVAP XV. 1959, 313.or.) (P.A.G.) zanko “el pie” (BRSVAP X. 1959, 313.or.) (P.A.G.)

Zein –zéina “la vena” (BRSVAP XV. 1959, 314.or.) (P.A.G.)

## 9.3

## Zuberera (egin nuen bilketa)

## Urdaitx Santa Graziko zuberotar anatomia nomenklatura

Bilketa honen egiteko alde batetik ongi ezagutzen genituen jendeei galde-  
rak egin nizkien. Gizonak, lau adinetako aukeratu nituen, hogeita bost urte-  
koa, berrogeita bi urtekoa, hirurogeita hamasei urtekoa, laurogeita hamaika  
urtekoa; gero, bi andere bata hirurogeiak zituenak eta besteak hirurogeita  
hemezortzi zutenak, osagaiak eman dizkidate.

Gehienetan, usuenean, gorputzaren zatia edo irudia erakusten nien; zaile-  
gi zenean euskarazko perifrasi batekin galdetzen, ahalik eta frantsesezko izena  
eman gabe. Galdeketaren ordena gorde dugu, kanpoko anatomiatik, barrene-  
kora joanaz. Euskaltzaindiaren grafia erabiliz; baina sudurkarienzat letra  
beltzagoa jo dugu.

## Azaleko edo kanpoko anatomia

Panpella Elichalt	Phetiri Prébende	Tomas Hardoy
Jünet etxeko jaun zaharra	Salaberrikoa, 76 urte	Ñañetegiko semea
Nekazaria	Dominika «Domingo»	25 urte, langile
91 urte	Prébende	42.urte, nekazari
Khórpitz(corpus)	khórpitz	khórpitz
Ezürrak	khorpitzezürrak	khorpézür (I)
A(r)ági (caro)	a(r)ági(2)	a (r)ági
Büria (caput)	bü(r)ü	bü (r) ü
Bü( r ) üko larrü	bü( r ) üko larrü	bü( r ) üko larrü
Bü( r ) üko bilho	bü( r ) üko bilho (squama)	bü( r ) üko bilho
	bü( r )üko zahi (3)	
Hüna (cerebellus)	bü( r )üko hüna	hün
Gimá	gíma	zámar, ílhe
Bo(r)óntia (frons)	bo(r)ónte	bo(r)ónte
	bürgíbel	bü(r)ü gíbel
Kaskúa (craneus)	bürgáin, kásko	kásko
Garkhóttxa (nuca)	garkhóttxe (lepogíbel) (5)	garkhotxía
Lúak (tempi) (7)	lúak	lúak
Begithártia (visus)	begithárte	begithárte
Müthürra, moskúa	müthür, mósko(6.)	
müthür		
Begi ñiñía (iris)	begi ñiñí bat	begi ñiñi



Begiko xú(r)ia(7)	begiko xú(r)i	begiko xú(r)ia
Begixilúak (orbita)	begi ziló bat	begizilo
Begía (oculus)	begí bat	begía
Begi ézpal (palpebra)	bi ézpal	betézpál
Begi bílhúak (cilium)	begi bílho güti	begi bílho (8)
Bephüriak (supercilium)	bephürü beltz	bephüriak
Behárria (os)	bi behárrri handi	behárrri
Beharri zilúa	beharri xílo	beharri zilúa
Peténtak	beharri gingillá (9)	peténtak
Ahúa	ahó bat	áho
Ahoga(r)iaia (palatum)	ahoga(r) ái, ahosagái	ahosagáia (10)
Ba(r)aiállá (maxilla)	ba(r)áilla	ba( r)aiállá
Bidárria	bídar	bidárria
	bidar kokóts (11)	?
Bízar	bízar, bizárria	bízar
Mustatxo (bigote)	mustatxa	mustatxa
Ézpañ	ézpañ	ézpañ
Hortz	hortz	hortz
Léita	léita, leithagin	leithagin
Hágin	hágin	hágin
Azkenhágin	bazter-hágin	bazterhágin
Jantzibá	jantzíba (12)	jantzíba (OBI)
Míhi (lingua)	míhi	míhi
	mihizañ bat	mihipéko zaña
Amidálak	mihundóko(13)	eskalantzák
Maxéla	maxelá bat	mazéla (14)
Mathéla	bi mathéla	mathelak
Südürra	südür	südür
Südürgaña	südür hégatx (P.P.)	südürga( r)ua
Südürgaro		südürbizkar
Südür xiluak	südürzilo	bi südürzilo
Südür saihétsa	südür saihéts bat	südür saihétsa
Südür kónkor	südürhüntz (P.P.)	südürkónkor
	südürkháko (D.P.)	südürkháko
	südürkopát (P.P.)	südürpastétx (15)
Südür zábal	südürxábal (D.P.)	südürxábal
	südürmútx	südürmutx
Südür mutx	südürtxüt	südürtxüt
Südür txüt	südürókher	südürókher
Südür okher		
Tzüntzür	tzüntzür	tzüntzür

Lépho xilúa	tzüntzür zílo	lephaxílo (I6)
Lephúa	lephoxúri(I7)	lépho
	Íxter (ganglio)	
Besapíak	besápe	besapía
Thíti (mammila)	thíti	thíti
Bulhárra	búlhar	bulhárra (andrena)
Papúa (gizonena)	pápo	papua
Khólko(I8)	kholkúa(I9)	bulharxílo
Saihétsa (20)	saihéts bat	sáihets
Álphe	álphe	álphe
Áltzo	áltzo	altzúa
Bizkarézür gerréntze	gerréntze	gerríko, gerréntze
Erréñak	erréñ, erréñak	erréñak
(epigastrium)	estomak gáñ	estomak zilúa
Pikóste	pikóste (21)	pikóste
(placenta)	undokúak	undokúak
Khádan (aberentzat)	khadan lüzíak	khadának
Sabéla (venter)	sábel	sabéla
Zorrúa	zórro	zórro
	sabel txipía	sabel zolá
Üzkía (culus)	üzkü, iphúrdi (22)	üzkü
Üzkü méhe	üzkü hérsi	üzkü éihar
Üzkü hándi	üzkü hándi	üzkü hándi
Üzkü maxéla (clunes)	üzkü mathéla(23)	üzkü mathéla
Besondúa	besúndo(24)	besundúa
Besáinkua	besáinko, besáinkoz	besáinkua
Suñ phüntá	súña	súña
Póltsa	poltsá (DP) fóltsa (P.P.)	póltsa
Ukhü( r)áia	ükhü( r) áí	ekhü(r)rái(25)
Áhür (palma)	áhür	áhür
Eskügáña	éskü bízkar	éskü bizkárria
Erhíak (digitus)	erhí bat	erhíak
Erhi jünta	erhi phüntá	erhi müthürria
Azüzkülü	azüzkülü	azazkülü
Behátza	erhi behátza(26)	erhi behatza
	e(r)akustéko, e(r)akúsle	
Érhi handía	érhi handía	érhi handia
Erháztün erhía	erhi erháztünéko	
Erhi txinkérra (27)	txínker	txinkérra
Ükhümüllá (28)	ükhümüllá/khümüllá	ekhümilla,khübilla

Anká (coxa)	anká	anká
Azpiúndo	azpiúndo	azpijünta
Belháñ	belháña	belháña
Belhañ-müthür(29)	belhañ errebóla	belhañ errebolá
Belháinpe, iztezan (30)	iztezáin/eztezain	eztezaina
Zankhobízkar	zankhogáñ	zankho bízkar
Zankho ságar	zankhoságar	zankho ságar
Huñ (31)	huñ	huñ
Huñ erhiak	huñérhi/huñéhi	huñérhi
Huñbehátzak (huñ txintérrak)	huñbehátzak	aztal behátz
huñ phünta	huñ phüntá	huñ müthürrak
huñ bízkar (32)	zankho/huñ- bízkar	huñ bizkar
aztal behárri (malleolus)	aztalbehárri	aztalbeharri
huñpea (33)	huñpia: huñpe	huñzola
áztal (talus)	aztála	aztál
sabeléko lárrü	sabeléko lárrü	sabel lárrü
sabel saihétsa	sabelsaihétsa	sabelsáihets
tripá	phantzóil, márda(34)	marda
<b>Barne anatomia: hezur eta erraiak</b>		
Züntzür xúlo	tzüntzür xilo	tzüntzür zilúa
Ø	gingilá	gangáilla/gargai-
lla(35)		
Gi(r)anói	giranói	gi(r)anói (36)
Aphürkói/kontrexilo (37)	aphürkói	aphürkói
Gibelerráiak (pulmo) (38)	haspíde (39)	gibelerraiak
Bihótza (cor)	bíhotz	bihótza
Erráiak	erráiak	erráiak
Erxártekua	erxárteko tela	erxártekua
Telá (peritoneus)	sábel telá	sabelsáre
Estomák	estomák, urdain (40)	estomáka
Phantzóill	phántza,zorra	phántza
	barhesáre	ba(r)hesáre
Álü, alía (cunnus)	álü, mútxa (41, (42))	álü, mútxa
Álü barnía	álü bárne	alü barnía
	alü ezpañak	alü ézpañ
Hümoia	matrizá, hü mói	hü mói, hümontzi(43)
Phüntzelájia (hymen)	phüntzeláje	phüntzeláje
Barrabíllak (testiculí)	barrabíllak	barrabíla

Koskóillak	koskóill	koskóillak
Ø	koskóill lárrü	koskóill úntzi
Ø	koskoll telá	koskóll teláPittúa,
pixtoléta (mentula)	píto, büztan, estaltxótx	píto,ernaltxótx
Ø	proztáta	proztáta
Pitto phüntá	pito phüntá, pito müthürra	o(r)ropilúa
Deskapülaméntü	kapüla, pitozáña	pito txapéla
Erxe lüze	erxe txípi	érxe txípi
Erxe llábür	erxe hándi	érxe hándi
Üztérxe	üztérxe	üztérxe
Üzkü xílo	üzkü zílo	üzkü zílo
Gültzürünak	gültzürün	erreñak(44)
Pixastü(r)ü	pixastü( r) ü, pixontzi	pixóntzi
Pipitá, moskúa (clitoris)	pipitá (45)	ílhar
Gibéla (hepar)	gíbel	gíbel
Gibelmín (fiel)	gibelmín	gibelmín
Bárhe	bárhe(P.P.) báhe (D.P.)(46)	bárhe
<i>Gorpezurra (irudiekin)</i>		
Jüntü (r)ák (articulatio)	jüntü(r)ák	jüntü (r)a
Ézür phüntá	ézür phünta	ézür bü( r)ü
Ézür jüntü( r)a (apohysis)	ézür jüntü( r)a	ézür ílhar
Ezürhüna (medula)	ézür hün	ezürhün
Ézür erdi	ézür erdi	ezür erdi
Ø (epiphysis)	ézür ózke (47)	ezür phüntta
Ø(perioste)	ézür axal	ezürtéla
Ezür llabür	ézür llabür	ezür llabür
Ezür xabal	ézür xabal	ezür xabal
Ø	ezür xú (r)i (cartilago)	exürki
Bürhezürra	bürhézür	bürhezürra
Maxelezürra	matelézür	maxelézür
Ba(r) allá	ba(r)álla	barallézür
Südürréko ezürra	südürezür	südürréko ezür
Áho ezür	áho ezür	áho ezürra
Garkhotxe (occipitalis)	garkhotxe	garkhotxézür
Lúak	lúak	lúko ezürra
Hágin záña	háginzáñ	hágin zán
Hágin herrúa	hágin herró bat	hágin herrua
Hágin xilua	háginzílo	háginxílo
Lépho ezürak (cervicalis)	lephézür	lephézürak
Bizkarreko ezürak (dorsalis)	bizkarréko ezür	bizkarréko ezür

Bizkarézür (spina dorsalis)	bizkarézür	bizkarézür(48)
Suñphünta	suñbü(r)ia, suñmüthür(49)	suñbü(r)ü bat
Pápo ézür	pápo ézür (50)	bulharrézür
Suñézür (clavicula)	suñézür	suñézür
Erreñézür (lumbus)	erreñézür (51)	erreñézür
Espaldá (omoplate)	bi espálda (52)	espaldézür
Ükhü(r)ai ézür	ükhüraiézür	ekhüraiézür (52)
Denek berdín esan didate ondoko hezurrentzat: azpi-, aztal-, beso— besundo-, besainko- huñ-, zankho-ezür. Berezienak:		
Anka ézür	anka ézür	ankézür
Üzkorno (54)	üzkorno	üzkorno,büztanzotz
Odol eta zañ		
Zañ (vas sanguineus)	ódolzañ	odol zañ
Zañhándi (arteria)	zañ handí bat	zañhandía
Zañlagünak	zāñak	zañtxipiak
Zañxú(r)i (tendinus)	zañtxú( r)i	zañ xú(r)I
Zañ (nervus)	zañ	zañ
Zañhíl (passivus)	zañhíl, báno	zañhíl
Zañhart	zañhárt	zañhárt

### Oharrak eta iruzkinak

1. Khorpitzezur Tx.p. Nola diozü korpitzeko ezürrez. T. Hardoy, “*kborpitzza* jenteentako *kborpezür*, kabalentako” (aberentzat). Salaberrikoek, biek *kborpitzezür* eman zidaten.

2. Aragi. Tx. P. *Aagi* erran düzü? Beste gisaz erran leite(ke)? Bai lehen *aragi* eta orain ere: Elizan hala erraiten da.

3. Bürüko zahi: Hitz hori zaharrenak ez du aurkitu, Salaberrikoek erraz. Kilometro batean dagoen auzunean, Kallean, Püntthiriko etxekandrea *bü(r)üko kazalda* eman zidan.

4. Boronte. Salaberriko nagusi zaharrari galdetu genion *boronte* esaten zenez abereentzat, hark baietz ez zela beste hitzik. Erran nion, Pettarean *belarre* zio-tela kabalentzat (Margarita Ossiniry andreak eta besteek erranik). Junes Casenave Harigile abadeak erran zigun esaera batean bizi dela *Debrian belar handia*. Deabruak ere agian adarrak dituelako *belarra* baluke.

5. Garkhotxe. Salaberri zaharrak *garkhotxe* dio (occiput), baina, maiz, frantsesean gertatzen den nahasketarekin gazteak *lephogibel* (pars cervicalis).

6. Lûak “u” sudurkaria da eta azentua dakar, beti pluralean erabiltzen da, *lua* “loa” delako.

7. Begi bilho “cilius”, bi zaharragoek nekez aurkitu dute. Santa Grazin *Bephilo* sintetikoa ez da ezaguna.

8. Beharri gingilla ematen digu Salaberri zaharrak eta gaineratzen “ahüntzek ere badizüe bena ez ber lëküan”; gaztenak andreen apaingarri lobulo horretan ipintzen delako *petent ezargia* ematen digu. Tomas Hardoyek *gangaila*, Altsaso auzunean jaio Harigile Casenave andreak *ddindila* “d” bustiarekin eman zigun.

9. Ahosabai. Bi zaharrenek *aboga(r)ai* arrunta eman ziguten baina bi gazte-ek bitxiki *abosagai*. Harigile Casenave etxekandere zaharrak ahosabai eman zigun (Santa Grazin “b” “g” tan aldatzea beste hitz batean ematen da zubererazko *zübiak* (eskalak), *zügiak* esaten baitute).

10. Bidar/ kokots. Harigile Casenave andreak *bider* eman zigun, erronkari-eraz bezala, Salaberri zaharrak bidar eta kokotz ezagutzen zuenez galdetu-rik *bidarkokots* “kokots orina”ri esaten zaio polita denean .

12. Jantziba. (ahobia). Domingo Salaberriko gazteak erran zigun “*jantziba*, frantsesez “gencive” bezala düzü, badizü beste izen bat, ahatze zitazüt”.

13. Mihiundoko. Berriemaile zaharrenak frantsesetik hartu *amidala* eman zidan. Besterik ez zekien. Salaberri zaharrak *eskalantzak* gaineratuz eritzen denean hazi egiten direla (amigdalaren gaitza latinez esquinantia da). Salaberri gazteak aita zuzendu zuen erranaz amigdalak *mibiundokoak* direla eta *eskalantza* gaixotasuna. *Eskarantza* emanaz Harigile Casenave andreak *eskarantza* eman ziguna.

14. Mazela Tomas Hardoyek dio «*maxela* ejerrago dela eta haurrekin erabilten dela, bena gizenegi direnean beti *matela*».

15. Südür pztetx: sudur talo

16. Tzüntzür zilo. Lepoan sterno-kleido, mastoide giharrek egiten duten zuloa erakutsiz, zaharrek *lephoxilo* eman zidaten. Gazteenak *tzüntzürzilo* Eta Maddi Hardoy amak *lephaxilo* zuzendu. Harigile Casenave andreak *tzüntzür oropilo* eman zigun.

17. Lepho xuri. Salaberri zaharrak izen hori eman zigun.

18.19. Kolko. Jünet zaharrak *arroparen kbolkoa* gaineratu zuen “sosa hortan begiratzen beita” Salaberri zaharrak anatomiako leku horri *kbolko* izena jarri zion, Tomas Hardoyentzat *kolko* bakarrik figuratiboa da “pentsamendu barrena” adierazteko, leku hori berak dio *bulharxilo*.

20. Saihets/alphé. Zaharrenak esan zidan, gure aita zenak idatzi bezala, aberentzat *alphé* (ik. Alma, almeka, mehaka) eta jendeentzat *saihets* erran behar dela.

21. Pikosterxe. Placentarentzat Tomas Hardoy gaztenak lehenik *phikoste* “umbilicus” gero amak zuzendurik, *phikostérxe* eman ondoren, *garbaspénak* ere esaten dela gaineratu zuen Hitz *phiko* “moztu” sinonimotik letorke (ik. Erronkarin *pixkolte* metatesia umbilicus adierazteko).

22. Iphurdi. Salaberri zaharrak *üzkü* eman ondoren, galdetu genion zer zen *iphurdia*, hark, “*üzkü handia*”. Harigile Casenave andreak zubererazko hitz eratorria eman zigun *ütxcüliphurdika egitea*.

23. Üzkü maxela Bi zaharrek “ü” sudurkaria ongi ahoskatzen dute. Salaberrian aitak hitz arrunta üzkü mathela ematen du eta semeak, eskarmentu hurbilagoz, politagoa üzkü maxela

24. Auzoko erdaren alderantziz *besundo* esaten didate denek besoaren lehen zatiari. Nekezago Salaberri zaharrak, beharbada frantsesa gogoan duelako.

25. Ukharai. Bi zaharrek hitza bi “ü” rekin ematen didate, bi gazteagoek “ü” eta “a” batekin. Hardoienean Altsaso auzunean sortu amak Maddi zaharrek, ekürai forma eman zigun eta semeak oraingo zuberotar forma arrunta *ükbarai*. Bi gazteenek ez dute hasieran berdin egiten *ekbürai* eta *ükbürai*, kasu berdina gertatzen da aditz batekin gelditu esateko zubereraz batzuk ekhüratü, besteek ükhüratü diote.

Bestalde, Salaberri zaharra betiko humoreari gaineratu zigun “*ükbürai*a *ükbüratzen delarik hiltzen güütüzü*”. (Hori gertatu zitzaien bi berriemaileei eta 2003. an semeari).

26. Erhi behatza Zubereraz “rh”, “h” bilakatu da, salbu Santa Grazin

27. *Erhi txinkber* edo *txinker* baita hatz lodia eta eraztunarena ezagunak dira. Hastapenean hatz ipuina kontatzen didate. Euskaraz hasten dena eta gaskoieraz jarraitzen “Txipiñi, Jan cosi, jan pantzart, laca topin, mata pedoil”. (Txikia, Jan kusua, Jan Pantzarta, lapiko ustiratzailea, zorri hiltzailea)

28. Ukabilaren izendatzeko hitza aski luzea delako beste euskalkietan (ik. Eibarko hizketia bezala aldaera asko bildu ditugu, auzogune batetik bestera desberdin eta familia berdinean hiru aldaera

Maddi Hardoy Altsaso auzunean jaioa: *ekbümilla*

Harigile Casenave anderea: *ükbübeilla*

Jünet eta Salaberri zaharrek: *ükbümülla*

Tomas Hardoyek lehenik: *kbübilla*

eta Domingo Salaberrik bezala geroago, bi gazteek zuberera arruntaren *kbümülla*

29. Errebola. Zaharrenak esan zigun “belhañ müthür”. Salaberri zaharrak iruzkindu zuen belauna tolesten denean horelako konkortxo, kanika handi baten neurrikoa, senditzen dena eta errebola (errodilea, Landucci, XVI. mendean).

30. Belhañpe. Zaharrenak belhainpe hori ematen digu eta nekezago iztezañ hitz arrunta.

31. Huñ (oiñ) Bi gazteenek, ez zuten bi zaharrek bezala oin eta zango hitzak nahasi.

32. Huñ bizkar. Oinaren eta zangoaren muga ez da beti argi. Jünet zaharrak zankho bizkar ematen digu eta Casenave Harigile andreak zankho mehüne.

33. Huñpea Jünet Zaharrak bakarrik eman zigun huñpea, besteak huñpia.

34. Marda. Salaberri zaharrak irribarrez phantzoil eta marda abereentzat

ematen diren izenak eskaini zizkigun eta gaineratu «marda beltza» metafora, mendekuzale jendearen gaitzizena.

35. Gangailla. Tomas Hardoyek tzüntzür gangailla, eta amak züntzür gargailla

36. Giranoi . Salaberri zaharrak iruzkindu zuen urdailerako igarobidea zela. Tomas Hardoyek etimologia gogoan erran zigun oiloentzat gera ziotela.

37. Aphürkoi. Jünet zaharrak lehenik eman zigun kontrexilo (cf. B. kontrakosulo).

38. Gibel errai, birika

39. Haspide (arnasbide). Salaberri zaharrak esan zigun gibelerrai erraten zela baina ere “hil züzün haspideak tinkatürrik”. Irri egiteko haspoak (auspok) erraten da.

40. Estomak. Salaberri gazteari galdeturik urdail hitza ezagutzen zuenez, hark erantzun “urdain” txerrien urdaila zela.

(41)(42)Alü, mutxa eta abar. Denek alü, alia eta mutxa irribarre gabe ematen didate, gero dira ironiazkoak agertzen. Salaberri zaharrak dio: «xoxua erraiten dizügü txori harek bezala beti lüma beltz beitü eta emaztekiek baizik eztizüe. », gero xaxa ere erraiten da.

43. Hümoi. Tomas Hardoyek, eman zidan hümontzi haurrentzat eta hümoi abere kumeentzat Salaberri zaharrak matriza eta gazteak frantses hitza «uterus».

(44) Erreñak Tomas Hardoyek baizik ez zituen ongi bereizi errein (lumbus) eta gültzürrin (ren); besteek ez zuten argi ikusten ardiek zituzten gültzürrinak berek zituztela.

45. Pipita edo ilhar. Denek barre egin dute.

46. Barhe. Domingo Salaberri gazteak bahe zubererazko forma arrunta eman dit, besteek Santa Graziko zahar antzako barhe.

47. Ezür ozke Salaberri zaharrak iruzkintzen du ezür müthürrek jüntatzen direnian badira ezür oz keak.

48. Bizkarreko ezür. T. Hardoyek ongi bereizi zuen bizkar ezürra (spina) eta bizkarreko ezür (Vertebra)

49. Suñburü Sorbaldari Zuberoan ez zaio suñ baizik erraten, baina akromion horrek (bürü, phüneta, müthür) izenlagunak ditu.

50. Papo ezur. Kasu honetan T. Hardoyek dio andrenari “bulhar” erraten zaiola eta “papo” gizonenari. Bere ustez, emazteek baizik ez dutelako niniari bularra ematen

51. Erreñezürrek (lumbus) Hori izan da nekezenik lortu dudana hitza.

52. Espalda Tomas Hardoyek duda bat izan du zer hezur zen adierazteko, gehienbat kabalekin (abereekin) erabiltzen delako.

53. Ekhürai ezür. Tomas Hardoyek lehenik “püñeta” eman zuen baina amak zuzendu zion: “haurra püñeta athorrrakoa düzü bestia ekhüräia”.



54. Uzokorno. T. Hardoyek iruzkindu zuen: “üzokorno jenteez erraiten düzü bena büztantzotza kabalez”.

**a. Santa Graziko mintzairaz ikuspegi orokorra**

Belaunaldi bakoitzaren idiolektoez kanpo, orain, Santa Graziko, herri baztertuko, hizkera Zuberoako beste herrien antza hartzen ari da. 1980. urtean gure ikerketa egin genuenean 1979-1980. urteetan gizon gazteenek eta andre zaharrek, gizon zaharrek baino hobeki bereizten zituzten euskara eta frantsesa. Ez digute eman Santa Graztarrek beren artean “murduillaz” zera-bilten hitzik. Nondik nahi den, gaztaroan entzun nituen zakilarentzako *estal-txotx* eta *ernaltxotx* hitzen izatea ez zuen Salaberri gazteak ukatu. Bestalde, gure ama zenak, Larraineko zenak hatzei izen desberdinak ematen zituen batzuetan arkaikoagoak

Maddalen Carricaburu (Larraine)

Béhatz

Erthálte

Ergóihen

Erhaztünéhi

Éhi txínker

Domingo Salaberri (Urdatz)

erhi béhatz

e(r) akúsle

erhi hándi

erháztun érho

erhi txínkher

Larrainekoa hitzetan kontserbatzaileago bada, fonetikan Santa Grazikoa baino berriagoa. Hiztegieta inon irakurri ez dudán *erthalte* Basabürüan erabilia da; badirudi \**ertharte* zahar baten aldaera dela eta Larrainekoa ez da auzoko hizkuntzetan bezala eta Santa Grazin bezala, erakuslea.

Ergoihen (Larrainekoa) Lhanden hiztegian *ergohen* (Ligi) aipamenarekin agertzen da. *Atz gorena* da eskua zut jartzen bada. Ez du beraz *atz aundi* (B.) eta *erhi handi* (Santa Grazi) erdal kalkoen esan nahia.

Galderak egitean denak saiatu dira euskara hoberena beregisakoena “competence” delakoaren ematen baina egunerokotasunean “performance” delakoa eta Santa Graziko jendeen artean bizituz, lan eginaz mailegu gehiago agertu zaizkit. Gibelerrai diotenenk, *potrina* gaskonismoa darabilte eta tuberkulosiarantz *probeniste* (Z.) zaharraren lekuko *potrinaide* (bearnesa).

Halaber, Domingo Salaberrik galdeketa gültzürünak hitza eman ondoren gaskonismo batekin “*erreñetarik operatürrik izan düzü*”. Beharbada, euskarazko hitza luzeegi delako, edota erdal medikuen hiztegiak kutsatuak direla.

Bestalde, ordea, XIX. Mendean oraindik erabiltzen zen *zerebelü* hitza ez dute ez gazteek ez zaharrek ulertzen, *hün* eta *bürhün* diote Gaitzak direla-eta aho, bare, burmuin, bihotz, heste, nerbio, pixontzi, titi, eta beste kasu oroetan euskarazko izena erabilia da

### b. Biluztasunaren adierazteko

Berriemaile guztiek erantzun berdina eman zidatelako sakontzea erabaki nuen, ikusteko zubereraz *as/aiz. huts, gorri, ageri* nola agertzen ziren hitzelkartuetan

*as/asik*

As zubereraz hitza izan daiteke ez atzizki bakarrik. Zalgizeko jaunaren XVI.Mende azkeneko atsotitzetan agertzen da

*Athagiarrak (Athagi jauregikoak) asik eder*

*Euri dagianian etxera laster.*

-as, -asik atzizkia

*athorrasik*: alkandorra bakarrik soinean

*athorra mabankasik*: alkandorra mahungak altxaturik

*galtzazolatasik*: oinetakoak kendurik galtzerdiekin ibiliz

*buñzolasik*: orthütsik: oinak galtzerdi gabe

*bürbasik*: buru hutsean

*saiasik*: torso nudo

Hitz bakoitzak aditza ematen du: *athorrastü, athorra mabankastü, galtzazolatastü, bun zolatastü, bürbastü, saiaüstü.*

2.-hüts/ hütsik

*orthütsik*: ontutsik

*bilbütsik/ bülüzik*

3—aiz, -ai

*bilbaiz*: zubereraz zaharkitua da

*pikarra*, asko erabilia.

Pikarra. Azken hitz hau bitxia da, arraroa: gaztelaniazko *picaro* hitzarekin zerbait ikusteko. Eztator ez auzoko okzitanieratik, ez frantsesetik. Maiz *pikarra* *gorri* erraten, baina larrü gorritan esaera ere ezaguna da.

4.ageri

*aztal ageri*

*belhañak ageri*

*besuak ageri*

*bizkarra ageri*

*suñak ageri*

*thitiak ageri*

*üzkia ageri*

*zankboak ageri*

Kabaleen (abereen)hiztegia

Luis Rubio Hardoy zenarekin galedeketa eginaz konturatu nintzen, agian, merkatuetan beste herrietara joan beharrak ezabatu zituela, izan badira ere, Santa Grazi herriaren berezitasunak.

Jendeak	kabaleak (animaliak)
<i>Alii, mutxa</i>	<i>natü(r)a</i>
<i>Undoko</i>	<i>kbadan</i>
<i>Izorra</i>	<i>ernari</i>
<i>Eme, emazte</i>	<i>ürrüxa</i>
<i>Barrabil</i>	<i>koskoil</i>
<i>Arra</i>	<i>kotxua</i>
<i>Haur ükbéite/ erditze</i>	<i>értze</i>
<i>Haur egozte</i>	<i>ilhortze</i>
<i>Xi(r)ikoka, aphainketa</i>	<i>estaltze</i>
<i>Bulbar</i>	<i>herrape</i>
<i>Lepape</i>	<i>lepbo mantbar</i>

Ikusten da hiztegian jendea eta aberea bereizi nahi direla. Bakarrik ironiaz aipa daitezke ezkondu baten adarrak, beste norbaiten marda, müthürra, pantza, pantzoila. Zubereraz kaska baten ondotik agertzen konkortxoari ere, adarra (fr. bosse: konkor) deritzo.

Behikentea edo ardikentea dela eta ondo bereizten dituzte urdaileko hiru zatiak *marda*, *libria* (librü), eta *phantza*. Ardiez Luisek dio, ardiak mazeletan eta sabelpean *bilho* duela, eta beste lekuetan *ilbe*. Bestalde, gure aita zenak argitu bezala, *osatzeak* barrabilak uzten ditu, eta hodia hausten, aldiz *zikiratzeak* barrabilak kentzen; bientzat orokorki, *kberestatze* esan daiteke.

Digitigrado eta onguligradoen zatiek jendeen izen berdinskak dituzte. Aurreko menbruak *besoak* dira, atzekoak *zankboak* baina jendekin ezin dira osoki parekatu ezen menbruak gorputzean sartuak baitira eta atzek eta behatzek hezur lodiak dituztelako:

*Zango belaunari*: aztal

*Beso ukaraiari*: belaun

Txerriaren hiztegian betiko hitz debekuak, aurkituko ditugu, batik bat txerria San Martinak ezaguturik denean eta hilik.

*Golo/gola*: lepo

*Korroa*: bizkar

*Espalda*: soin

## 9.4

*Arratetikuen bizketea, Toribio Etxebarria*

*Lexicón del euskera dialectal de Eibar*, edo Arratetikuen hizketia, Toribio Echebarriak 1966.an argitaratu zuen. Euskaltzaindiak argitaratu hiztegi horrek hamarmilako hitza eskaintzen digu eta guri kaletar hizkuntza izatea jakingarria iruditu zitzaigun. Berak hiztegia andrearekin nola egin zuen adierazten digu, gaztelaniaz:

«para mí sigue siendo verdad que éste trabajo me ha representado tantas horas gratas en días tristes del exilio, que no puede pesarme lo que he sudado en este afán» [*op. cit.* 9.or.].

Bi jendeen «competence» edo jakituri osoa da. Zerbait esateko, Eibarko hirian, Echebarriak ezagutu garaian euskara bizi-bizia zen, ezen udal erabaki eta araudi batzuk ere euskaraz idatziak izan baitziren. Fabriketan, sindikatuetan, salerosketan, elizan eta jakina lehen ikastoletan euskara zerabilten. Eibarko herri hizkuntza bihurtzen zuen, irauten zuen erdaraz inguratua, kutsatua izan arren, baina hiztegiaren, batik bat, jendeen performance edo praktika kutsatua zen. Eibarren Jon San Martinen familian ibili nintzenean, esaten zidaten euskara ona eta ederra nuela, orduko gipuzkera estandarrean berba egiten nuelako.

Egileak berak bere zalantzak agertzen ditu:

«Diré que mi ortografía no hace autoridad y las alteraciones que pueden darse con más bien defectos que intención reformadora» [9.or.].

Echebarriak, ordea, Euskaltzaindiko orduko ortografia jarraitzen du eta hala ere, lekuko ahoskeran idazten. Hiztegiaren bekatu txikia da, gehienetan hitzak mugatuarekin emanak direla forma bilusia eta mugagabea gogoko genukeelarik. Edonola, fidatzen ahal gatzazio eta beste eibartar adituek hiztegi horren zintzotasuna argitu dute:

«Lo que me autoriza en mi empeño y explica la audacia de mi intento no es ninguna erudición libresca ni el brillo de ningún título académico, sino la circunstancia de ser persona que ha hecho su vida afectiva, familiar, y no poco de la relación general por más de setenta años, en el habla que aquí se ha propuesto registrar» [9.or.].

Lexiko horren abantaila da, hitz bakoitzarentzat esaera erabilpen bat ematen digulako eta gaztelaniaz itzulpena. Liburua jaso genuenean mendebaldeko euskalki den horretaz hiru sailkapen egin genituen, hiru multzo: Iparraldeko batek erraz ulertzeko multzoa, hots euskara estandarrekoa, jaramon handi eginaz uler ditzakeenak, eta azkenik ezin ulertuak. Hemen anatomiazkoak bakarrik emango ditugu. Eibarko hitz horik sailkatzean desberdintasunak honela emango ditugu (m) morfologiazkoak, (f.) fonetikazkoak, (s) semantikazkoak, baina Eibarko hitz horien zutabe bakoitza bereiz irakurri behar da:

**Mendebaldeko?**

Ago(f.)  
 Albo (m.)  
 Atzamar (f.)  
 Atzoskol  
 Atz txikija (f.)  
 Azur, azuruts(f.)  
 Baltz (F.)  
 Barru (m.)  
 Berna (m.)  
 Biatz (f.s.)  
 Betule (f.)  
 Erpa(m.)  
 Eskuma(f.)  
 Estamangu (m.)  
 Garun (m.)  
 Garnu(f.)  
 Gizarre (f.)  
 Ikubilla(f.),  
 Iztar (f.)  
 Izardi (f.),  
 Kima (f.) kokote (f.)  
 Kolko (f.)  
 Koskabillo(f.)  
 Lepo (s.)  
 Lori (f.)  
 Mardo (s.)  
 Mintz (s.)  
 Mosu (f.)  
 Narru (f.)  
 Orkatill (f.s.)  
 Puskar (f.)  
 Sama (m.)  
 Sur (f.)  
 Txilibitu  
 Ule (f.)  
 Un (f.)  
 Untzurrun (f.)  
 Uzkar (f.)  
 Zan (f.)  
 Zill (f.)

**Gipuzkoako?**

agiñ (f.)  
 anka (s.)  
 ao (f.)  
 arpegi (f.)  
 arrauziñ (f.)  
 atz aundi (f.)  
 atz txiki (f.)  
 atzazkal (m.f.)  
 aztarren(f.)  
 azkar (s.)  
 beatz (f.)  
 belarri (f.)  
 betazal (f.)  
 biluts (f.)  
 galtzarpe(f )  
 biotz (f.)  
 burutsik  
 erpoi (f.)  
 este (f.)  
 esku  
 ildako (m.f.)  
 illeko (f.)  
 konorte (M.)  
 intxaur  
 mamiñ (f.)  
 konkor  
 min(f.)  
 mantxo (f.)  
 me (f.)  
 pitxu (f.)  
 negar (f.)  
 ortz,  
 ortosik(f.)  
 soiñ  
 txima (f.)  
 ukalondo(f.)  
 ukabilla (f.)  
 titi(f.)  
 urdaill (f.)  
 urdiã, zimur(f.)

**Euskara estandarreko?**

alu  
 aragi  
 ar, arra  
 atzapar  
 azal  
 auspo  
 bare  
 barasare  
 bekoki  
 barrabilla  
 begi  
 belaun  
 beso  
 biri  
 istarri  
 bizar  
 bizkar  
 bular  
 buru  
 buztan  
 esker, gantz  
 gerri  
 gibel  
 gorri  
 ipurdi  
 kopeta  
 mustur  
 lodi  
 makal  
 odol  
 oiñ  
 orpo  
 ostiko  
 pitxilin  
 pottolo  
 sabel  
 sorbalda  
 tripa  
 txitxi  
 zango, zintz, zorro

Eibarko lexikoan euskara estandarraren % 40 gorabehera irakurtzen da, % 26 gipuzkerazko eta % 34 mendebalde edo bizkaierazko. Beraz euskalki hori gipuzkoarrentzat ulergarria da eta euskalki mugan dago, beharbada azen-tuazioak batzuetan oztopa dezake lehenbiziko ulerkerara.

Lehen zutabearen fonetikazko aldaerak ugari ditugu *baltz/beltz, biatz/ beatz, gizarre/gibarre/gibar, mosu/musu, narru/larru ule/ile, azurezur, uzkar/uzker* Mendebaldeko, hitz bereziak ere baditugu *albo, barrui, berna, erpa, estamangu, garun, sama*.

Bigarren zutabearen morfologia aldetik konorte nabarmentzen da, baita anka ere. *Atzaskal* fonetismoa ulergarria da.

Uztaritzen Udako Euskal Unibertsitatean 1975.an L. Mitxelenak erakutsi zigun badela euskal hiztegia iraunkor dena, beste bat garatzen dena, beste hirugarrena maileguz egina. Fonetismoak bazter utzirik, giza biologiaren anatomia sail hori osagai iraunkor askoz egina da. Barregarri eta ironia gai diren zatiek maileguak darabiltzate *kasketa, kasko, kopeta, mazela, matrail, musu titi, tripa, zorro*. *Berna* hitza berriz mendebaldean jendearena bada, erdialdean animaliena.

Gai orokorretako liburuetan ez da hirurogei biologia hitzez goiti aurkitzen, hemen Toribio Echebarriak 517 hitz eskaintzen dizkigu. Eta ez bakarrik anatomia eta fisiologia erabileretan.

Psikologiazko hitzak eta lexikoa

I. Ao lat “os”

Ao bero: exagerado, (50.or.)

Ao zatar: de hablar obsceno (51.or.)

Ao fina: delicado de boca (51.or.)

2. Arpegi (lat. *visus*)

Arpegi argi: sonriente, amable, (65.or.)

Arpegi biko: hipócrita (69.or.)

Arpegi gogor: descarado, (69.or.)

Arpegira bota: echar a la cara (69.or.)

Arpegi emon: dar cara (69.or.)

Arpegi zorrotz: severo (69.or.)

Aurpegian dira maiz agertzen psikologia aldaerak eta karakterrak, baina “arpegi argi” eta “arpegi zorrotz” izan ezik, alboko hizkuntza guztietan aurkitzen dira aditzekin egin esaera berdinak (eman, eduki eta abar).

3. Begi lat. “oculus”

Begixa jo: figurarse (142.or.)

Begiko: simpático (142.or.)

Begiratu: económico (142.or.)

Begitandu: figurarse (142.or.)

Begitxan artu: tomar ojerizas (142.or.)

Begi hitzarrekin maitetasun edo gorrotoak ikusten dira begiak bihotzaren leihoak baitira. Zerrenda horretan *begiko* eta *begitxandu* gure gureak ditugu, baita nahiz auzo herrietan berdin esan euskara osoan *begitan hartu* ulergarria da.

4. Biotz. Metaforen munduan sartzen gara  
 Biotz bigun: compasivo (171.or.)  
 Biotz gogor: duro de corazón (171.or.)  
 Biotzik bako: sin corazón (171.or.)  
 Behin agertzen da biotz, *kemen* adierazteko.

5. Buru “caput”  
 Burua euki: tener cabeza (189.or.)  
 Burua galdu: perder el juicio (189.or.)  
 Burua jaso: alabarse (189.or.)  
 Buruan artu: tomar en la memoria (189.or.)  
 Buruan sartu: inducir, antojársele (189.or.)  
 Buruauste: rompecabezas (189.or.)  
 Buru bako: insensato (189.or.)  
 Burugina: vividor, egoista (189.or.)  
 Burugogor: terco (189.or.)  
 Buruko min: ansia (189.or.)  
 Bururatu: acordarse (190.or.)  
 Burutik ein: desvariar (190.or.)  
 Buruzale: egoista (190.or.)  
 Buruz jakin: saber de coro (190.or.)

Ohargarria da, gaztelaniaz (eta frantsesez) baino gehiago buru hitza erabiltzen dela oroimenaren metonimiaz. Gure hizkuntzak erakusten du hor gai dela auzoko hizkuntzek egiten dutena alegia hizkuntza klasikoei mailegatu gabe, esaerak sortzea. Jakina, bihurkorra (*nire burua ikusi*) izen orde euskorarentzat (*ni neu moduan*) ematen ditu, bere buru gisakoak.

6. lat. *manus*  
 Esku garbi: onesto (256.or.)  
 Esku zabal generoso (257.or.)  
 Esku oneko: de buena mano (257.or.)

Esku garbi esaerak XX. Mendearen azkenean Italiako justiziak politikan “mani limpi” eragiketa lortu zuela. Euskarak bere bidea jarraitu du aditz egitean, esku artu, eskuratu, esku sartu, eskuperatu, eskudatzeko, eskatu, eskaini. Aditzekin.

7. Kasko “*craneus*”  
 Kaskajo: de poco seso (390.or.)  
 Kaskariña: ligero de cabeza (391.or.)  
 Kasketaldi: fantasía (391.or.)

8. Mustur “*musum*”

Mustur-aldi: crisis pasajera en la relación amistosa de dos personas (473.or.).

9. Odol, “*sanguis*”

Odol bero: impulsivor (490.or.)

Odol bako: apático

Odol otzean: (Europako hizkuntza gehienetan) “a sangre fría”.

## 10. Ostiko

Soziedadiaak eta Sindikatuen aurretik uezaba askok, ostikopian biargiñak (521.or.)

Sailkapen horretan giza sentimenduen hiru organo nagusiak *bibotza* eta *odol* agertzen zaizkigu, gero *aboa*, *arpegia*, *begia*, *burua*, *eskua*, *kaskua*, *musturra*.

**Minak eta gaitzak: patologian.**

Laneko istripuak nagusi izateak ez gaitu harritu behar, fabriketan lan egin zuen Toribiok, lan arriskuak gogoan bildu esaerak. Bera eskulangile eta arma grabatzaile izanki azazkalen eta eskuen egoera ona beharrezkoa zuen, baina gogoan ditu Eibarko beste lantegietan gertatzen zirenak edo baserrietan ere:

“arbolatik bera jausitta, ankia ausi dau” (47.or.)

“aragi bixian daukat orpua” (55.or.)

“atsaskala jausi biar jat” (98.or.)

“bizkar azurra ausi jako” (115.or.)

“miñ artu dot belaunean” (146.or.)

“bernazurrakin ertza jota” (154.or.)

“bernako zaurija osatu ezinda”

“birixak ixa galduak zittuan” (172.or.)

“mallukia jausi-eta biatz aundixa mallatu dasta” (164.or.)

Fisiologian adibide asko ditu baina hemen bukatu behar. Lexiko aberats hori besteek gehiago arakatuko dutelakoan, Toribio zenari, goresmenak. Unibertsitari izan gabe, eta haiek egiten ez zutena eginik, jakintza korpus lan baten egiten jakin baitzuen.





## X

## ONDORIO OROKORRAK

Saiatu gara Lehen Euskara eta Arteko euskara horien hiztegitxo bat antolatzeko oinarrizko hiztegi baten finkatzeko. Lehen Euskara eta Arteko euskara, uste baino emankorrago izan dira, nahiz baden asko aurkitzeko eta neronek iturri guztiak hurbildik ez ditudalako agortu. Gure iturriak aski fidagarri dira, protoeuskaran; batik bat, hil harriak eta aldareak, Arteko euskaran jende izen, etxe-izen, leku izen, testu eta erranaldi laburrak. Halaz ere, ehunka hitz horietan, gero sortu hizkuntzen mailegurik ez dago, gure oinarrizko gorputz hiztegia hor legoke; nagusitasunez jende familien mailako, ahaidetasunezko hitzak nagusi dira, gero, jendeen koloretakoak. Protoeuskaran anatomiazko hiru hitz garrantzitsu agertzen dira, *begi*, *buru* eta *bihotz*; Arteko euskaran uzta handiago da.

Bi euskara motetan animalien izenak ez dira falta (*bebia*, *hartza*, *otsoa*) eta zuhaitzak (*aritzea*, *artea*, *leberra*). Nahiz Voltairek esan zuen, metafora gogoaren ahultasuna zela ez omen delako jendea gai gauza bakoitzarentzat hitz baten asmatzeko, badakigu, ordea, eta nekeza izanzen zaigu jakitea, gure oinarrizko hiztegi zaharrena jadanik metaforaz sortu zela. Gure teoria da gure gorputzaren izendatzeko makrokosmoaren hitzak erabili ditugula (larre/lur, eki, ur, haize, egur), alegia munduaren bost osagaiak. Honela hurbildu ditugu:

Egur eta zur: hezur

Eki (eguzki) \**be-eki*, begi gorputzaren eguzkia

Haize: hats, egurats, arnasa

Iz-(ur): izerdi, izorra

Larre (lur), belarre, bular, larru

Lohi (lur), lohi, gorputz

Odei: cf. odol

Ur: ugatz, urdail

Bihotz eta gogo jatorri berdinekoak lirateke, ezen pentsamendu zaharrea gogamenaren lekua bihotza baitzen: –go- erro bat ote?

Kristotasunaren nagusitzearekin hitz zenbait zaharkitu ziren *lohi* anbiguoaren lekuan eliza gizonen gorputz (*corpus*). Zuberoan belarre (*bekoki*) hitzaren lekuan boronte (*frontem*) sartu. Hamargarren mendetik landa, Platonen eta kristau sinesteen arabera adigai arrotz berria sartu zitzaiguketen arima (lat. *anima*) haragiaren alderantzia; hala ere, inoiz ez da gogo zaharra goa galdu, ezen gure herriak bazekien hats erabat galdu ezker, lohia lohitzen

zela eta gogoia behin betirako galtzen. Noski gure antzinako sendagileek beren ikasketak erdaraz egiten zituztelako, erdarakaden arbasoak izan ziren, eta erdal hitzak sartu zituzkiguten euskarazkoen lekuan: hor dago Peru Abarka eta Barberuaren arteko eztabaida lekuko.

Herri iturriak jarraikiz, biologiaren sinesteak aipatu ditugu, Azkueren *Euskal Herriaren Yakintza*, Barandiaranen ikerketak, neronenak bilduz. Hor ez dago euskal kulturako berezitasun handirik; osoki europarrak gara horretan; nola nahi ere, oinarrizko hiztegian badirudi gure mitologia zaharrekin lotu hitz batzuk eratu zirela (*begi, bezur, larru, odol*). Hiztegiaren aldetik, ordea, R.M. Azkuek eta J.M. Barandiaranek bildu sinesteekin hizkuntza debekuak argiago dira; gorago ikusi beste batzuei gainera genitzake fanera edo keratinazko gehigarrien izendatzea: *luma* (hegatsen ordez), *bilu* (ileren ordez), eta *ezkata*; *azazkala* baizik ez da osoki euskarazko gorde nahiz hor ere sinesteak dauden. *Fanera* gehienak moztu-eta erre behar dira, oheko lumatxak, azazkalak, ileak erre eta azken hauek ez noiz nahi moztu. Badakigu europar sorgin guztiek fanerak beren erdi pozoi eta saldetan sartzen zituztela.

Garai batean, hizkuntza herrikoiaren buruko organoen izendatzeko latin hitzak sartu ziren, batzuk gorde direnak, ikusi ditugun boronte eta gorputz, baina, maxela ere; *zerebru* hitzak burmuin, garmuinek ez du galarazi. Biziaren lexikoa oinarrizkotan baita ez du auzo hizkuntzei anitz mailegatu, errate baterako gaskoierari zakarkitu *bisai*, *errain* hitzak baizik anatomian eta *potrinaire* patologian, gaztelaniari beste batzuk *berna, banka, henbra, kadera, kasko, popa, potro*. Iparraldeko euskalkietan ez da frantsesari hitz asko mailegatu (*jantziba, hortzobia*) gaztelaniari batzuk, baina ez hegoaldean bezainbeste.

Latina dela-eta badirudi gauza zikin guztien eta txar guztien izendatzeko beste europarren gisa, beste hizkuntzetan mailegatu ditugula hitzak: *pantza, tripa*(sabel) *pixa* (urxuri), *kaka* (gorotz) Ez da hain segurua *zakil*, *zain* latinetik datozela.

Hitz berdinak esangura desberdinekin maiz gertatzen zaizkigu Mendebaldeko euskalkietan sarritan lepoa ez da burua enborrari lotzen duen zatia, baina sorbalda edo bizkarra eta lepoari animalien izenak ematen zaizkio, idun, sama.

Euskal liburuetan XVI. mendean hasi-eta gure egunetaraino literaturan biziaren hiztegitik sartu diren metaforak ikertuxe ditugu. Bestalde, gure antzinako idazleek nola zekusaten jendeen gorputza jakingarria izan zaigu. Denboraren erreka jarraikiz, euskara modernoaren ikuspegia eman dugu, alde batetik Axularren *Gerotik* biologiarekin lotuak diren zatiak bilduz, (zati batzuk hemeretzigarren mendean zentsuratuko dira) gero hemezortzi (XVIII), hemeretzigarren (XIX) mendeko biologiazko testu batzuk eman ditut.

Honela dakusagu, bereziki, erlijio liburuen bidez nola, metaforaz, biologiaren hiztegia, psikologia eta filosofiara igaro den. Bestalde, Leizarraga eta

horrelako itzultzaileek, Bibliatik eman dizkigute metaforak (gorputz: Eliza, menbru: sineslea). Idazleen artean Etxepare, Oihenart eta Mirande erotikaz zerbait idatzi dutenak aztertu ditugu.

Etxeparek erotismoaren gauzatxo batzuk garbiki azaldu dituelako, heme-retzigarren mendea puritanoek zentsuratuko dute edo ez aipatuko, baina Etxeparen hiztegia ebanjeliokoaren maiztasunarekin agertzen da *begia* (lillura: jainkoaren begia, andrearen begia), *oina* (norabide, garbitze) esku (benedikatze, laztantze) *burua* (maitatze); hor agertzen da jendearentzat nagusi diren organoak: *begi, buru, esku, oin.*, baina Etxeparek jainko maitasunaren goresteko ere idazten zuen.

Oihenartek, adeitasunez betetako olerkietan, anatomia hiztegieta aberatsago da eta bere garai olerkarien gisa gorputza gai aberatsekin irudikatzen da: bolia, perla, urrea, zeta, zilarra. Abesti herrikoietan XV-XVII. mendekoetan horrelako metaforak agertzen dira, urrearenak eta zilarrarenak batik bat.

Miranderentzat gorputza izan da olerki berrikuntza bide. Andreen gorputza, noiz nola, Oihenarteren gisa, ilehorizko, begi urdinezko fina da, baina sarritan ere, lesbianak, prostitutak, neska pedofiloak agertzen zaizkigu Moko-rrua eta Lafitte zentsore frustratuen hitzez “gazteria ustelduko” zutenak.

Gure hiztegiara igaro baino lehen, besteen hiru hiztegi arakatu ditugu, Lehena Landucciren hiztegia aski aberatsa, bigarrena Olabiderena *Giza soña* zaharkitua, hirugarrena Löppelmanena, alemaneraz, oso handia, baina oso txarra ere. Apur bat aipatu dugu Karlos Goenaren erdibidezko eskaintza, Arantzadikoeak hartu zutena, nazioarteko hitzak ere mailegatzen zituenak, baina euskararen modernizazio dela-eta Elhuyarren eta U.Z.E.I. ko lanetan ez da beti nazioarteko irtenbidea jarraiki baina gaztelaniaren menpekotasuna, antzinako medikuek Altuna, Aranburu, Barriola, Irigaray, Etxepare, Ugalde eta Zinkunegi, delakoen lanei jaramon gehiegi egin gabe. Badirudi euskarazko izenlagunek behartuak direla *-ario, -al, -tico, -tivo* eta beste espainol atzizkien kumeez bukatzera. Jakina, sendakuntzako hizkuntza edo “lexiko medikala” darabiltenak % 90. tan hegoaldekoak dira eta horko sendagile gehienek orain arte gaztelania hutsez egin dituzte beren ikasketak.

Ordu litzateke, agian, European beste herrietan zer egiten den ikustea, eta geneuzkan hitzen erabiltzea eta morfosintaxiaren errespetatzea ez liteke gaizki.

Azterketaren bihotzean gaurko biologiaren euskararen hiztegia ikertu dugu, baina oraingoan erakutsi ere zenbateraino biologia lexikoak hiztegi orokorarrari emate den (psikologian, teknikan, zuzenbidean, orografian). Euskararen morfosemantika azterketa honek euskararen malgutasun, sorkuntza eta maileguen erabilera erakutsi digu. Biologiaren hizkuntza, gehienbat, berrogeita hamar hitz erro zaharren gainean eraikia da, baina oinarritzko hitzen etimologiarik ezin da eman. Hitzak, hitz elkartuak eta eratorriak sailka genitzake:

## Lehen taldean

1. Lehen sailean a- hitzen artean, *abo* eta (*b*)*atz* erroen ingurukoak batik bat
2. Bigarren sailean b-hasieradunak, *ba-,be-, bi-, bo-, bu*. Oinarrizko hamazortzi hitz hor leudeke *bera* eta *bizi* hitzekin lotuak
3. Hirugarren sailean *ers-es-* sailekoak, batak *esku* hitzaren inguruan, besteak *ezpain* eta *beste* inguruan itxi, hertsu, hetsi semantemarekin.
4. Laugarren sailean *gi-* hasierakoak: *gibel, gihar, giltzurrun, gizen*.

## Bigarren taldean

Batzuetan, etimologia daukate, hitz elkartuak direlako (ipur mazela) edo sail txikiak eratzen:

*Eri*: ero, herio, helgaitz.

*Le-*: lerdan, lepo

*Uz*: uzter, uzki

*Iga-, iba-, ebe-*: gihar, ihar/igar, mehar, mehe

*Lz-*: gizen, izerdi, izorra

*Gara-*: garondo, garmuin

*Aurre*: aurpegi, ahur;

## Hiztegiaren hedatzea

Metaforak. Tropo horiek ingurumenarekiko harremanak erakusten dizkigute (animalia diodanean jendea horretan sar liteke),.

Adar: landare, animalia; azal: landare; animalia; ziri: landare, animalia; zaki: landare, animalia; larre/larru: landare, animalia eta beste zenbait hor (zakur)eta hortz (hagin), ur (edari), urdail (organo)

Maileguak. Maileguak sinestekin lotuak dira, hala nola faneren hitz debekuak eman latin zaharretik hartu hitzak, bilo, ezkata, luma (bakarrik azazkala salbatzen da)

Elizak ekarri latin maileguak gehiago dira, arima (gogo), boronte/kopeta (bekoki) gorputz (lohi), zerebelu (burmuin), espiritual eta korporal.

Jaiotza, bizia, eritasuna eta heriotza. Hiztegi hori sinesteez betea dago, horregatik, mende bakoitzak gai horietan ikuspegi desberdinak dituelako kontua aski nahasia da, eufemismoak, (joan, irten, zentzen, galtzen, utzi egiten du hiltzen denak) antiperpauusak, debekuak badira, hala eta guztiz ere, badirudi gaitzaren hitz erro bezala *-er-* dagolea: *eri, ero, eran, herio*.

“Jaiotza” aditzak gogoratzen dizkigu *jaiki,jaitsi, jaso* hitzak; eta *erditzen/ertzen* aditzak, irten.

“Bizi” hitzak balio handia du, eta izan aditzarekin lotua legoke eta b-hasierara ematen die anatomiako hitz batzuei (begi, belarri, buru eta beste)

### Aldaerak

Aldaerek zergati asko daukate, herri etimologiak (azkil/, isabelantxapel), euskalkien fonetika joerak guntzurrun, gültzürün bokalen asimilatzeak; *ezur* (G.) *azur* (B.) *hezur* (L.) *ezür* (Z.), *ao/ago* (heg.) *abo* (ip.), *biotz* (heg.) *bihotz* (ip.); birkonposatze desberdinak *begibilo/ begi ule/betile*)

Hitzen luzetasunak zerikusia du aldaeretan

Silaba bat (0- 4 aldaera) *ile/ilhe/u*

Bi silaba (2-4raino, *bigotz, bihotz, biotz*) (gibel izan ezik)

Hiru silaba (4-9. raino) *ukabila, ukabeila, ukubilo, ukumilo, kümülla*

Tropoak edo hitz irudiak bazter utzi-eta, aditz eta izen eratorriak, noski, hizkuntza guztietan bezala: giza psikologia, fisiologia, patologiar buruz dira lehenik; bigarrenik gizarte harremani buruzkoak: *gizarte jakintzak, fisika, kimika, matematikak, teknologiak, zuzenbidea*. Euskarazko iturriak dituztenak, maiz, etimologia argia dute gure inguruko hizkuntzek indoeuropar funtsetik lehen aldaketa batean latin klasikora eta hortik latin herrikoira hizkuntza erromanikoetan azkenik itxuragabetu hitzek ez dute berdin etimologia argiki erakusten.

Euskarazko hitzetan, behintzat eratorri gehienak, aho, begi, buru, esku hitzetik datoz, gero *bizkar, oin, soin* hitzetarik gutxiago.

Aditz eratorri gehienetan bakuna da eta lau eredu nagusitan:

1. -tu, -tzen, -tuko
2. -eztatu, -ratu, -katu, atzizkiak,
3. -bakoiztu, -gabetu bigarren aditzarekin
4. eman, hartu, sartu, aditzekin

Auzo hizkuntzekin berezitasuna, greko-latino bideak hartzen ez ditugunean badator, guk fisiologia eta patologia hiztegian anatomia hurbilagotik jarraitzenago ditugula haiek baino. Karl Bouda euskalariak eskaini sailkapen beharrak lagundu gaitu, erakusteko gure hizkuntzak euskalkien gainetik batasun apur bat daukala.

Jendeen gorputza eta beste bizidunena egituratua delako, logika bat bila lezakete hor cartesiar logikazale batzuk, baina badakigu magiko pentsamenduak nagusi zirenean hiztegi hori eraiki zela. Hitz sorkuntzaren psikologian sartuz geroz, beste hizkuntzetan bezala euskaraz, gure lanaren lehen zatietan erakutsi bezala animismo gogamenak eta sinesteak buruzagi ziren.

Gure hizkuntzak darakutsan ugariegatasuna, maiz, duintasun ikuspuntuetarik letozke, baina batez ere 1978. urteraino euskara ez delako inon ofiziala izan ez eta gehiegi irakatsia. Bestalde, ez dugu denek historia berdina izan, konkistatzaile berdinak eduki eta gure arteko harremanak ez dira errazak izan, halatan ere, biziaren oinarrizko hiztegian, aldaerak gora behera % 85 hitz berdin aurki genitzake.

Zoologiaren hiztegia ere bestea haina zaharra da eta arkeologiaren, mitologiaren, etnografiaren datuek zilegi uzten gaituzte animaliak hiru sailtan banatzera:

Lehen taldean *ar-* erroa dutenak. Betidanik, jaten direnak (ik. haragi) edo behintzat, lehenik hezi zirenak

-Ardi, ahari, arkume, a(r)xuri

-ahuntz, aker, ahuine

-ahardi, aretxe

-a(r)sto

Bigarren taldean, geroago hezi, sakratu direnak mitologian eta indoeuropar kutsua arte gutxi edo batere jaten ez zirenak (hiztegian be-z- errodonak):

Behi, behor, zaldi, zezen.

Hezia eta ez hezia (basa) bereizteko *basa, etxe* eta *oihan* erabili daitezke hala nola.

Basakatu *Felis sylvestris*

Oihan katu *Felis domesticus*, etxetik ihes egina

Etxekatu, *Felis domesticus*, etxean edo inguruan jendeekin bizi dena (ik. ere basahuntz, basa ardi, basa behi, basa zakur).

Ez heziarentzat behin *-izu, iso* erabili da basa behiari *betizu* esanaz. Behar-bada berdin \*(h)ortso bat sortu zen *hor* hitzetik.

Hirugarren taldean Jendeek, aspaldian, ezagutzen dituzten animaliak, nahiz sistematikan elkarren urrun izan eta *-or-* erroa erakusten dutenak. Galdera da, ustekabea, ala sinesteen gatik: (*b*)or (zakur), *orde/urde* (?), *orein, orkatz, ortso/otso*.

Horien artean konpainian eta mahaian tabu direnak, *urde* edo *zerri* dira, horregatik esaten da *txerri* (nahiz umea den izen horrekin) edo *bilobeltz, ganadu beltz* antzina kolore horretakoak zirelako edo *bortakoa* (atekoa) etxe alboan baitu batzuetan bere aska.

Ez dago hitz errorik etxe inguruetara hurbiltzen diren ehiza txikientzat, hor Europako hizkuntza guztien gisa edo auzo hizkuntzari mailegatzen dugu hitza edo haien urruntzeko sasi-izena erabiltzen: andre eder, erbinude, ogigaztae *Mustela* edo izen neutroa, lepa hori (marta), lepa zuri (foina)

Biologian, sarritan, jendearen eta animaliaen anatomia zatiek izen berdina dute (behiaren besoa, zaldiaren besoa), baina batzuetan adeitasunagatik txerriarenak bereizten dira, *koroa*: txerri bizkarra, *gola*: txerri lepoa, *natura*: txerri emearen sexua eta *natura* hitza hizkera askotan etxe abereen alua da. *Ondokoak* diogu erditu ondoren andreen jaurtitzen dituzten ume ingurukoak, eta *karenak/karanak* animalienak.

Noiz nola, zerbait tabu denean ez gaitu harritu behar sinonimoen ugarietasunak, maiz herrixka batekoak dira, batzuetan, ibar batekoak, gehienik probintzia batekoak, baina hori Europan zehar edozein hizkuntzekin gizarte erakusgarri diren, “aberastasun” horiek aurki genitzake.

## INDEXA

## Hitz erabilienak sarreretan ere lerrokatuak

Adar	behor	eskuin
Aharrausi	belarre	esne
Aho	belaun	esperma
Ahur	bentrikulu	ezker
Ahuntz	besikula	ezpal
Ahutz	beso	ezpain
Aide	bidar	eztarri/estagorri
Aidemin	bihotz	ezti
Albo	bilo	eztul
Alde	biri	fardo
Altzo,galtzar	bizi	farranga
Alu	bisai	flaku
Antzu	bista	foltsu
Ar-/har-	bixika	frantza
Aragi	bittina	gaitz
Ardi	bizar	gale
Arrain	bizkar	gangailen
Arrano	bizi	gantz
Arrautza	boronte	gara/garmuin
Arsto	botz	gazte
(H)artzitu	bular	gera
Ase	buru	gernu
(H)atz	butz	gerri/gerruntze
Atzapar,atzamar	buzkantz	gibel
Aupets	buztan	gihar
Aurpegi	dardo	giltza
Ausnar	diafragma	giltzurrun
Ausiki	diti/titi	giza
Aurkientza	digeritu	gizen
Azkazal	dindil	golko/kolko
Azpi	dolore	golo
Aztal	duodeno	gorotz
Arnasa/hats	edan	gorputz
Atxiki	edoski	gorri



Atxilotu	egarri	gose
Atzarkatu	egoste	gozo
(H)atzeman	elder	gura
(H)atzitu	elikatu	gurin
Azala	eme	guruin
(H)azi 1	emakume	hagin
(H)azi 2	emazte	hanka
Azkordin	entzun	hartz
Azkabe	erditu	hego
(H) aztamukatu	ergel	herio
(H)aztatu	erhi	hezur
(H)azteria	eri	hil
Aztertu	(h)erio	hipofisi
Baraila	ernari	hodi
Bare	erne	hotzikara
Barra/marra	ero/ertzo	idun
Barrabil	errai	ikasi
Basa	errape	ikertu
Begi	erro	ikusi
Beharri	errun	ikutu
Behatz	eskaini	ikuzi
Behazun	eskatu	indar
Behi	esker	ipurdi
Iren	mun/musu	tripa
Irentsi	musu/mutur	tu/txistu
Irri	mutu	ugatz
Isats	nano	uko 1
Isil	narrio	uko 2
Ito	narru/larru	ume
Itsu	negar	un-
Izerdi	obi	ur-
Izorra	odol	urdail
Izpi	oin	urdin
Izter	oinkatil	urrats
Izur	oinaze	uspel
Izurri	ok-	ustel
Jaiki	ondoko	usu
Jaio	on-,or-,os-	uzker/puzker
Jan	opin, zotin	uzki
Kaden	or	uztar

Kaka	orbain	zahar
Kankail	(h)ori	zain
Kapilare	orin	zakar
Karen	orein	zaki
Kasko	orezta	
Kima	oritz	zaldar/zuldar
Kokots	orots	zango
Kolko	osagarri	zarramiko
Konkor	osasun	zauri
Kukula	pankrea	zikiratu
Kurrukska	pantza	zil/zilbor
Kutsu	papar	zimet
Lakar/lapar	perna	zimiko
Larru/narru	piko	zimur
Leka/liga	pikor	zintz
Legen	pito	zintzur
Lepo	pixa/txisa	zirritu
Lerde	poker	zisku
Lerden	potolo	zorne
Lipu/lupu	potro	zoro 1,2,3
Lo	pusiga	zorti/ txerri
Lohadar	puzker	zorro
Lohi	sabai	zozo
Loki	saihets	zulo
Lotu,lokarri	sarna	zungu/txungu
Mail	sei/sein	zuntz
Maskuri	seme	zukurutz/uzkur
Mazela/matraila	sen	zurda
Mehe	senar	zurgatu
Mihi	sendatu	zuri
Min	sendotu	zuringo
Mintz	sirats	zurmio
Moko	soin	zurrun
Mokor	sor 1	zurrapatu
Mokordo	sor2	zutitze
Motel 1	sudur	
Motel 2	sukar	
Motsa/mutxa	tiroide	
Mozkor	titi	
Muki		